

ERROETATIK MINTZO

MARTIN UGALDE



ERROETATIK MINTZO

Martín Ugalde

**Sendoa
Argitaldaria**

Azala: "Natur hesiak edo hunkipenen barealdia"

Azalaren Egilea: Jesus M^a Lazkano

© Argitaldaria: Sendoa

Inprimategia eta Fotokonposaketa: ANtza.

Lege Gordailua: SS 86/93

I.S.B.N.: 84-85846-77.X

Aurkibidea

2. Hitzaurrea

3.1. Zatia (sarrera)

Panpiñak

Umeentzako kontuak

4.2. Zatia (sarrera)

Ama gaxo dago (Antzerkia)

5.3. Zatia (sarrera)

Itsasoa ur bazter luzea da

6.4. Zatia (sarrera)

Hiltzaileak

Mantal urdina

Bihotza golkoan

7. Biografia

ESKEINTZA: AEK,k, KORRIKA 8an, MARTIN UGALDE onentzako argitara emandako liburua

Hitzaurrea

Euskal literaturaren belaunaldiak direla eta ez direla, Xabier Mendiguren adiskideak berriki esana dit beraiek –euskal idazle gazteek, alegia– ez dutela Saizarbitoriaz aurretiko narratzaileak ezagutzen, eta "ezagutu" aditzak, igartzen diot nik, "errekonoiztu, geureetako bezala hartu" esan nahi du oraingoan. Argudiatu dezake batek, nik egin nuen bezala, izenak eta izenburuak ekarriz, baina borondate ona ulertzen dizunaren irrifarre maitakorrez entzunda gero, niri erantzun bezala botako dizu euskal idazle gazteak, gaztetasunak ematen dion krudelkeria inbirigarriaz, baietz, zuk ahotan hartu dituzun horiek guztiek esistitzen dutela, eta beren lanak ere hortxe, hementxe, dauzkagula, baina ez direla garaikideak, horiek denak iragan mendekoak direla, esate baterako. Mututu egiten zaitu ebakuntzaren gordinak, eta isildu egiten zara amore emanaz. Orduan, errukirik gabeko zehaztasun bat gaineratzen dizu euskal idazle gazteak: "Badago salbuespen bat, badago gureetako den bat, kontenporaneoa duguna. Funtsean, geure narratzaile premua dugu: Martin Ugalde".

Martin Ugalde idazle bi

Eta ez idazle elebiduna. Lekuan lekuko, Ugalde idazle elebakarra da. Bere taldearekiko literatura hari bakarrez lotu ohi du, kutunen eta sakonen zaizkion kodeak erabiliz: venezuelatarrentzat hain berea duten gaztelania kasikan krioiloz, euskaldunentzat euskaraz.¹ Inoiz teorikoki planteatu izan dugunaren fraga ematen digu Ugaldek: garrantzizkoena ez dela zein hizkuntza erabiltzen duen artista batek, baizik eta nori zuzentzen zaion, zer talderi ari zaion, halako hizkuntzan. Alegia, zein komunitatetan kokatzen den sortzailea, eta zer nolako bortxa egiten dion bere gizarteari aukeratu duen hizkuntzak.

Esan genezeke, zentzu honetan, hots, "erdara" hitzaren zentzurik zehatzenean, Martin Ugaldek ez duela erdaraz idazten. Bi hizkuntza erabili ditu komunikazio artistikorako, baina ez nahasian edo gaiaren arabera hartuak. Aukera zehatza egin izan du beti gure idazleak bere etorria ubideratzerakoan, Marakaiboko golkoari gaztelania ez europear bat emanaz; Bizkaikoari euskara ahaleginez gorde eta landu bat ixuriz.

Bi idazle batean, beraz. Ez bata bestearen morroi. Ez elkarren itzultzaile. Ez bekaizti. Estilo eta gai desberdinak darabiltzatela biek. Esku bana hizkuntzako. Idazle bana mundu bitan, autonomo eta zehatz.

¹ 1969an Euskal Herriratzen delarik, gaztelaniaz jarraitzen du tarte batean. *El mar es una orilla muy larga* har daiteke nik esandakoaren salbuespentzat ipuinetan (*Tres relatos vascos* liburuan argitaratuko dituen beste biak latinoamerikar zikloaren luzapenak dira, nik uste. Ugaldek berak hitzaurrean idazki hauen euskaltasunaz dioena asko maitatzen du Ugalderen beraren geroztikako euskarazko obrak). *Las brujas de Sorjín* nobela ere tarte honi dagokio.

Martin Ugalde idazle latinoamerikarra

Noizbait egin beharko dugun lana da euskal idazleak erdaraz idaztearen arrazoinak aztertu eta emaitzak baloratzea. Azken bolada honetan oso joera arrunta ari zaigu bilakatzen, naturala, eta batere arrazoinketa edo teorizatorik gabe, euskal idazleak komunikabideetan erdaraz jardutea. Inolako kontzientzia txarrik gabe eta eskandalurik gabe. Eta hau berria da. Baina salbuespen, egokitze, aldaketa, bestetaratze edo direnak direlako hauen zergatien eta premien azterketa egiterakoan ziurrik joko nuke nik alde aurretik, Martin Ugalderen erdarazko literaturak maila edo kokagune berezi bat behar lukeela.

Biderik zailena aukeratu zuen Ugaldek, edo bideak berak hartu zuen Ugalde, berdin dio. Derrotaren lantura landu zezakeen (Monzonen *Urrundik*, Eizagirrereren *Ekaitzpean*, aski izenburu adierazgarriak biak...), edo Amerikako kronikak eskaini ziezazkigukeen (Irazustaren *Bizia garratza da*), edo Euzkadi idealizatu bat gomutatu (Irazustaren beraren *Joanixio*). Baina ez.²

Martin Ugalde begira zitekeen literatura gaztelaniaz idaztetik, azken finean euskalduna zen orduan ere, duela berrogei eta gehiago urte. Gorde zezakeen bere grina, –edo bere banitatea, gaiztoz pentsatzera– euskaldunontzat, beste askok egin zuten bezala. Baina lekuan egole, dagoenean lekuko, Ugaldek bihotza du golkoan, ezin ditu begiak itsutu aitzinean bortitz eta mutu, apal eta ozen, daukan errealitateari. Gainez egiten dio humanismoak alde batetik, eta literatur senak bestetik. Ezin du isildu.

Esanbehar horrek bilakatu du Martin Ugalde hain kasu bakan eta bitxia. Horma bereizgarri bat jaso zezakeen bere lan profesionalaren eta bere lan sortzailearen artean (gaztelania/euskara). Ez zuen hala egin, eta latinoamerikartu egin zen gorputz-ispirituz, Venezuelaren kontzientzia berria osatzen laguntzeko: "inmigranteak" hartzen ditu gai, ez "emigranteak"; etorkinak, ez joaileak, Amerikatik bertatik behatzen duenaren perspektibaz. Kasu bakan eta bitxia, Ameriketako bizi, bizi izan, eta hango errealitateak ukitzen ez balitu bezala idatzi ohi diguten hainbeste euskal idazle zeken (Nola bizi zen Emeterio Arrese Estatu Batuetan? Zer egiten du Quiton Orixek? Nola tratatzen zuen Irazustak neskamea? Ikusi ote zuten inoiz Euzko Gogoakoek indiorik?) eta euskaldun idazle txepelen artean (ez dezadan izenik eman, badago eta amorratua dabilenik bere izenaren bila bazterretan). Amerika bizi izan duen euskal idazle bakarra dugu Martin Ugalde. Eta bizi ez ezik, bizi zati garrantzitsu bat zor dion lurraldeari ere jakin du ematen bere hitz umotua. Martin Ugalde ez baita euskal idazlea, idazlea baizik.

Martin Ugalde euskaldun errebelatua

Caracasako kritiko guztiek aitortu zuten, aho batez, harrigarria zela Ugaldek venezuelatartasunaren ñabardurak hain sakon menderatu izana, eta hain era dotorez baliatzea literatura egiteko. Gurean, honela zioen Anjel Lertxundik: "Harrigarria du sena. Nola –eta ezinezkoa dut oraindik egia dela sinistea– lezake euskaldun batek, beste

² Amerikan idatziriko lehen euskal literatura osatzen dute lanok, 1946-1950 tartean argitaratuak Buenos Airesen eta Mexican.

herri bateko, Venezuelako giroa, haize telurikoa... beregana eta adieraz?.³ Horren gakoa, nik uste, Ugalderen beraren dohaiak bazter, euskaldun errebelatuaren sindromeak damaigu. Izanen ote zuen gure idazleak bertako mintzaira eta berezitasunekiko horrenbesteko atxikimendurik, Venezuelak espainola ez beste balu? Ezezkoan nago.

Europatik heltzen den euskaldun hura gerlatik eta itxiturretatik zetorren, atzera behatu ezinik gatzeko estatua bilakatuko ez bazen: atzean uzten zuena herri baten suntsipena zen. Ugalde gazteak bazuen horren kontzientziarik. eta halabeharrez, derrotaren gainean egoteak dakarren duintasunaz, euskaldun errebelatua zen. Nola hartuko zuen, sortzeko tresnatzat, aberria ukatzen zion hizkuntza inperionahia? Ugalde errebelatuak ezin zuen sortu gaztelaniaz. Beste hizkuntza bat bilatu zuen, haizeak lau eta liburuak bost Venezuelan, bera bezalako kazetari ohartuek mintzajeetarako duten makurtasun eta sentsibilitateaz. Eta hala bilakatu zen idazle latinoamerikarra, Europatik zekarren bigarren hizkuntza boteretsuaren kontra Sarmiento berri bat bezala errebelatua, euskaldun betea ezin izanik, kolonizatua izan nahi ez zuelako. Martin Ugalde ez da Europako ez ikuspuntuaz ez mintzairaz ari den idazle zeharraldatua. Itsasoz jo du Amerika, ez hegazkinez. Lurraren arrasean biziko da, eta itsasoz helduriko beste emigranteekiko elkartasuna eta ulertzapena landuko du. Bere ipuinetako heroiak ez dira gure literaturako indianoak, amerikanoak, besteak beste ez duelako euskaldunentzat idazten. Latinoamerikarrentzat idazten du latinoamerikar bilakabidean dauden galego, italiano. hungariar, portugaldar eta indioei buruz. Ez du barrenik literatura idealista bat egiteko, irakurgai entretenigarriak asmatzeko. Euskalduna da, baina euskaldun errebelatua, horregatik hurbiltzen da aberria utzi eta teiltupe atseginago bat antolatu nahi dutenengana, gaztelania berri bat, askatzaile eta ez zanpatzaile bat, asmatzen laguntzen diotenengana. Bera ere kolonizatzaileen ihesi baitator, emanzipatu egin behar du bere burua. Eta material berri hauekin Martin Ugaldek artea egiten du, deserrotuari kontzientzia berria osatzen lagunduz, etnia eta kulturen arteko kontzientzia zabal eta elkartasunezko bat. Hori dugu, hain zuzen, literatura latinoamerikar modernoaren ezaugarri sakonenetako bat.

Martin Ugalde ipotxen herrian

Oraindik orain egin edizioei esker,⁴ Ugalderen lan latinoamerikar guztien ikuspegi zabala har dezakegu. Ez bere kronika profesioaletan, ez bere personaia literarioetan ageri da euskaldunik. Harrigarria dirudi lehen ikusi batean, batez. ere Ugalderen

³ Ikus *Cuentos de Inmigrantes*, Ediciones Vascas 1979ko edizioak dakarren eranskina, eta Zeruko Argia, 522. zenb. Epaillak 4, 1973.

⁴ Martin de Ugalde, *Cuentos I. De la nueva tierra y los inmigrantes*. Amerika eta Euskaldunak. Anthropos, 1992. Iñaki Beti irakaslearen sarrera, azterketa sakon bat Ugalde latinoamerikararen lanari buruz.

Martin de Ugalde. *Cuentos II. De la inmensa soledad del hombre*. Amerika eta Euskaldunak. Anthropos, 1992.

Martin de Ugalde. *Mientras tanto fue creciendo la ciudad*. Euskal Herriko Autonomi Elkarte Administrazioa. Kultur Saila, 1992. Erreportaiak. Idazleak berak eginiko biografia laburra sarreran, bere venezuelatartzeaz eta bestez oso interesgarria.

ipuigitzan inmigratioak duen garrantzia kontuan hartuta. Baina bere literaturan eta bere biografian murgildu heinean gero eta garbiago soma ditzakegu arrazoinak.

Nolakoa izan ote da gure idazleak Caracasen aurkitu duen euskaldunaren arketipoa? Susmoa dut bazukeela antzik Ferreirok aurkitu zuen galegoarenarekin: *Gizarajoa ni. Lur agindua, / nik bilatzen nuen Galizia emigratua, / hondakin putzu bat baino ez zen, / ardi etsituen ikuilu bat: / lukurreroen enporio / zikoitzen leize / dendarien zulo / lagun zaborketarien babesleku. / Ipotxen Herria / eskasek betea / ezjakintasunak jana / bekaizkeriek eta grinek agindua / tori-ekatzu beste afanik eta helbururik gabe / edo sal-erostazu, okey, eskuan ordain.*⁵ Ez zioten barkatu gordintasuna Ferreirori exilioko Galizia ofiziala ordezkatzeko zutenek, kontzientziak astintzen baitzituen. Nekez lortuko zuten halako ipotxek Ugalde baten personaia maitekor bilakatzea. Caracasko Arismendi hiribideko izkineko Centro Vascokoa, Puerto La Cruzeko Euskal Etxekoa, Caraboboko Vasco-Venezolanokoa satiran landu beharreko personaia zukeen Martin Ugaldek, eta hori ez da gure idazlearen generoa. Andoaindarrak maitasunez hartu behar ditu personaiak, errukiz askotan, trajedia ulertzeko eta uler erazteko. "Gaiak aukeratzen nau ni, ez nik gaia" adierazia du maiz elkarrizketetan. Ez zuen ulertzeko moduko euskaldunak aurkitu, edo aurkitu baldin bazuen –egon, badaude– ez zuen heroi bilakatu. Neira Vilasek idatziko zuen, eta urte berean, Ferreirok salatutako Galizia emigratuaren kontrapuntua personai guztiak gailego xume eta langileetarik harturik.⁶ Gure idazleak ezin bide zuen horrelakorik egin. Euzkadi ofizialaren boterea handia zelako Caracasen alde batetik (euskaldunak lanerako giharra dakar, zintzoa da, ez da gorri, Miami koxkor baten way of live aurkitu behar dute erbesterratu berriek Caracasen), eta bera ez zelako, orduan, joan-etorriko emigrantea Ferreiro bezala edo Neira Vilasen moduan Cubako babeslektutik Buenos Airesko galegoei buruz ari zena, bestetik. Hori Ugalde idazleari zegokionez. Ugalde errebelatuari dagokionez, bere alderdiko lanak lehen (EAJ) eta exilioko Eusko Jaurlaritzakoak gero (kontseilari) euskal komunitatea gizamaila sozialen gainetik egituratzera behartzen zutelako (Centro Vascoko lehendakari izateraino).

Familiako eritasunek senide artean omen dute sendagarri. Martin Ugalde pertsona ezaguturik, pentsatzekoa da gure osaba-izekoen gauza asko isildu behar izanen zituela, bakearren eta batzearren. Haien eza bera, ordea, adierazgarria da besterik gabe. Ez ziren duin izan Ugalderen lumaren puntarako. Baina agian beste idazleari utzi dio, latinoamerikarra ez denari, euskaldungo alienatuaren kritika egiteko lana. Ez da hipotesi hutsala, Martin Ugaldereren euskal literatura oraindik osatuz doan gorputza denez.⁷

Martin Ugalde euskal idazlea

Harrigarria idazle hau. Latinoamerikarrei erdaraz idazten ez dien bezala, euskaldunoi ere gureraz egiten digu. Ez hemen dugularik bakarrik. Han izanik ere hona zen, beste

⁵ *Viaxe ao país dos ananos*. Celso Emilio Ferreiro. El Bardo, Barcelona 1968. Haserretu, adiskideak ere egin zitzaizkion. Luis Seoanek berak salatu zion juzkua orokorreki hartua izana.

⁶ *Historias de emigrantes*, Xosé Neira Vilas. Montevideo, 1968.

⁷ Arketipoak ez luke tipologia agortuko. Caracasen mugimendu politiko handia zegoen atzerriratuaren artean. Dirugintzak ez du derrihor abertzaletasuna ukatzen.

euskal idazle erbesteratu batek dioskunez. Goiztar ekin zion unibertsaltasuna versus txokokeria, burua versus bihotza kontrakuntza faltsuari irtenbide ematen, saiakeran *Unamuno y el vascuence* tesiarekin, literaturan *Ama gaxo dago* antzerkiarekin, praxian bere jarduera pertsonalarekin. "Herria mundura" da Sabinen leloa, eta azkenik, munduak, mundu zabalak, gurea ukatzen ez duela ikasirik, Migel etxeratu eginen da gaxo dagoen ama sendatzera. Ez dakigu Migel mikelduko den (ez ahal zaigu sabinduko!) guztiz unamunotu baino lehen. Ugalde guti dauzkagu. Claveria burlatzen zen Etxabez eta Garibaiez, Aresti burlatzen zen Garatez, eta Ugalde burlatzen da, ez koplaz, bai obraz, gaur presaka eta ahal nolaka euskal –de expresión castellana– literaturaren eta kazetaritzaren historian lekutxo bat eskatzen dabiltzanez.

Harrigarria euskal letretan egiten duen sarrera 1961an, *Iltzalleak* izeneko bost ipuinen bildumarekin.⁸ Andima Ibiñagabeitiak egiten dion hitzaurrean "guda-literatura" bataiatzen du Venezuelan euskaraz argitaratzen den lehen liburu hau. Ez gudakoa, edo gudari buruzkoa (ipuin bakarra lehendik Galindezek gaztelaniaz eta Altubek euskaraz erabili zuten gaiaz), borroka-literatura baizik, esanen genuke egungo terminologiaz, Hego Euskal Herriko erresistentzian kokaturiko fikzioak. Zabalkunde txipia izanen zuen noski liburu honek, isilekoa, sasikoa. Pentsatzen dugu iritsi behar zuen eskuetara iritsiko zela, ordea. Horrengatik sumintzen gaitu orduko prosagintzan eta idazle gazteetan izan zuen eragin eskasak. Eta gure literaturaren historietan halako irakurri-gabeko-aiquak besterik merezi ez izana egundaino.

Hasieratik, Ugalde egunerokotasunari lotua ageri zaigu, ihesik egin gabe, fusilaketak, txapelokerren harrokeria, tortura, torturaren aurreko izua, eta salararien lana bezalako gai mingarriak landuz egitura zehatz eta borobiletan. Nik esanen nuke liburu honek sartzen gaituela berriro idazleok geure gizartean. gerraz eta gerraurrekoaz etenik gerraondoa onartzen duelako, hogeitabost urte geroago azalduko den Ehun Metro nobelaren aitzindari ezezaguna neolizardismoak eta herrixkatasunak hartutako literatura uzkur, herabe, lainogile hura ukatuz. Ugalderena bide biziagoa zen, aberatsagoa, existentzialismo mimetiko batena baino. Bakarrik gelditu zen, eta urrun.

Ugaldek ez zuen hartu euskara orduan nagusi eta txalotua zitzaion bere literatura latinoamerikarrari senide txipi bat egiteko edo aberri zaharrari hileta jotzeko. Bestek literatura folklorikoa egiten dutelarik, berak biziari, garaiari loturiko literatura egiten digu. Gazteak ditu protagonista, gazte borrokariak, kaletarrak, kontzientziatuak, modernoak. Estilo zuzena du, erretorikarik gabea, konzentratua. Esaldi labur batez adierazten du sarri tensio dramatikoaren leherketa. Ez, Ugaldek ez du hilek bezala idazten. Gerra bizi izan dutenentarik, irakurle gazteari, garaikideari, zuzentzen zaion idazle bakarra da. Bere tematika ausarta da, eta bere euskara –noizbait!– ahozkoa da, kalekoa, bere akats eta guzti. Edizio berrian, batuak ez dio freskotasunik kendu.

Martin Ugalde ipuigilea

Berak maisuetarikotzat jotzen duen Horacio Quirogaren ipuigile perfektorearen arauetan lehena da maisuari fede izatea. Zorionez, Ugaldek ez zeukan euskal literaturan eredu

⁸ Martin Ugalde, *Iltzalleak*. Caracas, 1961. Bigarren argitalpenal. *Hiltzailleak*, Erein 1985.

hartzeko moduko maisurik, eta izan balu ere zaila zukeen haren berri izatea. Poe, Txekhov, Maupassant, Kipling eta latinoamerikarren tradizioan elikatu behar izan zuen. Eta ezagun du: erretorikarik gabe, zehatz, elementu formal apurrekin, mekanismo matxurezinak asmaten dizkigu. Dohain hauek izanik iduri luke idazle hotza izan behar zuela Ugaldek, gizakiari urrundua. Ezta antzik ere. Gizakiak dira bere protagonistak, ez hizkuntza edo teknika bera. Ugaldek hastio du distira, sua ematen du. Eta irakurlea erre egiten da. Ipuin bihozbera bat irakurtzen ari zarelakoan irriño bat egiten duzu, eta azkenean ausentziari buruzko parabola mingotsa irensten duzu; mantal urdin bat zintzilik dagoela eta usteko duzu Lizardik otarre huts bati egin zion poema haren antzeko errekreazio baten aurrean zaudela, baina lehen orrialdea irakurri orduko ohartzeko zara ikara ematen duen zahardadeaz ari zaizula eta azkenean ekintza xume baina askatzaile batek mundu oso baten salaketa egiten dizu; serora bat hartzen duelarik protagonista bakardadearen kronika bat osatuko dizu...

Bere lehen ipuin bilduma gerraondoari eta erresistentziari du eskainia; bigarrena, *Mantal Urdina*,⁹ zahardadeari, bakardadeari oro har, borroka klandestinoan giroturiko bi ipuinekin batera, denak ere egileak oso bereak dituen gaiak. Bigarren liburu honetan, oso garatua eta landua aurrenekoaren aldean, ezaugarri tekniko nabarmen eta ez artifiziozko batez baliatzen da Ugalde *Erregetako izpiritu beltzarana* eta *Sugegorriak ilunpean zain* izeneko ipuinetan. Narratzailea hirugarren personatik lehen personara aldatzen da, etenik gabe, protagonistak berak hartzen duela kontakizunaren haria. Honek, ikuspuntuaren aunitasunaz gain, halako benetakotasun bat eransten dio narrazioari, irakurlea hurbilduz. Gerora, *Bihotza golkoan*,¹⁰ sakondu egingen du teknika hau, aditz laguntzaileak ere errepikan aldatuz adibidez izen bereko ipuinean, arintasun handia lortuz, edo lehen persona hirugarrenarekin identifikatuz giro teluriko batean (*Gerrateko lehen kontaktuan*). Eta Ugalderen saio teknikoak ariketa banalak ez direlako frogatzen, amets –edo idurikazioa– egiten duen haurrak asumitu, bere gain hartzen du, aitaren ekintza larria. Teknika esanahiaren zerbitzuan. Bere baliabide guztien jabe, betetasunean, ageri zaigu hirugarren liburu honetan, zazpi ipuin zein baino zein ederragotan fikzionatzen dizkigula bere gai nagusiak: bakardadea, zahartzarora, gerrateko oihartzunak egun, salatariak, zorotasuna, eta gaiak eta emaitzak hogeitaz urteko gazte baten izpirituan idatziriko ipuin bitxi bat, *Giltza*.

Idazle bi, baina bihotz beretik. Hirugarren munduan bizimodua atera nahi dutenen epika isildua egin digu idazle latinoamerikarrak. Europako gizarte garatuago honetan baztertuak eta ahantziak direnen tragedia izkutatua egin digu euskal idazleak. Eta euskal idazlea euskalduna ere baden aldetik, bere herriak egin eta egiten dituen borroken berri ematen digu. Artea ararteko. Helburua hitzaz haratago.

Martin Ugalde erraldoien herrian

Idazle bat Altzon, alegia. Txipia herria, den baino txipiagotua orain, handi azaldu behar dutenek berek altzoan hartzeko modukorainotua. Halako herrira heldu da azkenik

⁹ Martin Ugalde, *Mantal Urdina*. Erein, 1984.

¹⁰ Martin Ugalde, *Bihotza golkoan*. Erein 1990.

Martin Ugalde. Herritarra, idazle kasta bat beti izan ohi den bezala betebeharrak zibikoen jakile, txipikerien jasangaitz, euskaldun errebelatua izaten jarraitu du, literaturari, hizkuntzari eta hizkuntzaren erakunde bizienei emana. Erraldoiek destaina egin beharko diote beren altzoan, lotsagarri uzten dituelako. Beraien destaina, funtsean, Caracasko ipotxek "ipuin arrotzak" idazten zituen Ugalde izeneko hartaz egiten zuketena berbera da, gure erraldoi moderno hauek ez baitira ipotx hormonatuak besterik, zorri hil biztuak. Erraldoiek ez dute errebelaturik nahi, horregatik da egun idazle hau eredu bakarra bere belaunaldian. Erraldoi izateko eduki dituen aukerei uko egin dielako, zenbaiten gorrotoa ere merezia du. Administraritzaren autonomoan kultur lan ederrik egin zezakeelakoan, atzerrian zuena baino postu apalagoan aritu zen hemengo Jaurlaritzan; bere asmoak goragoko erabaki zehatzek zapuzten zituztela ikusitakoan, utzi egin zuen; bere betiko alderdiak orratza galdu zuela eritzirik, patxada hautsi zuen karnetarekin batean. "Hau esaten dit nire kontzientziak, ajola gutxi kontsignak!" dioen gizona ezin izan erraldoien harri huts jasotzen txalozale. Are gutiago bere kontzientziak kausa ederretarako daukan jaidura ezaguturik. Eta batek, literaturzalea ere baden neurrian, onartu beharra dauka idazle gazteen iritzia: sentsibilitate garaikidea duen azken, edo lehen, idazlea dugu Martin Ugalde. Hala hartzen du, ongi merezirik, gazteek sortu eta gazteek mantenduriko AEK erakundearen gorazarrea aurtengo Korrika manifestan.

Altzok benetako erraldoi bat eman zuela aitortu behar dugunez, espero dezagun geroak esan dezan Andoainek Martin Ugalde bat ere eman zuela.

*Koldo Izagirre
urtarrila 1993*

Sarrera

Sorginaren urrea (1966), Panpinak (1968)

"Erbestean guraso euskaldun eta euskaltzaleari sortzen zaizkion estuasunetako bat, haurren hizkuntza da. Eskolarako adina duten arte, etxe-barrua gotorleku bihurtzen da; baina eskolara joaten hasten diren bezain laster sortzen dira haurren baitan gonbaraketak, ea bertokoek erdaraz dituzten herritasuna adierazten duten seinaleak euskaldunok baditugun: armada, soldaduak, polizia eta ipuin liburuak, esate baterako. Sorginaren urrea argitaratu zenean Unai 10 urte zituen, Itsasok 9, eta Ainarak 2; Panpinak idatzi nituenean, dagoeneko amarekin euskal Herriratzeko kuzinoa hartu genuen, neroni etortzeko baimena urtebete gero arte lortu ez banuen ere".

Panpiñak

*Nola mamuxelak egin, nola antzestokia gertatu,
nola antzerkitxoak idatzi ta nola panpiñak antzestu.*

UGALDE" TAR MARTIN

Eskeintza:

Gure seme-alaba: Unai, Itxaso ta Ainarari.

Eskerrak:

Liburutxo au egiten lagundu diraten guziei.

*Batez ere, Batez ere, erabili ditudan liburuen egilleei, oiei zor
baitiet emen esan detan guzia.*

*Nere anai Joxeba ta illoba Karmeleri; berek egin bait dizkirate
emen azaltzen diran marrazkiak.*

*Ta eskerrak liburu batzuk inguratzen lagundu diran Arozenata
Maggy Fracketeri ere.*

Euskera ta umeak

Euskerak umeetatik berpiztu bear du.

Batetik, gaurko umeak euskaraz ikasten ba dute, ta umeak euskeraz itz egiten badute, gaurko ume ez geran euskaldunak euskaraz egitera beartuak egongo gera. Umeen eragiña danon eragiña izango dala ikustea ez da zailla.

Au sikoloji aldetik.

Gure errian bostetik batek egiten ote du euskera? Orrenbestean ba giña! Ta, egia esan, orren gutxirekin konformatzen ba gera, euskaldunok konformatu onekoak gerala ezin ukatu. Situazio onetan ba gaude ez daukagu txantxetan ibiltzerik, eta ekin bear diogun lan oneri al dan probetxurik aundiena atera bear diogu. Ez gaude, gero, denbora galtzeko. denbora gure aurka dijoa, gero! Ala, euskera-lan au egiteko al degun biderik ekonomikoena arkitu bear degu. Ta, dudarik gabe, bide merkeena umeena da.

Zergatik?

Batetik, umeak dauka orretarako denbora, ikasteko; zarrok, berriz, ez degu ezer ikasteko asti aundirik arkitzen. Eta umeak ikasteko daukaten denbora ori, ikastolan bertan dala edo ikastolatik kanpora dala, zarrok baiño askoz ere obeto aprobetxatzen dute, bere buruan aixa sartzen baitira ikasbide berriak, eta batez ere izkuntzak.

Bestetik, umei erakustea askoz ere merkegoa da zarrei erakustea baiño. Umeak ikasten duanak irurogei bat urte iraungodio, Jaungoikoak lagun, batez beste; ta zarragoak ikasten duan pixkak ez dio, batez beste, erdia iraungo. Gaiñera, umeak bere gurasoei ikasi-eragiñetan jarriz gaiñera, beste urren datoztenen bi jenerazioei erakutsiko die, ta zarrak, alegintzen ba dira ere, erdia ere ez dute egiterik izango.

Ara ba, zergatik umeen bidea merkegoa dan:

1o Gurasoak beartzen dituzte.

2o Denbora geiago dute, ta gaiñera obeto aprobetxatzen dute.

3o Ondare ohea, ugariagoa, izango du euskerak.

Emen ez dago, bada, kezkarako tokirik: umeen bidea da euskararen bidea, edo ez dago biderik.

Ta umei nola ondoen erakutsi?

Umei nola erakutsiko diezu ba, ondo ta errez, jostatzen ez bada?

Gure errietan ari dira orain, banaka-banaka, ikastolak gertatzen. Ez da lan makala! Au da bidea. Baiñan ikastola oietan ez ditzagun umeak aspertu. Euskeraren bideak ez dira berez errezak, eta ez ditzagun, gero, geiago zaildu. Gure umei euskera erreza eman bear diegu, gero zailtzen joango da ta; umei erriko euskera, etxeko euskera, gurasoei ta kalean entzuten duten euskera eman bear diegu lenen; mundu onetan sentitu ditezela; gero euskera ori irakurtzen asten diran neurrian aberasten joango zaiote, ta euskera aberats orrekin, bere burua jazten asiko dira, ta bere pentsabide berrietarako erremintak izaten asiko dira. Baiñan aurrena bere neurrian itz egin bear diegu, bere buruko ta bere sendiko ta bere munduko neurrian. Ez dezagun, gero, ume oien euskera bere aoetan geok ito! Ume oiek ikastolan ikasten dituztenitzak bere aitatxo ta amatxorekin itz egiteko ez badute balio, ume oiek ikastolan erabiltzen asi diran berboak ez badira bere

etxean erabiltzen, ume oiek ikastolan aitarekin ta amarekin euskera dala ta diskutitzen jartzen baditugu: "trena" ez dala, *bultzia* baizik; "automobilla" ez dala, *berebilla* baizik, guk umeen bidetik egiten ari geran lana alperrikakoa izango dala uste det.

Ez gaitzala arrokeriak itxutu, ez gaitzala gure bakarkeri arrokeriak ito.

Izkuntzak, izkuntz guziak, ez dira berez jaio; izkuntzak azi, bizitzen diran zerbait dira. Izkuntza guziak dituzte beren artean artu-eman aundiak. Ta emendik aurrera, kultura izkuntzen alboan joateak ez digu kalterik egingo, on baizik. Neurriak bear dira onetarako, noski, gauza guzietan bezela, ta ez degu orregaitik euskera erdaraz itz egin bear, euskaraz baizik; baiñan bakarkeriz iñoren kutsurik gabeko izkuntza egiten asten bagera, euskararen eriotza gertatzen ari gera.

Utzi akiozu umeari trena esaten, eta automobilla esaten, ori da gure gaurko euskera ta.

"Tren" bera españarra edo gaztelera dala uste al dezu? Prantsesez "train" idazten da, ta *tren* irakurtzen da; ingeleraz ere "train" idazten da, ta *train esan*. Ta beste izkuntza askotan ere berdin.

Gu besteak, izkuntz aberatsak, baiño arroagoak izan bear al degu ba da? Nundik!

Ara or bestea: "automóvil"; españera dala uste al dezu? Prantsesez ere "automobile" idazten da, ta irakurri ere ia berdin; ingeleraz "car" esaten da maizena, baiñan "automobile" ere bai askotan.

Ta orrela millaka ta millaka itz.

Ta guk, españeraren ta Prantsesaren erdian iraungo badegu (ta iraun bear!), aldameneko izkuntzekin bildurrik gabe artu-emanak izan bear ditugu.

Edo ilko gera!

Orregatik, maixu, guraso: umei erriko euskera erakutsi akiozute; gero, irakurtzen dijoan bezela, bere burua zailtzen dijoan bezela, euskera aberasten eta sendotzen berez joango da ta. Ta gaiñera, izkuntzaren indarra joskeran dago itzetan baiño geiago. Ez dezaiegun kutsatuta dauden erriko itzei orrenbeste bildur izan.

Baiñan, batez ere, ez dezagun ikastola eta etxearen artean oztoporik jarri, ez dezagun irakaslearen ta gurasoaren artean atzerabiderik jarri.

Gero, ez gaitezen berbo sintetikoak zaillean, memoriz, erakusten asi. Ta itz errezak, berak ulertzen dituan esan-naikoak eman akizkiogun aurrena. Bear dan bezela idatzita, ori bai!

Idazkera bideetan argi ibilli bearrean gera.

Gure euskerak ez du orain arte literatura aundirik izan, eta, batez ere, izan deguna ez du erriak irakurri, ta itzak esaten diran bezela idatzi nai izaten ditugu askotan. "Yo he estau", esango dizute erdaldun askok, baiñan idazterakoan "Yo he estado" idatziko dizute, idazten ba dakite beintzat. Beste erdaldun askok, berriz, "Yo he eztao" esango dizute, baiñan idaztenbadakite, gero "Yo he estado" jarriko dizute. Zer esan nai du onek? ba, jendeak era askotara itz egiten duala gaztelera, baiñan denak era berean idazten dutela, ta alkar ulertzeko neurrietan ondo konpontzen dirala. Gurea ere ala da. "Ez diot olakoik beñe ikusi", esango dizu gipuzkoar batek; bizkaitar batek, berriz, "Ez dausot olakoik iñoz ikusi" esatea; euskera bizirik nai badegu, arkitu bear degu danok kultura bideetan itz berdiñak eta era berdiñak erabiltzeko bidea, batetik, eta bestetik ikasi bear

du ume gipuzkoarrak: "Ez diot olakorik beñere ikusi" idazten, eta bizkaitarrak: "Ez dautsot olakorik iñoiz ikusi" idazten.

Gai onetaz oso luze idatzi genezake; ta itz egin bear degu. Baiñan ez da au tokia, ta garaia ere ez.

Umeentzat ari gera.

Erakutsi dezaiogun umeari itzak bear diran bezela idazten, baiñan itz errezak erabilliaz; erakutsi dezaiogun umeari joskera jatorrean idazten, gauzak geiegi beartu gabe.

Umeetzaz ari baigera izketan.

Gero joango gera umeei gauzak zailtzen, aberasten, bere buru-bideak zailtzen dijoazen bezela. Baiñan egin dezagun gure umeen euskera etxeko euskerarekin batera joango dan izkuntza, bata-besteari, seme-guraso, guraso-seme, alkar errez eta lanik gabe komunikatzeko bide egokia ta, al ba da, zergatik ez? al ba da gozoa.

Ba al dakizute umeentzako bide gozoena zein dan? Jostaketa bidea.

Umeak, egia esan, dana jostatzen ikasi bear lukete, edo jostaketa bidean beintzat. Lana egiten ere ikasi bear dute, bai, baiñan lan egiten ere jostaketa bidean ikasi bear lukete. Orretarako, berak lan gutxiago ta errezago egin dezaten, guk lan geiago egin bear.

Ala bear.

Ara emen dakarkiten bidea: panpiñ bidea.

Panpiñak: bide ona

Izango ez da ba, jolas bidea da ta!

Panpiñak era askotara erabili genitzake. Umeei par egin arazteko bai, noski, orretarako asmatuak izan ziran eta. Baiñan gaurko pedagogi lanak umeei gauzak errezen erakusteko bideak arkitzen alegintzen ari diranez, umeei ikastola gaiak erakusteko ere bide ona dala uste det.

Ala, gure panpiñak ez dira ba umeei par egin arazteko bakarrik izango; baita umeei ikastola bideak errezteko ere.

Batez ere euskeraren bideak errezteko.

Ez da gure artean panpiñ askorik izan; gure aurtzaroan ez genduan olakorik ikusi. Erri aundietan ba liteke gure garaian ume batzuek panpiñak ezagutzea, baiñan ala ere oso gutxi. Ta erderaz!

Gure ikas-bide guziak orain arte izan ditugun bezela.

Euskeraz ere zerbait egiñak ba gera, esaten diratenez. Gerra aurretik Gregorio Beorlegi ta Joxe Egileorek egin omen zuten Txontxongilloen Teatro Txikia. Neroneri bi antzergille oiek mutil koxkorretan makiña bat par egin izan naute Andoaingo antzokian, baiñan ez nituen txontxongillo edo panpiñ lanetan beñere ikusi. Ez zuten asko ibiltzeko denborik izan, noski.

Baiñan, egia esan, panpiña ez-ezaguna da gure errian.

Beste erri aurreratu askotan, ordea, antziña-antziñatik izan dira ume ta zarren jostaillu maite-maiteak.

Ta panpiña zer da?

Jaques Chesnaisek dionez¹ panpiña au da: "Sokaz edo biatzez pixtutzen dan egurrezko edo kartoiezko edo oialezko Antzerki personaje bat".

Panpiña ez da mamuxel bat. Bai zera! Mamuxela ez da mugitzen, ta panpiña bai; mamuxelak ez du itz egiten, ta panpiñak bai.

Inork ez daki panpiñak nunjaioak diran.

Antziñako erri geienak ezagutu zuten panpiñekin egiteko arte au, baiñan batez ere bi erri dira gaur beraren sor-leku bezela geien aitatzen diranak: India ta Txina.

Indiarrak diotenez, Parati izeneko beren Jaungoikoak sortu zuan lenengo mamuxela. Oso ederra izanik, mendi zulo batean gordeta edukitzen zuan, eta noizean bein bakarrik ateratzen zuan pasiatzera. Ala, bere senar zan Shiva Jaungoikoa izkutuko ibillera oietzaz konturatu zanean, bere atzetik joan eta bere mamuxel ori ikusi zion; orrenbeste gustatu omen zitzaion mamuxela, bizia eman eta munduko umeak poztutzeko bialdu zuan kamioak zear.

¹ *Historia générale des marionettes*, Jacques Chesnais, Bordas 1947.

Txinarrak diotenez, berriz, beren enperadore zan Mhuk kontratatu omen zuan Yen Zen panpiñlaria bere jauregikoak alaitu zitezten. Egia esan, munduan egin diran arkeolijji billaketa geienetan arkitu dira panpiñ arrastoak, eta millaka urte ba dituala ba dakigu.

Ejiptarrak marfilezkoak egiten zituzten, grekarrak lur egosiarekin, erromarrak egurrarekin. Munduko museoetan erakusten dira gaur arrasto oien ezaugarriak.

Gaur bi eratako panpiñak ditugu: goitik erabiltzen diranak eta betik edo azpitik erabiltzen diranak.

Goitik erabiltzen diran panpiñak:

Burni-ziri-panpiña.- Burni-ziri batetik zintzilik hartzen dan panpiñari deitzen zaio onela; burni-ziri au burutik asi ta panpiña darabilkin eskuraino eltzen da. Besoak eta zankoak lokarrien bidez mugitzen dira.

Lokarri panpiña.- Lengoa bezela, burni-ziri panpiña bezela, egiña dago. Baiñan emen burni-ziriaren ordez bi lokarri dauzka. Lokarri oiek egurrezko tresna bateri lotuta daude; tresna onen bidez ematen zaio panpiñari bere bizia.

Azpitik erabiltzen diranak:

Axaleko panpiña.- Egurrezko edo kartoizko buruari oialezko alkandora edo soiñekoa erantsita egiten dan mamuxela da. Ara nola erabiltzen dan: soiñekoaren barruan eskua sartu, biatz erakuslea ("índice") lepotik burura sartu, ta beste biatzak panpiñaren besoak bezela erabiltzen dira.

Silueta panpiña.- Aurretik edo saietsetik ikusten diran personajeen siluetak dira, ta sokaz bi edo iru mugi-alde egiteko adiña antola daiteke.

Makil panpiña.- Makil batean josia dauka gorputz guzia. Aixa okertzen diran makiltxo me batzuekin egiten zaizkio besoak.

Tekladi panpiñak.- Aurreko bien zerbait ba du onek. Makil batean josia dago, baiñan gorputza mugi liteke; ta besoak, zankoak eta burua sokaz mugitu litekeenak dira; soka oiek tekladibatera lotuak daude. Tekla bat ikutu, ta ara mugi-alde bat.

Plegu panpiña.- Ol batekin egiten da, ta ate opo edo bisagra batzuen bidez plegatu litekena da.

Oiek dira, ba da, panpiñ bide ezagunenak.

Nik ez ditut, noski, emen danak erakutsiko. Bide oiek danak ikasi ta erabilli nai dituanak izango du beste nonbaiten ikasi ta lantzeko era. Nere asmo bakarra panpiñ bide au nere erritarrei gogoraztekoa besterik ez da. Alegia, ba daukagula euskera egin-bearretan lan sakon eta ugari bat egiteko bidea, bai, ta ekin bear diogula. Nik liburuxto onetan erakutsi nai detan panpiñ bidea errezen egin litekena bide da. Ortik aurrerakoak arkitzea ez da zailla. Ta bear ba da neronek egingo det lan ori. Baiñan aurretik asmo au lanean jarri nai nuke, ia gure artean arrerik ba daukan.

Baiñan lan oneri ekin aurretik: zertarako ta norentzako da panpiñ bidea ain egokia?

Norentzat eta zertarako panpiñak

Panpin antzerkia adin guzietako umeei atsegin izaten zaie.

Au ez da gezurra. Panpiñen aurrean danok aur biurtzen baigera.

Ta askotan, zirkoarekin gerta oi dan bezela, illobaren bat ere billatzen ba dakigu guk panpiñak ikustera "gu eramateko".

Askotan, ume ta ume izatez aspaldi utzi dutenak alkar daude panpiñ-antzerkian; azkenengo oiek, kankalluenak, izaten dira umeak isillarazten "xiiiiii"ka ibiltzen diranak, noski, ume-ixkanbilla arekin ez baitute berak panpiñak esaten duten guzia entzuten!

Panpiñak ba dute, bai, ume ta aundiekin komunikatzeko doai berezi-berezi bat. Antzerkiak eta zirkoak baiño aundiagoa, ziurki.

Gaurko egunean oso ezagunak dira panpiñak ikastoletan ematen dituzten laguntasunak.

UNESCO'ko ta OEA'ko erakunde batzuek oso protxu aundiarekin asi dira panpiñen bidez erakusketak zabaltzen; osasun-bide kanpañak dirala, sindikato ta beste edukazio lanetan oso protxuzkoak izan dira.

Jende asko arrituta geratzen da, alegia, nola liteken gaurkoegunean, berebiziko teknika berriak jaio ta iltzen ari diran garai arrigarri onetan bertan, oraindik panpiñak, trapuzko mamuxel zar aien irudi berak, irautea.

Ba erantzuna, edo erantzun bat beintzat, au da: umeak artista begiekin ikusten dutela, ta ez teknika ta ez jakintza begiekin, gaurko gizonak oi duten bezela.

Ta mamuxel oien txikitasunak ez al gaitu nekatzen?

Panpiñlari prantses batek dion bezela,² gure begiak aixa oitzen dira panpiñ oien neurrira, ta mamuxelak dirala ere aztu egiten zaigu.

Ala ere, panpiñ antzerkian mogimentuak garrantzi aundia dute, ta au kontuan euki bear degu. Panpiñak ez du geldik izketan egon bear.

Panpiñ joku guzietan estilazazioa dago. Ala, realista ta materialista diran antolaketak ez dute balio. Bestalde, ametsetatik eta fantasetatik datorren guzia da gure personaje oientzat komeni dana. Erdi-ipurdiko textoak berak ere berebiziko indarra artuko dute.

Baiñan begiaren atentzioa errez nekatzen da neurri onetako antzerkietan, eta au kontuan euki bear dute idazleak.

Gañera, panpiñak, panpiñ personajeak, kaikukeria edo ezin-egin-makaltasun bat euki bear dute. Ez dituzte panpiñak egitazko gertaerak azaldu bear. Oiek zinean edo antzerkietan erakutsi litekenak dira, ta ikusiko dituzte. Panpiñak ba dute bere ritmo berezi bat, eta baita bere izakera berezia ta bere maji edo sorginkeria ere.

Len esan degun bezela, ikastolako umeei ikasgaiak erakusteko ere oso bidezko ta egokiak dira panpiñ antzerkiak.

Umeei jostatzen erakutsi genezaken bide asko dira, ta ba liteke, gero, panpiñak egokiena izatea.

Liburutxo onetan jarriko degu adibide bat.

² *Les marionnettes scoutes?* n. 153. Juin 1942, Vichy.

Gure artean panpiñ lana nola egin

Lan guzi oietan garrantzi aundikoa dan bezela, lenen lanak gure eran eta neurrian planteatu bear ditugu.

Ta, noski, al dan guzia errextuta.

Panpiñekin asteko sortzen zaigun lenengo lana: **panpiñak berak nun erosi edo nola egin.**

Panpiñak erosi litezke, bear ba da; ez da errez izango, baiñan nunbaiten aurki litezkenak izango dira panpiñ-mamuxelak. Baiñan ala ere, euskotarrok bear ditugun neurrian ez. Zergatik? Ba euskotarrok geren umeei geron panpiñ-kumea erakutsi bear diegulako, eta panpiñ-kumeak gerok egin bearko ditugulako.

Au da, ba da, lenengo egin bearra, ta egin-bear orretan saiatu naiz lenen. Aurreraxio dijoan lantxo batean panpiñak nola egin erakusten saiatzen naiz. Lenago esan bezela, panpiñ era askotakoak egiten dira, baiñan nik era errexena bakarrik aitatzen det. Asi egin bear baitegu! Gero geiago egin genezake, ta egin bearko degu euskarari aurrerako bultzada bat emango badiogu.

Panpiñak egiten ikasi ta gero: **panpiñ-antzeztokia nola egin.**

Lan onek garrantzi gutxiago dauka, baiñan egin bear da, eta zenbat eta obeto egin, panpiñ giroa obeto lortuko da. Aurreraxio datorren bear-bear diran neurri ta lan-bide guztiak ematen saiatzen naiz.

Emen ere, gauza geixeago ta obeto egin nai badira, ba dago zer egiñik, eta aurreraxeo egingo ditugu. Bakoitza saia dedilla bere aldetik al dan aurrerapen geienak sortzen, eta alkarri erakutsi dezaiozun.

Baiñan asi egin bear degu al dan errexen, eta emen bear-bearreko dan guzia esango zaizu.

Urrengo bearra: **Panpiñlariak bear ditugu.**

Emen ere ba daukagu lan pranko egin bearra. Panpiñlarienzat ikastolatxo bat egitea izango litzake ederra, ta lan ori ere lenbailen egin bearko degu. Baiñan ez daukagu oraindik orrelako ametsik egiterik, bai, ta bitartean bakoitzak al duana eginda aurrera jo bearko degu.

Erri bakoitzean bi edo iru edo lau irakasle edo neska-mutil izango al dira lan eder onetarako gertu daudenak eta bere eskuetan eta bere biotzetan ume-pox pixka bat eta artista sentimendu apurren bat daukatenak! Oien esku geratzen da lan ori. Ez da lan zailla izango. Asieran izango dute, noski, lana; baiñan azkar gainduko dute egin bear dutena.

Lan onetan asi ta ondoen jarrai lezaketenak irakasleak eta antzergilleak dira. Bai baitute oiek barruan umeentzako ta ikusleen aldeko eraman bear dan zerbait.

Panpiñlariak egin bear lituzteken lanak bi dira: bat, eskuak mugitzen ikasi, ta orretarako ixpiluaurrean ari ta ariz ikasiko dute: musikan ritmoan panpiñak erabiltzen ere lan bearrenetakoa da; bestea, papera ikasi ta panpiñaren aotik aterako balitzake bezelako izketa egiten ikasi; buruz ikasi gabe, ere, papera aurrean eukita irakurri liteke, baiñan ikasiak asko balio du, naturalago urtetzen baita.

Au da edozein panpiñlarik ikasi bear lituzkeen bi lanak.

Baiñan gure lanerako, gauzak errezteko, eskuekin panpiña erabiltzen ikastea naikoa izango da; itzak zintetan grabatuta zahaldu genitzake ta.

Ala, erri bakoitzean grabadora bear genduke; Donostin, Bilbon, Iruñan edo Gasteizen egin eta saldu genitzaken zintak jartzeko.

Ara ba da erri bakoitzerako lan erreza: bost edo sei neska-mutil gertu, antzerkigilleak edo irakasleak badira obe; grabadora bat erosi, ta ara panpiñak umeen aurrean.

Urruna datorkigun lana: **panpiñ-lanak nola idatzi.**

Antzerki lanak ez dute, gero, panpiñak egiteko balio! Antzerkirako gertatuta dauden bezela beintzat. Antzerki bat umeentzat egokitu liteke, bai. Ipuin bat ere bai; emen, aurreraxio, neronek idatzitako ipuin batekin egiten deten bezela. Baiñan bide bereziak erabilli bear dira.

Lan au erakusteko emen jarri ditut kanpotik artutako adibide batzuk; eta nola berriak egin bear ditugun, zelan-nola batzuk ere ematen saiatu naiz, neronek ikasi al izan ditudan neurrian beintzat.

Ara, ba da, panpiñak eginda, zinta grabatuta, ara emen dana prest.

Esatea bezain errex balitz!

Bai, zinta grabatze onek ba ditu bere lanak, lan bereziak, ta oiek ondo egin bearco dira, orretarako jende iaio batzuen laguntza bearco degu. Baiñan ez da lan au gure errian zailla izango.

Baiñan oraindik ba dago oraindik aitatu ez degun beste egin-bear aundi bat: **Panpilarien alkarte bat.**

Zertarako?

Alkarte onek eratuko lituzke lanak: errietan panpiñlariak billatu, bere lanetan lagundu (bear dituzten materialak arkitu, egiten dituzten galderei erantzun, eta abar), panpiñ-mamuxelak serien merkeago egin, bear diran libretoak edo grabatuta dauzken zintak saldu; panpiñlarien ikastolen bat sortzen bada edo, lan oien berri eman; panpiñ gaietaz mundu guzian azaltzen diran errebistetatik lanerako ondo datorkizkien berriak illero boletin txiki batean zabaldu; erakunde onetarako bear diran artu-eman guziak zuzendu.

Ez ote gera lan onetarako gauza?

Erakunde auxe gertako bagendu, Donostin, Bilbon edo Iruñan edo Gasteizen, nun nai, gaiñerantzekoak errex etorriko lirake, lan onetarako jende iaioa baitaukagu Euskal Erriko errietan.

Alkarte onek kuota bat kobratu bearco luke, noski, aundi ez ba da ere; artu-eman guzi oietan izango diran gastu guziak ordaintzeko bide bat arkitu bear da eta.

Bear bada, lan eder au gure erriko fabrika gizonen batek artu bear luke. Beste errietan oi dan bezelako Fundazio bat sortu ta diru askorik gabe erakunde au errez gerta liteke. Baiñan gure diru-gizon aundi oiek ez dute, ordea, kultura bideko lanik sorbalidan jaso nai, bere diru-geitze orrek ziara nekatuta baitauzkate.

Ala ere, iñundik, aberatsik arkitzen ez badegu ere, gure artean egiteko lan onek iru edo lau gizon-emakume naikoak ditu. Oiek eragingo diete gaiñerantzekoei.

Beste errietan egin al dana, zergatik ez gurean?

Dabaneko lanean ari diran ume organizazio batzuek aixa ekin lezaiekete panpiñ lan eder oneri. Scoutak dirala, Prantzian bezela; edo eusko ikastolak dirala, edo Acción Católica dala. Danak egin lezakete lan au errez asko ondore ederrarekin.

Ala ere, Panpiñ Elkartea berezi bat gertatzea bearrezkoa da, onek lagunduko lieke organizaio oiei ere ta erri bakoitzean sortu litezken panpiñ taldeei ondoen.

Ara nere asmoak. Ametsak ote dira?

Ametsa ez da utsa, ez da aizea. Amets utsekin asita egin ditu gizonak lan aundiak. Ametsa da gizonaren ezaugarri nabarmenena; ametsak biurtzen dira egi, baldin amets egizkorrak badira.

Amets onetan euskera daukagu beti buru.

Euskeraren batasuna edo osotasuna daukagu aurrean euskaldunok egin-bear aundi ta nabarmen bezela. Euskera osotzen ez degun bitartean, gure lan guziak alperrikakoak izango dira. Ori esaten nuan idatzi berria deten "Sorgiñaren urrea"ren itz-aurrean; ta ango alegin bera egin bearke degu panpiñ lanetan gure izkuntzak bide bakar bat umeengandik artu bear du ta.

Panpiñ bidez egin genezake euskera batzeko lan ederra.

Alkarte onek zuzenduko luke lan au ere: panpiñ antzerkietako lan guziak euskera batuan jartzea, euskera batuan grabatzea, izango litzake asmo onen ezaugarriarik nabarmenena ta.

Orretarako, Euskal Erri guziko umeak ulertuko dituzten 200 edo 300 itz aukeratu bearke genituzke. Ez da zailla.

Dana amets uts geratuko ote da ba?

Panpiñak nola egin

Len esan detan bezela, panpiñ klase asko dira, baiñan guk ez degu asieran bat besterik egingo, errexena: **oialezko panpiña**.

Panpiñak egiten ikasteko bi zatitan jarriko degu: batean **burua**, ta bestean **soiñekoa**.
Ta gorputza? Gorputza zure eskua bera da.

Entzun.

Burua nola egin:

Burua da bi zati oietatik egiteko pozgarriena; zuk nai dezun irripar edo sudur edo belarri jarriko baitizkiozu, ta zuk nai dezun erako pertsonajearen ezaugarriarik aundiena emen baitago.

Marcel Temporalek dionez³ buruak baiño soiñekoak garrantzi aundiagoa omen dute; soiñekoak berak, bere forma eta joskerak, ematen omen dio panpiñari bere mogimentua ta, bere askatasun berezia.

Ala ere, buruak ba dute bere garrantzi aundia, or baitago panpiñaren arpegia, ta anima.

Ara, ba da, burua nola egin:

Aurrena, zerorrek erabaki bear dezu zure panpiñaren buru oneri zer antz eta itxura eman nai diozun; onentxona, zerorrek marrazki edo dibujo txiki bat egitea da; or aukeratuko dezu zer sudur ta zer buru ta zer belarri jarri; dibujotxo ori egin zazu ba da, ta burua egin bear dezun neurrian bertan; gero, marrazki au panpiñaren buruaren patroia izango da. Zer neurri? Sugurretik belarrira 6 bat zentimetro inguru.

Oar bat emen: sugur eta kokotz aundi xamarrek egin bearko dizkiozu buru orreri; gero, josteakoan, nabarmenki oiek berez jetxiko baizaizkio.

Beste oar bat: lepoa luze egin akiozu; egin baiño lenago aurrera irakurri zazu. zertarako

dan jakingo dezu ta.

Esan bezela, marrazki au paperean egiña daukazunean, oialera pasa bear dezu.

Oialak lodi xamarra bear du; ori laxter zerorrek ikusiko dezu ondoen. Ta oial au ebaki

baiño lenago bi dobletan jarri bear dezu, aurpegiaren bi aldeak batera ebaki bear dituzu ta.

Ala, egin zazu orain kontu zure panpiñ arpegia paperean egin eta bi doble egindako oialeko marrazkira pasa eta gero, oial au ebaki dezula.

Orain, lepoko zuloa ez beste guzia ariz josiko dezu, zakutxo bat bezela.

Buru oneri lepoko zulotik buelta eman bear diozu orain, galtzerdi bat balitzake bezela. Ala, joskera barrenen geratuko zaizu, ta lenego esan detan bezela, sugur, kokotz eta gaiñerantzekoak uste baiño txikiagoak geratuko zaizkizu, buruak artu balu bezela.

Ona emen burua, sugur, kokotz, lepo ta guzti, baiñan oraindik belarri ta begirik gabe.

Goazen aurrera.

³ *Comment construire et animer nos marionettes*. Editions Bourrelier 1959.

Orain, egin akizkiozu panpiñ-buru oneri bear dizkiozun begi, ezpaiñ eta abar, bordatzen bezela; kolorezko ariekin bada, obe; ezpaiñ gorriak, bekain beltza eta abar. Begietan jarri akizkiozu gero kristalezko botoitxo batzuk. Belarriak ere bear ditu, ta oial puxka batekin egin eta josi akizkiozu.

Emen zure artista-asmo guziak erabilli ziñezke.

Ta ara emen zure panpiñ-burua ia bukatuta; baiñan buru au oraindik utsa.

Nola bete buru ori?

Gizonen buruak ain errez bete al bagenituzke!

Ta, egia esan, gizon batzuen buruak material obegoarekin beteta ez daudela ematen du.

Zure panpiñ-buru onetan sartu zazu goata edo lana; forma errez artuko dizun material ariña izan bear du; oso ariña, gero; ez zaiozula zerrautsik edo orrelakorik buru orretan sartu! Zulo guziak ondo bete akiozu buru orreri; Ez itzazu zulotxoak geiegibeartu, baiñan sugurrari ta kopetari ta kokotzari bere forma bete-betean eman akizkiozu, bestela laxter galduko dute ta.

Zure mamuxel-buru ori zuk nai bezela geratu al da?

Emen, zerorrek neurtu bear dituzu ondore guziak. Ba liteke lenengotik gauzak zuk nai bezela ez urtetzea; orduan, berriz egin bearko dezu lana. Egon lasai. Iñortxok ere ez du lenengotik orrelako lanik egiten ikasi.

Egin zagun kontu, ba, lan ori ondo geratu zaizula, ta goazen aurrera.

Orain arpegi orreri azkeneko zimurrak pintatu ta illeak jarri (lanazko ille batzuk, esate baterako) edo pintatu akizkiozu. Belarrietan bezela, emen ere pintatu bearrean bultoko gauzak erantsitzen badizkiozu, obe, egitazkoak emango dute ta.

Ta ara buru ori ziara bukatuta!

Baiñan ala ere oraindik garrantzi aundiko zerbait palta zaizu lepoan: larruzko kono bat. Larru gogorreko kono au bear-bearrezkoa dezu panpiñarekin lana ondo egiteko.

Ta kono au nola egin?

Kono txiki onek zure beatzaren neurrian egiña bear du; panpiñlari bakoitzak bere neurria bearko du. Zein beatzaren neurria? Zure erakusle edo indize beatzaren neurria. Zure beatz onek kono orretan bigarren falanjeraiño bakarrik sartu bear du; ez gutxiago, ta geiago ere ez. Au da neurria. Ez du, gero, konoonek tubo bat bezela bear, e! Konoa esan det, eta alabear, gero beatzak bear bezela panpiñ-burua mugitu dezan.

Nork egingo dizun?

Zerorrek ezin badezu, zapatari batek ondo egingo dizu lan ori.

Ba, egin zagun kontu kono ori ere eskuan daukazula, bai, ta orain panpiñ-buruaren lepoan sartu zazu alde extu gora ta zabala bera duala, ta oialari ondo lotu ta kolatu akiozu.

Buruaren zati tente-tentea bezela geratu bear du, gero!

Ara or zure panpiñ-burua ziara bukatuta.

Orain, lepoan daukan konotxoan beatza sartu ta ikusi zazu buruak zuk nai dituzun mogimentuak egiten ditun. Ala ba da, ondo dago. Ez dadilla, gero, burua kolokan bezela geratu; zure biatzarekin batera ibili bear du, zuzen, tente, buru orrek.

Proba onek ondo urtetzen badu, ez dezu kezka geiagorik izan bear: burua ondo bukatu dezu.

Goazen orain soñekora.

Soiñekoa nola egin

Panpiñen soinekoak errezak eta zuzenak izan bear dute, zailtasun aundirik gabe, ta kolore askokoak.

Panpiñ bat ez da, gero, egitazko giza-emakumeen kopi txiki bat! Kontuz, gero! Panpiña irudi bat da, ta geienetan irudi jostalaria, isekalaria. Ala, indar geien duten detalleak bakarrik jarri bear zaizkio soiñekoari, ta detalle oiek aundi egin bear dira, karikatura batean bezela.

Kontuan euki zazu, gero, soiñekoaren koloreak ez ditezela argien koloreekin (kolorezko argiak, ona izango litzaken bezela, badituzu) gaizki joan.

(Baiñan argien kontua beste kontu bat da)

Beste aldetik, oialezko soiñekoan sartu bear du panpiñ-jostalariak bere eskua, ta onek garrantzi aundia du.

Panpiñak era askotakoak diran bezela, soiñekoak ere era askotakoak dira; baiñan guk emen errezero joko degu orain, gero etorriko baitira gaiñerantzekoak.

Gorputzak neurri ezberdiñeko bi puska ditu: aurrekoa, extua ta paraleloa, ta atzekoa, zabala ta trapezio formakoa.

Besoak aurrekaldeko puskari josten zaizkio, berarekin gurutze bat egiñaz. Baiñan besoak ere ba dute bere lan berezia. Besoak, noski, oialezko bi tubo izan bear dute, baiña tubo bakoitzari konozko tubo bat sartu bear diozu, lepoan bezela. Kono oietan sartu bear diran biatzak: lodia batetik, eta nagia ta txikia bestetik.

Gero, beso punta bakoitzean oialezko eskutxo bat erantzi bear, noski. Soiñekoak 50 bat zentimetro luze izan bear ditu.

Kontuan euki zazu, gero, besoetako beatz-konoak ere ez dutela doblatu bear, beti tente lan egin bear dutela. Lepokoak bezelaxe.

Panpiñ-soiñekoak, era batekoak baiño geiagokoak ba dira.

"Errusitarra" deritzazion soiñekoak ba ditu bere aldeak.

Soiñeko onek bi oial puska berdiñak ditu. Aurrean erakutsi deguna baiño estuagoa da; gañean iru puntako izar bat duantrapezio bat da. Marrazkian ikusiko dezun bezela. Goiko puntan bigarren beatz edo erakuslea sartu bear dezu. Eskubiko ta ezkerreko puntan, berriz, beatz lodia ta luzea (luzea bakarrik) eta besteak zure esku-barru aldera doblatu itzazu.

Oiek dira soiñeko errusiarraren ezaugarri berezienak.

Izarraren iru puntak **biguñak** dira, ez daramakite besteak bezelako larruzko tuborik eta konorik.

Goiko puntatik sartu zazu leporik gabeko burua zure beatzean; au da guzia; ta buru onek ba du alako biguntasun eta grazi berezi bat.

Errusitar soñeko au besteak baiño askoz ere txikiagoa da; zabaleran eskuaren zabalera besterik ez du. Ta burua ere txikiagoa du, ta eskuaren neurrira obeto dator. Besoak oso motzak ditu, baiñan zure biatzen biguntasun osoz uzten dizute.

Askotan personaje batetik bestera azkar aldatzerakoan, burua bakarrik aldatu zezakezuke, arin asko.

Soiñeko au egitea oso erreza da; asten ari diranentzat oso berezia. Onekin, gañera, edozer buru erabilli liteke; azanario, ta patata, ta beste edozer frutarekin egindako buruak ere bai.

Gure soiñekoa

Gure soiñekoa bien artekoa egingo degu.

Aitatu ditugun bi panpiñ-soiñeko oietatik gauzik onenak aukeratu ta bien erdiko edo tarteko soiñeko bat izango da guk gure lanerako ibilliko deguna.

Egia esateko, soiñeko au panpiñaren gorputza bezela da; gero, personaje bakoitzak eskatzen duan bezela gañetik jantzi egin bear zaizkio bere jantziak, esango detan bezela.

Gure soiñeko onek bi puzka edo zati izango ditu: baiñan zabalera ezberdiñekoak. **Aurreko zatia eskuaren zabalekoa** bear du; baiñan atzekoa askoz ere zabalagoa izango da.

Gerriak bere marka izango du, ta panpiñ-jostalariaren eskumuturraren alturan joan bear du.

Errusitarren soiñekoak bezela, *besoak gorputzarekin berarekin ebaki bear dira*, ia izarraren ezker eta eskubiko bi puntak bezela.

Lepoa luzea izango du, ta bear dan dan ainbesteko zabalekoa.

Zure soiñekoak egiteko, aukera itzazu oial biguñak, bañan errez urratzen ez diranak. Al ba da, errez irriztatzen diran eta asko berotzen ez duten oialak.

Kontuan euki zazu zure eskuetan erabilli bear dituzula.

Soiñeko onen gañean bear dezun soiñekoa jarri bear diozu panpiñari. Gañean jantziko diozun soiñeko au betiko josia izan liteke; baiñan gure soiñeko au panpiñ geiagotarako erabilli nai ba dezu, gañeko soiñeko bereziak, zierrapollerarekin erantzitaedo, jarri ta kentzeko egin lezakezuke errez. Ez du, ordea, gañeko soiñeko berezi onek azpiko gure soiñeko ori eztutu bear, e! Ez, zabalagoa egin zazu, ta gañean errez, eroso, jatzekoa izan bear du; batez ere, besoak bear ditu zabalak. Besoa konikoa jartzen ba diozu, lepotik asi ta gerrirañokoa, egitaz ukalondo bat ba lu bezela, geratuko da, ta oso biziki gañera. Besoa extua egiten ba diozu, berriz, oso gaizki geratuko zaizu.

Egia esan, panpiñ-soiñekoa egiteko ezin da neurri bakarra eman. Bakoitzak berea egin bear du, bere asmo ta abilidade bereziekin.

Bañan zerbaitetik asi bear da, ta ara Temporal jaunak dionez panpiñ-soinekoentzat ematen diran lege batzuek:

- Lepo gabeko soiñekoa, soiñeko txarra da.
- Zure biatzetan zimurra erakusten duan soiñekoa, soiñeko txarra da. Soiñeko batek izan bear duana batez ere: beatzek nun joan bear duten kontrolatzeko toki bereziak.
- Zure panpiñ lanak asteko, emendik asi zaitetz, bear bezelako soiñeko bat egiten.
- Aurreneko burua ta aurreneko soiñekoa egiten dituzunean, panpiña besoetako eskuetatik bukatu bear dezu.
- Eskuak nola egiten diran? Buruak bezelakoak, oialezkoak.
- Ekin bada, soiñekoa egiten, eta al dezunarekin zatoz urrengo zatira: antzeztokira.

Antzeztokia nola egin

Bi eretako antzeztokiak egin genitzake: beti geldik egotekoak, alda-eziñak, edo noiz nai tokiz aldatzekoak, aldakorrak.

"Panpiñei egitazko bizia eman nai ba diezu", esaten du Temporal jaunak, "zure antzeztokiko **zuloa** 80 zentimetrotik 120 zentimetro altura neurrikoa egin zazu, zure aukeran, baiñan tarte onetan beti. Zabalean, berriz, 2tik 3 metrora".

Gero, antzeztoki onek **altura** berezian joan bear du.

Zergatik?

Ara: batetik, panpiñlariak tente lan egin bear du, bestela mugitzerik ez du izango, ta mugitzen ez ba da ez dio panpiñari eman bear dion mogimentua ematerik izango; bestetik, panpiñlariak besoak jasota erabilli bear ditu bere panpiñekin.

Orregatik antzeztoki onen zuloak lurretik 1,70 metrora asi bear du, gutxi gora bera; au baita panpiñlari diran neurri erdikoena. Panpiñlari bat neurri ori baño txikiagoa ba da, lurrean ol bat jarri edo marrazkian erakusten dan olezko zapata batzuk egin bear du; aundiagoa ba da, berriz, antzeztokia pixka bat jaso bear du, makurtuta ibiltzea neketsua baita. Baiñan 1,70 metroko neurria geienei ondo etorriko zaie.

Barren aldera duan zuloa, berriz, **barrentasuna**, alegia, 150 zentimetro ingurukoa bear du gutxienez. Ala, zulotik asi ta atzeko zapia arte metro ta erdi bear ditu, panpiñlariak lanean eroso, lasai, aritzeko tokia izan dezan. Naiz eta panpiñlaria bakarrik ari, toki aundia bear du estrapozorik egin gabe lan egiteko; bi alkarrekin ari ba dira, oraindik geiago.

Panpiñlariak ez du beñere exerita lan egin bear.

Antzeztokiaren oiñarri dagoan ola, zola alegia, zabal xamarra izan liteke, aukeran. Zuk antzeztokian, zure panpiñekin gauza astunak erabilli nai badituzu, olak zabala ta lodia izan bear du; bestela, ol arin bat naikoa izango dezu. Zure zola orren azpian, 30 zentimetro inguru, beste olatxo bat jarri zazu, lanean ari dala, panpiñlariak esku artean erabilli bear dituan gauzak uzteko.

Oraindik beraxiago, beriala ordea, lixtoi bat ere bear dezu; zure panpiñak zintzilik utziko dituzun lekua; bat artu, bestea utzi, eroso bear dituzu panpiñak, lan azkarra egingo badute.

Atzeko zapiak (bi edo iru edo lau zapi) zintzilika ta errezkentzekoak egon bear dute, marrazkian erakusten dan bezela. Iltze batzuetatik zintzilika jarri ta kendu egin genitzazke, edo igo ta jeitsi egitekoak ere bai.

Aurrean, antzeztokia ixteko kortina bear dezu, noski.

Atzera xamar jarri zazu, itxia dagoala panpiñ bat itz egitera atera nai badezu, tokia bear du dezu ta. Au bear-bearrezkoa da batzutan; dekorazioa aldatzen ari zeran bitartean, jendea aspertu liteke ta.

Zirrikito extu bat ere bear du panpiñlariak bere begien altura osoan, alde batetik besteraiño; aurrean daukan jendeak nola erantzuten duan ikusteak asko laguntzen baitu.

Dekoradua

Erreza, oso erreza, al dan errezena, egin zazu; emen ez dezu lan aundirik egin bear. Ez gero antzerki antzekorik egin; eta ez zazula naturalezatik ezer kopiatu.

Zuzen eta kolore garbiko zerbait jarri zazu, zure argienbidez kolorez jantziko dituzu gero errez eta.

Baiñan beste zerbait erakutsi nai badezu (kale bat, edo etxe bat, edo mendia, edo itxasoa), oso errez ta dibujo gutxiko zerbait bear dezu.

Argia

Itzalak eta illunpeak ebitatzeko, argia toki batetik baiño geiagotik bota bear dezu.

Kolore ezberdiñeko bonbillak euki bear dituzu, bakoitzak bere lan berezia egin bear dizu ta. Panpiñ antzerkiko teloiak zure bonbillen argi-kolorea artuko dizute, ta, ala, argi-itzaldu-ta-pixtu batekin zure dekorario guzia aldatu zazu.

Musika soiñua

Zure panpiñ-antzerkiari apainduri eder bat emateko musika soiñua erabili bear dezu.

Orretarako gramofono bat edo grabadora bat bear dezu.

Aurretik esan degun bezela, gauzak errexteko antzerkitxoak zintan grabatuta egiten ba-ditugu, musika ere an izango dezu, noski. Baiñan zure lantxoak egin eta azaldu nai badituzu, zerorrek aukeratutako musika errex jarriko diozu.

Pakea adierazi nai duan zerbait jartzen ari bazera, argia gutxitu tta musika berezia jarri zazu.

Beste desfile edo soiñu bearreko gauzak dituzunean, eta antzerkia bukatzerakoan ere bai, musika bearko dezu.

Musikak umeen mundu berri ori borobilduko dizu.

Panpiñak nola erabilli

Gerok jostatzeke panpiñak erabiltzea errexa da; baiñan besteak jostarazteke panpiñak erabiltzea ez da erreza.

Lan egin bear dala, alegia.

Panpiñlaria gertatzeko lan asko egin bear da. Pazientzi aundia izan bear dezu; ta atentzio lan aundia egin bear dezu. Musikarekin konpasak nola eramane eta kiñuak nola ondoen egin ikasi bear dezu.

Panpiña eskuetan darabilkizunean, oso tente euki bear dezu orretarako, beti besoak zuzen eukitzeko oitura artu zazu; bai, besoak tente, zure belarriak jotzeraiño.

Panpiñaren mugi-alde bakoitza panpiñlariaren gorputz guziak sentitu bear du. Ala, panpiñaren ibillaldia **panpiñlariaren ibillaldia** izan bear du.

Kontuz, gero: panpiñlaria nekatzen bada, panpiña ere nekatuta ikusiko dute umeak eta.

Panpiñak beti atzetik edo bi aldetatik sartzen dira. Azpitik, betik, ez du panpiñak beñere atera bear; sorgiña edo beste munduko zerbait ez bada beintzat. Bi panpiñ alkarrekin lan zail bat egiten jarri bear diranean (alkar jotzen, dantzan, eta abar), obe da panpiñlari batek berak egitea, bestela, bien artean eginda, sinkronizazioa asko zailtzen baita. Orduan, ori bai, panpiñlariak bi abots egin bearko ditu; au lortzea erreza da, pixka bat saiatu ezker.

Antzerki lanak nolakoak izan bear duten

Asieran, antzerkitxoak motxak izan bear dute.

Zenbateraiñoko motxak? Ba, geienak 30 minutu ingurukoak izaten dira. Motxagoak badira, obe.

Eta panpiñ-antzerki oiek ere bi edo iru pusketan jarri ezker obe, asieran beintzat.

Zergatik moxtasun au?

Panpiñak erabiltzen asten direnei oso luzeak egiten zaizkiete minutuak; besoak jasota orrenbeste denboran egoteak asieran askonekatzen du; gero oitzen joaten da bat.

Ta umeen arreta-denbora ere kontuan euki bear da.

Panpiñak ondo erabiltzen dakitenentzat ez da zailla, bear bada, baiñan asten dan batentzat umeak arretaz denbora asko euki araztea ez da erreza; orretarako panpiñak kiñu ta mugi-alde diferente asko egin bear ditu, ta oiek egiten jakin bear da; beti bat egitea umeentzako aspergarria da.

Gero, beste zerbait kontuan euki bear degu.

Umeak alkar-izketarekin nekatu egiten dira; alkar-izketak jarri bear diranean, motxak jarri bear dira.

Panpiñak beren artean baiño berak ikusten daudenekin geiago itz egin bear luteke.

Zailtasuna emen dago. Igi-neurri ariña, bizkorra, bear dute lanak.

Personajeak

Personajeak ezagunak izatea ona da.

Baiñan ez dute artifizialki sortuak izan bear; ez teoriz sortuak, ez nai liraken edo bear liraken almenak emanda sortuak. Orrelako tipo errikoi bat jaio arazteko misterio bide batzuk erabilli bear ditugu.

Ez dira, ez, orrelako personajeak kolpetik sortzen.

Gizarteak, jendeak, berak aukeratzen ditu pixkanaka-pixkanaka bere personajeak. Lan ori bere gixa egiten du jendeak. Personaje bat errez sartuko zaio biotzean, eta besteak ez dio ezer esango. Guk egon bear degu arreta aundiaz jendeak nola artzen duan begira.

Personajeak aukeratzeko probak egin bear dira. Denbora bear dute oiek ere sortzeko. Jarri dezagun bat umeen begien aurrean, eta ia nola erantzuten duten.

Jendeak maiteko dituan panpiñ-personajeak sortu nai dituenak mantso-mantso, illunpean bezela, ibilli bear du lanean.

Asi zaitetz alegiñak egiten eta ikusi zazu zerorrek.

Bai, antzerki-lanak nola artzen diran ikusteko ta personajeak zenbateraiño arrera duan ikusteko, ume talde bateri ta besteari erakutsi, ta aldaketak egiñaz ikasiko dezu azkenerako nolako utzi.

Noski, guk Euskal-Errirako personaje bat sortu bear degu.

Ez, ordea, gipuzkoarrak onartuko duten personaje bat bakarrik; ezta bizkaitarrak edo zuberotarrak bakarrik onartuko duten personajea ere. Euskal-Erri osoak berea bezela ikusiko duan personaje bat baizik.

Probak egin bear ditugu, probak, eta danok alkarrekin.

Izkuntz bat edo euskera osatuaren billa ibilli bear degun bezela, personaje baten billa ere ibilli bear degu.

Arkitu arte.

Personaje berezi batzuk ba ditugu gure errian. Pernando Amezketarra bezelako bat baiño geiago baietz uste det. Ba liteke orrelako batek billa gabiltzan arrera on ori izatea. Baiñan ba liteke ori lortu baiño lenago personaje berri baten bearra izatea ere.

Lana dago emen aurrean ugari, lana!

Begira telebisiara, ta or dabiltzan mamuxel oiei, ba liteke orrelako zerbaiteri euskal usaia erantzi ta guk bear degun personajea urtetzea.

Pedagoji lanerako adibideak

Ara emen pedagoji lanerako aukeratu detan adibide bat.

Comment construire et animer nos marionettes liburutik artua da. Orrelako asko asmatu genitzake geok.

Kuboak

Antzertokian: bi panpiñ eta kubo batzu.

Emengo lan onetarako, panpiñ oieri eskubia ta ezkerra deituko diegu. Gero zeorrek, edo umeak, bere izen bereziak arkituko dizkiozute.

EZKERRA, *sartzen*: Egun on. Zer ekarri det nik emen?

Umeen erantzuna.

EZKERRA, Kubo bat al da? Ara!... Nik borobil bat zala uste nuan eta... Bai, bai, arrazoi dezute, kubo bat da.

Kuboa ezkerretan uzten du tu urtetzen da.

ESKUBIA, *kubo bat dakarrela sartzen da*: Zer ekarri det nik emen?

Umeen erantzuna.

ESKUBIA, Bai, badakit kubo bat dala. Ba al dakizue zergatik galdetu dizueten? Ba, au kubo bat dala ba dakizuten ikusteko. Emen ba al dago iñor au borobil bat dala uste duanik?...

Umeen erantzuna entzun.

Ez, au kubo bat da.

Eskubiak kuboa eskubian uzten du, ta urtetzen da.

EZKERRA, *kubo bat dakarkila*: Zer ekarri det nik emen?

Umeen erantzuna.

Kubo bat eta kubo bat, zenbat kubo dira?

Ume batzuek "bi" erantzungo dute, besteak, eskubikoari begiratu ta "iru" erantzungo dute. Ezkerrak au bakarra entzungo du, edo entzuten ez badu ere ala jarraituko du:

Nola iru?

Umeak asiko dira bere esplikazioak ematen: ezkerrak ikusiko du orduan irugarren kuboa, artuko du eta beste biek in batera jarriko du. Eta kontatuko ditu:

Bat, bi, iru... Bat eta bat bi dira. Bi eta bat iru dira.

ESKUBIA, *kubo bat dakarrela sartzen da*: Zer ekarri det nik emen?

Umeen erantzuna.

Ara, nik uste nuan aztu zitzaizuetela!... Kubo bat eta kubo bat, dira...

Emen geratzen da, ia umeak zer erantzuten duten: an uzten du kuboa, ta alde guzietara begira geratzen du, ta ezzer esan gabe urtetzen da.

EZKERRA, *kontatzen ari dala*: Bat eta bat dira... bi...
Aldamenera begiratu ta beste kuboa ikusi ta bereganatzen du... eta bat, iru.
Urrutigora begiratu, eta laugarrena ikusten du, ta artzen du:
 Iru ta bat, lau dira. Bat eta bat, bi dira; bi ta bat, iru dira; iru ta bat, lau dira...
Eta pozik ateratzen da.
 ESKUBIA, *kubo bat dakarrela sartzen da*: Zer ekarri det nik emen?
Umeak karraxika asiko dira, kubo bat dala esaten.
 Nik uste nuan... zuek uste zendutela sardiñ-lata bat zala!
Eta kuboaren inguruan ta alde guzietara begira asten da, len bezela. Kubo bat eta kubo bat, *alde guzietara billa dabil, zenbat kubo dira? Batzuek erantzungo dute: "bi kubo", besteak: "lau kubo", besteak: "bost kubo"... Eskubia alde guzietara billa ibilliko da, ta azkenean esaten du*:
 Ez, emen kubo bat bakarrik dago; nik bat bakarrik ikusten det emen...
Umeak karraxi egingo dute, ta eskubiak ikusiko ditu ezkerrean dauden beste lau kuboak, eta bana banan artu ta eskubira eramango ditu:
 Kubo bat, bi kubo, iru kubo...
Kubo geiago arkitzeak arrituko balu bezela ari da, ta berriz, beste era batera jartzen du bere kontua:
 Iru kubo ta kubo bat, lau kubo dira. Lau kubo ta kubo bat, bost kubo dira...
Eskubitan jartzen ditu bata-bestearen ondoan, eta berriz kontatzen ditu:
 EZKERRA, *beste kubo bat dakarrela sartzen da*:
 Zer ekarri det nik emen?
Umeak erantzungo dute: "kubo bat".
 Ara! Nik uste nuan sagar bat zala!
Eta lurrean uzten du, ta kontatzen asten da: baiñan nola besterik ez dan ikusten, inguruan begira asten da, lenago eskubiak egin zuan era berean.
 ESKUBIA, Kubo bat, bi kubo, iru kubo, lau kubo, bost kubo...
Orduan, ezkerrek ekarri berria duan kuboa ikusten du, ta ezkerrearen muturraren aurrean kentzen dio, ta esaten du:
 ...sei kubo.
Eta berriz kontatzen asten da, baiñan oraingoan eskubitik asita:
 Kubo bat...
Bitartean ezkerrek ikusi baitu zer gertatu dan, bere kuboraiño etorri, artu ta ezkerreara daramaki, ta esaten du:
 EZKERRA, Kubo bat!
 ESKUBIA, Bi kubo!
 EZKERRA, *len bezela, besteari kentzen dio kubo bat eta esaten dio*:
 Bi kubo!
 ESKUBIA, Iru kubo!
 EZKERRA, *len egin duan bera egin eta gero*: Iru kubo!
 ESKUBIA, *bere kuboaren billa dabil eta ez du aurkitzen.*
 EZKERRA, *eskubiaren atzetik pasa eta laugarren kuboa artzen du ta ezkerreara daramaki, ta esaten du*:
 Lau kubo!

ESKUBIA, *geratzen zaizkion bi kubo en inguruan billa dabil, alperrik.*

EZKERRA, *len bezela, bestearen atzetik pasa ta bosgarrena ta seigarrena kentzen dizkio, ta esaten du:*

Kubo bat, bi kubo, iru kubo, lau kubo, bost kubo, sei kubo...

ESKUBIA, *ikusi du besteak zer egin dion eta kubo bat kentzen dio, ta bere aldera ekarri ta esaten du:* Sei kubo, bat gutxiago, zenbat dira?...

EZKERRA, *kontatzen ditu bere kuboak:* Kubo bat, bi kubo, iru kubo, lau kubo, bost kubo dira...

ESKUBIA, *berriz berdin egiten du, banan-bana kubo guziak berriz kendu arte. Irakasleak nai duan neurrian kenduketa banaketa edo geiagoka egin lezake. Ala, eskubiak eta ezkerak bakoitzak kubo bat artuko dute, eramango dute, ta herriz esku utsean sartuko dira.*

ESKUBIA: Sei kubo, bi kubo gutxiago, zenbat geratzen ote dira?...

Umeei kontatu arazi, joku bakoitza bi aldiz, utsera eldu arte; orduan panpiñak abesten eta dantzan urtengo dira:

Jolasketa, jolasketa...

Aldaketa

Irakasleak kubo en orde z borobillak erabilli lezazke.

Beste aldaketa

Era batekoan bakarrik erabilli bearrean, bi eratakoak erabilli litezke, omojeneoak ez direnak erantsi eta kendu ezin litezkeela erakusteko.

Ara nola:

ESKUBIA: Zer ekarri det nik emen?

Umeen erantzuna: "borobil bat".

Sartzen da berriz, eta kubo bat dakar: Zer ekarri det nik emen?

Umeen erantzuna: "kubo bat".

Orduan galdetzen du: Kubo bat eta borobil bat zenbat...

Eskubiak ez daki zer esan, borobil edo kubo... zenbat?... Ez dakigu zer diran. Ba dakizute zergatik?... Kubo bat eta borobil bat ezin ditugu alkar batu edo sumatu, ez baitira berdiñak!

Eta orrela, era orretara, beste gauza asko.

Irakasleak asmatu bear ditu bideak; eta bere esperientziak idatzi, beste irakasleak ikasi dezaten.

Zatiketa edo dibisiorako, piramideekin egin liteke lana.

Itzak idazten erakusteko ere erabili liteke bide au. Kartoiezko letrekin itz errezak egin litezke. Baiñan panpiñak letra batzuk atzekoz-aurrera jarriko dituzte, edo letraren bat aztuko zaiote, umeak berak konturatu ta akatsak zuzendu ditzaten.

Au da panpiñ bidez arkitu nai deguna: umeak berak jokuan sartu, lanean jarri.

Ikusten ez dan irakasleak lana askoz ere obeto egiten baitu; umeak, bera ikusten ez dutela, libreago sentitzen dira eta errezago erantzungo dute. Ta, egia esan, irakaslea ez da beñere bere umeen nagusia izango.

Panpiñ lanetarako egiten diran lan onenak bildu bear genituzke, ta gero liburutxo batean zabaldu, irakasle guziak lan oiek beretzat ere artu ditzaten.

Gero, umeak azten diranean, mutikoak berak lagunduko diete irakasleei orrelako jokuak gertatzen. Esku ta buru-lan oiek mutilla zailduko dute beste lanetarako ere.

Urrezko azia

Giuseppe Fanciulli idazleak italiarrez idatzia.

Mane Bernardoren **Títeres y niños** liburutik itzuli det.

Bernardok dionez, ez omen da erakuspide edo moraleja bukaeran eta nabarmen jarri bear; ala, berei zerbait kobratzen ari baziña bezela sentitzen omen dira umeak. Obe omen da erakuspidea antzerkitxoan bertan sartzea.

I. Atala

Parregille baten etxean, gela txiro bat.

PARREGILLEA. Mediku jauna, oso gaixo nago. Miñ aundi bat daukat.

MEDIKUA. Nun, seme, nun?

PARREGILLEA. Patrikan.

EMAZTEA. Beti utsik dauzka patrikak; ori da bere gaitza.

MEDIKU. Ia, ia... Aizu!... Egia da!... Berebiziko utsa dago emen, gizona!...

Patrikari buelta eman eta begira-begira geratzen da.

Uts-utsa!... aizu, baiñan zer da azi au?!

PARREGILLEA. Gari azi bat izango da, edo arto ale bat, edo txorientzako alpiste ale bat; ba dakizu? nik plazako uxoei jaten ematen diet, eta uxoen jan apur bat izango da.

EMAZTEA. Bai, ala baita!... Gu emen, pameli osoa goseak, eta gizon au plazako uxoei jaten ematen!

PARREGILLEA. Nik biotza biguñā baidaukat.

EMAZTEA. Eta burua gogorra!

MEDIKUA. *Aziari begira-begira:* Baiñan ez, baiñan ez... Au urrea da!... Urrezko azi bat!... Ez det orrelakorik beiñere ikusi!

PARREGILLEA. Ikusten al dezue uxook maitatzea zer dan?

MEDIKUA. Loreak jartzeko ontzirik ba al dezute emen?... Eta ur pixka bat?...

EMAZTEA. Bai, bai...

MEDIKUA. Urrezko azi au lore ontzian jarri zazute, ta sei illabete barru berebiziko sagar ederrak emango dizkizute, ta... sagar guziak urrezkoak!... Or aterako diran sagarrak urrezkoak izango dira!

PARREGILLEA. A!... Sagarrak!

MEDIKUA. Esaten dizut sagarrak izango dirala, baiñan urrezkoak ordea!

PARREGILLEA. Txorakeriak!

MEDIKUA. Baiñan landare orrek urrezko sagarrak ematea nai badezute, egunero regatu egin bearke dezute.

EMAZTEA. Ur prexkuarekin?

PARREGILLEA. Azukrearekin?

EMAZTEA. Esnearekin?

MEDIKUA. Ez, ez. Ba dakizute zerekin? Zuen kopeteko izardiarekin. Ta zuk, andrea, adi zazu ondo...

Belarrira itz egiten dio, eta beste inorrek ez du ezer entzuten.

II. Atala

Lengo gela bera. Baiñan pixka bat apaiñago. Leioan lore ontzi bat dago, ta ontzian landare txiki bat.

LAGUNA. *Sartzen:* Parregillea emen al dago?

EMAZTEA. Lanean ari da.

LAGUNA. Gaur ere bai?!... Nere lagun maitea!... Gizon ori erotu al da?... Beti lanean ari da orain! Ziaro galdu da!

EMAZTEA. Zu zaude galdua, zu; or zabilta egunero tabernan, mozkorkerian, eta zure lagunak ere mozkorkerira eraman nai dituzu!

LAGUNA. Tia, tia... Kontuz, gero, zer esaten dezun, e, andrea; ni oso gizon zuzena naiz, gero, e!...

EMAZTEA. Ez dizut ez baietz eta ez ezetz esango; baiñan gauz bat esango dizut nik: pozik nagoala nire senarra zurekin ez ibiltzearekin... Ara!... Antxedator!

PARREGILLEA. *Korrika sartzen da:* Utzi pasatzen, utzi pasatzen, izerdia legortu baiño lenago!...

LAGUNA. Ta izerdi ori ez legortzeko leiora zuaz?

PARREGILLEA. *Lore-ontziaren gaiñean burua jarrita:* Bai, nere urrezko azi au nere izerdiarekin busti bear det.

LAGUNA. Zer?!... Urrezko azia?!... Ta izerdiarekin busti?!...

PARREGILLEA. Bai, busti bai, ta izerdiarekin!

LAGUNA. Ai, ai, ai,!... Nere lagun maitea! Ziaro erotu zara, gizona!... *Ta korrika ateratzen da.*

III. Atala

Gelak ez du orain lengo txirotasunik. Mueble berri batzuk ere ba daude, ta kortina berriak eta beste gauza politak badaude. Gela ziaro aldatu da.

PARREGILLEA. Ara, andrea, ikusten ari naiz nere lagunak esaten dirana egia dala. Urrezko azi au nere izardiz bustitz zeagatik ornabil gau eta egun lanean. Kanpotarrei zapatak garbitzen, kaleak garbitzen, kartak etxeetara zabaltzen, kaiean barkuak deskargatzen, dendak garbitzen, elbiak uxatzen... lan guziak egiten ditut. Eta landare au?... Lore-ontziari begira. Urrezko ale orrek landare txiki-txiki bat eman du ta alto, sagar bat ere ez!

EMAZTEA. Mediku jaunak esan du, sagar bat emateko sei illabete bear dituala, gizona.

PARREGILLEA. Ta ori da ba!... Gaur betetzen dira sei illabete!

EMAZTEA. Bai?... Egia al da?

PARREGILLEA. Allaxe da. Ara!... Ara emen mediku jauna.

MEDIKUA. *Sartzen:* Egun on, lagunak.

PARREGILLEA. Mediku jauna, nere urrezko aziak eman duan urrezko sagarra ikustera etorri bazera, alperrik etorri zera.

MEDIKUA. Zergatik?

PARREGILLEA. *Landarea apuntatzen:* Oraindik ezertxo ere ez.

MEDIKUA. Zure patrikak ikusiko ditut aurrena. Egiten du. Ara! Obeto zabilta, e?... Emen zillarrezko iru diru ba dituzu.

PARREGILLEA. A, noski!... Lan eta lan, xox batzuk irabazi ditut, noski.

EMAZTEA. Ta nik ere gorde ditut beste batzuk. *Mueble batera joan eta poltsa bat ekartzen du.*

PARREGILLEA. Zer da au!... Diru guzi ori gurea al da?!

EMAZTEA. Noski!... Zu tabernara joaten ez zaren ezkeroztik lan geiago egiten dezu. Ta lan geiago egiten badezu, diru geiago irabazten dezu. Ta tabernara joaten ez bazera, gutxiago gastatzen dezu. Ta mediku jaunak esan zidana egiten det nik: diru ori gorde. Ta zuk bear dezun guzia eman dizut, ta zorrak ere ordaindu ditugu, ta etxea ere pixka bat apaindu degu.

MEDIKUA. Ikusten dezuten bezela, urre azi orrek bere itza bete du: urrezko sagarrak zuen poltxikuetan atera dira.

PARREGILLEA. Orain konprenditzen det. Sendatu naiz!...

MEDIKUA. Bai, baiñan orain segitu bear dezu.

PARREGILLEA. Noski, noski, mediku jauna. Ez naiz ni berriz gaixotuko! Eskerrik asko. Goazen dantza pixka bat egitera.

Parregillea ta bere emaztea dantzan asten dira. Medikua pozik begira geratzen da.

ZAPIA JETXI

Erbia ta tortuga

Fernando Nathanen *Comment jouer aux marionettes*'etik itzulia.

Dekoradua: mendi bat atzean; alde batean arbol bat, bestean arri bat.

Atal bakarra

ERBIA. *Bakarrik izketan*: Au dek asper aldia, au!... Txakur guziei korrikan irabazten diet... Konejuei ere korrikan aixa irabazten diet... Egia esan, ez dakit zer egin. *Salto batzuk egiten ditu*.

TORTUGA. *Mantxo-mantxo sartzen*: Egun on.

ERBIA. Egun on, tortuga... Ori da patxara, ori... Ja, ja, ja!

TORTUGA. Patxara?... Zer egingo det ba?

ERBIA. Zer?... Ja, ja, ja!...; *jendeari begira*: zer egingo duan tortuga motel onek!...

Pixka bat jostatu, ta pixka bat bizkorttu, ta salto egin, e!... Ez al dezute uste?

TORTUGA. Ixilik egon zaitez, erbia, arro-putz bat besterik ez zera ta!

ERBIA. Ni artoa?... *Jendeari begiratzen dio*: Ni arro al naiz? Ni!?

TORTUGA. Bai, zu!

ERBIA. Zergatik naiz ni artoa, e?... esan!

TORTUGA. Zergatik?... ba, zu bezalakorik ez dagoala uste dezulako...

ERBIA. Ta orregatik al naiz ni artoa?

TORTUGA. Noski, ba!

ERBIA. *Burla bidean*: Noski ba!... Noski ba!... Ta esan zazu, tortuga motel ori, ez al da egia?

TORTUGA. Egia zer?

ERBIA. Alegia, Ni besteak baiño bizkorragoa naizela! Ez al da egia?

TORTUGA. Nola izango da ba egia, gizona!... Zu nola izango zera ba besteak baiño bizkorragoa!

ERBIA. Ezetz!?

TORTUGA. Artoa bakarrik zera zu, orixe, artoa!...

ERBIA. *Umeei begira, besoak gurutzean jartzen ditu, ta gero esaten du*: Ba dakizute tortuga alper onek zer esan diten neri?... Ai, nere inbiria dauka onek, nere inbiria!

TORTUGA. Nik zure inbiria?... Ez orixe!

ERBIA. *Umeei begira*: Ez daukala nere inbiririk, e!... *Salto batzuk egiten ditu*.

TORTUGA. Zergatik izan bear det nik zure inbiria, gizona!

ERBIA. Zergatik?... Ni baiño motelago zeralako!... *umeei begira geratzen da, umeen baiezkoaren zai*.

TORTUGA. Ni zu baiño motelagoa?... Apustu bat egingo dizut!

ERBIA. Zuk neri apustu bat egin? Zuk?!

TORTUGA. Bai, arbol onetatik ango arri arretaraiño.

ERBIA. Baiño... *Umeei begira*: Txoratu al da tortuga au?!... *Berriz tortugari begira*: Egia al diozu, ordea?!

TORTUGA. Baietz, gizona!... *Umeei begira*: Ez al da erbi au artoa?

ERBIA. Ja, ja, ja... Au dek parra egiteko gogoa, au!... Eizeko txakurrak ezin arrapatu naute, ta tortuga motel onek irabaziko naula?!... Ja, ja, ja!...

TORTUGA. Tia, aeroputza... Jarri zaitetz emen, arbolaren ondoan, eta goazen!

ERBIA. Goazen, gizona, goazen... Ja, ja, ja!... *Biak arbolaren ondoan jartzen dira*.

TORTUGA. Bat, bi, iru!... *Ta mantxo-mantxo abiatzen da*.

ERBIA. *Burla egiten*: "Bat, bi ta iru"!... Ja, ja, ja!... Joan adi, ba, tortuga motel ori, joan adi!... Ara!... Nun da?!... *Eskua begietan jarri ta urrutira begira balego bezela*: Noraiño joan da tortuga makal ori?... *Umeei galdetzen die*: Noraiño joan ote da onezkero?!... E?!... Konturatuko balitz bezela: Ara, ementxe dago ta!... Ja, ja, ja!... Ez al dezute ikusten, umeak?! Ementxe dagoala!... Ez duala ezer aurreratu!... Ta onek irabaziko naula!... Ja, ja, ja!...

TORTUGA. *Aurrera dijoala, umeei izketan*: Ez dizuet esan erbi au arroputz bat dala?

ERBIA. Tia, tia!... Ni parrez lertuko naiz eta... Ja, ja, ja... zertarako abiatuko naiz, bi saltotan an nago ta!... Tortuga lanean dagoen bitartean pixka batabestuko det...

TORTUGA. Bai, asi adi orain abesten... Eman, eman!...

ERBIA. *Arbolaren kontra exeritzen da, ta umeei esaten die*: Zer abestuko degu?... E?... Zea: Pipa artuta, txoratzen naiz... Bai?

TORTUGA. Pipik gabe ere txoratzzen aiz i... *Bide erdia pasa du*.

ERBIA. *Ezer entzun ez balu bezela*: Pipa artuta txoratzen naiz, ardoa edanda mozkortzen naiz, mozkortu etta erortzen naiz, nola demontre biziko naiz?...

TORTUGA. *Aurrera dijoa, ia eldu da*: Ik segi zak, segi, arroputz ori...

ERBIA. *Umeei begira*: Bueno, orain beste bat abestu ta abiatuko naiz; eta ikusiko du tortuga motel orrek zein naizen ni... Zer abestuko degu orain?...

TORTUGA. *Ia eldu dala*: Aizu, erbia?

ERBIA. *Oraindik umeei begira*: Zer dezu, tortuga motela?...

TORTUGA. *Allatzen*: Zergatik ez dezu: "Apustua galdu det" abesten?

ERBIA. *Abiatu da, baiñan berandu, galdu du*: apustu zer?!... Ara!... Zer pasa da emen?!... *Umeei begira geratzen da*.

TORTUGA. Irabazi dutela!... Orixe gertatzen da!... Ta zu, arroputz alen ori, arro petral bat besterik ez zerala!... *Ta umeei begira*: Ez al da egia?

ERBIA. Baiñan, gizona, nik uste nuan naiko denbora izango nuala!

TORTUGA. Ba nakin nik, orregatik egin dizut apustua... Arroguziak ori uste izaten dute.

ERBIA. Au dek, au!

TORTUGA. Jakin zazu, erbia, ta zuek ere bai, umeak: abilidadea bakarrik ez da naikoa, lana ere egin bear dala, lana!

ZAPIA JETXI

Zakua ta gaiztakeria

Umeak, ez dira danak bost urtekoak; ba dira zortzi ta amar urteko umeak ere; amabostekoak ere bai, noski; berrogei urteko umeak ere ezagutu ditut nik, gero!

Panpiñlariak umeekin izaten dituan artu-emanak, antzerkian bertan egiten diran alkar izketak, alegia, ez dira beti errezak. Umeak txikiak diranean (jarri zagun zazpi bat urte ingururaino) panpiñlariak ederki erantzun araziko die umei. Emendik aurrera ez da orren erreza izango. Ori, bakoitzak ikusi bear duan gauza da.

Amar edo amabi urteko mutillekin beste antzerki era bat erabili bearke degu.

Nolakoa?

Gaiak sakonagoak izan bear dute; malizi pixka bat geiago ere jarri liteke panpiñ-antzerkian, eta jendearekin izan genezaken artu-emanak beste era batera zuzendu bear ditugu, edo osorik kendu.

Ara emen adibide bat: "Zakua ta gaiztakeria", Marcel Tenporalen *Comment construire et animer nos marionettes*'etik zuzen itzuli det.

Personajeak:

Aguazilla

Txomin

"Txorixo"

I. Atala

Lenengo atal au, kortinen aurrean agertuko da.

Aguazilla gizon ona da, zintzoa, atsegiña; alde batetik bestera dabil, eta esaten du:

AGUAZILLA. Au dek, au; au dek, au; au de, au...

TXOMIN. *Sartzen da; mutil argia da, bizkorra, ta ona; zaku uts bat dakarki arrastaka; aguazilla an dabil alde batera eta bestera; Txominek bere zakua lurrean utzi ta esaten du: Bat, bi!... Bat, bi!... Geldik!*

AGUAZILLA. *gelditzen da, tente, zutik, ta esaten dio: Ara, Txomin, egunon; zer zabilta emen?*

TXOMIN. Egun on, aguazil jauna; buruauste aundiren bat daukazu zuk, e...

AGUAZILLA. Bai, Txomin, buruauste aundia daukat gaur, izugarria.

TXOMIN. Ta zer da ba?

AGUAZILLA. Zer dan?... Zera... "Txorixo" lapurra arrapatu bear detala!

TXOMIN. "Txorixo" lapurra arrapatu?... Zergatik?

AGUAZILLA. Zergatik? Lapurra dalako!

TXOMIN. Ta zure egin-bearra ori al da: lapurrak arrapatzea?

AGUAZILLA. Noski, gizona. Baiñan "Txorixo" ezin arrapatu det!

TXOMIN. Zergatik?

AGUAZILLA. Zergatik?... Gordetzen dalako!

TXOMIN. Arrazoi du.
 AGUAZILLA. Ezin arrapatu det, gizona!
 TXOMIN. Noski.
 AGUAZILLA. Ikusten nauenean alde egiten du azkar; ospa!
 TXOMIN. Noski, gizona, arrazoi du. Zu atzetik joan eta arrapatu bear!
 AGUAZILLA. Joaten naiz ni bere atzetik, gizona, baiñan nik baiño korrika geiago egiten du, korrikalari oso ona baita!
 TXOMIN. Eta orduan zer egin bear dezu?
 AGUAZILLA. Ba orduan, aitortu egin bear, ez det ala "Txorixo" beiñere arrapatuko.
 TXOMIN. Zuk tranpa bat jarri bear zenioke, gizona, ta... zapla!... arrapatu.
 AGUAZILLA. Ezin det, ordea.
 TXOMIN. Zer? Ortarako zera aguazilla, gizona!
 AGUAZILLA. Ezin det. Ez baitakit nik "Txorixo" ori nundik pasako dan!... Zuk ikusten al dezu "Txorixo" nunbaiten?
 TXOMIN. Bai, askotan ikusten det nik "Txorixo"; zaku bat ibiltzen du arrastaka beti.
 AGUAZILLA. Noski, ostutzen dituanak an gordetzen baititu; emen inguruko ollo guziak lapurtu ditu; orain, inguruko ardi guziak ostutzen ari da... *lxilik egoten da pixka bat*. Baiñan zuk zer darabilkizu zaku orretan?
 TXOMIN. Emen? Nere gaiztakeria. *Txomin'ek zakua irikitzen dio ta aguazillak barrena begiratzen du*.
 AGUAZILLA. Nik ez det ezer ikusten!
 TXOMIN. Noski, gaiztakeria, ori ez da beti ikusten... Ori ezda aurretik ikusten, gero baizik. Gaiztakeria aurretik ikusiko balitzake, ez litzake gaiztakeria izango. Gaiztakeriak, ikusten danean, forma asko artzen ditu.
 AGUAZILLA. Ta noiz ikusten da gaiztakeria?
 TXOMIN. Gero.
 AGUAZILLA. Gero? Noiz!
 TXOMIN. Gabon, aguazil jauna.
 AGUAZILLA. Gabon, Txomin... Aizu, gero ikusiko al det nik zure gaiztakeria? Gero utziko al dirazu gaiztakeria ikusten?..
 TXOMIN. Bai, bai, bere gorputza artzen duanean. *Txomin ateratzen da, ta aguazilla asten da berriz alde batera ta bestera*.
 AGUAZILLA. Au dek, au; au dek, au... Arraioa! Gaiztakeria, gaiztakeria!... Orrek ez nau ni "Txorixo" arrapatzeko moduan jarriko!

II. Atala

Kortinak iriki ta kamio bat ikusten da. Txomin zaku bat arrastaka duala sartzen da. Zakua iriki ta barrena begiratzen du, esanaz:

TXOMIN. Bai, emen dago oraindik. *Zakua ate bat balitzake bezela jotzen du: Sartu al liteke?... Bai?... Orduan, ederki, goazen barrena. Ta zakura sartzen da ta zaku barrenen etzaten da.*

TXORIXO. Sartzen da; ez da asko piatzen eta zoko guzietara begira dabil, eta antzezlektik kanpora ere begiratzen du. Iñor ez... Ai, au dek ofizioa, au; beti gordetzen ibili bear. Lapurrak orrela ibili bear izaten degu beti... Lan aundirik egin gabe irabazten degu ogia, egia da; baiñan guk ditugun arriskuak?!... Kartzela dala, aguazilla dala... Lapurreta egitea ez da zallena, ez. Ba dakizute zallena zer dan? Aguazillak arrapatu gabe ibiltzea, iges egitea... Aguazillak ez arrapatzeko gorde egin bear, eta gordetzeko... *Zakua ikusten du. Ara!... Zaku bat!... Batzutan gordetzea zalla da... Zakua mugitzen da, ba dabil, Txorixoren atzetik pasatzen da ta beste aldean etzanda geratzen da.* Aguazillak ez ikusteko inbisiblea izan bear nuke nik eta... *Zaku aldera begiratzen du, ez du ezer ikusten, ixiltzen da, ta berriz asten da: Inbisiblea izan bear nuke nik, bai... Jendeari begiratzen dio, ta gero antzezlektik bera, zakua an ote dagon edo, begiratzen du, ta gero bueltatzen da ta an ikusten du zakua... Ara! Emen dago berriz!... Nik uste nuan zaku onek alde egin zuala!... Ala, ori esaten ari nintzen ni, bai, alegia lapur ofizio onetan zallena ez dala ostutzea, aguazillak ikusi gabe pasatzea baiño... *Zakua lengo tokira joaten da, ta Txorixok begiratzen dio, ta asten da berriz: Nik esaten nuan bezela, lapurren bizi-bidea gogorra dala, ta bizi-bide onetan zailena ez dala ostutzea... gaixtakeria pixka batekin... Zakua tente.**

TXOMIN. Gaiztakeria? Emen nago!

TXORIXO. Zer?!... Itz egiten duan zakua?!

TXOMIN. Gaiztakeria bizirik barrenen daukan zaku onentzako ori ez da ezer.

TXORIXO. Gaiztakeria bizi dan zakua? Gaiztakeria bizi al da zaku orretan?!

TXOMIN. Bai, emen nago!

TXORIXO'k. *Zakua artzen du muturretik, ta gora tira ta an geratzen da txomin kixkurtuta: Zer egiten dezu zuk zaku onetan, astokillo?!*

TXOMIN. Emen?... Zera, aguazillaren bizkar par pixka bat egitera nijoan.

TXORIXO. Aguazillaren bizkar parra?

TXOMIN. Bai, ni gordeta negoan or.

TXORIXO. Aguazillak ez ikusteko?

TXOMIN. Noski, aguazillak ez ikusteko nunbaite gorde bear degu ta.

TXORIXO. Bai, ala da, lapurrak beti gordetzen dira.

TXOMIN. Bai, ta, ala, aguazillak ni ez ikusteko zaku onetan gordetzen naiz; eta gero, aguazillaren aurrean pasako naiz eta ez nau ikusiko; ba dakizu zergatik?... ni emen, nere gaiztakeriarekin gordeta egongo bainaiz!...

TXORIXO. Zure gaiztakeria?

TXOMIN. Bai, noski, ikusten ez dana eta urrea aña balioduana...

TXORIXO. Urreak aña balio duana?

TXOMIN. Bai, gizona!... "Tripontzi" ta "Jangoluke", bi lapur aundienak, erakutxi zidaten gaiztakeria.

TXORIXO. "Tripontzi" ta "Jangoluke" lapurrak? Lapur bizkorrak eta aundiak dira oiek!... Eta oiek biak balio duten urrea aña balio duan gaiztakeria da au?!

TXOMIN. Bai, gizona, ortxe dago zakuan sartuta.

TXORIXO. Zakuan barruan? *Begiratzén du*. Ez det ezer ikusten nik or barruan...

TXOMIN. Egitazko gaiztakeria ez da beññere aurretik ikusten, gizona; gero ikusten da, gero.

TXORIXO. Zuk orrelako gaiztakeri asko ezagutzen al dituzu?

TXOMIN. Nik?... Asko!... Zaku beteak!

TXORIXO. Ta nun daude?

TXOMIN. Borda batean gordeta.

TXORIXO. Borda batean?

TXOMIN. Bai, Arnaldeko arkume bordan.

TXORIXO. Ez det nik Arnaldeko bordarik ezagutzen.

TXOMIN. Ba antxe daude gaiztakeri guziak gordeta.

TXORIXO. Zuk borda batean daudela diozu, arkume askorekin? Arkume asko ta gaiztakeriz beteta dauden zaku asko?

TXOMIN. Bai.

TXORIXO. Eta zu zaku batean sartuta joaten al zera bordara aguazillak ez ikusteko?

TXOMIN. Nik ezin det orrelakorik esan...

TXORIXO. Ni zure orde zaku sartuta joango al nintzake borda orretara aguazillak ikusi gabe?

TXOMIN. Gaiztakeri bat bezela?

TXORIXO. Bai.

TXOMIN. Nik alegiña egingo nuke, baiñan... *Txominek alde guzietara begiratzén du*.

TXORIXO. Azkar, azkar!... An dator aguazilla!... Utzi idazu zakuan gordetzen!... *Bere zakuan sartu nai baluke bezela asten da Txomin, eta Txorixok larri esaten dio: Utzi nazazu orrera sartzén, gizona, bestela aguazillak ikusiko nau ta...*

TXOMIN. Baiñan nik esan diot aguazillari, ordea, nere ondoan pasako dala ni ikusi gabe!

TXORIXO. Bai, baiñan, ori parre egiteko besterik ez da; ta ni arrapatzen banau, berriz, kartzelara eramango nau!... *Eta Txorixok sartzén da zakuan. Zakuak mutur bakoitzean zulo bat euki bear du, Txorixok gero bere burua atera dezan, Txominek sokari tira ta zuloa ixten dio.*

TXOMIN. *Barrenen dagoan Txorixori*: Eta orain, segi aurrera.

TXORIXO. Ez da erreza, ba al dakizu? *Zakuak salto egiten du*. Naiago nuke nik geldik egon...

TXOMIN. Tia, aurrera, nik agindu diot aguazillari bere aurrean pasako naizela gaiztakeri inbisiblearekin, eta berak usteko du zaku onetan dijoana gaiztakeria dala... *Txominek artzen du makil bat eta jotzen du: Aurrera!... Zaku ateratzen da antzezlekitik eta bere atzetik Txomin.*

III. Atala

Kortiñaren aurrean.

AGUAZILLA. *Alde batera eta bestera dabillega esaten du: Au dek, au; au dek, au...*

TXOMIN *sartzen da, zakua aurrean datorrela: Bat, bi... Geldik!...*

AGUAZILLA. *Gelditzen da ta esaten du: Ara, egun on, Txomin.*

Zakua mugitzen da, ezin geldik egonik bezela, ta atzeraka asten da; baiñan Txominek eltzen dio, ta aguazillari esaten dio:

TXOMIN. Oraindik preokupatuta al zaude?

AGUAZILLA. Bai, gizona, oraindik Txorixoren atzetik nabil eta ezin arrapatu det...

TXOMIN. Oraindik Txorixoren atzetik?

AGUAZILLA. Bai ba!

TXOMIN. Oraindik ez dezu Txorixo arrapatu?

AGUAZILLA. Ezetz ba!

TXOMIN. Zergatik?

AGUAZILLA. Ez dakit, gizona, inbisiblea dirudi Txorixo orrek!

TXOMIN. Inbisiblea?

AGUAZILLA. Bai, zure gaiztakeria bezela.

TXOMIN. Nere gaiztakeria bezela?

AGUAZILLA. Bai, berdin... Esan ez dirazu ba gaiztakeria inbisiblea dala, ta zakuan sartuta eramaten dezula?...

TXOMIN. Bai.

AGUAZILLA. Orregatik ba... Aizu, *zakuari begira*, zure gaiztakeri ori asko azi da gaur goiza ezkerro, e!

TXOMIN. Bai, gizona... Azi da, e!

AGUAZILLA. Ta beti bezela inbisiblea da, e?

TXOMIN. Bai ba... Ez al dezu ikusten?

AGUAZILLA. Bai, kanpotik ez da ikusten... Baiñan barrendik?... Zakua mugitzen da. Zure gaiztakeri orrek ez dauka, nunbait, kontzientzia lasai, e?... Aguazillak zakua goiko muturra irikitzen du, ta Txorixoren burua ateratzen da...

AGUAZILLA. Txorixo!

TXORIXO. *Ikaratuta: Zer?!*

AGUAZILLA. Zer?... Legearen izenean, kartzelera!

TXORIXO. Zertarako sartu ote naiz ni zaku onetan!...

TXOMIN. Gaiztakeri bat bezela!

ZAPIA JETXI

Txurrunpilloa

Umeak fantasi gose izaten dira beti.

Ara emen, *Pour occuper et distraire nos enfantsetik* itzuli deten "*Lauto boum*" antzerkitxo (Janvier, 1960).

Kortinaren aurrean izketan:

TXERU. Egun on danei... Nik Txeru izena det... Emengo panpiñen makinista naiz. Panpiñak oraintxe aterako dira zuen aurrera... Zuek onak bazerate! Nola gaur onak izango zeraten, laixter etorriko dira panpiñak; baiñan ez gaixtakeririk egin, gero!... Bestela denak alde egingo dute ta ez dira emen geiago azalduko. Onak izango al zerate ba?... *Utzi umeei erantzuten*. Onak izango zeratela agintzen al dirazute?... *Erantzuten utzi*. Bai? Ederki.

Ara gaur berebiziko biaje eder bat egingo degu. Zuek eta ni alkarrekin joango gera. Nun? Txurrunpilloan. Ez al dakizute Txurrunpilloa zer dan? Nik ere ez... Aparato berri bat omen da. Orain sortua. Berri-berria.

Orretarako, Astronauta ekarri bear det onera, taberak esango dizute Txurrunpilloa zer dan. Berak bakarrik baitaki! Txurrunpilloa astronautak asmatua izan da, ta berak bakarrik daki nola manejatu... Baiñan Astronautari deitu baiño lenago, Txurrunpilloa ekarriko det onera. Ala, Txurrunpilloa zer dan jakingo dezute... *Txeru atera eta Txurrunpilloa ekartzen du*. Ara, ara emen Txurrunpilloa... Ez al da ederra?... Orain Astronauta ekarriko det onera. *Eta kortinatik barrena begira Astronautari deitzen dio*. Astronauta jauna, etorri zaitez, umeak zai daude ta... Bai, bai... oso ondo portatuko dira ta. Ez beldurrik izan, ez... Bai, Txurrunpilloa emen dago. Umeak jakin nai dute, ta nik ere bai, Txurrunpilloarekin zer egin genezaken. Batez ere nik jakin bear det Txurrunpilloa nola manejatu, nik eraman bear det eta!... Etorri zaitez... *Iru eztul entzuten dira*. Astronauta jaunak iru eztul egin ditu... Orrek esan nai du bereala ba datorrela... Orduan zuek, umeak, gero arte. *Ta Txeru joaten du ta Astronautu sartzen da*.

ASTRONAUTA. *Zeremoni aundiarekin, eta bildur pixka bat balu bezela*: Jaunak eta andreak, nere ume maiteak... *Ikastola ematen asiko balitzake bezela*: Txurrunpilloa izugarritzko aparatoa da; miragarria, ordea! Ta orain arte aparato onetaz ezer irakurri ez badezute, orrek esan nai du... *Serio xamar eta mantxo*: orrek esan nai du ez dakizutela irakurtzen. Ez da egia?... Bueno. Baiñan goazen aurrera. Txurrunpilloa aparatozoragarria da. Txurrunpilloa aurrera aldera joan liteke, edozein ume bezela; *ibiltzeko kiñuak egiten*; atzekaldera ere joan liteke, kangrejua bezela; eta saietsera ere joan liteke, karramarroa bezela; gora ere joan liteke, etxaferoak bezela; bera ere joan liteke, Txurrunpilloa, txitxareak bezela; egia esan, Txurrunpilloa alde guzietara joan liteke; gora, bera, eskubira, ezkerrera, saieska... Txurrunpilloa joan liteke aidean, zea... *Utzi umeei itza billatzen*, eta beren erantzunari: ...Ori da, txoriak bezela (edo abioiak bezela)... Txurrunpilloa joan liteke uraren gainean, zea... *Utzi umeei itza arkitzen*: ...bai,

itxasontziak bezela. Bai, Txurrunpilloa joan liteke ur azpian ere, zea... bai arraitxoak bezela (edo submarinoak); ta lur azpian, zea... bai, txitxareak bezela edo satorrak bezela; zeruan, *liriku xamar*, izarrak bezela; ametsetan, umeak eta bertsolariak bezela...

Orain ba dakizute Txurrunpilloa zer dan, eta goazen martxan jartzera. Ori bai, kontuz ibili bear det. *Zerbait ikuitzen du ta motorra asten da, ta beriala geratze da. Berriz asi ta soiñu ikaragarria ateratzen du, ta berriz itzaltzen da. Pixka bat ikaratu ta Txeruri deitzen dio: Makinista!*

TXERU. *Sartzen da: Astronauta jauna, zer nai dezu?*

ASTRONAUTA. Txeru, geratu zazu, Jaungoikoaren izenean, motor ori!

TXERU. *Geratuz: Geratu det Astronauta jauna.*

ASTRONAUTA. Txeru, ni ba noa, Txurrunpilloaren soiñuak belarriak puskatzen dizkit eta... Gero arte. *Ta ateratzen da.*

TXERU. Astronauta jaunak Txurrunpilloa, makina miragarri au, asmatu du, baiñan ez daki nola manejatu; ia nik nola manejatzen deten. *Txeru Txurrunpilloan sartzen da. Aurrera... frenuak kendu bear dizkiot... Motor soiñua entzuten da. Motorra asi det... Elizea bueltaka asten da. Pedala zanpatu... Mugitzen da. Ara!... Ateratzen ari gera!... Ba goaz aurrera, atzera, saieska, lur azpira... Bera joaten du ta izkututzen da. Aidean, laiño tartean... Joaten da gora, izkututzen da. Ba noa egan... Agur, Astronauta jauna!... Agur!... Motor soiñua ixiltzen dijoa, ta ziaro ixiltzen da. Joan da.*

II. Atala

Musika asten da ta zapia igotzen da, ta Polo Norteko dekorazioa ikusten da; ezkerretara Igloo edo eskimalen etxe bat ikusten da. Datorren guzia musika ari dula egin bear da.

Eskimal bat aterako da bere etxetik; eguraldia nolakoa den ikusiko du, ta alde batera ta bestera begiratuko du; barrena sartuko da berriz; aterako da arrantzako kaña batekin eta arrantzan asiko da. Orrela dagoala, motor soiñu aundi bat entzungo du, ta eskimala ikaratu ta etxe-barrura sartzen da korrika.

Orduantxe eltzen da Txurrunpilloa, goitik bera, ta antzeztoki ertzean geratzen da. Txeru urtetzen da.

TXERU. Lurra!... *Irrixtatzen da. Lurra ez, jela!... Brrrr, au dek otza, au... Motorra jelatuta dago... Txurrunpilloa ikuitzen du. ...Txeru jelatuta... sudur punta ere jelatuta... anak ere jelatuta... Eskuak alkar jotzen ditu, anekin lurra jotzen du, berotu naiean dabil. Dana txuri-txuri dago... Lurrean zuri, zeruan zuri... Txeru ere zuri-zuri dago... Ta irrixtatzen da... Jela, elurra!... Eskimal etxeari begiratzen dio. Elur-bola aundi bat da; ez, elur-bola ez, baliteke etxea izatea!... Zer etxe, gero?! Elurrarekin egindako etxe bat?!...*

Polo Nortean nago... oso urruti... Polo Nortea oso urruti dago, munduaren goiko mutur-muturrean. Astronauta jaunak arrazoi zuan, Txurrunpillo au noranai joan liteke, noranai!... Nik jakin izan banu Txurrunpilloa Polo Nortera etorriko zala, nere ardi larruarekin egindako abrigoa ekarriko nuan, eta ur beroa ere bai ekarriko nuan, eta manta bero-bero bat ere ekarriko nuan... eta estufa bat ere bai, eta kafe-esne bero-bero bat ere ekarriko nuan.

Nik elur-bola au joko banuke, aterako ote litzakeiñor?... Ba liteke eskimal bat ateratzea! Ara, iñor ateratzen ez bada, elur-bola bat da. Ta norbaitek erantzuten banau, eskimal-etxe bat da.

Jotzen du ta eskimala ateratzen da.

TXERU. Egun on.

ESKIMALA. *Onen itza geienak ez dira ulertuko; noizean bein itzen bat bakarra ulertuko da.*

Eskimalak Txurrunpilloaren berri eskatuko dio, ta esango dio bildur aundia ematen diola. Txeruk motor soiñuak egingo dizkio aoarekin ta kiñuka esango dio ez diola beldurrik izan bear.

TXERU. Otza daukat.

ESKIMALA. *Etxe barrenera sartzeko kiñua egiten dio: ...Iglu*

TXERU. Gosea ere ba daukat nik.

ESKIMALA....Iglu... *etxea erukutsiaz.*

TXERU. Ondo dago, ba nua zure atzetik. *Eskimala barrenera sartzten da.* Eskimal txiki au oso ona da, bere etxera sartzeko esan dit. "Iglu"... izen polita da etxearentzat. Sartuko naiz...

Sartzeko dagoala, Txeruk galdetuko die umeei ia eskimala nola sartu dan, buruz aurretik edo anak aurretik dituala... Nola umeak kontu aundiarekin begiratzen duten, esango diote burua sartu duela aurrena, makurtuta sartu baita.

Orain musika utsa entzungo da.

Antzezlekua utsa dagoen bitartean, foka bat etorriko da Txurrunpilloaren ondora, ta ikutuko du. Orrela dagoala, artza zuri bat etorriko da burruka billa balebil bezela... Fokak iges egiten du, ta artza bere atzetik joango da.

Txeru iglutik ateratzen da, artza zuri baten larrua besoetan duala.

TXERU. *Korrika dijoan artza zuriari begira egon eta gero umeei itz egiten die: ...Artza zuria oso gaixtoa da... Denak ikaratzen ditu... Fokak ere ikaratzen ditu... Eskimal gaxoak ere ikaratzen ditu... Txeru ere ikaratzen du... Urrutira begiratzen du... Orain urruti dago, ez dago peligrorik, ez dago bildurrik, artza zuria urruti joana da... Eskimalak bai onak dirala... Eskimalak eman dit edari bero-bero bat, oso goxoa edaria... ta gero artza zuri baten larrua eman dit bero-bero egoteko... Baiñan ez dakit larru au nola jantzi. Amonak erakutsi ziran neri alkandara nola jantzi, ta galtzak nola jantzi, nola galtzerdiak jantzi, nola txapela jantzi, nola oiñetakoak jantzi... baiñan nola sartuko naiz artza baten larruan?*

Alegiñak egiten ditu; ez luzeegi; ala, azkenean bizkarraren gaiñean nolabait jartzen du... Orain artza zuri bat ematen det, e?... Orain nere amonak ikusiko baninduke?... Ikaratuko litzake gaxua! Lau oiñetan jartzen da ta alegiñean artzaren antzera ibiltzen da ta artza soiñuak ere egiten ditu... Ta ala dabilela, egitazko artza-orrua entzuten da.

TXERU. ...Oraingo au ez nintzan ni!... Foka bat ote da? ..Artza-orrua alderatzen da... Ez, ez da foka bat, artza zuria baizik, egitazko artza aundi bat... *Eta beriala Txurrunpillora sartzten da, ta burua ateratzen du... Eskimala ez dedilla bere iglutik atera!... Artza-orrua entzuten da, ta andik pixka batera Txeruk burua ateratzen du berriz eta umeei esaten die: Ixilik, xiiiiiii, ez gero soiñurik atera... Ez daga inor. Emen ez da iñor ageri, ez igluan, ez Txurrunpilloan, ezta emen kanpoan ere... Orrua berriz. Txeruk berriz*

bere burua izkutatzen du, ta artza zuria sartzen da ta iglua kanpotik ikusten du, ta norbait urten bear baluke bezela zai egoten da, baiñan ori utzi ta Txurrunpillora begira geratzen da gero, ta ondoratzen zaio, baiñan orduan Txeruk motorra abiatzen du ta elizea mugitzen asten da, ta artza, ikaratuta, iges joaten da beste alderaiño, eta dar-darka ez dio Txurrunpillori begiratu ere egin nai. Orduan, Txeruk burua atera, ta nola ez duan iñor ere ikusten kanpora urtetzen da mantxo-mantxo.

TXERU. *Artza oso bildurtuta dago, e?... Nik oraindik geiago ikaratuko det, ikusiko dezute... Txeru lau oinean jartzen da ta artzaren orrua atera naiean dabil. Orduan artza bueltatzen da, bere arerio bat arkitu balu bezela. Orduan burrukan asten dira, aurrena mantxo ta gero azkar eta azkarrago, ballet bat bezela, bere biziko soiñuak atera arte. Dantza bat bezela izango da au, umeak par egin dezaten. Azkenean, alkarikusi gabe kruzatzen dira, artza zuria iglu aldera dioa ta Txeru, berriz, Txurrunpillora. Txeruk artzen du soka bat, soka-lazo bat, eta artzaren atzetik eldu ta lotzen du.*

TXERU. *Irabazi det!... Arrapatu zaitut... Eskimal txikia, etorri zaituz, arrapatu det artza; sokarekin arrapatu det, arrai bat bezela.*

ESKIMALA. *Iglutik ateratzen da. Arrituta dago, ta begira-begira geratzen da, ia nola arrapatu duan galdezka bezela; ta itz egiten du, iñork ulertzen ez duan izkuntza da.*

TXERU. *Eskimalari: Zuretzat da, ematen dizut. Ez al dezu nai? Bildurra al daukazu?... Bueno Artza zuria libre utziaz. Libre zaude berriz, artza, joan zaituz zure lagunekin jostatzerara, baiñan ez zaituz geiago etorri... Guk pakean utziko zaitugu, baiñan zuk ere gu pakean utzi, e? Konforme al zera? Artzak baiezko kiñua egiten du. Pakea pakearen truke. Agur... Artzak agur egiten du ta ba dioa.*

Eta orain, eskimal ona, ni ere ba nua... Nere amonari esan bear diot gertatu zaiten guzia... Nola Polo Nortera etorri naizen, nola iglu bat arkitu deten, eta barrenen eskimal bat nola ikusi deten, gero nola artza zuri batekin burrukan ibili naizen, nola lazoz arrapatu deten eta... Ara, tori eman dirazun artz-larrua...

ESKIMALA. *Esan nai dio, berarentzat dala, artzeko.*

TXERU. *Ematen al dirazu?... Neretzat?... Eskerrik asko, eskimal txikia, eskerrik asko. Nere amonari emango diot, eta pozik jarriko da; berak beti anketan otza izaten baitu. Artzaren larru onekin anak ederki berotuko ditu. Nik bialduko dizut zuri zerbait onen truke... Guk gure errian ba ditugu... txapelak burua berotzeko, bai, txapel bat bialduko dizut!... Nere erria oso erri polita da; neguan elurra egiten du, baiñan pixka bat bakarrik, asko ez... Ba dakizu nun egiten dun elur asko?... Ernion eta Aitzgorrin eta beste mendietan ere bai, baiñan errian ez, errian ez du elur aundirik egiten...*

Alkar besarkatzen dira, ta Txeru Txurrunpillora sartzen da gero.

TXERU. *Aurrena frenua kendu motor soiñua, gero motorra asi elizea bueltaka asten da ta orain pedala zanpatu... abiatzen du ba nua!... Agur, eskimal txikia, agur...*

Txurrunpillora gora aldera joaten da ta alde egiten du.

Musika

Azkeneko atala

Musika ari duala, eskimal txikia agurka ariko da, ta gero iglura sartuko da, zapia jetxiko da.

Orain zapiaren aurrean

TXERU. Lurra!... Astronauta jauna (zurrunkaka ari da norbait) Astronauta jauna... (umeei) Astronauta jauna lo dago... Txurrunpilloa bere ondoan utziko det... *Bultzaka eramaten du Txurrunpilloa, eta ia zapiaren atzean izkutatu danean bueltatzen da ta ixilik esaten du: Orain, agur, urren arte, muxu asko zuentzat eskuekin kiñu egiten du ta urren arte! Agur!*

Sorginaren urrea

Antzerkitxo au nere izen bereko ipui batetik egokitu det.

Ara emen personajeak:

Amona

gizona

Andrea

Mutil koskorra

Ama

Aita

I. Atala

Zubi baten gainean amar bat urteko mutil bat dago, urari begira, ezer egin gabe.

Amon xar bat sartzen da:

AMONA. Zer egiten dezu emen?

MUTIKOA. *Lotsagabe:* Emen, eguzkia artzen.

AMONA. *Umeei bakarrik izketan:* Ixo, ixo... Mutiko onek ez daki ni Lizarkolako sorgiña naizela; ez daki... Ja, ja, ja!... *Gero, mutikoari begira:* Aizu, ta ez al dezu ikastolara joan bear?

MUTIKOA. Nik ikastolara?... Zertarako joan bear det?

AMONA. Zertarako? Ba, irakurtzen ikasteko.

MUTIKOA. Irakurtzen?... Ti, tia... Nik aspaldi ikasi nuan ori, amona, aspaldi!...

AMONA. *Jendeari bakarrik izketan:* Ez da egia, ez da egia, ixo, ixo... Ja, ja, ja...

Mutikoari izketan: Bai, e! Ba dakizu irakurtzen, e!

MUTIKOA. Bai, amona, bai.

AMONA. *Kolkotik edo poltsikotik liburutxo bat ateratzen du:* Ba, orduan, irakurtzen baldin badakizu, tori liburutxo au.

MUTIKOA. *Liburua eskuetan artu ta begira-begira geratzen da, zer egin ez baleki bezala; gero umeei bakarrik itz egiten die:* Nik ez dakit irakurtzen, ezta tantorik ere! Ja, ja!...

AMONA. Zer, irakurriko al dezu liburu ori?

MUTIKOA. Bai, bai... Noski, amona; pozik irakurriko det zuk emandako liburu polit au.

AMONA. Tia, irakurri zazu ba...

MUTIKOA. Bai, bai... *Orain umeei begira esaten du:* Nola irakurriko det ba, ez dakit eta, ja, ja!... *Gero berriz amonari begira:* Baietz, amona, liburu au dan-dana irakurriko detela.

AMONA. Bai, irakurri bear dezu. Ba dakizu zergatik?

MUTIKOA. *Arrituta bezela:* Ez...

AMONA. Ba, or esaten du, liburutxo orretan, zuri gertatuko zazun guzia.

MUTIKOA. *Oso larritua*: Bai...?

AMONA. Bai, bai, gertatuko zazun guzia... ta orain agur...

AMONA. *Umeei begira*: Ia orain zer egiten dun mutiko alper onek. *Eta ateratzen da*.

MUTIKOA. Ai, ai!... Orain zer egin bear det nik?... Nik ez dakit irakurtzen. Nola jakingo det nik orain zer gertatuko zaiten?!... Ai, ai...

GIZONA. *Sartzen*: Egun on, mutiko... Zer zaude or urari begira?

MUTIKOA. Bai, emen nago, denbora pasa.

GIZONA. Ara zer liburu polita. Irakurtzen ba al dakizu?

MUTIKOA. *Umeei begira*: Ara onek irakurriko dit liburutik zerbait. Ia zer pasako zaiten esaten ditene...

MUTIKOA. *Gizonari izketan*: Irakurtzen, bai gizona, aspaldi ikasi nuan nik ori!... Ufa!... Baiñan, ba al dakizu zer pasatzen zaiten?

GIZONA. *Zer? Eta gero umeei begira*: Ni sorgiña naiz; gizonez jantzita nago; baiñan sorgiña naiz!... Ixo, e!... Ixo! Xxxxxxiiii...

MUTIKOA. Ba, ba dakizu zer pasatzen zaiten?... Zera... Dana irakurtzen badakit, baiñan aurreneko orri au ezin det entenditu... Irakurriko al zenidake zuk?

GIZONA. Bai, bai.

GIZONA. *Umeei begira*: Ume au gezurretan dabil, gezurretan; mutiko onek ez daki irakurtzen, baiñan ez diot orain ezer esango.

MUTIKOA. *Liburua ematen*: Ara, irakurri akidazu ba lenengo orria, gizona.

GIZONA. Bai, bai... *Pixka bat irakurtzen egoten da, ixilik*. Ba dakizu zer esaten dun?

MUTIKOA. Ez.

GIZONA. Ba, liburutxo onen lenengo orriak diona da, liburutxo onen jabea gaur gabeen Txistokiko etxe zarrera joaten bada, zaku bete urre arkituko duala.

MUTIKOA. *Pozez zoratzen*: Bai?!

GIZONA. Bai, bai... *Ta gero umeei begira*: Ixo, e!

MUTIKOA. Zaku bete urre?

GIZONA. Baietz, mutiko, ala dio liburutxoak aurreneko orrian. Eta orain banua, agur. *Joaten da*.

MUTIKOA. Ederki naiz... Aufa!... Au dek, au!... Orain bai aberastuko naizela! *Ta umeei begira*: Gaur gabeen aberastuko naiz! Aufa!

ANDREA. *Sartzen*: Egun on, mutiko. Zer egiten dezu or? Urari begira?

MUTIKOA. Emen nago, amorraiak ikusten.

ANDREA. Ara zer liburu polita!... Irakurtzen ba al dakizu?

MUTIKOA. *Umeei begira*: Ara, ixo... ara emen beste bat, onek irakurriko dit beste orri bat... Ixoooo... *Eta andreari izketan*: Bai, irakurtzen ba dakit... Baiñan oraindik aurreneko orria bakarrik ikasi det; bigarrena irakurtzen ez dakit, zuk irakurriko al zenidake?

ANDREA. Bai, bai, irakurriko dizut. *Eta gero umeei bakarrik*: Ixo, mutiko onek ez daki ni andrez jantzitako sorgiñabera naizela... Ja, ja... Ixo... Onek ez daki ni sorgiña naizela!...

MUTIKOA. Tori ba liburutxo, andrea, ta bigarren orria irakurri akidazu.

ANDREA. Bai... Ara, bigarren orri onek diona da: errearen konturik inorreri ez esateko, ta beraren billa zu bakarrik joateko.

MUTIKOA. Bakarrik?

MUTIKOA. *Umeei begira*: Ara, mutikoa ikaratu da, ixo... *Ta gero umeei*: Bai, bai, errearen billa bakarrik joateko. Ta orain joan egin bear det, agur, e! *Liburua ematen dio*.

MUTIKOA. Bai, agur... *Umeei begira*: Gabean Txistokira bakarrik!...

MUTIL KOSKORRA. *Sartzen*: Zer zaude or, urari begira?

MUTIKOA. Emen, denbora pasa.

MUTIL KOSKORRA. Ara zer liburu polita... Irakurtzen ba al dakizu?

MUTIKOA. Noski... Ta zuk?

MUTIL KOSKORRA. Nik bai.

MUTIKOA. Asko?

MUTIL KOSKORRA. Dana.

MUTIKOA. Dana irakurtzen ba dakizu?

MUTIL KOSKORRA. Noski, dana. Ta zuk?

MUTIKOA. Bueno... Nik aurreneko ta bigarren orria irakurtzen ba dakit, baiñan irugarrena ez... Pixka bat lotsatuta.

MUTIL KOSKORRA. *Umeei begira*: Onek ez daki ni mutil-koskorrez jantzitako sorgiña bera naizela... Ja, ja... Onek ez daki ni sorgiña naizela... *Ta gero mutikoari*: Irugarren orria irakurtzen ez dakizula?... Ai, ai... Nai al dezu nik irakurtzea'?

MUTIKOA. *Pozik*: Bai, asko extimatuko nizuke, lagun, asko. *Ematen dio liburua*.

MUTIL KOSKORRA. Bai, bai... Ara zer dion irugarren orriak... *Ixilik egoten da pixka bat, irakurtzen*: Ara, irugarren orri onek dio, zera: Txistokin arkituko dezun urre orrekin Andoain osoa erosi ta erriko alkate egingo zaituztela...

MUTIKOA. Bai?!

MUTIL KOSKORRA. Bai, bai, ala dio emen... *Eta gero umeei begira*: Mutil onek dana xinixten du!... Ez baitaki berak irakurtzen!... Ja, ja...

MUTIKOA. Eskerrik asko.

MUTIL KOSKORRA. Bai, ta orain agur. *Joaten da*.

MUTIKOA. Au dek, au!... Orain bai betiko ondo biziko naizela. Ikastolara joan izan banintzen, ez nintzan aberastuko. Beti or, irakurri ta irakurri, ta lan eta lan!... Zertarako? Emen lasai-lasai egon, eta aberatsa!... Aufa!... *Ta altxa ta joaten da txistuka*.

ZAPIA JETXI

II. Atala

Dana illun dago, ez da ezer ikusten.

MUTIKOA. Orrera sartu bear al det nik?... Illuna dago, e! Emen ez da ezer ikusten. Dar-darka izketan asi ta... Gauzak ereriko balirake bezelako soiñuak atera bear dira, estropozoka baitabil illunpetan. Ai, ai... Au miña!... Zer erori zait nere burura?... Ai, nere

anka!... Zer da au, arri bat?!... Nik ba nituan emen poxpolo batzuk... Ia, emen, poltxikuan?... Ez daude... Emen... A!... Ara. emen daude.

Poxpolua pixtutzen du

Dekoraduan ikusten dana etxe zar-zar bat da; dana erorita dago; emen ez da aspaldi iñor bizi.

AITA. Poxpoluak irauten dion bitartean: Au zer da!... Eta ijitoak emen lo egiten dute batzutan... Ai, au dekbildurra, au... Epa! Ez al dago emen iñor?... Ai, ama... Zergatik sartu ote naiz ni onera... Urrea arkitzeak ere ematen ditu lanak... Ai! Poxpolua itzaltzen zaio. Ara, poxpolua itzaldtu zait... Au dek lana, au. Ai! Zer da au! Ikaratuta. Zer da, zer da?!... Ai, eskallera zar bat! Ijitoren bat zala uste nuan!... Ai, ai... Au dek bildurra au!... Pixtutzen du beste poxpolua. Au zer da!... Emen ez dago zakurik; ez da iñundik ageri... Eskaillerak igo bearko ditut, ba liteke ta urrez betetako zaku an goien egotea... *Itzaltzen zaio poxpolua berriz*. Ara, berriz argirik gabe... Igoko naiz gora, ia an goian dagon... *Eskaillerak igotzen pausoak eta soiñu batzuk*. Ai!... eskaillera au puskatuta dago... Ni ilko naiz emen!... Ara, gora eldu naiz, ta emen... ia poxpolu batekin zerbait ikusten dan... *Pixtutzen du poxpolua*. Ara, au ere bekoa bezela dana puskatuta dago... Ara, or lo egingo dute ijitoak, or dago tokia... Ta ara zakua!... Ara, ara!... *Itzaltzen zaio poxpolua*. Emen dago, emen dago!... Au dek pixua, au!... Nola eramango det nik au etxera?... Baiñan zer egingo det nik orrenbeste urrerekin?!... Au dek pixua, au!... Eup!... *Jasotzeko indarra egiten du*. Ba nua... Eskallera baranda au puskatuta dago... ni emendik bera eroritzen banaiz, zaku ta guzti, burua puskatuko zait... Au dek pixua, au!... *Eskaillerak jexteko pauso suiñuak*. Mantxo jetxi bear det nik emen, bestela... Ai!... Emen dago puskatuta dagon eskaillera mailla... Eup!... Jesus, au dek pixua, au!... *Zakua lurtean uzten du*. Ez al da egongo iñor emen, e?... Poxpolu bat pixtu bear det, ia atea nun dagon... *Pixtutzen du*. Au dek etxe zikiña, au!... Ez al da, gero, emen ijitorik egongo, e? *Bildurrak izketan*. Emen bat ateratzen bazait, bildurrak ilko naiz! Tia, goazen, goazen... *Zakua bizkarrera igotzen du*. Eup!... Au dek pixua, au!... *Eztropozoka, soiñuak ateratzen dijoa*. Ai!... Nere anka!... Ara, atia, azkenean... Bazan garaia!... Orain etxera, ta aberastu naiz!... Aupa!... Agur, ijito-etxea!... Agur, Txistoki!... A zer poza emango dioten nik amari zaku bete urre erakusten diotenean!... Eskerrak ez naizela ikastolara joan!... Ikastolara joan izan banintzan, ez nuan orrelakorik beñere arkituko. Ikastolan beti irakurri ta irakurri... Zertarako? Ala!, etxera, ta orain aberatsa izango naiz betiko!...

ZAPIA JETXI

III. Atala

Etxe bateko sukaldea, ta mutikoaren ama dago josten.

AMA. Nun ote dabil gure mutikoa!... Ai, bere aitak oraindik ez dala oieratu baleki, ta etxetik kanpora dabillega baleki... Ene!... Eskerrak bere aita aspaldi oiera joana dala, ta orain lo dagoala, bestela... Aita oiean dago, noski, oso nekatuta etortzen baita lanetik,

oso nekatuta!... Gero apaltzen du eta oiera joaten da, loale aundia ekartzen du ta. Gizarajoa, bere mutikoari jana ta ikastola emateagatik gizon orrek egiten dituan lanak!... Goizean seitan jeikitzen da, ta lanera joan ta gabeko zazpiak arte ez da etortzen. Eta ain nekatuta etortzen da, beriala apaldu ta oiera joan bear!...

AITA. *Bere gelatik deika:* Aizu!

AMA. *Ikaratuta bezela:* Ara, nere gizona esna dago oraindik!...

AITA. Aizu, semea nun da?

AMA. *Jendeari begira:* Ai, ai, ai!... Zer esango diot nik orain?... *Gero, gizonari:* Umea oiean dago, gizona: egin zazu lo, umea ere lotan dago ta...

AITA. Lo al dago?

AMA. Bai, bai.

AMA. *Jendeari begira:* Ai, ai!... Gezur txiki bat esan diot, e?... Jaungoikoak barkatuko al nau!... Baiñan zer egingo nuen ba, gure mutikoa oraindik ez da etorri ta aitak ori jakingo balu, paliza aundi bat emango lioke!... Ai, ai, gure mutiko ori nun ote dago?...

MUTIKOA. *Ixilka izketan:* Ama!

AMA. Zer? ori zer zan?

MUTIKOA. *Ixilka:* Ama...

AMA. *Ixilka:* Seme!... Nun zaude?

MUTIKOA. *Beti ixilka:* Emen.

AMA. Nun?

MUTIKOA. Emen ba. *Atetik burua sartzen du.*

AMA. Ai, nere semea, etorri zaitetz!

MUTIKOA. Ta aitatzok?

AMA. Aitatzok oiean dago. Ixilik, oraintxe zure galdezka zan eta.

MUTIKOA. *Zaku ta guzti sartzen da:* Ama, ama!...

AMA. Zer dezu zaku orretan seme?

MUTIKOA. Emen?... Urrea, ama, urrea!!

AMA. Zer?!

MUTIKOA. Baietz, ama, urrea!...

AMA. Egon zaitetz ixilik, ume!

MUTIKOA. Baietz, ama, baietz!... Orain aitatzok ez du lanik egin bear, ta zuk ere ez...

AMA. Nola liteke ori?

MUTIKOA. Baietz... Eta ni Andoaingo alkatea izango naiz, eta etxe berri bat erosiko degu ta danok ondo biziko gera betiko, ama...

AMA. Zer amets da ori, seme?

MUTIKOA. Ara, amatxo, ara... *Zakua erakusten dio.* Ara zer pixua, ama?...

AMA. *Zakua lurretik artu ta pixka bat jasotzen du:* Ai, bai, oso pixua da... Ta zer dago or?

MUTIKOA. Ama, urrea dala!!

AMA. Urrez betea zaku ori, ez da posible!

MUTIKOA. Baietz, ama... Begira zazu. *Ta zakua askatzen du.*

AMA. *Zakura begira:* Baiñan, emen arria besterik ez dago, seme!

MUTIKOA. Arriak?! *Eta barrena begiratzten du.*
 AMA. Bai seme, arriak...
 MUTIKOA. *Barrena begira: Ai, ama! Negarrari ematen dio.*
 AMA. Tia, seme, ez zazula negarrik egin... Zer gertatu da? Zeiñek esan dizu zaku onetan zagoana urrea zala?
 MUTIKOA. Ara, amatxo...
 AMA. Egia esan, seme, ori da egin bear dana ta...
 MUTIKOA. Egia esango dizut, amatxo... Ara, ni gaur atsaldean ez naiz ikastolara joan...
 AMA. Zer?!... Piper egin dezu?
 MUTIKOA. Bai, ama, barkatu...
 AMA. Egia esan didazulako barkatzen dizut...
 MUTIKOA. Ba, amatxo, Lizarkolako zubira joan ta an egon naiz...
 AMA. Zer egiten?
 MUTIKOA. An, ama, urari begira...
 AMA. Ez zera sagarrak ostutzera joan?
 MUTIKOA. Ez, amatxo, egia, ez naiz sagarrak ostutzera joan...
 AMA. Ta zer pasa da zubian?
 MUTIKOA. *Belarrira amari dana esaten dio ta gero: Ori pasa zait, amatxo... Ta negarrez asten da.*
 AMA. Ez zazula negarrik egin, seme... Sorgiñ orrek ba dakizu zer egin dizun?
 MUTIKOA. Zer, amatxo?
 AMA. Ba, sorgiñ orrek lekzio bat eman dizu.
 MUTIKOA. Lekzio bat?
 AMA. Bai, lekzio bat. Or al daukazu liburutxoa?
 MUTIKOA. *Kolkotik liburutxoa atera ta amari ematen dio: Au da liburu, ama.*
 AMA. *Liburu artu ta irakurtzen du: Alaxe da, alaxe da.*
 MUTIKOA. Zer dio liburuak, ama?
 AMA. Zer dion? Ara, liburu onek esaten du zuri pasa zaizun guzia.
 MUTIKOA. Neri pasa zaiten guzia?
 AMA. Bai, seme; irakurtzen jakin izan bazendun, jakingo zendun emakumea ta gizon gaztea ta mutikoa ta liburu eman zizun amoña sorgiña bera zirala...
 MUTIKOA. *Ikaratuta: Sorgiña?!...*
 AMA. Bai, sorgiña bera zan... Ta gaiñera irakurtzen jakin izan bazendun ikusiko zendun Txistokiko etxe zarrean zegoan zakua arriz beteta zegoala.
 MUTIKOA. Liburuak ori esaten du?
 AMA. Bai, orixe esaten du. Baiñan sorgiñak bazekian zuk irakurtzen ez zenekila, ta zuri lekzio bat eman nai izan dizu.
 MUTIKOA. Ai, ai... Orain bai irakurtzen ikasiko detela!
 AMA. Noski, seme, orrela ez dizu iñork engaiñatuko.
 MUTIKOA. Egia da, ama.
 AMA. Bai, ta orain joan zaitez oera, biar ikastolara joan bear ko dezu ta.
 MUTIKOA. Bai, amatxo... Eman idazu muxu aundi bat. *Ematen dio... Ondo lo egin. Eta ba dijoa.*

AMA. Ondo lo egin, seme.

AMA. *Jendeari begira*: Nere mutiko au ona da, oso seme ona da: baiñan ikastolara joateko alper xamarra... Baiñan sorgiñak eman dion lekzio onekin, mutikotxo onek ikasiko du azkar asko.

ZAPIA BOTA

Erregeak eta arto alea

I. Atala

Kanpanako baserri-sukalde batean ari dira ama semea izketan.

SEMEA. Amatxo, kalera joan bear al degu bizitzera?

AMA. Bai, seme.

SEMEA. Zergatik?

AMA. Kaletik urruti dago baserri au, seme.

SEMEA. Bai, amatxo, baiñan nik baserrian bizi naiago det ala ere.

AMA. Zergatik?

SEMEA. Emen txori eta oilloak eta beiak eta txekorrak eta beste animalia polit asko dauzkagu ta.

AMA. Baiñan kalean ere beste bentajak ba ditugu, ordea.

SEMEA. Zer bentaja, amatxo.

AMA. Ba trena bertago, ta dendak erosoago ta automobillak ere bai.

SEMEA. Amatxo, ta zergatik ez degu erritik onera kamio zabal bat egiten; automobillak ere igoko dira orduan.

AMA. Bai, baiñan lan asko egin bear da orretarako.

SEMEA. Nik egingo nuke lana; nik baserrian bizi naiago det.

AMA. Baserri au kaletik urruti dago, seme; ez al zera gogoratzen lengo urtean erregerik ere ez zala onera etorri.

SEMEA. Zergatik ez ziran etorri, ama?

AMA. Ba, urruti dagoalako.

SEMEA. Orregatik?

AMA. Bai. noski.

SEMEA. Ta kalera joaten bagera, jostailuak ekarriko al dizkidate?

AMA. Noski, seme, kalean bai.

II. Atala

Kaleko sukaldean ama ta semea ari dira izketan

SEMEA. Amatxo, erregeak gaur etorriko al dira?

AMA. Bai, seme, gaur gabeen.

SEMEA. Gabeko amabietan?

AMA. Ez dakit, seme, amabi-amabietan etorriko diran; baiñan amabik inguruan etortzen omen dira.

SEMEA. Amatxo, ta zuk ez al dituzu erregeak beñere ikusi?

AMA. Ez, nik ez... Erregeak ez ditu iñortxok ikusten.

SEMEA. Iñorrek ez?

AMA. Ez, iñorrek ez.

SEMEA. Nik badakit nork ikusten dituan...

AMA. Nork?

SEMEA. Jaungoikoak!

AMA. A, noski, Jaungoikoak bai. Baiñan beste iñortxok ere ez.

SEMEA. Beste iñortxok ere ez?

AMA. Ez.

SEMEA. Nik ba dakit beste nork ikusten dituan.

AMA. Nork?

SEMEA. Amabirjiñak!

AMA. A, noski, Amabirjiñak bai...

SEMEA. Ta nik ba dakit beste nork ikusten dituan...

AMA. Tia, tia, zapatak garbitu al dituzu?

SEMEA. Bai, amatxo.

AMA. Ondo-ondo garbitu al dituzu. gero!

SEMEA. Noski, amatxo, oso ondo, ara.

AMA. Bueno, orain leioan jarri, ta oera.

SEMEA. Oraintxe?

AMA. Noski, bestela, esna ikusten bazaituzte, ez dizute ezer jarriko.

SEMEA. *Zapatak leioan jartzen ditu*: Amatxo, neri merezi detana ekarriko al dirate?

AMA. Noski, merezi dezuna.

SEMEA. Ta zer merezi det nik, e, ama?...

AMA. Auxe. *Ipurdin jotzeko kiñua egiten dio ta bata bestearen atzetik ateratzen dira.*

III. Atala

Iru erregeak sartzen dira sukaldera, bakoitza bere jostailluz betetako zaku batekin.

MELTXOR. *Aurrena sartu da*: Zein bizi da emen?

GAXPAR. Ixo, ez zazula bullik atera... Lo daude ta. Emen... *Paper bateri begira*: Emen... Arrantzuko Patxi bizi da.

BALTAXAR. Arrantzuko Patxi? Ez al zan ba mutil ori Arrantzu baserrian bertan bizi?

GAXPAR. Bai, bai... Baiñan kalera jetxi dirala ba!... Egon zaitex ixilik, gizona.

MELTXOR. Tia, tia, aserretu gabe... Zer merezi du mutil orrek?

GAXPAR. *Paperari begira, berriz*: Mutil au oso ona da, gurasoak esaten dioten guzia egiten du...

BALTAXAR. Dan-dana?

GAXPAR. Noski, ba, gizona... "Dana" esan ez det ba?... Nik beiñere gezurrik esan al det?

BALTAXAR. Ez, baiñan...

GAXPAR. Tia, mutiltxo onek gurasoak esaten dioten guzia egiten du, ta eskolara zintzo joaten da, ta bere lagunekin ere jostatzen pakean ibiltzen da.

MELTXOR. Orduan asko balio duen zerbait jarri bearko diogu, e!

GAXPAR. Bai, merezi du.

BALTAXAR. Zergatik ez diogu bizikleta bat jartzen?

GAXPAR. Egon zaitetz ixilik, bizikleta batekin bere burua puskatuko du ta.

BALTAXAR. Orduan... Zergatik ez diogu baloi bat jartzen?

GAXPAR. Egon zaitetz ixilik, baloi batekin jostatzen dabillega anka bat puskatzeko?

Ez orixe!

BALTAXAR. Orduan zer ba?!

MELTXOR. Ez zazula bueltarik atera, gizona, mutikoa esnatuko dezu ta.

GAXPAR. Ba dakizute zer jarriko dioten?

BALTAXAR. Ez.

MELTXOR. Ez.

GAXPAR. Arto ale bat jarriko diot.

BALTAXAR. Zer?!... Arto ale bat?

MELTXOR. Bai,

BALTAXAR. Ori al da mutil ona izan dalako premiua?!

MELTXOR. Bai, ori da premiorik ederrena.

BALTAXAR. Bueno, baiñan...

MELTXOR. Tia, tia, Baltaxar... Beti ba dezu zerbait. Mutiko au Gaxparena da, eta berak nai duana jarriko dio.

GAXPAR. Ara. *Uzten du zapata batian*: Nere aurtengo erregaloa, Arrantzuko Patxi.

Ateratzen dira ta azkena Baltaxar geratzen da, ta ateratzerakoan jendearengana bueltatu ta esaten du:

BALTAXAR. Patxi gizarajoa! Arto ale bat baino ez!...

IV. Atala

Lengo sukalde bera

SEMEA. *Zapatetan begira*: Ama, ez dirate ezer ekarri!...

AMA. Sartzen: Nola ez dizutela ezer ekarri?

SEMEA. Ez, ama *Negarrez*: ..Ez al naiz ba ondo portatu?

AMA. Bai, semetxo; ez zazu negarrik egin... Baiñan, ara, arto ale bat...

SEMEA. Arto ale bat?... Zertarako det nik au!

AMA. Zertarako? Artoa ereiteko.

SEMEA. Ama, baiñan zer egingo det nik arto ale batekin bakarrik?

AMA. Zuk ez al dakizu, Andoaingo ta Euskal-Erriko arto guziak arto ale batzuetatik etorriak dirala?

SEMEA. Ez. Nola liteke ori?
AMA. Bai, Ameriketatik ale batzuk ekarri, emen erein eta ara orain zenbat arto daukagun.
SEMEA. Ama, guk ez daukagu artorik.
AMA. Ez, orain ez, baserria utzi genduan eta.
SEMEA. Ta nun ereingo det nik arto ale au?
AMA. Leioko lore-ontzi onetan.
SEMEA. Ta zenbat ale emango dizkit ale onek?
AMA. Asko, berregun bat ale bai.
SEMEA. Ta nun ereingo ditut nik, ama, datorren urtean berregun arto ale?
AMA. Ba... ez dakit ba, emen lekurik ez dago ta.
SEMEA. Ta berriz baserrira joango bagiña?
AMA. Ala bearko, baserrian bai...
SEMEA. Ta zenbat ale emango dizkiate berregun ale oiek, amatxo?
AMA. Ai, ai... Berregun ale erein ezkerro, gutxienez berrogei milla bai.
SEMEA. Berrogei milla?!
AMA. Bai. seme...
SEMEA. Ta urrengo urtean berrogei milla ale oiek ereiten baditut, zenbat, gero, ama?...
AMA. Ba... ufl... asko, seme, asko...
SEMEA. Zenbat, amatxo?
AMA. Nik ba al dakit zenbat... Baiñan asko! Millaka!
SEMEA. Ama, baserrira joango gera berriz, eta arto ale onekin, eta urte batzuk barru arto-iriñ pranko egingo degu. Ez al da egia.
AMA. Bai, seme... Bear bada orixe da erregeak esan nai zizutena, arto ale ori utzi zizutenean.
SEMEA. Ori ote da, amatxo?
AMA. Bai, semea, baserrira joango gera berriz.
SEMEA. Aupa!!...

ZAPIA JETXI

Erabilitako liburuak

Chesnais, Jacques, *Histoire générale des marionettes*, Bordas, 1947, France.

Les marionetes scoutes, n. 153, Juin 1942, Allier, France.

Mane Bernardo, *Títeres y niños*, Serie "La escuela en el tiempo", Editorial Universitaria de Buenos Aires, 1962.

Pour occuper et distraire nos enfants, Janvier 1960, n. 57.

Temporal, Marcel; *Comment construire et animer nos marionettes*, Editions Bourrelier, Paris, 1959.

Títeres, mundo encantado de trapo y de carton (Felipe Rivas Mendo). Suplemento del diario El Nacional, Caracas, 7.8.66.

UGALDEAR MARTIN

Sorgiñaren urrea

Umeentzako kontuak

Eskeintza.

*Anamari'ri berak euskeraz ikasi
ta gure seme-alabak sieskatik
euskaldun egiten lagundu diralako
maitasunarekin.*

Sorgiñaren urrea

Bein bizi omen zan mutil bat, eta izena omen zuan Xabier.

Xabier mutil alperra zan eta ez zuan irakurtzen ikasi nai. Maixuak eta amatxok eta aitaxok erakutxi nai zioten, baiña Xabierto'k ez zuan ikasi nai.

Ala, arratsalde batean ikastolatik piper egin eta Lizarkolako zubian exerita omen zegoan eguzkia artzen.

Eta amona xar bat pasa zan.

– Zer egiten dezu emen? –esan zion Xabier'eri.

– Eguzkia artzen –erantzun zion Xabier lotsagabeak.

Baña Xabier'ek ez zekian amona zar ura sorgiña zala!

– Eta ez al dezu ikastolara joan bear? –galdetu zion sorgiñak.

– Nik, zertarako?!

– Zertarako? –esan zion amonatxoak– irakurtzen ikasteko!

– Irakurtzen? –esan zion Xabier gezurtiak– nik aspaldi ikasi nuan ori!

– Bai? Orduan tori liburuto au –eta sorgiñak kolkotik liburu polit bat atera ta eman zion.

Xabier'ek liburua eskuetan artu ta begira-begira geratu zan.

– Liburu orrek esango dizu zuri emendik aurrera gertatuko zazun guzia! –esan zion sorgiñak.

– Bai?!

– Bai, ta orain, agur.

Eta amona bezela jantzita zegoan sorgiña bere bidean joan zan. "Ara –esan zuen Xabier'ek beretzat– nik ez dakit irakurtzen, eta orain nola jakingo det emendik aurrera zer gertatuko zaiten?!"

Eta ala zegoala gurdi bat pasa zan, eta gurdia gañean gizon gazte bat:

– Zer zaude or, urari begira? –galdetu zion Xabier'eri.

Xabier'ek ez zekian gizon gazte ura sorgiña bera zala.

– Emen, denbora pasa.

– Ara, zer liburu polita! –esan zion gizona bezela jantzita zegoan sorgiñak– irakurtzen ba al dakizu?

"Ara –esan zuan Xabier'ek beretzat– orain jakingo det zer gertatuko zaiten".

Eta esan zion gizonari:

– Ez, ez dakit... Zuk irakurriko al zirazuke orri bat?

Eta gizonak esan zion:

– Bai, bai.

Eta orri bat irakurri ta esan zion Xabier'eri:

– Aurreneko orriak dio liburu onen jabea gabeen Txistokiko etxe zurrera joaten ba da, saku bat bete urre aurkituko duala.

– Bai?! –esan zion Xabier'ek arrituta.

– Bai, bai –eta gizon gaztea bere gurdiarekin aurrera joan zan.

"Ederki –esan zuan Xabier'ek beretzat– gaur gabeen aberastuko naiz".

Eta ala zegoala asto bat pasa zan, eta astoaren gainean andre gazte bat.

– Zer zaude or, urari begira? –galdetu zion Xabier'eri.

Xabier'ek ez zekian andre ura sorgiña bera zala. –Emen, amorraiak ikusten.

– Ara zer liburu polita! –esan zion andre gaztea bezela jantzita azaldu zan sorgiñak– irakurtzen ba al dakizu?

– Aurreneko orria bai –erantzun zion Xabier'ek gezurretan– baina besterik ez dakit, zuk bigarrena irakurriko al zirazuke?

– Bai, bai.

Eta andre gazteak liburutxo eskuetan artu ta esan zion Xabier'eri:

– Bigarren orriak diona da: urrearen konturik inorreri ez esateko, ta bere billa zu bakarrik joateko.

– Bakarrik? –esan zion Xabier'ek.

– Bai, bai –eta emakume gaztea astoaren gainera igo ta aurrera joan zan.

"Ederki –esan zuan Xabier'ek beretzat– orrela urrea neretzat bakarrik izango da!"

Eta ala zegoala, bizikleta bat pasa zan, eta bizikletaren gainean bere kidako mutil koskor bat.

– Zer zaude or, urari begira? –galdetu zion Xabier'eri.

Xabier'ek ez zekian mutiltxo ura sorgiña bera zala.

– Emen, denbora pasa...

– Ara zer liburu polita! –esan zion mutiko bezela azaldu zan sorgiñak– irakurtzen ba al dakizu?

– Aurreneko eta bigarren orriak bai –erantzun zion Xabier'ek gezurretan– zuk irugarrena irakurriko al zirazuke?

– Bai, bai.

– Eta mutikoak esan zion Xabier'eri:

– Irugarren orriak diona da: arkituko dezun urre orrekin Andoain osoa erosi ta erriko alkate egingo zaituztela.

– Ni?! –esan zuan Xabier'ek arrituta.

– Bai, bai, ala dio emen –eta mutikoa bizikleta gainera igo ta aurrera joan zan.

"Au dek, au! –esan zuan Xabier'ek beretzat– orain bai betiko ondo biziko naizela!"

Eta ala, ia illuna zan, eta Xabier, tapa-tapa, Txistoki bidean abiatu zan.

Txistoki'ra eldu zanean, gaua zan; toki aretan argi bat ere ez zegoan. Etxe ura errea eta ondatua zegoan, eta bildurra ematen zuan! Xabier ikaratu zan!:

"Orrera sartu bear al det nik?"

Baiñan urrearen gosea zeukan, eta noizpait, bildurrak akatzen sartu zan.

Eta ibili zan etxea miatzen, anak dardarka, ta alako batean an arkitu du zaku bat.

Ura poza!

An dijoa Xabier zakua bizkarrean duala bere etxera.

Etxera oso nekatua eldu zan.

– Zer dezu or?! –esan zion bere amak.

– Emen?! Urrea!!

– Urrea!!!

– Bai, ama, ta emendik aurrera ez dezu lanik egin bearko.

Ama arrituta zegoan.

Ta ala, zakua askatu zuten eta, ba dakizute barrenen zer zegoan? Arri mordo bat.
– Nork engañatu zaitu. seme? –esan zion Xabier'eri bere amak.
Eta orduan Xabier lotsatu zan, eta bere amatxori egia esan bear izandu zion.
– Ez zazula negarrik egin –esan zion amatxok; sorgin orrek lekzio bat eman dizu.
– Bai? –galdetu zion Xabier'ek.
– Bai. Or al daukazu liburutxoa?
Xabier'ek kolkoan zaukan liburutxoa amari eman zion.
Arna irakurtzen aritu zan.
– Zer dio liburuak, ama? –galdetu zion Xabier'ek.
– Liburutxo onek –esan zion bere amak– zuri gertatu zaizun guzia esaten du.
– Neri gertatu zaiten guzia?
– Bai, ta irakurtzen jakin ba zendun, jakingo zendun emakumea ta gizon gaztea ta mutikoa ta liburua eman zizun amona sorgiña bera zirala, ta Txistokiko etxe zarrean zegoan zakua arriz betea zegoala.
– Liburuak ori esaten du?
– Bai.
– Orain bai irakurtzen ikasiko detela!
Ta andik aurrera, Xabier ikastolara joan zan.
Eta ala ba zan, sartu dedilla kalabazan.

Aizea

Bein batean bizi omen zan neska txiki bat, eta izena omen zuan Miren Ainara.

Ainara neskatxo ona zan, baiñan berritsu xamarra; aitatxori ta amatxori beti galderak egiten ari zan:

- Ama, nor da aundiagoa, eguzkia edo ni?
- Ama, nork dauka indar geiago, astoak edo nik?
- Ama, ama, ama!...

Ta amak, eta aitak, eta Unai bere anaiak, eta Itxaso bere aizpak al zutenean erantzuten zioten. Baiñan batzuetan aitak eta amak ere ez zekiten nola erantzun.

Ura zan lana, ura!

Ta ba dakizute Ainara'k zer galdetu zion amari bein batean?:

- Ama, aizea zer da?

Baiñan amatxok ez zekian aizea zer zan. Ez baitu iñork ikusi!

Orduan Ainara aitatxorengana joan zan, eta aitari galdetu zion:

- Aitatxo, aizea zer da?

Baiñan aitatxok ere ez zekian aizea zer zan.

Orduan Ainara, oso trixte jarri zan, eta begiak malkotan zeuzkala atadiko intxor arbol aundi baten azpian exeri zan. Eta hala zegoala:

"Xiiii!" ... txistu egin zion aizeak belarrira.

Ainara'k jaso zuan burua, azkar, eta begiratu zuan batera ta bestera, ta ez zuan aizerik ikusi.

Orduan Ainara, berritsua baizan, gora begira jarri ta esan zuan:

- Aizea, nun zaude?

Baiñan aizeak ez zion erantzun.

- Aizea -deitu zion Ainara'k berriz- zergatik ez dezu zure burua erakusten?...

Eta ba dakizute zer gertatu zan?

"Xiiii!...Siiisst!... egin zuan aize bolara aundi batek, eta intxaurreko adar guziak eta osto guziak astindu zituan; eta gero ostoak goitik bera, euria bezela, eroritzen asi ziran.

- Ara -esan zion aizeak Ainara'ri- emen nago...

Ainara'k ez zuan iñortxo ere ikusten; baiñan ostoak "i-ji-ji" ta "o-jo-jo"ka, mantxo-mantxo, egan bezala, lurrera eroritzen ari ziran.

Orduan Ainara'k galdetu zion aizeari:

- Aizea, zu ostoa alzera?

- Ni ostoa? -erantzun zion aizeak- Bai zera!... Ni ez naiz ostoa; baiñan ostoa nere lagunak dira.

Orduan Ainara'k esan zion:

- Ta ni zure laguna al naiz?

Eta aizeak erantzun zion:

- Bai noski!... Ume guztiak dira nere lagunak!

Eta ba dakizute Ainara'k zer galdetu zion?

- Aizea -esan zion- zuk nerekin jostatu nai al dezu?

– Ai,ai,ai! –erantzun zion aizeak– nik lan asko daukat!

Orduan Ainara oso trixte jarri zan.

– Ez negarrik egin –esan zion aizeak belarrira– nik zurekin jostatuko det.

– Bai?! –poztu zan Ainara.

– Bai, baiñan aurrena lan batzuek egin bear ditut.

Ainara ezin zan ba ixilik egon, eta berriz galdetu zion:

– Lana?... Zer lan egin bear dezu ba zuk, aizea?

Orduan aizeak belarrira txistu egin zion: "Xiiii!"..., ta gero "I-ji-ji", par egin zion Ainara'ri.

Ainara'k begiratu zuan alde batera ta bestera, ia aizea ikusten ote zuan; baiñan aizea ez zan ageri.

– Ez –esan zion aizeak belarrira–, ez nazu ikusiko.

– Ni ez nau iñortxok ere ikusten. Baiñan emen nago!

– Nun? –galdetu zion Ainara'k lurrera begira, intxorreko adarretara begira.

Ta ba dakizute aizeak zer egin zion?

– Emen nago! –esan zion, eta Ainararen ileak ao-aize batekin bezela: "fuuuuu"... astindu zizkion!

Ainara'k ez zekian nora begira jarri.

– Ta orain –esan zion aizeak– lanera noa.

– Aizea, zer lan egin bear dezu orain?

– Aurrena –esan zion aizeak– zure amatxok zintzilika jarri ditun erropak legortu bear ditut...

Eta, esan bezela egin:

"Xiiiiii, siiissss!..."

Eta etxe aurrean zintzilika zeuden erropak astindu ta legorlegorrek utzi zituan.

– Eta orain? –galdetu zion Ainara'k.

– Orain orbel pixka bat ere egin bear det.

Eta esan bezela egin:

Txistu aundi batekin inguruko gaztañei batera joan eta ango gaztaiñ adarrak astindu zituan.

– Eta orain? –galdetu zion berriz Ainara'k.

– Orain –esan zion aizeak– zuen soroko arto-buruak ere legortu bear ditut. Ez al diruzu zuen soroko arto-buruak oritzen ari dirala ikusi?

– Bai –erantzun zion Ainara'k–. Eta gero?

Aizea gizajoa ere orrenbeste galderarekin pixka bat nekatzen asi zan.

– Zergatik zaude trixte? –galdetu zion aizeak.

– Bai –esan zion Ainara'k– beti lanean ari zera ta... Ez al dezu nerekin beiñere jostatu bear?

Eta Ainara negarrez asi zan.

Orduan aizeari pena aundia eman zion.

– Goazen –esan zion Ainara'ri belarrira– goazen jostatzerara...

– Nora? –galdetu zion Ainara'k.

– Goazen!

Eta Ainara eskutik artu ta inguruko toki guzietara eraman zuan aizeak berarekin. Loreak biltzen, maripoxak arrapatzen, txoriak uxatzen, or ibili ziran biak alde aundi batean.

Orduan, Ainara pixka bat nekatu zanean, aizeak esan zion:

– Ainara, zoaz orain etxera, zure ama laixter janaria jartzenasiko da ta.

Ta ba al dakizute orduan Ainara'k zer galdetu zion aizeari?:

– Aizea –esan zion– ta orain nora joango zera?...

Ura zan lotsagabea!

Bañan aizea ez zan batere asarretu, ta erantzun zion:

– Orain zure amak sua pixtutzen duanean, zuen tximiniko kea artu ta zerura igo bear det...

– Bai?

– Bai, ez al dezu kea zerura igotzen beñere ikusi?

– Bai –erantzun zion Ainara'k– eta gero?

– Gero, zuen baratzak bear duan euria gaur gabeen egingo badu, laño beltz batzuek ere urrutitik ekarri bearko ditut.

Ainara ezin zan ixilik egon, eta galdetu zion:

– Oso urrutitik ekarri bear al dituzu laño beltzak, aizea?

– Bai –erantzun zion aizeak– itxasotik.

– Itxasotik?!... Eta urruti al dago itxasoa?

– Bai –erantzun zion aizeak– Buruntza mendia baño urrutiago!

– A! –esan zion Ainara'k, arrituta.

Bañan Ainara ezin zan, ba, ixilik egon, eta berriz galdetu zion:

– Aizea, azkeneko galdera egingo dizut.

– Azkenekoa izango al da! –esan zion aizeak "i-ji-ji"ka belarrira parrez.

– Bai –esan zion Ainara'k– azkenekoa.

– Bota –esan zion aizeak.

Eta Ainara'k galdetu zion: –Zergatik ez zaitut nik ikusten?

– Ara –esan zion aizeak:

"Ni ibiltzen ba naiz,
nun nagon ba dakizu;
bañan gelditzen ba naiz,
berriz galtzen nauzu".

Ta "Xiiii, siiissss" egin eta txistuka alde egin zuan aizeak.

Nora?

Nork daki aizea nun ibiltzen dan! Tellatura, edo basora, edo sagastira, edo sorora, edo amatxoren erropak legortzera, edo urrutira laño billa, edo tximiniko kea zerura igotzera...

Aizea or dabil beti; baiñan ez du oraindik iñortxok ere ikusi.

Jaungoikoa ikusten ez dan bezela.

Ta ba dakizute aizea nola sumatuko dezuten? Erropari, ta denari, ta lañoegi begira.

Jaungoikoa sumatuko dezuten bezela.

Aizeak zion eran:

"Ni ibiltzen ba naiz,
nun nagon ba dakizu;
bañan gelditzen ba naiz,
berriz galtzen nazu".

Ta au egia ba zan, sartu dedilla kalabazan.

Andoni ta babarrun landarea

Bein batean bizi omen zan mutil txiki bat, eta izena omen zuan Andoni.

Andoni bizi omen zan bere amatxorekin baserri batean. Eta nola Andoni'k aitatorik ez zuan, lan egitea berari tokatzen zitzaion. Baiñan, ara, Andoni alper xamarra zan; ez zitzaion lan egiterik gustatzen. Orduan, amatxok pixkanaka-pixkanaka baserriko oiloak, eta txerriak eta beiak saltzen joan zan. Noski, egunero jan bear zuten eta!

Baiñan egun batean bei bat bakarrarekin geratu ziran.

– Beia ere saldu bearko degu –esan zion Andoni'ri bere amatxok.

– Beia ere bai? –Ta Andoni negarrez asi zan.

– Noski, nola jango dugu bestela?

Ta Andoni konturatu zan orduan ori ere egia zala.

– Tia –esan zion amatxok– eraman zazu beia perira, ta al dezun dirurik geiena ekarri zazu. Au da gure azkeneko dirua. Diru au gastatu ta gero ez dakit zer jango degun!...

Ta Andoni oso triste jarri zan; eta sokatik bere beia artu ta perirako bidean atera zan.

"Bei au saldu ta diru asko ekarriko det, esan zuan beretzat, "eta amatxori gauza asko erosiko dizkiot".

Eta ala zijoala, gizon txiki batekin topo egin zuan, eta gizon au beiari begira-begira gelditu zan. –Oso bei polita da –esan zion gizon txikiak.

– Bai, oso bei ederra da –esan zion Andoni'k-. Zergatik ez dirazu zuk erosten?

– Bai, erosiko nizuke bei eder ori.

– Ta zenbat emango nazu –galdetu zion Andoni'k.

– Au –ta gizon txikiak bere poltxikotik babarrun gorri ale batzuek atera eta erakutsi zizkion.

Andoni babarrun ale aiei begira-begira geratu zan; eta gutxi iruditu zitzaizkion.

– Ez, gutxi da ori –esan zion gizon txikiari.

– Baiñan ara zer politak diran! –esan zion gizon txikiak.

Eta, egia esan, babarrun ale aiek oso politak ziren. Eta ala, Andoni'ri babarrun gorriak gustatu zitzaizkion eta bereikin etxera joan zan.

– Zer egin dezu?! –esan zion bere amatxok– gure bei ederra babarrun ale oiengatik saldu?!

Eta ain zegoan asarre, babarrun aleak artu ta leiotik kanpora, zapla!, bota zituan.

Andoni gizarajoa orduan konturatu zan zer egin zuan, eta negarrez oiera joan zan.

Baiñan goizean esnatu ta leiotik kanpora begiratu zuanean arrituta geratu zan. Bere amak bota zituan babarrun aleak gabeab itsasi ta berebiziko landarea azi zan.

Baiñan izugarria ordea! Gora ta gora, arbol izugarri bat bezela, laino tartean galdu arte.

– Ama! –deitu zion Andoni'k karraxika– ara zer babarrun landarea azi dan!

Eta ama ere jeiki zan oietik eta arrituta geratu zan.

Orduan, Andoni babarrun landare gora igotzen asi zan. Eta gora ta gora jo zuan. Ainbeste igo ta gero Andoni'k goitik begiratu zuanean bere ama ere ez zuan egiten, eta baserria txiki-txikia ageri zan. Eta Andoni oraindik gorago igo zan, eta lañuak ere pasa zituan. Eta an, gora-gora igo zanean, ba dakizute zer arkitu zuan? Lañu gaiñean zegoan gaztelu eder bat.

Baiñan andia, ordea, e! Oso aundia! Ateak aundiak, eta leioak aundiak eta torrea izugarria! Dana zan oso aundia.

"Nor bizi ote da eman", esan zuan Andoni'k .

Eta ola ordurako gosea ere egin zitzaion, eskallerak igo: "ta, ta", atea jo zuan.

Ba dakizute nor atera zan? Andre aundi-aundi bat.

– Zer behar dezu zuk? –galdetu zion Andoni'ri.

– Barkatu –erantzun zion Andoni'k– baiñan ni goseak nago, ta zerbait emango al zidazuke jateko?

– Jateko?! –esan zion andre aundi arek. Ba al dakizu nun zauden? Au jigante aundiaren etxea da, ta emen arrapatzen ba zaitu, rau! jango zaitu!!

Eta orduan Andoni ikaratu zan.

Baiñan nola gose aundia zeukan, esan zion:

– Mesedez, andrea, zerbait jaten eman akidazu, ta gero joango naiz.

Orduan andre aundi ura errukitu zan eta Andoni barrena sartu zuan, eta sukaldeko mai aundi batean exeritzeko esan zion.

An atera zion platera aundi batean jatekoa ta Andoni pozik asi zan jaten. Baiñan alako batean: "Pan-pan-pan", berebiziko pauso suinu aundiak entzun ziran, eta gaztelu osoa lur ikara batek astindu ba lu bezela dar-darka jarri zan.

– Ai! –esan zuan andre aundiak, ikaratuta– nere gizona, jigantea emen dator... Ai, ama, ikusten ba zaitu jango zaitu! –eta Andoni besotik artu ta labeen gorde zuan.

Egia esan, pixka bat beranduxeago izan ba zan antxe arrapatuko zuan jiganteak.

Atea iriki zuanean, gaztelu guzia eroriko zala ematen zuan. Andrea alako bi ba zan.

– Rau-lau, amalau! –esan zuan– euskotar baten odol usaia nabaitu det!... Bizirik edo ila, bere ezurrekin egingo det nik gaur gabeko ogi opilla!!...

Ta, ala, mai azpian eta sukaldeko zulo guzietan billa ibili zan, eta azkenean labeko atea irikitzen zijoala, bere andreak esan zion:

– Emen ez dago inortxo ere, gizona... Zuretzat preparatu dizuten apari goxoaren usaia bakarrik da... –Bai ote?!

Bai, bai!...

Eta, ala, andreak platera aundi-aundi bat bete aragi jarri zion maiean eta jiganteak: "Rau-lau, amalau!", oso-osorik jan zuan.

Jan zuanean, armario aundi batetik bi diru poltsa artu ta barrenen zeuden urrezko ontzak kontatzen asi zan.

Baiñan nola jan berria zegoan, loalea etorri zitzaion, eta ontzeko urreak aurrean zeuzkala, plasta, lo artu zuan.

Andoni orduan labetik poliki-poliki atera zan ta diru poltsa bat mai gañetik artu ta ixil-ixilik, "pin-pin", anka puntetan, gaztelutik atera zan.

Eta al zuan azkarrena landaretik bera jexi zan! Andoni'ren amak urre ura ikusi zuanean oso pozik jarri zan, orain ba zuten zerekin jana erosi ta.

Ala, urre arekin denbora askoan bizi izandu ziran baserritxoan.

Baiñan dana bukatzen da mundu onetan, eta diru ura ere bukatu zan; eta Andoni, amari ezer esan gabe, landare gora igo zan berriz.

Andre aundia berriz ere ikaratu zan, baiñan ain zeukan biotz ona, Andoni sukaldera sartu arazi zuan eta jaten eman zion. Eta, ala, mutilla jaten ari zala, an etorri zan berriz jigantea goseak:

– Rau-lau, amalau... euskotar baten odola ez dabil urruti!...

Bizirik edo illa, bere ezurrekin egingo det nik gaur gabeko ogi opilla!...

Eta berriz asi zan Andoni'ren billa; ta labea ere ireki zuan; baiñan oraingoan andreak gatz-ontzian gordea zeukan. Eta, noski, jiganteak ez zuan iñor aurkitu.

Andreak atera zion jiganteari jana, ta onek beriala jan zuan. Gero sukaldean zegoan ollo zuri bat mai gañean jarri ta berarekin jostatzen asi zan jigantea: "Jarri", esaten zion olloari, ta ollo zuriak urrezko arrautz bat, danba!, egiten zuan. Eta berriz esan eta ollo zuriak beste urrezko arrautza egiten zuan. Eta ola, dozena bat urrezko arrautz egin zituanean, jigantea loaletu zan eta lo artu zuan, eta zurrunkaka asi zan bere alkian.

Orduan Andoni gatz-ontzitik atera zan, eta ixil-ixilik maiera igo, ollo zuria beso azpian artu ta landaretik berajetxi zan igesi berriz.

Andoni'ren amak ollo ura ikusi zuanean oso pozik jarri zan.

Eta, ala, urrezko arrautz aiek saldu ta ondo bizi ziran.

Baiñan Andoni'k gora joateko gogoarekin egoten zan beti, ta egun batean landare gora igo zan.

Eta andre aundiak berriz atea ireki zion, eta, beti bezela, berriz jigantea sukaldera sartu ta: "Rau-lau, amalau!", esan zuan, eta oraingo onetan Andoni apalaren gañean zeukaten poxpolo kaja aundi batean gorde zuan eta jiganteak ez zuan arrapatu. Ta gero jiganteak jan zuan bere aragi errea ta an jarri zan arpa polit bat jotzen. Eta beti bezela, jiganteak lo artu zuan. Eta orduan Andoni poxpolo kajatik atera ta arpa bizkarrean artu ta an atera zan sukaldetik al zuan azkarrena.

Baiñan atetik kanpora zijoala arpa demonio ura ez zan ba karraxika asi?!

– Esnatu zaitte, nagusia, esnatu zaitte! –esaten zuan arpak.

Eta orduan jigantea esnatu zan! Eta Andoni'ren atzetik abiatu zan. Andoni bizkor ibili zan, korrika asko egiten baizun; eta sentitzen baizituan "pan-pan" atzetik jigantearen pauso ikaragarri aiek! Baiñan Andoni landaretik bera zijoala, jigantea ere landare bera abiatu zan.

Eskerrak Andoni tximista bezala beraño jetxi ta amari karraxika deitu ziola!...

Ta amak aixkora bat bereala ekarri ta arekin Andoni'k babarrun landare aundi ura bi kolpetik ebaki zuan. An etorri zan landare aundi ura lurrera; ta landarearekin batera erori zan, zapla!, jigantea ere; ta erori zanean kolpetik il zan. Andik aurrera Andoni ta bere ama pozik bizi izan ziran bere baserrian.

Eta ala ba zan sartu dedilla kalabazan.

"Lagun", txakur beldur gabea

Bein batean bizi omen zan txakur bat, eta izena omen zuan "Lagun". Oso bizkorra zan; eta begi argiak zituan; eta ba dakizute zer geiago?... berebiziko agiñak!...

"Lagun" en agiñak ikaragarriak ziran! Arrapatzen zuan guzia: erropa zala, mai anak zirala, oiloak zirala, arrapatzen zuan guzia txiki-txiki egiten zuan.

"Lagun" baserri batean bizi zan. Eta baserri onetan bizi ziran, gainera, senar-emazteak eta bere iru seme-alaba. Semeak bederatzi urte zituan, eta alaba zarrenak, zortzi, ta beste neska txikiak, Miren Ainara'k amar ilabete bakarrik.

Mutil zarrenak asko maite zuan "Lagun", eta neska zarrenak ere bai. Beti berarekin jostatzen ibiltzen ziran. Miren Ainara txikiak ere asko maite zuan txakurra, bañan berak ez zekian oraindik txakurrekin nola jostatu. Eta aitak? Bai, aitak ere maite zuan "Lagun", eta askotan berarekin eramaten zuan pasiatzera. Ta amak? Ez dakit ba!... Pixka bat maite zuan, bañan oso asarre egoten zan geienetan. Zergaitik? Ba, "Lagun"ek etxean arrapatzen zion guzia puskatzen ziolako!

– Gizona, eman zaiozu txakur au norbaiteri! –esaten zion amak aitari.

– Ez, aita! –esaten zuan semeak.

– Ez, aita! –esaten zuan alabak negarrez.

Eta gizona ixilik geratzen zan; bañan ez zuan "Lagun" etxetik kanpora botatzen.

Eta badakizute bein batean zer gertatu zan?

Ara:

Aita sorora lanera joan zan, eta neska-mutillak eskolara joan ziran; eta etxean ama, Miren Ainara txikia ta "Lagun" bakarrik geratu ziran.

"Nik erropa garbitzera joan bear det" esan zuan amak, eta inguruko erriora joan zan.

Miren Ainara txikia bere sieskatxoan geratu zan, eta bere ondoan etzanda, "Lagun". Miren Ainara txikia bakarrik geratzen zanian "Lagun" bere ondoan etzanda geratzen zan.

Egun artan bero egiten zuan eta mendiko subeak itzal billa zebiltzan.

Eta ba dakizute zer gertatu zan?

Alako sube aundi bat baserriko ate zabaletik barrena sartu zan. Ura bildurra! Sube aundi ura, arrastaka, sukalderaño sartu zan. Eta an zegoan Miren Ainara, bere sieskatxoan, lo. Ta an zegoan "Lagun" txakur txikia bere ondoan, etzanda, lo. Ta an zijoan subea, gorputza arrastaka, burua tente, sukaldean barrena...

Ta ala ("Lagun"ek belarri ona bai zeukan) txakurra esnatu zan kolpetik. An ikusi zuan subea, ixil-ixilik, zuzen-zuzen sieska aldera joaten.

Ta Miren Ainara, lo.

Eskerrak neska txikia lo zagoela, bestela asko ikaratuko zan gaixoa!

Ta ba dakizute "Lagun"ek orduan zer pentsatu zuan?: "Sube onek Miren Ainara'ri koska egiten ba dio, ilko du". Ta saltoaundi bat egin eta subearen aurrean jarri zan, eta zaunkaka ari zan: au, au, au!

Bañan ala ere subea aurrera zijoan, eta sieskatxora igotzen asi zan. Orduan "Lagun" karraxika asi zan, eta zaunkaka, au, au, au!: ta ala, subea Miren Ainara'ri koska egitera zijoala, zapla! bota zitzaion "Lagun" gañera, ta agin txorrotx aiek sartu zizkion lepotik.

Miren Ainara, gaixoa, esnatu zan, eta negarrez eta karraxika asi zan. Subea aundia ta gogorra zan, eta "Lagun" eta biak burrukan gogor zebiltzan.

Etxeko andreak erriotik zakurraren zaunkak eta Miren Ainararen negarrak entzun zituanean ikaratu zan, eta dana utzi ta korrika etxerako bidea artu zuan.

– Jaungoikoa –esan zuan– txakur gaixto orrek nere nexka txikiari koxka egin dio, ta ilko du!...

Ta korrika ta korrika zijoan, eta Miren Ainara txikiaren karraxiak aundiagoak eta aundiagoak ziran.

– Ai! Txakur orrek umea ilko dit!... Esan diot nik nere gizonari, txakur gaixto ori etxetik botatzeko, egunen batean gure ume txikia ilko duala... Ai ama!...

Ta, ala, etxeko andrea etxera sartu ta lurrean alako odola ikusi zuanen, pentsatu zuan bere ume gaixoa illa zegoala, ta karraxika sukaldera sartu zan.

Ta an zegoan "Lagun" bere mingañarekin Miren Ainara txikiari arpegia zupatzen; eta an zegoan bere ondoan sube ikarragarri ura illa.

Ta orduan konturatu zan etxeko andrea zer pasa zan; eta orduan poz-pozik "Lagun"eri muxu eman zion eta Miren Ainara txikia bere besoetan artu ta bularraren kontra estu-estu egin eta muxu asko eta aundiak eman zizkion.

Gero, gizona sorotik etxera etorri zanean esan zion:

– Aizu, ez det "Lagun" iñora eramaterik nai. Emendik aurrera asko maiteko det. Bera izan ez bazan, gure Miren Ainara txikia subeak ilko zuan.

Eta ala, gizona asko poztu zan, eta "Lagun"eri maite-maite egin zion. Eta gero, seme-alabak eskolatik etorri ziranean, txakurrari muxu asko eman zizkioten. Eta, ala, andik aurrera, "Lagun" etxeko beste senide bat bezela izan zan.

Eta alaba zan, sartu dadilla kalabazan.

Ikatzgillea ta sorgiña

Behin bizi omen ziran txabola batean ikatzgille bat, bere emaztea ta bere bi seme-alaba. Semeak Unai izena zuan, eta alabak Itxaso.

Ikatzgille au langillea zan, gizajoa, ta gau ta egun lanean aritzen zan; ala ere ez zuan etxekoei jaten emateko aiña irabazten, eta gau batzuetan oera goseak joaten ziran.

Eskerrak alkar asko maite zutela, eta aseak eta goseak pozik eramaten zituztela alkarrekin.

Baiñan ama egun batean aitari basora bazkaria eramatera joan zan eta ez zan geiago etorri. Aita billa ta billa ibili zan gau ta egun, baiñan alperrik. Azkenean etxera etorri ta Unai ta Itxaso'ri esan zien amarik gabe geratu zirala.

Unai ta Itxaso aitarekin batera negarrez egon ziran iru egun ta iru gau. Gaixoak! Zer egingo zuten ba amarik gabe geratu baziran.

Baiñan, ezin ba beti negarrez egon, eta Unai ta Itxaso ta bere aita lan eta lan jarri ziran berriz etxean eta basoan.

Orrela zeudela, arratsalde batean andre zar bat etorri zan txabolara.

– Ikatzgillea –esan zion Unai ta Itxasoren aitari– ez dezu emakumerik etxean, eta jana jarri ta umeei kontu egiteko norbait bear dezu; utziko al nazu etxean geratzen?

– Ez, ez!... –esan zuan Unai'k.

– Ez, ez!... –asi zan Itxaso negarrez.

Emakume ura ziara asarretuta jarri zan:

– Zergatik ez, zergatik ez nazute nai?!

Unai ta Itxaso ixilik eta ikaratuta geratu ziran; egia, andre arek sorgiñ bat zirudin eta.

Baiñan ikatzgilleak ez zuan orrelakorik ikusi, ta Unai ta Itxaso'ri esan zien:

– Zergatik ez da ba geratuko? Andre ona ematen du ta zuentzat beste ama bat bezela izango da... Gañera, etxe onetan bear degu nork erropa garbitu ta nork jatekoa jarri. Ez al da egia.

Umeak ixil-ixilik geratu ziran.

– Tia –galdetu zien bere aitak– geratuko al da ba andre au gure etxean?

Eta nola Unai ta Itxaso'k beti aitak esaten ziena egiten zuten, gaxoak ixil-ixilik baiezkoa eman zioten.

Ez zuten andik aurrera ume gaxoak etxe artan goxo aundirik artu! Andre ura gaixtoa zan! Sorgiña ez bazan ez zebillen urruti! Beti umeein asarre ibiltzen zan; beti umeei lan berriak jartzen zizkien; eta askotan Unai ta Itxaso negarrez egoten ziran.

Ta ala, joan ziren egunak eta joan ziran gauak; eta neguko gau otz batean, Unai ta Itxaso oiean, alkarren ondoan, kixkurtuta zeudela, andre gaixto aren abotsa entzun zuten:

– Aizu –esaten zion sorgiñak ikatzgilleari– aspaldi onetan goseak gabiltza, ta ume oiek geiago jaten dute: nik uste det umeak emen goseak eta otzak iltzen ikustea baiño ohea dala basora eraman eta an galtzen uztea...

– Nere semea ta nere alaba galdu?! –ikaratu zan ikatzgillea.

Ta Itxaso ta Unai'k bere aitaren negar-zotiñak entzun zituzten, eta asko ikaratu ziran.

Sorgiñ gaixto arek bere aita ere menperatua zeukan.

– Ara –Unai'k esan zion Itxaso'ri– gure aita negarrez jarri du andre orrek; orain bai basora eraman eta galtzen utziko gaituztela! Baiñan ni ez naiz mokoloa, ta biar goizerako zerbait pentsatuko det.

Ala, ume gaixoak gau guzia lorik egin gabe egon ziran; Itxaso, negarrez; eta Unai, nola mutilla zan, zer egingo zuten pentsatzen.

Urrengo goizean goiz asi zan andrea:

– Tia, jeiki azkar, basora joan bear degu danok lanera ta! Denbora asko egongo gera, ta geratzen zaizkigun ogi puska oiek patrikan artu itzazute.

Abiatu ziran, eta ba dakizute Unai'k zer egin zuan? Ba bidean zijoaztela ogi apurrak bota, gero etxeko bidea berriz arkitzeko.

Ala, basoan barren barrenera eldu ziranean ia gaua zan.

– Tia, asi txotxak biltzen –esan zien andre gaixtoak– su pixka bat egin bear degu gaberako ta.

Ta ala, egur billa zebiltzala gau beltz-beltza egin zitzaieten, eta konturatu ziranerako, Itxaso ta Unai bakar-bakarrik arkitu ziran basoan.

– Aita! Aita!... –deitzen zuten biak.

Baiñan an ez zan iñortxo ere ageri.

Unai'k bildu zituzten txotxekin sua pixtu zuan eta orduan bere arreatxoa su ondoan ondo tapatu zuanian pixti gaixtoren bat etortzen bazan ere, makil aundi bat eskuan zuala su ondoan exeri zan.

Itxaso'k laixter lo artu zuan, eta Unai, esna ta erne, urrungo egunaren zai geratu zan.

Eta pentsatzen zuan:

"Nik bidean bota ditudan apurren bidez berriz etxea aurkituko degu".

Ta ala, goiza argitu zuan noizpait, eta arreatxoa eskutik artu ta ogi apurren billa asi ziran biak.

Eta, ba dakizute zer gertatu zan?... Ogi apurrik ez!

– Eta nun ote dira ba? –galdetu zion Itxaso'k.

– Nik ba dakit orain zer pasa dan –esan zuan Unai'k.

– Zer?

– Ba goizean goiz txoriak etorri ta ogi apurrak jan dituzte.

Ta ala zirudin, ez bait zegoan bat ere. Ta orduan Itxaso negarrez asi zan, ikarak eta goseak.

– Itxoin –esan zion Unai'k– ia baso onetan janik arkitzen degun.

Orduan batera jo ta bestera jo ibili ziran egun guzian, ia jatekorik arkitzen ote zuten. Baiñan alperrik. Ez baita basoan orren errez gosaririk arkitzen! Ez gosaririk, eta ez bazkaririk; eta gaua eldu ta aparirik ere ez!

Orrela, goseak zeudela ta beste gau bat gainera zetorrela, Unai ere ikaratu zan pixka bat.

– Ara Unai, ara!... –esan zion Itxaso'k pozik.

– Zer? –galdetu zion Unai'k.

– Ara an argi bat!...

Eta egia zan; baso zuloan argi txiki bat pixtu zan. Eta ara abiatu ziran, eskutik artuta anai-arrebak. Ta joan ziran eta joan ziran argiaren bidean, eta etxe txiki batera eldu ziran. Bai polita etxea! Ta ez nola nai egiña. Etxetxo ura turroi takaramelu ta goxoekin egindako etxe polit bat zan. Ipurtargi bat zegoan etxe ataria argitzen, eta argi au zan bi umeek ikusi zutena.

– Zer polita dan! -esan zuan Unai'k.

– Bai –esan zuan Itxaso'k– eta ni goseak nago, ta etxetxo orreri koska egingo nioke.

Umeak oso goseak baizeuden, eta etxe txikiari puska bana kendu ta jaten asi ziran. Ura poza! Oso goxoa baizegoan! Eta ala, leio ate bat eta paret ertz bat jaten zeudela, norbaitek belarrietatik artu zituan biak.

– Ai, ai! –egin zuten karraxi bi umeek.

Ba dakizute nor zan?! Bere etxean zegoan andrea! Sorgiña!

– A, bai, e! –zion andre gaixto arek– arkitu dezute nere etxea, e! Ba, badakizute orain nungo sorgiña naizen! Onera etortzen diran guziak ementxe geratzen dira betiko! Ja, ja, ja!...

Ta sorgiñak etxe barrura sartu zituan umeak.

Unai ta Itxaso elkarri eskutik artu ta bazter batean, ikaratuta geratu ziran.

Sorgiñ gaixto ura bere aurrean exeri ta esan zien:

– Bai, onera etortzen diran guziak etxe onetan eukitzen ditut, ja, ja, ja!... Ta pixka bat gizendu ta gero labe orretan erre ta jan egiten ditut. Zuen ama orrelaxe, rau!, jan nuan eta zuek ere orrelaxe, rau, rau!, jango zaituztet.

Ta egia zan, an zegoan labea, ta Itxaso karraxika asi zan.

– Sorgiña –esan zion Unai'k, bere ikara ta guzti– gure ama jan al dezu?!

– Bai –erantzun zion sorgiñak– ta goxoa zegoan gañera! –Ta gure aita?

– Zuen aita oraindik ez det arrapatu, baiñan etorriko da onera zuen billa, bai, ta etortzen danean: rau!, arrapatu ta bera ere labean erre ta jango det.

– Sorgiña –galdetu zion berriz Unai'k– orain erre bear al gaituzu?...

– Ja, ja, ja! –egin zuan sorgiñak parrez.

– Norbait erre bear ba dezu gaur –esan zion Unai'k– ni erre nazazu, ta nere arreatxoari etxera jooaten utzi akiozu...

– Ez, ez –esan zion sorgiñak– zuek oraindik ezurra besterik ez dezute. Nik emango dizutet orain egun batzuetan jana, bai, ta gizen-gizen egiten zeratenean, rau!... –ta sorgiñak berebiziko koska kiñal bat egin zuan.

– Orduan ez al gaituzu orain jango? –galdetu zion Unai'k, barrendik pozik baiño pozago, baiñan ezer erakutsi gabe.

– Ez, ez oraindik ez... Ja, ja, ja !... –ta sorgiña algaraka asi zan berriz.

– Eta zergatik daukazu ba labea pixtua? –galdetu zion Unai'k berriz.

– Itxoin, itxoin ikusiko dezute ta...

Ta ala, sorgiña parrez sukaldetik atera ta, ba dakizute nor ekarri zuan? Unai ta Itxasor'en ama!

– Ama!! –esan zuten Unai ta Itxaso'k karraxi batean.

Ama gaxoak eskuak sokez lotuta zeuzkan, eta ala ere, labean erretzera zijoala ere, umeak ikusita asko poztu zan.

– Ama –esan zion Itxaso'k– nola etorri zera onera?

Itxaso ta Unair'en amatxo negarrez zegoan:

– Nere ume maiteak, zergaitik etorri zarete basora?

– Berak, sorgiñak, ekarri gaitu ta –erantzun zion Itxaso'k.

Baiñan ez zegoan izketako denborik, eta sorgiñak Itxaso ta Unai'ren ama anketatik artu ta labe bero-bero arretan sartzen asi zan.

Baina orduan Unai'k zerbait Itxaso'ri esan zion belarrira, ta aurrena bera sorgiñaren anka tartean sartu ta gero Itxaso sorgiñaren lepondora igo ta bien artean sorgiña ankazgora bota zuten; gero, ama ta iruren artean sorgiña artu ta: punba!, labera bota zuten, eta krixk!, atea itxi zioten.

Sorgiña asi zan an karraxika, baiñan ez zioten laberik iriki.

Ta ala, irurak naiko goxo jan eta gero etxeko bidearen billa zebiltzala, ba dakizute nor arkitu zuten?, ikatzgillea, gizajoa, bere seme-alabaren billa, negarrez zebilela.

Aien poza! Danak alkar besarkatu, ta etxera joan ziran.

Eta andik aurrera oso pozik bizi izandu ziran.

Eta ala bazan, sartu dedilla kalabazan.

Egiaren saria

Bein batean (baiñan aspaldi, mendiko txori ta abere ta pixti guziak guk bezela itz egiten zuten garaian) bizi omen ziran Imanol eta Iker.

Imanol oso ona zan; beti egia esaten zuan, eta gañera esaten zioten guzia egia zala uste izaten zuan.

Iker, berriz, beti gezurretan ari zan, eta esaten zioten guzia gezurra zala uste izaten zuan.

"Zu mokoloa zera! –esaten zion Iker'ek Imanol'eri– jendeak esaten dizun guzia egia dela uste dezu! Ja, ja, ja!"...

Ta Iker beti Imanol'eri burlaka ibiltzen zan.

Eta ala, bein batean, Imanol eta Iker kabi bat ikustera joan ziran. Basora eldu ta zugaitz aundi baten gañera igo ziran. An zegoan kabia iru txori-umerekin. Eta bi mutillak kabiari begira zeudela zugaitz azpian itz-ots aundia entzun zuten.

Inguruko txori ta abere ta pixti guzien billera zan. An etorri ziran axeria ta otsoa ta subea ta basurdea ta zaldia; tta danak, banan-bana, zugaitz azpian exeritzen joan ziran.

Imanol eta Iker zugaitz gañean ixil-ixilik geratu ziran.

Orduan axeria zutik jarri zan, eta esan zuan:

– Nere abere-anaiak: emen bildu gera urtero bezela. Buruntza, Belkoain eta Goiburu mendietako txori, ta pixti guziak emen gera. Lengo urtean ni aukeratu ninduzuten gaur itz egiteko. Ara zer ikasi detan:

– Zorroztegi baserrian alaba txiki bat gaixo daukate. Ez al da egia, zozoa?

– Bai –esan zuan zozoak– eta etxe ondoan dauzkaten belar gorrien salda edango balu, beriala sendatuko litzake.

– Tia ba –esan zuan axeriak berriz– esango al diegu alaba nola sendatu?

– Ez! –esan zuan zozoak aserre.

– Zergatik ez?

– Ba Zorroztegi'koak zozo bat daukate kaiolan preso; ta nere anai zozoa askatu arte ez diegu ezer esango.

– Konforme al zarete? –galdetu zuan axeriak.

Eta denak konforme geratu ziran.

– Beste bat: –esan zuan axeriak– Erdoxta'ko nagusiak iru arkume galdu ditu atzo; Alkain'go zuloan daude.

– Ondo dago –esan zuan otsoak.

Altxa zan azkar asko zaldia:

– Ondo dagoela? Zuk arkumeak jateko?...

– Eta zergatik ez? –erantzun zion otsoak. Zaldia aserretu zan:

– Ba dakizu zergatik? Erdoxta'ko nagusia bere abereekin ona delako.

– Ala ba da –esan zuen axeriak– otsoak ez ditu arkumeak jango. Konforme al zarete?

Eta denak konforme geratu ziran.

– Besterik bai al da? –galdetu zuan axeriak.

- Bai -altxa zan astoa- Bekaxti'ko jauna gaixo dagoala ba al dakizute?
- Bai -esan zuten denek.
- Ba nik ba dakit gizon orren gaitza nola sendatu. -Bai? -galdetu zion axeriak.
- Bai. Ara: goizeko intza bildu ta ontzi bete bat edango balu, urrengo egunean ondo

legoke.

- Orduan Bakaxtikoari ori esango al diogu? -galdetu zuen axeriak.
- Ez, ez, ez!... -esan zuten batzuek batera.
- Zergatik ez?
- Gizon ori nere anai astoarekin gaixtoa da -esan zuan astoak.
- Eta gizon orrek txakurrak ostikoka ibiltzen ditu -esan zuan txakurrak.
- Eta gizon orrek uxoa tiroka iltzen ditu -esan zuan uxu txuri batek.
- Orduan -esan zuan axeriak- gizon orri ez diogu esango nola sendatu liteken.

Konforme al zerate?

Ta danak konforme geratu ziran.

Ta orduan axeria altxa zan ta esan zuan:

- Orduan aurtengoz bukatu degu. Nor izango da datorren urteko billeraren buru?

Ala, ibilli ziran izenak ematen, eta azkenean zaldia aukeratu zuten urrengo urterako.

Eta zaldia aukeratu zutenean, danak bere etxeetara joan ziran pakean eta pozik.

Imanol eta Iker an zeuden zugaitz gañean, arrituta.

- Zer gauza polita -esan zuan Imanol'ek.
- Polita? Baiñan dana gezurra dek!
- Ez -erantzun zion Imanol'ek- ori dana egia dek.
- Egia? Ja, ja, ja!... -esan zion Iker'ek- eta zugaitz gañetik jetxi ta bere etxera parrez joan zan.

"Ba da ez ba da ere -esan zuan Imanol'ek- baserrietara joan eta entzun detena esan bear diet".

Eta esan eta egin.

Joan zen Zorroztegi'ra:

- Ara -esan zion nagusi jaunari- zure alabari etxe ondoan daukazun belar gorrien salda ematen badiozu, sendatuko da; baiñan, arren kaiolan daukazun zozoa libratu zazu, ta besterik ez preso jarri.

Ala, Imanol'ek esandakoa egin eta Zorroztegi'ko alabatxoa ziara sendatu zan.

Gero, Erdoxta'ko baserrira joan zan:

- Ba al dakizu galdutako iru arkumeak nun dauden?
- Ez -erantzun zion nagusi jaunak- baiñan edozer gauza emango nuke jakiteagatik.
- Ez dezu ezer eman bear -erantzun zion Imanol'ek- Abereak ondo tratatzen dituzu zuk, eta esango dizut; arkumeak Alkain'go zuloan daude.

- Bai? -esan zion Erdoxta'ko nagusiak- Ba nua beriala.

Ta gizona bere arkumeen billa jooan zan azkar asko.

Gero, Imanol Bekaxti'ko baserrira joan zan:

- Zuk bizi nai al dezu? -galdetu zion an zegoan gizonari.
- Noski -erantzun zion arrituta Bekaxti'ko nagusiak.

Sendatuko zera –esan zion Imanol'ek– baiñan emendik aurrera zure astoa ez dezu joko, txakurrik ez dezu ostikoka ibiliko ta ez dituzu uxok tiroka akatuko... Agintzen al dirazu?

Gizonak apal-apal baietz esan zion.

– Ba biar goizean belaseko intza pixka bat ontzi batean jaso ta edan zazu, ta sendatuko zera.

Eta esan bezela gertatu zan; Bekaxti'ko gizona urrengo egunean sendatu zan.

Orduan, Zorroztegi'ko ta Erdoxta'ko ta Bekaxti'ko nagusi jaunak bakoitzak erregalo eder bana egin zioten Imanol'eri: batek upel bat sagardo, besteak txekor bat eta besteak bi asto.

Ta gañera, Andoaingo mendi guztietan berebiziko fama artu zuan Imanol'ek, eta danek asko maite zuten.

Eta Iker gezurtia lagunik gabe eta txiro geratu zan.

Ta ori egia bazan, sartu dedilla kalabazan.

Enperadorearen jantzia

Bein batean, aspaldi, erri aundi ta aberats bat ba omen zan. Eta bere buru bezela aginte aundiko enperadore bat omen zegoan. Eta aginte aundi au ez zan aberastasun aundia zaukalako bakarrik, baita erriak bera asko maite zualako ere. Ta ala bear, enperadorea oso agintari zuzena ta ona baizan, eta laguntzalle onak aukeratzen ere bai baizekien.

Ta ala, gauz guziak ondo joango ziralta usteko dezute zuek erri aundi ta aberats onetan... Baiñan... Enperadore zuzen onek ere ba zuan bere oker bat. Naiz eta birtute askoko gizona izan, enperadoreak ba zuan bere pekatu bat: arro xamarra zan, eta aoa zabalik bere jantzieri begira egoten zan egun guzian.

Ain zan jantzi arroa enperadore au, iru ta lau aldiz egunian aldatzen zituan bere jantzi apañak, goitik bera. Egin zazute kontu, beti bere jantziei begira bizi zan agintari bat!

Eta, noski, jantziak egiten, neurriak artzen, ixpilluan bere jantzieri begira, ta erropak jazten eta erazten, denbora asko galtzen zuan. Eta bere jantziekin galtzen zuan denbora guzia bere erria gobernatzekoari kendu bear zion. Eta, ala, erri aundi arretako gizonak eta emakumeak berriketan asi ziran, ia ba da enperadoreak bere jantziekin denbora galtzen ari bearrean zergatik ez zuan bere erria oraindik obeto gobernatzen.

Baiñan alako batean bere zorakeria ura sendatzeko zerbait gertatu zan. Ikasbide gogorra izan zan, baiñan on egin zion. Badakizute zergatik? ba da, bere jantzi-arrokaria betiko sendatu ziolako, ta andik aurrera munduan zan erregerik maite-maitena egin zualako.

Batzuetan ikasbideak gogorrak izaten dira; baiñan gure onerako badira, ongi etorriak izan ditezela.

Baiñan goazen gure kontuaren arira berriz.

Arratsalde batean an zegoan gure enperadorea bere jantzi berri batetarako oiala aukeratzen. Eta berebiziko laguntzalle pilla ba zukan beraren aldamenean, oial bat ikusi ta bestea ikusi. Ta, egia zan, berebiziko inportatzia ba zeukan oraingo aukeratze onek, gure enperadore au festa aundi batetarako gertatzen ari zan eta. Erri arretan beiñere izan zan festarik ederrena izango zan, eta enperadoreak erri guziaren aurrean desfilatu bear zuan, prozesio batean bezela.

Oial asko ta asko erakutsi zizkioten, eta danak oso onak eta garextiak, gaiñera; baiñan enperadorea ain zan arroa bere arropa kontu orrekin, oial on-onenak ere ez zitzaizkion berarentzat onak iruditzen. Alegia, berak beste zerbait nai zuala, zerbait berria nai zuala, iñork iñoiz jantzi ez bezelako oialen bat nai zuala; ta erakusten ari zitzaizkioten oial guzi-guziak baztertzen zituan esanaz: "Au ez da neretzat naikoa!"

Ta alako batean, orretan ari zala, aserretu zan:

– Baiñan zer da au?!... Ez al du iñork nik bear deten oialik ekarriko?!... Datorren jai au oso aundia da ta nik oso jantzia egon bear det! Erriko jende guzia ni ikustera etorriko da, ta ni ezin nindeke desfilera nola nai jantzita joan!... Billa zazute, ia zerbait berri-berria ekartzen dirazuten!

Bere laguntzalle guziak ikaratuta geratu ziran. Ez zekiten zer egin. Ez zekiten enperadoreak nai zuan oial berri ura nola aurkitu. Ta jaia laixter zan. Zerbait egin bearko zuten...

Ta ala, danak ixil-ixil zeudela, an zegoan laguntzalle batek itz egiteko eskubidea eskatu zuan.

– Jauna –esan zion apal-apal enperadoreari– atzo neronek ikusi nuan nola extranjeritik barku bat etorri zan. Ni kaiean nengoan, ta an jakin nuan nola barku orretan oialak egiten dakiten bi gizon etorri ziran. Bear ba da bi gizon oiek jakingo dute orrelako oial apañak eta berriak nola egin...

Enperadorea, oso poztu zan berri onekin, eta beriala eman zien bere laguntzallei agindua, kaiara joan eta bi gizon oiek bere aurrera beriala ekartzeko.

Ala, orduantxe bertan atera ziran gizon batzuek jauregitik korrika. Ta, arritzekoa, beriala arkitu zituzten bi gizonak.

Enperadoreak ez zekian, baiñan guk ba dakigu: bi extranjero oiel dei onen zai zeudela, ta gaiñera oialik egiten ez zekitela. Ba dakizute zer gertatu zan? Ba kanpotik etorritako bi gizon tranposo oiek jakin zuten enperadorea bere jantziatarako oial berrien billa zorutzen zebillela, ta ziria sartu nai zioten, ia diruren bat kentzen zioten.

Orixen ziran bi gizon oiek: bi lapur. Oial berri onen aitzekiarekin enperadoreari dirua atera nai zioten.

Berak bizkorrak ziran, eta barkua eldu ta beriala zabaldu zuten errian berri ori, alegia berak oialak egiten oso onak zirala, ia enperadoreak jauregira deitzen zituan.

Eta, alaxe, berek pentsatu bezela gertatu zan. Enperadorearen laguntzalle iñoxente arek fede onez kaiean ori entzun zuan, ta, ara, berria enperadorearengana nola eldu zan.

Bi lotsagabe oiek enperadorearen aurrera eldu ziranean berebiziko agurra eginda gero leun-leun itz egin zioten; alegia, berek munduko oialik ederrenak egiten ba zekitela, ta beste errege askori ere orrelako lana egiñak zirala.

– Bai, bai –esan zien enperadoreak– zuen fama nere jauregiraiño eldu da. Ongi etorriak izan zaitezte nere errira. Laixter izango degu emen berebiziko festa aundi bat, bai, ta jakin nai nuke zer oial ekarri dituzuten.

– A, jauna!... Nola ekarriko genitun ba da orrelako oial aberatsak gurekin. Guk errege bakoitzari bere oial berezia egiten diogu. Zuk festa aundi orretan jantziko dezun oiala oraindik egin gabe dago. Pial ori ez du oraindik iñortxok ere ikusi, ta ez du iñortxok ere ikusiko zuk jantzi arte. Zu oso gizon aundia zera, enperadore jauna, ta zure jantzi apain ori zuretzat bakarrik egingo degu. Lan ori egiteko izkutu bat asmatu degu biok. Eta egingo degun lan ori zuretzat bakarrik egingo degu. Zuretzat bakarrik egingo degu oial miragarri ori, zuretzat bakarrik josiko degu jantzi apain ori, ta, ziur egon zaite, zure erriak ez du orrelakorik beiñere ikusi.

Enperadorea pozez eta arrokeriz bete-bete zan itz oiekin. Azkenean, berak nai zuana arkitu zuan ala ere! Orrelako jantzi berri-berri bat izateko garaia ba zan! Bere betiko ametsa beteko zan azkenean!

– Ondo dago –erantzun zien bi gezurti aiei– esango dirazute ba da nola egingo dezuten mirarizko lan eder ori, ta ia lan ori egiteko zer erreminta bear dezuten.

– Jauna, oiala bera miragarria da. Ariña ta dirdiratsua da, urrezko ta zillarrezko ariekin egin bear degu. Guk lan oribukatzen degunean, iñork sekulan ikusi ez duan

zerbait ikusiko dezu zuk. Gañera, oial miragarri onek beste ezaugarri bat ba du: merezi ez duten kargua daukatenentzat eta kaikuentzat oial au inbisiblea da.

Enperadorea arrituta geratu zan; baiñan prueba ori ere komeni zaitzaion, orrek lagunduko baizion bere zerbitzarien artean balio ez zutenak eta kaikuak deskubritzen.

Pozik zegoan ba da enperadorea, munduan zan jantzirik ederrena soiñean eraman eta gaiñera orrelaxe jakingo zuan bere laguntzaleen artean bere postua merezi ez zutenak zeintzuk ziran. Ala, oial ura berebiziko ganga izango zan beretzat!

Bereala esan zien bere laguntzaleei bi gezurri aiei bear zuten guzia eman eta jauregian gela berezi bat jartzeko. An bertan euki nai zituan langille aiek, lanak nola zijoaizten egunero jakiteko, ta jantzia bukatu bezain laixter bere soiñean probatzeko.

Ordu ezkerro, jauregiko jende guzia onen zai geratu zan. Ez bakarrik gauz ederra izango zalako, baita oial miragarri onek kaiku asko agirian jarriko zitualako ere; nola oiala ikusten ez zuan guziak kaikuak izango ziran eta erregeari laguntzeko balio ez zuten, oial miragarri onek erregearen inguruko langille asko botako zituan jauregitik, ta jan-biderik gabe geratuko ziran.

Ala, jauregian danak beldurrak zeuden, oial miragarri onen zai.

Bitartean, bi gezurri aiek an ari ziran, iñor sartzen ez zan jauregiko gela eder artan, bere lan papera egiten. Telarea an armatu zuten, eta egun guzian oial eder ura egiteko lanean ari ba lira bezela egoten ziran. An ekartzen zizkieten urrezko tazillarrezko ariak, kaja batean, eta bi gezurriak ari aiek toki ezkutu batean gorde ta beti ari berriaren zai geratzen ziran. Ez zuten, noski, telarean aririk jartzen, baiñan ala ere beti lanean ari balira bezela aritzen ziran telarean kiñuka. Ta noizean bein berek egiten zuten karraxi:

– Au dek lana, au!... Zoragarria ari dek oial au ateratzen!...

Eta an inguruan, zer ikusi ta zer entzun zebiltzanak gauz oiek entzuten zituztenean, enperadorearengana joaten ziran korrika. Ta au oial ura ikusteko zoratzen zegoan. Baiñan itxoin bear zuan. Bi gezurriak esan ziotenez, ez zioten enperadoreari bukatu arte ezer erakutsiko.

Baiñan azkenean enperadoreak pazientzia galdu zuan, eta naiz berak joaterik ez izan, bere lenengo ministroa bidali zuan oial ura ikustera.

– Esan diratenez –esan zion enperadoreak bere ministroari– oial ori miragarria omen da, beiñere ikusi ez dan zerbait omen da. Egia dan jakin nai nuke. Ni joango nintzake, baiñan tejedoreek uste dute lana bukatu baiño lenago ikustera joaten banaiz, bere lanari kalte egingo diotela. Joan zaitetz, eta esan akidazu oial ori zenbat aiñekoa dan.

Lenengo ministroak baietz esan zion, egin bear ori pozik beteko zuala, ta bere aurrean makurtu zan.

– Joan zaitetz lenbailen –esan zion enperadoreak– eta zure iritzia ekarri idazu, arren, azkar.

Enperadoreak ba zekian bere lenengo ministro onek begi ona zuala, ta gaiñera izan litekeen gizonik zintzoena zala.

Ministroa joan zan ba da bi gezurri aien gelara ta atea jo zuan; an atera ziran biak, eta berebiziki ongi etorria eginzioten.

Eraman zuten ba da ministroa telarearen aurrea, ta bi gezurriak bere iritziaren zai bezela geratu ziran. Baiñan nola ministroak ez zuan telare artan ezer ikusten eta ez zien ezer esaten, bi gezurriak aurreratu zitzaizkion:

– Begira zazu!... Begira akiozu oial miragarri oneri!...

Ministroak orduan begiak zabal-zabal iriki ta begira jarri zan, baiñan ez zuan ezer ikusten. Eta orduan ministroa ziara ikaratu zan. Bera kaiku bat ote zan ba?!... Bera ez ote zan, ba, ministro izateko adiña?!... Olakoren bat bearko, bestela oial ura ikusi bear zuan!... Eta enperadoreak ori jakiten ba zuan bere ministro lana kendu ta jauregitik kanpora botako zuan!

Orregatik, ortaz konturatu zanean, arrituta balego bezelako arpegia jarri ta esan zuan:

– Ederra!... Zoragarria da, gero, oial au! Au da, au, gure enperadoreak merezi duan jantzia egiteko oiala! Oraintxe joango naiz enperadorearengana, ta esango diot.

Eta, ala, an atera zan gelatik korrika.

"Ai!"..., zion bidean bere bururako. "Nola gertatu zait neri orrelakorik!... Bi tejedore oiek konturatu ote dira nik ez detela oialik ikusi?... Konturatu ote dira ni kokoloa naizela, nik ministro izateko ez detela balio?... Au lana!... Au gorde bear det, ez diot iñori ere aitortuko. Oial ori ikusi detela esango diot enperadoreari!... Ai, au lana!"...

Eta ministro gizarajoa ikaratuta zegoan, eta kopeta izardi otzez bustia zeukan. Baiñan ez zan bera bakarria izan. Jauregian azkar zabaldu zan berri ura, eta danak oial ura ikusi naiaz joan ziran bi tejedoreak zeuden gela artara. Ta nola iñork ez zuan kaiku bezela pasa nai, nola iñork ez zuan enperadorearen ondoan zaukan lana galdu nai, danak esaten zuten:

– Oraindik ikusi degun oialik ederrena ba da au!

Ta, ala, lenengo ministroa enperadorearengana joan eta esan zion oial arekin jantzia egiten bazioten, sekula ikusi zan jantzirik ederrena izango zala. Ta orain erri artan izango ziran festek ez zutela bera ikustea baiño jai obeagorik izango.

Ministroak au esan zionean, enperadorea oso zoratu zan, eta oial eder ura ikusteko gogo aundiagoa egin zitzaion. Baiñan ala ere berak ez zeukan oraindik ikustera joaterik, eta egunero bere konfiantzako gizon bat bialdu bear izaten zuan lan ura nola aurreratzen ari zan ikusteko. Ta danak erantzun berdiñarekin etortzen ziran berarengana: oial ura zoragarria zala.

Alakoa izango zan gizon aien bildurra!

Azkenean, bi gezurti aiek erabaki zuten enperadoreari jantzia egiteko neurriak artzeko garaia eldu zala.

Enperadorea pozik egon zan beste bi lotsagabe aiek neurriak artzen zizkieten bitartean.

Gero, biak bere gelara joan eta jauregiko zerbitzaleen aurrean aritu ziran, serio asko, enperadorearen jantzia egiteko oiala moztu ta josten ari balira bezelako kiñuak egiten. Eta zerbitzari guziak aoa zabaldu ta begira, bakoitzak bere kaikutasuna izkutatu nairik.

Eta gauz guziak bukatzen diran bezela, itxogite luze au ere bukatu zan. Jai aundi aren eguna eldu zenean, gezurti aiek enperadoreari bere jantzia emateko gertu ziran. Jantzi ura toloztu ta kofre batean sartuko baluteke bezelako kiñuak egin zituzten denen aurrean. Eta gero, jauregiko laguntzalle guziakatzetik zituztela, enperadorearen gelara joan ziran.

An betiko gezurra esan zuten. Kofretik jantzi miragarri ura aterako baluteke bezelako kiñuak egiten zituzten, eta enperadorearen aurrean jarriko balute bezela aritu ziran bi tranposo aiek. Eta denak, inguruan zauden guziak, batera, esan zuten:

– Zoragarria!... Ederra!... Olakorik ez da munduan besterik izango!...

Enperadorea arrituta zegoan. Ez zekian zer arpegi jarri. Ez baizun ezertxo ere ikusten! "Au dek lana", zion beretzat.

Baiñan ez zuan besteak baiño kaikuago geratu nai, ta asko gustatu balitzaioke bezelako arpegia jarri zuan; gizon bizkorra bezela ta enperadorea izatea merezi balu bezelako arpegi alaia jarri zuan; eta ala esan zuan besteekin batera:

– Zoragarria!...

Eta ez zuan oialik ikusten, baiñan, ala ere bi lapur aiek soñean jarri nai zioten; bere gorputzaren gaiñean artu bear izandu zuan.

An egin zioten ba bi alproja aiek gure enperadorea jazten ari balirake bezelako paper ura, ta bukatu zutenean bere aurrean makurtu ta erregearen zai zeuden ministroen aurrean utzi zuten. An jetxi zan erregea, ia larru bizirik, bere ministro ta zerbitzarien aurrean, bere zaldi-kotxeraño.

Zaldi-kotxea iriki zan, eta ara igo ta bere erriaren aurrean desfilatzen asi zanean, len jauregian entzun zituan oiur berak entzun zituan orain!:

– Ori da jantzia! Ez degu beiñere orrelako oialik ikusi!... Gure enperadorea bai dijoala apaña!...

Ez baizuan iñork ere kokoloa zala aitortu nai, ez abizuan iñortxok ere bere lanerako diña ez zala aitortu nai!

Eta enperadorea pixka bat lasaitzen asi zan, ia ba oial ura ikusten ez zuana bera bakarrik ote zan. Baiñan orduantxe zerbait gertatu zan! Enperadorea ikusteko zai zeudenen artean bazegoan ume bat besoan zeukan emakume bat eta enperadorea aurrean pasa zanean, aurra pixka bat jaso zuan, enperadorea obeto ikusteko. Eta orduan umetxoak esan zuan:

– Enperadorea kaltzontzillotan dago!

Naiz eta danak enperadorea maite izan eta asko errespetatu, par egin bear izandu zuten. Ala zan, umetxo arek bakarrik esan zuan egia: enperadorea kaltzontzillotan zebillen.

Enperadorea aserretu zan eta masallak gorritu zitzaizkion. Desfilea geldi-arazi zuan, eta bi gezurti aiek arrapatu ta bere aurrera ekartzeko eskatu zuan. Baiñan bi lapurrak urrezko ta zillarezko ariak artu ta iges egin zuten aspaldi.

Orduan konturatu zan enperadorea zenbateraiñoko artoa izan zan, eta andik aurrera zorakeria ura alde batera utzi ta erriko laneri bakarrik kaso egiteko erabakia artu zuan.

Eta, egia esan, andik aurrera ez zan bera bezelako enperadore on eta zintzoagorik munduan izan.

Ta ala bazan, sartu dedilla kalabazan.

Plomozko gudaritxo

Bein bizi omen zan mutil txiki bat, eta bere urte-betetzekoan artu omen zuan plomozko' gudaritxo kaja aundi bat.

Mutiltxoaren poza! Gudaritxo aiei begira-begira geratu zan. Eta gero banan-bana kajatik atera ta maiaren gañean jarri zituan.

Gudaritxo aiek danak ziran, gero politak! Danak uniforme berdiñak zituzten soñean, eta danak fusil berdiñak bizkarrean. Danak... bat ezik. Bat zan bestelakoa. Nonbait, ekartzerakoan baldarren batek kaja astindu zuan eta gudari gizarajoak kolpe bat artu zuan: gudaritxo oneri anka bat falta zitzaion.

Gudaritxo gaxoa anka-motza zan.

Baiñan ala ere, bere anka bakarra plomozko gurgiltxo batean ondo finkatua zegoan, eta bere lagunak bezalaxe zutik geratu zan.

Mutiltxoa ain zegoan gudaritxo oiekin txoratua, ez zien beste jostalluei kasorik egin; politak ziran danak, baiñan ez au bezelakoak! An geratu zan belarri borobillezko artza bazter batean; an geratu zan lurrean, geldik, tren azkarra; ta ain kiñu xebreak egiten zituan tximua ere mai gañean botata geratu zan.

Mutillak ez zuan orain beste asmorik: gudaritxoak.

Egun guzian beraiekin jostatzen ibili ta gero gaua etorri zanean, bere amatxok esan zion jostailluak ondo-ondo gordetzeko.

Ta baita umeak egin ere. Gudaritxoak bere kajara joan ziran, ba, berriz, eta gela guzia txukun-txukun geratu zan. Baiñan mutiltxoa ez zan konturatu gudaritxo anka motza paper tarteangordeta zegoala. Ta an geratu zan gudaritxo zauritua mai gañean.

Baiñan gudaritxo bera ez zegoan aserre. Bai zera! Bere ondoan kartoizko gaztelu eder bat ere geratu zan; eta bere atean an zegoan zutik, anka baten puntan tente, neskatxo dantzari bat. Auxe bai neska polita! Begiratu goxoa eta ille gorria zeuzkan; berebiziko neskatxa polita zan!

Gau erdiko amabiak jo zituztenean, jostaillu guziak pixtu ziran, eta gela guzia mugitu zan.

Tximua kiñuka asi zan berriz, artza ere alper-alper dantzan asi zan, trena berriz bere burni-bide gañean berebiziko martxan abiatu zan, eta bakoitza berea egiten asi zan pozik.

Neskatxo dantzaria geratu zan geldik gazteluaren atadian, eta gudaritxo berari begira-begira geratu zan.

– Nerekin ezkontzeko esango diot –zion bere bururako– ea alkarrekin biziko geran gaztelu eder orretan.

Baiñan gudaritxo oso bildurtia zan, eta neskatxoari itz egitea ez zan ausartzen. Eta bere lagunak ateratzen ari ziran soiñuarekin oraindik gutxiago. Ta, ortan zegoela, an atera zitzaion, gaiñera, aldamenean, resorte-zko buru aundi, itxusi bat esanaz:

– Aizu gudaritxo! Zergatik zaude zu orren geldik, beste guziak jostatzen dabilzan bitartean?

– Besteak nola jostatzen ari diran ikusita pozik nago ni –erantzun zion gudaritxoak.

– Bai?... Um!... esan zuen buru aundi itxusi arek-. Ba dakit nik zer pasatzen dan emen... –eta dantzari politari begiratzen zion-. Baiñan olakorik ez da zuretzat izango...

Ta ori esan eta berriz bere kajan sartu zuan buru aundi ura. Gudaritxoa trixte geratu zan, eta naigabetua; orain buru aundi itxusi ura konturatu baizan nola berak dantzari polit ura maite zuan... Maitasun ura beretzat bakarrik gorde nai bazuan gudaritxoak! Eskerrak dantzari polita bera ez zala konturatu! An zegoan, bere anka punta baten gainean, tente, irriparrez, ain polita izatearekin pozik.

Ango soiñu ta zalapartak gau guzian iraun zuten jostailluan gelatxoan. Ez baizan iñor ere nekatzen. Danak nai zutena egiteko askatasunarekin, libre, zoriontsu, sentitzen ziran.

Gau guzia berea zuten, eta tximua ta artza ta trena ta gudaritxoak nekatu gabe zebiltzan jostatzen, eten gabe.

Baiñan egunaren lenengo argia gelatxoa argitzen asi zan bezain laixter jostaillu guziak beren tokira joan eta ixil-ixilik geratu ziran.

Beranduxiago, jostaillu aien nagusitxoa jaiki zan, eta gelan sartu zan berriz jostatzen asteko.

Aurrena egin zuana gudaritxoen kaja irikitzea izan zan, eta gudaritxo guziak bata bestearen atzean jarri zituan, errenkadan, maiaren gainean. Oraingoz beintzat oiek ziran geien maite zituan jostailluak. Gudari anka motza ere an jarri zuan illaran, eta leioraiño ekarri zituan oinez; eta an leioan, geratu ziran danak, zutik, bata bestearen atzean.

– Beñere izan diran gudari bizkor eta politenak ba dira oiek –esan zuan mutikoak beretzat; eta danak batera obeto ikusteko pixka bat urrutiratu zan.

Baiñan, zoritarrez, garai artan aize bolara batek kortina zapia aztindu, gudaritxoa jo ta leiotik bera bota zuan. Mutikoak ez zuan ezer egiterik izandu, urrutitxoegi zegoan eta.

Beste gudariak ere ez zuten laguntzeko egokierik izan.

Gure gudaritxo anka motza bildurtu zan goitik bera zijoala, bere azkena eldu zala uste baizuan:

– Agur, agurbetiko, lagunak! –deadar egin zuan, trixte- Ez zaituztet geiago ikusiko. Agur, gazteluko nere dantzari txikia!

Eta begiak itxi ta ixildu zan...

Bañan zoriona izan zuan gudaritxoak bere naigabea. Ez baizan lur gogorrera erori! Leio azpi-azpian ondar pilla bat zegoan eta bere gañera erori izan buruz bera, batere miñik artu gabe.

Baiñan, ori bai, ondarrez ez talia geratu zan. Ez zuan ezer ikusten eta entzuten, eta egokera onetan oso gaixki sentitzen zan.

Laixter jetxi zan mutikoa bere billa. Nola eskallerak korrika jetxi zituan, mutikoa oso nekatua eldu zan bera, ta bere gudaritxoa galtzeko naigabearekin erdi zoratua zegoan.

– Leio orretatik erori da gudaritxoa –esan zuan mutikoak- eta emen egon bear du nonbaite...

Ta billa ibili zan alde guzietan; baiñan gauzak ala bear eta ez zuan arkitu. Orduan, bere gudaritxo gaxoa galdutako miñarekin, larrituta, bere gelara joan zan berriz.

Eta ala, gudaritxo anka motza ia itota zegoala, ondarretan salto egin zuan mutiko txiki batek arkitu zuan.

– Ara –esan zion berarekin ikastolara zijoan beste mutikoari– plomozko gudaritxo bat.

Eta jaso zuan, eta gañean zeukan ondarra kendu zion, eta bere uniforme polit ura agerian geratu zitzaion berriz.

– Oso polita da –esan zuan mutikotxoak– baiñan ikastolara ezin det eraman... Ba dakit berarekin zer egin!

Paper puska batekin txalopatxo bat egin zuten bi mutikoak, eta gudaritxoa barrenen sartu ta kaletik bera zijoan errekatxo baten gañean jarri zuten.

An zijoan gudaritxoa, tente ta serio asko, urean, goitik bera, kale baztarretik; pixka bat ikaratuta zijoan, urak nora joko ote zuan zai.

"Nora ote goazti?", galdetzen zion bere buruari. "Ez naiz geiago jostailuen gela arretara joango, ta ez ditut geiago nere lagunak ikusiko".

Zenbaterañoiko naigabea artu ote zuan mutikoak, bere nagusiak; eta zenbaterañoiko miña artu ote zuten bere lagunak!... Eta egitaz ala izan zan. Artza bera, ta tren ta tximua ere oso trixte geratu ziran plomozko gudaritxoa galdu zutela jakin zutenean. Eta neskaxa dantzaria ixilik eta geldik geratu zan bere ankaren gañean ori jakin zuanean, baiñan bere begiak malkoz bete ziran, eta andik aurrera gudaritxo anka motza nun ote zegoan pentsatzen geratu zan.

Bitartean txalupa an zijoan uretan, kaleak bera; ta alako batean, kolpetik, kale ixkiñan zegoan zulo illun batera sartu zan. Ur kañeri luze bat zan ura, ta gudaritxoari izan liteken lurpeko bide illunena iruditu zitzaion.

Denbora askoan jetxi zan illunpe arretan; eta ala zijoala abots batek ikaratu zuan plomozko gudaritxoa:

– Nundik zatoz? –galdetu zion asarre an azaldu zan bigote aundiko arratoi aundi batek.

Gudaritxoa zutik geratu zan, erantzun gabe; arratoi itxusi arek bildurra ematen zion; eta kosk egingo zion bildurrak zegoan.

"Txalopatxoa aurrera joango ba litzake, andikan lenbailen urruti joango ba litzake", zion gudaritxoak beretzat. Eta zorionez, urak bultzada bat eman eta paperezko txalopa kañeritik kanpora atera zan.

Gure lagunak arnasa artu zuan. Ala ere, azkenean eguzkiaren argia ikusten zuan berriz! Arratoia an geratu zan zuloan karraxika.

"Eskapada ederra egin det", esan zuan beretzat gudaritxoak. "Eta aurrera ere ondo joan nedilla, ta nai gabe pasatzen ari naizen abentura au ondo bukatu dedilla".

Baiñan bere poza ez zan luzaroko izan. Ur errekatxo ura kaskada batean bukatzen zan, eta paperezko txalopa aretan zijoan plomozko itxas-gizona goitik bera ibaira erori zan.

Ibai aundia zan ura! Baiñan plomozko gudaritxoa zorionez ankaz bera erori zan ondoko ondarraren gañera, ta pixkanaka, pixkanaka. uretan ondo sentitu zan. An zebiltzan bere inguruan era ta kolore guzietako arraiak; berari begira geratzen ziran, alako gisako gauz bat nondik eldu ote zan galdezka bezela.

Ainbeste begiratu zioten, eta bere inguruan ainbeste buelta eman zituzten arraiak, gure gudaritxoa pixka bat ikaratu ta zer egingo ote zioten bildurrak geratu zan. Ia, gero, arratoi itxusi aregandik iges egin eta orain beste txarragorik gertatzen zitzaion! Ala, arraitxoak pixkanaka, pixkanaka, urbiltzen asi ziran, itz egiten ere asi zitzaizkioten. Baiñan plomozko gudariak ez zieten ezer ulertzen.

Nola gudaritxoak ez zieten erantzuten, arraitxoak berak zeukaten olagarro edo pulpo zar eta jakintsu bateri deitu zioten, ia berak zer egin bear zuten esaten zieten.

Joan ziran ba olagarroa ikustera, ta esan zien:

– An beien, ibaiaren ondoko ondarretan, ez arrai ta ez landare dan pixti nabarmen bat dago, ta itz egiten diogu ta ez digu erantzuten. Zer egin bear degu?

Olagarroak begiratu zuan esaten zioten tokira.

– Gudaritxo bat da –erantzun zien gogorik gabe. Fusilla or dauka. Baiñan ez ba du ezer erantzun nai ta geldik ba dago, ez dakit zer egin genezaken...

Eta beste ezertxo ere esan gabe alde egin zuan.

Arraiak orduan dana jakiten zuan beste arrai zar batengana joan ziran. Ura zan ba ortaz zerbait jakin zezakeana.

Arrai zarra, berriz, beraren billa joan ziralako oso pozik jarri zan. Ez zan, egia esan, oso bizkorra, arroa baizik, eta besteak berari gauzak galdetzea gustatzen zitzaion.

Baiñan oraingo au oso zailla zan! Ez zitzaion olakorik beñere gertatu, eta, egia esan, ez zekian zer erantzun.

Baiñan, ala ere, asko pentsatu bear ba luke bezelako arpegi illuna jarri zuan, eta andik puzka batera itz egin zuan:

– Gudari bat danez... –asi zan– eta nola ez duan erantzun nai... Ez dakit, ez dakit, berarekin zer egin genezaken... Ni bera ikustera joatea izango da onena. Ia nirekin nola portatzen dan.

Beste arrai guziak osos pozik geratu ziran asmo arekin; egia esan, olagarroa kenduta, arrai zar au zan zeukaten problema au erabakiko zuan bakarra.

Ta an joan zan arrai zarra, ta an joan ziran beste arrai guziak bere atzetik.

Laixter eldu ziran plomozko gudaritxoa zegoan lekura; anzegoan gure laguna bakarrik, ondarretan anka sartuta, tente, orain zer gertatuko ote zitzaion pentsatzen.

Arrai zarra gudaritxoarengana inguratu zan, begiratu zion bein eta berriz, arrituta, eta besteak ainbeste galdetu zioten gauz bera galdetu zion gudaritxoari berriz:

– Nor zera zu, ta nondik zatoz?

Gudaritxoa ez zan mugitu. Beti bezela geratu zan, zutik eta ixilik. Bildurtti xamarra zan, eta orain ez zekian arrai zar arek zer egingo zion.

Arrai zarrak asarre begiratu zion, eta gero bere arrai lagunengana buletatu ta belarrira zerbait esan zien. Berak ezin zezaken ezer egin gabe geratu; ez-jakiña bzela geratuko baizan orduan!

Gudaritxoak ikusi zuan nola beste arraiak baietz esaten zioten.

"Ez dakit zer ari diran izketan", pentsatzen zuan gure lagunak, "baiñan ez da neretzat gauza onik izango. Pasiak pasa, nik ez diet bildurrik erakutisko.

Ta berriz berak ainbeste maite zuan neskatxo dantzaria etorri zitzaion burura; gazteluaren aurrean, zutik, anka baten puntan dantzan, ikusi zuan bere buruan.

Baiñan laixter jakin zuan arrai zarrak buruan zer zerabilkian; berarengana urbildu, aua iriki ta... au!... irentsi zuan da.

"Agur betiko, lagunak! Orain bai ez zaituztetela geiago ikusiko!", esan zuan beretzat.

Orain sartu zan tokia bai zala illuna! Txalopa pasa zan kaño zulo ura baiño ere illunago zan toki au!

Alde batera ta bestera begiratzten zaiatzten zan, baiñan ez zuan ezer ikusten. Ta ala luze-luze joan zan. Alako batean argia ikusi zuan berriz, eta norbaitek eskuan jasotzen zuala nabaitu zan.

Zera pasa zan? Ara, auxe:

Bera irentsi zuan arrai zarra egun artan bertan arrapatu zuten. Gero, etxe aberats bateko kozinero batek erosi zuan aparria gertatzeko. Ta ara zer arrituta geratuko zan gizona bere arraia garbitzen ari zala plomozko gudaritxoa barrenen arkitu zuanean!

"Umeari emango diot", esan zuan kozineroak beretzat. "Ez du mutikoak beñere orrelako jostaillurik izan. Asko poztuko da gudaritxo au arrai baten tripetan etorri dala nik esaten diotenean.

Iñuderi deitu ta bere arkimen au erakutsi zion. Neska umearen gelara joan zan korrika. Ta ara nola uste gabean plomozko gudaritxoa atera zan etxeko gelara biurto zan berriz.

Eta, aren poza, an zeuden artzatxoa, ta tximua, ta trena, ta baita resortezko buru aundi, itxusi ura ere, ta bere lagun guziak. Batez ere, anka puntan zegoan dantzari ille gorri polit ura! Orrenbesteko buelta eman eta gero, ara berriz nola bere lagun artera biurto zan!

Bere nagusitxoak pozik artu zuan. Ezin sinixtu zuan mutikoak nola leiotik erori zan plomozko gudaritxoak arrai baten tripetan berriz bere etxeko gela arretarako bidea arkitu zuan. Eta muxu bat eman eta beste gudaritxoak zeuden kajan gorde zuan.

Beste gudaritxoak pozik artu zuten; berarekin egongo zanberriz andik aurrera betiko galdu zutela uste zuten lagun ura.

– Gero esango dizuetet dana erantzun zien, orain oso nekatua nago eta naiago det itz egin gabe geratu.

Baiñan ba dakizute zergatik ez zuan oraindik itz egin nai? Bestela ez baizion gazteluko dantzari politik entzungo! Ta orrela, gerorako utzita, neska dantzariak ere entzungo zituan berak esan bear zituanak; baita bere maitasun asmoak ere!

Eta ala, gau erdiko amabi kanpai tantoak entzun ziranean jostailluak berebiziko pesta izan zuten.

Tximua bere kiñuak beñere baño politago egiten asi zan, artza bere dantzatzen asi zan, trena pozik txistuka abiatu zan berriz karrillen gañean, eta resortezko mamuxel buru itxusi ura ere atera zan gudaritxoari nun ibili zan galdetzeko.

Danak entzun zuten plomozko gudaritxoak esan zituanak. Gertatu zitzaion guziak esatez bukatu zituanen konturatu zan dantzariaren hipar goxoa berarentzat zala.

Ta orain, orrenbeste mundu ikusita gero, plomozko gudaritxoak bildurra galdu zuan, eta gazteluaren atadira joan zan.

– Ez dik kasorik egingo –esan zion buru itxusi arek, asarre–, politegia dek ori iretzat, eta ez dik begiratu ere egingo.

Baiñan dantzari politak irripar goxo bat egin zion gudaritxoari; oneri gertatu zitzaizkion gauzak oso arrigarriak iruditu baizitzaizkion eta gudaritxoa portatu zan modua asko gustatu baizitzaion.

Andik laixter plomozko gudaritxo ankamotza ta dantzari polita ezkondu ziran, eta jostailu guziak jai polita antolatu zuten. Jostailu guziak ez, bat ez beste guziak; resortezko buru aundi ta itxusi arek kolpetik bere kaja itxi ta zapuztu zan, eta ez da geiago mugitu.

Eta ala ba zan, sartu dedilla kalabazan.

Urretxindorra

Bein bizi omen zan enperadore on bat. Baiñan emen, Euskal Errian ez, baizik urruti, gizonek larrua oria ta begiak zearka dituen sortaldeko erri batean. Eta ain zan ona enperadore au, bere erriko jende asko maite izanez gaiñera munduan zan enperadorerik maiteenabazan.

Ba, enperadore au jauregi andi ta eder batean bizi zan. Ormak ez ziran bestek bezelakoak. Jauregi onetako ormak porzelana apaiñekin egiñak ziran, elurra bezain zuriak. Leioak ere kristalik fiñenarekin, egurrik aberatsenekin eta diamante ederrenekin egiñak ziran.

Baiñan au ez zan dana. Naiz eta jauregia ain ederra izan, naiz eta jauregia guk asmatu genezakeen jauregirik ederrena baiño ederragoa izan, inguruan zeukan lore-baratza ta basoa oraindik ederragoak ziran.

Emen ezin degu an zeuden lore guzien izenik jarri; asko ta asko baiziran, eta izan litekeen politenak, eta batzuek munduan beste puntatik ekarritakoak. Ango arrosak eta klabeiñak eta lili-ori ta lili-zuri eta lili-ubel apalak, eta ortensi arroak, danetatik ba zegoan an. Ba, lore-baratz arrigarri au itxaso ertzerañño eltzen zan, eta itxaso bera ere munduan ikusi litekeen urdiñik politenekoa zan.

Baiñan gauz arrigarri oiek baiño arrigarriagoa ba zan an oraindik: arbol eta lore tartian gordeta beti abesten zegoanurretxindor bat. Txori onen abestia entzuten zuten guziak geratzen ziran arrituta. An bertan bizi ziranak ere, urretxindorraren abestia entzuten zutenean, beren lana utzi ta txoriak zer abestu geratzen ziran, txoratuta.

Eta, noski, mundu guziko idazleek idatzi zuten jauregi eder onetaz. Eta batez ere lore-baratza eta urretxindorra aipatzen zituzten. Urretxindor onen abesti goxoa iruditzen zitzaioten batez ere arrigarria, ta mundu guziko olerkariak eskeñi zizkioten bere poemak.

Baiñan gauzik arrigarriena ba dakizute zer dan? Enperadoreak ez zuela urretxindorraren abestia beiñere entzun. Nola liteken ori? Ba, enperadore au beti etxe barruan sartu ta buru-belarri bere agindu-lanetan aritzen zelako, ta bere baso ta lore-baratzera beiñere joaten ez zelako. Ala ere enperadoreari irakurtzea asko gustatzen zitzaion, eta alako batean, urrutitik etorritako liburu batean irakurri zuan nola urretxindor arrigarri ura bere lore-baratzean bertan bizi zan. Beriala deitu zien bere morroiei, ta galdetu zien ia bere lore-baratz eta basoetan alako txori miragarria bizi zala egia zan. Baiñan, zoritxarrez, zerbitzari oiek ez zuten ezer entzun. Nola bere nagusia bezela beti etxe-barruan sartuta lanean aritzen ziran, ez zekiten alako urretxindorrik ba zanik ere.

– Zertarako ditut nik orrenbeste zerbitzari –esan zuan enperadoreak– nere aldamenean zer gertatzen dan ez ba dakite.

Ta zerbitzariak makurtu ta atera ziran.

Orduan enperadoreak bere jakintsuei deitu zien. Bizar luze ta zuriak zituzten jakintsu oiek asko zekiten, ez baizuten bere bizi guzian ikasi besterik egin. Eta oiei galdetu zien, ia baberek mundu guzian ezaguna zan urretxindor miragarri onen berririk

ba zuten. Baiñan, naiz eta txori eder ura lurralde oietan bertan bizi, jakintsu oiek ez zekiten ezertxo ere.

– Ba liteke –erantzun zioten enperadoreari– ba liteke urretxindor orren kontua gezurra izatea; alegia, batzuen-batzuen ametsa izatea. Baiñan, egi-egia, guk ez degu orrelako txoriren berririk izan; beraz, orrelako urretxindorrik ez da eman bizi; beraz, urretxindor kanta ori ez du egitaz iñork entzun.

Ta, ala, agur egin eta enperadorearen aurretik joan ziran, lasai asko. Noski, nola beti liburuak irakurtzen aritzen ziran, ez ziran etxetik kanpora ateratzen, eta jakintsu oiek ez zuten urretxindorraren abesti eztsurik entzun.

Baiñan lasai geratu ez zana enperadorea bera izan zan.

Bere morroiei berriz deitu eta esan zien:

– Billa zazute nere lurralde guzian urretxindor zoragarri onen berri dakian norbait.

Eta, noski, jauregi guzia urretxindorraren berri zekian norbaiten billa asi ziran. Baiñan ez zuten ezer aurreratu. Galdetzen zuten bakoitzean erantzun berdiña artzen baizuten: iñork ez daki ezer.

Baiñan alako batean zerbitzari batek esan zuan:

– Ez nago oso ziur, baiñan sukaldean laguntzen ibiltzen diran oietako neska bat arratsaldero bere etxera basotik barren joaten dala uste det. Ba liteke berak zerbaite jakitea. Galdetuko diot.

Ori entzun zuan bezain laixter, enperadoreak neska ori bere aurrera ekartzeko eskatu zuan. An joan ziran jakintsu ta morroi guziak sukaldera, neskatxoaren billa, ta andik minutu batzutara an zegoan neska ttiki bat enperadorearen aurrean.

Eta umeari galdetu zionean, onek erantzun zion:

– Bai jauna, egia da, ni arratsean etxera noala urretxindor baten abestia entzuten det. Eta entzun deten gauzik goxoena ba da!

– Eraman itzazu nere zerbitzariak urretxindor ori dagoen tokiraiño –esan zion enperadoreak– eta sari eder bat emango dizut.

Gabean bere sukaldeko lanak bukatu zituanean, etxerako bidea artu zuan, beti bezala; baiñan bakarrik ez, bere atzetik enperadorearen zerbitzari aundienak zijoazten eta. Egunero joaten zan bidetik joan zan, enperadorearen lore-baratz eta basoetako bidetxur batetik. Ia gaua zan, eta jauregia urruti geratu zan eta ez ziran bere porzellanazko orma txuri aiek ikusten, naiz eta illargi betea itxaso gaiñetik argitzen asia zan. Entzuten zuten soiñu bakoitza urretxindorraren abestia zala uste zuten neskatxoarekin zatoztenak; baiñan neskatxoak esaten zien:

– Ez, ez!... Zuek ez dakizute urretxindorraren abestia nolakoa dan!...

Ta, ala, neskatxoa loretan zegoan sagar-arbol baten aurrean geratu zan, eta biatzarekin markatuta esan zuan:

– Emen dago...

Ta neskatxoa urretxindorrarengana joan eta esan zion xamurki:

– Urretxindorra, gure enperadoreak ez dizu beiñere entzun, eta zuk bere jauregian abestu nai zenuken galdetzeraz biala gaitu onera.

– Joango naiz –erantzun zion laburki urretxindorrak.

Ez zuten ezer esateko ere denborik izan. Txoria bereala abesten asi zan; eta bere abestia entzutean, danak arrituta geratu ziran.

Enperadoreak ori jakin zuanean, oso pozik jarri zan eta neskatxoari erregalo asko emateko agindu zuan. Eta, gaiñera, urretxindorra etortzerako jauregia beiñere ez bezela apaintzeko.

Gauean, argi guziak pixtuta, jauregiak kristalezko kaja dirdiratsu ta zoragarri bat ematen zuan. Enperadorearen inguruko jende guzia bere gela ederretan bildu zan. Gizon ta emakumeak, beren jantzirik ederrenekin, apainduta zeuden. Enperadorearen errege-alkiaren ondoan urrezko arbol-adar bat jarri zuten urretxindorrarentzat.

Gau erdi-erdian sartu zan urretxindor maragarri ura gelako leio batetik. Urrezko adarreraiño egan etorri ta beriala abesten asi zan. Ain zan abesti goxoa ta zoragarria ura, enperadoreari malkoak ateratzen asi zitzaizkion. Eta txoria konturatu zanean, oraindik abesti goxoagoa abesten asi zan.

Urretxindorrek bere abesti aldia bukatu zuanean, iñork ez zekian sentitzen zuten ura nola adierazi. Orduan enperadoreak esan zuan:

– Eskatu akidazu nai dezuna, nik emango dizut eta.

– Jauna –erantzun zion txoriak– malkoetaraiño poztuta ikusi zaitut, eta ez det beste ordaiñik nai. Uzten ba dirazu, egunero etorriko naiz leio orretatik barrena zuretzat abestera.

Enperadorea ain zegoan biotz ikututa, ez zekian zer erantzun. Oraindik malkoak erortzen zitzaizkion masalletik bera. Ara, azkenean, mundu guziak ezagututa bera, naiz eta bere etxe ondoan bizi, ezagutzen ez zuan txori zoragarri ura nola gauero beregana abestera etorriko zan.

Ta ala egin zuan urretxindorrek. Arrezkero leio ura irekita geratzen zan beti, ta urrezko arbol-adarra enperadorea exerita zegoan errege-alkiaren ondoan egoten zan. Eta gauero ara etortzen zan txoria jauregiraiño bere abes aldia egitera.

Ta urretxindorraren fama inperio guzian zabaldu zan, eta ez zan iñon besterik itz egiten.

Berri onek inbiri asko sortu zituan. Eta bein enperadorearen ondoan zegoan jakintsu gaixto batek esan zion berari, ia zergatik ez zuan urretxindorra kaiola batean sartzen; ala, txoriak berarentzat bakarrik abestuko zuala ziur egongo zala.

Enperadoreari asmo ona iruditu zitzaion. Berebiziko urrezko kaiola ederra egin zioten, eta gauean urretxindorra beti bezela abestera lasai etorri zan batean enperadoreak kaiolan sartu ta atea itxi zion.

Txoriak eskatu zion, arren eta arren, kaiola aretatikan ateratzeko, mesedez. Eta nola ez zioten aterik irikitzen, gaixoa egan asi zan, eta urrezko burni taketa aien kontra egoak ia puskatu zituan. Baiñan ez zan kaiolik puskatu, ta ez zan enperadorearen biotzik orregatik bigundu.

– Urretxindor –esaten zion enperadoreak– emen ez zaizu ezer ere faltako, ta nere lagunik onena izango zera zu.

Enperadoreak ba dakizute zer nai zuan? Urretxindor eder aren nagusi bakarra izan.

Baiñan, zoritxarrez, enperadoreak ez zuan asmatu; andik aurrera ez baizuan txoriak geiago abestu.

Enperadorea, orduan, oso triste jarri zan, eta txoriak berriz abesteko alegiñak egin zituan. Baiñan, alperrik orde. Urretxindorra mutututa geratu zan.

Ordu ezkerro jauregia oso trixte geratu zan. Egunero joaten zan enperadorea kaiolaren ondora, ta goxo-goxo itz egiten zion urretxindorrari:

– Zergatik ez dezu abestu nai? Zer falta zaizu emen? Ez al daukazu bear dezun guzia?

Baiñan urretxindorrek ez zion erantzuten; oso trixte begiraten zion enperadoreari, ta burua makurtu ta kaiolaren bazter batera joaten zan.

Bitartean, kontseju ori eman zion jakintsu gaixtoa ez zegoen geldik; nagusia irabazi aniean esan zion txori aretaz aztutzeko, berak egin zuala berebiziko txori mekaniko bat, eta besteak añeko luma politak ere jarri zizkiola, ta kuerda eman ta besteak bezain ederki abesten zuala.

Enperadorea oso pozik jarri zan txori ura artu zuanean, eta jakintsuari erregalo asko eman zizkion lan arrigarri aren truke. Ordu ezkerro, egitazko txoria aztu zitzaion eta bera bezela gaiñerantzeko guziak ere txori mekaniko ari begira jarri ziran.

Baiñan, egun batean, urretxindorra ainbeste maite zuan neskatok kaiolako atea iriki zion, eta txoriak pozik iges egin zuan.

Pasa zan denbora, ta enperadorea txori mekaniko aren abesti berdiñarekin aspertzen asi zan. Txori ari kuerda eman eta beti abesti bera abesten baizuan. Ala, berriz lengo urretxindorra gogoratu zitzaion, lengo urretxindor biziaren abesti soiñua entzuteko gogoia etorri zitzaion. Orduan konturatu zan kaiola utsa zegoala. Ala, txoria il egin zala pentsatu zuan, eta berak egin zion gaixtakeria arregatik damutu zan. Eta ainbeste sufritzen zuan enperadorea, azkenean, gaixotu egin zan.

Eguna joan eta eguna etorri, ta gero eta gaixoago jartzen asizan. Ez zuan iñortxorekin itz egin nai, ta lo zegoanean bakarrik zegoan lasai. Noizean bein txori mekaniko aren abestia entzun nai izaten zuan, baiñan arekin ez zitzaion trixtura aundi ura joaten. Eta, gaiñera, mekanismo ura ere ondatzen asi zan, eta egun batean pot egin eta geratu zan.

Enperadoreak ez zekian zer egin, eta bere gaitza geitu ta gero ta okerrago zijoan. Orain ez zan oietik mugitu ere egiten. Eta nola beti negarrez zegoan, begiak gorri-gorri jarri zitzaizkion. Sendagilleek egiten zituzten alegiñak, baiñan ez zioten gaitzari ongi-biderik aurkitzen, eta, ala, enperadorea trixtura ta damuaz iltzeko zorian jarri zan. Negua eldu zan eta lore-baratza elurrez estali zan. Enperadoreak leiotik begira txorigabeko arbol larru-gorriak besterik ez zituan ikusten.

– Nere urretxindorrari entzun nai diot –esaten zuan trixte bein eta berriz.

Eta gero bere burua erortzen uzten zuan bere burukoaren gañean, eta ez zuan puxka batean besterik esaten; bitartean, kanpoan aizeak arbol-adarrak astindu ta elurra mara-mara erortzen ari zan.

Ta, ala, azkenean, sendagilleek aitortu bear izandu zuten beren sendagaiek ez zutela gizon aundi ura sendatuko. Enperadorea asi zan azkeneko txorabioak izaten; eta alakotan urretxindorra leioan ikusten zuala esaten zuan, eta berriz ere abesti miragarri ura entzuten zuala iruditzen zitzaion.

Orduan norbait joaten zan bere ondora ta entzuten zion:

– Jarrai zazu abesten, nere urretxindor polita; jarrai abesten, orrekin laixter sendatuko naiz eta...

Ala, goiz batean eguzkia sartu zan leiotik barrena, udaberriazan eta, ta lore-baratza berriz lorez betetzen asi zan. Azkenean, udaberriarekin, jauregiko inguru guziak pixtutzen asi ziran.

Baiñan, ala ere barrenen, porzelanazko orma txuri ta eder aien barrenen, ez zan udaberririk sartu. Laguntzaille asko zeuzkan enperadoreak bere aldamenen, baiñan au trixturaz iltzen ari zan, eta iñork ezer egiterik ez zeukan. Baiñan alako batean, txori kanta goxo bat eldu zan leiotik. Danak oietik begiak jaso zituzten. An zegoan urretxindor txiki bat, leiotik barrena begira ta kantari.

Enperadoreak pixka bat iriki zituan begiak eta irripar bat egin zuan. Aspaldi zai zegoana eldu zan azkenean. Tapixkanaka-pixkanaka indarrak etorri zitzaizkion eta oiean exeri zan.

– Ireki zazute leioa –esan zien bere zerbitzariet– azkenengo aldiz entzu nai diot eta.

Zerbitzariak bereala leiora joan eta iriki zuten, eta txoriaren abesti eztitu arek gela guzia bete zuan.

Pixkanaka-pixkanaka enperadorearen masailak gorritzen asi ziran, eta aurreneko irripar txiki ura zabaltzen joan zan.

– Oso ondo nago –esan zuan arrituta zeuden sendagilleen aurrean– Nere urretxindor txikiak bizia salbatu dit. Bere abestia entzun detan bezain laixter gertatu da miraria. Etorri da berriz ni ikustera, orrek esan nai du egin nion gaixtakeria barkatu dirala.

Eta begiak malkoz beteta, irripar gozo bat zeukan aoan, zoriontsua zan.

Urretxindor txikiak bere abestia bukatu zuanean, enperadoreak etortzeko kiñua egin zion.

– Etorri zaitez, nere lagun on ori –esan zion– Emendik aurreraez naiz berriz gaixtoa izango. Len bezela nere lore-baratzean eta basoan abestu zazu, lasai, eta entzun nai zaituzten guziek izango dute orretarako aukera. Olerkariet idatziko dute berriz zutaz, eta gabean basotik barrena joaten direnek izango dute zure laguntza. Ez zaitut geiago neretzat bakarrik artuko, ta ez zaitut geiago urrezko kaiolan sartuko.

Ta orduan urretxindorrak itz egin zuan:

– Jauna, ori bakarra nai degu txori guziak. Askatasuna. Askatasunean abestuko degu biotzean daukagun poza, entzuten diguten guziei poztuko dien gozoa. Ez degu besterik behar. Askatasunik gabe ezin gera bizi. Urrezko kaiolan ia akatu ninduzun. Ezin nuan nik an abestu, ta trixturaz ilko nintzan.

– Agintzen dizut nik ez dizutela geiago orrelako kalterik egingo –esan zion enperadoreak txori miragarriari.

Eta danak arrituta utzi ta gero, enperadorea jeiki zan oietik, pozik, zearo sendatuta.

Egun ura ezkeri, jendeak larrua oria ta begiak ziarka dituen sortaldeko erri aretan ez dute kaiolan txori bat ere ikusi nai. Txori guziek basoetan eta lore-baratzetan abesten dute.

Ta arrez gero urretxindorra ara joan zan gauero jauregiko leiora enperadoreari abestera.

Ala eskertu zion bere anaiei emandako askatasuna.

Ta ala ba zan, sartu dadilla kalabazan.

Sarrera

Ama gaxo dago (1964)

*Hizkuntza gaztelera duten Hego Amerikan sarri sortu ohi da euskaraganako adiezintasuna; Venezuelan erbesteratua zegoen poeta espainol ezagun batek argitaratu zuen **El Nacional** egunkarian euskara gutxien zuten artikulu batekin sua; alegia, gure hizkuntzaren gaitasun eza nabarmena zela, batez ere Unamunok Bilbon egindako hitzaldi batetan behin betiko argi adierazi zuenez gero. Eta dokumentatua agertzen zen poeta espainola adierazpen harekin! Nik bereheala erantzun nion egunkari berean; Bizente Amezagak ere bai **El Universal**-en, eta eztabaida publikoa sortu zen. Eusko Etxean bertan jaio zen kezka eta zezioa. Pentsatu nuen gai hau aztertu eta liburu bat idatzi behar nuela, bereziki Hegoamerikara egokitua. Unamunoren obra aztertu, Bilbora eskatu nituen agiri batzu jaso, eta hasi nintzen idazten; Buenos Aireseko Ekin argitaletxera bidali nuen lana eta 1966an agertu zen **Unamuno y el vascuence** liburua; bestalde, geure arterako arazoa errezen adierazi zezakeen antzerki modura idazteko asmoa hartu nuen, eta lehen aldiz Caracaseko Eusko Etxean irakurria izan zen formalki, eskenatoki gabe baina pertsonaia bakoitza bere hitzekin; aurkezpen honetan parte hartu zuenetakoa, liburuaren sarrera ederra idatzi zidan Andima Ibinagabeitia izan zen.*

Honeratu nintzenez, 1969an, heldu eta laster, telefono dei bat jaso nuen Hondarribian, zestoar bat zen, esaten, ea joaterik izango nuen hango zinematokian klandestinoki hurrengo egunean antzestuko zuten Ama gaxo dago ikustera; harri eginda geratu nintzen, eta pozaren pozez joan nintzen semetxoarekin nire lana antzestua ikustera, oso bikain gainera.

Ama gaxo dago

Antzerkia

UGALDE'tar MARTIN

Eskeintza:

Etxaniztar Nemesio apaiz-gizon heldurgeari.

ITXASO	21 urteko neska bat	etxeke alaba
UNAI	25 urteko mutil-gizona	etxeke semea
DON ARTURO	70 urteko gizona	etxeke medikua
IÑAXI	70 urteko emakumea	izeba
MIGEL	39 urteko gizona	etxeke seme zarrena. <i>Betaurrekoak</i>
SABIN	38 urteko gizona	etxeke bigarren semea. <i>Bizarduna</i>
Dr. ZUBIZARRETA	45 urtekoa	kanpoko medikua
ZARRA	70 urtekoa	erria
GIZONA	40 urtekoa	erria
GAZTEA	20 urtekoa	erria

I. Atala

Jan-gela batean exerita: Itxaso ta Unai, txapela buruan duala.

Antzeztokira begira gaudela ezkerrera, sukaldera daramakin ate bat; eskubitara beste aundiagoa ta apañagoa. Ate au personaje bat bezela izango da: ama gaxoaren lekua artu bear du ikusleen gogoan; ortarako, antzoki guziak ondo ikusi lezaken toki agirian egon bear du.

Jan-gela au langille etxe batekoa da, bañan ondo jarria. Paretetan zintzilika, pamily erretratu ta kuadro ta tradizio etxeko beste ezaubide batzuek.

Muebleak, berriz, berriak ez, bañan apain xamarrak ta sendoak; mai txiki bat bear da, bañan toki aundirik artu gabe; aspaldiko kutxa edo orrelako muebleren bat ere bai, gela onek Euskal-Erriko sendotasun eta tradizioa berez erakutsi bear du; bañan zartasunik ez, aurrera-bideko barrengo indarra baizik.

Neska-mutillak gelako bi puntetan exerita daude.

ITXASO. *Trixte: Unai...*

UNAI. *Burua eskuetan daukala, ezer ez.*

ITXASO. Unai!... Ez aldezu entzun?...

UNAI. Bai...

ITXASO. Ez aldaramaki medikuak amaren gelan denbora asko?... *Biak ateruntz begira geratzen dira, zer entzun bezala.*

UNAI. Bai... bada onezkero ordu erdi bat or dagoala... *Itxaso Unairen ondora etorri ta aldamenean exeritzen du.*

ITXASO. Zer ote du amak, Unai?

UNAI. Ez dakit ba... Beti ibili izan da ama buruko min aundiekin eta...

ITXASO. Bai, bañan oraingo miñak ez dira lengoak bezelakoak... Gañera, amak ez du beñere gaur bezela txorabiorik izan...

UNAI. Ez...

ITXASO. Ta ez degu ama beñere orren larritua ikusi... Berak eskatu du medikua... *Biak ixilik.*

ITXASO. Unai, Xabin ta Migeleri dei egingo aldiegu?...

UNAI. Ez dakit ba... Xabin bertan dago, ta nola nai ere gaur gabeen etorri bear du. Bañan Migel?... Salamancatik oneraño! Ta zertarako?...

ITXASO. Nola diozu: zertarako?

UNAI. Ez dakit ba... Ama buruko miñak dagoala ta nola ekarriko degu ba mutilla Salamancatik oneraño... Tokitan dago Salamanca!...

ITXASO. Ez dakit ba...

UNAI. Tia, itxogin dezagun medikua atera arte, ta zer dion ikusiko degu. Baliteke ezer ez izatea.

Ixilik pixka bat.

UNAI... Gañera, badakizu Migel oso okupatua dagoala, ta ez daukala bere katedra orren errex uzterik. Bear-bearrezkoa bada bakarrik deituko diogu...

ITXASO. Ama gaxoa!... Unai, ez alda ezer izango!...

Itxasok bere eskua Unairen eskuan jartzen du. Unai eskua estutzen dio. Biak aterutz begira geratzen dira. Itz zuzmur bat entzuten dute, ta orduantxe atea irikitzen da, mantxo.

Mediku zar bat ateratzen da, bere maletin eta guzti. Irurogei ta amar urte inguruko gizon bat da. Berarekin batera andre zar bat ateratzen da, irurogei ta hamar bat urteko amon gordin bat, Iñaxi.

IÑAKI. Ixooooo!... Biatza ezpañetan jarri ta atea ixten du. Ia orain lo artzen duan.

Unai ta itxaso exerita geratzen dira, medikuari begira, ia zer esaten duan. Medikua, berriz, maiean exeri ta zerbait idazten asten da. Itxaso ta Unai orduan Iñaxiri begiratzen diote, ta begi larriekin, itzezin gabe, galdetzen diote.

IÑAXI. Ez dakit... Ondo begiratu du... Bitartean medikua idazten.

ITXASO. Lo egiteko zerbait eman aldio?.

Onetan, medikua altxatzen da ta Iñaxiri paper bat ematen dio. Itxaso ta Unai, biak, zutik jartzen dira, zer entzun.

DON ARTURO. Tia, botikatik au ekarri ta orduero amar tanto eman akizkiozute ur pixka batekin nastuta...

IÑAXI. Ta, lo badago?

DON ARTURO. Esnatu... Bai. esnatu. Ogei ta lau orduan ikusi bear degu onen gora-bera... Ez larritu, *Itxasori arpegia laztanduz*, ez dizutet esango ondo dagoala, bañan zuen ama gogorra da ta eutxiko dio...

UNAI. Ta zer dauka ba, don Arturo?...

DON ARTURO. Itxogin egin bear degu, itxogin... Tia, banua. Ez det uste nere bearrik izango dezutenik, bañan zerbait gertatzen bada, deitu akidazute. Bañan ondo badijoa, biar goizean berriz etorriko naiz...

IÑAXI. Biar igandea da, don Arturo...

DON ARTURO. Egia da, biar igandea... Bañan bueltatxo bat egingo det meza ondoren... *Ta Unairi begira*. Ta, Unai, pelota partidurik badek biar?

UNAI. Bai...

Don Arturok besotik artzen du Unai ta alkarrekin ateratzen dira. Itxaso ta Iñaxi ixilik geratzen dira, alkarri begira. Gero:

ITXASO. Ai, izeba!... Bildur-bildurrak egon naiz, oker aundiren bat ote zan...

IÑAXI. Beretzat bezala: Ni ere ez nago lasai.

ITXASO. Bañan, gauza aundirik ez dela esan ez du ba medikuak?

IÑAXI. Paperari begira ta malko bat kentzen: Ez dakit ba ume...

ITXASO. Ikaratuta beregana: Izeba! Zer da?!...

IÑAXI. Ezer ez, ezer ez...

ITXASO. Ezer ez eta negarrez?!... Zer da?... Esan akidazu!... Don Arturok guri aitortu digun baño okerrago aldago ama?!...

IÑAXI. Malkoak kenduz: Ixo... Amak lo pixka bat egin bear du ta...

Ate txirrikito bat ireki ta barrura begiratzen du. Itxasok bere bizkar gañetik, ikara arpegiarekin, ere bai. Gero berriz atea itxi ta Itxasori esaten dio izebak:

IÑAXI. Joan zaitez botikara ta au ekarri zazu...

Papera ematen dio.

ITXASO. *Larrituta:* Baño, izeba, esan akidazu, ama oso gaixki aldago...?. Esan...

IÑAXI. Ez al'diozu don Arturori ezetz entzun?... Ia, tira, ekarri erremedio ori lenbailen, lauretan lenengo tantoak eman bear dizkiogu ta.

ITXASO. Bai.

Itxaso, arpegi ilun batekin, malkoak kenduaz, ateratzen da presaka. Iñaxi bakarrik geratzen da. Eseritzen da maieko alki batean eta burua eskuetan artzen du kolpetik, negarrari emanaz.

Argiak itzali ta musika ixila jarri: Minutu bat inguru.

Argia pixtu.

II. Atala

Berriz lengo gela, bañan orain alki geiago, errenkadan, norbait iltzen danean jartzen dituzten bezela. Beste aldaketarik ez; bañan kontraste au argi azaldu dadilla.

Illunabar aldea da.

Exerita: Migel ogei ta emeretzi urte ditun bizar txiki ta betaurekodun gizon apain eta tente bat, eta Unai. Migelek oraindik abrigo ta sonbreroa eskuetan dauzka; Unai, beti bezela, txapelakin dago; ez daude alkarren ondoan exerita.

MIGEL. *Aserre xamar*: Ni oneraño ekarri erazi ta, ara, ezertarako ez!... Ni zuek bezela nagoala uste aldezute?

UNAI. *Apal*: Gu bezela ez? Zer ba!?

MIGEL. Ara, Unai, *bere seme bateri bezela izketan*, zuek beste mundu batean bizi zarete emen. Mundu txiki batean!...

UNAI. *Moztutzen*: Ara! I ere ez alaiz ba emen, "mundu txiki" onetan jaioa?

MIGEL. *Pixka bat apalago*: Bai, bañan ni ez nauk emen bizi... Ni kaiolatik aspaldi irten niñuan eta beste... nola esango diat nik... beste ritmo batean bizi nauk. Ez aldezute ori ikusten?.

UNAI. *Apal*: Bai, bai... Ez diat nik ezetz esaten. Bazakiat buru-lanak gureak baño gogorrakoak dirala ta goiko malletan bizi aizela, ta oso lanpetua abillela... Bañan, gaxo dagoana ez alda ba ire ama?

MIGEL. *Apalago*: Bai... nik ez diat...

UNAI. ... *Moztutzen, aserre*: Ez alda ire ama?!...

MIGEL. *Apal xamar*: Ez adi aserretu...

UNAI. *Oraindik aserre, bañan geldiago*: Aserretuko ez nauk ba?... Unibersidadean agoala, ta goiko mallako jendearekin abillela, ta txapel-apain eta jantzi apañekin jazten aizela, ta ez alaiz ba nere anaia?...

MIGEL. *Irripar batekin*: Bai, motel... Oso sensiblea ago... Nik ez diat ezer ukatu nai. Ni ez nauk orregatik arrotu...

Unai, aserre arpegiarekin, bañan ixilik, naigabetua, geratzen da.

MIGEL. *Pixka batera*: ...Ez zak uste nere familiak eta nere erriak lotsatzen nautenik, edo nere sendia ukatzeko asmorik daukatenik... Ez, neretzat nere gurasoak eta nere erria ez dituk arropa bezela aldatu litezkeen gauzak!...

UNAI. *Apalago ta xamurrago*: Ez zakiat ba...

MIGEL. *Unairen ondora etorri ta, eskua bere belaunaren gañean jarrita*: ...Ez, motel. Ni zerbait izatera eldu banaiz, nere sendiari ta nere erriari zor zioat... Ni etxe onetako ta erri onetako semea nauk... Konturatu zaitezte... Abotsa jasota. Ni lengoa nauk, ni lengo Migel nauk!...

UNAI. *Ezin siñistu balu bezela*: Bai?

MIGEL. Noski, lengoa bera, etxe onetan jaio ta azitako mutil bera... Ni ire lengo anai zar bera nauk. Bañan, *abotza pixka bat jasota*, konturatu bear dezute, lengo mutil

arek zeuzkan egin-bear eta erresponsabilidadeaz gañera beste egin bear aundiagoak ere baditudala nik orain!...

UNAI. Zer esan nai dek orrekin?...

MIGEL. Alegia, gure famili-arboleko adar bat izan arren, berez gu biok arbol bateko adarrak izan arren, ire egurra ta nerea ez dirala berdiñak; beintzat ez dirala gaur itxura berdiñekoak azaltzen... Entenditzen aldidak?...

UNAI. Bai, ez nauk ni orren kirtena. Ni ez nauk unibersidadera joan, Salamancara joateko dirurik ez zegoaken etxean nik bear nuanean. Ta emen, gure errian bertan, ez zaukagu unibersidade aukerarik. Bañan ez uste orregatik i baño mokoloagoa naizenik!...

MIGEL. Ez diat ori esan nai...

UNAI. *Moztutzen*: Bai, bazekiat nere burua irea aña ez dala jantzi, nik ez daukatela ire eskolarik... Apal: Ori ez daukak esan bearrik ere... Bañan orrekin zer? Gizatasuna ta zuzentasuna eskoletan eta unibersidadetan bakarra ikasten dala uste aldek. Nere egurra irea bañan aulagoa dela uste al dek?

MIGEL. Ez, ori ez... Bañan nik esan nai detena dek, alegia ire egurra ta nerea arbol batekoa izan arren, nerea pixka bat... leguntxoagoa dala; beintzat alako beste itxura bat badaukala, beste alako barniz bat artu duala, bai, ta beste zer-egin baterako gertua dagoala.

UNAI. Eta gero'?...

MIGEL. Gero zer'?... Ikasten duanari barrenen zerbait berria sortzen zaiola, ta ikasi dutenak, ikasi ez dutenak baño geiago direla... Bixta ere luzetu egiten zaiotela ta ikasi ez dutenak ikusten ez dituzten gauzak ikusten dituztela, aurreraxio begira ta luzeago ikusten dutela... *Abotza jaso ta*: Ez al dek ori ikusten?!...

UNAI. Bai, nik ez diat ezetz esaten... Bañan goazen berriz asi geran tokira... *Altxa ta alde batera ta bestera ibiltzen asten da*... Gauz guziak ik esaten dituzken bezela badira ere... Ez alda gaxo dagoana ire ama?... Ire egur apain ori ez al da oraindik ire ama-arbol horrek emandako adar bateko egurra... ta ez al diok ik amari guk ainbeste zor?...

MIGEL. Bañan...

UNAI. *Moztutzen*: Utzi akidak bukatzen... Ez al da ir ama ire Unibersidade orretako lana baño aurreragokoa?... Ori galdetu diat nik lenago, besterik ez!...

MIGEL. *Altxata*: Ikusten dek, gauzak beti lurrera nola jeixten dituken?... Ikusten dek goiko mallako gauzak ere nola beti lur jotzera ekartzen dituken?...

UNAI. *Exerita*. Lur-ondoko umea nauk, gure gari ta sagarrak ematen dituan lur berean sustraitu ta azia izan dan mutilla... Ori ez dek iñor lotsatzekoa... Eta kontuz gero goragi egan joan eta lurra ta lurrekoak zer ta nolakoak diran aztuta geratzen aizen...

MIGEL. Bai, goragi joatea ez dek ona; bañan pixka bat altxa bear diagu, gauzak egiazko perspektiban ikusiko baditugu...

UNAI. Ba orregaitik galdetu dit: Ez al da ire ama Unibersidade orretako lana baño aurreragokoa?...

MIGEL. *Unairen ondoan exerita, ta aurrez-aurre begira*: Egia, egi-egia, esatia nai al dek?...

UNAI. Noski!

MIGEL. *Berriz altxata, alde batetik bestera dabilela*: Bañan egia esaten badiat asarretu egingo aiz... Ori baita ik ulertzen ez dekena...

UNAI. *Altxata, toki berean*: Ta ori dek nik bein ta betiko entzun nai ditena! Ori bera! *Aserre*: Ni asarretuko naun ire asmoa, nik ik esan baño lenago ezagutzen detan egitazko ire asmoa! Ori nai diat, ik buru orretan dabilkiken asmo ori aurrez-aurre esatea!...

MIGEL. Ba jakin nai badek, ara... ta ez zak bullarik atera, mendiko biorra bezela jartzen aiz eta... Ni emen egon edo ez egon, ama berdin egongo dek, eta dana dala, denok il bear diagu egunen batean... Unibersidadean orrenbeste lan euki ta zer egiten diat nik emen?... Gizon bezela erantzun akidak... Bota zak or daukekan sentimentu pillo ori kanpora, ta arrazoi pixka bat eman akidak. *Unairen aurre-aurrean jarri ta*: Gizon bezela erantzun akidak orain!

UNAI. *Ixilik, erdi zoratuta bezela, mokolotua bezela*. Nola?... Gizon bezela?... Gizonak, egiazko gizonak, biotzik ez duala uste al dek?... Burua bakarra duan gizona egiazko gizona dala uste alde?... I ni baño gizonago aizela uste alde?...

MIGEL. Berriz zulo orretara sartu aiz, motel... Esan diat ez asarretzeko. I ez aiz ni baño gizon aulagoa, bañan alegia ire emengo fabrikako zortzi orduko lana ez dala nik Salamancan egin bear detan inportantzikoa... Ango lana...

UNAI. *Bullaka*: Zer lan eta zer!!...

Sukaldeko atetik lñaxi sartzen da.

Bi gizonak ixilik geratzen dira.

IÑAXI. Ixooooo... Zer dira bulla oiek? Ez al dakizute ama pake aundia bearrean dagoala?...

Bi gizonak ixilik. Unai exeritzen da. Migel alde batetik bestera, eskuak atzean dituala, dabil.

IÑAXI. *Bieri begira*: Zer zenduten?

MIGEL. Ezer ez... Nola dago ama?

IÑAXI. *Zorrotz begietara begira*: Ama beti bezela... Ta zu, Migel?

MIGEL. *Arrituta bezela*: Ni, zer!...

UNAI. *Altxa ta ateratzen da, aserre*: Bai, galdetu akiozu, izeba, ia zer erantzuten dizun...

IÑAXI. *Negarrez asten da*: Ez dizutela entzun uste al dezu, Migel!?

Exeritzen da.

MIGEL. Entzun zer?... Nere lanetan egon bearra daukatela?...

IÑAXI. Ori ez. Ori badakit. Bañan, alegia, zure ango lanak emengo ama gaixoa ta beste gañerakook bañan garrantzi aundiagokoak dituzula...

MIGEL. Ez dira gauzak berdiñak, ori da... Bakoitzak beretokia ta bere lanak dauzka mundu onetan, ta zuek ez dezute ori entenditzen...

IÑAXI. *Begietara begira*: Zer ez degu ulertzen, Migel?

MIGEL. Alegia, emengo, mundu txiki onetako gauzak bakarrik daukazutela zuek buruan, izeba, ta ni ez naizela emen aspaldi bizi, ta inguruko mundua aundia dala, ta beste mundu zabalagoko gauzak daukatela buruan... nere zai beste jende asko dagoala, nik mundu orrenganako erresponsabilidade asko ditudala... Ori da zuek entenditzen ez dezutena...

Iñaxi negarrez, exerita, ixilik.

MIGEL. *Aserre, alde batetik bestera dabillega*: Ori da zuek entenditzen ez dezutena... Ta ez dezute ori beñere entendituko.

IÑAXI. *Legun*: Migel...

MIGEL. *Zakar xamar*: Zer!...

IÑAXI. Migel, exeri zaitetz emen...

Migel exeritzen da bere ondoan.

IÑAXI. Nik badakit zure bururik eta zure buru-austerik ez daukatela... Bañan nere zartzaro ta nere ez-jakin eta nere baserritarkeri guziak nerekin eraman arren, nik ere badauzkat nere arrazoiak...

MIGEL. *Apal*: Noski ba, izeba...

IÑAXI. Ni zure amaren aizpa naiz...

Migeleri begiratzen dio.

MIGEL. Bai...

IÑAXI. Zure amarekin bizi izandu naiz beti. Berari seme-alabak azten laguntzeagaitik geratu nintzen ni ezkondu gabe ta nere-nereko seme-alaba-rik izan gabe... Zuek azten eta zueiri begira nagoala, uste gabean, zartu naiz...

MIGEL. Bai, izeba... Ta badakizu nik ama bat bezela maite zaitudala...

IÑAXI. Ala bada, Migel, entzun akidazu orain: nik eskatu nioten neska-mutillei zuri telegrama ori bialtzeko. Nik ezagutzen det nere aizpa. Zuen aita-zana il zan ezkerro beti ibili izandu da makal xamar; bañan, eta entzun idazu au ondo, oraingo gaitz edo dalako au ez da lengo miña bezelakoa. Oraingo onetan zuen ama oso gaixki dago... *Sotinka*. Ta oraingo onetan badijoa... *Negarrez*.

MIGEL. *Xamurtuta*: Izeba, ez zazula negar egin... *Izebaren burua bereganatuta*: Badakit zuk gure ama zenbat maite duzun, ta gu zenbat maite gaituzun ere bai... Ta Sabin nun da?...

IÑAXI. Sabin espezialista billa joana degu Donostira...

MIGEL. Zer dala ta?...

IÑAXI. Zuk badakizu zure anai Sabin bera medikua izan arren, orrelako gauzetan beste medikuekin batera ibilli naiago izaten duala... Baez pada ere... Medikiak burua argi euki bear gauzak garbi ikusteko, ta askotan, bear dan erabakia artzeko, biotzakaltegarri izan liteke.

MIGEL. Ori da, izeba, ori da... Burua argi beti, ta biozkadekin kontuz...

IÑAXI. *Begi-begira geratzen zaio*: Tia, abrigo ori erantzi zazu, etxean zaude ta... Artzen dio.

MIGEL. Eta don Arturo?

IÑAXI. Don Arturo emen izan da beti, egunero etortzen da, batzuetan bi edo iru aldiz ere bai... Orain bera ere etortzekoa da; iru medikuak alkarrekin ikusiko dute ama...

Itxaso sartzen da arpegi alai batekin.

ITXASO. Zer da? Izebaren negar malkoak ikusten ditu. Zer da, izeba?...

Goibelduta joaten zaio malera ta burua artzen dio eskuekin.

MIGEL. *Altxatzen da, ta dio*: Ezer ez...

ITXASO. Nola ezer ez?... Zer dezu, izeba? Ama okerrago aldago?

Abrigoa kentzen dio bere besotik:

IÑAXI. Ez, ez., Ez izutu. Ama lo dago...

ITXASO. Ta orduan zer gertatzen da ba?... *Migel'eri begira geratzen da. Migel alde batetik bestera dabil.* Zer da ba, Migel?

MIGEL. Ezer ez, badakizu...

IÑAXI. *Itxasori eskua burutik pasatzen dio, ta bere malkoak kendu ta dio:* Tia, apaldu ere egin beardegu... Zu, Migel, nekatua egongo zera biaje orrekin. Amak ere lo egingo ez balu orain obe, gabean obeto deskantsatuko litzake... Baño lo egin nai duanean, egin dezala... Zer egingo degu... *Tia, ixilik, ama ez esnatzeko,* Itxaso, jarri zazu maia, ta apalduko degu.

ITXASO. *Altxatzen:* Ta Unai?...

IÑAXI. Unai aldameneko Joxerekin dago atadian.

ITXASO. Ta Sabin eta don Arturo ta beste mediku berria noiz etorriko dira ba?

IÑAXI. Orain laxter, noski. Berak ere gurekin apalduko dute.

Itxaso sukaldera sartzen da abrigoa besoan daramakila. Gero, Iñaxik trixte begiratzen dio Migeleri, ta joaten da. Migel, zutik, kuadro bateri begira geratzen da, gauzak gogoratzen bezela. Izebaren abotza entzuten da.

IÑAXI. *Urrutitik:* Unai!

Migel gela alde batetik bestera, gelako gauzei begira. Gizon onek ez dirudi emengoa denik. Ori dabilki berak buruan. Bere txapel apañari begiratzen dio.

Itz soñua entzuten da:

ITXASO. Izeba, Migel aserre al dago? Zerbait esan al dizu?...

IÑAXI. Ez...

ITXASO. Zergatik zeunden ba negarrez?...

IÑAXI. Ez dakit ba... Batzuetan zarrei orrelako gogoakematen dizkigute ta...

Utsune txiki bat; bitartean, Migel gauzei begira.

UNAI. Ta Migel?

Unai zartzen da gelara:

UNAI. A! Emen ago... Apalduko al degu?

MIGEL. Bai, nai dezutenean... Bañan ez al genion Sabin ta beste bi medikuei itxogin bear?

UNAI. Ez zekiat ba, apaltzera deitu ziratek eta...

MIGEL. Sabin nola dago?

UNAI. Sabin? Ondo, ura ere lan askorekin...

MIGEL. Noiz etorri uan?

UNAI. Atzo. Bañan maiz etortzen dek ura etxera.

MIGEL. Ta berak zer dio? Alegia, ama nola aurkitzen du?

UNAI. Berak ta don Arturok elkarrekin itzegin eta gero espezialista baten billa joatea erabaki zieten.

MIGEL. Bañan berak zer esaten zikan?

UNAI. Esan, ezer ez... Badakik, Sabin medikua izan arren amaren osasunatzaz itzegitea ez dek ausartzen... Olakoetan, medikuak naiago izaten ditek beste medikuekin kontsultatu ta gauzak alkarrekin erabaki...

MIGEL. Aspaldian ez diat Sabin ikusi... Bere lanak ondo al dijoaz?

UNAI. Bai, bai... Bera ere lan askorekin, i bezela... *Zearka begiratuaz.*

MIGEL. Zer intentzio dakarkik berriz?...

UNAI. Zer nai dek... Nik Sabinekin bestelako konpianza zeukat. Bera bere errira etorri ukan lanera, ta noiz nai etxean diagu. I, berriz, emen ezin egon aiz egun bat ere... *Atzekabetua, exeritzen da. Ezta ama gaxo dagoala ere...*

ITXASO. *Presaka sartzen: Sabin allatu da!...*

MIGEL. Nun da?

ITXASO. Automobilla oraintxe etorri da, ba'datozte...

MIGEL. *Ate aldera dijoala: Ba'nua...*

Ezer esan gabe, Iñaxi presaka sukaldetik amaren gelara pasatzen da.

SABIN. *Migel baño urtebete gazteagoa, motzagoa, bular Zabala, bizar-betea, kaskutzik. Sartzen: Ara, Migel! Pozik eta parrez.*

Bi anaiak besarkatzen dira.

SABIN. Ara... *Atzean datorren berrogeibat urteko gizona presentatzen, doktor Zubizarreta nere anai Migel...*

ZUBIZARRETA. Migel, asko pozten naiz esagutzia; izenez esagutzen zaitut, zure idazlanak ere beti irakurtzen ditut...

MIGEL. Eskerrikasko... Ta eskerrak nere ama ikustera etorri zeralako...

SABIN. Tia, ama esna al dago... *Izebaren bila: Nun da izeba?...*

IÑAXI. *Kuartotik ateratzen: Bai, esnatu da. Ta Migel ikusi nai omen du aurrena...*

SABIN. Joan zaitez ba, gu geroxeago sartuko gera.

MIGEL. *Dijoala: Bai...*

SABIN. Dr. Zubizarreta, exeri zaitez mesedez, *exeritzen da*, eta orain joango gera gaxoa ikustera. Barkatuko al'dirazute. *Ta gela aldera joaten da, ta sartzen da.*

Geratzen dira, exerita, doktorra, itxaso ta izeba Iñaxi.

IÑAXI. Zerbait artuko al'zenduke?

ZUBIZARRETA. Ez, eskerrikasko... Bi gizon aundi dituzute etxean...

IÑAXI. Bai, ta ez ditugu galtzekoak...

ZUBIZARRETA. Migel izango dezute esagunena, bañan Sabinen lanak garrantzi aundikoak dditugu gure erriko sendagilleak...

SABIN. *Sartzen: Itxaso, deitu al'diozu don Arturo'ri?*

ITXASO. Bai, etortzen ikusi zaituzten bezain laixter... Atera dala esan dirate teleponoz. Onezkero emen dator.

Danak bere esanaren zai daude.

SABIN. Ondo dago... Zubizarreta, nere anaiak laixter bukatuko du ta sartuko gera ama ikustera... Ba'dakit egin bear aundiak dituzula Donosti'n eta ez nizuke denborarik galduazi nai...

ZUBIZARRETA. Eginbearrak bata bestearen atzetik egin bear dira. Orain au daukat, eta bear dan aña denbora emango diogu. Neregaitik ez estutu, Sabin.

SABIN. Eskerrikasko.

DON ARTURO. *Sartzen: Gabon.*

SABIN. Gabon, don Arturo. Ara emen doktor Zubizarreta... Emen don Arturo Urrutia, gure pamiliko medikua...

Bi medikuak alkar eskua eman eta alkarren ondoan exeritzen dira.

MIGEL. *Gelatik urteten: Kaixo, don Arturo, ez zaitut aspaldi ikusi...*

DON ARTURO. Kaixo, Migel... *Parrez: Noski, ez zera etxera azaltzen eta!...*

SABIN. Goazen ba,...

Iru medikuak gelara sartzen dira. Iñaxi, atzetik joan eta atea berak ixten du, ta kanpoan geratzen da. Gero sukaldera, bakar izketan bezela sartzen da.

MIGEL. *Exerita, Itxaso ta Unai'ren erdian: Gaxoa...*

Unai eta Itxaso, ixilik...

MIGEL. *Burua esku tartean artu ta: Gaxoa, asko galdu da, oso akabatua dago...*

Argia itzali ta musika ixil bera entzuten da.

Minutu bat inguru.

Argia pixtu.

III. Atala

Gela bera. Iñor ez dago bertan. Alkiak eta gañerakoak lengo atalean bezela antolatuak.

Iñaxi urtetzen da ixil-ixilik, kontu aundiarekin, sukaldetik, eta amaren gelara sartzen da, presaka, ezer esan gabe.

Sukaldetik Itxaso atera ta gelan exeritzen da.

IÑAXI. *Ixil-ixilik atera ta sukalde aldera pasatzerakoan, Itxasori: Apaldu al'dezu?*

ITXASO. Bai... Nola dago ama?...

IÑAXI. Ondo. Lasai dagola ematen du beintzat...

ITXASO. Entzun al'dezu medikuak maiean zer esan duten!

IÑAXI. Bai.

ITXASO. Ama gaixki dago, izeba! *Negarrez asten da.*

IÑAXI. *Bere ondoan exerita: Bañan sendatuko dute, Itxaso, ikusiko duzu... Itz-otsa entzuten da ta iru medikuak eta Migel eta Unai sukaldeko atetik barrena sartzen dira. Zubizarretak palillo bat dabilki abean, eta don Arturok purua piztutzen du. Izeba ta Itxaso sukalderutz abiatzen dira.*

SABIN. Nora zoazte, andreak?...

IÑAXI. Guk ba'ditugu eginbearrak sukaldean.

MIGEL. *Zubizarreta'ri: Ez nekian nik Donostia'n orrelako gaxotegirik zendutenik. Biak alkarren ondoan exeritzen dira.*

ZUBIZARRETA. Bai jauna, bai... Ta aundiagoak egin bearako ditugu; ardoa euskotarren indarra dala uste dute askok, eta ori da gure erriaren aulkeririk aundiena...

MIGEL. Ardoa aula?... Begira zazu Europa'ko erri guzietara, ta garagardoa edo matz-ardoa eraten dakiten erriak dituzu gogorrenak eta indartsuenak!

ZUBIZARRETA. Bai, bañan ez matz-ardoa edo garagardoa edaten dutelako, ordea. Erri indartsuak geienetan izaten dira edale aundiak; egarria indartsuen artean aundiagoa dala dirudi; bañan egarri ori mozkortuta asetzeak ez det uste indarririk ematen duanik. Nere ustez, edariak eta mozkorkeriak dakarzkin ondorengoak kaltegarriak dira errientzat.

MIGEL. Bai, bai... Ez dezu arrazoi paltarik... Beti neurrian dago birtudea. Bañan orrenbesteko geiegikeriak egiten al ditugu ba?...

ZUBIZARRETA. Bai, ala ez balitzake ez genduke orrenbeste ero-etxe ta tixiko-etxe bearako... Ta nik ez nueke, bear bada, orain Donostira joateko orrenbeste presa eukiko. *Altxatzen da.*

SABIN. Ba'zoaz, orduan...

ZUBIZARRETA. Bai, zoritxarrez utzi bear zaituztet... *Migeleri eskua emanaz. Poz aundia eman nau zu ezagutzeak; ia egunen batean gu ta gure lanak ikustera etortzen zeran... Ez gaixo bezela, e!...*

MIGEL. Ez nuke nai; osasun ona daukat oraindik beintzat...

ZUBIZARRETA. *Migel'eri: Jaunak gorde zaitzala luzaroan...*

Unai'ri: Agur, Unai, ia egunen batean pelota partidu batera etortzen naizen.

UNAI. Etorri bedi noiz nai, alegiñak egingo ditugu ta...

ZUBIZARRETA. *Don Arturo'ri:* Agur, don Arturo, urrengo bat arte... Gu maiz ikusten gera...

DON ARTURO. Bai, bai... Gu ez gera bizi geran artean alkar galduko... Eta, *parrez*, gero ere, toki onean bada, alkar ikusi gaitzela... Ondo joan zaitez...

ZUBIZARRETA. *Sabin'eri:* Agur, lagun... Esan bezela, analisis oiek egin bezain laixter, deitu teleponoz...

SABIN. Bai, biar eguerdirako deituko dizutela uste det... Ondo joan zaitez. *Berarekin urtetzen da...*

DON ARTURO. Bai, *altxatzen*, eta nik ere joan bearke det... Zer ordu da?...

UNAI. Zortzi ta erdiak...

DON ARTURO. Ba'nua... Eperra'neko Iñaxio dago elizakoak artuta, ta oieratu baño lenago ikustera joan bearke...

UNAI. Iñaxio "Eperra"?...

DON ARTURO. Bai.

UNAI. Orren gaixki al'dago ba?...

DON ARTURO. Bai, gizona kaxkar dabil... Ez dakit nola ibilliko geran gaur gabean... Agur Migel, joan baño lenago ikusiko al'zaitut berriz...

MIGEL. Bai, bai... Gero arte.

DON ARTURO. Agur, Unai, biar arte. *Urtetzen da.*

UNAI. Agur, don Arturo. *Ateraño laguntzen dio. Gero berriz lengo tokira. Antxe dago Migel exerita.*

MIGEL. Eperraneko ori zein da?

UNAI. Iñaxio, Iñaxio "Eperra", ez al'aiz gogoratzen?

MIGEL. Ez.

UNAI. Eperranekoak, Etxeberrietan, gogoratuko zaizkik ba...

MIGEL. Bai, "Eperra" zarra bai... Zer izena zuan ba?...

UNAI. Patxi, Patxi "Eperra"...

MIGEL. Bai, Patxi "Eperra"... Ta au nor da?... Semea?

UNAI. Bai, Iñaxio "Eperra", algadoneran lan egiten zuana...

MIGEL. Ez diat esagutzen, ori ez dek nik buruan dauketan errikoa...

SABIN. *Sartzen:* Zer ari zarete zuek ika, aserre ba'zeundete bezela... Ta zer erri daukazu ba'buruan, Migel... *Zutik geratzen da bi anaien aurrean.*

MIGEL. Alegia, ni gogoratzen naizen erria joan zala, ta berri au ez detela nik esagutzen...

SABIN. Bai, ala gertatzen da: gorputzak eta animak aldatzen dira errian... Urte batzuek kanpoan ibiltzen ba'gera, ez degu utzi genduanik arkitzen... Bañan ez erria bakarra, kanpoan dabillena ere aldatzen da. Ala zion lengo egunean Maindi'ko aitona; iru illoba Madrid'era estudiantzera obe biarrez bialdu, bai, ta ez ditula geiago esagutzen; betiko galdu ditula... Noizean bein etortzen ba'dira ere, bere illobak ez ba'lira bezela; alkar ezin itz-egin dute, euskera ere aztu zaiote ta...

MIGEL. Bai, gauz batzuek galtzen errexa izaten da; berriz jasotzea baño errexago...

Itxaso sukaldeko atetik atera ta deitzen du:

ITXASO. Unai, pixka bat etorriko al'zera?
 UNAI. *Altxiaz*: Ba'nua. Joaten da.
Bi anaiak bakarrik eta ixilik geratzen dira.
 MIGEL. Ama nola dago...
 SABIN. *Trixte*: Gaixki...
 MIGEL. Zenbat aiñeko... gaixki.
 SABIN. *Migeleri zuzen begira*: Oso gaixki.
Biak ixilik, pixka batean.
 MIGEL. Itxaropenik bai al dago'?'
 SABIN. Itxaropena? Noski. Biotz ori bizi dan bitartean dago itxaropena...
Pixka batean biak ixilik.
 MIGEL. Sabin, zenbat urte ditu amak?
 SABIN. Amak? Irurogei ta sei... Ez al'dakizu?
 MIGEL. Ez nengoan seguru... Irurogei ta amar inguruan zebillela bai...
 SABIN. Zenbat urte dituzu zuk, Migel...
 MIGEL. Ogeita emeretzi.. .
 SABIN. Zu zera anaietan zarrena; amak ogei ta zortzi urte zituala izan ziñun zu; aldatu dira ordu ezkeru gauzak gure etxean ere...
 MIGEL. *Trixte*: Bai...
Biak ixilik apur batean.
 MIGEL. Ta ama sendatzen ba'da orain, ziaro sendatuko al'da edo...
 SABIN. Ez, ez... Gure ama oraingotik ateratzen bada, etzanda oean egon bearko du aldi luze batean...
Iñaxi pasatzen da sukaldetik gelara, ta ixil-ixilik sartzen da.
 MIGEL. Eta gero?...
 SABIN. *Galduta bezela*: Gero zer?...
 MIGEL. Alegia, ama orain sendatu ta oiean, egin zagun kontu, sei illabete egoten dala...
 SABIN. *Moztutzen*: Sei illabete?... Baita bi urte ere!...
 MIGEL. Tia, bi urte... Ta gero?...
 SABIN. Gero? Nork daki ba'ori?... Orduan ikusi bearko, ta orduan alegiñak egin bearko!...
 MIGEL. *Burua eskuen artean jarri ta*: orrek penik balio al'du?...
Sabinek arrituta, ikaratuta, burua jasotzen du. Migelek ere bai; alkar begiratzen dute. Sabin zerbait esatera dijoala, gelako atea irikitzen da ta ixil-ixilik Iñaxi sukalde aldera joaten da, ta sartzen da.
Bi gizonak isilik geratzen dira.
 SABIN. Zer esan dezu, Migel? *Ezin xunisturi bezela.*
 MIGEL. *Gora begira*: Alegia, orrenbeste supritu ta ortan geratzeak... penik balio al'du?
 SABIN. *Oso arrituta*: Ez diat ulertzen, Migel...
 MIGEL. Bai, alegia, eta izan gaitzen gizon: gure amak zenbat urteko bizia izango du ba, onenetara jota ere?... Egin zagun amar, amabost, e?... Amabost urte biziko al da onenera jota ere gure ama?... *Sabin'eri begira, bañan Subin ixilik, amaren gelako atera*

begira. Eta, egin zagun kontu, okerrena jo ta zenbat urte biziko litzake gure ama?... Bi edo iru? Oetik jekitzeko diña beñere egiten ez ba'da?... *Sabin oraindik atera begira, arpegi illun eta mintzu batekin*. Ara, Sabin, *pixka bat abotza jaso ta*, ez al'dira gure lan guzi oiek, eta bere suprimendu guzi oiek, alperrikako lanak izango?...

SABIN. *Migel'eri begira, begiratu zorrotz batekin*: Migel, gauz bat esan nai diat: ama baten biziaren alde egin litezken lanak alperrik izan litezkela uste al dek? *Eta gero, abots apalez, zai-zai bezela*. Egietan erantzun akidak...

MIGEL. *Beste aldera begira*: Ez adi i ere Unai bezela jarri...

SABIN. Nola jarri dek ba'Unai?

MIGEL. Erua bezela, mendi-bior bat bezela... Zuek danak etxean gauzak beroegi artzen dituzute, biotza besterik ez dezute lanean jartzen. Ta burua zertarako dek ba!...

SABIN. Burua zer izango ukek ba'biotzik gabe?

MIGEL. Biotza bai; bañan zer ukek biotza bururik gabe?...

SABIN. Buru utzarekin erabakiak artuko ba'genituzke, basoko leoi ta tigreak bezela elkar jaten ibilliko giñuzkek...

MIGEL. Eta biotz utzarekin ibiltzen ba'gera, zulotik zulora, beti zilipurdika ibiliko gaituk... Burua aurrena, Sabin, eta gero, ondoren, biotza...

Ixilik biak aldetxo batean: Sabin, arrituta, Migel'eri begira, ta Migel altxata alde batera eta bestera, pasiatzen.

SABIN. *Trixte ta mantso*: Ordun, Migel, ire amaren osasunatzaz, ire amaren biziatzaz, buru utsarekin itz egin bear diagu...

MIGEL. Biotzarekin ere bai; baina aurrena buruarekin!... Noski!

SABIN. Orduan, ire ama dala edo ik esagutzen ez dekan andre bat dala, berdin zak...

MIGEL. Ez. Nola izango dek ba'berdin?

SABIN. Tia, ia gauzak garbi jartzen ditugun... Aurrena burua bakarrik jarri, ez al dek ori esan?

MIGEL. Bai... alegia, aurrena gauzak diren bezela ikusi...

SABIN. Gauzak diran bezela, e?... Gauzak diran bezela biotzik jarri gabe ikusi litezkela uste aldek?

MIGEL. Bai, noski...

SABIN. Orduan, buru utzez, ire ama gaxo egon edo ik esagutzen ez dekan andre bat gaxo egon, berdin dek...

MIGEL. Ori ez, *zerbait arkitu ba'lu bezela*, or zatorrek ba gero biotza!...

SABIN. A, bai, e, ta noiz dator ba biotza? Gaixoa il da gero?

MIGEL. Ez, ez... *erdi parrez, arrotuta*, ori ez dezute ba zuek entenditzen...

SABIN. Ez, egia esateko, ez diat ulertzen, Migel... Tia, ia gauzak garbiago jarri ta alkar ikusten degun gai onetaz... Gure amatzaz ari giñuan izketan, ez alda ala?...

MIGEL. *Irri parrez*: Bai, bai...

SABIN. Ori jakin gabe, zenbat iraungo duan jakin gabe, alegia, ama salbatzeak penik balio al du edo ez... Ez al'da gure gora-bera ola jarri ta ondo geratzen?

MIGEL. Bai, ta utzi akidak neri zerbait geiago esaten: egin bear diran lan guziak egitea merezi al'du gero ama supritzen oiean euki ta azkenean ondo jarriko dan edo ez jakin gabe... azkenean emendik urte gutxi barru berdin-berdin iltzeko...? Nere erantzun onekin konporme alago?

SABIN. Bai, bai... Orain gauzak garbiago zeudek.

MIGEL. Tia, ortik aun-era...

SABIN. Bai, emendik aurrera gure erabakia garbi azaltzen dek: Amaren alde alegiñak egin edo ama iltzen utzi! *Bulla aundirik gabe*. Ez al'da ala?

MIGEL. Bueno, ala jarri nai ba'dek... bai.

SABIN. *Asarre xamar*: Bai, buru, biotz eta anak jarri ta, dana, geran guzia, jarri ta!

MIGEL. Bai, bai...

SABIN. *Migeleri begira-begira jarri ta, arrituta bezala*: Ori dek orduan nere anaiak, nere amaren semeak, esan nai zuana!...

MIGEL. *Erdi parrez bezela*: Ikusten alde, Unai bezela jarriko aiz i ere!

SABIN. Bai, Unai ta ni odol berekoak izanez gainera biotz berdiñeko anaiak gaituk, eta ez dek ori arritzekoa... Ta i, Migel, zer biotzeko gizona egin aiz i?...

MIGEL. *Asarre*: Tia, neri sermoirik ez orain! Zuek etxe onetako zuloan sartuta bizi zeratela ta nik ez zaukat zer ikusirik!...

SABIN. Ik itxe onetako zer ikusirik ez, e?... Nungo zer ikusia daukak ba ik orain?...

MIGEL. Zer esan nai dek orrekin?

SABIN. Zer? Gure, nere ama, zarra ta gaixo, oso gaixo, il zorian, dagoala, ta beste ama gazte ta osasuntuago baten babesa arkitu dekelako bera iltzen uztea arrazoizkoa iruditzen zaik!...

MIGEL. Alperrikako lanean aritze ezkerotan, ez alda ohea gure indar eta lanak beste zerbaitetan jartzea?

SABIN. Ez!... *Moztutzen*. Orduan zertarako ditugu medikuak, eta gaxotegiak eta gañerako aurrerapenak!... Nork daki aurretik nor ilko dan eta nor bizirik aurrera aterako dan!...

MIGEL. Bañan gauzak ain itxusi dagozenez...

SABIN. Ala ere! Zenbat iltzaz utzi ta sendatu dira, zenbat oso gaizki zeudela uste izan eta droga berri batek, sendagille azkar batek, osasun osora berriz ekarri dizkitek!...

MIGEL. Bai, bañan...

SABIN. Bañan, ori bai, i bezelako semeak ba'dira danak, egin aurretik aitzekiak bilatu ta errexena egiten ba'dute; bere alde lan egin bearrean iltzen uzteko asmoa artzen ba'dute... orduan, noski, ez zeok erremediorik!

MIGEL. Ikusten dek, biotz geiegi ari aiz jartzen orain ere...

SABIN. Beñere ez diagu biotz geiegi jarriko gizon lanetan, mundu onetan biotz bear aundiagoa ziok buru bearra baño... Ez diat bururik bear ez degunik esaten, eta orretan alegindu bear diagu; orregatik ari gaituk nere, eta ire, amaren alde medikuak lanean; ara or burua; bañan zer litzake mundu au buru orretzaz gañera errukirik ez baleo? Zer izango ukek gutzaz gaixo daoan ama ziara il arte, azkeneko arnasa eman arte, bere semeak alegin osoak egiteko biotzik ez bagenduke!...

Migel ixilik, nora begira ez dakila.

SABIN. *Berriz, baño ixillago*: Egin zak kontu amak gure izketaldi onen berri jakiten duala, ta urte bete edo bi ondoren berriz ondo jartzen dala, ta i etxe onetara azaltzen aizela... Zer arpegi jarriko iokek?... Baño, Migel, ez alde ikusten beste gañeko semeak beren ama maite ta bere alde aleginguziak egiten ari dirala?... Ori ikusten alde ik?

MIGEL. Bai...

SABIN. Besteak beren ama gordetzeko alegiñak egiten badituzte, zergaitik ez diagu ba guk beste ainbat egiteko gogoia izango, ta zergaitik ez zagutek ori egiten utziko!

MIGEL. Bai, ori ala dek, bañan ala ere, aleginak eginda-ere, ama iltzen ba'da?...

SABIN. Orduan, mediku ta indizio ta operazio ta azken-azkena urten diran aurrerapen guziak ematen dizkiguten laguntz guziak eman eta gero, ala ere, gure ama iltzen bada, zer egingo diagu ba *Pena aundiarekin*... Danok il bear diagu egunen batean... Ez gure ama bakarrik, baita beste ama asko ere, baita ik gaur ama bezela artu deken andre pixkor ori ere... Ama guziak ilko dituk egunen batean edo bestean...

MIGEL. Bai...

SABIN. Bañan, entzun akidak au, Migel. *Zuzen anaiari begira ta indar aundiarekin*: Ori egin bearrean, alegia, al'ditugun erremintza guziak ama sendatzen jartzen ez baditugu, alegin osoak, sendatzeko mediku erreminta osoak erabiltzen ez baditugu, ori ez dek ama iltzen uztea, ik esaten dekan bezela, ori, ta entzun, Migel, gogorrigo, ori ama gure eskuakin akatzea izango ukek!!...

Pixka bat izututa bezela, atera begira: Nola akatzea...

SABIN. Ire ama gaxoari sendatzeko bide osoak ematen ez badizkiok, sendatzeko erreminta osoak bere osasunaren alde ukatzen badizkiok, ama oiean laguntza gabe utsiko baukek, ori ama akatzea izango ukek; maillu batekin buruan jotzea bezela izango ukek, *gogor*, ama, ire ama, leiotik bera bultzatzea bezela!...

IÑAXI. Zer da?... *Izututa sartzen, sukaldetik*.

Biak tente geratzen dira, nora begiratu ez dakitela.

IÑAXI. *Bateri ta besteari begira*: Bañan zer dira bulla oiek?

SABIN. Ezer ez, izeba...

IÑAXI. *Migel'eri begira*: Ezer ez ta orrelako bullak?

MIGEL. Ezer ez, izeba... Nik joan egin bear detela. *Ta purruztara batekin ateratzen da*.

SABIN. Migel! *Atzetik deika*.

IÑAXI. Joan da. *Zerbait entzun nai ba'lu bezela*. Txis!... Ez al'da amaren deia izan?...

Biak zai.

Iñaxik atea iriki pixka bat eta sartzen da; atea erdi irikia uzten du; atzetik Sabin barrera sartzen da; pixka bat atea ola utzi, ta gero atea barrendik ixten dute.

Argia itzali.

Berriz musika berdina, mantso; il martxa bezela. Minutu bat inguru.

Argia pixtu.

IV. Atala

Lengo gela, Unai exerita, zerbait idazten.

UNAI. *Idazten ari dala, mantxo-esaten*: "Ama oraindik gaxo dago, Migel. Bañan pixkortzeko bidean dioa. Gure asmoetatik urruti ba'zaude ere, zu oraindik bere semea zera; euskotar guziak bai gera bere semeak"...

GAZTEA. *Ikusleen artean dagon ogei bat urteko mutil-gizon bat; nabarmendu lezaken jantzirik ez du bear; alkitik altxa arte aurkezleetako bat dala ez du inork konturatu bear*. Ni ez naiz zuek or diozuten emakume orren semea!

UNAI. *Altxiaz*: Zu? nor zera zu?

GAZTEA. Ni, Joxe Urbistondo, erri onetako seme bat.

UNAI. Ta zu ez zerala ama orren semea!

GAZTEA. Ez, zuk diozun andre ori ez da gure etxean beñere bizi izandu! Nola izango da ba'nere ama?!

UNAI. *Antzeztoki ertzera aurreratua, ixiltxio itzeginez*: Ez zazu orrenbeste abotza jaso, semetzat zaitun ama orrek ori entzungo balizu, naigabez ilko litzake ta... Zure etxean andre ori ez dala bizi izandu diozu?

GAZTEA. Nik zentzuna dauketan ezker ez beintzat...

GIZONA. *Ikusleen artean, beste puntako alki batean exerita dagoan berrogei ta bost bat urteko gizon bat altxatzen da. Gaztea oraindik zutik geratzen da*. Nerea bai!

GAZTEA. *Arrituta*: Zurea!?

UNAI. Zu? Zein zera zu?

GIZONA. Ni, Joxe Migel Urbistondo naiz, Joxeren aita.

UNAI. *Gazteari begira*: Gizon au zure gurasoa al da?

GAZTEA. Bai, nere aita da.

UNAI. Ta zuk, Joxe Migel, il zorian dagoan emakume ori esagutzen al dezu?

GIZONA. *Pixka bat lotzatuta bezala*: Bai, gurekin bizi zan...

UNAI. Ta zuekin bizi zan andre ori zuen señaidea al zan?

GIZONA. Bai, ni jaio ezker Antzizar baserrian etxeko-andre zan...

GAZTEA. *Ia karraxika, aitari begira*: Eta zergatik ez dirazu beñere olakorik aitatu?!

GIZONA. *Ixilik, burua makur*.

GAZTEA. *Gogor*: Bañan emakume ori gure ama bada, nola ez dirazu neri erakutsi?!

GIZONA. Seme... Zuri miñik ez emateagitik.

UNAI. Zergaitik?... Orain gaxo ta txiro ta baztertua dagoalako lotzatzen al zaitu zure amak?

GIZONA. Ez da orregaitik...

GAZTEA. Zergaitik ba?!

GIZONA. Guk naikoa supritu gendun... Zertarako jarri gure semeak berriro kezka orretan?

GAZTEA. Zertarako?! Ez al'da ba gure ama?!

GIZONA. Bai...

GAZTEA. Ama batek, gure odoleko ama batek, ez al' du ba kezka bat balio?!

GIZONA. *Ixilik*

GAZTEA. Aita! *Karraxika*. Ez al' du ba ama batek, guri bizia eman digun ama batek, orrenbeste merezi?!

UNAI. *Ixilik*, ama esnatuko dezu eta.

GAZTEA. *Ixillago*: Erantzun akidazu, aita, ez al' du ba ama batek kezka bat balio?

GIZONA. Bai, bai... Bañan, orretaz gañera... *gogor xamar*: Kalera jetxi giñanean ama orrek erdi utzi giñuen eta!...

UNAI. *Ixiltzeko kiñua egiñaz, ta abotza pixka bat jetxiaz*: Amak zuek utzi?... Ez dezala ori entzun, ilko litzake ta. Ez al' zenduten, gero, zuek ama utziko?

GIZONA. Ez dakit ba... Dana dala, beste emakume bat sartu zan etxera...

GAZTEA. *Karraxika*: Ta andre ori erakutxi zidazun zuk ama bezela!

GIZONA. *Burua makur*: Norbait bear genduan eta...

UNAI. Andre ori ugazma bezela eman diozu zure semeari...

GIZONA. Bai.

UNAI. Ta ugazama etxean sartu dezutela, ta pixkorragoa dala, ta zuen ama, zuen odoleko ama, utzi dezute etxetik kanpora?

GIZONA. Etxetik kanpora... *Osorik ala ez ba'litzake bezela*.

UNAI. Etxetik kanpora! Bai! Zure semeari ere erakusteko lotzaz!

GIZONA. *Ixilik*.

UNAI. Orduan, ama baño pixkorragoa dala, ta ama etxetik kanpora bota ta iltzen utzi dezute!...

GIZONA. Iltzen utzi ez... Bera gaxotu zan! Eta orregaitik jarri nion semeari beinbetiko ugazama berria, ta kito!...

ZARRA. Zer?! Ta kito?!... *Ikusleen artean dagon irurogei ta amar bat urteko aitona*.

UNAI. Zu, zein zera zu?

ZARRA. Ni, Antzizar baserriko Joxe Urbistondo naiz, Joxe Migel'en aita, ta Joxeren aitona... *Ta mantsoago, bañan asarreago, semeari*: Ama ukatzen duanak, aita ukatu dik; eta egia zioat, ni inoiz ukatzen banauk bertan ilko aut!...

GAZTEA. Aitona!...

AITONA. Bai, ta ikasi zak ik ere. Zuek aboan dabilkizuten emakume ori beste amik ez diagu esagutu gure sendian...

UNAI. Ama ori ugazama bera baño aulagoa dala uste al dezu?

ZARRA. Ez, arraio-pola! Kalera jetxi ta ba' liteke pixka bat makaltzea, ez dago orretara oitua ta... Bañan kalean ere oitzeko emakume gordiña da ori!

GIZONA. Gordiña? Ta fabrikara eltzen danerako ez du kemenik?

ZARRA. Emakume ori esagutzen diat nik ondo; ta laguntzen bazaio, bear diran erremedioak eman eta, batez ere, bear duan maitasuna ematen bazaio, emakume ori pixkortuko dek berriz...

GIZONA. Pixkortu? Il zorian ez dago ba?...

UNAI. Orregaitik bear du ba laguntza orain!

GIZONA. Zer eman genezake?

GAZTEA. Ni gertu nago. *Ta antzeztokira igotzen da...*

ZARRA. *Gazteari gora igotzeko denbora eman eta gero, bere semeari begira. Ni ere ba'niak... Ta ik zer diok? Eta orduan bera abiatzen da.*

GIZONA. *Zarra gora igo arte zai, ta gero: Ez da au nere aurreneko laguntza, ez uste!... Ta osasun itxaropenik ba'dago, ez naiz ni atzera geratuko berriz ere... Ta bera ere abiatzen da.*

ITXASO. *Orduantxe sartzen. Ara! Ama ikustera al zatozte?...*

UNAI. Bai... Esnatu ote da?

ITXASO. *Banoa. Ta gela-atea iriki ta sartzen da, ta atea berriz ixten du. Gizonak bere artean izketan bezela geratzen dira.*

IÑAXI. *Sukaldeko atea bereala iriki ta ate ertzetik, pozik. Ara, Antzizar'ekoak emen?*

SABIN. *Sabin sartzen da atzetik don Arturo'kin. Ara! Zer zabiltzate zuek emen...*

ZARRA. *Zer? Gure ama ikustera gatozek!... Nola zio?*

SABIN. *Obeto, obeto... Ta zuek ikusten zaituztenean poz ederra artuko dik!*

IÑAXI. *Ta Itxaso nun da?*

UNAI. *Barrenen. Ta amaren atea erakusten du.*

IÑAXI. *Ba'noa. Ta sartzen da.*

DON ARTURO. *Sabin'eri: Ta Migel'en berririk bai al dezute?*

SABIN. *Unai, idatzi al'diozu?*

UNAI. *Bai, ortan ari nintzan. Maia erakusten du. Ta esaten diot, etortzeko, ama pixkortzen ari dala...*

DON ARTURO. *Bai, Migel ikusiko ba'lu, poztuko litzake emakume ori!...*

ITXASO. *Atea irikita, pozik. Ama esna dago. Sartu, sartu...*

Aurrena Sabin sartzen da, ta gero don Arturo; ta gero, irurak alkar begiratu ondoren, lenen zarra, gero gizona ta azkenik gaztea sartzen dira. Unai exeritzen da maiean eta idazten jartzen da.

Dei bat entzuten da, sukaldetik edo.

MIGEL. *Kanpotik. Ez al dago inor! Izeba!*

UNAI. *Pozik: Migel!*

MIGEL. *Sartzen, txapel apaña eskuetan daukala, Unai'ri: Ez al dago inor etxean?*

UNAI. *Ara ni emen... Zuri idazten ari nintzan. Altxatzen da.*

MIGEL. *Ta ama?*

UNAI. *Ama? Obeto, askoz ere obeto... Zu ikustearekin poztuko da... Eta Migel bizkarretik artu ta barrura daramaki.*

Gero, atea erdi irikita gelditzen da, ta emakume abotz jaso bat entzuten da:

AMA. *Migel!...*

Musika alaia asten da.

Argia itzaltzen da, ta oiala jexten da.

Kanpoko argiak pixtutzen dira, ta musika pixka bat luzatzen da.

Ardura eske bat:

Emen musika aitatzen detenean, José Francoren "Euskal Erria"ko zati batzuek dauzkat buruan, oso egokiak baitira; bañan besteren bat izan liteke, noski.

Sarrera

Itsasoa ur bazter luzea da (1973)

Poliziak bestaldera bota ninduenurte berean argitaratu zuen Gerok (gaur Erein izenarekin jarraitzen duen argitaletxe euskaldunak Donostian) Dionisio Amundarainek maisuki itzuliak izan ziren "El mar es una orilla muy larga", "El hijo", "Los gitanos" eta "Ha nacido el niño Jesus" ipuinak osatzen zuten liburua.

Itsasoa ur-bazter luzea da

Martin Ugalde

1

Zera da: gorputzilari hurbiltzearen pareko.

Badakizu, harategi horretan, gaineko azaletik ageri den hezurtza horretan, inor ez dela bizi, iadanik. Eta, halaz guztiz, hildako edonon nabari duzu: oin azpian duzun lurrak suma erazten dizu hildakoa, iadanik ikus ezineko zeruak, isiltasun-itsaso luze-zabal honek, mugagabe honek, belarriak luze-luze ipintzeke entzungarri den isiltasun honek. Zutik ala jarririk ala hilik zauden jakin ezinik. Txantxetako gauza, agian. Baliteke ere, hala ez izatea; daitekeana da, behatzez ukitzen duzun uretan itsaso guztia sakonen baten ertz barea topatzea. Behar bada, ibaietatik datorren uraz, leporaino betetzen ari da ozeanoa; agian, alderantziz, betirako zerurantz doa itsasoa: han bilatu behar, ba, ororen jatorria; orobat, han bilatu behar bizi-uraren sorburua. Hau misterioa! Ezer-ez bat izaki hemen edonorentzat, eta Jainkoaren eskuinera hel erazten: Gauza Oro –hildakoa bera ere– betetzen duen ikusezinezko mugagabetasunaren jabe! Eta hori, norberaren esperantza izan zitekeen hildakoa, ukitzen duen lurrean, begiratzen duen zeruan, entzuten ez duen isiltasunean, aurrerantzean axola ez zaion herio-usainean iadanik bizi ez delarik.

Betiko lotara heldu dela jakiteke joan denaren pareko.

Eta Hauzi-mahai baten aurrean gertatu; ez, Dotrinakoan adierazi dizutenaren eta zuzena izanen dela dakizunaren aurrean, ez; kaxkoak eman bezala epaitzen duenaren aurrean baizik: edo, bakean zoazkeala eta hala uzten zaituenaren aurrean; edo, gorputza goitik behera, arraultz usainean-edo, arakatu dizuten eta azala kolorez aldatzen ikusi dizuten esku-begietan giza-arrastorik utzi ote duzun kezkatik bakea lor dezazun, tiro bat emanda bialtzen zaituenaren aurrean: frankotan, zure argal izateak nahiz hezurretaraino beldurra agertzeak erabakitzen du jantokira eramane zaitzaten ala hilik ere mintzo direnen gorputzak usteltzen direneko mazmorretara bota zaitzaten; ala, muinetako, zainetako, haragiko, hezurretako, zeure baitako odol apurrean –ez lukainka egitekoarenaz– berotasunaz desjabe zaitzaten; horrela, bihotzetik nahiz, zuzenez, urdailetik darioten hotz-beroz biziki itsatsi izan diren oroitzapenak, nahiz begietatik eta belarrietik, nahiz esku-azal zuritik edo beltzetik edo horitik, nahiz han ala hemen jaio izatetik, nahiz amarik, andregairik, andrerik, seme-alabarik izatetik ala ez izatetik, nahiz hiltzeko ezeren oztoporik ez izatetik darioten oroitzapenek, zure baitan koloka egin dute, eta banatu egin dira. Edozein egunetan eta tokitan jaiotzeagatik bakarrik, sartzan ala irtetzen ari zaren ez dakizula, geratzeko ala bidenabar zauden ez dakizula, asko, gutti, ezer jateko ote dagoen ez dakizula; bekatu den haragia, garesti den ogia jan kezka, ardo ordigarria edan beldurrez; komeni ez dena, argiaz gehiegi ikusteko edo, gaitzago dena, ilunpean geratzeko beldurrez; gau eta egun, norberarena ala auzokoarena den jakiteke, jatorri hutsez jaiotzetik norberak daraman herio-usaina gizaki guztiena ote den jakin-minez, ustel usaina jasaiten.

Hildakoen artean bizirik ote zauden jakin ezinari larridura dario; agian, bizi den hanbategatik hiltzen ari ote zaren kezkarri dariona da.

Nor zaren ez dakizu: zerori zaren ala hilik ere higitzen ari den norbaiten tarterikoa? Ala, bizirik, hil ezinda, egonean dagoenen bat? Iztarraren haztaka ari zara, ni orain bezala; neroni naiz, besteren baten traputan neure burua dantzut, minezko harategitan neure burua sumatzen dut. Eta intziriak entzuten ditut, mehe, ezkutuko, noizbehinka epailearen mahaitik burrustan, eta algodoizko garraisia nere belarrietara: ezin gorrarena egin nik; beste zenbait ahotan geratzen da, ezin hertsita irekirik dagoenean, lehor, mintzo ezinekoan. Eta egur zartakoak entzuten dira, bat-bateko aire-boladak; eta ez gutti. Horra: argi izpi, oholezko oin eta esku eta egurrezko burua hotz gaitzaz; sudurrik ez dudalakoan, belarririk gabe; begi makartsuetan hazkurea: bestela, ezin begira gela handi honetako errezkadan aurrea hartu didatenei. Bat-batean, neure buruarekin egiten dut topo, hiltzera daramatenarekin, bere erropa eta guzti (erropa guttirekin), haragi ergel, hezur handi eta luze, haritz pitzaturiko buruan neure herriko txapelarekin, galtzerdiak oinetan, gonaz ez baina galtzaz, korbataz, frentean, beste alderdian, orain hilabetetsu hil zen nere koinatuaren gabardinaz.

Agian, neronek garbitu nuen gizarajoa.

2

Eta goardarik, bat bakarrik ez.

Hilik bide dago, ni bezala; ala, bakearenak betirako egin duela jakiteke, alkandora zuripean ezkutaturik, zigorka ehoriko hezur-irina jaten ari da, eta begietako ura edaten, eta ispiriturik gabeko usoak hegaka begira dago, eta ardoa ardo huts bailitzan edaten, ogia ogi huts bailitzan irensten, eta, alfonbra astintzen nahiz mekanikariren baten galtzei hautsa kentzen ari den baten antzera, egunero kristorenak ematen.

Bere ogibideari dagokion lana, gaiztakeriarik gabea.

Ezarrian usainera egiten ari naiz; herio-usaina darion gela zabal honetako orru arretsira. Banan banan, hiru mahaien aurretik lerro erazten gaituzte, urdaila ikertzeko makinak iduri bata bestearen ondoren emanik dauden hiru mahaien aurretik; kolore honetako ala besteko odola ote duzun begiratzeko; buztanik ba ote duzun: zenbaitetan ezinbestekoa izaki buztana ere, ezarri egiten dizute; gibelik ba ote duzun, giltzurrunik; farrrik ote dagizun, zertaz eta nola; apezik atsegin ote zaizun, abiadore ote zaren; urrunetik norbaiten burua apuntatu eta zast emateko adinekoa ote zaren; oin-zapal ote zaren, bihotza zirikari ote duzun ala mutu, idazki asaldariren bat ezarri ote daraman; beste alderdikoa izan arren, zeure aita maite ote duzun; semea ala alaba ote duzun, ala biak eta zergatik; ezkondu ote zaren, ofizialki alegia...

Hil behar, eta ezin! Mahai bakoitzaren aurretik, bataren eta bestearen eta bestearen aurretik igaro behar; paperak ikusterat eman? lotsa ere bai leukakeenak, beldurra ere barruntatzen dizutenean; mintzatzean –mintzo bazara, mintzatzen uzten badizute– ateratzen duzun ahotsa; begiratua bera arakatzen didate, praka azpikoak, kamiseta saretua, belaun hezurak, galtzerdi zulatuak, bihotz hautsia, biriketako tiroa (aspalditik hetsia egon arren)..., nere arreba tisikoa (eta orain alargundua) sanatorioan. nere aita elbarria, orain hamabi urte hildako nere ama, beste bati ohekideturiko nere andregai, nere alaba (oraino bizi baldin bada) bere amarekin, –zer ez?–, guztia, goitik behera miatzen naute begi handi horiek, Röntchengailua iduri.

Hori guztia jo diezazukete begiz, aman batetan, mahai horietako baten aurrean.

Eta are.

Dokumentu honen beharrea nago. Inor ez da nor, eta ni guttiago, paper batetan adierazia ezen.

"Justi Aldanondo...? Zu al zara...?"

Hau isiltasuna eta hizketa-hots bakan hotza gela honetan!

Gizona, zutik, erdi-ilunean murgildurik, eta tartea, goi-behea, zenbait zigor-makila, oker-okerrak, esku bihurrez seinalatzen; hemendixe ikusten ahal ditut; besoa bildu egin du bat-batean, aulkian dagoenaren oihua honela esanki, entzuteko:

"Mintza hadi gogorrago..."

Eta zutik dagoenak, aho betean, plast:

"... gerra arte han bizitu nintzen".

Galtza urdinekoak aurrera dagi, bi eskuak mahai gainean, ni konfesionarioan belaunikatzen nintzenean bezalatsu; eta agureari ahotsa apaltzen zaio ezin entzun beste, eta Don Inozentzioren beso luze artean dakusat nere burua, birika bateko ahotsez belarrira galdezka: noizdanik ote nengoen aitortu gabe; hilabete terdi; terdi?; bai...; zer dela eta, erdi?...; baina, gozoki galdetzen zidan eta nere buru gainean Jainkoaren esku leuna somatzen nuen bere barkazio graziaz ukitzen, eta areago galdetzeke; jakiteko, ez zuen hark galdetu behar handirik; eta, bere urteak eta guzti, adiskidekiro mintzo zitzaidan: aingeruen ogiz jateaz, zuhaitz asko landatzeaz, nere aitona zenari antzo, gizarajoa pulmoniaz eta eroskor hiltzean, askori Elizakoak ekartzeaz; halere, hain gailen izanik ere, argiaren eta aitorlekuaren itzal baketsu eta barearen jabe izanik ere, Don Inozentziok, agurtzeko buru gainean ezartzen zidan bere esku luze zuriaz gurutze-seinalea eginaz, nere bekatu guztiak barkatu egiten zizkidan; baina, ni nor nintzen zekielarik, nere izena ez zuen aipatzen ere, eta egun batez elizara bideko eskaileretan gora (arnasaldi batez igo ezinda) zihoalarik egin genion ixekaz, ez zen gogoratzen. Bai, horixe zen guztia; hiru egun aurretik nere aitaren begiek begiratu nindutenean eta baitz esan nionean, gudu bukatua zela, eta bere urezko kristalen zehar, bekokian neri musu bat ematearren bere gurpilezko aulki gainera makur nendin eskatuaz, bere begi urdinetako eramanpen lausotuaz ikusi ninduenean... Eta galtza urdinezko gizona eta seme-alabeen aita daitekeena, juezari mintzo zaio hurbil-hurbiletik; ezin entzun izan diot; nere aita dakarkit burura, egun batez nere alabaz mintzo zitzaidanean, eta ez zidan sinetsi nahi izan bere amak nora bidalia zuen ez nekiela esatean, eta egia biribila zen, mahaiko agurea esaten ari den hainakoa seguraski.

Halaz guztiz, agurea makur ari dela nabari arren, ez diot gaitzik opa zurezko mahai atzetik ziri eta ziri galdezka ari zaion gizontxoari: lan hori, gizon hori bere amaren txulatik mundura etorri aurreko lanbidea da, eta Don Inozentzioren aurrera heltzeko zoria baleza, barkatua izanen luke. Nik, ahalik, ez nuke guttiago izan nahi, bigarren mahaikoa ere ez nuke begitan hartu nahi; dagien guztia, kontabilidade antzeko liburu beltz baten argitan paperak ikustea da, mendez mende etsaien zertzeladak ezartzen direneko liburuan alegia; Kristoren aurretiko arazoa horixe, eta argi beltz hori ezin asmatu izan dute berenez, ezbera aitak ez bere aitona. Neskatilarekin, hirugarren

mahaikoarekin, ezin sar naiteke: emaztekoa izaki eta polita, nortasun agiriak, txartelak, ematen ari dena.

"Beste bat..."

Aretoan bi mutiko korrika. Kirkil bat tomate-pote zulatu bati antzo datozkio bi horiek gela honi. Nere atzekaldean jendea jendearen gain pilatzen. Errenkada luzean. Oraintxe bertan atetik sartu den emaztekoa irrifarrez dator, kaxkagorri, handi; badu zerekin far egin, nahiez gero. Nere andregaiaren, Rosaura-ren, antza du. Nahiz Rosaura-k ilea bestelakoa izan eta bularrak harroago...

Neure errua izan nuen Rosaura galtzea, nere hazia beraren haragitan eramanki eta berak nahi ezta; gazte bezain eroskor nintzelarik, eta bera ni baino urte bi zaharrago eta harro. Bere alabaz bere ohean bertan ernaldtu nuen, gau biz bat gelara leihotik sartzen nintzaiolarik; auzoko ginen, ba, biok atez.

Ordudanik ez dut beste inorengana sartzeko biderik izan; maitasunez, jakina.

Aspaldiko gauzak dira, gerra aurrekoak.

Errenkadako emazteki kaskagorria, etorri-berri den gazte batekin ari da hizketan, buzoj jantziriko eta maniki idurian orrazturiko gizaseme batekin; farrez ari dira elkarrekin, gogotik. Agian, elkar ezagutzen dutenak dira.

"Beste bat..."

Mahaien aurrean norbait etengabe; funtzionarioak jarririk eta publikoa, orain neskatiaren aintzinean dagoen agurea ez beste, zutik: agurea, ba, paper bila datozenentzat utziriko aulkibakarrean dago jarririk. Gobernuaren hiru enplegatu, beraz, jarririk, beren mahai atzean haur jokutan antzo parapetaturik; ehunen bat andra-gizon eta haur zutik errenkada etenean, higitzeko ere idazkiz emaniko agindua behar izaten duten horietako jende askoz osatuan: horrelaxe daude zutik errenkadan, ikus ezinezko arrasto zorrotzean tente; beregainago nahiz xingleago denik ere bai, paretaren kontra ezarririk, hurrenaldi hori, garaiz heltzeagatik dagokiolakoan dagoena; eta aretora kaniketari jokatzera etorri bide diren bi haur anarkistak ere, hortxe, nolabait errenkadan.

Ez dago zurezko manpara horietakorik: ofizina handitan, koba-zulo handia zulo txikiagotan zatitzekotan, parapetotzat leihatilaz horniturik ezarri ohi dituzten babeski horietakorik esan nahi dut; halakotan, burua sartu eta ez dakizu zaplaztakoren bat emanen dizuten ala zer. Erretratorik ere ez dago: zure bihotza goitik behera ikertuaz eta nonahi kokatzen zarelarik beti begira daukazun horietakorik. Horrelako tokitan, inoiz, egon ohi den estufarik ere, ez: hotzagatik alegia.

Ezer ez horrelakorik.

Gainbeheraegin duen eskolaren bat bide da toki hau; arras gainbehera; hala dirudi; baina, horman isekitako Kristoren zura hor dago, halere; nahiz, gaur, gurutzea alferrikako gauza izan; Kristo, isil erazi egin nahi dute, itto, edo itxituran ezarri, edo aske baina besoak luzatzeko adarrik gabe, bakardadean inork ikusteko geratzen delarik; horrela, ikuskaririk ez-eta, inork ez du ikusten martiri hiltzen.

Etsaia harrapatzeko, makina bat bide badago.

Herritan, bata bestearentzat ezaguna ohi da, norberaren jatorria aitona-amonetaraino aztarrikatzeko heinean; askok, beldur hutsez salatzen du bere ezaguna (beldur hutsezko jokabiderik ez baldin badago ere): beldur bait da bere familia mia

diezaioten, eta, jakina, aiton-amona liberal nahiz tradizionalistarik edonork daduka bere familian.

Ez zaituztela ezagutzen eta hurian nor nor den inork ez dakiela dakizunean, ez duzu halako barru-atximurtxiarik norbait salatzeaz; jakinda ere, ez zaude beharturik kalte nori dagiozun jakitera.

Ez da suerte txarra honelako areto luze-zabalak ukaitea: inor ez bait duzu ezagutzen aurpegiz; liburu zoro bat besterik ez hor, probintziako izenen berririk ez duena; probintzian, bai, probintzian berehala seinalatuko nindukete behatzez: Mariano!, eta ni ezin uka, herrian nere amaren jaiotza bera ikusitako jenderik bai bait dago.

Oraindainokoa, gauza guztiak ongi atera zaizkit, ez dakit nori esker. Nori ote? Ezin dut oraintxe asma nori buruz kexatu; ezin asma nori eskerrak eman; garaia heltzean, ez dakizu nora begira jarri.

Guztia, nora begiratzearen arazoa.

Don Inozentzioren Jainkoaz, bederen, ez naiteke kexa; bai, oraintxe ere, hiletarik jo nezake hotzaz; baina, nori dagokio arazo hori? Don Inozentzioren Jainkoari ez, behintzat; beste inori ere, ez: ez danere kontra zuzen zuzenean datorkidan zerbait, ez da noizbait makur jokatu izan dudalakoaren zigorra; beste asko ere nere kasu berdinean bait dago areto honetan.

Okerrago!

Nik, gabardina bat badut, bederen; iadanik, gabardina beharrik ez duen hildako nere koinatuarena; eta horixe ere ez dute hotzez belun eta hormari josita jardunean daudeu bi emazteki horiek; eta begi argiko neskatilaren aurrean jarririk dagoen gizon hori baino arrapatsuago nago: hezur gorri gainean duen guztia, alkandora kaki bat bait du; eta emazteki nahiz gizon horiek ez dauzkat ni baino makurratgotzat; gaiztakeria begiratu hutsera ageri da; motiko horiek ere baino jantziago nago: horiek, inor harritzeke, haruntz-honuntz korrika ibil daitezkeela bakarrik, eta ni ez; ederki emanen nuke galtza luzeko gizaseme bizardun honek –txukun apaindua dudalarik ere– salan buztin-kanika baten atzetik korrika!

Aretoa, luze-zabala eta txit goia da; bata bestearen bizkar gainean emanik, hiru gizon hartuko lituzke; eta gainean, nornahiren gainean, azpian gogoz nahiz behartuta jar litekeenaren gainean legokeen gizon horrek, jauzi eginaz, gizon bat zintzilikatzeko aina ez, astunegia bait litzateke, baina argitarako dagoen bonbila bakarrarentzat goitik-behera bi metro luze ageri den zintzilikarioa har lezake. Bonbila biztu egin dute, egun delarik ere, oraino goiz bait da, edo berandu (daitekeen gauza da) iguzki argi bakarraz ikusteko, honek aurpegian ematen duelarik ere; iguzkia izaki argi naturala eta osoena argi egoteko, baina begitan ez ematekotan, orduan itsutu egiten du ba eta mindu; bonbila bizturik, negua delako ere bai, euririk ari ez badu ere bustia delarik gure lurralde hau; eta hori da, bonbilarena alegia, argi guztia; ia-ia; izpi bat sartzen da halere hiru leiho handitatik, zeinetan falta bait dira: bat, bi, hiru kristal oso eta erdi bat, beste bat pitzaturik, jausteke; leihoak patio aldera daude, eta ageri dena, paretak dira, zemenduzko sorbalda luze eta zuzenak, bi bonbila bakarrik bizturik beraren goi-behe luzean, bi begi handi iduri, bata bestearengandik arras urrun, begi batek goian dagi argi, buru-buruan esan dezagun, eta bestea behetik neri begira; gertatzen dena: bizi-lagunek,

bitza-etxe berean bizirik ere, hain urrun bizi dira bata bestearengandik, ez bait dute elkarren berri argiari batera emateko ere.

Horixe da arrankuran antolaturiko (goardia bat ere ageri ez delarik) errenkada honetatik nabari dena.

4

Kanpoan ilun badago, ez da ilun dagoelakotz: zortzi terdiak jo dute ba, eta mehatzetan, fabriketan, tailerretan, denborak dira langileek hotza bota dutela, eta karreteran eta trenbidean, berriz, izozturik daudela.

Ofizinetan, ez; izerdia atera beharrik ez dutenentzat, egunak beranduago argitzen du: garaiz itzartzen jakin dutenak izaki.

Horrela doa jende-adar hau. Nekez, geldiro, isilik: gudu-inguruketa handitan bezala.

Zuraren gainean kanikaren txirristara baino ez da entzuten. Solairu zaharra, ohol zabala, sitsak jana; han-hemenka, gogorraren gogorrez jan ezinezkoak, iltze-buru batzu agerian, dir-dir. Interesgarria, buztinezko kanika tarteka solairuan pirika dadin, ohol tarteko saltoak eta guzti; horrela, ikus ezineko hari bat bederen baduzu zeure begien betegarri, eta inorengan irudipen txarrik itzartu gabe gainera, argi dirdiratsu batek antzo begitara begiratzen badizute ere; ezin jakin ba hemen nor nor denik; nola-halako paradisu duzu hau: aldamenean duzunari, txibatoa bada ere, mintzo zintzazkioke: hauek motikoak! edo, esanaz; hori ez dago galerazirik; eta zeurekiko ere irrifar egin zenezake, zeure arimaz jabetzekotan.

Eta are: galtza motzeko motikoei, tarteka, ai!-ren batek ere aldegiten die (gerrate ondorean ezin itto hori norberaren barruan): kanika ondotik joan delako, edo batak bestea jo duelako; eta gela hertsu honetan ozenki entzuten da, eta hemen lerroz-lerro dagoen jendearentzat, buztinezko ez baina berunezko bailiran gertatzen da, eta motikoek botatzen duten garaipen oihua.

Betikoa: guztientzat guztia galdurik egonik ere, betirako garaipena eskuratu duelakoan dagoenen bat izaten da beti.

Noiz edo noiz, bi motikoen (inondik ere anaiak) ama bide denaren hotsa entzuten da, honela egitean: "txisst!". Horretarako, ez du beste arrazoin handirik, jolasketa ez dago galerazita legez; bakarrik hauxe: beldur dela, mahai atzean jarririk dagoenetakoren batek (neskatila ez noski, ez lezake horrelakorik egin!) bere begiak motikoengan ezar ditzan eta bere kolkoa haserre biziak bete dezan, bera, areto honetan balio duen paperik gabe helduko denerako.

Jakina, nik ez dakit ziur; baina, seguraski, horrelako zerbait darabil emaztekiak buruan.

Nere eritzia, besterik ez.

Luze dihoa emazteki kaskagorria etorri zenetik, eta luzeago, nere atzetik daudenak heldu zirenetik: ez agurtzen eta ez begitara zuzen begiratzen ez duen gizaseme beltz hau, eta, beraren atzetik, emaztea bide duenarekin gizaseme gazte bat, eta andre zahar bat merkaturako boltsa batekin, hutsik; eta beste zortzi, bederatzi, kaxkagorria eta Gardel-erara orrazturik dagoen mekanikaria barne direlarik.

Hori da nere atzetik datorren jende-adarra: ez merezimenduz, nik asko aurreratu dudalakotz, ez; nere atzetik etorritakorik badelako baizik.

Ene aurretik larogei eta hamaikaren bat!

Ez naiz batere fiatzen nere atzekaldean dudan honetaz...

Marroi kolorez pintaturik dagoen tubo hau, horman behera datorrena, komunen batetik darionarentzat da inondik ere; agian, goian eskolako maisua bizi da, ala bizi zen, orain urte bete gerla hasi bitartean. Harmarma-sarerik ere ageri da txokoetan, tuboari herstu ezarririk; halaber pareta uztarduretan, paretan tartean: paretarik ere bai bait dago. Gauza-multzo hori guztia dago hemen, zenbait ametsetan bakarrik ikusten dena; ez, beste tokitan horrelakorik ez dagoelakotz, gauza horiei begi-emateko astirik ez duzulako baizik, orain bezala; mugagabeko zurezko zokalo bat ere ikusten dut oraintxe, luzaroan kendu gabeko hauts ilunez mate-kolorez pintatua; zola bai, zola (zirriztuz etz zikin-mantxaz betea) egunean ala bezperan erraztua dago: ez da ageri, ez paper punta bat, ez azal izpi bat. Eta zerbaiten usaina ere bai, komunetakoaren antzeko bat, zurezko jarlekua daukaten horietakoarena; eta usaina, ez noski zur usaina, ezta argizariarena ere (jarleku horietarik zenbait argizariturik bait dago); zulo horietan behera egiten denarena baino zerbait nahastuagoa: usain horietaz gain, izerdiarena eta udan bakarrik, ibaian, garbitzen diren gorputz-atalen isurkiarena bait dario areto honi.

Hori guztia dario, nahiz hotz egin, agian guduagatik: guztia hertsirik, haizeak ez du ba jotzen batere.

Iadanik, gizon txapeldunak (eskuan daramanak, honelako tokietan buruan ezin da jantzi), bere papertxoak jaso du, tolestatzen ari da, eta eskerrak eman dizkio neskatilari: hori, urrundik ageri da, asmatu egiten; eta andereñoak irrifarrez erantzun.

Bai polita neskatila hau irrifar egitean!

Orain zereginik egin gabe geratu da, zai; bigarren mahaikoak behar baino luzeago dihardu andre zahar batekin: penal-ageria eskatzen bait dio, eta andre gajoak zer den ere ez bide daki; funtzionarioa, errabiaturik, letraz-letra ari zaio adierazten.

Lehendabiziko mahaikoa ere, galde eta galde ari zaio gazte bati, tiro-egiteko edineko bati; alde-aldean ageri den gauza da. Gainera, ziurtasun osoz nahi du jakin, gazte hori ez dagoela fitxaturik, ez erreskadan, ez aurkibidean, ez izen-zerrendan; bera baino gehiago, bere aita edo aitona: bera, orain urte bete, motiko koxkor besterik ez bait zen.

Hori guztia, bere aitak edo aitona auzoan txibatoren bat duelakotz da; bestela, liburu beltz hau oraingo ilunpean egonen zen.

Bigarren mahaiko andrea, karteratik atera eta atera ari da, papera paperaren gain. Nola ote daiteke balio ez duen horrenbeste paper eduki! Nolaz bildu ahal izan ote ditu andre zahar honek horiek guztiak!...

Bere eskuetaz ere ezin baliatuz dabil, dardaria sartu zaio eta!...

Nere dokumentazioak, behinik behin, balio du; legezko silu eta firmaz horniturik dadukat; behar den bezalako salbakonduktoa. Balio duena, ez nik esan dudalakotz: horrek ez du ezer balio; baina, egiaz, legezkoa da: goardiek, soldaduek, udaletxeko enplegatuek frogatu didate; falta zaidan guztia, txartela da: txibato guztien gaintik, nor naizen, hirian bizi naizela, halako tokitan, nere arreba tisikoaren etxean, aita sanatorioan, auzoko batek zaindurik bizi dudala frogatzea papera bakarrik falta dut.

Eta, azkenean, nere txanda orain.

Eskutan dudan salbakonduko hau, balio osokoa dut; erabatekoa da, eta orain bi aste 207 mendi-bizkarrera igo nintzenean neraman Sarjento-izena baino ofizialagoa.

Une hartan, bigarren aldiz jaio nintzen frentean, luizi batetan ehundaka lur-kiloren azpian zentzua galdu ondoren; eskerrak, aire hutsezko munizio-kajoi batetan burua sartu nuela. Halaz guztiz, hanka bat more-more eta gogortua neukan. Eta hamar bider bezala hilik egon ondoren retagoardira biali ninduen Anttonek, hots, 207 mendi-bizkarrera; muino borobil bat zen, emakume baten bularra irudi, edo erlekizten bat: nola begiratzen zaion; trintxerak txurtzen ari ziren han hogeitahiru gizaseme.

Halako batean eta nolabait ere heldu nintzen aterpera: erretenaren puska bat zen iltzez elkar josiriko lataz estalia; itukinez betea, jakina. Oraino ez nintzen nere onera etorria: haize falta nabari nuen, belaunek koloka zegidaten, burua hotzez, irekirik eta urez betetzen ari balitz bezala. Eta osorik neukala segurtatzearen, iletatik tiraka hasi nintzen. Gizaseme batek heldu zidan; gero, Felipe izan zela jakin nuen; gaizki ikusi bait ninduen; ikusi ezinik ez, ba, ordu hartan, arratsaldeko lauretan, nahiz negua izan, eta euria ari, eta gerraldia izan. Gaur bezalako argia bide zen, orain egunsentikoa bada ere; ikusteko berdin izaki, argia egunsentikoa ala arratseko izan. Eta eskua bota zidan, diot, Felipek, itukin gutxien zegoen tokira laguntzeko, eta harri baten gainean jar erazi ninduen; bazihoan orduan, baina geratzeko eskatu nion.

Eta hura gertatu.

Urari begira-begira nabari nuen: gure oinen artetik eta gainetik, gure bota gainetik eta barrutik zihoan urari begira. Ez izaki oinetakorik, halako uraldirako: ura eta looia, looia eta ura, trintxera azpian urarentzat ebakitako erretena leporaino zihoan. Eta, lataren kontra euri-jasak ateratzen zuen burdin zarataren artean, Beika Sarjentoaren ordezkaria ote nintzen galdegin zidan Felipek; baietz erantzun nion; eta hark, ongi zegoela eta nere egintepetan ordurarte bezala jarraituko zuela, beste motilekin lanean; taldeko enkargatu bezala, berari eskatu omen zioten, ba, trintxera egunsentia baino lehen amaitzeko; frentean atzera egin beharra gerta bait zitekeen, zion.

Eta hala, joan egin zen.

Atzera egin? niotsan nereko; ez al gara ba erasoka ari?

Alditxo batetan atsedean egin nuen, eta arnasa lasaiago hartzen hasi nintzen. Eta, burua osorik eta bere tokian sumatu nuen berriro; orobat, nere oinak ere. Bitartean, hura bota beharra! Tiro bat ere ez inon; gure buru gaineko tanbor hots hura bakarrik. Pikatxoi eta atxurkadak ere bai, ura ebakiaz lurharritan sartzerakoan, algodoi gainean emanak bailiran: zasta, zasta...; kolpe ilunak.

Horrela, zeruko argi motela itzaltzen-itzaltzen joan zen; ikusteko gutxiagorekin aski bailitzan. Izan ere, murrak bereiz zitezkeen oraino.

Jaiki eta, astiro-astiro, trintxerako erreka barna abiatu nintzen, atxurren klaskak eta harriaren gainera gogorrigo erortzen ziren pikatxoien kolpeak hurbilago jotzen zuteneko bidea hartuaz. Eta lehendabizi topatua agurtu egin nuen: urez blai zegoen; edozer gauza izan zitekeen hura: trintxerako zuhaitz ondo bat ere bai; baina, ez: mugitu

egiten zen, eta geratu egin zen, eta begira geratu zitzaidan; ez zidan ezer esan, aurreagokoa zuen bere lana. Gero, beste zenbait ere aurkitu nuen lanbide berdinean; azkenean, Felipe topatu nuen, bera etorri zitzaidan. Atsedean apurren baten beharrean ez ote zeuden galdegin nion; uretan gertuagotu, eta nik agindua eginen zela erantzun zidan.

Hala egin zen.

Nork bere harria bilatu eta herstu jarri ginen ur lodiko lokazti hartan, latazko estalkipean; ahal genduenez.

Isilik.

Euri burrunbaria lataren gainean. Hezurretaraino blai geunden. Bitartean, gauaren iluna bel-beltz egin zen.

Negua eta gudatea, eta gaua isila.

Tiro bat ere ez inon.

Eta gau itsua; argi printza bat ere ez.

Ezer ez.

Aurpegian zart eman zigun haize-bolada bat heltzean, zerbait mugitu zela konturatu ginen: zerbait, nonbait, eta hogeitahiru motiletarik zenbaitek kexua agertu zuen, behingoz.

Ordudanik, ipar haizea jotzen hasi zen.

Nere ipurdia, jarlekutzat nedukan harria bezain gogor eta sor zegoen; belaunek min ematen zidaten, eta zaildurik sumatzen nituen: zuraren antzeko, altzaren antzeko, barrutik beti busti eta beti heze den euskal zuhaitz horren antzeko.

Horregatik, inolaz ere, nork bere odola sentitu ezinik geratzeko beldurrez alegia, gizon pilo hartan, noiz edo noiz, orain hanka bat, hurrena sorbalda bat, gero beso bat, mugitzen zen.

Inork ez zuen erretzen, ez zitekeen zigarro idorrik eduki giro hartan.

Edukita ere, lerro-puntu hartan ezin biztu izanen zen txinparta txikienik: neguan eta gauez eta gerratean, sua terreilka segurua zitekeen, gogoz eta armaz jantzirik zegokeen etsaiarentzat.

Isiltasun hura, agindu bat zen: erasoaldiren bat gertutzen ari ginen.

Hala izan behar zuen.

Horrenbesteraino zen misterioz beterikoa isiltasun horren iturria.

Hori ongi zekiten nere motilek, mututasun hura entzun besterik ez.

Baina, trintxera zulatzeari jarraitu beharrean geunden; 196 mendi-bizkarrean kuzkurturik zegoen Anttonen jendeak uste osoa izanen zuen edozein premiatarako lan hau burutua egonen zela.

Zurrunkada bat entzun nuen; gehiago ezin zuenaren batena, noski. Mutil haiek itzartzeko zerbait esan beharrean nengoen, banekien ez nintzela jeneral bat (tokitan nengoen!); baina, gutxi gora-behera, ahotsa indartu gabe, uraren zarata artean entzuteko ainakoa aski bait zen, honelatsu hasi nintzaien hizketan: motilok, beste ahalegintxo bat egin beharrean geudek; guztion etsaien zaindari, guda-muturrean daudenak egunsentian atzera egin beharrean gertatuko balira, ez duk gertatuko noski, baina badaezpada, babesleku hau gertutik aurkitu behar ditek.

Eta jaiki egin nintzen, muru makur ordea, zutik ez bait nintzen kabitzen, eta trintxera bukatu gabe uztea, saldukeria litzatekeela esan nien, ozenkiegi esan gabe; on litzatekeela retaguardian beste trintxerarik ireki behar ez izatea; hobeago litzatekeela infanteriarekin aurrera egitea, eta neguak eta gudua bukatzea, eta nor bere etxera joatea, gurasoen edo emaztearen edo seme-alabeen ondora, eta eskuartean legokeena bakean jatea, edozer gauza litzatekeelarik ere, nahiz gutxi izan; gudua neri, inori baino gogorrago zitzaidala, guduaren etsai nintzela; baina, aurrera egin behar genduela, gizonak probatzeko arazoa zela hura, eta borroka hartatik onik ateratzeak latzeria handiak eskatzen zituela, ordu hura bezalakoak: janik gabe egotea, bustirik eta hotzez dardar eta ordua orduaren gain argi izpirik gabe, atsedetik hartu ezinda.

Hori esan, eta inor mugitu ez bezen ere, zurrunkada isildu zen.

Ni baino gudari hobeak zitezkeela ere bururatu zitzaidan; baina, kinka hartan neri zegokidan egin nuena egitea: horrelako zorian edozeinek esango zituzkeenak esatea, nere gain zegoen.

Baina, inor ez zen mugitzen.

Orduan, Feliperi galdegin nion; harekin bakarrik izan nuen ordurarte hitzegiteko aukera; ea zer zerizkion lanari berriro ekiteari.

Norbait nere aldamenean jaikitzen sentitu nuen; eta Feliperen ahots nekatuak, nik hala aginduaz gero, hala eginen zela erantzun zidan. Gero, besteak jaiki ziren, astiro; ez ikusten nuelako, gertuan zerbait bizirik entzuten eta sentitzen zelako baizik.

Sirimiritara irten nintzen besteen atzetik. Euria horretaraino atertu bait zen. Eta haizetara. Aurpegia ebakitzera inoko ipar haize hotzak jotzen zuen kanpoan. Haztaka, harramientak topatu zituzten azkenean, ilun lodi hartan; berriro, atxurkada nagi eta bustiak hasi ziren lokaztian.

Eginahalak eginik ere, ez nuen neure oinik sentitzen; gorputza makulu gainean neukala zirudien, nonbaiteko zurez egindakoan; ez, metalez egindakoan! Burutazio horrek nahastu egin ninduen: zura, hilda gero ere, gauza bizia izaki bere usainez, bere berotasunez. Aurreraxeago egiten saiatu nintzen eta estropozo egin nuen: txertakaren batekin-edo. Besoak astintzen hasi nintzen, nere buruaren kontra; neure aurpegia joka, sudurrik gabeko aurpegia, belarririk gabea, begi itsukoa, hortzik gabeko eta ireki ezineko ahoa, gorputza hotzez gogor, izotz baten ondoren alanbretik zintzilik dauden arropak antzo.

Kolpeak entzun ziren: zas, puf, pik; nahasturik, txanda-neurririk gabe, zenbaitetan bata bestearekin halabehar hutsez; bitartean, asturiar euri-lanbroa, biguin eta iraunkor zerion.

Poza eman zidan Antton kolpe haiek entzuten egonen zela pentsatzeak; ibar hartako gau ilunean besterikez zen entzuten. Eztiro bat, ez abere hots bat; eta, inolaz ere, izan behar zuen han konejurik, erbirik, trikurik ezkutuan eta ikaraz. Hezetasunabeste usainik ere ez zegoen han; linbo ilunean bilduriko euri hotz denboraldia zen hura; hil antzean zeuden, baina hilik zeundela jakinik: ezinezkoa, baina hala zen, horixe sentitu nuen nik, eta gorputza ez zaizu gezurretan ibiltzen.

Ez dakit zein ordutan, ezin jakin halako zorian: halako batetan, Feliperen ahots apal eta leiala belarriratu zitzaidan: erretena uzteko moduan zegoela; gainera, motilek ezin zutela gehiago, eta bat, Aureliano, hil egin zela.

Hil!

Bai, bien artean jaso berri zuten; ez alferrik; eta ea tarte batez jar ote zitezkeen.

Baietz erantzun nion; harriturik nengoen.

Haruntz joaten lagun nintzala eskatu nion Feliperi; ezin asmatu nuen neure gisara; gutxi aski dut galtzeko; norabide zentzun gutxi dut. Felipek, bai, bazezakeen: ilunpean ere ikusi egiten zuen; bestela, ezin ahalko ninduen han zehar eraman, eta hildakoaren isiltasunaren aurrean ipini eta lehengo harri berberaren gainean jar erazi.

Gero, bata bestearen ondoren, besteak ere bazetozela nabaritu nuen, ez tulka, bat negarrez etorri zen; orduantxe egin nuen ahalegintxo bat mintzatzeko eta honela esateko: ongi zegok, motilok, ezin duzue gehiago, gizonok ezin dikagu guztia egiten ahal; itxoin dezagun, beraz, egunsentiarate; agian, garaipena ekarriko ziguk, eta garaipena ezin hartzen ahal dikagu negarrez, lagun bat hilik ikusita ere, ez duk hala?...

Inor ez zen mugitu; ez zegoen zertan gaizki hartu: neronek ere ez bait nuen sinesten hitz haietan.

Orduan, guztiak han geundela bururatu zitzaidan, hilak ezbestek.

Halako batetan, ordea, norbait zetorrela nabaritu nuen, arrastaka, eta Aureliano zekarten bi motil zirela adierazi zidan Felipek; berak agindu ziela bila joateko, eta ea ongi egin ote zuen.

Jakina, ba.

Hurrera, murmurrota entzun nuen eta nere inguruko jendea higitzen sentitu nuen; ni ere kanpora atera nintzen, hildakoa lata-aterpean ipintzen ari bait ziren; ez alferrik.

Denok han geunden zeru bustipean, eta ni tente; Felipek harria ekarri zidan, eta ni jarri egin nintzen.

Gainerakoek ere beste horrenbeste egin zuten.

Han egon ginen zenbait orduz izotz-linbo hartan, non edo nondik eguna sortu zai.

Eta zehar-argiz heldu zen hodei artetik, duda-muda antzean, nere ezker aldetik; ez, iguzkia ez zegokion aldetik irten zelako, askotan hori uste baduzu ere, norabidea-edo delakoa oker kalkulatu duzulako baizik. Eta buruak argitzen joan zen eta kontatzen: mahats-leku antzo herstu zeuden; hildakoa falta zen, jakina.

Egun haren jaiotza guztiok ikusi genuen; ez zen gauza zaila lainotatik zintzilik zeuden dunbuilo haien begiak asmatzea. Lainoa sartzen-sartzen zihoan.

Tiro bat.

Bat bakarra.

Berriro isiltasuna; baina, bere baitan zeraman oihartzuna.

Ahal bezala, jaiki nintzen eta parapetoaren gainetik burua atera orduko, tiro-errenkada entzun zen. Egun hartako bakearenak egin zuen.

"Pak-um", "pak-um" drindotsa hasi zen, tarteka; badaezpada boteak bailiran; gero, txistu luzeak eta dunbatekoak, eta tiroa tiroaren gain; zarata handitzen zihoan, burrunba luze bilakatzeraino eta tiroak bata bestetik berezi ezineraino.

Orduan ikusi nuen hildakoa estalpean; ezin jabetu naiz oraino zergatik eraman zuten hara.

Erreteneko loa garbitzen ari ziren motilak; euria atertua bait zen. Eta hor non heltzen zaigun bala-joanetorri artetik intziri luze eta minbera bat; ahots bat entzun genduen batak besteari esaten, zaurituari noski.

Kontra-erasoa zen hura, inondik ere.

Nere jendea, lagun bat hilik, zur eta lur zegoen.

Hitzegin behar ote nien berriro?

Lana egina zegoen, eta nere egitekoa eta Feliperena eta gainerako motilena, gure postuetan itxoitea zen.

Gure parapatetik eta urrunera, Anttonen motilen postua ikusi ezinik ez genuen berez; baina, laino zurixka eta trinkoa zegoen ibarrari erantsia

Bitartean, urez zamaturiko hodeiak han zihoazen norabait, eta zerua oskarbitzen hasi zen. Iguzki izpiren batek ere jo gintuen: iguzki zurbil eta indargek; halere, zoratu beharrean hartzen genduen, zirkinik egin gabe, lurreen jarririk.

Horrela ezagutu nituen aurpegiz nere motilak lehenbizikoz; guztiak berriak ziren.

Motilak begira neuzkan; gorroto antzeko zerbait nabaritu nien.

Askotxo nekazari nituen, egia! Lurrebakia aski sakona zen, ongi zegoen. Ez nuen gehiago behartu beharrik.

Atsedena hartzeko esan nien.

Gorputz gogortua iguzkitan berotzea, eta halako iguzki mehetan, ez da nolana hiltzen. Lehendabizi, eskuak eta aurpegia bizitu zitzaizkidan; oinik ez nuen sentitzen anartean, baina mintza nintekeen. Feliperi hotsegin nion; ni baino biziago zegoen, eta zer zirudion hura guztia galdegin nion.

Tarte batetan, tiroketari adi-adi egon zen: trumoiaren gainean betetzen ari zen, gero eta trinkoago; zer esan ez zekiela ihardetsi zidan; gudu-postu hartan, ahal guztia eginak ginela, trintxerak alegia ebakita zeudela.

Baietz esan nion, eta oroitzen naiz, esku bat bizkarrean ipini niola, pertsona batek neurri bat baduela esateko, eta gurea, une hartan, lurrebaki hark seinalatzen zuela, ez ote?

Buru-eraginez, baietz erantzun zidan.

Gero, haren begiratuari jarraiki, hildakoarengana eraman nituen begiak; aurpegia buztinez zeukan, eta lurra eman beharko geniola esan nion Feliperi; zaharra al hukan?

Hain zaharra ez; baina, bihotzekoa zedukan.

Zergatik etorri hukan, ba, gaixo zegoelarik?

Felipek, bizkarra altxatuaz, ez zekiela adierazi zidan. Eta, bat batean, erle-hots antzeko burrundara sentitu nuen; keinuz, entzuten ote zuen galdegin nion Feliperi, eta baietz, aeroplanoak zirela.

Burrundara borobilagotzen zihoan, hari ozen eta zakarraren antzeko hotsez, gero eta zaratsua; motilei estalpera sartzeko agindu beharrean gertatu nintzen; presarik gabe!...

Hildakoaren inguruan bildu ginen.

Zazpi hegazkin ziren, astun, nag; bere zama gure gudu-postuan hustuko zutela seguru nengoen, gure lan guztia pikutara botaz; kezka bera somatu nuen nere motilen aurpegian. Baina, gure zeruan zehar aurrera egin zuten (zenbaitetan zerua bera pusketan jartzen da), eta beherago hustu zuten beren barrua, Anttonen jende gainera, burrundara-zarata izugarria ateraz.

Bonba-kolpe bakoitzean, dardara bizian ipintzen zen lurra.

Hegazkinek jirabira zabala egin zuten, eta geldiro, gure oin azpian genduen laino eta kezko (usain garratza usaintzen hasiak ginen) aintzira zabalaren gainean, eta zeruan gure buru parean zihoan marrari jarraituaz itzuli ziren.

Oihartzunaren dardara luzea bakarrik geratu zen: "bang"... "bang"..., kaja baten barruan antzo.

Burrundara isildu zen, baina motor-hotsa ez: motel entzuten zen, han-hemengo fusil-tiroz eta, orobat, ahotsez eta intziriz nahasturik; honetan, beste aeroplano oldar bat etorki ikusi genduen, oraingoan hamaika bonbalari; berriro, gure buru gainetik igaro zen hegazkin-hilada; ordurako, iratzartuago geunden eta beldurkiago; arestikoek bezala hustu zuten beren zama. Beste zazpiko bat etorri, eta gauza bera egin zuen: laino eta kezko aintzira odoltsuan isuri zituen bere bonbak.

Guztia, ordu laurden bateko gauza izan zen.

Gehienera.

Nere motilak nagiak ateratzera kanpora irten ziren orduan.

Felipe ez zen enegandik urruntzen behin ere. Eta zer zerizkion galdegin nion: nolaz hartzen zuen berak 207ari kasorik ez egitea, ez ote ziren, ba, jabetu guk eginiko lurrebakiaz?

Felipek ez zuen argibiderik topatzen.

Anttonen tokiune eta jendearengana jeistea gustako litzaidakeela esan nion.

Felipe, haizeak, kea eta guzti, guregana zekarkien lainoari begira geratu zen, eta apurtxoren bat itxoitea hobe litzatekeela esanaz bezala.

Arrazoin zuen; nere zeregina 207an zegoen, edozer gauza gertaturik ere; une hartan, gudari nintzen.

Felipe, sarjento ona zitekeen; ni baino hobea.

Hitzotsa ez zen isiltzen; suak guri-guri jarraitzen zuen; berriro, lainoak inguratu gintuen, eta ahotsak eta tiroak urruntzen zihoazela konturatu nintzen; baina, haizearen iseka-jokua ere izan zitekeen.

Gaua loditzen zihoan lasterka.

Dagoeneko!

Lainoarengatik zen, loditzen zihoan.

Bitartean, nere motilak jarri egin ziren berriro, eta oldozti samar, hildakoaren inguruan.

Aterrune aski luzea zihoan oraingoan.

Eseri ala ez nengoen, nere izena entzun nuenean:

"Mariano!"...

Eta nik:

"Zer!"... Berez atera zitzaidan, eta nere motilei begiratu nien: nere burutazio hutsa izan zitekeen, ba. Baina, ez; haiek ere, hotsaren alderdira begira zeuden, eta seguru nengoen, Anttonen ahotsa zela, geroxeago, ia garbi, nahiz oihartzun otzan bezala, honela esan zidan:

"Goazik!"... Bihotza bizitu zitzaidan nere motilek ulertu ezineko hitz harekin; lurralde hartakoak izaki haiek, eta eznerakoak, ez nuen horretaz galdegin beharrik izan, urrunera antzematen zitzaien. 207 mendi-bizkarrera atzeratzen ez, baina aurreratzen ari zen gure batailoia, eta honela hots egin nuen:

"Tiaaa!!" ...

Ez dakit nondik atera zitzaidan, baina Felipe besarkatu nuen; irrifar zegidan, beste ezer ez, akiturik zegoen; agian, hala eman zidan buruak, zigorraldi haren ondoren aurrera joaten ahal ginenik pentsatzen ez nuelako ere bai.

Etsikoitzat, pesimistatzat, hartu nuen.

Egia esan, une hartan ez nintzen hildakoaz oroitzen ere; ezin barkatuzkoa izanen da, baina hala zen. Ez nion horrelakorik esan Feliperi orduan, hantxe bertan lur ematea izanen zela hoberena baizik, nahiz minutu batzu lan horretan galdu behar izan.

Felipek ongi zerizkiola ematen zuen; baina, aurrerantz bi urrats egin orduko, honela esan zidan:

"Nora goaz?".

Nik ez nekien tutik ere horretaz ordu hartan; lehenbailean karreterara jaitsi nahi zuen; honetarako: Anttonen berri jakiteko; bere jendearekin zai egonen bait zen. Kezka horixe adierazi nion Feliperi hots handian. Orduantxe esan zidan, hildakoa, han behean, zortzi kilometrotara zegoen herrixka batetakoa zela; ongi iruditzen otte zitzaidan gorpua haruntz eramatea, hilerrian hobiratzeotan? Han ez uzteagatik zen...

Herri hartakoa, beraz, hildakoa?!

Baietz, berritu zidan Felipek.

Ibar hartatik irtetzeko, karreteraz eta kamioiez beste modurik ez zegoen; edozein kasutan, herritik igaro behar genuen; horregatik, hildakoa atsedena hartzen han utzi ezinik ez genuen. Zer zori hobeagorik: gerratean hil, azpikeriarik gabe, eta norberaren herrian! Bi estakaz eta hildakoaren beraren kapotez hilohe bat taxutzeko agindu nion Feliperi.

Halaxe egiten ziharduten, eta ni begira.

Gogotik ari ziren elkarri laguntzen.

Ez zen, ez tirorik, ez ahotsik, ez euririk entzuten.

Horrela, abiatu behar horretan, ordu laurdenen bat joan zitzaigun; ni, artega nengoan Anttoni buruz.

Lainoa isten-isten zihoan gu jaitsi ahala; ez zen gauza erreza bidezidorrari jarraitzea. Errenkada buruan, lau gizon zihoazen hildakoarekin, gero Felipe eta biok, eta atzetik, ia bata bestearen gainean, gainerakoak.

Pauso bat geratu eta Feliperi hurbildu nintzaion: nere atzetik bait zetorren, ia nerekin, eta honela esan nion:

"Arimo, motil, ze arraio...". Bagindoazela aurrera, lana astuna izan zela, hildako bat ere izan genuela, baina hori gauza iragana zela, gudate luze baten ondoren etxera bidean bezala nindoala.

Halaxe zen: horixe sentitzen nuen.

Eta, nola ez? Herrian jateko eta edateko izanen genduela; ardo-zurrut bat ongi sartuko zela...

Felipek, baietz eta baietz, gauza orotan bat zetorren nerekin; baina bere barrua ez zegoela txantxetarako.

Horixe zen guztia.

Ongi jabetzen nintzen esandakoaz.

Horretan, karreterara heldu ginen; bi mendixken artean bide ertu bat zen; zenbait tartetan, harrizko ibai ertzean, plomuan ebakia zegoen mendia (karretera eta ibaia bidelagun bait ziren). Hutsik zegoen karretera, eta lainotsu, bost-sei metrotara beste ez zen ikusten; Felipek txanda egiteko izenez deitu ahala hildakoa zeramaten lau gizonetaraino bakarrik ikusten zen. Orduan jakin nuen, herrenari Konstantino zeritzaiola. Gainerako taldea atzetik zetorren. Nik (Felipek orobat) aurrera begiratzen nuen, kamioiren bat geldituta edo gizonen bat jarrita noiz ikusiko; enkarguren bat emateko edo aginduren bat.

Ibai-bide hartan, alabaina, ez zen inor ageri; isil hotzean zegoen.

Horrela ibili ginen orduak eta orduak; zortzi kilometro, lur-jorik zaudenean eta zurekin hildako bat eramanki, bide luzea izaki.

Felipek norbaitek galdutako bota bat topatu zuen, beste ezertxo ere ez herrira heldu bitartean.

Hobeto esan, herriraino ez, bideko gurutze batetaraino bitartean; han, neregana itzuli zituen begiak.

Herria ote zen galdegin nion, ez bait nintzen oroitzen gurutze hura ikusteaz zenbait egun aurretik frenterako kamioi batetan igarotzean.

Baietz erantzun zidan Felipek.

"Herria ezagutzen al duk?", galdegin nion.

Eta hark baietz:

"Bai, noski!, hementxe jaioa bait naiz..."

E!

Bai, halaxe zen; Felipe herri hartan jaioa zen.

Eta, hildakoa?

Baita.

Felipe hildakoaren tarterikoa zela bat batean jakiteak ez zidan batere onik egin: Zergatik ez adierazi lehenago?

Eta taldean zetozen beste guztiak ere, herri berean jaioak ziren, bizi bederen...

Baita!...

Bai, halaxe zen.

Eta hain gauza arrunta bailitzan, hori esaten ari zitzaidana, Felipe zen; burutik ondo ote zegok gero gizon hau! nion nereko. Eta zerbait esateagatik, "hori suertea zuena, guztiok talde batean pikatxoilari ari ahal izatea!"

Eta Felipek, baietz erantzun zidan, halaxe zela.

Herrirako sarreran aldatxo bat zegoen, eta laino artetik gure begietan genituen lehendabiziko etxeak.

Behetik, hildakoaren gorpua ikusi nuen hilohean borobil, zaku bat antzo, mendi gailurrean laino txuria ageri zen.

Aldapa gora, Felipe atzera geratu zitzaidan, motilekin hizketan zetorren; agian, hilohezaleen txanda berria antolatzen.

Hartan, bide ertzean ikusi ez nuen batek, eta nere atzetik, deihadar egin zuen:

"Felipe!!"...

Jiratu egin nintzen.

Apez bat zen!

Ez nuen ezer apezan aurka; aitzitik, Don Inozentzio dakarkidate burura, baina gauza arraroa iruditu zitzaidan, toki hartan eta gudate giroan, apez bat han agertzea eta gudari bat besarkatzen hastea.

Apeza besartean zuelarik, Feliperi begira geratu nintzen; eta negarrari eman zion. Eta hauxe bururatu zitzaidan, zoro honi: a ze nolako sotana geratuko zaion, lokatzez beterik! Baina, ez zen luzarorako izan; oihi bat entzun nuen, eta denek, nere motil-hondar guztiak, pilo bat bakarra zegien apezarekin; bat batean, nere etsaien mugapean nengoela jabetu nintzen!

Ez nintzen mugitu: ezin nuen une hartan, guztiak karretera erdian eta hildakoaren inguruan bildurik bait zeuden, apezarekin erresponso bat errezatzen eta guztiak Gure Aita esaten; erderaz noski; inor ez zen nitaz arduratzen, baina galipotezko zoruari ezarririk nengoen, iltzez josirik bezala; eta emakume garraixia entzun nuen, eroren bat organuaren teklak sakatzen hasia bait litzan: aberatsen baten hiletakoan koruko tuboetatik ateratzen den intzeria bezala. Emakumea emakumearen gain zetozen, multzoan, eta guztiek gudari guztiak banan-banan besarkatu beharrean, eta hildakoa ere orobat; baita zenbait gizon zahar ere, eta emakume zahar bat, honela ziola:

"Seme!"...

Bazirudien, hitz hori lehendabizikoz entzun nuela nere bizitzan!

Hori guztia atera zen herri hartatik; apurtxo bat aurretik etxeak hutsik zeudela ematen zuen hartatik!

Eta prozesio antzeko zerbait antolatu zuten, herriko enparantza eta Udaletxea zirela ikusi nuen alderuntz; han, gizon bat bandera altxatzen hasi zen. Zergatik ez zidan jakinerazi behar Anttonek motil hauek presoak nituela?!

Herri hartatik aldegiten saiatzeko garaia nuen, oinez berriro...

Noruntz ordea?

Edonoruntz; bestela, fusila nintzaketen...! Atzera gelditzen hasi nintzen.

Inora jo gabe, nengoen tokian geldi, ihes egiteko modu bat zen; gizataldea handitzen-handitzen bait zihoan gizonezko eta emakumezko zaharrez; batez ere, emakumezko, beren semei, senarrei, herriko edozeini besarkaturik negar batetan: berriro ikusten zituztelako, oraino bizi zirelako. Eta bandera zabaldu zutela konturatu zirenean, abesteari ekin zioten; hura gogoa, hura orrua!

Hartan, berriro euria hasi zuen.

Orduan, Udaletxeko zutika bati ezarri nintzaion, eta beraren inguruz-inguru arkupean sartu nintzen. Han ez zen ezer ikusten: hain beltz zegoen eguna eta ordua, eta giza-begiak itsutzen dituen gerrarengatik, eta ordurako, inolaz ere, arrats-iluna bazetorrelako.

Artean ez zen argi bat ere bizturik. Norbaitek eskatu men; baina, zentral elektrikua leher erazi egin zutela erantzun zioten.

Alditxoren bat zutikaiaren atzean egin ondoren, ez dakit zenbat, atzetik inor ez zebilkidala jakin nahi bait nuen ziur, beste arkupe batera ematen zuen harrizko eskailera batetara abiatu nintzen; handik joan nintekeen; nik ahal nekien nora? Honetan ari nintzen, banindoa haztaka adokin-zola gainean, eta non sartzen den errainu bat plazatik, eta pausoak eta ahots isil bat entzun nituen:

"Adizu, adizu..."

Felipe zen.

Ez entzuna egin nuen, eta aurrera nindoan atalondotik kaleruntz; Felipek urrats batzu egin zituen: "paf"... "paf"...zegiten loiaz blai eginiko bere botek, nahiz oraingoan harri gainean ibili, eta honela esan zidan:

"Adizu"...

Nik ezer ez, eta aurrera geldiro, sorbaldan gogorkeriarik gabe ukitu ninduen bitartean:

"Adizu"...

Ezinbestean, gelditu egin nintzen, bihotza zoro, izerdi jelatua bekokian, Feliperen aurrez-aurre, ia ikusten ez nuela, jakina, eta ezer esateke: ez zitzaidan hitzik ateratzen.

Besotik heldu eta leunkiro eragin zidan joatea pentsatua neukan kale beretik barna, etxebizitza pilo bat ezker-eskuin genduelarik.

Gero, karrika hura igaro ondoren, harrilanduzko paretaren kontra bultzatu ninduen apur bat, eta nere ondoan sumatu nuen lehenbizikoz, bere arnasak begitan jo bait ninduen: ni baino garaiago izaki, eta honela mintzatu zitzaidan:

"Zer egin nahi duzu?"

Nere isiltasuna entzun zuen; eta eskua lepozamarrean ezarri zidan: eskua sorbaldan jartzen duenak baino berotasun gehiago adierazi nahian, zaletasun hutsez, halaxe sentitu nuen. Euria ari zuen. Eztiki bultzatzen ninduen, nik gogor egiteke bere ontasunari, etxe batzuren atzetik, etxe eta soro edo baratze batzuen artetik zihoan bidezidor batetik barna; halako batetan, eskuinetara jo erazi zidan, eskaratze batetan sar erazteko; eta zurezko eskailera batzu, zenbait tokitan apurturikoak, igo erazi zizkidan, lehenengo pisura, bigarrenera, hirugarrenera heldu arte; azkeneko pisua zen, teilatuko argi-zulo laukitik antzeman nion. Felipek, argi-zulo azpiko atea jo zuen, gora goatzela ezkerretakoa.

Itxirik zegoen, eta barnean inor ez.

Orduan, honela esan zidan:

"Itxoidazu"...

Urrundu zen, eta berriro etorri.

"Ez aldegin, mesedez"...

Eskailerak saltoka jaisten sentitu nuen, bota bustiek eta biguinek zuraren gainean zegiten kolpe motelaz.

Bakarrik eta atxilo nekusan nere burua.

Beldurra bota nahian, eskailera-burura jo nuen; nereetarik seiren bat pauso terdi zeuzkan; Felipe jotzen ari izandako atea eskukatu nuen; aurrez-aurrez zegoen eta ikusten ez zen beste atea ere orobat; bietan ezarri nuen nere belarria, batean aurrena eta gero bestean: ezer ez nuen aditu.

Laster batetan, hitz-zarata eta oihuak heldu zitzaizkidan eskaileran gora, eta jendea aupaka sentitu nuen; ziur nengoen, Felipek saldu egin ninduela, gauza normala zen... beldurr sartu zitzaidan, ihes egin nahi izan nuen, argi-zulotik, teilatutik; eta jauzi batez eta nola ez nekiela, zurezko baranda gainean nengoen; hartan, alabaina, etxe aurretik zihoan jendea igarotzean, buila amaitu egin zen...

Berriro Felipez oroitu nintzen; kalterik ez zidala egin nahi pentsatu nuen.

Baina, bazen besterik herrian, alkatea eta kontzejalen bat edo beldur zitekeen gizonen bat; edozein bat; ez bait da harritzeko, norbaitek, batez ere koldarra baldin bada, merzimenduak egin nahi izatea, edo mendizain nahiz kartazale nahiz beste edozein kargu irabaz nahi izatea; eta hilerrira eramaten ahal ninduten goiz aldera, harrizko eta loiezko paretaren kontra ezarri eta lau tiro eman, beste zenbaiti bezala.

Nerekin egondako edozeinek egiten ahal zuen hori; hain zuzen, orain, denboraldi luzea tartean dagoelarik eta esperientzia, zenbait begiraturen esanahia ongi ulertzen dut; bat, herren batena, hildakoaren ondoan; orduan, nekearena izan zitekeela pentsatu nuen; baina, gorrotozkoa ere izan zitekeen.

Berriro, aldegitoko gogoak zirikatzen ninduen.

Herritik irtetzekotan, 207 mendi-bizkarrari atzea emanez egin beharko nuen; hori gauza erreza zen, ibaian behera joatea bait zen guztia: ibaia itsasoruntz joaten da, beti, eta haruntz bultzatzen gintuzten gerrako gora-beherek; itsasoa, berriz, arras zabala da, eta txaluparen bat topa nezakeen, edo bidean Antton eta beretarrak aurki ere bai.

Baina, salto hotsa entzun nuen, eskailera gutxienez hirunaka igoaz; inondik ere, Felipe zen; besteren bat beherago zetorren, astiroago; herrenen baten hankotsa ematen zuen, ibiltzen kostatzen zitzaionen batena... Konstantino!...

Bai, Felipe zen.

Eta atzetik, orain hizketan, emazteki bat zetorren.

Eskailera-burura iristean, Felipek ilunpean haztakatu egin ninduen, eta atera joan zen zuzenean, giltza sartu eta Jesus batetan ireki zuen; besotik heldu eta pasilo labur batetara eragin zidan; bi ate zituen, arras goi-makurrekoa zen etxea Felipearen eta honen andrearen (hala zela jakin nuen) hizketaren oihartzuna guztiz hurbil ematen bait zuen.

Lastozko aulki batetan jar erazi ninduen Felipek, eskuz nabaritu nuen hala zela; pospolo bat piztu eta pospoloz kandela bat; zerbait ikusten hasi nintzen, azkenean.

Kandela eta su usaina zerion, bero usaina.

Sukaldean nengoen jarririk.

Emazteak, zerbait herren eginaz, txirbilaz sua pizten ziharduen; txirbilari usain ederra zerion, nere aitonen usaina: biak arotz izaki; aski izan nuen hori, hotzik ez sentitzeko, eta, egia esan, ez nintzen gehiago arduratu hortaz.

Felipek berak lagundu zidan txamarra erazten, uretan bazituen zenbait kilo, eta mahai gainera jausten utzi zuen: "puf".

Larru-gorri sentitu nuen nere burua.

Felipe, ni bezain busti egon arren, irten eta arraia urdineko alkondara ekarki itzuli zen; mahai gainean utzirik, nerea erazten lagundu zidan, eta lehorra jazten; suak hartua zirudien ator hark.

Bai, halakoxe bat sentitu nuen.

Suak piztu zuen sukaldea; kandela ere mahai gainean zegoen, mahai handi, pinuzko baten gainean eta bi errainu hasi ziren sukalde ilunxkoan dantzari.

Orduan, emazteak (orduante ikusi nion aurpegia ondo) senarrari, bera ere alda zedila esan zion, bere arropak gelan zituela, eta eskerrak ematen zizkion Jainkoari bizirik zekusalako.

Mirari hartan zerikusiren bat izan banu bezala begiratzen zidala konturatu nintzen; nik, egia esan, oharkabean egin nuen egindakoa; agian, haren, Don Inozentzioren

Jainkoaren borondatez: nitaz baliatu nahi izatea gerta bait zitekeen, Feliperen alde eta honen emaztearen eta seme-alabean alde eta, orobat, neure onerako; begi bixtan zegoen halaxe zela.

Felipek, seme-alabak ikusteko gogoia agertu zuen; ea non zeuden galdetu zion.

Amonarekin zeudela.

Ongi ote zeuden.

Baietz, oso ongi; ordu erdi bat lehentxoago ikusi zituela.

Nola jakin ote zuten herrian bazetozela?

Tirotatik!, eta, jakina, horrelako gauzak berehalaxe jakiten direlako; inor ez zela ezertara ausartzen beraiek heldu aurretik, tropak oraino beste alderdian zeudelako... baina, arropa bila zihoakiola, sukaldean bertan jantzi zedin, han epelago zegoelako.

Aldagarriarekin eta alkandora eta galtzekin itzultzean, musuka hartu zuen senarrak, eta emaztea lepotik zintzilik geratu zitzaion, negarrez.

Nere ama zena etorri zitzaidan burura, eta nere arrebak, hildakoa eta bestea, gaixo dagoena; orobat, andregaiia eta ezagutzen ez dudane alaba; berrogeigarrenean bait nago, eta negua igaro bait dut, eta gudatea ere bai urte bete honetan baino luzeago, eta behin baino gehiagotan uste izan bait dut hilik nengoela.

Emazteak honela ziotsan: Felipe, itzultzean, herriko alkate izanen zela esaten zuela Don Servandok.

Felipek begiratu egin zidan, eta nik ezin ezer erantzun; ez bait nekien, nora jo zezakeen ere nere zoriak.

Mendian nerekin egon ziren motilak ia urte bete egon zirela preso esan zidan; eta bi astez geroztik bakarrik ari izan zirela trintxerak atxurtzen... ez ote nuen nik horren berri.

Buruz, ezetz adierazi nion, ea nola jakin nezakeen horrelakorik. Zer egin ote nien berari eta bere gartzela lagun eta lankideei, hori jakin izan banu.

Ez nekiela, ez zitzaidala ezer bururatzen mementu hartan.

Felipe ongi jabetu zen, berehala honela esan bait zuen:

"Jakina"...

Eta erazten hasi zen, ur guztia botatzen, eta galtzak jazten ari zela, nik ere nereak erazteko esan zidan:

"Galtzarik ba al dago?"...

Eta emaztea bila atera zen.

"... Eta botarik? Hauek blai eginik daduzkat, ez da?", hotsegin zion.

Eta far egin zuen, lehenbizikoz.

Emaztea arroparekin heldu zen, galtza batzu nere eskutan ipini eta joan egin zen berriro.

Ni eraztearren, noski.

Honela, Felipe eta biok jantzi ginen, eta jarririk gelditu eta hankutsik sutondoan, ekonomikaren burdin beltz eta borobilez estaliriko sutondoan; burdin zirriztutik zerionak ongi argitzen eta berotzen zuen sukaldea. Feliperen andreak ardoa atera zuen, eta zurrut batez hustu genduen nork bere basoa; ustekabeen hustu zitzaidan nere; gero, suzko beroa txit atsegina sumatu nuen urdailean.

Ez ginen ausartu ezer ospatzera.

Beste baso bana bete eta urdai-azpiko pusketa bana jarri bitartean, Feliperi eta bioi herriko gertaerak kontatzen ari zitzaigun, artega: Felipe harrapatu eta gartzelara eraman zutenekoak, jendea beraren galdezka zihoakionekoak (bazekien asmo gaiztoz zihoazkiola, hil ere egin zezaketela pentsatzea!), haurrak bere aitaren eske ari zitzaizkionekoak, eta gerra denborakoak, gosetekoak, tiroalditakoak, dena kontatu zigun, eta beretarrak herrian sartu zirela esan ziotenekoak, eta zelako larria igaro zuten Felipe haien artean ez ikustean, senarra ez ikustean:

"Non zeunden?"...

"Honekin", eta Felipek bere begiz seinalatu ninduen.

Orduan, Felipek lasai egoteko esan zidan, neri laguntzekotan zegoela, eta hori nahi ahal nuen.

Baietz esan nion.

Etxetik kanpora zihoala esan zidan, ni etxean geratzeko, ez mugitzeko.

Ondo dago.

Emazteari, aterik inori ez irekitzeko agindu zion: "entzun, Matilde?"...

Baietz erantzun zion Matildek.

Orduan, Udaletxera zihoala azaldu zigun, Don Servandorekin hitzeginen zuela eta salbakondukto bat ekarriko zidala nahi nuen tokira joan ahal izateko; konforme?...

Jakina, eta eskerrak eman nizkion.

Biak alditxo bat atean hizketan aritu ziren; emazteak behin eta berriz izen bat zerabilkiola entzun nuen: Konstantino. Hori zen, hiloheko txandara deituaz, begiratu okerreko herrenari emaniko izena: seguraski nekezko begiratua zuen, agian gorrotozkoa; zitekeena. Baina, orain Feliperen eskutan nengoen, Don Inozentzioren Jainkoari esker.

Felipe joan zenean, nora jo nezakeen pentsaketan jarri nintzen...

6

Eta orain, errenkada honetan nagoelarik, amets bat dirudit; lehenengo mahai gainean nere salbokonduktoa aurkezteko txandarako, bi emakume baino ez dira falta.

Denbora laburtzekotan, burua iragan denborara itzuli beste gauza hobeagorik ez dago: norbera orain bizi ez denera, gauza guztiak hain arin joaten direnera. Eta gainera, Feliperen denboratik hona, gerra alderantziz bihurtu da, premiaren premia, barrutik berri dagoela aurkitzen duzun txaketa bezala; Jainkoaren eskua, nonbait, gauza guztietan, Don Inozentzioren Jainkoarena.

Motikoak joanak dira, beren ama ez den eta errenkadan zai egon den batekin; iadanik, noizbehinka ez tul dagien eta berandu samar heldu zen zahar baten hotsa besterik ez dago, eta funtzionarioen, bi gizonezko eta emakumezko bat, ahapeko ahotsarena, eta izutasunari darizkion ahots zakarrena.

Oraino, atzekaldean dut gizon kezkarazle hau: nere lepagainean sumatzen dut!... Ni berari begira, eta bera begi iheska! Horrelaxe, baina tartetxoren bat neri begira egin ondoren jaisten zituen bere begiak Konstantinok, herrenak...

Gainerantzean, errenkada txit luze dago; ni, alabaina, aurreratuxe nagoela: zerbaitengatik naiz etorria hain goiz.

Funtzionarioak hurbilagotik dakuskit orain. Karnetak ematen ari den neskatila, a zer neska polita! Rosaura-ren antz handikoa. Hainbat urte igaroak izan arren, bete-betean dakarkit burura. Begi urdinak, ederrak, nere alabarenak izan litezkeenak. Gudate honen ondoren, bake handiegia litzake hori; nere burua hain bakarrik eta polizia izan daitekeen gizon honengandik hain hurbil, eta, denbora berean, ordea, gudutik sortua izan arren, Feliperen adiskidetasunetik hain hurbil.

Feliperen etxean igaro nituen egunen irudia da: Felipe, anaia gertatu zitzaidan!, eta edonork nabari dezake, ezezagun bat bezpera arte. Gero, izu-larria luzea izan banuen ere –edozein ordutan salatzen ahal ninduten eta, agian, salakuntza hona bialia duen Konstantinoren herrena eta begiratu okerra begi aurrean nituelarik–, gero, gorabehera guztion ondoren, onik irten ahal izan nintzen herritik; eta Feliperen izarra bekokian nuelarik, karreteratako kontrolak igaro ahal izan nituen, eta poliziak eta horretatik –paperen bidez barrua miatu nahiez eta beti okera topatu nahiez– bizi direnek sinetsi egin zieten nere paperei.

Ogibide horri beldurra diot, gorrotoa...

Lehen mahaira heldu urren nago. Nor nor den ez jakiteko adinako lainopean nago; gizonaren begiak lepezamarrean sentitzeko adinakoan; bere baitako belzkerien bidez hain gaizki informatzen duen liburu beltz horretan dauden salakuntzetan Konstantino hor ote dagoen ala ez ezin jakin ainakoan; uretan ur-tantoei airea kentzen dieten arrainen artean ote zeuden jakin ezin ainakoan; eta orain ikusten diodanez, urrezko hortza daraman gizon hau begi aurrean dudala; goiz honetan guztian atzetik darraidan gizon honek bezala, begiak altxatzen ez dituena; nere aurrean dagoen emakumeak eman dizkion paperetatik begiak altxatzen ez dituen funtzionarioa, eta atsegin handiegiz hartu ez dituena, silu bat falta omen zaielako, eta emakumeari, egun hauetan beste nonbaitetik

etorri dela egia ote den galdetzen diona, eta nondik etorri ote den, salbakonduktoan idatzirik badago ere, eta gaur edozeinek, ibaietako eta itsasoko arrainak bezala, jende guztia hortik, irten zen tokitik datorrela eta beste inola ezin izan zitekeela dakielarik ere; arazo guztia, usainka zer aterako ibiltzea da!

Emakumeak bereari eusten dio, bere seme-alabez mintzo da, bere senarraz...

"Non duzu senarra?"...

Ez daki, ez daki berak ere, ai baleki bizi dela bederen, eta saildu bati antzo erregutzen dio emakumeak. Leundu egiten dela ematen du gizonak, erreguaz sailduak samurtzen direnez: otoitzaren bidez, hitz urrirenakoak ere, uste kaxkarrenakoak ere (edozein kasutan, funtzionario hauek baino sailduagoak) samurtu egiten dira, eta honela dasaio: "tira, zoaz, zoaz,"... Eta begietako malkoak txukatuaz, bigarren mahaira doa emaztekoa.

Horrela, txandaburuan nago, eta gizon iluna, makurra!, nere atzekaldean...

Izaturik nago, larri; neure eskuei begira, neure gabardinari, neure sudurrari, koinatuaren oinetako beltzei; lehenengo epaikariak betetzen ditu nere begiak: urrezko hortz bat, eta eskuak zuri eta pekaz beteak, axolaz zainduak, baliozko ezertanaritu gabeak; eta salbakonduktoari ia begiratzeke, non bizi naizen galdegiten dit.

Non bizi naizen esaten diot.

Hurrena, hainbat denbora hirira itzuli-gabe zer dela eta egon naizen galdegiten dit, gerratean gaudela eta ni egondako toki berean, denbora berean eta ni bezain jende gazte asko eta gazteagoa ere egon dela ez baleki bezala... Jakina, ez diot horrelakorik esaten, ezin hitzegin nezake horrenbeste nahita ere, armiarma saretan katiaturik dakusat nere burua: alferrik litzateke higitzea, are alferrikago hitzegitea...

Baina, zera ateratzen zait: gudarako hartu nindutela.

Non?

Herrian.

Zergatik ez naizen herrira itzuli?

Herrian egon naizela (gezurra!), bizi behar dudan tokian aurkezteko esan didatela, eta hemen bizitzeko asmotan naizela, hirian...

Funtzionarioa, giltza bila-edo dabil bere buruan, baina honela dasait, axolarik ez balio bezala:

"Zure familiarekin?"...

Nere arreba eta aitarekin.

"Nola esan didazu izena?", galdegiten dit berriro, oroitzapenetan zabor-bila ibiltzea zerbaiten arrastoa ematen ari balitzaio bezala... Dagoeneko nere izena paperean ez baleuka bezala, erresorteren bat askatzeko doinu beharrean balitz bezala. Dena den, berriro nere izena ematen diot, eta izuak aterazitako ahots biziz esaten:

"Mariano Alzon"...

Korneta-hots mehe bat gertatu da, ene ustez; tiraldi batez norbaitek larrutsik utzi banindu bezalako lotsa gorria sentitu dut, agertoki batetan egon eta guztien aurrean oinal bat eskuan dudala nagoelako beldur zoroa, eta orobat hirugarren funtzionarioaren aurrean, begi urdineko ile-gorrixtaren aurrean, jakina...

Funtzionarioak itzartu egin nau eta ongi dagoela esan, eta papera itzuli, bigarren mahaira joan nadila esanaz.

Bigarrena, libra dadinean joan beharko: lehengo emakume hark, orain, betaurrekodun burusoilarekin bait dihardu, galde eta galde ari zaio hau; zakurra otsoarengandik bereizten uzten ez dion laino lodipean dago emakumea: nola deritzaion bere senarrari (oraino horretan dago gajoa!), non dagoen orain...

Kezka-min nago Rosauraren begi urdinetako argi ezti horrekin; denbora berean, ordea, bigarren mahaikoarekin urduri, zintzilik!

Funtzionarioa paperari begira-begira dago, bere senarrak ez-izenen bat ba ote duen galdegiten dio emakumeari: paperetan ezbezalako izenen bat eman izan ote dioten.

Ezetz erantzuten dio berak, eta solairu zikinean, tetxuan, bere esku mehetan begiratu itxura egiten du, oroitu nahian bezala, eta ezetz erantzuten dio, ez dela ezertaz oroitzen.

Ezertaz ez!?!...

Ezetz, ba.

Inongo ez-izenik ez?, galdegiten dio berriro begi bat emazteki izutuari ezarriaz, eta besteaz aretoa eta neu ere zeharkatuaz; inolaz ere, izuak eta nazkak hartua naukate jadanik.

Ez, ihardesten dio emakumeak, oraingoan seguru.

Ziur al zaude?

Bai, noski...

Eta neskatala neri begira dakusat; behar bada, ni berari begira nagokiolako; daitekeena...

Funtzionarioaren aurrean nago; esku artean dauka nere salbakonduktoa; eta liburu beltzean begira dagoen bitartean, neskatala ez, baina Konstantino dut ene buruan (biak ezin batera etorri ba, buruan), liburu horretan egon bait daiteke nere zai ataizean; orobat, buruan dut, farrez eta asmo gaiztoa ezkutatzearren begiak beheruntz, esaten ahal didana ere; oraino Konstantinoren begiratu okerrean dut ene burua, neskatala funtzionarioari hurbiltzean: bere aulkia utzi egin bait du neskatilak; nik irrifar egin diot, halaxe atera zait, etta berak harrapatu du, eta belarrira zerbait esaten ari zaio funtzionarioari, neri begira, baina farrari ematek oraino...

Zer ote du gero!?!... Eskua eskuan dudala nago, behatzak hautsi beharrean, aire faltan, aretoan neskatilaren xuxu-muxua besterik ez da entzuten; atzera begiratzen dut, oharkabean, eta atzetik darraidan bada-ezpadako gizona papera erakusten dakusat...

Automatikoki jiratzen dut burua, gomarena antzeko mugimendua sumatzen dut, eta nahi gabe; oinak handi sentitzen ditut, buruko mina, arnasa ezin hartua, piza darit; halere, neskatalari begira nago eta bera iheska, eta funtzionarioaren karpetan paperen baten bila ari da larri antzean, azkenean topatzen du; gizona begira ipintzen zait eta irakurtzen hasten da, eta biek batera irakurtzen dute; amaitzean, buru-soilak baietz esaten du eta ahapeka mintzo dira; neskatala ez da esertzen, ate aldera doa, barnera daramanera; ireki, eta barrura doa.

Harria bezain gogor nago; halaz guztiz, nere buru-zati bat gizon horren ahoan daukat; begiratu ere gabe, honela dasait:

"Itxoin, mesedez, unetxo bat" ... eta salbakonduktoa itzultzen dit.

Papera hartzen dut; urrats bat egiteko eta bere eskutik papera hartzeko indarra atera dut nonbaitetik: denbora berean hau diola entzun dut:

"Hurrengoa"...

Agindua areto guztian entzun da; isiltasun herstu eta eten beharrekoan izaki guztiak, ekaitzaren aurretik irakiten dagoen itsaso sakona antzo; bat batean jiratu egiten naiz, ez naiz nere buruaren jabe, senak narabil eta ez buruak, eta atzetik darraidan gizona dakusat: gizarajoa, nahasturik dago, eta zurbil, lehenengo mahaikoarekin galderantzunean; orain konturatzen naiz ez dela nere etsai, baina berarekin egon ahal izateko beranduegi da: argi eskasia honetan ezin ezagutzen ahal dugu elkar senideok. Nagoen tokian oztopoan nagoela konturatzen naiz, begiratu guztiak neregana biltzen direla, bigarren funtzionarioarena eta aretoan zai dauden guztiena, eta bi urratsez atzera egiten dut, postua libro utziaz, inork ez duela beteko jakinaren gainean bada ere...

Honetan, atea ireki dute, eta goardia bat sartzen da!

Barrua nahastu egiten zait; airebidea erabat itxi, uretan ito beharrean bezalatsu, itsasoan murgiltzean bezala, gatza begietan, eta atzera egin dut pauso batez, nekez gatzezko halako ur loditan, eta beste bat, eta jiratu, eta jende errenkada dakusat, begiz beteriko pertsonen (gutxienez berrogeita hamar) osoturiko itsas ertz luzea, itsas munstro bat, hankaz horniturik, eta besoz... Beso horiek laguntzen ahal nindukete. Baina, pulpo hori ez da mugitzen ere, nor (beso bakoitza, begi bakoitza) berean dago eta goardiak besotik nola heltzen didan begira eta honela dasaidala entzuten:

"Zatoz nirekin"...

Gorrotorik gabe.

Neskatilari begiratzen diot; paper batetan buru-belarri ari da idazten; agian, emakume zaharrari mesederen bat egiten... eta begiratu bat zuzendu dit!

Bat batean eta soinean dudan gabardina eta guzti, txapelarik gabe, baina nere koinatuaren oinetako beltzekin eta tente itsas ertz mugagabea, itsaso sinesgaitz baten uhin izugarriak bete banindu bezala da!.

Lohiezko bide zaharra

Egun batez hazia erne egin zen.

Bera bakarrik zegoen gelan, josten; beti bezalako ahots tarrapataria entzuten zuen galdezka, eta paparra heldu gabeko haur handi nahiz gizon baten betiko ahotsak erantzuten zuen eta gorputzean erdibidean eta osatu gabean geratzen zen ahotsa, hobekiago eginen ahal zuen norbaitek bertan behera utzia; zera zen: Adriana andrearen eta Silbestreren arteko borroka, hura zartakoak ematen eta hau gizon baten hitzez, baina makal antzean, eta inoiz edo behin zentzurik gabekoez, erantzuten.

Zenbaitetan, gauzak komentatzen entzuten zituen biak, nobelaren bat, izkirimiriren bat, biak farrez, nor bere doinu mailan mintzoki: Silbestrerena zakar eta lakatz, hari laxotatik ateratakoa bailitzan, eta Adrianarena lodi, bete eta zenbait zotinka bizirekin, airetan ittotzen balego bezala; izan ere, honela zen, eta da; emaztekoa, ahoan txilibitua zuela mintzo bait litzan eta tarteka jotzen zuelarik bezala aritzen zen.

Ez zuten elkarren antzik, urrunetik ere.

Ez ziren ama- seme; baizik, bakarrik zegoen emaztekoa eta, besterik ez-eta, bere amarengan uste duen seme ziren, eta zelako ama hark ez zekien zein emakumerengandik jai zitzaion seme hura: auzoko bat tarteko zela, hamar eguneko erregalatu bait zioten.

Behin behar-eta, bazkalondo hartan errietan ziharduten biek: mutikoak, bere hamazazpi urterekin, ez zuen mandatua egitera joannahi, telebistako saioaldiari begira zegoelako, eta ama, ororen gain, olio premian zegoen.

Egungo gazteen gauzak.

Tarteka, makilakadak entzuten ziren, farrezko eta haserrezko arnasaketarekin nahasturik, motikoak larrainera alde egin bait zion. Hura basauntz saltaria! Korri eta korri zebilen; eztarrian ittoa irtetzen zen farre zakar hura, korrika sentitzen zen, eta oinuts korrika dabilenaren hankots gogorra entzuten zen, eta zenbait oihu: "bini, hui de puta!", ia hatsik gabe zerizkionak, eta gero Silbestreren dehadarrak: "ez, ez!... atso zoro, ez nazazu jo horrela!"... Izan ere, Adriana andreak bere atzapar artean zeukan motila, honela esaten ziolarik: "Lotsagabe hori!", arnasa estua zeriola, eta makilakadak bigunaren gainean entzuten ziren: nonbait, burua babestekotan, esku-barrena ipintzen bide zion motilak.

Berak ezin ikusi zituen.

Jarririk zegoen, eta ez zuen balkoira irten nahi; ez zion Adriana andreari entzun nahi, garraisika eta ia arnasarik gabe honela esaten: "begiraiozu, Agustina, lotsagabe honi; ez du, ez ikasi ez mandaturik egin nahl!"; horrela, Adrianari arrazoin eman beharrean gertatuko bait zen, edo, bestela, nola edo hala, Silbestreren alde egin beharrean, haur handi bat zela esan beharko bait zion, bestetan bezala; eta ez zeukan zertan aurka egin andreari, ez Silbestre suminarazi hitzez; hori gabe ere motilak halako lotsa nahiz beldurrez so egiten bait zion, betidanak: kalean ikusi, agur egin eta buru makur geratzen bait zitzaion motila, atsekabeturik bezala, eta geroxeago jiratu eta berari hanketara begira topatzen zuen motila, egarriz.

Zenbaitetan, halako garraisiak nondik zetozen jabetu nahian, balkoira ateratzean, han topatzen zuen Silbestre zai, begira begira, lurrean jarririk, hanka tartean eman ahal guztian transistorea zuelarik.

Urrikarri gertatzen zitzaion motila; honengatik: gizon eginiko gorputzean haurburu bat zelako, beso gotor, bular handi eta indartsu, sorbalda konkorrak samar, alkandora puztueraziaz bular-inguru zabal eta sendo, galtza-odietan kabitu ezin ahalako iztar, aurpegi ilun, kolorez hainbat beste zerbaitez, beltxaran bait zen, eta da, kezka-larrizko begi handi eta beltz, sudur motz, espainak itsusi ez baina harro eta litzar...

Muxinka eta erdi negarrez jarraitzen zuen, eta Adriana andreari urrunetik bezala, agian olio bila bera joatekotan bata burutik behera jazten ari zelako mehatxuka entzuten zitzaion.

Agustina, jaiki eta begira jarri zen, eta han ikusi zuen Silbestre, handi, biluzik, larrain txoko batetan kizkur, jadanik erasotzen ez zuten kolpetatik bere bi besoz bere burua babesten; seguraski, bere buruan sumatzen zuen oraino makilakaden oihartzuna; barro eta burugoi bait zen, eta da, bere barruan, eta negar zegien, haur batek antzo zotinka, bere nortasunaren beheratzea ezin eramanez, batez ere bera, Agustina, entzuten zegokiola jakinik.

Seguraski.

Agustina, jarri eta josteati jarrai zitzaion.

Gero, antsiz eta mainuntz sumatzen zuen, beti; baina, isiltzen zihoan. Ez nuen gehiago Adrianaren hotsik entzun; "mongoliar" izenez deitzen zuten, gaiztakeriaz, auzoko neska-mutikoek, Adrianak, gerrikoa eskuan, aurretik hartzen zituenean, etxe aurreko espaloian zikinkeraren bat nahiz zarataren bat egiteagatik, eta guztia, aurpegi borobil eta zabal zelako, sudur motz, betaurrekoz: Hiro-Hito bera, emakume izatea.

Eta berak, Agustinak, hori guztia bere buruan sukaldera ekarri zuen, eta patatak zuritzen hasi zen, betiko lan aspergarrian.

Oraingoan, alabaina, garrazkeria bat zeraman bere buruan, mingarria, erruduna. Egia esan, arrazoirik ez zegoen horretarako; ez zen ezer, ezertxo ere ez; ez zitekeen izan adierazpen bat, Karlosek Iñazio sainduari esandakoa gora-behera, eta berak ur batetik edan izan arren; Karlosek egina bait zion ordurako bere eskaintza; urte asko aurretik, eta gero ere, eta berak far zegion Jainkoa bizitza-zoko guztietan, hutsarte guztietan ezin zitekeela egon esanaz lehendabizi, saildu guztien laguntzaz ere ez, eta gero (hain atsekabeturik zekusalako) bere sinesgaitza bere golkorako gordeaz, isileko lur elkor eremuan. Harekin batera eskabidea egiteraino iritsi zen, hark ez zekiela ordea, asmatu nahian; jakina, itxaropenik gabe, hain sakon, hain sustraiko den fedea ematen duen bizi arrazoinik gabe. Hark bazekien, fedea ez dela legez ezartzen ahal, senarrak berak agindurik ere ez, baizik ataka ireki behar zaiola eta ekinez itxoin behar zaiola hel dadin arte.

Berak, emazteak, buruz antzeman zion, eta halaxe adierazi, eta galderak egin zizkion. Hark, senarrak, mirariak ere heldu beharra izaten dutela esaten zion, eta agintza xinplez, tolesgabez burutzen direla, Jainkoa gizakia zehar agertzen dela.

Eta miraria?...

Miraria fedean bertan datza. E?!...

Emakumea, inoiz, agorra da, beldurrarengatik, izuarengatik: zenbait ubide itxi egiten bait zaio, eta herstura horiek fedea dakarren uste-on hutsez arintzen dira.

Hori ote zen, ba?

Hori zen, bai, eta hori da; eta ez da gutxi, ez bait da, ez pentsatze huts ez esate huts, baizik sinetsi egin behar da; misterio ikaragarria.

Arratsalde honetako ahotsak ez zuen doinu berezirik; are gutxiago miresgarririk; ez zen beraren ideia ere, berak pentsaturikoa, ezta inork esanikoa ere, ez berak halabeharrez entzunikoa, ez zen inor esaniko nahiz eginiko ezertaz errudun sentitzen ere; ez zen izan doinu bat; baizik, argi bat izan zen, eta laburra; gutxiago oraino: txinparta besterik ez zen izan, eta zerbaitek su hartu zuen, zeruko amukoren batek?, eta horrelaxe handitu zen, suertez, halabeharrez, munduan lehenengo bizia sortu bide zen gisan.

Berez, ez zion utzi nahi handitzen, hori eginez gero suketa baten erantzule sentitzen bait zuen bere burua.

Bestalde, ez zuen itto nahi argi hori gaizakeriaz jaio-berritan; bizitasuna Harengandik etortzen ahal zen, ba; oraino gorde egin behar zuen norbaitek ikusi bazion ere, Karlosek agian!, baina, Karlosek, hain ona zelarik, ez zion halako susmo txarrik hartuko argi hari, edo Silbestrek, nahiz eta esaten ahal zen Silbestre ez dela gauza izanen halakorik begiemateko begietatik zerion begiratu zoroaz.

Zazpi urte zeramaten ezkondurik, eta seme alabarik ez, eta mundu hutsa, hots, bere sabela betetzeko itxaropenik gabe, ezinernez; eta bere buruari iruzur egin nahian: Karlosi otorduak garaiz gertatuaz, emaztearen agorra zela eta gaixotuko ote zitzaion kezketan. Nahiz hori egia ez izan, agorra gizona izaten ahal da ba. Baina, auzoko haurtxoen negarrak eta farrak entzuteak, zazpi urte luzetan egunero seinaleren baten zai, mindurik zeukan. Emaztea Karlosi ezer esatera ausartzeke, senarrarengatik, eta senarraren malizia gabeko isiltasunagatik; emazteak bazekien, Karlosengan ez zegoela, ez dagoela, errezelarik. Fededuna izaki, otoizlari, baina saindujalea ez; Karlos gizona bait zen, eta da; osoa, maitalea. Eta emazteak federik ez. Adiskidetasun guztietan gertatu ohi denaren alderantziz: gehiengan, gizonetakoak izaki libro, eta emakumeetakoak manamenduei lotuak. Hori bai: Agustinak errespeto handia dio, gauza errespetagarri izaki gai hori; baina bera, Agustina, aita sinesgabea zuena eta ona, eta ama ona eta kezkarik gabea, bekatutik aske, zoriontsu bizitua zen bere hiru senideekin, baketan. Gero, Filosofiaz eta Erligioaz eskolatzean, jende askoren bizitzan fedea duen garrantziaz jabetu zen, berak sentitzen ez bazuen ere; bat ez da goi-isurizko jakintzaren jabe, eskura dezakeela jakin arren. Karlosen fede hori, harekin, injineruarekin, harremanetan hasi orduko onartu zuen; egia esan, Karlosen argia aski xaloa zen; eta, ikusmiraz, beste askori baino gehiago utzi zion hurbiltzen, eta maitemintzera heldu zen, eta maite du; beste inor ez bezala maite ere.

Horrengatik zegoen halako atsekabez, bere senarra zerua luze-zehar zeharkatzen nabariaz seme-alabaren baten bila.

Seme-alaba-ordezkoren bat hartzeko proposamena egin zion berak, emazteak: hura ere, esan dezagun, Jainkoaren seme-alabaizaten ahal zen; beren haragitikoa ez, baina bien seme-alaba lur honetako maitasunez, hasieratik gizakiaren jasokuntzabide izan den maitasunez, izadiaren eritasun zahar batetik jaikitzen ari balitz bezala, milaka

urtetan dirauen lege itsu eta zakarrari ihes eginez bezala, oraino Silbestre bezalako norbaitzuengan (honi hezi gabeko begietan aztarna mingarririk ikusten ahal bait zaio) agertzen denari aldeginaz, eta, halaz guztiz, aingeruak ez dio uzten bere animalia-erreinuari gainera jauzi egiteari on izatekotan, tarteka garraisia itsusiak barkatu egiten bait ditu ("Bo mama!... Coño pa ma-ma!"), eta horregatik izan behar du: Silbestrek ez dakielako, amak berak esaten bait dizkio hitz itsusiak, zein amarentzat diren; Silbestrek amarengan uste bait du halaz guztiz.

Fedea, zenbaitetan, engainu honetan datza.

Silbestre bezalako seme bat heltzen ahal da, heltzen ahal zen gizon on bat izatera; horretara heltzen ez bada, ardura faltaz izanen da, maitasun faltaz.

Legezko amaren maitasuna, maitasun izanez gero, aski a.

Eta halaz guztiz dena oker atera baledi, Karlosen Jainkoak hala nahi izan duelako, edo horri bide eman diolako bederen izanen da. Seme harengan ere egon, han bait dago Jainkoa. Agian, eta nork daki zergatik?, Jainkoak hala nahi izan zuen, Silbestrek ez zezala bere haragizko amarik ukan, aire-zulo nahiz arima edo dena delakoa argiz argi zitzaiokeenik.

Haurraren lehenengo negarrarekin itzartzen den hori, eta, aldiz, txakurkume bat jaiotzean esnatzen ez dena.

Silbestre eraman zuen sabela akiturik bide dago, hura bezalako seme-alaba asko, Silbestrearen anaia-arreba askomunduratzean (zenbait amak konejuak bezala erditzen bait du), eta agian Adriana baino andre hobeagoren eskutan daudenak; honek, Adrianak, itxuraz, ez bide du ezagutu inongo gizonen maite-maitearik. Hori, egia esan, edozein emakumerentzat hondamena da. Eta badaiteke ere, Jainkoaren esku bait dago hori ematea, erregalakizun diren seme-alaba horiek Agustinarene eta Karlosen besoetan erortzekotan jaiotzea; halako gutiziaz gura zuten hauek, eta gura dute, seme-alabaren baten zama gozoa sentitzea! Maite izateko, gerizatzeko.

Gizon-emakumeei, Jainko bait liran jokatzera zaie, ba, atsegin.

Adur oneko seme hori Karlos bezalakoa etor ez baledi ere, hori askotxo eskatzea litzake!, Silbestre bezain kankailu eta eroskor aterako bazaie ere, ama batek zer ez du egiten ahal seme batekin!: biharrik gabeko mundu triste honetan bertan ere.

Haragi honetatik gehiago itxoitea, alferrizko gauza da.

Agustina honela zen, eta da.

Karlosen Jainkoak (baldin bada) egina. Eta Karlosek, itxaropenaren itxaropenez lasai, erreguka darrai, agintza agintzaren gain egiten; eta Agustina, zai, itxoiten, seme-alabaren baten ametsetan, besteren batena bada ere, beste haragi batetakoa ere, edozein lohiezkoa, hautsa bera izaki, eta ez dago beldurrik Silbestre bezalakoa gerta dadin, bera ez izaki Adriana, mongoliarra, Agustina baizik; eta buru oneko ama batek ongi taxutzen ahal du seme bat.

Aski da seme hori indartsua dadin; aski da bere haragizko ama bat izan dezan, norengan sinetsia izan dezan; halakoan bakarrik izan dezake seme batek, bizitza honetan, atsedean osoa.

Bai, hala da; gehiago ezin da.

Eta Agustinak gauza horiek iraultzen zituen; irratiko ahotsari arras trakets laguntzen Silbestre entzutean, nahiz Adrianarekin farrez, halako algaraz, gorputz guztiz,

ongi eginiko gizon larri baten zurrunkaz bezala, eta halako buru handi huts horrekin, gizarajoa!, nabaritzean, etzan egiten zen; eta halako begiratu izuz, iheskorrez, berari begira atxematen zuenean, auzoan topatzen zuenean, nahiz Silbestre oilategi koxkor batetan dauden oiloen (darion usainetik oiloen inguruan jostatzen dela esaten ahal da) arraultzeak ekartzera etxera datorkionean; orobat ontziaren bila etortzean; izan ere, zenbaitetan, esne-hautsezko ontzia arraultzez beterik etortzean, nora husturik ez bait du izaten Agustinak, eta Silbestrearen amak, edo delakoak, auzoko besteren bati ere arraultzeak bialtzeko geroago ontziaren beharra izaten baitu.

Eta Silbestrek, zenbaitetan, zaitu egiten du Agustina larrainetik.

Horren jakinaren gainean dago Agustina; ez daki zergatik, ez daki nola demontre, baina gauzez bere gelan erazterakoan, ilunpetik begira dagokiolako susmoa datorkio Agustinari, eta pertsiana jaisten du; halaz guztiz, mintzarazteko asmo hutsez zerbait galdegitean, Silbestrek ozta-ozta erantzuten dio.

Arratsalde honetan, Silbestre biluziketa kizkur larraineko txoko batetan nabaritzean, argi berri batek ukitu du Agustina, zoro!, itsu!, ama berri izaten ahal litzatekeelakoak, erdiminez.

Karlosek nahi lukeenez, baina Karlos gabe, geratzea.

Horrelakorik ezin duela onar, senarrarengatik, honengatik badagi ere: hala ematen dio barruak; ezin ba, toki berean bi argihartu, eta legezko arfia han izaki betirako; honela nahi luke honek: osorik eta bakarrik; eta bestea, sasi-argia, ez da deus ere, ezin du ezer egin, eztabaidan sartu ere ez, baina sartu egiten da, eta nolaz ez daki. Eta berak, Agustinak, badaki hori. Baina ipurtargiaren dirdiratxo datorkio (gehiago ez da), argi kolpe apalez, ohar ezinekoz!; halere, ez du asmatzen argi-zirta hori uxatzen, ez du asmatzen nola ebaki; eta hor dago haren xarmaz liluraturik, eta ez daki Jainkoarengandik datorkiona ote den ala zer; argi handia, betikoa osatzekotan-edo, hain irristaria, hain mehea, hain sorgina izaki hori guztia, non ez bait daki, norberak dakusana, gauetan entzuten duena egiazkoa ote den ala ez, denboraren sutan dirdirak han darraielara egia bada ere, barruan toki bila burrukan ari dela egia baldin bada ere.

Hori zela eta, zertara jo ezjakinean zebilen Agustina, eta mutiri, errudun, arrazoinik gabe mindurik, horren errua inori egotzi ezinik: Silbestreari ez, Karlosi are gutxiago!

Sorginkeria zen.

Ez zuen ezer ere egitteko asmo jakin eta garbirik; bakar bakarrik, tokiuneren bat, tarteren bat, bere tokia egiten zihoan posibilitatze batentzat, eta uxatu egin zuenarentzat; kaxketatsu, gogor; itzali ezineko argi zurixka, higikorra; Karlosek berak, bere senarrak, sainduren baten bidez iradokitzen eta euts erazten ahal ziona...

Eta azkenean han zuen Karlos arratsalde hartan bere aldamenen.

Eguerdian aldegitan utzi ez zuen eta orain topatzen zuen berotasun hartaz harritu egin zen, seguraski: Agustinak ezkututzen jakin ez zuen berotasuna, ezin ezkuta izan zuena; eta galdezka hasi zitzaion Karlos, arras gogoko zitzaion galde eta galde aritzea, orain ere atsegin zaio, berak bererik ezer esango ez badu ere.

Inolaz ere, ezin duelakoz.

Eta laster atera beharrean zelakoz.

Afal ondoan?...

Arrats hartan, injineru-batza batetara joan behar zuen Karlosek.

Bakean afaldu zuten, eta musu beroz agurtu zuen Agustinak, eta mahaia jaso, ontziak garbitu, eta ez zeukan beste zereginik, norekin ardura izateko seme-alabarik ez, ba, eta telebista ez zen ikustekoa, geldoaren geldoz.

Kazeta irakurtzera eseri zen.

Politika saila utzi, eta ikuskarietara heldu zen, kiroletara gero, eta gertakarietara, hauek zitzaizkion atsegingarrien; baina, hezibiderako-edo, albora uzten zituen hauek ere: besteren gaitzaz sufritu, eta ikasi ez egiten dela bazekielako.

Iluntze hartan arras nekaturik sentitu zuen bere burua. Eta artean goiz zen. Basia on bat hartzera jo zuen, Karlosen zai egon izaten zuenero bezala... Urak, ur hotzak, itzar erazi egiten zuen. Gainera, kilikarazi ere bai zertxoren bat. Hori guztia Karlosengatik. Bere sineste ezaz far zegien; izanen balu, semea edo alabatxoa nola zainduko lukeen pentsaketan; izan ere, arratsalde hartako argia han bait zuen berriro. Karlosen fedez gidatu beharko lukeela bere bizitza; har, Karlosek, agitu guztia Jainkoaren hatsaz gertatzen dela sinesten bait du, eta ez ezerezaren ezinaz, ezereza ez izaki ezer. Baina ezin du.

Karlosek badaki bere emazteak ez duela sinesten, ingurumariaz harunzkoa ezin suma duela.

Eta Agustinarene alde erregutzen du, berari ezer esateke. Agustinak, alabaina, badaki hori, maitasunaren ezkutuko bidez; badaki, hain premiazko zaion seme-alabatxoaren bila jarraitzen duela Karlosek, azken aldi honetan hain gutxi aipatzen badio ere.

Agustina, bere senarraren premia hori betetzearren, berari dion maitasun horrek berak uki dezala eskatzeraino joaten da.

Gura izaten duenez, lehortu du bere gorputza, hautsak ere eman ditu, usainkia hartu, arrosa usaina, Karlosi hain atsegina zaiona; maitasunez. Eta beste ezer gabe, bata hutsez estaltzen du bere gorputza; halako egunerako, beroarengatik, bata aski lodia, baina gauean oheratzerakoan gorputzean hain goxo zaion franelazkoa, Karlosek eranz diezaion, eta musuka ari dakion, bularretan, lepoan, belarrietan, piskana-piskana behetik gora, eta biak lo geratzekotan gorputza erortzen utzi hutsaz.

Gau hartan sentipen honekin oheratzen ahal zen, eta horrela loak hartzen ahal.

Baina ez zezakeen bere burua nekeak menderatzen utz, oraino goiz zen eta Karlos heldu urren, eta beraren premian zegoen senarra, bera Karlosen beharrean zegoenez, gau hartan, sasi-argi erne zitzaion hartan, kilikatzen; bazekien uko egin behar ziola, harengatik, Karlosengatik, eta harentzako: maite zuen, eta maite du, senarraren munduak horrela bakarrik izaten ahal zuen zentzurik: betirako, bere gogoz, bere hitzez maite zuen gizonaren munduak.

Tarte batez hartzen ahal zuen hilabetez gero Karlos irakurtzen ari zen nobela, eta amaitu ezin zuena, berak, emazteak, uzten ez ziolako! Karlosek ezarririko seinaletik jarraituko zitzaion, aurrekotik lerro bat ere irakurri ez bazuen ere: guztia, bere senarrak utziriko lekutik abia ote zitekeen eta uler ote zezakeen frogatzeagatik zen. Zoro! Eta Karlos ere, berak, Agustinak, ezar zitzaiokeen seinaletik jarrai zitzaion. Elkar maite bait zuten, eta maite dute, eta ongi dato. Horrela behar.

Bihotz bi, buru bi, bat eginik.

Kapitula, gaztetan norbaitek eginiko lapurreta batekin hasten zen. Hori ulertzeko, ez zegoen aurreko orririk irakurri beharrik, nahiz eta nork jakin zein ideia idarokitzen

ahal zion pasarte honek berak lapurraren eta honen familiaren aurreko gora-beheren berri izanez gero?; hasi zen bezala, ezin jakiten ahal zuen, oredea, halakorik.

Iragan gauzetarik ez da ezer betirako galtzen, eta egiten denetik ere ez da deus galduko.

Horrelakoa da mundu hau.

Logale zegoen, gauzez irakurtzeak logurea dakarkio. Baina aurrera jarraitu zuen irakurtzen hitzen zentzu osoaz jabetzeke, letorkeena alde z aurretik zekiela, nobela horiek irakurleak alde z aurretik antzemateko moduan amaitzen bait dira. Horrelaxe zen, hitza hitzaren ondoren, errenkadak joan eta etorri, nahiz alderantziz: gauza bera izaki. Eta argiz begiak itsutzen ari zitzaizkion, bera horretaz konturatzen zelarik. Eta, halako batetan, txirrina. Eta jaiki egin zen, Karlosek bere giltzaz zergatik ez ote zuen irekitzen pentsatuaz. Eta irekitzera joan zen, eta atea ireki zuen; ez zen Karlos, Silbestre baizik; lataren hila zetorren, bestetan bezala, hain berandi behin ere etorri ez bazitzaion ere; barrura joan arazi zuen, eta sukaldera sartzen ikusi zuen, handi, zabal, buru hiletsu eta beltz; eta apalean zuen lata eman zion, eta hark bere esku eta beso zaintsuz hartu, eta gorputz hari, ez begi dirdiratsu haiei, ez zegokiela zirudien arduraz. Gero Agustina bere gelara joan zen, eta mahaitxoaren kajoian diru-toxaren bila hasi zen, eta sartzeko esan zion, barrura etortzeko. Silbestre atean gelditu zen eta bere bi begi handiz so geratu zitzaion; Agustinari argitsu iruditu zitzaizkion, eta bere haragitan ezarririk zekuskin: izan ere, bere bata, behe aldera axolaz lotu bazuen ere, bular aldera irekirik zeraman, oharkabea, eta berak, ohean jarririk, sartzeko esan zion, ea zergatik ez zen sartzen, kezka ote zemakion. Silbestrek, lotsaturik, far egin zuen, baina aurrera egin zuen bere urrats luze eta zabalez, marinelen antzekoz (nahiz lehorrean bizi, horien ibilera bait zeukan, eta dauka), eskuak galtzetako aurreko sakel hertsitan erdi sarturik, eta sorbalda balantzaka, ikusten ez den zama astunez zamatu bailuen, eta bere sudur puntara Silbestrearen praka-zirriketua heldu zitzaion Agustinari, arras hurbil, eta oilo usaina sentitu zuen eta gortz beroarena; bitartean, urduri, txanponak kontatzen ari zen, hotz sumatzen zituen, Silbestre goitik behera begira zegokiola jakinaren gainean, buru gainetik bular hautseztatuetara begira, eta seguraski usainkia usainduaz (bere sudur zapal eta zabalaz airea irrikiz irentsi beharrean). Agustinak ez zegien ezer, ezer ere ez, behe aldetik bata ireki ez zitzaion, eta ireki egin zitzaion!, eta gerrian bakarrik geratu loturik, berak ere bere txilborra ikusteko moduan, oraino gazte zelakoz, 32 urte besterik ez zuen eta ez du, eta oraino seme-alabarik ez duelakoz, estua zeukan eta daukan txilborra. Orduantxe luzatu zizkion Silbestrebezperako arraultzengatik zor zizkion 7 bolibarrak, eta hark, Silbestrek, hartu eskuan, baina Agustinak eskuan ezarri zizkiolako; Silbestrek ez zituen sakeleratu, ez zen jiratu ere haiekin aldegeteko, baizik eta, ausardia ahalena!, mahaitxoaren gainean utzi zituen eta Agustinarengana bihurtu zen, eta ez zion begietara begiratu ere, baizik makurtu egin zen eta bataren miztoa askatu egin zion, hura jarririk zegoela, eta bere bi eskutzarrez besapetik heldu zion; orduantxe sentitu zituen Agustinak esku zakar eta handi haiek bere haragitan, hura zarrastada!, eta berarengana jaso zuen Silbestrek; Agustinari, gorputz osoan behera, ipur-masail eta zangoetan behera, berez erori zitzaion bata, astun, lastaiaren gainera, zaratarik gabe; Silbestrek luze-zabal bere gorputzez neurtu zuen (Agustinak gogor eta indartsu sumatu zuen), bi eskuak ipur-masailetan zituela, Agustinak gogor eginen ote zion frogatu

nahian, ausarditsu!; izan ere, haur hura, gizon hura, halaz guztiz, ez zegoen batere seguru ezertaz, berehala nabaritzen da hori, eta Agustinak sorbaldatik eta lepotik eta buru handitik heldu zionean bakarrik ausartu zen Silbestre besoetan hartu eta irekia zegoen ohe gainean ipintzera; eta ezer esateke, ate aldera joan zen; hura larria!; ez zen erabat joan, baizik atea itxi eta argia itzali; ez zuen ezer ikusi!... Eta gorotz bero eta artopil hartatik zintzilikario bezala, mila hots ezti sentitzen hasi zen: botoiak elkar ukitzen, oinak galtza-zuloetatik ateratzen, zapatak erortzen, bat, bestea, granitozko zola gainera, hasierako isiltasun susmagarria, isila, majiazkoa, eta harroparen jaustea, eta gerrikoaren burdin-kizkiaren kolpetsua aulkiaren kontra; gero, bat batean, lurra, jergoia beheeraka bezala; Agustina ez da izutu horrenbestez, baizik gorputz hura bere gainera noiz jausteko zai dago, eta gaineratzen zaio; orori heldu zaio garaia; orori; eta bere ezpainak xurgatzen sumatzen ditu, bere ezpainek xurgatu egiten zuten, eta eskutik, laberintu ezkutuan ezkutatu zen, jakinaren gainean, bi, hiru bider, Karlosekin behin ere iritsi ez zitzaioneraino; tarteka, Silbestreren bi eskutzarrak sentitzen ditu, bi atzapar, iztarretan, bularretan, eta gero arnasa-estu hura, bero, heze, bularretan, iztarretan, eguzki hezearekin hiltzeko, zoro, bero, beruna bezala, ezkoa bezala, buztin beroa bezala urtu zen eta bere gorputza zeharkatu zuen jainko guritua igaro zen bidetik irekitzen, irekitzen urruneko gauza bizia, lohizko bere bide zaharretik itzultzen.

Hotz eta hilik ematen duen ama lurrak sentituko duenez bere ama-erraietan hazia ernetzen zaionean.

Gero ez zuen sumatu aldegiten, baizik bere asetasunean geratu zen, baketan, beila gozoan, ia korderik gabe.

Bere onera, gorputza bere gorputzaren ondoan zuela itzartu zen.

Baina ez zen mugitu, ez zen ausartu! Itxoiten, itxoiten zegoen, zoraduraz, ideiak ezin elkarturik. Oharkabeen eskua luzatu zuen mahaitxoaren gainera, dirua han ote zegoen jakiteko, eta marmol hotza sentitu zuen, gainean ezer ez. Silbestrek bere sakelean gorde bide zuen, berarekin etzan aintzina. Ez zen beste ezertara ausartu, eta itxoin egin zuen; gero eta itzartuago, biziago, erru-kezkatuago, eta, halaz guztiz, egiteko gogorik gabe, itzar erazteko eta joateko esateko kemenik gabe, laster!, bere senarra memento batetik bestera etor zitekeela!... Azkenean, ahal izan zuen. Arras baitako ez zitzaiokeen puntuan ukitu zuen, sorbaldan, eta honela esan: "Silbestre, Silbestre"... Eta bestea mugitu. Eta, espero ez zuena!, mahaintxoko argia biztu zuen: "zer duzu, maitaño?!..."

Karlos zen!!

Agustinak bere burua jausten utzi zuen eta ez dakit zein amets izugarri asmatu zuen!

Karlosek argia itzali egin zuen, eta loak hartu zuen berriro.

Agustina ez.

Ez zen gehiago ausartu mugitzera.

Horrela itxoin zuen, itzarturik, esnai, egunsentirarte, eta jaiki egin zen, erru-kezkatu, eta hanka-punttan sukaldera joan zen, lapurra bailitzan: arraultze ontzia han zegoen artean.

Ijitoak (Platero)

Eguna, berri eta garbi zegoen, hodei arrastorik ez zeruan.

Eta, bostok alai; are alaiago farrez ari den hainbat jenderen artean joateagatik: gauza zoragarria, nork bere burua besterengan dohatsu nabaritzen, eta ukalondoko bat hartu eta irrifarrez erantzutea, eta hankaren bat zapaldu, barkatzeko eskatu eta barkatua dagoela entzutea; ez dago ezer munduan, udako bi hilabetetako egun bakar bat mikatreraz dezakeenik; udak, hain zuzen, onena izanik ere, ez du luzaroago irauten ahal iguzki eta lur arte honetan; berotzeari ematen dionean, haatik, zorrotz berotzen du; nonbait, euraldikoaren ordainez, eta haize eta izotzaldikoaren ordainez: paraje hau, neguan eta turistarik gabe, ezberdin izaki.

Ai, horrela ez baledi!

Bera, emaztea, zazpietan jaiki da, tortila patata egitekotan, eta oilaskoa erretzekotan, eta alabatxoari perkal gorritzko soinekoa plantxatzekotan, eta oheak egitekotan, eta gizona ahots alaiez eta zorrotzez eragiten hasi ordurako hurrekin prest egotekotan: hasten denean oldarka hasten bait da.

Autobusaren sapaia, buru jolastiz beterik doa, burumotzekoez eta marinel txanokoez, mahatsezko kapelukoez, kolorezko karkuxez jantzirikoez, ile orrazturiko eta orraztu gabekoez: denetik doa hor, eta algara batetan eta lapiko batetan antzo izerditan. Aitak bost urteko alabatxoa besoetan eta, nonbait, barruan oilaskoa eta tortila dituen larru urdinezko zorroa, amak begiz bilatzen duena eta topatu ezinez, jendearen hankartean dabilelako. Aitak barandari heldu behar izan dio. Halaz guztiz, emakumea pozik doa, senarra alai ikusteaz: agerian bait darama poza begi handi eta irten horietan, eta izerditan; berotasuna ere ezaugarri zaio emazteari senarraren humorea ezagutzeko.

Horrelaxe, pozik nabari du senarrak bere burua: alde orotatik izerdia dariola; tantaka dihoakio leptik behera, eta ausarditsu, bularra eta urdail gainean zehar, eta beherago ere bai, aita nahiz alabatxoa piza egiten ari bailiran (bost urteko alabatxoarena ere izan bait daiteke); berarekin bait darama aitak alabatxoa eta bere gorputzarekin haragi bat bera bailitzan eraman ere, eta alabarena non hasten den ez jakiteko moduan... Eta sonbrailu berdezko emazteki hau ere, bada ba! Gainera datorkio gizonari, eta janari-zorroa zapalduaz; halere, gizonak ez dio ezer esaten, isilik doa, eta bere baitan farrez: hondartza hori guztia izaki. Eta aldamenen daukan agureak, aipaturiko andrearen aita izan daitekeenak, ezpainez barruko irrifar horretan harrapatu du gure gizona, zahar bati ez bait dio ezerk aldegiten, bere kolkorako gordetzen badu ere; gainera, zaharrak, bere biloben berri ezdakienak, etsipenezko irrifarra bialtzen dio: inondik ere, goiz horretan eta bero zakar horretan, eta jendea autobuseko kajoi horretan tente eta herstu, zaharrak ezin gorde izan du sekretoan bere kezka.

Honez gero, ailegatzen ari bide dira, bidea laburra bait da, bi orduz behekoa.

Emaztea zimel dakusa gizonak, izerdi tantorik gabe: horretan ere ez izaki soberatasunik; eta ezpainak zimurturik, artega eta ezarririk daukan bi seme-alabeen zutikai edo... bihurturik doa; bi seme-alabak hamabiren bat urtekoak direlarik ere, eta

amak hain jarraikiro erdituak direnak, non haurraldi berean erdituak izan direlakoan bait dago, aitak ezin ditu ikusi ere jendaratean.

Motikoa, hanka puntan ipintzen delarik ere, ezer ikus ezineko gisan dago, eta, bere arreba bezala, jende-itsaso horretan murgildurik; autobusaren abiada horretan ez zara mugitzen ahal zeure gisara, jendetzaren emanera baizik, masaren isurira baizik: karretera bihurgunetan jarlekuen burdinak eta txapazko azala jotzen dituzula, eta frenalalditan garraixia bizian eta abiada alditan haize-boladak atereaz; txofer honek tenturik ez bait du hanketan, makilezkoak dituela ematen bait dute bere hankek. Horregatik dira halako garratzak jendetzaren oihuak eta, zenbaitetan, arrisku alditako isiltasuna; bi ordu luzeko farrealdia, hondartza bidean delarik ere, askotxo izaki; orduan, isilaldian entzuten da hobekien, batera hainbat jende daraman tresnaren tiro eta haize hotsa.

Emakumea ez da gauza leihoa harrapatzeko, gorputzaren legez: lepatotza izaki; bestalde, ohituraz bezala, haurrei josia dagoelako; gainera, begi bat senarrarengan eduki beharra, harengatik baino areago, haurtxoarengatik: edozein emakumeri, are ama bati, zernahi kasutan senarra nahiz alabatxoa betirako ken diezaioketela iruditzen bait zaio; eta berari, hain artega delarik, askotxoz gehiago: beste ezerगतिक ez, ez bada haurtxoa hain gauza gutxi dakusalako eta senarra hain on, eta barne barnetik maite dituelako. Haurtxoa aitari besarkatua nabari du, lotan bezala, gau guztia lotan eman badu ere, eta ezer gosaldia ez badu ere, oso gutxi jatekoa bait du alabatxoa, eta dagoeneko trapu zahar eginik dauka soineko gorria, izerdiz, eta zimurturik, eta marinel txanoa, zuri-urdina, erortzear dauka, galtzear!; hango istilu eta buila artean, senarrari deitzen dio, eta ez dio entzuten; baina, gizon zaharrari ez dio ezerk ihes egiten, eta sorbaldan jotzen du gizona; berehala jabetzen da hau, eta esan nahi diona ulertzen du, eta begitaraino sartzen dio txanoa, umezurtz bati bezala, gajoa! Oraingoan, motikoa arizaio amari besotik tiraka eta, eta begi-keinuaz, iristen ari direla esaten dio, itsasoa bertan dela; amak ezin konprenitu du motikoak hori nondik atera duen, ez bait du oraino itsasoaren usainik, orrazi-apaingarriz jantzitako emakume lodi bati autobusean sartu ordutik darion ozpin-izerdiarena baizik: ama-arnasaz eta aurrekaldean doan emakume horrena, txoferraren jarlekuari ezarririk dihoanarena. Baina, motikoak, bai: begi bat neskato baten beso biluzi eta bular estaliaren artean ezarririk darama, eta, bat batetan, esku batek bereizi egin ditu, eta orduan zeru puska bat ikusi ahal izan du bela-punta batek zeharkatua, eta, badaki, hori ez da gertatzen itsasoan bestetan, hondartzarako igande batetan bestetan; motikoa arrebari ere gauza bera esaten ari zaio, gizon biren tripa artean beroz itto beharrean negarrez doanari.

Halako batetan, laurak, hots, bostak lurreratu dira, eta haurtxoa, orain, amaren besoetan dago; amak, urik eta hondartzarik gabe igaro zuen haurtzaroko kontu txikiak egiten dizkio eta, lehenbizikoz, ezta-ibilaldian itsas-ertza ukitu zueneko poz beraz.

Seme-alabengan berritzen da bat.

Hor doaz hondartza aldera, itsas-haize gozoak jotzen du; aita, seme-alaba biei eutsiaz doa: pertikatizat besoak dituztela, astakume bi antzo dira aita arrastaka eraman nahiez; honetan, dei dagoitela entzuten du; emaztea da; honen begiratuari jarraituaz, leporaino beltzez jantzirik dihoan ume aurpegiko neskatila batengana doa bere begiratua. Bi gizon daramatza lagun neskatilak, sonbrerok jantzirikoak eta lepotik

behera ile luze eta dirdiratsuak; arropa zikinez, eta begi argiak musuan; neskabila, galtzarpean tinko sarturiko saskia daramala; begigoi, polita. Bi seme-alabak herstu ezartzen zaizkio aitari. Ijitoak, gizonaren begiratu hutsal antzekoa airean harrapatzen du, eta berarengana jotzen, begi gozo handi eta sakon, eta pezetaren bat eskatzen dio; gizona geratu eta bila hasten da; aberats ez delarik ere, ematen ahal dio horrenbeste; baina, ezin du, txanponetan ez du, ba; horregatik, beste ezergatik ez; ijitoak, ordea, begiz jotzen du; bere burua tximistak jorik bezala nabari du gizonak, eta denbora berean far dagi gertaera horregatik, eta, pozik, emaztearen bila hasten da; aurrera joana zen emaztea, eta gelditu egiten zaio, jende gazte eta lanik egin nahi ez duen horri sosik ere ez zaiola eman behar esateko. Gero, emaztea, pentsaketan jartzen da, ezinbestean; bere aurrean denda batetanbi tomate ebatsi zituen ijitoa datorkio burura, zakua bailitzan bere kolkora bota zituena, eta berari hain lotsagabekiro begiratu ziona, non ez bait zekien bere begiek gezurra ala egia esaten ote zioten; eta orduan ez zen ausartu hitzegitera, beldurrez. Senarra irrifarrez dihoa seme-alabengana, ezer gertatu ez bailitzan; ezin ordea burutik bota ijitoa, denbora gutxi zela herrian zehar igaro zela esan ziotena, soineko beltzez eta zabalez jantzirik omen zihoana, soinekoa aurretik ebakia eramanki eta barrundik biluzik zebilena, ehun duro ematen ahal zion edozeinekin gozaldi bat egiteko prest omen zena; eta entzun ere entzun zuen, batek Jesusen bodegoiaren atzekaldean harrapatu zuela, oraino iluna ez zelarik, amen batetan egin bait zuten egin beharrekoa, ez batak ez besteak arroparik kentzeko lanik gabe. Alaba galde eta galde hasi zitzaion, ea egia ote zen ijitoek haurtxoak ostutzen dituztela: bere ahizpatxoaz oroitzen zen, une hartan bere amaren besoetan farrez zegoenaz; bien bitartean, aita honela ari zitzaien bi handienei, ez izu eraztearren, baina jakinaren gainean ipintzearren: hori egia zenik ez zuela uste, baina, inolaz ere, ezezagunekin konfiantzarik ez daitekela eduki, batez ere, ijitoekin; ulertu ote zuten? Hori guztia haurrei, batetik sartu eta bestetik irten egin zaie; hondartzara bidean, haurrari, ijitoekiko izua gorputzera baino lehen ahazten zaio.

Hondartzan dabilta autobuseko eta oinezko beste jendearekin batera; uda, itsasoaz itsusten den jendearen oldarra da: itsasoa, beti urdin eta iguzkitan dakusa; hori –diote– hemengo gauza da, eta ez da ezer kostatzen; hurbilagora eta sarriagotan etor ahal baledi! Itsasoak gatz usaina du, arrain usaina, bapore, urruntasun usaina; hain dago epela itsas haizea, uretara ailegatuaurretik arropaz eraztera kilikatzen bait zaitu; gaurko hondartza oinak hain goiz erretzerainoko hare galdatsua izaki, eta luze-zabala, eta sakana, mariarekin ittotzeko ainakoa, eta, ilargiarekin ura urruntzean, kilometro erdi bat ur bila ibilerazteko ainakoa; horra ere heldu bait dira Ipar-amerikarrak. Emaztea, nekez dabil hare galdatsuan; halere, ibilki, haurtxoa jantziz arintzen ari da; pozik doa alabatxoa alai ikusteaz; beste biek beren galtza, alkandora, soineko eta espartinen zamari aita hartu dute, eta amak toki egokia eritzi duenera iritsi orduko, ur ertzeko jendarte trinkoan galdu dira. Aita, amaren larriaz kezkatutik, deika ari zaie, baina ez diote entzuten, eta bila joan behar izan du, amaren eta alabatxoaren ondora erakartzeko, zentzuan sar erazteko eta berriro bostek bat egiteko: denek bat egitea eta elkarren ondoan egotea izaki zoriona; horretaz hitzeginak dira gaur goizean ere autobusa hartzean. Aita bi handienei mintzo zaie: ez litzatekeela itxurazko gauza hondartzara etorri eta norbait uretan ezkutatzea, haur asko itto izan dela horrela, edo galdu bederen halako jendetzaren artean: aldamenean edukirik ere, bat ez bait da arduratzen besteaz horrelakoetan; bost

urteko alabatxoa iguzkitan larru gorri uzten ari den amak ere gauza bera desae, aitaren sermoia berrituaz eta indartuaz, eta oraindik orain kazeta batetan irakurririko etsenplua kontatzen die: haur kozkortu batena, espigoi horretako harkaitzetan itto zenarena. Aitak hurbilen ageri den buia seinatzen die, ea ikusten al duten?; neska-motikoeak, baietz, badakusatela; areago zer?; bai, bada besterik ere; ez daitezela hurbil espigoiko harrietara, honuntzko aldetik ere ez, hor zenbait hare-tranpa dagoelako, barruratzean jendea irenstenduen. Neska-motikoeak adi dagozkio aitari, baina hondartza igande batetan inor hil daitekeenik ez dute uste.

Iguzkia aski bero dago dagoeneko.

Handi eta txiki igerian ibiliak dira: eta, berandu bada ere, otordu garaia heldu da: erdi bazkari, erdi afari izanen da; txikia ere gogotik ari da jaten. Bai zoragarria! Aita zorionez dago eta berriketazale: hondartza bizileku egitea pentsatzeko gauza litzatekeela dio. Emaztea hariari darraio: diru apur bat aurreratu beharko luketela, eta txirrindu bat erosi, aitak eguneroko lanerako berrogeitamar kilometroak egin ahal ditzan, gainerako familia guztia hondartzan etzanik dagoen bitartean, hondartzan bertan janaria gertutuaz, bertan lo eginaz, egunero itsas ertzean egunsentian itzartuaz, iguzkitik eta gauetik eta euritik babes ditzakeen aterperik gabe.

Eta guztiek far dagite, beren burua hain behartsu ikus erazten dien ametsa bide dela, eta hain gogotik janaz, eta haretan.

Ama, lauron ama, da lehenbizikoa haretan ez paperik, ez jan hondarrik ez dela bota behar konturatzen dena: gauza zikinak izaki zaborrak nonahi botatzea, urtean behin baliarazten dituzun gauzak zaindu egin behar dira; eta hor doaz neska-motikoeak paperontzi handi batetara, berdez margoturik dago, hurbil, eta pedalez ireki-isten da; umeak, jakina, berarekin jostatzen dira tarte batez. Senarrak eman du siestarako agindua, loti halakoa! Halaz guztiz eta hika-mika bat gora-behera, bi handienak berenarekin aterako dira, eta hor doaz ur ertzerara, bi ordu luzetan urik ez ukitzekotan bada ere; argiz koreaturik dakuski aitak, gazteluketan jostatzen hasten, lurrera berehala doazen haurtxoen etxeak egiten, gizon helduratzean amestu ohi direnen antzekoak: zenbait alderditik gauza oro amets bat bera izaki; aita, hare biguinetan bi haga haiek sartzen eta bere alkandora haizetan lotuaz kerizpe mugikor bat egiten, oraingoz berena duten hare sail horretan alabatxoa etzateko; ama soineko gorria jazten ari zaio, gehiegi erre ez dadin, kremetan gastatzeko ez bait dago, hain garestiak dira! Kerizpean burua bete hare bada amarentzat ere, aitarentzat ez: gizona gizon gogorra izaki; berriro, neska-motikoei begiratu bat eman nahi die aitak: jolasean ari diren tokira begiratzen du, urrunera, agindu bezala ur harriskurik gabeko tokian ari dira, eta iguzkitan etzaten da; lotarako: izan ere, beroak, eta haizeak, eta lotara astun eta indartsu eragiten duen ur pulunpariak, eta itsas ertzeko algodoizko ur hausteak, eta hare gainean dabilen jendearen kolpe lehor eta biguinak: "tok-tok-tok", denak, lurrari erantsitako belarrira, leize babesaren urruneko oihartzuna dakarkio; gauza bera itsaso usainak ere: denak, hitz batetan; batez ere, hamabi orduko larunbata igeltseritzan eman ondoren.

Ordutan lo egin du horrela; emaztea alabatxoarekin jolasean sentitu du eta, berriro, loak hartu. Nahi gabe.

Emazteak itzartu dueneko, iguzkia muino gainera heldu da, haize hozkirriak jotzen du, hondartzako inurritegia jende barreiatua da jadanik eta urria; horrelakoa da jende

hotsa ere, ahulago eta itsasoz beteago, autobusera bait doa, eta kerizpeak mehe eta luze dira; oraino haretan etzanik dagoelarik, ur gaina garai dagoela dakusa, sorbalda indartsu baten gainean antzo txalupa zaindari batetan uhin gainean tente; emaztea, etxetik at loak hartzen ez duena, unetxo batetako lokuluxka egin duelakoz bere buruaz lotsaturik dago, eta senarrari zirika ari zaio, toaila jasotzen ari den bitartean, alabatxoa ekartzeko eskatuaz, jantzi egin behar duela-ta... Erdi lotan zutitzen da, ingurura begiratu eta andrea gauzak zorroan sartzen ikusten du, ez du ezer esaten, eta bi zaharrenen bila hasten da begiz, txit hurbil hautematen ditu, gazteluketari utzi eta uretatik irtetzen; txikiena ez da ageri, eta emazteari begiraten dio: hanketan zorro urdina duela dago; bien bitartean, bi handienak jantzi erazteko esaten dio, berandu dela. Berriro, kolpetik jiratzen du burua senarrak, dunbuila, bultoren baten bila, koloren baten bila, eta lasterka ur ertzera egin du, ezer esateke, hankapean harea hotz sentituaz, eta larri iresten da bi handienak uretatik ateratzen ari direnean; txikiena non den galdegiten die eta, haien aurpegia ikuste hutsaz, ez dakitela konturatzen da; zarrastan jiratzen ditu begiak, irekiak ditu baina ez du ezer ikusten, iguzkirik gabe itsuturik dauzka, emaztearengana abiatzen da; hau, esateko, bakarrik dago, kezkatu jadanik, senarrari begira; atzera bilduriko kolorezko toldoak ia hutsik dakuski; bat batean, tripa gainera zama handi eta hotz bat erortzen zaio gizonari, eta, marrazki batetan borratzen ari bailiran, hankak ihes doazkio; ez du ezer entzuten, eta itsasora begira jartzea ematen dio buruak, beste ezergatik ez, emaztearen begiak ez topatzearren. Memento honetan, itzala jaitsi da, iguzkia muino atzean murgildu da erabat: jolasean ari eta norbaitek argia itzaliko balu bezala; garai okerreanean!; eta gizonak itsasoa begiz zeharkatzen du, eta hondartza antsiz, eta begi horietatik, irriki bizitan, itsasoko ur guztia eta hondartzako hare guztia sartzen da kolorezko tantoren baten bila, eta, berriro, emaztearen begi ihesgaitzak topatzen ditu; emaztea, seme-alabez inguraturik dago, eta gizonari begira, hau bezalaxe hil beharrean, hondartzako bakartasun biohtz-erdiragarri honetan, alabarik gabe, iguzkia betirako izkutatzeko dagoenean, hondartzako haurrak amaitzen ari direnean, munduko kolore gorri guztia ezkutatzeko dagoenean, eta berea agertzeke, berea eta bere senarrarena, biok ezertarako gauza ez direla daudelarik, hemen bertan hiltzen ahal direlarik, senarrak hotsegiten ahal eta egiten ez duelarik; emazteak ez dio ezer entzuten, senarra mugitzen ahal eta mugitzen ez delarik, azkenean berarengana etorki dakusa emazteak, bera jarri eta senarra jarri, senarraren iztar iletsuak ageri zaizkio eta galtza motz zuri-zabalak, zabalegiak: hoztasun izugarrienaz eta garbi-garbi, barrua, ilea ikusten bait dio, oilo-haragi antzeko azal puska eta zakila, kizkur eta zimur, eta gorago, bularraldea saihetsezurrekin, eta matrail-hezur handia eta begiak (senarraren aurpegia, dena begi izaki orain itsasora begira); itsasoa!; emazteak garraixiari ematen dio, eta gizona dena belarri eta gorputzik gabe eta dena begi, baina ezer entzuteke, eta bere bi haurrei begira, algodoi artean korrika eta zineko mugimendu geldiaz antzo itsas ertzean arroketa dihoaztela; emazteak, zerbait gertatu ote den galdegiten bide dion jendez inguraturik dakusa bere burua, ittorik, eta tartean, urrunera bezala, jende horren hotsa entzunez, eta isiltasun hartan, eta mugitzeko zer egin ez dakiela; halako batean, senarra sentitzen du, usainetik, intsensu usaineko arnasatik, eta hurbil sentitzen du bere gisara hizketan, biek hondartza, itsasoa, begiz zeharkatzen dituztelarik berriro, eta orain argi-argi eta isiltasun osoan, sor, olatuengatik, zenbait gizaseme arroketa atera dira korrika, beste batzu

kolorezko toldoetara, eta emaztea bere senarraren begietan bere burua ikusten, senarraren begi zintzilikari eta zurietan, ezer esateke, eta bat batean berari, emazteari, ezetz esaten, ez beldur izateko, itsasoan igeri dabilen hura bui bat dela; halaz guztiz, ondoezta gelditzen zaio emaztea bere besoetan; bera, jendea nola dihoan begira, zenbait guraso haurrak eskutik dituela berarengandik ihesi, bera eta bere emaztea izurria bailiran, hiltzeak jendeari ezer ez balesaio bezala; neska txiki bat, eskuan, hilda bezala, soineko gorriko panpin batekin zihoan; eta espigoi gaineko jende hura beraiei begira, seguraski, ezkutuko iguzkiak argituriko zeruko argi-begi hartatik...

Berak ikusten ez duen norbaitek tarte bat ireki du jende pilo hartan; guztien indarrak batengan bildurik ere, ez lirake gauza izanen haiei laguntzeko, ezin heldu dira ez batera ez bestearen baitara, hain urrun daude, hain bereiz biak gauza orotatik. Neska-motikoak iritsi dira, negarrez, hainbat jende gurasoen inguruan ikusiaz eta ama hilik nabaritzeaz, honi andra bat abanikuz haizea ematen ari zaio, beren senide txikiena falta dutelako. Dendan miatzen ari izan diren gizasemeak badatoz, haurtxorik gabe, eta beste alabaren ateraldia izan da mihi larriaz esan duena:

"Aita, ijitoek eraman ahal zuten"...

Zergatik egin behar zuten horrelakorik ijitoek?!... pentsatzen du bere baitan aitak, eta hala adierazten dio; eta begiratu hartaz oroitzen da, eta litekeen gauza dela ematen dio buruak; gainera, ez du ikusten beste ezer susma daitekeenik. Neskatoak lehenean dihardu, eta negar dagi, eta hondartzan ikusi dituela esan du!...

Noiz!!!...

Duela denbora puskat, bazkal aurretik. Gaur goizean hondartzara zetozen hirurak?... Guztiak adi-adi dagozkio hizketa horri, hots handian ari bait dira aita-alabak; ama hil antzean; eta gizon, emakume eta haur korro trinko eta handia, larritasun haren zine antzeko emozioa urririk bizitzen; aita, ijitoak goizekoak berak ote ziren berritzen du. Neskatoa ez dago arras ziur, kale jantzian ez, baina hondartza jantzian bait zebiltzan: bi gizon. Eta emaztekoa? Ez, emaztekoa ez du ikusi.

Korroko ama batek, ijito hauek guztiak hatzi eta preso eraman behar liratekeela esaten du, neska txiki bat harrapatzeko lain izanik ere libro uzten bait dituzte; ikaragarria!; berari gertatu omen zitzaion, orduan bost hilabetekoa zen bere semeari begi gaiztoz begiratu ziola ijito batek, eta berehala etxera eraman beharrean gertatu zela, eta halaz guztiz, oilo bat harrapatu ahal izan zion! Kamisetan dabilen gizon argal batek, herriko agintariei adierazi behar zaiela adierazten du; non? aguazila hor dago, toldoen inguruan. Gazte batek, bera joanen dela bila, eta lasterka ateratzen da; beste hiru gizaseme darraizkio.

Luze itxoin behar izan dute geratu direnek.

Baina, badator aguazila, eta gizon-emakume-hauer gehiagorekin, emaztea bere onera itzuli den une berean. Agintaria, gizon lodikotea da, bigoteduna, arropaeta ibilera berezikoa eta txapa bat eramanki dator: agintari prestaera osoa du, eta bidea irekitzen diote, errespeto handiarekin. Eta laurak, zorro urdin handia, txikienaren oinetako txikiak, barnean galtzerditxo urdinak: hori da begi aurrean duen ikuskaria aguazilak, dena haretan dago, eta inguruan jende korroa duela; aguazila (jenerala dirudi) gizon itxurarik gabeko ahots mehoz mintzo da, ezer ez du esaten, ezin du seguraski, eta isildu egiten da, eta itsasora eta haretara begiratzen du, eta lapurrek ezkutatoki hartu bide

duten herrira. Besotan neska txiki bat daraman alkondara urdineko gizon batek, han dauden gizonak banantzea litzatekeela hoberena esaten du, eta batzu alde batetik besteak bestetik, bazter guztiak neskatoaren bila miatzea, eta herriko ijito guztiak detenitzea. Bi bider pentsatzen egon beharrik ez, proposamen praktikoegia zen. Denak batera ibiltzea errezago da, nahiz zuzendaririk ez izan, orotarako jendea bait dago.

Esan eta egin: aguazilak herriruntz jotzen du zazpi gizonekin eta beste bi motikorekin, hogeitik gorako sail bat arrokeraruntz irtetzen da, beste batzu hondartza berriro miatzen hasten dira, haurtxoa hare-tolesturaren batetan, paper muturren baten azpian egonen ahal balitz bezala!; gainerakoek, gehienek, bila hasi itxura egin, eta alde egiten dute: butakako ikusle izatetik pelikulagile bihur ditzaten beldurrez, ez dute horrelako erantzukizunik nahi. Horrela, laurak geratzen dira, bakarrik, hotzez dardar, gexal antzean; ama, begizulo handiz eta begiratua itsasoruntz galdua, hondartza jantzian, egun osoan iguzkitan gorrituriko hezurrez, uretatik atera berri den oilo antzo: aita, haren aldamenean, izerdi hotzez bustiriko haren ilea ferekatuaz, gauza orotaz larri: bere emaztea horrela ikusteaz, seme-alaba biak amarengandik aitarengana begi-jauzika haretan negarrez eta hotzez eta gauaren beldurrez dardar ikusteaz... Honetan, zoro gisan erreazionatzen du aitak, zerbait esateagatik bakarrik, neska-motikoak patxarazteagatik, eta bere emazteak ere, txikiena bere gonari josia izan eta hondartzatik irtetzeko orduan, alabatxoa galdua ez balu, bostak batera egoteko zoria izan balu, gauza bera eginen zuela jakinaren gainean: neska-motikoei, beraz, auzoko batzuk utziriko sandia puskak bil ditzatela esan die.

Zaharrenak eskuak betean hartzen ditu eta paper-ontzira doa eta hankaz estalkia ireki du eta hots dagi:

"Aita!!"...

Eta berriro:

"Ama!!"...

Lasterka doa aita, eta soinekog orrizkoa ontzi barruan lotan topatzen du, burua eta txano zuri-urdina belaun gainean dituela, ontzia betetzen.

Ez du itzartzen.

Baizik, korrika eta dehadarka emaztearengana dihoa; hau ez da artean mugitzeko ere gauza, eta arrastaka eramaten du, besoetan, eta haurtxoaren aurrez-aurre eramaten; garraixia dario emazteari, begiak iturri bihurtzen zaizkio, olatu baten kolorea hartzen du, eta bere senarraren esku dardarietatik haurtxoa hartu eta bere hezurren kontra estutzen du.

Gero batera begiratzen dute guztiek: hondartza ia hutsik dago, haizeak garbitu balu antzo; bakarrik, urrenean, arrocketan hila darraien jendea geratzen da, ia ez dira ageri ere, iluna sartua da, eta dehadar dagite, oihi, eta laurak, bostak!, arrapataka abiatzen dira, jazteke, elkar ikusteke, ikurrina amak besoan bildua daramalarik, laurok, denek, ukitu nahi dute eskuz, eta haurtxoa jai horietaz pozik, zoriontsu, arras ongi egin bait du lo.

Jesus haurra jaio da

Amamari, ene emazteari.

Arratsaldeko hirurak baino gehiago da eta oraino bero egiten du; automobilak presaka dabilta, beti bezala: lanari arras emana izaki hiri hau; eta mikrobusak beterik doaz, jarleku bi eskuratzerik ez; hauek hiru dira, baina jarleku birekin eginen lukete; beste gizonttoa amaren altzoan joaten ahal litzateke, ba, jaio berria da ta; Santiago eta Mesede ez dira mintzo gauza hauetaz, bata besteari begiz eta keinuka agertzen zaizkio; ozta mintzo dira hauek, trafiko-zarata honek zoratu behar ditu, eta kokildu, sakon; baina, hor daude, besteak bezala, zai; errenkada buruan dagoen jaun batek itxoiteko esaten dio Santiagori, laster etorriko dela, eta bere txanda utziko diola, bera eta zai dauden beste asko baino beranduago etorria izan arren; haurtxoarengatik eta iguzki galdan kerizperik ez dutelako; errenkadako besteek ez dute hitzik atera, Santiago konturatu da; Mesede-k ere entzun du, eta irrifar dagio delako gizonari, bere esker ona adieraziz, eta bere baitan, semetxo hau hain txikitan halako errespetoaz hartua izatea, seinale ona dela erizten du; haurtxoa ez da gauza hori guztia ikusteko, begiak itxirik dauzka oraino, berri: hain gogor jotzen duen iguzkia ez du ikusi eta, itxoite honetan sobera berotzen duelarik ere; ez dezala nahi izan Jainkoak horrela gera dadin, Sebastianaren semetxoa bezala, hau itsu jaio bait zen; baina, bere semetxo hau, Jainkoak ekarria da, eta Gabon Gauean!, Jesus Haurra mundu honetara etorri zen gau berean; bere semetxoari mirari bat deritza oraino; horixe zesaioten behin eta berriro amaetxean, horregatik zegoen hain ala bera: larritasun guztiak gora-behera, bere semetxoa seinale onarekin, zetorkiolako; izen horixe bera eman zioten, atzo hitz egin zuen horretaz bere senarrarekin, ez zioten Txomin izenik ezarriko senarraren aitazenarena izan arren, beren semetxoa Jesus izanen zen; horixe zen guztia; horrela, bere urte betetzea, Jesusek bezalaxe ospatuko zuen: horrelaxe esaten zion gaixozain batek bularra ematekotan haurtxoa amari ekarri eta begira-begira ipintzen zitzaionlarik, egiaz Jainkoaren Semea bera bailitzan ekartzen bait zuen, Mesede-k, biona, Santiagorena eta Mesede-rena eta ez beste inorena zela zekiolarik ere; halaxe zen, eta bai ona!; bero galdak lehenean darrai, Caracasko su hau amairik gabea izaki, eta Mesede-ren aurpegia dirdir dago, Santiagorena bezala, eta horixka gainera, itxoite horretaz akiturik bait dago; horrela dakusate elkar biek, eta ez dira arduratzen beren buruaz, haurtxoaz baizik; hau bilbil eginik dago, amak bere buruaz dagion kerizpetxoan arnasa hartzekotan sudurra kanpoan duelarik; halako batetan heldu da mikrobus bat!, eta buzo urdineko gizonak aurrekaldeko atea irekitzen du eta, agindu bezala, bere txanda ematen die, eta hau suertea!: atzekoaldetik emakume lodi bat ateratzen da; horrela, gizon gaztea ere sartzen ahal da; bai, halaxe da; Santiago sartu orduko atea itxi, eta atzekaldean sartzen da bera; hori jendetasuna!; honelako bati esker ona zor zaio; Santiago, sonbrailua kendu eta atzera jiratzen da jarlekuan, eta delako gazte mehe eta aurpegia grasas beterikori, arras fin jokatu duela esaten dio, eskerrak damaizkiotela berak eta bere emazteak eta ia hiru eguneko den beren haurtxoak ere orobat; jakina, ez dio horrela esan, baizik begiak beheratze hutsaz adierazi

dio hori; Santiagorengan keinu hori gorputz osoz makurtzea bezala da; gazteak ongi konprenitu du, eta irrifarrez erantzun dio; beste ezer gabe; eta autoa abiatu da, ibilaldi laburrak egiten ditu eta frenaketa asko eta idi-gurdi batek antzo negar; barruan areberoago egiten du, eta izerdi mikatz eta zaharraren usaina dario, gizon-emakume askoren usaina, botika antzeko usainarekin nahastua; Santiagok lehenean darrai, esker oneko sentimendutan, eta automobilaren sapaira daramatza bere begiak: oihal urdinxka bat da, bi joscara luzez egina, eta beste txiki asko josiak, arras narras josiak, hari beltzez, eta laino antzeko olio mantxaz beteak; hasieran, atzera jiratzean, bost buru ikusi ditu nor bere lepagainean kokatuta, denak desberdina, bat beltza eta lodikotea, txoferrarena, eta denak tente, isilik, behin ere elkarrekin ez egoteagatik konfiantza faltaz inondik ere; orain, bere aurreruntz dakartza begiak Santiagok, eta beroa sentitzen du, bero handiago, haizeak joan-etorriarik ez duelakotz izan behar du, itxirik, geldi eta sasia bezain trinko dagoelako; Caracasko haizea beste edozertarako ona izanen da, baina bere, bere emaztearen, bere semetxoaren arnasketarako ez; eta Mesede-ri begiraten dio, eta honek kasorik ez: ahurtxoarengan eta txoferrarengan dago murgildurik; txoferra, gizon lodikotea da, bigotekin, isila (Caracasco aloger-txoferretan ez dira beste bi izanen hainbat), aurrera beste inora ez du begiraten, dakusan guztia automobil berdeak eta tarteka karretera haize-burrunba antzo zeharkatzen duen jendea da; Mesede-ri, Santiagorekin ezkontzekotan La Aguada-ra joan zen garaiko Caracas datorkio burura; Santiagok arrastada bat sentitzen du sonbrailuan: zera da, mekaniko gazteak dirua luzatzen duela (Mesede-ren buru gainetik besoa daramala), eta txoferrak burua itzuli gabe, besoa ateratzen dio bidera, eta ordaintzeko garaia dela konturatzen da Santiago; badu zerekin ordaindua, zerbaitegatik ausartu da Caracasera etortzera, eta sonbrailua kendu, burua aurreruntz makurtu eta, ahots mehez, zenbat den galdegin dio; txoferrak, bilivar bat dela esaten dio; sudurzapi muturrean du dirua Santiagok, eta bolivar bat atera eta Mesede-ri luzatzen dio txoferrari eman diezaion; txoferrak ez, baina bere emazteak esaten dio Santiagori, ahapeka, bolivar bat bakoitzagatik dela, eta bi direla; Santiagok berriro korapiloa askatu eta nikelezko bi errealez eginiko beste bolivar bat ateratzen du, eta ez dio dirua lehenbizikoan ematen, baizik emazteari begiraten dio eta begiz Jesus haurra seinalatzen dio, eta Mesede-k ezetz erantzuten (eta ezpain barrutik far dagi), haurtxoak ez duela bidaririk ordaintzen; eta oraingoan, bai, bi bolivarrak osorik ailegatzen zaizkio txoferrari, Mesede-ren eskutik zehar, eta hark eskerrak damaizkio: benetan, ez da itxurakeria txofer honengan, eta automobil osoan entzun da, eta kartoizko kaxa batetan ipini ditu txanponak, bolantearen aurrean, oholari ezarririko Ama Birjinaren irudi baten ondoan; Mesede-k ongi deritza txoferraren fede horri: guztien beharrean izanen da Caracasen igaro beharko dituen hainbat arriskutik onik atera ahal izateko, zoratzekoa bait da hemengo trafikoa; senarrari esaten dio hori, begiz, eta senarrak baietz: ikusten den gauza da; isiltasun hori ere gauza pisua suertatzen zaie biei, beruna bezala; dehadarrak eta trafikozainaren txistu-hotsa entzuten dira, eta frenu-hotsa, eta irentsi beharrean gainera datozkizun autobusaren haize-burrustak, hori eta gehiago jasan behar duzu Caracaseko trafiko honetan, eta orain Santiagori gertatzen zaiona gertatzen zaizu: belarriak kristal hautsi baten antzeko nabari dituzula; eta lurrera begira ipintzen da Santiago, gomatik, hots, eguzkiaren gainberotik begiei atsedena ematearren, eta bere emaztearen oinak dakuski, bertan lan egin zuenean midikuaren

emazteak eregalatu zizkion eta La Aguada-n gauza aberats diren oinetakoez jantzirik, eta hankak hutsik, mehe eta more nabari dizkio, eta gona kizkurtu txurian pildun urdinak ere ikusi dizkio; gero, disimuloz jiratu egiten da bidelarien aurpegiak begiemateko, astun daude; beroarengatik eta lizun usainarengatik izan behar du, beltzari darion usainarengatik agian, beltzek usain txarra botatzen dutela bait diote, baina nork daki?, zurien esana izaki hori; gero, beste automobilei begira jartzen da, atsedean hartu nahiaz-edo, eta bost minutu badaramatza andre bati lepezamarrera begira, bere ile beltzen xingola gorri bat daramanari, eta delako automobilak alde egiten dio begi bistatik eta berriro agertzen, denak pare antzean bait dabilta gutxi gora-behera; motorrak misterio iruditzen zaizkio, hots desberdina bait darie, barruan bizi den zerbait balute bezala; hori guztia nabaritzen du; baina, sentitu, isiltasuna sentitzen du potzu zulo honetan; txoferra isilik doa, eta, atzekaldean, gazteak ere ez du ahorik irekitzen, eta bere aldamenean jarririk doazen bi emakumeek, arras apainduak, eta ama-alaba bide direnek ere, ez dute ezer esaten; mendiko bakea bakartasunetik dario, muino haietan ezer esateko inor ez izatetik, baina hemengo hau, jendearen mututasun arraroa da, aski astuna; Santiagok lotan bide dagoen bere semetxoari begiratzen dio; neskaita automobiletik jaitsi egiten da, ama ez; ez du izan behar bere ama: Santiagok ezin du sinetsi, alaba bat amari ezer esateke jaitsi daitekeenik, ezta Caracas batetan ere; eta jaun bat sartzen da, makilaskuan, sonbrailua buruan, eta atea itxi orduko, irratitari emateko eskatzen dio txoferrari, mesedez; beltzak ez du bururik jirutzen, baizik atzerako ispilutik begiratzen dio sartu berriari, eta begiz, irekiaz, keinu bat dagio, eta ezpainez, zer gertatzen da? galdeginaz; gizonak, mesedez, irratitari emateko eskatzen dio, garrantzizko berri bat ematen ari direla eta; bere alboan duen emakumeak, berari bakarrik dagokion gauza bat entzuten egon behar duten galdegiten dio; Santiagori ez zitzaion inoiz burutik pasako, halako emakume ongi hezitako batek, jazkeratik ematen zuenez, bere senarrari halako erantzun gogona eman behar zionik, are gutxiago kobratzeko jaun hura bezalako ezezagun bati; Mesede bera ere jiratu egin da jaun horri begiratzeko; beltza behatza irratiairen botoiari ezarriarik dago, zer eginez dakiela; delako jaunak, mikrobuseko guztiei mintzoki, berari bakarrik dagokion arazoa ez, baina mundu guztiari dagokiona dela esaten die, eta ea mundu guztiari interesatzen zaiona mikrobusean dihoazen andre-gizonei ez ote zaien interesatuko; oraingoan andreak beheratu egiten du ahotsa, eta irratia zein arazotaz mintzo den galdegiten dio; gizona Ilargira heldu delakoaz eta une honetantxe Lurrera itzultzen ari delakoaz; beltza zerbait entzuna da gai horretaz inondik ere, zerbait esan bait du eta botoiari eman bait dio, baina behar zenari ez, jazz musika atera da eta, eta entsegu biren ondoan ateratzen da mikrobusean doazen inorena ez den ahotsa (Santiagok badaki hori, denak ezagunak zaizkio dagoeneko), eta txistu-hots, lerramendu eta beste zaraten artean mintzo dena, zenbaitetan beste zenbait ahotsekin nahasten dena, jaun honek esaten zuen gaiaz mintzo dena: Ilargitik hiru gizon ari direla ailegatzen, baina nola itzul daitezke gizonak Ilargitik, haruntz, haingora heldu zein direnez gero?, eta bere andreaki begiratzen dio, Mesede-k irratia dionari adi-adi dagoela ematen du, eta berriro lehengo jauna bera mintzo da, eta, "Kito -esaten du-, sartzen ari dira", eta alai antzean dago, hain urrunetik tarterikoren bat iristen ari balitzaio bezala; Santiagok bere arreta berritu egiten du, eta zaratari eta ahotsei adi dagokie, hitzen bat edo beste, atzerritar delako ulertzen ez badu ere; hori ipar-

amerikarren garaipena dela esateko ausardia izandu aipaturiko jaunak, errusiarrak atzera geratu direla karrera honetan; mekaniko gaztea bipil dago, hala ematen du bederen, hori ez dela ilargira ailegatzea esan bait dio: oraino ikusteko dagoela nork ipini dituen bere zangoak han; eta denak isildu egiten dira, irratia ez bestek, eta gazteak arrazoin duela pentsatzen du Santiagok, eta norbaitekin bat etortzekotan, gazte horrekin datorrela, beraiekin hain fin jokatu duenarekin; honetan, txoferrak ere badu zer esanik: edozer gauza delarik ere, gauza handia dela hau; eta lehengo jaunak, baietz esaten du; besterik ez; eta irratia hizketan darrai, behin ere isiltzen ez dena da; honek guztiak, halako hitz-hotsak ez dio batere onik egiten Mesede-ri, ondoezta sentitzen du bere burua; bekokitik izerdi hotza dario eta urdailean mina sentitzen du, goragurea bezala, eta ez du horrelakorik nahi: nolaz egin lezake horrelakorik toki honetan; Ene Jainko eta Ama Birjina!; ez dio ezer adierazi nahi Santiagori, zertan lagun dezake honek?; eta orain, gainera, beste zerbaitetan pentsatzen bide dago; baina ez, Santiagori arduragarriago zaio biekiko arazoa eta haurtxoarekikoa ameskeria horiek guztiak baino: Merida-ra onik iristea du bere ametsa, hori joan-etorri handiagokoa du, eta bere baitan, Mesedek arrazoia zuelakoan dago, nahiz dena ez atera honek nahi zuen bezala; nahi izan zuena, haur-egitea gauza zaila izan zezakeela esan ziotenean, Oramas midikuarengana joatea izan bait zuen, urtetan neskame izan zitzaionarengana; gertatu zena, Mesede-k atarian tupust egin eta erori egin zela, zazpi hilabeteko zegoelarik, eta hau zuela lehenbizikoa; ez zuen duda-mudan geratu nahi izan, ezta Merida-n ere; horregatikekin zion bideari, eta larritasun hartan, Santiagok ez zuen hartu etxetik autobuserako bestetarako, horixe bait zen zeukan guztia; Jainkoak eta Ama Birjinak asko lagundu zioten, Gabon Gauean bertan jaio bait zitzaion semetxoa, Jesus Haurra bezala; senar-emazteak ez ziren konturatu ere egokiera hartaz, baina bazen amaetxean monjatxo bat seinalei adi zegoena, eta horregatik bakarrik zaindu zituen horrelako arretaz; Mesede-ri salda eta haragia, hoberenetakoa, ematen zizkion, eta senarrari, galazita zegoelarik ere, siloi batetan lo egiten uzten zioten; midikuek ere halaxe esaten zioten: suerte handia zela hala jaiotzea; horretan ez zuen merezimendurik senarrak; izatekotan ere, Mesede-k...; eta lokutoreak alai ematen zuen zegoela, eta lehengo jaun hark ere bai, bere jarlelektatik bidelariei bihotz ematen bait ziharduen, eta beltza farrez ari zen, eta atzekaldean zetorren andreak pozik bere baitan kabitu ezinean ematen zuen, irrintzi bat ere atera zitzaion, ba; denak pozik ematen zuten, mekaniko gazteak ez beste guztiak, honek ez bait zuen hitzik ere esaten, eta Santiago ere isilik zegoen, orobat honen emaztea ere, eta, jakina, Jesus txikia ere bai, negarrik ere ez zegien eta; Santiagok berriro irratira makurtu zuen bere belarria, besteak zertaz pozten ziren jakinminez, eta lokutoreak Ilargitik zetozen hirurak onik zeudela esaten zuen, eta munduko haur guztiei bidean hiru Errege Magoak ikusi zituztela esan nahi zietela, eta haiei itxoiteko, gameluak erregaliaz zamaturik zekartzatela eta; Santiagok emazteari begiratzen dio, hau irrifarrez dago; eta bere baitan, gizon horiek nolaz ikus ditzaketan Errege Magoak pentsatzen du, hori guztia asmakeria denez gero; horregatik, seguru dago, irratia ematen ari den guztia nobela bat dela, eta gazteak ez daukala zertan haserretu horregatik, ipui bat denez gero; Mesede-ri oso atsegingarri zaizkio irratiko nobelak, hala esaten zion senarrari beti La Aguada-n Caracas-en zegoeneko gogoratuz, eta, inolaz ere, orain ere arras gogoko zaio, eta senarrak berriro begiratzen dio, eta bekokitik behera izerdi tantoak nabari dizkio, eta

kolpetik emaztearekiko ardura biztu zaio Santiagori, eta aurreruntz makurtzen da, sonbrailu eta guzti, irratiaz mintzo dena ikusiko balu bezala dagoen emazteak begietara begira diezaion, eta denbora berean galtza urdinen sakeletik sudur-zapia atera du eta bekokia txukatzen, eta sonbrailua kendu eta haizea ematen dio berarekin; jakina, senarraren begietara zuzentzen ditu bereak emazteak, baina ez du ezer esaten, irrifar dago, agertu dion arduraz eskerrak emateko beste ezer baino gehiago eta, ondoren, begiak isten ditu ondo ezta dagoela adieraziaz, baina laister joanen zaiola, ezer ez dela; jadanik Santiago ez dago lasai, asko ari da jasaten emaztea inondik ere; baina, ez daki zer egin; haurtxoak berak hartu?; Mesede-k ezetz esaten dio buruz: ez zaiola ongi iruditzen bi egunetako haurtxoa Santiagoren eskutan uztea...!; eta irratia kapsula eguratsean sartzen ari dela dio, eta aidea ukitzean, izar bat antzo biztu dela; lehengo jaunak, lokutoreak baino ozenago hitzeginaz, oraingo gauzak ez direla lehen bezala esaten du, Erregeek izarrei jarraiki bide egiten zutenean ez bezala direla, orain hain zuzen hiru Errege Magoak izaten ahal ziren hiru gizonak izar barruan zetozela; eta-farrari erasotzen dio; eta irratia hizketan darrai, astronautak abenduaren 27 honetan ari direla jaisten, arratsaldeko hiru terditan, eta kapsula iritsi urren dagoela eta ia egunsentia dela eta baporeak zeru-ontziaren zai daudela beren argiak bizturik, ilunagatik; mikrobusa gelditu-abiatu dabil, astiro, autobusaren geltokiruntz; momentu honetan, beste automobiletatik ere entzuten ahal da irratia, denek mahats-zuku bat ematen bait dute; noizbehinka bere emazteari begiratzen dio Santiagok, gajoak kementsu darrai, gero eta horiago badago ere, beroagatik izan behar du, bera ere izerdi patsetan bait dago; haize izpirik ez da, ba, sentitzen; oraingoan, lokutorea beste inor ez da mintzo mikrobusean; bada beroa ez den beste zerbait ere hor barruan, aidean urturiko gaitzen bat edo ematen duena, eta gorputza tente, gaixo jarri diona, eta seguru dago, gaitz hori bera ari zaiola Mesede-ri ere azpi-lanean; egia da: emazteak txit ondoezik nabari du bere burua, eta frenatze oro, astinaldi oro, zulatu mingarria gertatzen zaio, semetxoa atera zaion tokitik zerbait sartzen ari balitzaio bezala; semetxo gizajoa, hain patxaratsua, hain lotan: monjak esan zion, egunen bat edo beste gehiago gelditzen ahal zela, baina Mesede-ri ez zion onik egin beste emakume bat ohe berean sartzeak, toki faltaz; aski estua zen ohe hura haur izan berria zen batentzat; bestalde, berak, ohean, bere ahizpa Miren edo Santiago beste inor ezin jasan zuen; horregatik, oso ongi zegoela esan zion monjari; gezurra; eta batere beldurrik gabe esan zuen, eta ordurako erdiminetan zegoen emakume argal harek Mesede-k baino ohe-premia handiagoa zuelako; nahiz eta emakume hark berak baino suerte hobea izan zuen: haurra egiteko orduan oherik bai bait zuen!; gainera, Santiagori ez zitzaion batere gogoko gaixoetxe hartan jarraitzea, begitan atzeman zion; orobat, berak, Mesede-k, haurtxoa haur-gelan zai bait zeukan, ez bait zioten ekartzen bularra emateko bestetarako, eta ez zen Santiago bakarrik, bi baizik berak ohea utzi zai zeudenak, hirurok Merida-ra atera ahal izateko, Oramas jauna ikusi ere egin gabe, orain ez bait zeukan zertan nekarazi; Mesede-k hori guztia zuen bere gogoan, eta arrazoin asko zela pentsatu zuen, eta adierazten ez zuen kezka bat ere bazuen (oraintxe gogoratzen ari dena), baina inori esaten ez ziona: semetxoa aldatzen ahal ziotela besteren batekin!; horregatik erregutzen zion Santiagori begiz, noizbehinka erreparatzerajoa zedila eta Santiago joan egiten zen, eta ordutan geratzen semetxoari begira, kaiola antzeko sehaska hartan, inork uki ez zezan, eta amari bularrera

ekartzerakoan gaixozaina gelaz nahas ez zedin, haur berdintsu asko bait zegoen han!; eta Santiago fiakaitz, beti atzetik; urrunetik, jakina; hori guztia bazen bai zerbait, horregatik irten ziren; eta horrela doaz orain, ongi; Mesede-ren zorabio punta eta joskuretako orratz-mina gorabehera: automobilean daraman jarpostuaren nekea izan behar du; baina, mina joanen zaio, joanen ahal zaio!; semetxoa besoetan darama lotan, eta senarra bere aldamenean jarririk; urduri, larri nabari du emazteak; gogor, alabaina; hala izan da beti Santiago beldur handiena eraman arren; horregatik da halako gidari preziatua Bolivar Tontorrera doazenek hain gogotik bilatzen dutena; irratia beti berriketari, ia egunsentia dela, eta hiru astronautak ia heltzeko daudela; Santiagok, bere baitan, ia eguna argitzen ari dela nolaz esan daitekeen pentsatzen du, arratsaldeko hiru terdiak baino gehiago direlarik, beste toki eta paraje batetaz mintzatuagatik ere, iguzkia ordu berean ailegatzen bait zaie guztiei, han Los Nevados-en, bere gurasoen jaioterrian, nahiz La Aguada-n, bera eta Mesede bizi direnekoan, nahiz Caracasen, semetxoa jaio den hiri honetan, guztiei (beroago edo epelago) ordu berean iristen bait zaie iguzkia, han goian bait dago guztiei argi eginaz, ez ala?, horixe galdegiten dio bere buruari, eta hala dela esaten, ez daitekeela bestela izan; emazteari begiratzen dio, geldi dago gajoa, autobusean zetorreanean gertatua berrituko ote zaion kezka egotea ere badaiteke, orduan ere autobusean sentitu bait zituen minak; Barquisimeto baino haruntzago jazo zitzaion hori, eta gau iluna zegoen, eta inork ez zekien zer egin, ezta txoferrak ere, autoa gidatzeko ipini zutela bere eta ez sortzainetarako, aldeztatik kontuak ateratzen ahal zituztela beraiek ere autobusa hartu aurretik, eta berak etxera iritsi nahi zuela Gabon Gaueko afaritarako, berak ere emaztea eta seme-alabak zituela eta, eta kautxuarengatik izandako atzerapena aski luzea zuela; Santiago ongi jabetzen zen horretaz guztiaz, eta ez zion tutik erantzuten, Mesede-ri jarlekuan heldurik zegoen, honek bakarrik eraman ezin halako oinazeak bait zituen, eta horrelakorik nolaz gerta zitzaiekeen pentsatzen zuen, menditik jaitsi eta horrela haurra egin behar!, bidean, behi batek bezala, eta okerrago, autobus batetan; eta ezin asmatu zuen emaztearen ondoan egotea besterik, eta txoferrari ere konprenitzen zion, baina ongi eginen ziokeen Mesede-ri halako oinaze gogorak heltzean autobusa geratzeak, zulotan jauzi handiak egiten bait zituen autoak, eta bihurtzetan eta beste autorek bati aurrea hartzean alde batera joaten: zenbaitetan, Santiagori autobusa eta guzti ibaira zihoa zela iruditzen bait zitzaion, edo mendi baten kontra, edo bidean landaturiko geziek ematen zuten etxe argituen kontra: halako abiada zeraman auto hark!; bien bitartean, bidelariak eroskor sumatzen zituen, beraiekiko haserre, begiratu ere egin nahi ezta, Eguberri-afarira heltzen ez baziren, beren, Mesede-ren eta Santiagoren errutzat jotzen zuten...; Santiagok berriro emazteari begiratzen dio, eta lasaiago topatzen du, beti bezala begiak gorde antzean bada ere, eta irrifarrez: emazte hau adoretzu eta jasankor izaki, eta Jainkoak zamatuta ahala eramaten dakiena...; honetan, irratia hiru gizonetaz ez dela ezer entzuten esaten du, eta zerbait gertatu ote zaien; mikrobusean guztiak arazo horretatik zintzilik daude, eta korbatatzko jaunaren ateraldia da ederra: ea, zertan ote dagoen Jainkoa astronautei buruz, zertan aingeruak gizonen zeruko ibilaldi honetan!?!; ez du far egin arazteko esana, ez; benetan ari da eta hotsandian bere buruari galdezka, hala ematen du; Santiagok ezin du asmatu zein asmorekin ari den hori esaten, eta idurikoi hartzen du hori guztia, eta gogo-ernez: ipuin bat izan bait daiteke, eta, izan ere, hala izan behar du, eta gizon horren hitzak osorik

entzun nahi ditu Santiagok, gerta bait daiteke osorik ez iristea berarengana, eta sonbrailua erazten du eta belaun gainean ipintzen, ile trinko eta beltza agerian utziaz, eta besoaz bekokiko izerdia txukatzen du, eta burua aulkiaren bizkarrean atsedeten, oso osorik entzun ahal izateko, eta begiak zorrozten ditu arretatsu behar horrekin, eta sapaieko oihal urdinera doazkio: goi aski zikina eta zarpaildua da; eta ez du batere ahaleginik egiten, baizik eta begi nekatu haiek inongo nekerik gabe hiru gizon ikusten dituzte, suziri batetan kokatuak, sorgin-orratz batetan bezala, joskuratik jaisten, hari beltzeko izarren eta olio mantxen tartetik, farrez, eta aingeruak hegaka inguruan, eta jostailuz beteriko gurdi bat eta aidean txistu batean ikusten du, eta beste jostailuren artean gurditxo gorri bat idazkun bat ezarririk, eta begiak ezartzen dizkio, baina irakurri ezin (ez daki eta), eta orduantxe ateratzen da suziri azpitik grasaz zikinduriko mekanikoa eta gurditxoa ematen dio, Jesus haurtxoarentzat dela esanez, eta bere eskutan hartzen du, eta aparato haren gidaria beltza da, Baltasar bide dena, eta mikrobuseko txoferraren aurpegia bera duena, eta bizarrez eta betaurrekoz erdian datorren Erregea, lepotik hegoak dituzten eta Merida-n ikusi dituen bezalako aingeru-buruak darizkion pita-haritik datorrena, atzekaldeko jarlekuan doan jauna da, eta hirugarren Erregea bera da...; alboan ziztada bat sentitzen du: gertatu dena, bere zurrunga bat entzutean itzartu egin dela, eta bere emaztea dakusa aurpegi ilunez berari begira, eta automobilean lo egitea gaizki dagoela konprenitzen du; betiko jauna astronautak zeruan barna Jainkoaren beldurrez dabiltzala azaltzen ari da, eta bezperan Bibliako pasarte bat irakurriak zirela, Ilargian bira zebiltzelarik, eta delako pasarte hori sei egunetan mundua sortua izan zelakoz mintzo dela; Santiagok atzera begiratzen du, gizonari aurpegira begiratzeko, hura ere lotan eta ametsetan aritzea bait daiteke; baina ez, agurea arras itzarririk dago, eta espazioa gero eta melarragoa egiten ari dela esaten dihardu, eta Ilargia ez dagoela lehen bezain urrun; Santiagok ez du sinetsi nahi horrelakorik, mugagabetasunaz hitzegina bait da kristau-ikasbidea eta, orobat, Gabriel Aita ere, eta hori ezin eskuratzen ahal da inoiz, eta gizon horrek diona, hots, hori ez dagoela hainurrun egia baldin bada, zer dela eta ez dira oraino erori itsasora edo beste edozein toki batetara, ordu erdi baino gehiago bait daramate erori eta erori, eta hori ezin gertatzen ahal zaio harri pusketa bati ere, eta zenbatez gutxiago tresna batetan zaldikari datozen hiru gizonen pisua ez bait da oilo-luma batena!, eta horrek guztiak nobelaren bat izan behar duela, eta ezin konprenitu duela nolaz egon daitekeen jende hori guztia irratiz botatzen ari diren ipuin bati begira; nora ote datorren gero bere semetxoa, Gabon Gau batetan heldu dena eta, agian, Kristoren zoria bera jasaiteko: gurutzea leporatzeko; horixe izaki bizitza, ez dago besterik hemen behean, Ilargian ere ez seguraski..., eta berriro irratiko hitzei ezartzen die belarria, minutuak kontatzen ari direla eta segunduak, eta jauskailua ireki dela dio korbatzko gizonak, oraintxe!, lauretarako laurden baten faltan; emaztea hizketari lehen baino adiago dagoela konturatzen da Santiago: bere burua hobekiago nabari duelako seinalea, eta semetxoa oraino lotan dakusa, eta oraintsu ametsetan ikusi dituen aingeruen aurpegia bera duela, eta irratia zarata handia ateratzen du, eta, beti, korbatadunak hitz dagi, eta orobat beraren atzekaldean dihoan emakumeak ere, eta, denbora pasa, beraien mikrobusaren ondoan gelditzen diren automobilei begirajartzen da, eta jendea hileta batetako aurpegiz nabari du, eta noizbehinka haize-ukituren bat sentitzen du, eta beroa ez da hain zakarra;

honetan, oi hu batek itzarrarazten du (bai, oi hua izan da!), eta laurak bederatzi gutxi dela adierazten du korbata dunak, punttu punttuan, eta hona itsasoratua suziria!, eta Ilargitik oso osorik jaitsi direla, onik; Santiagok, Magoak dauzka buruan, orain ordea gamelutan ez, baina tresna batetan etor erazten dituzte, ipuinak gaurkotu nahiean edo, eta gaurko haurrak zeruaz jabetzen joan daitezten; emazteari begiratzen dio, eta Mesede semetxoari begira dago, zorientsu dakusa, bere sabelean zeukanean bezala, zernahiz ase, mikrobuseko zarataren nekerik gabe, gorputz osoko hotzaldiaren ondoren berak sumatzen duen bero kixkalgarriaren atsekaberik gabe, bere besotan patxadan, gauza handitarako gai ez direlarik ere, haur jaio berri bat eramateko gai bait dira, jaio berria berea izanez gero batipat; horrela sumatu zuen bere burua Ama Birjinak ere Jesus Haurtxoarekin, nahiz zorion handiagoz, jakina; bere, Mesede-ren semetxoa, Marianarena bezala, larri heldu zen mundura, autobusa Caracasera baino lehen jaio baitz zen, Gabon Gauean, eta bera ez zen beste ezertaz oroitzen itzartu bitarteko denboraz; aldamenean bere haurtxoa zuela!; aldamenean Santiago zuela!; eta bere senarrak ez zion hitzikere esan; begira begira zegokion, gehiagorik gabe; berak asmo horrekin ohe gainera luzaturiko eskua ere ez zion hartu, ez zen horretara ausartu Santiago, gaixozain bat aurrean zegoelako; orain, bere senar gizajoa autobusean bera jarlekuan eutsiaz egon zenekoaz gogoratzen da, eta autobusera igoaz gero lehenengo aldiz hizketan entzun zuenekoaz: halakorik, mesedez, ez egiteko, ez uzteko bideko edozein etxeren batetan!, Merida-tik zetozela biak, emazteari haurraldi gogorra zetorkiolako, eta, agian, haurra onik alerako bazen, ireki egin beharko zutela Mesede, eta etxe haietako batetan uztea, haurraldi gaizto batez odol hustutzeko mendian uztea baino okerrago izanen zela; eta bera, Mesede, larrialdi hartan jende aren isiltasunaz ohartu zen, baina bere senarraren egoera larriaz, berarenaz eta jaiotzear zegoen semetxoarenaz kupituaz ez, baizik estuasun hartan eskua luzatzera beharturik zeudelako izuaz zela pentsatu zuen jendearen isilaldi hura; pentsamendu horrek min handia eman zion; gainera, autobusa aurrera zihoan, jauzika: bazirudien, bera mendian behera kaxa batetan sartuta sorbaldan zeramatela lehenengo aukeran amildegian behera botatzeko; horregatik ukan zuen orain ere halako beldurra, lehenagoko hura etorri bait zitzaion berriro burura eta hiltzen ikusi bait zuen bere burua, eta ez zen oinazengatik bakarrik izan, autobuseko begi guztiak neke eta atzerapen guztien errua berari egotziaz berarengana zuzendurik nabari zituelako ere bai; aldezturik jakin izan bazuen Oramas medikuarengana ez zela iritsiko, ez zen etxetik mugituko ere, edo, gehienera Merida-ra jo izanen zuen, haurra egiten bizia eman behar izanda ere; semea ez!; horrelaxe izan zen: oinazeak batzutan baretu, itzali, bestetan haundiago, ikaragarriago: handiago!, zer zen gero hura?; han bertan haurra egin beharko zuelako kezka!, denen aurrean!, kamioi bat bezala balantzari zihoan autobus hartan...!; orain hobekiago nabari zuen bere burua, joskurak ere ez zion halako minik ematen; eta irratiko lokutorea beti berriketari, eta irteerako ataka irekitzen ari direla dio, astronautak ateratzen ari direla, banaka-banaka helikoptero batek jasotzen dituelarik, eta han irratian norbaitek izkirimiriren bat bota duela: baietz orain lau gizon atera, esanaz; Mesede-k ez du jaso ahal izan izkirimiria, ezin ulertu du nolaz atera daitezkeen lau gizon Ilargira joanak hiru izan direla diotenez gero; gizon horien artean emakumeren bat joan izan balitz bakarrik gertatzen ahal zela hori, baina Santiago bezalako hiru gizonezko direlarik, nolaz irten

daiteke bat gehiago?; gizonezkoek ezin dutela haurrik egin eta, ez dutela beste zenbait problemarik ere, berak Santiagorekin ezkondukoan La Aguada-ra joan zenean izan zuena esate baterako: bekaiztiak Caracaseko medikuak ezarririko sabel-pardela zeramala esaten bait zuten, eta midikuak behinere ukitu ez zuelarik!, eta berak Don Gabriel ikustera joan behar izan zuen eta harekin aitortu zen eta Santiagori hitzegiteko eskatu zion, helkor samar zela eta esanaz, eta egun batez han agertu zen etxean Gabriel Aita, eta senarrari lasai egoteko esan zion, semea Aitak zionarena zuela baieztatuaz; halere, nork jakin zer pentsatzen zuen Santiagok bere baitan?; baina, egia hutsa da hori, mediku asko hirian beren seme-alaben haziaz dauden baino seguruago egoten ahal da Santiago bere semea hazi horretakoa delakoaz...; irratia, ia laurak direla esaten ari da; eta Mesede-k bere senarrari begiraten dio, irrifarrez, ongi doala adieraziaz, hobekiago dagoela; Santiagok bere emaztearen begi beltz eta txinaturikoetan irakurtzen du hori, eta arnasa hartzen du, autobuseko larrialdia aski pisua izan zuela pentsatuaz, eta bere buruari galdezka ari da, ea nola izanen diren lau Errege haurren ipuinetan izatez hiru bakarrik izan zirenez gero, eta gezurra bera ere, Jainkoarekikoa izanez gero, errespetatu egin behar dela: egia bait da, hiru izan zirela haurrari erregaliek eta etorritakoak, eta orain urteoro heltzen ez badira, edozeinek jakiten ahal du gizartean bizi ez direlako dela, eta arazo hori guztia haurrentzat sorturiko asmazioa dela, nonbait Errege horiek bizi izan zirela konpreni dezaten, eta gaur bizi bailiran errespetatu behar direla, egia betikoa dela, eta ez norbaiten buruan dagoena bakarrik, baizik beren izenean beste batzuei egin erazten dizkietala gauzak, beren izenean, ze, Erregeak egiaz batengana ez badatoz ere, Mago horien lana bait da zenbait emakume horretarako izan dadin egitea, Mesede-ri haurrarentzako usain bikaineko kolonia ekarki heldu zitzaion monjatxo bezala; orobat, zenbait gizonezko izan dadin, ama etxeko medikuetakoa bat bezala, zigarro-puru bat erregalatu bait zion Santiagori, Urte Zahar gauean erreko duena desertuko etxolan, bizi guztian besterik erreko ez badu ere, usainezko ke hau bere semetxoarentzat izanen bait da; orobat, Magoek dagite, beste zenbait gizonezko izan dadin, atzoko saltzailea bezalakorik, bost bolivaren bueltak eman ordez hamarrenak eman bait zizkion, eta Santiagok, ohartzeke jaso egin zuen urrea, edo zilarra, edo zernahi zela, eta, zenbait orduren ondoren konturatzean, adierazi egin nahi izan zion baina ordurako aldeginaren saltzailea, joana amaetxearen aurretik, halaxe zen; eta bere semetxoari ezin heldu ahal izanen zitzaizkion erregalia haiek, antzina irakaskintzako Errege Magorik izan ez balitz; orain badaki, irratia eman duen egunarengatik eta bere semea jaio zen egunarengatik, oraino ez dela Erregeak etortzeko eguna, beren garaian bait datoz, lehenago ez; suziri batetan ipintzen badituzte ere, ez datoz denbora baino lehen; eta iristen dena, panpinak izaten dira, eta ez Erregeak, gauza orok bere denbora behar du, ba, heltzeko eta fruitua ekartzeko; Santiago, lehenengo aldiz, bere emaztearen eskuaren bila dabil, zerbait esan nahi dio, eta horretarako, bere sonbrailua jantzi egin du; bere eskuak ez du topatzen Mesede-rena, jarlekuan ez, baina semetxoari ezarririk daukalako; Santiagoren esku handi eta baldarra bere iztarrean sentitzen du emazteak, eta zerbait esan nahi diola ohartzen da; arreta guztiz (Santiago begira begira daukala), bere besoko pardeltxo aldatu egiten du, eta eskua ematen dio senarrari; gainean ipintzen dio, esku hori aisa hartzen du berean, eta babestu eta estutu egiten dio leunkiro, gehiegi estutu gabe, eta bi eskuak bata bestearekin sumatzen dira, eta badakite gauza orotarako

elkarrekin daudela, dena ongi aterako dela; hain ondo ere, non jende asko etorri bait zitzairen beren semetxoa ikustera abenduaren 24 batetan jaio zelako, adur oneko izarrarekiko ukituak zerbait erasten ahal zietelako uste hutsez; nahiz eta inork ez jakin, Jesus izena eramate hutsaz, semea seinale onarekin heldua denik; hiru erregaliak ekarri zizkiotenak berak ere ez ziren konturatuko egutegian eta gurasoengandiko fedean seinale horrek dionaz, gehiago arduratzen bait dira mesedeak hartzeaz, beste ezertaz baino; gauza horietan dute beren burua, orobat eskuak; halere, Mesede aski itzarririk dago kanpoko gauzetaetamikrobusera; hau geratu egin dela konturatzeko heinean eta txanda utzi zien gaztea atera egin dela ohartzeko beste; Mesede-k begiratu egiten dio, begiz agur egin nahian, baina gainera datorkion motor bati ihes eginaz lasterka dago gazteak; Santiagok ere badakusa joaten, eta Errege Magoen mekaniko hori ongi bihotz-zabala dela dio berekiko; oraintxe ari da irratiko lokutorea, aparatottik astronautak nola irtengo diren esaten, handienetik txikienera egiten bait dute, komandantea buru dela; Mesede zur eta lur dago, gizon horiek zeruan zehar nola ibili ahal diren pentsatuaz, eta, oraino, urrenez urren ateratzen pentsatzeko ganoraz daudelakoaz, hau hain joan-etorri gutxiko arazoa delarik, eta senarra oharrerazten du esku estututze batez, eta bere Jesus haurtxoa ere egunen batetan zeruan gora joanen ahal dela pentsatuaz, eta orduan La Aguadako jendeak ez du sinetsi nahi izanen, beraien seme delako; senarra amets batetatik itzartzen ari balitz bezala begiratzen dio, eta emazteak irratia seinalatzen dio, oraintxe bertan buruan zeukana bera, eta Santiagok belarria erne ipintzen dio lokutoreak dionari eta deus ez du ulertzen, nor jakin dezake izan ere, Errege Magoetan zaharrena nor den?, hori asmazio arras zaharra izaki; orain dela milaka urte Jesus Haurtxoa jaio zenekoa hain zuzen eta ez oraingoa, bere semetxoa autobuseko jarlekuan jaio zaionekoa ez, bere arbejak, patata eta artoa –arto txiki borobila eta gozoa– ereiten lagunduko diona, eta goizeko bostetan jaikiko dena, berarekin batera, ura izoztuarekin eguna argituko duenean ez bestetan (hauetan sua goizago biztu behar bait da); asmazio hori ez da oraingoxea, inondik ere ez da, bere emaztea bidelari doan mementu honetakoa, ez asto baten gainean eta ongi arropaturik, hotzarengatik, baizik jendez beteriko mikrobus batetan eta bero galdan, izerditan, eta beterik, ez graziaz, irratia ren zarata hartaz baizik; aingeruen orde z gizonak harat-honat dabiltzaneko zeruaz mintzo bait zaie, eta Errege Magoak jaisten ari direla tresna-hegazkin batetan, misteriorik gabe, nola, noiz eta non jaitsiko diren adieraziaz, itxoin diezaieten...; honetan, mikrobusa geratu egiten da; espaloitik urrun, eta automobil batek harrapatu baino lehen, salto batez, emakume lodi bat sartzen da, arras beteriko paperezko zorro batekin, eta hor doazen automobil guztietan entzuten dena zer den galdegiten du, ea beisboleko partiduren bat ematen ari ote diren, aste egun batetan: hala bait da, ala ez?; txoferrak far dago, hark baino gehiago dakielako, beti horregatik far egiten bait du jendeak, ezer gutxirengatik baldin bada ere, eta jendetasun handiz, hori bai, erantzuten dio: ezetz, ea ez ote duen entzun hiru ipar-amerikarrak Ilargira joan direlako; baietz erantzun du emakumeak, nola ez?; ba, horixe dela; hori?!; jakina ba; eta emakumeak jarlekuaren sorbaldan atsedena ematen die eskuei, Santiagoren sonbrailu ondo ondoan, eta entzuten jartzen da, eta hori miraria lortu dutena! esaten dio belarrira Santiagori, halako batetan bera ere joaten ahalko dela Ilargira joan-etorriren bat egitera, astronauta horiek bezala; Santiago harritu egiten da bere baitan, ezin asmatu du zer pentsatu; edo arazo hura

guztia izkirimirizko delako: ipiunen bat, nobelaren bat delako, edo egiaz hiru Erre Magoak direlako datozenak, edo han bertako gizonak lurretik Ilargira joan eta itzuli diren gizonak direlako: ia ez badakizu oina non jartzen duzun ere, eta emazteari eskua estutzen dio, eta nahiz bere onera etorria izan, hotz topatzen du, halako berotzarra egiten duelarik ere, eta begitara begiratzen dio, eta hark bere burua ondo sumatzen duela esaten dio; orduantxe adar-hots bat entzuten da, gurrpil handi eta garaitan jotzen duena, haur-hotsak bezala, baina handiago, borobilago, luzeago; zulatu beharrean!, eta txoferra alde batetara geratzen da, bidea uzteko, eta igo berria den andrea mintzo da zaurituren bat bide dela esateko, ez dela posible ondoezta dagoen batetaz honelako auto errenkadan konturatu ahal izatea, nahiz gizona Ilargira heldu deneko eguna izan, eta halako gizarajo horrentzat ez dagoela ez astronautarik, ez eguberririk, ez Bazkurik, ez ezer, hori gauza beldurgarria!, eta Santiago tente da, izuaz, orain hiru egun bera bere emazteari heldurik zihoanekoaz, hilik bezala bait zegoen emaztea, eta haurtxoa agerian zuela, amaetxe bidean; honetan txoferrak, emakume lodiari erantzunaz, ezetz esaten du, igaro dena eroen anbulantzia bat dela, klinika psikiatriku batetako zela ipintzen bait zuen argi eta garbi; Santiagok, bere baitan, ero batek bere burua nola sumatuko ote duen pentsatzen du, halako "uuuuuuuu" hura entzunaz..., bere buruan sentitzen bait du hori guztia, eta beharbada urtearen azkena baino lehen iristen ari diren Erregeen ipuinak entzuten ariko bait da, eta Ilargitik hiru gizon heldu direla esaten bait diote, eta horrek, ero batentzat, gauza handia izan behar duela, eta bere burua Jesus Haurratzat har bait dezake!, eta Santiagok bere semeari begiratzen dio, lo dago eta beste mundu batean bezala, eta honela esaten du: "Karai!" (Mesede-k berak entzun du), eta dituen hortz tartetik eta ezpain artetik haizea hartzen du, eta gero sudurretik botatzen du berriro haizea, sudurazalak dardara egiten diotelarik, hegazti baten hegaka antzeko hotsez, eta semeari begiratzen dio, hau egiaz Jesus Haurra bait da, eta Santiago bere aita: bizitzan edozein gauzak, beraiek eta Errege Magoek eta Jesus Haurrak ere, bere hazia ukan bait du, desertuan berak uztatzen dituen artoak eta arbejak dutenez...; orduan galdegiten dio taxistak Santiagori, ea, Nuevo Circo-n geratzeko asmotan ote diren; berari ez baina emazteari galdegin behar ziokeen, berak ez bait daki deus Caracas hiriaz, ezta Bolivar Plaza bera non dagoen ere; horregatik, Mesede-k erantzuten dio baietz esanaz, geltoki horretarako asmotan doazela, Merida-rako autobusa hartzeko, ezta ala?; txoferrak baietz, hortik hartzen dela Andes-etarako ere, eta apurtxoren bat itxoiteko (Santiagok buruaz mikrobusaren sapaian jo bait du, gelditzean!), espaloiairen kontra geratuko dela, emazteak beste automobilen aurrean korrika ibili beharrik izan ez dezan; Santiagok esker beroa adierazten dio, esan gabe, eta bai ongi emanen lukeela gizon honek Baltasar Errege jantzian pentsatzen du: azkenean, barrendik atea irekitzen du Santiagok, eta emazteari bere semetxoarekin jaisten laguntzen dio; Mesede ez da ausartzen geratzera, jostura askatuko zaion beldur bait da, eta oharkabean (semetxoaren buru gainetik makurtuaz) gona barrenera begiratzen du, pildun urdinezko gona zuriaren barrenera, gorri koloreko zerbait ikusten ahal da ba han; izan ere, hezetasun zerbait nabari du berak, eta autobuseko gauza bera gerta dakioke, jarlekua busti egin bait zuen; baina, ez, izerdia da soilki; hala izan behar du, bere gona zimurtua ikusten du, besterikez, eta Santiago ere begira dagokiola konturatzen da eta ez diola ezer esaten, eta berak Jesus haurtxoa eroso ipintzen du bere ezkerreko besoan, eskuina nekatua duelako, ia hilik, eta

gero txoferrari leihatilatik begiratzeko beta hartzen du, orduantxe itxi du Santiagokatea kolpe batez, eta beltzak irrifar egin die biei, hirurei, ate-kolpea tamaina onekoa izan bait da, eta hor doa mikrobusa, gizona zerutik heldu delako ahotsa barruan daramala.

Sarrera

Hiltzaileak (1961)

Izen honetako ipuina Caraca-seko Eusko Etxea berriaren inaugurapena zela eta eratu zen lehiaketan, 1950an, Agirre Lehendakariaren eskutik jasotzeko ohorea izan nuen urrezko domina; nire jaioterrian, Andoainen, fusilatua izan zen gizon bat gogoan nuela idatzia izan zen. Erresistentziako beste ipuin batzuekin osatu irten zen liburua Caracasen.

Mantal Urdina (1985)

Zahartzaroa oso gogoan nuela idatziak dira ipuin gehienak; Caracasen zeuden nire gurasoak, eta bertara joan, gaizki zeudela ikusi eta neronekin ekarri egin nituen; erbestean 45 urte egin zituen aita hiletete t'erdira hil zen, etorreraren zai balego bezala, eta ama, urte batzuk gehiago bizitu zenoraindik Hondarribian.

Bihotza golkoan (1990)

*Euskara lantzen egin nituen lanak, eta helduagoak iruditzen zaizkit ipuin hauek.
Geroztik elaberrietako sailean ari naiz.*

Hiltzaileak

Martin Ugalde

Caracas, 1961-Urtarrilak
Agirre lehendakari bikainari,
eta berak bezala bizia Aberriari
eskaini dioten euskotar guziei.

Gizerailtza

Tolosa aldetik bazetozela!

Billabonaraino heldu zirela!

Amasa bidetik sartu eta Nafarroa aldetik zetozen beste Karlistekin batera Belabietatik behera, Goiburutik barrena, trenbidetik zehar, faszistak bazetozela...!

Herrian halako hotzikara bat sartzen hasi zen Nafarroa aldeko nonbaitetik. Joxe Mari musikariak kamioi batean igo eta bere tronpeta oihu ikaragarri harekin herria punta batetik besteraino zulatu zuen. Nire aita lar arramazkez aurpegia urratuta Belabietatik etorri berria Nikolax kaxetakoa (herriko lehenengo heriotza) menditik gorputzil jaisi berria, tronpeta soinu haiek azken juiziokoak ziruditen.

- Hernanira, azkar!... -gure aitaren oihua.

Gure etxeko bost gela eta sukaldea haize ikaragarri batek birrindu balitu bezala geratu ziren bost minututan.

Eta gu, etxe atarian ia esku hutsik.

- Utz ezazu dena, emakumea, bi edo hiru eguneko kontua izango da eta!...

Amak bere gauzatxoak eraman nahi; aita, berriz, beranduegi izango ote zen kezkarrekin, biak haserretu ziren.

Tranbiako zentralaren aurrean bi bagoi jarri zituzten bidezabalean zeharka, eta barruan ehizeko eskopetekin dozena bat gizon zain. Goianeko Zuñiganeko, Garagorrineko, bizi lagun guztiak beren seme-alabak, txakur eta gainerakoekin, oinez, beheko plazatik zehar, kale berritik barrena, Hernani edo Lasarte bidean ihesi...

Nire izebaren etxetik, Hernanin (Perkaiztegi kalean, Portu aldera begira dagoen etxe bat), Buruntza garbi-garbi ageri da.

Aita eguardi arte ez zen azaldu. Gizarajoa lorik egin gabe, herria galdu minez, erdi zoratua zebilen. Ixtuitzan ia bere harrapatu zutela esan zigun, baina ez zutela horren errez Buruntza hartuko.

Izebari zituen itsas katalaju zahar batzu eskatu eta balkoitik mendi puntara begira egon zen luzaroan.

- Ez duk ezer ageri -esaten zion osabari-; oraindik han zeudek gureak... hemendik ageri ez den goibehera batean zeudek.

Aita joan zenean, sapaldatik hartu nituen, lau zatiko katalaju luze haiek belaunetan jarri eta atsalde oso osoa mendi gailurrera begira egon nintzen, ea aita han ikusten ote nuen.

Eta hor, udarako eguzki hori-gorria mendi tontorrean luzatzen hasi zen garaian, ikurrin bat heldu zen gain-gainera; ikurrin gorri-hori bat!

Amari karraxi egin nion.

Ama etxean ez!

Anaiarekin irten omen zela.

Etxean izeba bakarrik.

Izeba Aguxtina jarri zen begira; baina begi batean zeukan halako laino zuri batek ez zion ezer ikusten uztez nonbait. Gaisoa.

Orduan izebari ihes egin nion.

Hernaniko plaza nagusia kamioi eta jendez betea zegoen. "España" guda itsasuntziak bota eta lehertu gabe jaso zuten obus handi bati begira jende asko. Zilarrezko pitxi handi bat zirudien. Hura han lehertu izan bazen, bostehun lagun akabatuko zituen gutxienez. Ezjakinak makina bat ausarkeria egin arazten zuen garai hartan!

Eta han nengoela, oihu bat.

Nire izena!

Kamioi baten gainean, ia nire kideko mutil bat. Ni baino bi urte zaharragoa, Anjelitok hamabost hamasei urte izango zituen. Kanpotik etorritako Fernandez batzuen gure herrian jaiotako mutil laguna zen, gu bezain euskalduna.

- Nora hoa?

- Irunera; goazemak!

- Zer egin behar duk hik Irunen?

- Zer?... Hara!

Eta txori aurpegi hark eskopeta bat erakutsi zidan, jostailu bat balitz bezala: "Mendira niak, goa zen"...

Egia esan beldurtu egin nintzen: "Nik ez dit, ordea, hik bezala eskopetarik"...

- Joan hadi eherriko etxera, eta hau bezalako bat emango diate.

Orduantxe bertan aita gogoratu zitzaidan. Faszistek Buruntza hartu bazuten, non ote zen gure aita?

Bere bila hasi nintzen plazan.

Ez zen inondik ageri. Iluntzen ari zen.

Kamioi batetik nire izena irten zen berriz. Anjelito bazihoan, parrez, bere eskopeta handi hura eskuan zeramala.

Egia esan, inbiri piska bat sortu zitzaidan barrenean.

Eta beldurti bat ote nintzen kezka jaio zitzaidan bihotzean.

Ni Hernanin geratu nintzen.

Umeak izan, mendira obus pusketa batzu biltzera joan nintzen nire kideko beste mutil batekin. Eta han, baratz lurretan lehendabizi irikitako zauri beltz haietan, burni puska beroak jasotzen genbiltzala, halako: Uuuuuuuuuuu... txisssssssst!!... Uuuuuuuuuuu... txisssssss!!... txistu izugarriak, eta berebiziko trumoi burundara batzu erortzen hasi ziren gure gainera, zerutik edo!...

Geunden zuloan ahozpe jarri eta hiru edo lau orduten ia hitz bat esan gabe egon ginen biok.

Noizbait bukatu zen, iluntzen hasia zen eta, eta laisterka, poltsiko guztiak obus pusketaz beteta bihurtu ginen herrira, plaza nagusitik barrena...

- Alto!

Nire laguna eskaratz batean ezkutatu zen. Ni, bakar-bakarrik aurkitu nintzen, beldurrak, ito beharreko arnas huts-hutsa bihurtu banintz bezala. Txapelgorri bat neukan aurrean, ametrailadora txiki bat eskuan zeukala.

- ¿A donde vas? -Orain nafarra ote zen nago. Orduan ez zitzaidan burura ezertxo ere etorri.

- Poltsikoak ikutu eta zer zegoen ikusi zuenean:

– Anda, a casa! –Eta ostikada bat eman zidan.

Plaza huts-hutsa zegoen. Bazterretan, arkupean, hamar edo hamabi txapelgorri eta militar bat edo beste. Etxe leiho guztiak itxita zeuden, herrian geratutako banakak zelataka egon arren. Noizean behin, tiro hots bat, edo "pak-um... pak-umm!..." mortero edo kainoi burruna bat. Etxeko hirugarren bizitzara heldu nintzenean, atea zabal zabalik aurkitu nuen. Xagutxo bat uxatzeko hainbat hots ez. Hemen ere haize ikaragarri batek dena sakabanatuko balu bezala. Bat batean: "bum!"... ate soinu izugarria, norbait ote zen; baina ez; ilunabarreko haizeak hegoaldeetik zekarren ikara zen. Balkoian izebak hainbeste maite zituen bi xoxo eta birigarro bat beren kioletan ixil-ixilik; bildurtuta nonbait. Geletan oheak urratuta; sukaldean, ontzi guztiak sakabanatuta; sapaldetan dena hankaz gora.

Etxe hartako bakartasun osoa, hango gauza guztien ixilpea, gaizki itxitako iturri baten tanten, "tan... tan... tan..." handitu eta izugarritzen zuten.

Hankak egurrezkoak balira bezala nabaritu nituen, eta malkorik gabeko nigarra, zotinka, gora eta behera nenbilela, jaitsi nintzen kalera.

Nora jo, ordea?!

Gaua zen.

Donostiako bidea hartu nuen; harako asmoa entzun nien gurasoei goizean. Portalondotik zehar, tranbiabide aldera abiatu nintzen. Argirik ez zen herri osoan. Ilunaren beldur, laisterka, bazterrik bazter.

Nola ote zeuden nire gurasoak, nire anaia? Aita bizirik atera ote zen Buruntzatik?

Atsegindegiko etxe handira heldu nintzenean, su argi gorri bat ikusi nuen; eta aldamenen ehun gudari bazeuden gutxienez!

Ez ninduten ikusi. Gaueko arrantxoia ematen ari ziren, builaka, euskara eta erdara nahastuaz; biraoka.

Ni, etxe handitik behera hartzera nindoala, uste gabeen gudari batekin topo:

– ¿Quién va?!...

Erantzunik ez zitzaidan atera, eta eskuan zeraman iskiluari "rrik-rrak" egin zion.

Gizon hark eskua bizkarrean jarri zidanean, betiko zerbait galdu banuen bezalako zerbait nabaritu nuen barruan.

Gaua hantxe igaro arazi zidaten, tranbia geltokiko bazter batean.

Goizean goiz, kamioi batean sartu eta herrira.

Andoain erdi hutsa, bakarra, ilun zegoen; itxaropen gabe geratzen diren gauzak bezala.

Txoferrak Nemexio bizilagunaren etxean utzi ninduen.

– Nola ez haiz gurasoekin joan? –Esan zidan Nemexiok haserre– Ez hadi etxetik atera. Hemen ez zegok txorakeriarik, kanpoan ikusten dutenari tiro bat eman eta seko uzten ditek edozein kamio bazterrean. Imanolekin egon hadi etxean.

Imanol bere semea zen, nire kidekoa; aita bezain luze eta mehea. Gero beste alaba gaztetxoagoa, Arantxa, eta bi urte inguruko mutiltxo bat, Mikel.

Iñaxi, bere emazteak ere hala hitzegi zidan.

Ez zeuden etxe hartan lasai, ez.

Nemexio herrian zen gizonik onenetakoa zen. Elizkoia, sendi maitea, inori kalte egin baino lehenago edozer gauza egingo lukeen gizona. Abertzalea bai, fina; egiazko

gizonari dagokion senide maitasunarekin batera bere hizkuntza eta herriarekin jarraiki izan zen gizona.

Eta apala.

Herriko kontzejal zela, lan exkaxi batek harrapatu eta apal-apal herriko mutil izatera jaitsi zen.

Bere lanean gizon atsegina zen, bere eginbehar guztiak gogoz eta zintzo betetzen zituen. Eta herri guztian asko maite genuen Nemexio. Hala, herriko mutil edo aguazil bezala bere tokia herrian zegoela, bai, eta bere lagun gehienek alde egin arren, bera hantxe geratu zen bere sendiarekin.

Leihotik kanpora zur saretik zelataka egon ginen hango txapelgorri eta militar eta marrokotar beltzei begira, bihotza estu-estu eginda.

Goiz afaldu genuen; oraindik egun argiz.

Gero errosarioa sukaldean eserita otoi egin, eta zazpi t'erdietarako ohean ginen.

Lo ez.

Imanolekin jarri ninduten ohean eta biok hizketan, bakoitzak ikusi genituen gauzak elkarri esaten, motz egin zitzaigun.

Nemexiok hiru edo lau aldiz lo egiteko esan ere bai, haserre samar.

Noizbait, hamar t'erdiak inguruan, lo hartu zuen Imanolek. Zurrunka bazen behintzat. Nik, berriz, ezin lo hartu. Ama, aita, anaia, izeba-osabak nerabiltzan garbi-garbi buruan, errotarriak hartu aleak behin eta berriz lehertu eta xehetzen dituen eran.

Ordubata izango zen. Lozorroan nengoen, hartu edo ez hartu.

"Tan, tan, tan!..." Hiru ate jokada.

Eskaratzekoak ziren. Etxean ez bazen, aldamenean, baina auzoan.

Ni ez nintzen mugitu; hila bezala gelditu nintzen. Ez nire barruan bare zegoelako. Imanol zurrunkaka oraindik. Hitz susmur bat heldu zitzaidan Nemexioren gelatik. Bere emaztearekin hizketan ari zen nonbait. Eta hala geundela, beste:

"Tan, tan, tan, tan!"... Lau ate jokada berri; baina lehen baino burrunbatsuagoak. Eta buila puska bat ere entzun nuen kalean. Nemexio jaiki, atea ireki eta eskaratzera abiatu zen.

Bere emazteak esan ere egin zion:

– Hankautsik ez zaitezela ibili, Nemexio...

– Ez, emakumea.

Beheko atea Nemexiok nola ireki zuen sumatu nuen.

Nonbait, Ailurralde aldean, zaunka bat lehertu zen eta gero Artolaneko baratzen zeukaten txakur handi hark erantzun zion.

Imanol orduantxe esnatu zen.

– Zer da?...

– Beheko atea... Aita oraintxe jaitsi duk.

– Hire gurasoak izango dituk.

– Bai ote?...

– Itxaropen berri bat jaio zitzaidan buruan eta leihora joan nintzen.

– Tira, ohera –esan zidan Iñakik leiho ondoan.

Baina biok han geratu ginen zur sare tartetik zer ikusi eta zer entzun.

– ¡Le decimos que ahora mismo, como está!... –entzun genuen.

Gero, Nemexioren hitz apal eta ixil batzu.

Eta gero berriz:

– ¡Le digo que no hay tiempo, suba al camión!, ¡rojo!!...

– Nemexio!!!... –esan zuen karraxi bere emazteak, eta "pili-pala", leihoko bi ateak bat batera ireki zituen.

– ¡Cierre esas ventanas o le pego un tiro!...

Andreak ez zion kasurik egin, eta karraxika hasi zen: "Nora daramazue nire gizona garai honetan!... Por qué llevan a mi marido, él no ha hecho nada!..."

Imanol eta Arantxa nire ondoan zeuden, nigarrez.

Nemexio gizarajoa, berriz, birau artean, ostikoka, kamioi batean sartu zuten.

Kamioi hark joaterakoan atera zuen burrundara ez zuen Andoaingo herriak egundaino entzun.

Nemexioren emazteari lehenengo bururatu zitzaiona: apaizaren etxera joatea.

Erdi zoraturik, berez, atera zen emakumea kalera.

Aldameneko etxe batzuetan hitz hotsak entzuten ziren; baina ez zen inor ezer esatera ausartu.

Andre hura, bere herrian geratu zirenen artean, ia senide zirenen artean, eliza batean batailatuta, eliza berean Jaungoiko berari otoi egin eta lehenengo Jauna hartu, jolas berak elkarrekin egin, gose eta ase berak elkarrekin igaro, soinu berarekin poz dantzak beheko eta goiko plazan egin, apaiz batek ezkondu eta elkarren ondoan seme-alabak hazi ziutuzten artean bakar-bakarrik aurkitu zen gau izugarri hartan.

Berriz etxeratu zenean, goizalde zen.

Esnezalaren bat edo beste ausartu zen bere astoarekin kalera jaistera; eta txapelgorri eta militar franko azaldu zen nonbaitetik, tranbia beti bostetan ohi zuen bezala, ez zen irten. Elizondok ohi zituen esne ontzi garbitze soinuak ere isil-isilik geratu ziren goiz hartan. Bezperan isilik eta apal zeuden karlista batzu txapelgorriz apaindu eta azaldu ziren, nabarmen, beraiek ere barrendik beldurrak baleude bezala.

Iñaxik ikusi omen zuen bere senarra. Herri etxeko kartzelan omen zeukaten, baina ez ziotela berarekin hitz egiten utzi. Serore etxe aldetik dagoen burnitaketako leiho beltz itsusi hartatik begiratu eta iusi omen zuen. Herriko norbaitengana joateko eskatu omen zion Nemexiok. Kartzela gordetzen zeuden denak kanpotarrak omen zirela.

Baina kanpotar haiei Nemexio abertzalea zela eta non bizi zen eta herrian geratu zela norbaitek esan zien!

Herritarrak, noski!

Ba al liteke horrelakorik?!

Bai.

Nor edo nortzu ote ziren?!

Eta estuasun horretan inor ageri ez; Jaungoikoaren itxaropen huts-hutsa. Baina huts bete-betea, ordea, burua eta bihotza zutunik edukitzeko adinekoa. Ez da horrelakoetan nolana hiko itxaropena behar! Nemexio bera lasai omen zegoela, berak ez zuela ezertxo ere txarrik egin eta.

Hala zioen Iñaxik.

Bera, Iñaxi bera, ez, ez zegoen lasai, gaixoa.

– Iñaxi, eta nora esan dizu Nemexiok joateko?

- Elizanbururena.
- Eta izan al zara?
- Bai, baina ez alperrik... -eta begiak malkoz bete zitzaizkion.

Herritarrak, ia anaiak, Nemexio hain ondo ezagutzen zuten euskotarrek, euskaldunak (odol bera, hizpide bera) eta haiek ez zeukatela ezer egiterik. Zergatik sartu zen politika gauzetan, zergutxiagotan!... "Naxionalista bazen, hor konpon; berak ikusiko zuela zer egiten ibili zen!"

- Zer egiten ibili den?... Zuek ez al dakizue? -esan omen zien Iñaxik. -Eta halako pekatua al da bada abertzalea izatea? Zu ere Karlista zinen beste horiek sartu baino lehenago, baina ez zizuten horregatik kalterik egin. Gorde, beharbada; kanpotik etorri ziren maketo zital haietatik gorde, bederen bada...

- Guk ez daukagu zer egiterik, berak ikusiko du zer egin duen; eta zenbat eta isilago egon, hobe...

- Eta zuk, Iñaxi, zer egin duzu? -galdetu nion.

Imanol eta Arantxa entzuten ari ziren, gaixoak; nigarrez.

- Zer egin nuen, don Migelena joan. Gaineko apaiz guztiak atera dira; hau bakarrik geratu omen da herrian, eta... -Eta don Migelek, zer?

- Bera ere beldurrak dagoela, berak zer egingo duen bada. Hernanikoa den Leandro erretore jauna ere kartzelan daukatela eta azkenean hilko ote duten... Jesus, Jaungoikoa, zer ikusi behar ote dugu!...

- Baina Karlistak elizkoiak badira, nola hilko dituzte apaizak, ama -esan zion Imanolek.

- Hori esan diot don Migeli, seme, baina mutututa geratu zait; erantzunik ez dit eman.

Isil-isilik egon ginen puska luze batean.

- Eta aita hilko al dute, ama? -galdetu zion bat batean, begiak handi-handi zabalduta, Arantxak.

Laurok nigarrez geratu ginen sukaldean.

Txikia, aingerua bezala, bere seaskatxoan lo.

Zortzirak aldean, gu oraindik gosaltzeko geundela gogoratu zen Iñaxi. Esnezalea orduantxe sukaldara, aterik jo gabe, ohi zuen bezala, sartu zen. Sartu eta guri begira, zuri-zuri geratu zen.

- Jakin al duzu, Joxepa? -esan zion, ahulki Iñaxik.

- Bai, oraintxe, hor dakarte...

Etxe oso-osea bat batean gure gainera erroiztu izan bazen, ez genuen denok batera Iñaxik bere emakume zentzune zorrotzarekin dena iruditu eta atera zuen halako oiheri karraxirik aterako.

Han zeukaten Nemexio kamioi gainean, tranbiako geltoki aurrean, etxetik irten zenean zeramatzan galtzak, apretak txinalka eta barrengo elastikoaren gainean bota zuen zamartxo zahar batekin jantzita.

Beti txapelarekin ibili ohi zen gizona, kaskutsik zegoen.

Santu bat zirudien.

Halako irrifar triste-triste bat bialdu zuen ahal izan zuen kemen guztiarekin bere etxeko leihora, gizarajoak.

Eskumuturrak gerri atzean lotuta, hankak txonkatiletan lokarrituta zeuzkan.

Aldamenean militar bat eta lau falanjista horietakoak eta hiru txapelgorri.

Isil-isilik, herriko bat edo beste begira.

Leihoak, gehienak itxita.

Herri oso-osoa hilda geratu alitz bezala zegoen; erailtzera zeramatzen gizonaren heriotzaurrea isilpean gorde nahi balu bezala.

– ¡Bájalo del camión! –geltokitik atera zen mutur beltz batek egin zuen oihu.

– ¡Que bajas! –Nemexiok aldamenean zeukan txapelgorriak zaunka.

Nemexio ezin higitu. Begi handi haiek bai argi, norbaiti zerbait adierazi nahian bezala! Otoi egiten noski. Txapelgorria igo, ostiko bat eman eta kamioitik arto zaku bat bezala bota zuen lurrerraino, gizona.

Lurra gorritu zuen Nemexiok. Eta halako hil zoriko antsi apal bat nonbaitetik irten zitzaion.

Iñaxik egin zuen garraxia herri guztiak entzun zuen. Goiko bizilagunek gehiago ezin eta zetozeala Iñaxi atean harrapatu zuten:

– Ez hadila orain atera!...

Ni bai, atera nintzen.

Atera ez banintz!... Damutu zitzaidan.

Nemexio Tolosara zeramatela entzun nion kapitainari, eta ni Billabona aldera oinez.

Hamaiketan heldu nintzen Tolosara. Gure herrian baino jende gehiago zebilen kalean. Herriko etxearen aurrean berebiziko jendea zebilen hara eta hona. Beste hilketa bat goizean izango zela entzun nion gudari bati, kanposantuan izango zela.

Ibili nintzen batera eta bestera Nemexio ikusten ote nuen, baina arrastorik ez.

Egun guztia jo hona eta jo hara, goseak jo ninduen ni.

Hil behar zituztenen izenik ez nuen jakiterik izan. Niri nork esango zidan, bada, halakorik!

Gauerako lehertuta nengoen.

Eta hala nenbilela, Kaletxikiko mutil lagun bat plazan, beste bere kideko bi mutilekin.

Bere izebaren etxean zegoela; bere aita eta ama han egon zirela bart, baina ikaratuta ihes egin zutela, Frantzia aldera edo. Anjeliko gure laguna Irunen hil zutela. Kopeta erdi-erdian tiro bat hartu eta San Marcialen geratu zela. Nik ere esan nizekion nireak, eta bere izebarengana eraman ninduen Joxek.

Izeba piska bat bildurtu zen ni han bakarrik aurkitzearekin; baina Joxek konpondu zituen gauzak, egoki asko.

Eta han, afalondoan ohera bialdu gintuztenean, eskatu nion Joxeri hurrengo egunean goiz kanposantura laguntzeko.

Ikaratu zen Joxe; baina bestela ni bakarrik joango nintzela esan nionean, bera ere harrotu zen:

– Nik beldurra?... Behin baino gehiagotan izan nauk aldamenean dagoen sagastian!...

Aitaren beldurrik ez, izeba nolanaahi atsipetzen zuen, eta hurrengo eguneko lau-lauetarako etxetik isilpean ihes egitera ausartu zen nirekin.

Gu plazara heltzen eta elizako kanpai argizkila; eta erlojuak lau tanto.

Herri osoa isil-isilik eta ilunpean zegoen.

Nik ez nuen uste kanposantua horren urruti zegoenik.

Aurrena, ate aldetik begiratu, gero atzekaldetik batera eta bestera ibili, beldurra geneukala batak besteari aitortu gabe, eta halako batean Joxe hormatik gora igo zitzaidan.

Biok dardarka, hitzik esan gabe, ordu erdi bat egon ginen.

Nekatuta geunden; ez baigenuen ia lorik egin.

– Hotza al daukak? –galdetu nion.

– Nik ez, eta hik?

– Nik ere ez.

Ez zen han hotzik. Udarako egunsenti epel-epel bat zetorren zerutik behera.

Beldurra bai.

Baina elkarri aitortu nahi ez.

Kanposantuan inortxo ere ez zegoen.

– Nemexio ekarriko dutela ba al dakik?

– Nik ez...

Nik ez nekiela esan nion; baina badaren bada ere ikusi nahi nuela.

Txori sail bat igaro zen txioka hegoaldera. Beldurgarria da kanposantu bat egun txintan!

Dena jaiotzera doan bat batean hilobia besterik aldamenean ez ikusteak halako nahigabe izugarri bat ematen du.

Halako batean, gudari talde bat txapelgorri, txapelbeltz, alkondara urdin, militar, mezatik atera baletoz bezala hizketan.

Zigarroak piztu eta panteoi baten ondoan ordu erdi bat gutxienez egon ziren.

Egun hori-gorria sortaldetik igotzen hasi zen.

Eta halako batean, kamioi bat. Beste militar eta alkondara urdin mordo bat jaitsi zen bertatik, eta agindu hots gogor batzu entzun genituen.

Gero, Amets bat balitz bezala!

Kapillatxoaren horma kontra gizonak (zortzi ziren) jarri, eta atzeratsuago, baina bertan, haserre gabe zeuden beste hamar bat gizonak:

– Pan-pan!...

Gizonak, mamuxel handi batzu balira bezala, zapla!

Alde batekoak erori beharrean, bestekoak erori izan baziren berdin irudituko zitzaigun guri.

Nor zen hango epaile?

Nor eraile?

Fusilak zituztenek al zuten arrazoi?

Eta Jaungoikoa, non ote zen?

Han inguruan ziren txori guztiek kabiak utzi eta norabaitera ihesi joan ziren txio-txioka.

– Nemexio ikusi al duk? (belarrira Joxek). –Ez. Ez dizkiat ondo ikusi (belarrira Joxeri).

Gero, hutsa: denak etxera; azkar, ezer gertatu ez balitz bezala, baina azkar; azkarregi. Txoriak bezala nolabait ihesi.

Gu, zain geratu ginen, horma bazter batean gordeta.
Haietatik gizon bat geratu zen.
Zuloak egiten.
Gu agertu ginenean, haserretu zen.
Baina nik osaba bat ikusi nahi nuela, eta utzi zidan arrimatzen.
Zulogileak loa galdu aurpegia zeukan.
Hantxe, burua ageri zuela, beste baten azpian, Nemexio gizarajoa, zuri-zuri,
kaskutsik, gorroto gabeko begi apal haiekin gora begira.
Ez zidaten gehiegi begiratzen utzi.
Gero, ikaratuta, laguna ere galdu nuen bidean.
Gauean heldu nintzen herrira.
Ez dakit nola, baina Nemexio hil zela bazekiten etxean.
Eta Andoainen halako izugarrizko zerbait lehertu zen.

Alperra

Tolosan igo ziren.

Trena leporaino betea zetorren, eta biek ate ondoan zutik geratu behar izan zute.

Nire aldamenean tente zetorren emakume sudur motz batek bere senarra zirudien bati esan ere egin zion:

– Hara, Andoaingo sardin zaharrak!

Bada ez bada ere, inork ez zuen asmo hura hitzez luzatu nahi izan; baina begiak ezin lotu, eta ibili ziren irrifar franko jarrio.

Guardiazibilak konturatuko ote ziren beldurrez, bere senarrari ez zitzaion alditxo hura motz egin.

Izerdi eta giza-emakume usaia bazen han, horrenbeste jende elkar estututa, eta hala ere berehala zabaldu zen sardin zaharren halako zoko eta busti usain nazkagarri hura.

Trena, tapa-tapa, gain behera, Donostia bidean.

Geldi-geldirik, galeper txakurrak ehizean mugitu ohi diren bezala, beste bagoira pasatzeko asmoarekin hasi ziren bi guardiazibilak.

Sudur motzaren aurrean pasatzerakoan, txapel-okker beltz haren dirdir ispiluan ikusi zuen nonbait bere aurpegia emakumeak, eta halako nazka aurpegi bat jarri zuen.

Bere barrurako: "Motellak, bai ikustoki beltza!", esan balubezala.

Eta orduantxe Anoetara heltzen.

Sudur motzaren aurrean eserita zetorren agure zahar bat zutitu eta bere aulki azpitik zaku bat atera ondoren jaisteko gertu zen.

Guardiazibilaren begiak bai zorrotzak!

Agurea altxa zen bezain laster ezker-eskubi bi ukalondoko eman eta hantxe eseri zen bat.

Gero, bere paparra oilar batek bezala harrotu eta erregekume bat balitz bezala geratu zen.

Beste guardiazibila (ez bait dira horiek behin ere bakarka ibiltzen) zutik geratu zen; zain, ea beste aulkiren bat ustutzen ote zen.

Anoetako geltokian haurtxo bat besoetan zekarren emakume gazte bat igo zen.

Eta, beharko, ate ondoan geratu zen.

Batek bidea egin, besteek elkar estutu, denen artean tartetxo bat egin zioten eta ama-semeak sudur motzaren ondoan geratu ziren.

Mutikotxoak sei bat hilabete izango zituen, eta begiak ontzako urreak balira bezain zabal, denei irrifarrez geratu zen.

Sudur motzak halako irri bat egin zion, eta haurtxoak berebiziko festarekin erantzun zion.

Eta hala bazetozen, tapa-tapa, Billabona bidean.

Zerbait esan behar ta:

– Billabonara al zoaz? –galdetu zion sudur motzak emakumeari.

– Ez –erantzun zion– Hernaniraino noa.

Ama-semeak izerditan zeuden. –Nekatuko zara zutik.

– Ez –esan zion gaixoak.

Orduantxe bota zion sudur motzak eserita zihoan guardiazipilari halako begiratu izugarri bat.

Eta hara, galtzairuzko begi zorrotz haiek ere berari begira zeuden!

Sudur motzaren senarra konturatu zen, eta ezin bada guardiazipilaren begiratuari erantzun gabe geratu.

Halako ero begiak jarriko zituen gizonak, bere emazteak ukalondoarekin jo eta esan zion beldurtuta:

– Ez diezaiozula ezer esan.

Eta hara nola diren gauzak: esateko gogoia bai, beldurrik ez eta begira-begira baina mututua geratu zen gizona.

Eta elkarri hitz bat esan gabe, bere aldamenean zetozen guztiak guardiazipilari begira jarri ziren.

Guardiazipil bele begi haiek ez zekiten nori begira geratu. Baina ez zitzaion masaileko larrurik mugitu.

Trenaren tapa-tapadak gogorrago entzun ziren bagoi hartan aldi luze batean.

Isiltasunak atera ohi du batzutan halako hots izugarri bat!

Hala, denak zerbait lehertuko ote zen zain, noizpait Billabonako geltokira heldu zen trena.

Ez zen inor jaitsi; ez zen inor ere igo.

Ez zuen inortxok ere hitz bat esan.

Kanpai soinua, trena bere bidean, eta denak harri bihurtu balira bezalako isiltasun ikaragarri hura berriz.

Tapa-tapa, trena Ubillostik gain behera.

Lau minutu osoak igaro ziren honela, guardiazipilari ezten begiratu haiekin zulaketan denek elkar egin balute bezala.

Isiltasun ikaragarri hura handitzen joan zen, eta dagoeneko bagoi guztia alde hartara begira zegoen.

Halaxe heldu zen trena Andoainera.

Guardiazipila noizpait altxa zen eta haurra besoan zeukan emakume gaztearen aurrean pasatzerakoan aho batez esan zion:

– ¡Ahora puede sentarse si quiere!

Eskopetak bezala zain zeuden hogeitahiru aho batera irauzi ziren, eta euskaraz eta erdaraz izugarriak esaten hasi zitzaizkion:

Andre gaixoa ikaratu zen; eta umea nigarrez hasi zitzaion.

– Y usted –esan zion guardiazipilak sudur motzaren senarrari– va a venir conmigo, por irrespeto y por provocación!

Eta gizatar hark besotik heldu eta astindu bat ez zion eman bada!

Ehun eztarrik batera emandako karraxi izugarri bat entzun zen, eta ixtan batean bi guardiazipilak atetik kanpora zilipurdika atera ziren.

Kanpai soinua orduantxe, zorionez; hasi ziren guardiazipilak faktoreari deika, baina dagoeneko trena tapa-tapa abiatu zen.

Tren hartako algarak!

Arrak eta emeak

– Tan-tan!

Aitona eta aita-alabak afaltzen ari ziren sukaldean. Beste alaba, Iñaxi, zerbait prejitzen ari zen sutan, eta esan zuen:

– Joxepa, atea.

Joxepa mahaitik altxa eta atea irekitzera joan zen.

– Zein ote da garai honetan? –esan zuen aitona.

Ez zion inork erantzun.

Joxeparen ahotsa izan zen hurrengoa:

– Aita, guardiazibilak!

– Guardiazibilak?!

– Bai, atean geratu dira.

– Eta zer behar dute?

– Ez dakit; ni ikaratu naiz behintzat eta!...

Aita ere izutu xamarra geratu zen; sutondoan zegoen alaba ere bai.

Aitona zegoen lasaitxoena.

– Tira, joan hadi, ez haute jango eta!

Hala, Iñaxio mahaitik altxa eta atera joan zen.

– Buenas noches –esan zien.

– Buenas noches. ¿Usted es Ignacio Urreiztieta?

– Si señor.

– ¿Está su hijo?

Bere semea! Zerbait egin ote zuen Imanolek?

– Esta trabajando.

Guardiazibilek elkarri begiratu zioten, maltzurki, eta ate barrura lepoak batera luzatu zituzten.

Iñaxiok hala ikusi zituenean, nahi bazuten etxe barrura sartzeko esan zien.

– ¡Ai! –Karraxi egin zuen Iñaxik.

– Qué pasa, no le vamos a comer! –eta guardiazibil batek farre egin zuen; besteak purrusta batean gelako atea ireki zuen.

Aitona eserita geratu zen afaltzen, sartu ez balira bezala.

– Aquí no está.

Ia etxeak beste gelarik bazeukan galdetu zuten.

Iñaxiok esan zien goian beste bi gela eta ganbara zeudela.

Igo zen guardiazibil bat gora.

– Zer egin ote du Imanolek, aita? –Galdetu zion Iñaxik.

– Haga el favor de hablar en español!

Denak mutututa elkarri begira geratu ziren.

Aitona ixilik, afaltzen.

Gora joan zen sardin zaharra itzuli zen:

Eta Iñaxiori begira:

- ¿Dónde trabaja su hijo?
- En la fábrica de Rekalde.
- ¿A qué hora sale?
- A las diez.

Guardiazibilak eskumuturreko erlojuari begiratu zion:

- Faltan diez minutos; le esperamos aquí.

Baina ez ziren sukaldean geratu; ezer esan gabe atera eta eskaratzean geratu ziren biak.

Bizilagun batzu leihoetatik zelataka zeuden dagoeneko.

- Zer egin ote du Imanolek? -Galdetu zuen berriz Iñaxik sukaldean.
- Ez zekinat bada, neska -erantzun zion zakar xamar aitonak- baina lapurretik ez

behintzat!

- Euskal ikurrin haietakoren bat harrapatu ote diote? -Esan zuen Iñaxiok.
- Horrelako zerbait -esan zuen aitonak- Eta horrelakoak ez dik lotsatu behar,

motel!

- Ez, baina kartzelara eramaten badute? -esan zuen Joxepak.

Denak ixil-ixilik geratu ziren aldi batean.

Armario gainean zegoen erlojuaren tiki-takakoak besterik ez ziren entzuten.

- Honez gero, laster da bada hemen -esan zuen Iñaxik halako batean.

Aitonak bakarrik jan zuen berea, baina gainerantzeko afariak han bukatu ziren.

Agurea altxa eta aurreko leihora joan zen.

Han zeuden atarian bi guardiazibilak, zain.

Eta orduntxe Imanol bizikleta gainean etxera heltzen.

Aitonak bere burua bueltatu eta esan zuen:

- Hara hemen zetorrek mutila!

Aita bi alabak aitonaren ondora etorri ziren laisterka.

Joxepa nigarrez hasi zen. -Egon hadi ixilik, tuntuna -esan zion aitonak.

- ¡Oiga! -entzun zuten leiho goitik- ¿Usted es Ignacio Urreiztieta?

Mutila, bere bizikleta eskuetan zeukala, ixilik geratu zen. Gizarajoa ez zegoen lasai, ez.

Bi guardiazibilak aurrean jarri zitzaizkion, eta ihes egin ez zezan, hormaren kontra baztertu zuten.

Etxe aurrean bertan zegoen argi zuri batek argitzen zituen, eta aldameneko etxe guztietako bizilagunak ordurako leihoetara gorde gabe atereak ziren.

- ¿Usted no es hijo de Ignacio Urreiztieta?
- Si -erantzun zion Imanolek.
- ¿Y no se llama también Ignacio?...
- No -erantzun zion Imanolek.
- Y, ¿Qué edad tiene usted?
- Diecisiete años.

- ¿Y usted no tiene un hermano de veinticuatro, llamado Ignacio?...

Imanolek guardiazibilari bizikleta zangoetara bota eta etxera sartu zen korrika!

Beste guardiazibilak bere fusila altxa eta tiro bat botatzeko keinua egin zuen.

- ¡No dispaes! -esan zion lagunak.

Eta biak purrustakada etxe barruan sartu ziren mutilaren atzetik.

Imanol sukaldean eserita, aurpegia bi esku tartean zeukala aurkitu zuten.

Aitonarengatik izan ez bazen, guardiazibilak kulata tankada bat bizkarrean emango zion.

Besotik heldu eta:

– ¡Usted no pegue! –esan zion aitonak.

– ¡Usted quédese quieto, o también le doy!

Aitonak laban bat mahai gaineratik hartu eta sartuko zion sardin zahar hari urdaitetik bere semeak geratu izan ez bazuen:

– Aita, ez dezazula horrelakorik egin!

– Bueno, donde se aclaran las cosas es en la Comandancia –esan zuen ia karraxika kabo bezala egiten zuenak– Y viene usted –Imanol– y usted, viejo mal genio –esan zion aitonari– y usted –berezi zuen Iñaxio.

Bi neskak nigarrez hasi ziren.

Aitona eta aita-semeak aurretik; bi guardiazibilak atzetik.

Kale guztia bete zen ordurako.

Horrelakoetarako ez da telefono behar handirik izaten!

Kuartel bidean zihoazela, gizon bat inguratu zitzaien.

– ¿Cómo está señor cabo? –esan zion koipetsua guardiazibilari.

– Cómo está señor Lasa?

Lasa herriko kontzejala zen.

– ¿Qué está haciendo? –galdetu zion.

– Hemos ido a detener a un tal Ignacio Urreiztieta, pero resulta qué no está, y en la casa nos han hecho violencia.

Pero no le pueden ustedes detener, porque murió hace unos seis meses, el que queda es ese otro joven, Imanol. Kabo guardiazibila geratu zen.

– ¿Murió?... –esan zuen– ¿Y por qué lo denuncian?...

Hiru gizonak eta beste sardin zaharra aurrera zihoazen.

Lasak belarrira zerbait esan zion.

Kaboa eta kontzejala kuartelera heldu zirenean, hiru gizonak mahai baten aurrean eserita zeuzkaten.

– Bueno –esan zuen kaboak– creo que ha habido un error.

Aitonak halako begiratu izugarri bat bota zion.

– Pero usted, abuelo, tiene que guardar su genio en el bolsillo.

Bazterren batean bakarrik harrapatuko balu sardin zahar hura!

– Ahora pueden irse.

Lasa beste hiruekin atera zen kuarteletik.

– Beraiek ez zekiten zuen mutila hil berria zela eta... –esan zien aitzaki bezala.

– Hori duk –erantzun zion aitonak– halako mutil gizona beraiek ebaki-ebaki egin eta gero etxean tisiko hil, eta sei hilabete barru ezer gertatu ez balitz bezala berriz etxera bila!...

– Badakizu –esan zion besteak– politikan sartzen dira eta...

Eta aitonari alde egin zion.

– Bai joan hadi –esan zion deiadarka– gure herriko emeek diotenez, herriaren maitasuna erakustea politika duk. Herria pusketaka egunero saltzea, gure izate guztia hondatzea, zer ote da?... Emekeria!

Xabaleren hazia

Ta-Pa-ta-Pa! Ta-Pa-ta-Pa!..., Trena malda behera zihoan.

Mixto esaten dioten erdi soin erdi gauza diren tren horietako bat zen. Bere isatsari erantsita zihoan bagoi beltz batean, burnibideko ta-pa-ta-pa! zarata ez ezik, beste berebiziko burni eta egur karraxiak entzuten ziren.

Mamu izugarri baten antzeko arnasak ziruditen.

Lukainka, jaboï kaja eta babarrun zaku gainean eserita, bi guardiazipil eta hiru gizon zihoazen.

Gizonak, eskuak katez lotuta, bata bestearen ondoan, bagoiko leiho zulotik mendiko zelai eta tontorretara begira. Uzturre mendiko amildegia; eta gero hura, eta Billabona eta Andoain, diren haina luze Oriai ibai ertzean etzanda.

Guardiazipilak aurrez-aurre, beren fusilak belaun gainean, trikornio beltzen azpitik begiak xeletaka bezala; beren ixkiluak apuntatzen zorrotutako ezten begiratu haiekin beti zerbaï zulatzeko zain.

– Nora ote goaz? –esan zion Linok bere anaia Anjeli belarrira, bagoiaren astindu batean.

Anjelek ez zion erantzun; guardiazipila zapelaitza bezala begira zeukan eta.

"Nora joango gaituk –esan zuen bere kolkorako Anjelek– Donostiara. Gutxienez Ondarretara.

Okendoko polizi etxera eramaten ez bagaituzte!...

Bere aldamenean, Xabale ixilik, mendi gailurretako argiarekin trikornio haien beltza begininietatik garbitu ezinik.

Eta trena, burnia bezain ajolakabe, Xabaleren herriak ikusi gabe. Bere belar meta tenteen indarra nabaritu gabe; pil-pil eltzeak irakin erazten dituen suaren kea zerura bidean nola zihoan ikusi gabe.

Guardiazipilak bezala, burnia bezala, gizon asko bezala, beste tren guztiak bezala, ta-pa-ta-pa...

Eta tren mixtoaren azkenengo bagoi beltz hartan, "triki-triki, xiz... klan-klar": hiru gizon eta bi guardiazipil.

Guardiazipilak beren fusilekin, zain.

Hiru gizonak, geldirik; baina inork galerazi ezin duen gizon lan bat egiten: pentsatzen.

Ai!... trikornio azpi haïetatik zelataka zeuden ezten begiratu zorrotz haiek buruak burruna ahal balituzte!...

Nola jauzi ziren? Hara galdera! Xabale berak baleki!...

Huelga bat gertu behar zela eta Lugarrinean bildu ziren afalondon Bergara zonako erresistentzi bost buruak: Lino, gudarien komandante izana, nagusi; Anjel, Marto eta Otxoko, denak abertzale zintzoak; eta bera, Xabale.

Erabaki guztiak hartu zituztenerako hamaikak izango ziren. Eta mahaitik altxatzeko zeudela:

"Tan-tan", atea.

Zein ote?

Etxe barrunbe guztia ixilik, arnas gabe geratu zen. Etxetik kanpora ere ez zen hots bat sumatzen.

Eta berriz:

"Tan-tan-tan"... –hamar jokada gogor bai.

Lugarrineko guztiak ohetik jaiki eta sukaldean bildu ziren.

Baten batek esan zuen:

"Guardiazibilak!"...

Marto eta Otxokok leihotik atera eta teilatu gainetik hanka egin zuten. Lino, Anjel eta bera, Xabale, beste atzeko leihotik salto egiteko zeudela, hiru, lau pistola zulo aurrean...!

Gaua espetxean igaro zuten; Bergaran lapurrak eta mozkorrak sartzen dituzten gela hotz eta ilun hartan.

Galdera bat bakarrik, baina mila aldiz bai, zigor larru batekin joka ari balira bezala:

– ¡Quienes eran los otros?...

Eta hiru gizonak ixilik.

– ¡Ya hay tiempo para que canten! zioen bibotedun beltz argal batek, eta bultzada batekin zulo ilun hartara bota zituzten.

Lehenengo gaua hura luzea izan zen.

Bergaran bere bizi guztian entzun ez zituen soinuak etorri zitzaizkion Xabaleri gau ilun hartan belarrira.

Baina, tira, Marto eta Otxokok hanka egin zuten behintzat eta!

– Bihar egurra emango zigutek –esan zion Xabalek Linori.

– Bai, dudarik ez.

– Zer esango diegu?

– Lagunarteko gauzez ari ginela hizketan; paper bat ez zigutek harrapatu.

– Horren erraza balitz!...

– Bai...

Gero, bakoitza beretzat, buruko norberaren korapiloak askatzen eta norberaren indarrak neurtzen.

Ez zen hau beraietzat aurreneko jipoia. Bazekiten gizonak zenbat bekaineko eta ostiko eta kulata tankada eta masaileko eta porra zanpa aguanta lezakeen!

Polizikoek, berriz, oraindik hobeto ezagutzen zituzten gizonaren ahulkeriak.

Goiz hartan etorri zitzaion Xabaleri bere emaztea.

Ez zuen berarekin hitzegiterik izan. Baina deklaratzera zeramatzatela leihotik ikusi zuen kalean. Bere seme haziak gerria borobilduta, han zegoen gaixoa atarian.

– Ez hadi lotsa –esan zion Linok– batzutan nigar pixka bat egiteak on egiten dik eta. Gogora hadi, seme hori aske izan dadin ari garela borroketan.

Linok hitz horiekin eman zion poza!

Baina sei hilabete ezkondu zela, eta hara zertara zekarren bere emaztea, eta bere semetxoa!

Egun hartan banan-bana galderak.

Eserita zeukatela, ustekabean gizon exkas bat hurbildu eta zipli-zapla!, bi masaileko eman ez zizkio bada!

Itoko zuen bere atzaparretan maketo aurpegi berde hura!

Hau izan zen hasiera.

Gero, bi guardiazibilak kulata tankadaka eser arazi zuten berriz; baina oster, masailekoa lurrera bota eta ostikoka zanpa-zanpa egin zuten.

Xabale, ixilik; zenbat denbora eutsiko zion jakin gabe, baina ezpainak ireki gabe.

Gorputz guztia ubeldu eta aurpegiko arramaska batetik odola dariola utzi eta bota zuten kartzelara berriz.

Gero, Lino eta Anjel bera bezala erori ziren aldamenean.

Ez zioten hitz handirik elkarri esan. Etxetik bazkaria sartzen utzi zioten egun hartan, arratsaldean lo kuluxka bat ere egin zuten.

Gaua, berriz, motz egin zitzairen, egunaren beldurrez.

Baina hurrengo goiza eta arratsaldea pakean joan ziren; ez zituzten deitu. Erroopa garbiekin emazteak papertxo bat ere bialdu zion, eta lasaiago lo egin zuten hirurek gau hartan.

Hurrengo eguna larunbata zen.

Seiretako hasi ziren deiadarka. Lehenengo, Xabale, beti bezala. Sartu zenerako, zapla!, guardiazibilak ukabilkada bat aurpegian.

Gero, eser arazi eta galderak.

Ez daki nola, baina sudurretik odola dariola lurrean botata zeukatela, izen bat esan zuen.

Gero, hortzak estututa eduki arren, beste hitz batzu irten zitzaizkion ahotik.

Nola?

Zer daki berak!

Hala, odola bere sudurretik eta ahotik irtetzen zen bezala!

Gero, isildu zen, eta buruan halako harri koskor jasa batbezala nabaritu zuen; kulata tankadak noski; eta azkenean betiko han zanpatuko zutela uste zuenean, ostikadaz atera zuten handik.

Gauean, hirurak elkartu zirenean, Xabalek galdetu zuen:

– Zerbait aitortu al duzue?

– Ez –esan zuen Anjelek.

– Ez –esan zuen Linok– ez diat uste... Eta hik?

– Nik zerbait bai... –eta gizonak bere burua esku tartean hartu zuen. –Ez nauk ondo gogoratzen, ahoa ireki dudala uste diat...

Hirurak isilik geratu ziren puska batean.

Lino alderatu zitzaion.

– Gogora hadi, zer esan duk?

Eta, oraintxe balitz bezala gogoratzen da bera, erantzun zion:

– Hanka egin dutenak Marto eta Otxoko direla esan dudala uste diat.

– Hori ez duk ezer, aldegin diate eta. Eta besterik?...

– Bada, huelga ari ginela gertatzen...

– Hori ere bazekitek, guk esan ez eta ere. Besterik esan al duk?

– Ez –erantzun zion Xabalek lasaitxoago– baina ez zekiat nola, hainbeste zartako hartuta...

- Bai -esan zion Linok, ez duk erraza; baina eutsi egin behar zioyuk, behar bada horretan geratuko dituk eta. Hemen eustea errazagoa duk. Donostiara, Okendo kaleko polizi etxera eramango bagintuzte okerrago izango hukek. Han hitzegin gabe geratzea zaila duk. Eutsi, Xabale, guk hitzegiten badugu, beste asko harrapatu eta organizazio guztia apurtuko hukek eta.

Gauza horiek gogora ekartzean, han aurrean zeukan guardiazipilaren lepora botatzeko gogoa ematen zion Xabaleri. Eta nola, eskuak lotuta?!...

Eta trenaren ta-pa-ta-pa-rekin, buruan halako "danba-danba" hots batzu zebilzkion min egin arte, "eutsi, eutsi, eutsi"... esaten ari balira bezala.

Trena han zihoan Andoaindik behera, Urnietarako bidean, ta-Pa-ta-Pa!; gutxienez hamaika t'erdia izango ziren.

Lino eta Anjel zirrikitoetatik zerbait ikusiko, zelataka.

Guardiazipilak, begi tixiki haietatik beti zerbaiten zain.

Eta bere emaztea?

Han egongo zen gaixoa, "Xabale" basetian, laister joango zitzaion San Blas auzora berria: Donostiara zekartzatela.

- ¿Qué está usted diciendo?...

- Babarrun zaku baten ipurdian eserita zetorren guardiazipila altxa eta bere aldamenera etorri zitzaion haserre. Lino eta Anjel berari begira geratu ziren. Beste guardiazipila eserita geratu zen, zain. Orduantxe konturatu zen Xabale bere Agurmaria hitz goraz ari zela esaten.

Eta trikornioari erantzun gabe, beretzat, isilka, bukatu zuen.

Guardiazipila eseri zen berriz.

"Donostiara, Okendo poliziara eramango bagintuzte, okerrago izango hukek". Linoren esana etorri zitzaion burura Xabaleri.

Eta noizbait heldu ziren Donostiara.

Eguerdi-eguerdi zen, eta kaleak jendez beteta zeuden. Hiru gizonak, bi guardiazipil eta geltokian zain zeuden zibilez jantzitako beste bi polizien erdian kalez-kale oinez zeramatzaten.

"Ondarretara eramateko asmoa baleukate, ez gintuzkek oinez joango", zioen beretzat Xabalek, Ondarreta non zegoen bazekien eta.

Eta Linoren begiak ikusi nahian hasi zen, ia zerbait esaten ote zioten.

Zibilez jantzita zegoen polizi haietako batek bultzada bat eman zion:

- ¡Mire adelante!...

Orduantxe begiratu zion Linok Xabaleri, eta baietz esan nahi bezalako argia piztu zitzaion begietan.

Okendo polizi etxera zeramatzaten beraz!

Orduan hara zihoazen, benetako egurra ematen zuten polizi etxe hartara!

Eta berak zerbait aitortzen bazuen?!

Eta bere erruz beste lagun asko harrapatu eta organizazio guztia puskatzen bazuten?!

Xabale beldurtu zen. Ez bihotz ikarako beldurretik, gorputzak iraungo ez zuen beldurrarekin baizik.

Izerdi hotz bat nabaritu zuen bularretik kopetaraino. Zangoak makaldu zitzaizkion eta halako zorabio bat eman zion horren beste jenderen erdian bere burua bakar-bakarrik nabaritzeak.

Han kalean zebilen jendea bazkaltzeko asmoarekin zihoan etxe aldera, noski.

Berak zekien guztia aitortuko balu, bazkaria eman eta etxera bialduko lukete.

Baina gero nor etxera joan? Zer esango zion berak pakean hila zen bere amari? "Xabale" baserrian babarrun lekak esku garbiekinaletzen ohitua izan zen amari?... Eta zer bere emazteari?... Eta zer laster jaioko zen bere lehenengo semetxoari?

Eta zer lagunei?...

Eta zer berari, bere barruan zeraman Xabale betiko abertzaleari?!

Ihes egin ahal balu! Nondik? Eta bertan hilko balitz? Bertan nola hil?... Bada, ez zekien bada, bihotz atake batek emanda edo... ez zekien bada! Heriotz arina izango litzateke hau! ...

"Tranbia hori Andoainera zihoak", esan zuen Xabalek beretzat.

"Hor eserita doazenak lasai asko zeudek. Abertzaleak ote dira? Gehienak bai, noski... Beraiek zer ote dakite bada, polizi tartean goazenok nortzu garen!... Lapurrak edo!...

"Euskotar denek elkar egingo balute, polizi horiek eta gainerakoak ere aixe menderatuko lituzkete bada eh!?"

"Hor zetorrek tranbia"...

"Eta tranbia aurretik pasatzerakoan beste aldera salto egin eta ihes ahal baneza!..."

"Eta tiro batetik hiltzen banaute?"... "Eta ostikadaka eta kulata tankadaka hasi eta haiek hitzegin erazten badidate?"...

Lino eta Anjel eta guardiazibilak eta poliziak egurra bezala geratu ziren Xabale tranbia azpian ikusi zutenean.

Andre karraxiak eta frenu nigarrak geroxeago etorri ziren; askoz beranduago ez, baina geroxeago.

Eta Xabalaren bi zangoak iztarretatik ebaki eta alde batera geratu ziren.

Oraindik ordu batzu iraun zuen gizarajoak ospitalean.

– Zergatik egin duk hori? –galdetu zion Linok nigarrez, guardiazibila aldamenen zeukala.

– Ihes egin nahi nian... Zerbait esateko beldurra...

Hori ez da beldurra, gizontasuna baizik.

Bergaran milaka herritar bere gorputzaren zain geratu ziren arratsean.

Bonbuluraino, ia bi kilometro, atera ziren, zain.

Donostiatik zekarten poliziek hori jakin zutenean, automobiliari berriz atzera egin arazi eta Donostiara bihurtu zuten gorputza.

Baina, Xabale, uste al duzue hil dela?

Zeletaka

Ikustoki hoberik ez zen herri guztian.

Guardiazibil kuartela, malda gain batean dago; bi bizitzako etxea da. Bi bizitza eta etxabe bat. Azpiko etxabe honetara sartzeko, maldan hasierako alde batetik hartu behar da. Sagardotegi askotara bezala.

Kuartel hau ez zuten guardiazibilek berek egin. Bai zera! Ez daude gerri horiek makurketan ibiltzeko!

Etxe handi hau Xarobetar batena da; herriko semeen diru eta lanarekin egindako kuartela. Horrelakorik! Guardiazibilek hilerro Xaroberen tabernan ordaindu behar izaten dute hileroko errenta. Atzeratzen badira ere kejetzerik ez. Etxe errentak altxatzen badira ere berea jasotzerik ez. Ez da, ez, guardiazibilei etxea alkitatzea negozio handia!

Xarobek etxe hau guardiazibilentzat egin zuenean, etxabe hau besteren bati ematea erabaki zuen, nahiz eta guardiazibilek berentzat eskatu.

– Es que nos vendría bien para guardar los trastos –esaten zion kaboak.

– Si, pero... –Xarobe maltzurra aitzaki hila... pero ya está alquilao... –nori eman ziola esango zion...

– ¿A quien alquiló usted el sótano? –Pues... –Txapelari jira-biraka... a un carpintero (ez legoke aroztegi baterako txarra)... sí, a un carpintero.

Hala, arotz bat aurkitu behar, eta Upeltegiko Joxeri esan zion hurrengo egunean:

– Hi, Joxe, hire aroztegia ez al da txiki xamarra?

– Bai, ez zeukeat toki handirik; zergatik?

– Nik emango dit toki on bat.

– Non?

– Goiko etxe berrian.

– Guardiazibilen azpian?!!

– Bai, eta zer?

– Lapurreta beldurrik ez duk behintzat hor izango!

– Ezetz?!... Nahiago dizkiat lapurrak bizilagun!

– Tira, Joxe; zenbat ari haiz ordaintzen estartean?

– Hiru duro.

– Zenbat leku daukak?

– Asko ez, egia esateko...

– Gurdi egur batekin leporaino betetzen zaik...

– Bai, baina...

– Goiko etxe berrian lau ere sartuko hituzkek erraz!...

– Bai, eta errenta ere!...

– Zenbat ari naizela eskatzen uste duk?

– Ez zekiat bada...

– Esan, esan!...

– Hik esaniezadak; nik nola esango diat bada?

– Tira, hutsean emango diat: bost duro... Hutsean ematea zen hori, baina:

- Gehiegi duk... lau balitz...
- Ez bost.
- ... ondo zegok...

Bostekoa elkarri eman eta, maiatzerako aldaketa egiteko geratu zen Joxe.

Hau ez da oraingo kontua, gerra aurreko gertakizuna da. Badira honez gero hogeitamar urte.

Frankotarrak sartu zirenean, Upeltegiko Joxe kanposantura goiz batean eraman eta lau falangistek: pan-pan! lau tiro eman eta seko utzi zuten.

Alargun bat eta lau umezurtz utzi zituen gizarajoak.

Zergatik? Nazionalista omen zela eta.

Orain dela gutxi, guardiaibilak oraindik bizi diren goiko etxe berri haren etxabe berean ari zen lanean Joxe. Upeltegiko Joxe zenaren semerik zaharrena.

Larrabideko Anjel sartu zenean, bostak inguru izango zire.

Lana zela, dantza zela, ari ziren biak hizketan.

Halako batean Anjelek esan zion:

- Hi zer haiz, Joxe?

Joxe harrিতuta geratu zen; ustegabeen halako galdera!

- Zer naizen, zer?

- Politika arazoz, alegia...

- Zer izango nauk... Badakik hik, abertzalea.

- Zergatik?

- Aita hala huen: arotza eta abertzalea; ni nauk Upeltegiko semerik zaharrena; zer izatea nahi duk?

- Alegia, abertzalea zergatik haizen...

- Tira, Anjel, ez al nauk euskotarra?... ez al nauk gure herri zalea, ez al naiz euskaltzalea, ez al gara espainiarren azpian bizi?...

- Bai, eta hi bezain azpian inor ez!... -esan zion Anjelek, farrez, sapaira begira.

- Zergatik diok, guardiaibilengatik?

- Bai bada!

- Ez zekiat nola aitak aroztegia hemen jarri zuen.

- Zergatik ez?... Behar bada, orain ez duk gaizki etorriko.

- Zertarako? Tira, Anjel, esaidak esan behar duana, hor habil bueltaka eta!

- Aurrena, hitz bat emango al didak?

- Eman ahal badut, bai.

- Bai, hik eman ahal duan hitz bat eskatuko diat lehenen.

- Bota.

- Nik orain eskatzen diadana bete nahi ez baduk, oso-osorik hiretzat bakarrik gordeko al duk?

- Hori besterik ez bada, noski.

- Zin egin iezadak.

- Bestela Jaungoikoak zigortu eta hemen bertan seko hilko al nauk.

- Nahikoa diat. Hara, abertzaleok badiagu halako antolaketa edo organizazio bat.

- Bazekiat. Ikurriñak zabaltzen eta hormak pintatzen dabilzan horiek.

- Bai, eta zerbait gehixeago ere bai. Horretakoa nauk ni.

- Bai zera!... Ez nian behin ere esango!
- Hor zegok bada, nabarmen direnak ibiliko balira, nola lan egin?
- Bai, hala duk.
- Hik guretakoak izan nahi al duk?
- Bai alajainkoa; eskatu izan ez bahidan, ni eskainiko ninduan pozik; beti izan diat zerbait egiteko gogoak. Eman iezadak bosteko hori!
- Bosteko luze eta isila izan zen hura.
- Bai, eta zer egin behar diat nik -esan zion Joxek, malkoak begietan zeuzkala.
- Oraindik gauza handirik ez; baina zertxobait bai.
- Bota.
- Mutil bat probatu nahi diagu. Gure ustez, espia duk.
- Zein?
- Lurrandiko Manuel.
- Manueltxo?
- Bai.
- Zer egin dik bada?
- Bada, guretakoak salatzen ote dabilen.
- Bai zera... uste al duk?
- Bai, ustea zeukagu oraindik, eta hori ez duk nahikoa. Hori nahi diagu bada, egia den ikusi. Gure ustez, bera izan duk Mujika eta Intza salatu dituenak.
- Nola?
- Berak ikusi ote zituen lan bat egiten.
- Eta nola lagunduko diat nik hori probatzeko?
- Erraz: aroztegi honetatik egun eta gau kuartelera nor sartzen den begira egon.
- Uste al duk Manueltxo etorriko dela?
- Bai.
- Eta noiztik hasiko gara lan honetan?
- Oraintxetik; zertarako etorri nauk ni hona?
- Aroztegiko leiho batetik kuartel atari guztia ederki ikusten zen. Ate bera ez, baina bai sarrera guztia. Leku hartatik ikusi gabe ezin inor pasa.
- Bost terdiak jota ziren; udara bukatzen ari zen, eta eguna bazihoan goitik behera, burrundak bezala.
- Begira jarri eta, ez zen ia inortxo ere guardiazibil kuartel hartara joaten.
- Laister ilunduko dik -esan zion Anjelek.
- Joxek lanari ekin zion berriz:
- Hi, Anjel, gaur etorriko dela uste al duk?
- Bai, hala uste diat.
- Nola dakik?
- Guk horrela gertu dugulako.
- Joxe harrিতuta zegoen.
- Anjel, berriz, bere leiho zuloa utzi gabe.
- Iluna bat batera jaitsi zen herrira.
- Ondo argituta geratuko al da atari hau? -galdetu zuen Anjelek.
- Bai, herriko argiak pizten dituztenean, egun argiz bezala geratzen duk auzo guztia.

- Halako batean, pixt, argiak piztu ziren kalean.
- Hara, herriko argia bota diate –esan zion Anjelek Joxeri.
 - Bai, –erantzun zion Joxek, lanean ari zela.
 - Afaldu ere egin beharko diagu bada.
 - Bai, nire arreba etorriko duk laister.
 - Nola?
 - Itziar etorriko dela orain.
 - Zertara?
 - Afaririk behar dugun edo ez jakitera.
 - Zer daki berak hemen hagoela?
 - Ba... Bazekik bada!
- Joxe harriturik geratu zen.
- Nola hekien hik nik baiezkoa emago niala?
 - Nik ezagutzen haut hi ondo, motel... Gainera ezezkoa izan bazen, ez genian ezer galduko.
- Horrela hizketan ari zirela, Itziar.
- Gabon, ez al duzue etxeratu behar?
 - Ez –erantzun zion bere anaiak– gaur biok afalduko dinagu hemen; zerbait ekarriko al dun? Baina ogitarteko bat bakarrik, eh!
- Han joan zen Itziar etxera.
- Hire arrebak ba al daki zertan ari garen?
 - Badakik gure lan hau isilpe handikoa dela!... Baina hau besterik ez diat esango: guk egin ezin ditugun gauza asko egiten dituztela Itziar eta beste emakume askok, eta hik uste duan baino arrisku handiagoko lanak! Nahikoa al da?
 - Bai, motel, bai... Ez nitxekian eta!...
- Ordu erdi bat baino lehenago han etorri zen Itziar.
- Eta etorri bezala joan zen.
- Argia itzali eta aroztegiko atea itxi zuten.
- Eta jaten ari ziren bitartean, guardiazipilen kuartel haren ataria zaintzen.
- Hi –esan zion Joxek ahoa betearekin– nola dakik hik Manueltxo gaur gauean etortzekoa dela?
 - Lehenengo egunerako gehiegi hitzegiten ari ez ote naizen negok!...
 - Gehiegi? Hitz bat ez didak esan eta!...
 - Bada, hau duk gure lehenengo egin beharra; ixilik egon.
- Joxe mututu zen.
- Isilpeko gauza horiek gordetzen ditudalako ez duk behin ere mindu behar –esan zion Anjelek handik aldi luze batera– gure lehenengo lezioa isilik egoten ikastea duk.
- Joxe isilik oraindik.
- Minduta al hago? –galdetu zion Anjelek.
 - Ez, ez al didak ixilik egoteko esan?
- Biek farrari eman zioten.
- Bederatzi t'erdia elizako erlojuan, eta guardiazipil pareja bat atera zen kuarteletik.
- Hara –esan zuen Anjelek– bazihoaztik Billabonako gau ibilketara...
 - Nola dakik hik gaur hara doazela ? –Ez al gara ixilik egon behar dugula geratu?

- Bai.
- Gau iluna zen, ilargi izpi bat ere ez zen ageri.
- Hi -esan zuen Joxek.
- Zer?
- Ez zuten elkar ikusten. Bakoitza leiho saihesten zegoen, leihotik sartzen zen bonbilargiaren ihesi. Kanpotik inork ikus ez zitzaizkien.
- Nahi al duk nire eritzia ematea?
- Zein eritzi? -esan zion Anjelek.
- Alegia, Manueltxo gaur gauean datorrela nola jakin duzuen.
- Oraindik horretan dabilkik hire buru kaskagor hori!
- Bai.
- Bota, esan. Baina asmatzen baduk ere ez diat esango. Hau duk gure legea.
- Bada... Zuek gaur zerbait egin duzuela, eta bera salatzailea bada, alegia, etorriko dela, eh!...
- Eta nola jakingo diagu guk egin duguna berak ikusi duen?
- Ez zekiat bada, bere muturraren aurrean eginda edo...
- Ez, ez duk hori. Baina ez duk asmo txarra hirea, ez! Baina ez duk hori. Asma ezak beste bat.
- Ez al duk oraindik asmatu? -esan zion Anjelek handik puska luze batera.
- Ez zekiat bada... Ah!... Beste gauza bat bururatu zaidak... Zergatik ez du Manueltxok, salatze lan nazkagarri hori egin behar badu, kuartelera argi-argi etorri gabe, guardiazipilei bestenonbait esaten?...
- Ez uste horren erraz denik... Nor ikusten duk hik guardiazipil batekin kalean hizketan?
- Ez, egia duk. Baina, gauez?...
- Non?
- Billabona bidean doazela?
- Litekeena duk, ez haiz motela: baina ez diate hori egiten. Hori hala balitz, hemen egon beharrean, orain guardiazipilen atzean ibiliko gintuzke.
- Bada... ez zekiat bada... Eta telefonoz?
- Ez, ez... kuarteletik telefonoz hitzegiten dutena bidean hartu eta entzutea erraza duk gaurko aurrerapenekin.
- Beraz, guardiazipilek telefonoz hitzegiten duten guztia zuek entzun al zenezakete?
- Nahi badugu, bai.
- Horrelakorik!
- Hamaikak ziren, eta ez zen inor ageri atari inguru hartan.
- Ez duk honez gero etorriko -esan zuen Joxek.
- Agudo aspertu haiz.
- Ez, ez... Alegia, ez datorrela oraindik...
- Ixil-ixilik egon ziren asti luze batean.
- Ordubete bai.
- Eta noizpait, elizako erlojuak, "tan, tan"... hamabiak.
- Laister dituk guardiazipilak hemen.
- Hau al da garaia? -galdetu zion Joxek.

- Bai, hamabiak alderako hemen izaten dituk berriz.
- Eta handik piska batera, bi guardiazipilak hantxe zetozen.
- Joxek elizako kanpai dorrera begiratu zuen:
- Hamabiak eta zazpi... Ez haiz urruti ibili!
- Eta, hala, guardiazipilak kuartelera sartu ziren, eta halako batean "paxt", atariko argia itzali zen.
- Hara! nola liteke! –esan zuen Anjelek– horko argia nola itzaliko diate bada kuarteletik, herriko argia duk eta!...
- Hara azkenean hik ez hekien zerbait! –esan zion farrez Joxek.
- Bai, hau ez diagu behin ere ikusi orain arte...
- Begira!
- Joxeren oharra zen.
- Non?
- Tabernako ate zuloan ez al duk inor ikusten? –esan zion Joxek.
- Nik ez.
- Guardiazipilaren ataritik ehun metrora Xarobeneko taberna zegoen, plaza aurrean.
- Norbait mugitu duk han... Egon hadi begira.
- Bada ez... ez diat... Bai!... Bazetorrek!!...
- Nor ote da?... Manueltxo?... galdetu zuen Joxek.
- Laister jakingo diagu.
- Eta, halaxe, etxe sailaren kontra errainu bat bazetorren... Eta halako batean... Korrika kalea pasa eta kuarteleko atea jo zuen!! Ate berbera ez zen ikusten leihotik eta han galdu zuten lau begiek erreinua, inor ezagutu gabe!
- Ezagutu al duk? –galdetu zion Anjelek.
- Ez bada... Argi zerri hori itzalita!...
- Baina ez al duk Lurrandiko Manuel dela uste?
- Ez zekiat bada... Hala iruditu zaidak, baina hik esan didaan horrekin, nire buruan ikusi ote dudan ordea...
- Bai, ni ere ez negok ziur...
- Eta orduan?
- Gaur bukatu behar diagu zalantza honekin –esan zion Anjelek.
- Eta nola?
- Sartu bada, atera beharko dik.
- Zer egingo diagu?
- Itxoin.
- Non? –galdetu zion Joxek.
- Bai, hemen ez. Tabernako ate zulo hartan bertan, eta irtetzen denean topo egingo diagu...
- Eta ikusten bagaitu?
- Eta zer!... Ez al daukagu gau erdian kalean ibiltzeko eskubiderik?
- Bai, –esan zion Joxek– baina norako bidean goazela esango zioagu, garai honetan?
- Ez hadi estutu, Joxe; hau egin behar diagu gaur!
- Nahi baduk bai...
- Hala, biak ixil-ixilik atea itxi eta taberna aldera abiatu ziren.

- Eta norbait kuartel leihotik begira badaukate? -Anjelek.
- Egia duk.
- Bi mutilak berriz ate zulora itzuli ziren.
- Beherantz hartu, beste kaletik buelta eman eta atzetik sartuko gaituk taberna aurrera -esan zuen Anjelek.
- Eta bitarte txiki honetan kuarletek atera eta ihes egiten badigu? -esan zuen Joxek.
- Egia duk hori ere.
- Biak aroztegiko ate zuloan zeuden oraindik.
- Tira, hemen gera hadi hi, eta bitartean nik buelta emanda tabernako atera joango nauk -esan zion Anjelek.
- Ondo zegok.
- Hala, malda behera hartzan badu, hik ikusiko duk, eta zerbait esaten badik, bada... aroztegira zerbaiten bila etorri haizela. Eta gora jotzen badu, nirekin topo egin beharko dik...
- Bai -erantzun zion Joxek.
- Agur bada... Eta bera atera arte ez mugitu.
- Ez -erantzun zion Joxek.
- Hala, Anjelek atzekaldetik hartu eta taberna bidean joan zen. Joxe han geratu zen. Elkar ikusi gabe, baina elkar sumatzen zutela, ia ordubete egon ziren.
- Ordubata eta hamar ziren, biek krixketa soinutxo hura sumatu zutenean: "Klak", ilun isil hartan.
- Eta, halaxe, ilunpetan norbait bazetorren...
- Nora hartuko ote zituzten pauso haiek; gora?... behera?... Azkenean, han zetozen goitik behera... Joxeren aldera.
- Joxeren bihotza "tapa-tapa" izugarriekin hasi zen. Ez zekien bertan geratu edo ate zulotik atera. Eta ikusten bazuen?...
- Baina zalantza izugarri honetan zegoela, gizona bere ondoondotik pasa zitzaion. Eta nola gora begira zetorren, norbaitek ikusiko ote zuen beldurrak, noski, ez zuen Joxe ikusi.
- Joxek bai bera. Ileari usain egiteko denbora ere izan zuen.
- Manueltxo zen!
- Mugitu gabe egon zen Joxe gainbehera oso-osorik jaitsi arte.
- Gero, ate zulotik atera eta gora, Anjelen bila joan zen.
- Anjel zain zeukan:
- Eta?...
- Bera.
- Lurrandiko Manuel.
- Bai, ez nian behin ere sinestuko!
- Hala duk.
- Guardiazibilei gure herritarrak salatzen!
- Bada argi ibili hadi hemendik aurrera!
- Bai.
- Eta biak etxera joan ziren; lotara edo.

Elizako erlojuan ordubata eta hogeitabost ziren.

Mantal urdina

Martin Ugalde

Erregetako izpiritu beltzarana

Alargun geratu zen.

Ez zuen inork espero; Xatur, senarra, adinez zahartxoagoa bazen ere, gordinagoa zegoen: zangoak bigunak zituen oraindik, eskailerak neke gabe igotzen zituen banan-bana; jan ere, gibelik eta urdailik ez balu bezala, bihotzerre bat ez; hauspoa mutiko batek bezalakoa; zelan hilko, eta biriketako odolbildua dela kausa. Zerbait gertatzen zitzaiola konturatu zen Baxili, alboan zuen senarra ez bait zen jaikitzen, nahiz eta esnai eta urduri sentitu; argia piztu zuen, eta ikaratu zen!: berez hain osasuntsu zuen larruprintz zuri-gorri hura ubeltzen hasia zegoen, arnasketa estutuz zihoan; gorreriak ez zion orain bertagotik entzuten zion arnasbehar larri eta ziztutsu hartaz konturatzen utzi, eta ustekabean itota sentitu zuen Xatur besoetan.

Biak ohean oraindik, jaikitze alferrez...

Urtarrileko goiz iluna zen; Errege eguna, hain xuxen.

Baxilik bizilagunei esandakoa ez zen guztia egia izan; gertakaria beretzat gorde zuen, inork bere bizkar parririk egin ez zezan.

Baina Xatur hil, urtea laster (80 egin zituzkeen martxoan gaur bizi izan balitz) eta Baxilirentzat ez zen oraindik misterio hura argitu. Egia esan, defuntua bera zen misteriotsu samarra: jaiobezain laster galdu zuen ama (zorigabekoen seinalea) eta amonak, amaren amak, gorde zuen heriotzetik; hala ere haurtzarodanik ez zuen gaixoak bizimodu erosorik izan; bederatzi urterako algodoneran sartu zuten: harilkoa honera, harilkoa hara, eta mandatuak egiten; ez da gauza astuna, baina astuna zera zen, goizeko seiretan mutikoa jaiki arazi, talotxo bat patrikan sar eta azken kanpaiak bultzaka zituela aitak berak eskutik zintzilika muki eta guzti lanera eraman beharra. Karga astuna zen hori aita batentzat. Handik aurrera, indartuz zihoala, Bonbon-ekin obretarako itzain lanetan lehen, eta gero etxegintzan peoi eta zurgin-mutil.

Neguak ez ziren gozoak!

Aita bigarren aldiz esposatu zenean, Xatur Argentinara bidali zuen osaba batengana.

Buelta luzea bezain pobrea egin eta itzuli zen; diruak eman ohi duen askatasunaren bila joan zen mutikoa, gizon heldu izatera iritsi eta gero kontzientziaz katiatuta, lotsatua, etxera zen ia berrogei urte geroago. Ameriketatik ez zuen osabaren bibote handia besterik ekarri, aitaren etxean bazen ordurako, ugazamaz gainera, anai-arreba berririk, bost, eta ez zen jadanik zekarren zama arina arazteko tokia. Ameriketara etxe babesa galdu zuen, hara! Laister jaitsi zen zurtz handia Oriaz behera Lasarteraino; hemendik Donostia hirira lau pauso: eman eta laster hara non aurkitzen duen, topo! (jarrera bera eta hizketa bera) neskametzan ari zen Baxili; mundu berriaren erdian galduta zeuden bi zutoin matxuratu horiek laster arrimatu ziren supazter berri bat pizteko beharrez.

Ezkondu-ezkondu ez ziren egin. Ezin; Xatur dagoeneko ezkondurik baitzen.

Aitortza laburra egin Baxiliri; osabarekin zegoen basamortuko estantzia hartan Xatur bera baino hogeita bost urte gazteago zen neskamea haurdun utzi zuen; osabaren ondoan izan zuen zorte txar honen ondoren, bestea: Elizaz ezkontarazi zuten bortxaz

neskatoaren anaiek, eta bigarrenak hirugarrenari sarritan deitu ohi dionez, emaztetxoak haurra egin zion bezain laster ihesari eman zitzaion. Umekeria bat. Hau ez zen gauza berria Ameriketara, baina Xatur euskalduna izaki!: neskatzarraren bila alferrik Buenos Aires-en ibili, lotsatu eta osabari deus esan gabe zuzenean itsaso zabala gurutzatu zuen berriz.

Hau izan zen Baxiliri esan ziona.

Harrez gero, Xatur eta Baxili elkarrekin bizi dira.

Ez zion batak besteari garantiarik eskatu; honela hartu zuten elkar, eta kito; xehetasun gehiago eskatzen ez denean, ez dago emateko obligantzarik.

Hemendik aurrera, eta heldutxoak baitziren biak, bakoitzari bere barruak agintzen zion arabera, eguneroko mirariak egiten: bata besteari bere atsegin xamurrak pasatzen eta porrotak txurizkatzeko ahaleginak egiten. Bai bata bai bestea, itxaropenari laguntzen ahalegindu zen ondo. Alargunak sentitzen du oraindik ere oheratzen denean defuntuaren gorputz lirain eta zaintsuak berari iragandako (gorreriaren orde zuzaimen fina baitu) zur lurrinak: pagoarena gehienetan; haritzarena maiz, eta erreminta girtanak egiten ari zen denboran, ezpelarena, zur gogor eta leuna bezain lurrin hordigarria zabaltzen duena.

Usain hau zen Baxilik gehien maite zuena.

Bai, Xatur defuntuak bazekien maitasunaren gozamenak ematen, eta zezakeena zen, barrutiko guztia biguna eta goxoa baitzuen gizonak... Argentinan ikasiak ere bai, nonbait, inoiz hortaz iharduten ez bazuen ere.

Hau dena iragana da, baina ez da galdua; galtzen dena, zera izaten da, sekula egin ez dena.

Eta eguna joan, eguna etorri, zahartzen ari ziren neurrian joan ziren oilarkeriak ematen; Xaturren bibote latz-zorrotz hura ere joan zen umiltzen eta makurtzen, eta bide beretik heldu ere iritsi zen Xatur lanetik eta gero bestetik erretiratzeko unea; Baxilik, nahiz hamar urte gazteago izan, aurretik egina zuena; honela sentitu zuten, eta zorionez, elkarrekiko zuten beharra, eta, bidez, elkarrenganako maitasun bare eta lasai hori.

Maitasuna zer da ba askotan elkarrekiko bake hau baizik!

Eta bake eder hau zimendu berrietan oinarritzeko, bizileku alaiagora aldatu ziren.

Kai inguruko etxera.

Arratsalde gehienetan lehiotik portura begira egoten ziren biak, bakoitza berean.

Xatur, buru-belarri; Baxilik galduak zituen dagoeneko portuko hotsak entzuteko eta itsasoko urruntasuna begiztatzeko ahalmek; ama zen honelakoa; nolana dela, hasieran zuen leihorako zaletasun hura (kresalaren lurrin hezegazi-goza!) galduz joan zen eta talai miragarri hartan Xatur bakarrik geratu zen. Andrea berehala konturatu zen gizona itsas zabalaren mirariaz ukituta zegoela. Zergatia ez zion atzeman gau batez leihotik oherantz Xaturrek esan zion arte: "Hemen aurrean dugun bizilagunik hurbilena, Buenos Airesen dagoela konturatu al zara?".

Gizaki guztiok ez dugu barren berdina; Baxilik ez zuen bere baitan harririk sumatzen, eta Xatur, berriz, barruko harrari jaten ematen hasia zen. Arazo txarra, kezkatu eta

barnerakoi egiten hasia zen gizonarentzako; argia ezina baitzen: Baxilirekin haurrik izan ez zuenez gero, garbi zegoen, bitatik bat: Baxili zen antzua, edo hainbat amesten zuen alabatxoa ez zen berea... eta agian Trino deitzen zioten beltxaran alu harena!

Lasaiago legoke Baxili haur egiteko gauza ez dela baleki.

Ahaleginak egin zituen andrea, eta adin hartan!, sendagiletara proba horren bila joan zedin.

Baxilik bazekien jakin behar zena, baina, noski, ezin zuen Xatur minez akabatu; Xaturren larrialdi hartatik ondorioztatu baitzuen gertatzen zitzaiena; eta honentzako kezka bera hobe egia baino!...

Eta, gezur bedeinkatu bat esango balio?!

Halaxe asmatu zuen: goiz batez irten zen Baxili zerbaitetara, eta itzulitakoan "aitortu" zion maitekiro ur bedeinkatuaz santutu zuen gezur hura.

Xatur, bakea begietan, begira-begira geratu zitzaion.

Eta izpiritu berri baten seinale balitz bezala, Erregetako misterio hau sortu zen laster. Xaturri iratxekitzen zion Baxilik.

Esker onez, nonbait.

Ez zen inoiz asko izaten, baina harrez gero ez ziren Erregeak auzo hartatik igaro Baxiliren abarketa beltzetan zer edo zer utzi gabe: galtzerdi pare bat eta sos batzuk, hau bi alditan; belarritako pare polit bat behin; utzi zioten gauzarik handiena, beroki eder bat zen, beltza hau ere; baina Baxilik gehien maite zuena zera izan zen, urrezko katea, Jesus Haurtxoaren irudiarekin, eta bi hitz: "Amona, maite zaitut".

Axaleko zakarretatik kanpo Baxiliri noizbehinka ematen zion maitasunezko deitura zen hau. Amona baitzuen, Ama ezagutu ez zuen Xaturrek, gehien maite izan zuena.

Errege eguna hurbiltzen zen bakoitzean Baxilik bazekien Xatur isilpeko lanetan ari zela; ez zion ezer esaten, baina bai keinuak eta irten-sarrerak zaintzen, bere xulo eta bazterrak miatzen. Harritzekoa baitzen honek zuen usnarekin misterio ximple hau argitzeko gauza ez izatea. Ez zuen ondo entzungo, bixta ere ez zen urrun joaten, baina sena zuen Baxilik berezia, eta beste zentzu batzuk galtzen ari ziren bide beretik beste batzuk zorrozten ari zitzaizkion, eta batez ere berezi hau, airean zebilen zernahiri usaina hartzeko. Eta erregalitako dirua? Poltseroa gizona zenez gero, pentsatu zuen Baxilik Ameriketako dirua gorderik ote zuen. Xahar artekoa honela zegoela, Errege bezperako gaua arte irauten zuen Baxiliren urduritasun honek; Xaturri ezer adierazi gabe, bestela baitakoan; Errege bezperan oheratzerakoan bakarrik esan ohizuen Xaturrek, inori zuzendu gabeko galdera balitz bezala, leihora begira:

"Gaur Erregeak?..., ja, ja, neri axola gutxi, ez bait didate ezer ekartzen".

Sakramentuzko hitz horiekin hasten zen Errege bezperako jokoa.

Haurren gisa.

Baxilik, bere aldetik garbi-garbi egiten zituen zapatak, eta arrandiatsu jartzen zituen gelako leihoan. Xatur aspaldi lehortzen hasia zeukan parrak jartzen zion ekitaldi honi doinua.

Erne egoten ahalegintzen bazen ere, loak hartzen zuen Baxili; inoiz esnatzen bazen, eskubiko besoa luza eta senarra gerritik hartzen zuen, andrea ohartu gabe gizona jaiki ez zedin. Eguna pizten hasten zen bezain laster, haurrak jolasean erabiltzen duten jarrera

beraren planta egiten zuten aiton-amonek; Xatur jaikitzen zen beti lehen, leihora joan eta esaten zuen:

"Hau duk, hau, orain ere sartu dituk!"...

Eta, harritzekoa, gizona beraren harridura argi-argia zen; atzematen zion andreak!
Eta hala ere esan behar zion:

"Noiz ipini dituzu opariak hor?!"

Eta algaraz hartzen zituen Xaturren eskutik ohean.

Misterioaren berritzea izaten zen pozgarriena, harrigarriena!, Baxilirentzat, eta harridura bertan zegoen Xaturri galdetzen zion ia nondik eta nola erosi, ekarri eta ohelaguna bera ere ohartu gabe jarri zizkion opariak leihoan, loari eman gabe egon zela gau guztian eta... Xatur, beti bezala, izugaitz, sorginkeria hartaz laudorioz edozer esaten.

Igaz gertatu zena ez dio, helere, inori esan.

Xatur jaiki zai egon zen; alferrik, Xatur hiltzen ari zen bitartean!!

Gorputzari besarkatuta geratu zen, hilotza gerrian somatu zion arte... Orduan ohartu zen heriotza zein harri pisu-hotza den.

Ez zen hala ere izutu; askotan bere baitan une honetaz pentsatu zuen, ez Xaturrentzako, halere, beretzat baizik; izarak ta burusiak atondu zizkion, goizean ohea egiten ari balitz bezala: orain, Xatur barruan zuela!

Itxi zizkion begi xuri-urdinak, musutu zuen berriz aurpegiko more-ubela eta ile eta zutak, sudur handia eta sudurpeko famatua izandua, eta eskuko behatzekin pasa zizkion, itsuka bezala, zimur maitagarrien ildoak... Etxea, ezpelaren lurrin ederrez lurrieztatzen hasia zen dagoeneko... Jantzi zen, eta butanoa piztera zihoala (oraingoan dena aldrebese) han ikusi zuen gau hartan Erregeek ekarri ziotena: burusi elektrikoa eta mazapaneko suge handia barruan zuen kaxa borobila... Lapurretan ari bailitzan, denak jaso eta armairuan izkutatu zituen.

Inork aurkituko ote zituen beldur.

Gero butanoa piztu zuen, hotz baitzen.

Eta orduan, azkenik, hor ireki zuen giltzaz sarrerako atea, iragan bidera irten zen eta aurrez aurre zituen!, bizilagunen atea jo zuen.

Eta gero gerokoak.

Baina aurten, gaur!, egun hartako minak datozkit berriz: defuntuarekin egon nahi-behar nuenean, etxe guztiko bizilagunen iskanbila, jakin nahia, musintasun lotsagabea izan nuen, eta, bidez, gizartean nahastuta dabilizan bezala, jendearen bihotza, esku zabala, maitasuna bera; nirekin inoiz hitzik gurutzatu ez zutenak ere etxe barruan zebiltzan, gelaz gela, denak kolpetik hemen bizitzen jarri izan balira bezala. Baziren zahartxo batzuk, bigarrenekoak, eta horiek apalen eta hilagandik urrunen; haurrak, berriz, hilaren inguruan jolasean; txakur bat egon zen gorputzaren ohepean, irten nahi ezik.

Defuntua janzki urdinez apaindu nuen; laguntza eskeini zidaten, ikusi nuen jakinnahi kurios zelatari hura emakumeetan, eta Arantxa bakarrarekin itxi nintzen giltzaz gelan!; ni neu hori egiteko gauza nintzen, eta Arantxa ez zitzaidan hain arrotz

egiten, ez dakit zergatik, eta, gainera, berez sartu ere egin zitzaidan gelara nik atea itxi aurretik.

Handik aurrera, batez ere Arantxa bera, atezaina, izan zen laguntza beroa eman zidana; senarra lanean du beti, hargina da; alabatxo polit bat ere badute; "egun on", hark, eta "egun on", nik; haurtxoari goxo bat erosten nion noizbehinka, besterik ez. Baina gau dela urtebete, nere ondoan sentitu nuen, nik besoa luzatzeke harena lanean jartzen zen. Haurtxoaz galdetu nion, eta aldamenean utzi zuela esan zidan.

Errosarioa gauez defuntuaren inguruan esan zenean ere nire ondoan zegoen eserita.

Gogoan dut nola halako batean eskua hartu nion, behar bait nuen hitzik gabeko zerbait adierazi, eskertsu, eta otoitz egiteari utzigabe nirea estutu zidan irripartxo biguna eginez. Geroztik etortzen zait noizean behin, eta lore batzuk direla, frutaren bat, enkarguren bat egitea nahi al dudan galdezka, batez ere eguraldi euritsua edo hotza denean... Gaurko egunez gomutara etortzen zait orain han isilik, hila!, dagoen etxebizitza hauze igaz nola zegoen, eta pentsatzen ari naiz Erregeak joan direla betiko nere bizitzatik, eta hala ere ez zaizkidala inoiz ahaztuko. Ez didate gaur gauean oparirik ekarriko; hala ere, badakit gau guztian, eta oraingoan egitaz, erne egongo naizela, ez dudala, neure defuntuaren alboan oheratzen nintzenean bezala begiak ixteko pixu baketsu hori betazaletan sumatuko.

Pake hura joan zen; luzea egingo zait gaua.

Eguberritan etorri zitzaizkidan bizilagunak, eta Arantxa, nola ez!, eskuetan zertxobait zutela, eta aurrez-aurre ditudan bizilagunak berekin afaitera deitu ere egin zidaten hiruzpalu aldiz. Eskertu nien eskeintza, noski, baina ez ninteke ni inoren etxean hemen bezain ongi sentitu.

Ia hirurogeita hamar urteko erreumadun bizkarrezur hau ez dago gehiagorako.

Nere afaria, defuntuak hain gustora jaten zituen aza-olioak eta arraina izan ziren; ez bixigua, biok ohi genuen bezala, niretzako bakarrik garestiegia baita.

Errege eguneko afaririk ez dut egin, ez baitut gogorik.

Otoitz egin (hau ere Xatur zenari zor diot) eta oheratuko naiz. Bero-bero egon naiteke defuntuak igaz zapatetan utzi zidan burusi elektrikoari esker, baina esku haiek utzi zituzten leku berean aurkitu nahi ditut aurten ere; ilusio hori ez dut galdu nahi bihar goizean, eta orain nerez, jasoko ditudanean; eta honela, berogailurik gabe, ez dut hain azkar lorik hartuko; oheko lurrinak usantzeko denbora gehiago izango dut; batez ere azkenekoa, ezpelarena, etxe honetatik ni bizi naizen artean joango ez dena; "hil zirenak biziko dira beti", hau ere hark erakutsia niri; Xatur bizi zela (igaz arte, eta badirudi mila urte iragan direla) egiten nuen joko bera egingo dut: zapatak itsasora eta Ameriketara! begira dagoen leihoan jarriko ditut; eta ez zaizkit opariak faltako.

Dena lehen bezala izango da; eta itxaropena badut Xatur bera ere neurekin sentituko dudala gau honetan.

Hau dena nere jokoa da; niretzat eta defuntuarentzat; ez baitu beste inork jakin beharrik. Neronek ipiniko ditut bi gauzak, sugea ukitu gabe geratu baitzen igaz.

Honelaxe sartu naiz ohean; horren goiz, eta dagoeneko Erregeak etorri zai.

Zer egin dezake mundu honetan bakarrik geratu den amona batek.

Orduak kontatzen hasia naiz gaumahaian daukadan iratzargailu handi honetan; nik entzuteko behar ditudan tanta lodi eta zaratatsuek esaten didate gaua aurrera doala;

idien pausoak dirudite; gurdia atzetik, eta gurdiaren gainean sarale karga eder bat, eta saralezko mendi horren gainean, Baxili, ni, neu!, eta aspaldi hil ziren nire ahizpak: Dolox, Anttoni, Gabina. Xatur falta da... Ah!, han doa defuntua idien aurrean, itzain dotorea, ezkontzako edo, bidaia hura egin genuenean elkarrekin erosi genuen janzkia; Xatur ez doa bakarrik idien aurretik, zazpiren bat urtekoneskatoak ematen dio eskua. Nik ez dut ezagutzen, Xaturrena-edo izango da; neri señoritoak egin zidana, eta bertan behera utzi arazi zidatena, gajoa! lapurtu zidatena., balitz, nere magalean egongo zen...

Ikusi-makusiko erdiloan nagoela zerbait ireki du haizeak; aurpegian sentitu dut hotza; eta jaiki naiz; oina solairu gainean jarri orduko etorri zait Xatur burura!... Honek gauerako jarri zuen ipurtargia ez zen niretzat nahikoa, eta argia piztu dut, izututa!...

– Arantxa!, zer ari zara zu hemen!?

Arantxaren harridura handiagoa izan da neurea baino... eskuetan dakarren fardeltxoak jautsi zaio eta ez daki eskuekin zer egin.

– Barkatuko didazu... –esan dit.

– Nolatan sartu zara nere etxera? –hurbildu natzaio.

– Giltzaz... –eta fardeltxoak zolatik jaso eta eskaini dit irripartxo apal batekin.

Nik hartu diot, baina ez dut fardeltxoak zabaldu; ezinbestez, eseri egin naiz ondoko aulkian, eta argi batek jota bezala hitzegin diot hemendik:

– Nor zaitut?

– Ni?, badakizu, Arantxa; atezaina.

– Besterik ez?...

– Ez. Ezagutzen nauzu.

– Eta, giltza?!...

– Badaezpada, zure senarra zenak urtero uzten zidan; hark irekita uzten zuen, giltzaz itxi gabe, baina zuk giltzaz ixten bazenuen, hor nuen hark emandakoa...

– Opariak zerorrek ipintzeko...

– Halaxe da... Hain zen gizon maitakorra; batez ere nere alabatxoarekin izaten zituen kontuak, eta "aitona" deitzen zion...

– Zu izan zara, orduan...

– Bai, eta igaz giltza zure gizonari itzultzerik izan ez nionez gero, badakizu... Urte guztian eduki dut giltza patrikan erretzen, eta ez naiz ausartu, ez nekien zure senarraren tranpatxo hori nola argitu.

– Negarrari eman diot, zer besterik!, eta fardeltxoak zabaltzen ari naizela jarraitu du Arantxak:

– ... hala, pentsatu nuen, neronek, nerez, zerbait eskaini behar nizula, hain bakarrik ikusten baizaitut! eta lepoihaltxo bat egin dizut...

– Hori zen lehengoan zuk behean izkutatu zenidana?

– Bai; ez nuen eta zuk aurretik ikusterik nahi...

Ez daki neure begien aurrean dudan Arantxa honek ixileko zenbat gauza ager arazi dituen nere baitan...

Eta hauxe da: ezer ez!

Ikusten ari naiz egin didana, oso polita da, artile grisarekin eskuz egina, eta, gainean, eskutitz azala dakar oraindik; bihotzak taupada larrian eman dit!, neure buruari ere aitortu ez diodan susmo hutseko misterioa oraindik posible da... giltza jautsi zait

zolura, etxekoa da, defuntuarena; baina bada hemen papertxo bat... neronek ez nuen letra baldarragoarekin idatziko:

"Barka papertxo honekin zure urteroko Erregeak uxatzera etorribanaiz". Arantxa.

Xaturrena iragana bada, nere azken ametsa ere joan da gaur, Erregetan bertan, sekulako.

Eguzkiaz jertsea ehotzen

Beñat, hamabi urteko mutiko mehar luxea zen.

Berezko nabarmena zuen ahobero demasa izatea; ez gezurtia, batzuk hala uste bazuten ere, baina bai gauza guztiak handikariz apaindu behar hori barruan zeramana. Esate baterako, Ainararen ile mototsa luzea zela adierazteko, hiru kilometrokoa zela esaten zuen; neskatoaren begiak urdin-berde bereziak zirela esateko, munduan diren mila eta sei itsasoetako ur tanta biz tindatuak zeudela asmatu zuen.

Batzuk bertsotarako etorria duten bezala, Beñatek beste honetarako zuen hitzetorria.

Haur bat oraindik, eta dagoeneko honen ateraldiak famatuak ziren herrian.

Ez zituen gurasoak beste mundukoak.

Aita, Joxe "Usurbil", arotza zen; isila oso: zurak usainez ezagutzeko dohain harrigarria zuen, hori bai: "hau ezpela duk, hori lizarra, beste hura gaztaina"... eta honetan jarraituko zuen: elorri, gorosti, haltz, pago...; behin apustuan, itsuka eta ukitu gabe!, hirurogeita lau zur zatiak ikus-ukitzen utzi izan balizkiote, ez asmatutako hirurogeita lau bakarrik usaindu zituen ehun eta larogeita hamarrak ere antzemango zituen!

Hauxe zen Joxe "Usurbil", Beñaten aita.

Beñaten ama, Anttoni, bestalde, senarra bezain isila bazen ere, baziren sorgintzat zeukatenak: etxera gaitzak jota ekartzen zizkieten abere eta txoriak, hutsean, sendatzen zituelako! Eskuetan zuen Anttonik dohain harrigarri hau: asmak jota erdi hilik zegoen katuari gainetik eskuak hiru aldiz pasa, pasa, pasa, eta miauka hasten zen; birigarro batekin oraindik handiagoa egin zuen: kaiolan hilda goizean aurkitu zutenaren aurrean txori eder hau ezkerreko eskuan hegan hastera balioa bezalako jarrera berezian etzan eta eskubikoaren behatz erakusleko erimunintxo buru-moko beltzen gainetik fintasun handiz eta Anttoni bakarriketa ixilean konzentratuz hiru aldiz pasa, pasa, pasa, eta bi hanka beltzak mugitzen hasi orduko emakumeak abiada gozo batez gorantz bota zuen bezain laster hasi zen txori berde-beltx-gorria hegan, denak ahozabalik begira zeudela... "Zer nahi duzue –esan zion Anttonik– piztutakoa berriz kaiolan sartzea?!..., berpiztua izan dena sakratua geratu da Kristoren Igokundeak bidea markatu zuen ezker!".

Isil-isilik joan zitzaizkion eskutsik etxetik.

Handiena, ordea, behin Donostiara etorriko zirkoan egin zuena izan zen: elefantea jarri homen zela gaixo, eta Uxurbildarren Anttoni behar zutela eta bila etorri zitzaizkion bi gizon automobil urdin-urdinean herriraino: erregu luzeak ezaxola entzun eta gero, baina eraman zuten hala ere, eta estanpetan izan ezik ikusi ez zuen animaltzarraren aurrean emakumeak bere burua ikusi zuenean, ez zen batere larritu: sabeltzarreko azal zimur-lodi-lehor nardagarri eta higuigarri hartan imurtzikada batzuk egin, eta elefante hemea sendatu egin zen!

Kazeta bidez mundu guztian zabaldu zen istorioa.

Hori dena zorte hutsa izatea zitekeena zen, sines gogorrenzat behintzat.

Urteak joan, urteak etorri, Uxurbildarrek ez zuten familia izaterik lortu: "atsoa" deika hasiak ziren aspaldi betiko lagun-urko "maitagarriak"; eta zahartzaroan ongi sarturik zirela, antzua zein ote zenaren arazoa ahazten hasiak zirenean, hirurogeitik gorako Anttonik Beñat eman zion Joxeri; hor zegoen haurra!, herriak ezin sinistu bazuen ere; sortu zuen mirari honek izpide franko; baina gero, Beñaten fama gurasoena gainezkutzen hasi zenean, denak ados jartzen hasiak ziren: ezin zitekeen hau dena kasualitate soil izan.

Hamabi urteko haurra, Uxurbildarren hondar hau, izan zen hala ere malizia gehienaz ikusia zena. Umea baitzen!, umeari jarrai ezin zioten baldarrenak ziren Beñat erotzat hartzen hasi zirenak.

Bazen, hala ere norbait Beñaten defendatzaile leiala zena: Ainararen hamaika urteek ez zioten mutikoari baietz besterik esaten, eta batzutan, harrigarria bazen ere, ulertu egiten zizkion mutikoari esaldiak. Behingo batean Beñatek udako lagunartean, eta neguko janziak ari zirelarik, zera esan zuen naturalki: "Neri ama eguzkiaz jertsea ehotzen ari zaidak"... Parrari eman zioten lagunek; baina Ainara hurbildu zitzaion eta ozenki, alai bezain maitakor, esan zion: "Jertse horrek ederki berotuko zaitu neguan, Beñat!".

Mutikoa hunkitu zuten hitz horiek.

Bai hurbiltzeak berak ere.

Garai hartakoak dira bien arteko harremanen hasierak.

Isilak; esan eta ukitu gabe luzaro gordetzen diren horietakoak.

Baina honelako gertaerak mingarriak izaten ziren Beñatentzat; batez ere Ainararen babes berde-urdina faltatzen zitzaionean; urteko aldi luzeenetan, uda eta beste jai nagusietarako besterik ez baitzen herriratzen; isekaldi horietan mutikoa bakarrik sentitzen zenean, ihesari ematen zitzaion; ez zuen presaka eta purrustadan taldea uzten; bat, beldurtia ez zelako, eta bi, buruestima handia zuelakoi aitzitik, haserrea erakutsi gabe, agur esanez gero, zutik, burgoi, alderatzen zen.

Nora joaten zen Beñat honelakoetan?

Uxurbildarren etxeak bazuen abantailik: herrian bertan egon arren, mendialdea zen; hurbil zuen ehiza, hurbil mendi-ura, haritz, pago eta lizarrez hornitutako ubidetik jaitirik ibai hor bertan bilakatzen zena; hor zegoen ur bazterrean aita egindako ala zabal-txapala, ibaia eskuko alanbrez arriskurik gabe zeharkatzeko galipot beltzez eta istupaz ongi miztilatua. Ibaiaz bestaldetik, Ailurraldeko ibar aberatsean Uxurbildarrek alokatua zuten baratze bazter bat eta itsasoa zirudien artasoroaz gainezka. Ailurralde bertako basetxeraino; gero, mailaka, berdea iluntzen zihoan arabera, mendialdetan baserriak, eta azkenik, pinu ilunez egindako mendia. Ibaiez honuztik, berriz, gaztainadia, ez handia, berrogeita hiru zuhaitzekoa; eta honen hegalean, haritzondo handi, lerdan eta hostotsua.

Honek ematen zion etxetxoari babes aparta.

"Zenbat urteko haritza ote duzue honoko hau", galdetu zion behin bezero batek; Joxe gizon egiatia izan, eta erantzun zuzenik emateko gai ez zenez, txapelarekin jira-biraka hasi zen, eta aldamenen suertatu zen Beñatek esan zuen: "Hostoak hainbestekoa

bai"... / "Hostoak kontatu behar!", egin zuen barre bezeroak. / Eta berehala Beñatek: "Nik, neuk, kontatu dizkiot ehunda hamabi mila eta hogeita hamar"... / "Nola esan duk?" / "Bai", erantzun zion Beñatek, "eta ernamuinak kontatu gabe"...

Honelakoetan ez zuen Joxek ezer esaten, baina bistan zegoen semearen ateraldiak gogoko zituela.

Etxea bera ere aintzinakoa zen, baina haritzondoaren babes bila eraiki zutela bistan da. Inoiz basetxea izana, noski, baina zerrategia eta aroztegi bilakatua, eta Joxe bera hemen jaiotzerako aspaldi honen aita hemen zurgintzan aritua. Garai batean ikuilura mugatua zen aroztegia, baina gero behe guztira zabaldu zuen Joxek. Orduan igo zuten sukaldea gora, eta harrez gero aroztegiaren gainean zuten etxebizitza. Ez zen hemen zerrautsik falta: solairuko tartetatik pasa eta aulkietan, ohetan, armairuetan pausatu eta gero kaxoietan, sukaldeko eltze, zartagin, burduntzali, katilu, godalet, baso, mahai gaineko goilare, ganibet eta gatzontzian ere saltoka ibiltzen zen, Anttoniren nahigabe handiz.

Beñatek esaten zuen birikak zur finez, haritzez, forratuak zituztela.

Zarata ere ez zen Uxurbildarren etxean garesti!

Goian, ganbaran, aurki zezakeen mutikoak eskolako lanak egiteko pake apur bat eta arnasketarako aire garbiagoa.

Hemendik sortu zen haurrak haritzari zion maitasuna eta errespetoa.

Hasieran, leihotik ganbarara sartzen hasia zen haritzondoaren adar baten lagun egin zen; gero, haitzaren geografia arrotza eskuz eta gorputzez abarrak marruskatzen eta oineskuz egindako ibileraz ezagutu zuen, kimak nondik nora igoko ziren kalkulu bitartez asmakizunera jarri zen arte; egun batez aita Joxek izuturik haritzondoaren goiko puntatik deika eta parrez atzeman zuen!

Joxe bera ez zen gauza hara igotzeko, hau lana! Anttonik bazituen bere abilitadeak, baina seme bakarra lurretik hogeit metroz goiti zegoen adarrean eserita ikusi zuenean zorabioak hartu eta sukaldeko zolan eseri zen. Bien bitartean, hamar urteko haurrak abarraren gainean eserita zangoak kulunkan, eta katua, Pitxitxi, aldamenean eserita behera begira; katuak baino zorabio gehiago ez mutiko demontre hark!, eta jaitsi nahi ez; edo ezin.

Antxermok itobeharrean eskailera handia Udaletxeko zaldigurdian ekarri zuen arte.

Noski, berehalaxe zabaldu zen herrian Beñaten abentura sonatua.

Mutikoak haritzarekin izan zuen harreman hau ez zen hasiera besterik izan. Laster atzeman zion hain zarrakatua zegoen etxe hark ez zuela haritz sendo eta zindoarekin aspaldidanik hasitako borrokaisil bezain erabateko hartan zereginik. Haritzak lehen oinarritik zuen kondenatu etxea; ez gorrotoz, berezko indar nagusiz baizik.

Beraz, erraza zen etorkizuna asmatzea: etxea behera, zuhaitza gora.

Lurretik hogeita hamar metro gora zegoen hiru behatz handiz eginiko oinarri edermardul-tinkoa aukeratu zuen, eta arrats beherako tarreak gorde zituen lan honetarako. Isilean hasi zituen lanak; baina behar zituen iltze eta oholak izkutuan eskuratzen zituen arren, laster igarri zion aitaren txapel zaharrak maina, eta, bihotz bera izaki, emazteari han goiko arriskuen kezka itzurtzeko asmoarekin Anttoniri mutu eta Beñati laguntzen hasi zitzaion.

Anttoni engainatzea ez zen erraza, ordea!

Hala ere honek bere aldetik ezikusia egitea erabaki zuen, bai baitzekien etxeko bi gizonen aurkako protestak alferrekoak zirela!

Maitasunak, adierazteko mila eta lau bide baditu.

Beñatek hamaika urte bete zituenerako izkutuko opari edo izan zen amaren harridura! Harrez gero, urte osoan zehar, Beñat erosotasun bitxiak eransten ahalegindu zen: ganbarako leihotik sartu zen adarretik gora mailak erantsi zizkion; ez iltzez!, zuhaitza zauritzeko beldur, sokaz baizik; mokorra estutu behar zuenean, bizikletako gurpilen tubular goma bidez forratzen zuen soka. Mailatxo horiek, ama bera igotzeko erosoak ziren; hau kontuan izan zuen Beñatek; "Mendi" txakurrentzat beste zerbait asmatu behar zuen, ardiak biltzeko abila zen bezain baldarra baitzen zuhaitzik gora abiatzeko orduan; Pitxitxik, berriz nahiko zuen eredatu zuenlau hankako atzazal sistema ederra; etxolari aitak egindako teilatua aldatu egin zuen: etzanda zegoela zeruko izarrak nondik nora mugitzen ziren eroso aztertzeko, finkoa zena errobidez itxi eta irekitzeko mugikorra egin zuen, soka gogor bat lotu zion etxolako hiru oinadar nagusietako bati, euriarekin mailatxoak irristakortzen zirenerako sokaz bonberoak legez jaisteko; ezin zuen hara gora elektrikargirik igo oraingo, baina eskuargi bat sokaz sapai erditik zintzilikatu zuen; leihatil bat ere ireki zion mendi aldera.

Horiek izan ziren etxolari erantsi zizkion lehendabiziko erosotasunak.

Gero, txoriez arduratu zen, maite baitzituen: kontuan eduki zituen Pitxitxiren mainak, ez uste!, eta ongi babestu zituen bost habileku kokatu zituen, bai baitzuen oraindik amak piztu zuen birigarroaren umerean, edo ume horien beste umeren bat ikusteko itxaropenik.

Eta Beñatek, handikeria sakrilegoa barka!, Jainkoak mundu hau eginda ikusi zuenean senti zuen antzeko poztasunak kilimatu zion gorputz guztia.

Hegoak jotzen zuen iraileko afalondo batez, egunargiz oraindik, gizon bat heldu zen aroztegira; Joxek hartu zuen, haritz enborrean eserita zegoela.

Arrats behera, haritzaren zerrauts usainez puztua zegoen.

"Arratsalde on", esan zion etorri berriak, "Beñaten aita otezaitut?"

Joxe Usurbil zutitu zen eta baietz esan zion, ahoz baino gehiago buru keinuz; harrituta, lehenengo aldiz baitzen gizon batek, eta honelako klaseko jaun batek!, Joxek berak zuen dohain famatuarengatik galdetu beharrean semearengatik galdezka hurbiltzen zela...

"Etxean ote duzu?... galdetu zion berriz; "barka iezadazu, herritarra naiz, lanbideak behartuta gehienbat hirian bizi banaiz ere, zuk ezagutuko zenuen Joxemari "Nafarra" arotza zenaren semea nauzu..."

"Nafarraren semea?!, bai noski...; zure aita zenarekin obretan ari izana naiz..., ni haren mutil, askoz zaharragoa baitzen; gartzetandik izan zuen hark xuri-xuri bizarra, eta bizar honen xuria bezain ona zuen bihotza Joxemarik... Zer nahi duzu, jauna, nire semeak zerbait hautsi al dizu futboleko dabilela edo tiragomaz kristalen..."

"Ez, ez... Poesiaren aditzaerarik ba al duzu?!"

"Zer da hori, zuhaitz arrotzen bat?!"

"Ez, ez... Ondo ezagutzen dut zure dohain harrigarri hori, eta zorionak; neure lana

bestelakoa da, ordea"...

"Zuk esan".

"Nik, neuk literatura irakasten dut, eta irakaskintzako inspektore ere banaiz..."

"Ongi da", dio Joxek jakineza txurizkatzeko.

"Zure seme Beñatek poesiarako dohain handia du".

Ixil-zain geratu zaio Joxe, ea nondik nora datorren...

..."Hemengo herriko ikasketa guztiak egin ditu aurten; hitzegin dut honetaz gaur ikastolan; aurrera bideak jarri behar zaizkio mutikoari".

"Eta zer bide aroztegian duen aukerako hau baino hoberik, jauna?", galdetzen dio Joxek pixkaren bat minduta, "ni, neu, zahartu naiz, hemengo lanak seme bakarraren zain daude".

"Horretarako zaletasunik erakusten badizu, ez dut neure aitaren lanbidea inoiz ezduintzat jo; aitzitik, dignitate handikoa da!".

"Horixe ba!".

"Baina nik neuk ere ez nuen horretarako deirik sentitu; lanbidea ez da beti, sudurraren itxura bezala, gurasoengandik heredentzia legez jasotzen"...

"Bai, eta galdu egin zenuten halako lantegi ederra"...

"Bai"...

Joxe, irakaslearen gainetik geratu zen: 'Jaso iezadak biparet hori!' bere buruari esanaz bezala; baina berehala apaldu zen, eta dorpezia xuritu nahirik esan zion zutik zegoen Joxek oraindik zutik zeukan jaunari:

"Eseri zaitetz"...

"Bai, haritzondo ederra zenuen honoko hau"...

Biak haritz enborraren gainean eseri zirenean, neurri berekoak bilakatu ziren, alturaz eta jakituriaz; zuhaitzak badu Euskal Herrian, etzanda badago ere pertsonak galgatzeko, berdintzeko birtute miragarria.

Jaun honek zuhaitzez erakutsi zion estimak irabazi zuen Joxe.

"Esan orain, jauna", diotsa Joxek, "zer duzu neure Beñatentzat buruan?".

"Hirira eramango nuke, hango ikastola nagusian eta gero Unibertsitatean nik neuk ikasi dudana karrera bera egin dezan".

"Karrera, karrera..., hori aberatsentzat da!".

"Neuk lagunduko dizut behar dituen dirulaguntzak aurkitzen; argia denez, laster ikasiko ditu behar dituenak"...

"Behar dituenak..., behar al ditu?... Ezagutzen al duzu mutila?".

"Herri osoan ezaguna da Beñaten dohaina"...

"Ulertu ezin direnak asmatzeko hori!"

"Ezjakinez ez dute ulertzen poesia; poeta duzu semea, Joxe".

"Hori zer den esaten badidazu"...

"Badakizu bertsolaritza zer den"...

"Bai noski, jauna; neronek ere pixka bat egiten dut eta...; baina nik ez diot Beñati bertso soil bat entzun!".

"Ez, poesia ez da bertsolaritza bera, baina honek dituen edertasunez gainera goi mailako beste batzuk ditu poesiak".

"Deituko banio"..., Joxe galtzen baita hitzetan!

"Egizu horixe, mesedez".

Joxe enborretik aupatu zen, ederki hirurogeita bost urtetarako, biratu zen, eta etxerantz begira: "Anttoni", dei egin zuen; laster agertu zen Anttoni leihoan: "Zer duzu!"...; eta Joxek: "Tira zintzarri horretatik, Beñat jaitsi dadila"...

"Zer zintzarri da hori?", galdetu zion irakasleak.

"A, bai!... Zera, Beñat, etxe atzean dagoen haritzondo horren gainean egin zuen, genuen!, etxolan aritzen da Ikastolan agindutako udako lanak egiten..., entzungo zenuen ba zintzarria!?"

"Bai, eta ez nekien hotsa nondik zetorren, hegoak urrundik ekarri balu bezalatsu heldu baitzait"...

"Hona hemen; Beñat!..., hurbildu hadi!".

"Egun on, jauna", esan zion irakasleari.

"Bai zuri ere; asmakizun polita duzu hor goikoa!, eta zutitu zen irakasleak esku eman zion hitzegiten ari zen bitartean: "Zergatik ez didazu etxola hori erakusten?"...

"Eta aitzaki honekin han utzi zuten Joxe behean, txapela okertuta, gertakari honek zer esan nahi ote zuen kezka... Laster etorri zitzaion emaztea misterioan murgildurik..."

Beñat eta irakasleak ordu erdi bat egin zuten han goian, haize txistu gozo-epelak lagun. Joxe eta Anttoni, bien bitartean, luzetsirik. Jaitsi ziren noizbait, eta aritu ziren lauak hizketan ilundu arte: hiru gizonak enborrean eserita, Anttoni besoak gurutzatuta zutik larri; baina hala ere pozik, jaun handi honek Joxe eta bien semeaz honelako asmoak erakusten ari zelako!

Beste behin agertu zen irakaslea zerrategian, eta behar zirenak erabaki zituen. Haritez inguraturik, arrats behera gorri-epel-gozoan, zerrauts usaina airean, hartu zuen zetorren kurtsoan bertan Aitor Larunbe jaunak Beñat hirira eramateko erabaki hau.

Mirarietan sinesten ez zutenentzat sortu zen kezka eta malizia ugari herrian; eta ez zen harritzekoa; Uxurbildarrak berak ere ez baitziran oraindik harridura hartatik irten. Beñat bera edozer sinesteko prest zegoenez, naturalki geratu zen etorkizunaren zain.

Poesi bideak irekiak eta mugagabeak ikusten baitzituen berez.

Irakasleak bigarren ikustaldian opari egin zion Lizardi poeta sonatuaren Bihotz begietan liburua irakurtzen jarri zen etxolan hirira joateko falta ziren hamabost egun horietan. Gertakaria arrats gorri batez jazo zenez gero, izen hau zeraman poema izan zen mutikoak lehen irakurri zuena.

Txundituta geratu zen lehenengo bertsoarekin:

"Zerk goibeltzen zaitu, maitea, arratsero,

"aizea ta txoriak atertuz-gero?

"Begizabaletan zerk edatzen dizu

"gandu delako ori, erdiz nigar ta izu".

Misterioa zerioten hitz eder horiek ausnartzen orduak, ordu gozoak!, joan zitzaizkion, eta hamabost egun horietan lau, bost aldiz irakurri zituen liburuko hogeii poemak, gaiez gai, zati asko buruz ikasi.

Larunbe jaunak, eta mirariz, piztu zion argia!

Oraindik Beñatek ez zekiena zera zen: ezagutu berria zuen irakaslea, Ainararen aita zela; Ainarak ez zekiela honen aita Beñaten bila joan zenik, eta azkenik, Aitor Larunbek ez zekiela Beñatek eta Ainarak elkar ezagutzen zutenik.

Eta hara nola!, Ainararen gurasoek, eta dagoeneko neskatoa tarteko zela, noski, eramán zuten Beñat hirira; han utzi zuten ikastola nagusitik gertu bizi zen familia batekin. Uxurbildarren hondar preziatuak bere bide berria gurasoengandik kanpo, maite zuen herritik at, etxolaren babes gabe, berez nahiko bakarti eta barnekoi zenak, galdurik pasa zituen lehenengo bi hilabeteak; ikastola eta lagunarte berrietara egin arte, hiriko hots burrunbatsuen izua gaingitu arte, etxolatik ikus ahal izaten zuen paisaia eta zerua pixka bat ahaztu arte, amak gertatzen zizkion janarien dastamen bereziaren ordainez (zerrautsak bazuen apika zerikusirik hemen!) berrira ohitzen hasi arte.

Bitartean, larritasun bat hasi zitzaion lanean: Ainara noiznahi ikusteko gai izango zenaren ametsa ari zitzaion ihesi joaten!

Eta urduritasun hau, amets baten ondoren hasi zitzaion etsipen bilakatzen... Lehenengo aldiz, ametsa idatzi egin zuen: "Etxolan etzanda zeru urdinera begira nengoan, zuriz maskaturiko ilargia borobil osoan ageri zela; bapatean hodei xuri-arina irten zen neme haritzondoaren kukulatik, haurra nintzela Klementina jostunaren arima xuxen-xuxen honen tximinitik gora zerurantz igotzen ikusi nuen legez (ezin ahaztu zait inoiz bi urte nituela ikusitako hau, jakin baitut geroztik Klementina noiz hil zen!), baina oraingo hodeia nik begiztatu bezain laster zerbaitek abiarazi zuen, galduko nuen!..., eta sakeletik paperezko boltsa gorria atera eta, ziplo!, boltsan sartu nuen! Polita izan zen oso!... Baina honetan boltsa handitzen, handitzen eta handitzen hasi zen!, bertan atxilotua nuen hodeia eta ni etxolan kabitu ezin arte!... eta etxola eta ni lehertzeko zorian geundela... Pun!!, eztanda batez leher egin zitzaidan poltsa, eta hots ziztulariz hodeiak zerurantz ihes egin zidan; ni atzetik..., baina hodeiak maltzurkeriaz kanguruaren forma har eta oinkada miragarriekin hanka egin zidan ilargi zuriaren atzean izkutatu arte.

"Hain bitxia izan da ametsetan bizi izan dudak gertakari hau, esnatu bezain laster idatzi egin dut paper punta batetan, ikastolan erakutsi bezala, eta gero pasa dut gaur hasi dudak, eta hemendik aurrera neure egunkari-edo izango denera, garbikuadernora.

"Neuk ikustea nahi dudanak irakur ahal dezan"...

Izkutuko kuadernoa giltzaz itxi zuen Beñatek gelako mahaiaren kaxoian.

Ez zuen sinetsi nahi, baina ezin burutik pentsamendu hau uxatu ere!... Ametsak, Ainararen ihesaldia, izkutaketa mingarria, adierazi nahi zutela uste zuen. Hemendik aurrera egunak iluntzen hasi zitzaizkion Beñati... Ez asko, hala ere, telefonoz etxean hartutako dei bat pasa zioten arte:

"Igande goizean hamaiketan, Larunbe jauna pasako dela Beñat jasotzera".

Osteguna zen eta iganderarte geratzen ziren hiru egunak, hirurogeita hamabi orduak, lau mila eta hirurehun eta hogeit hamar minutu luzeak... sagardo upela bete zizare xuxen lerrokatzea baino mehar-luxeagoa egin zitzaion! Heldu zen, hala ere, eguna, eta Aitor Larunbe jauna Ainara berekin zuela igo zen etxera!

Ez zuen inoiz, eta ez geroztik ere, egun zoragarriagorik pasa.

Senar-emazteak eta ainarak arratsean etxeratu zutenean bai baitzekien batek besteagan pentsatzen zutela!

Gabonetako etxeratzea ere gozoa izan zen.

Gurasoak xahartu-galduak, galduak, aurkitu zituen, ordea; eta bere erruz zela pentsatzeak gehiago nahigabetu zuen. Laster konturatu zen hala ere, etxean aurkitu zuen ilunbe hunkigarri honen ondoan, semea hirian ikasketak egiten ari zela eta, halako handikeri-poz berria ere hor zela! Hau ere zor zien gurasoei. Etxolan bakardadean sakonki haztatu ondoren, Ainarari eta etxolan! (lehenengo aldiz erakusten ziola, eta zoratu zen neskatoa!) aholkua eskatu eta ikasketan ahalegin osoak egiteko erabaki zindoa hartu zuen.

Hor zituen orain berri-berriak etxea, gurasoak, etxola eta... Ainara! Inoiz ez bezala ahalegindu zen aitari beharrea laguntzen, amari mandatuak egiten.

Honelakoxeak izan ziren beste urteak ere; zaharrei zer gertatuko bildurrez!, Ainara emakumetzen, politagotzen, eta beti galtzeko beldur, maitasunaren seinalerik argiena hau baita.

Ikasketak erraz egin zituen, hala ere.

Amaitu zituen bezain laster aurkitu zuen irakastokia herriko ikastolan bertan.

Ainarak gauza bera aukeratu zuenez, hurrengo urtean amaitu zuen.

Ezkontzea ere pentsatu zuten, eta urteburuan horixe egin zuten.

Erotzat hartuko bazituzten ere, bazekiten biak haritzondoaren etxolan jarriko zirela bizitzen. Ez nolanahi, Joxe Uxurbilek berak eskaini zien geratzen zitzaizkion azken urteak Beñatek planoan asmatutako haritz ederreko zurez egingo zizkiela, eta grua bidez zatiak igo eta Beñatek berak begiztatuko zituela udaroko oporretan.

Esan eta egin.

Ikustekoa zen haritz hura nola jazten joan zen goia hartan eta barrutik hiru nibeletan, eta zati batetik besterakoa barnebidetz estali eroso komunikatuak; negurako, eguzkiaz ura berotzen duen gailu harrigarri bat Alemaniatik ekarri eta Beñatek egin zizkion eranski burutsu batzuk; noski, aurrikusmen honen gainetik zegoen Beñati, eta orain Ainarari ere, ama Anttonik agindu zion eguzkiaz ehotutako jertse eder hura.

Eta Anttoni faltatzen zenerako ikasiko zuen Ainarak beste horrenbeste.

Lanak osatutako eguzki-ametsak debalde izan baitziran beti Uxurbildarren etxean.

Lanak aurrera zihoazela ikusten zuen Beñatek: etxea behera bezala etxola gora zihoala; ezkonberriak gora eta gurasoak behera zihoazen legez...

Anttoni izan zen lehen deitua: lotan zegoela geratu zen amets ederrean.

Zahartxoia zela etorri bazitzaion ere, izan zuen semea; gero, seme bakarra irakasle handi-ezagun egin zela ikusteko behar zuen adin bixta, eta Beñat neska maitagarri batekin ezkondu ikusteko zoriona.

Joxek lanean jarraitu zuen, honek nahi izan zuen legez. Inoiz baino gehiago ahalegindu ziren Ainara eta Beñat orain, Anttoni gabe geratu zenean, aita xaharraren gusto guztiak egiten. Ez ziren asko, eta ezta handiak ere: gela berean geratu eta defuntarekin hainbeste urtetan lo eginiko ohean lo egiten jarrai; sukalde xahar hartan, askotan hirurak, otorduak egin; aroztegia osorik, eta bere!, ikusten segitu; urteak eta zerrautsez tindatua zegoen txapel bera, zuritua (txapelak ere zahartzen baitia) buruan eramaten iraun; oheratu aurretik besoak zabalik eta belauniko otoitzak egiten utzi...

Honetan ari zela ahozpezh behin eta betiko erori zen arte.

Beñatek errespetatu zituen guztiak, eta bakean joan zen hainbeste merezi zuen Joxe; Uxurbildarrei geratu zaizkien seme-alabak geroztik haritz besoetan bizi dira, poetek beti nahi izaten duten eta oso gutxitan, mirariz bakarrik, lortu ahal izaten duten legez.

Gizontzarra

Hor dago orain ere.

Egunsenti lanbrotsua dugu gaur bokalean; itsasuntziak ainguratuta non dauden antzemateko behelainoa tarteka zulatzen duten zutikako masta puntetara begiratu behar.

Udanugako igandea da.

Itsasoa bare dago; kaioak. Pasaiko labar-Habietan; gizakiak, ohean oraindik, goizegi baita igande batetarako; hala ere bada hor norbait: Bentako nasa ertzean ikusten den troko handia dirudien horrek gaua hor iragan duela esatea gehiegi izango litzateke, baina paisaia berezi hau ezagutzen ez duenarentzat, hor enbor handirik ikustea ez litzateke harriztekoa.

Eta da, soin-enbor handia baita.

Berez handia zen gizona, zahartu, okertu eta loditu egin da azken bizpahiru urte horietan.

Zerbait adi-adi begira dagoela dirudi; askotan geratzen dahorra; apika, neuri azterrarazi didan fenomeno berak liluratzen du: arretaz begira dagoenak ohar dezake lainotuak itsasorantz daraman abiada patsadazkoa; ba, hemen, bokalean bizi den edonork badaki, jakin, itsas-apalaldia adierazten duela; baina zerk lotzen ditu, ordea, gure sinplezian zerua gogarazten digun ur-lainoa eta lurrekoa den itsasura?

Hor, zangoa karelean eta makurtuta dagoen horrek jakin behar luke jakin nik beste, gutxienez; paisai honen zati bilakatu da; gizon hau gabe ez litzateke inguru hau osorik; geldirik oso gutxitan egoten da; harriztekoa da oraintxe ere horretan eta hain luze egotea. Behar bada min du ezkerreko aldakan, zangoa besarkatzen ikusi baitut noizbehinka. Badaki, hala ere, laster mugitzen; sarritan egoten naiz gizontzar honi leiho begi honetatik begira, eta kaian edo pasealekuan talde batetik bestera egiten dituen joan etorriak harrigarri zaizkit. Ez da beti xuxen joaten; badaki zeharka eta inguruka hurbiltzen; zakur konkordun beldurriak isatsa zutik dakarrena hurbiltzeko egiten dituen inguru-minguren antzeko zerbait da. Kai inguru honetan ohiturazkoak direnak ezagutzen dituela dirudi: agurrak entzuten dituenegatik egiten dituen besajasoetatik edo "xo!"-ak botatzen dituen doinu trebetsuengatik; baina ezagun da tratua oso axalekoa dela, ezbaita luzaro inon geratzen; ezin balu bezala; gaiak ez ditu ezagutzen edo ez ditu gustokoak; arrantzaleekin iharduteko hizkuntz oztupoa izatea ere litekeena da.

Egia esan, ez diot inoiz hitzik esaten entzun.

Mutu izatea ere baliteke.

"Xo!" hori, "Kaixo!" da nolana...

Mugitu da, hara!... Aldakatik jaisten zaion errenkada hori martxan jartzen denean, ezkerreko zangoak lokomotoraren biela dirudi!

Bi urte luze dira gizon estraino honi begiak josita nagokiola, eta ez natzaio inoiz hurbildu... "Zahartu haiz, Tomas; lehen arinago erantzuten zian gorputzak"... Buruestimak eragin dit oraingoan! eta banoa, jaitsi ditut abidan etxeko eskailerak, murgildu naiz lanbrotan eta sartu naiz herrenak hartu duen espigoi kamiogainetik; ez

azkarregi!; batetik, arnasa erraz estutzen baitzait, eta bestetik, hain izutia dirudien gizona ez baitut uxatu nahi...; hemen noa, bihotza tapa-tapa, lanbro zarratu honetan, gaez bezain itsu, itsas-bideko harrietan bizi diren katuen marruak entzunez; eta kilometro erdi pasaia duen puntaleko pasaileku honetan ez dut inorekin topo egin!...

Asmak eragindako arnasestu honek eramango nau!...

Sarri hemen nabari den kresal usain eder hori ere estali du lanbro heze-geza-zuri honek.

Puntara heldu naiz, bokaleko sarreran dagoen farotxoaren argiak, esnetan sartuta dagoen laranja dirudi lainopean. Itzuliko naiz, geldi eta arduratsuago orain! batek ez daki zapalduko duena katua ala arratoia izango den, ikusi baititut hementxe katuak arratoien atzetik eta baita katuak adinako arratoitzarrak katakumeen atzetik ere!... Katu piloa miauka ari zait hementxe; jarri naiz sesuma marraka datorren alderditik, eta... hemen da!, itsasoko urgeldiaren gainean eserita dakusat laranjak argi egiten duen lanbrotan, eta katuz inguratuta, plastikozko boltsa zuritik jaten ematen...; gizontzarra neure alboan dut!, eta nere begiak hura ikusteko gauza badira, harenak ni ikusteko lain badirela, eta atzeratu egin naiz bizkor, hartan ari den gizona bere hartantxe uzteko...

Hark ez nau ni ikusi, katuak zituen buruan eta!

Nolanahi, ez zen harekin hizketan jartzeko unea; etxerako bidea hartu dut; buruan dut, zango aldrebes horrekin harridi horretatik behera jautsi eta ito egingo da egunen baten... Eguzkia lainotartean egiten ari den lanari begira noa, eta neure buruari galdezka zer jan moeta ematen ari ote den katuei...

Katua, nik neuk ere bai baitut angorako eder bat.

Igo ditut laugarren bizitzara arteko eskailerak, eta jarri naiz berriz ere leihoan. Orain dela ordubeteko ingurua aldatu da: lanbroa lurruntzen ari da; egin ditut gizontzarra begiztatzeko ahaleginak... baina lanbroa bezala banitu da.

Aitortu behar dut herren baldar horrek eguna nahastu didala.

Gosalondoan jaitsi naiz beti bezala egunkaria eroatera; egin behar dut edozertaz kezkatzeko hartzen ari naizen mania alu hau galtzeko ahalegin handiagoa... Gizontzar hori, neri zer axola?!... Baina neure buruak nahi bezala etxeko besaulkian egunkaria lasai irakurtzera joan beharrean, hara nola zangoak pasealekuko aulkian eseritzera naramaten! Zergatik, ordea! Aspaldion buruak hona, zangoak hara, eta vice versa ("hau latina duk") eta zergatik?... Baneki!... Jarri dut egunkaria aulkian, eta zeharka eserita ari naiz, kristal lodiko betaurrekoak tarteko, titulare nagusiak begiz pasatzen; arrantzaleen kinka urdurigarria dela eta albiste bat irakurtzen hasi ere egin naiz, komeni baitzait eguneroko lagunartera argudio biderik eramatea; baina nere aurretik hondartza bidean hasi den jendearen abiada marmarrak eta begiztatu gabe, nahi gabe!, ikusten ditudan oinak: zapatadunak, sandaliadunak, gizemakumeen galtzak, emakumeen bernak, denak herrenaren oin handi eta baldarraren bila hasiak ditut...

Eta ez dut nik xeblekeria honetan jarraitzeko adina!

Bakarrik eta bakean bizi nedin egin nuen honerako itzulia; ez dut, gainera, honetan jartzeko kemenik... Utzi egunkaria gezurti hau belaunen gainean tolestuta, eta jarri naiz aurrez-aurre inguruan dudanari begira. Kezkaren hazi honi aurpegia ematea hobe!... Eguzkia larrun tontorrera abiatu da aspaldi; hamarrak izango dira; berotzen hasia da eta ibai handi bilakatu da hondar-itsasorako egarri hau; pasealekuak, uharroila dirudi, eta

nire eserlekua uharte txiki bat da orain... Jendetzak daroan mar-mar bete eta trinkoa etorri zait belarrira; begiak itxi eta entzuten jartzea nahikoa du gizonak belarrietako bideak irekitzeko; eta, nik orain bezala, zantzo eta garrasi horiek dakarten hondartza eta uhinen lurrin gozoa sumatzeko bidea eman diot nire sudur handiaren usaimengailuari.

Herrena ez da inondik ageri!...

Hemendik alde egitea hobe. Uholdetik irtetea kosta zait; ihesi noa; etxebizitzara igo naiz, baina katuari jaten eman eta eseri orduko senti dut leihorako deia; obeditu diot berriz, ea ukatzea baino esanetara jartzea zentuzkoago den. Lau pisu goragotik, etengabeko giza-uhalde bera ikusten da, eta herrenik ez da ageri hor. Ari da emeki-emeki autobusek hiritik dakarten jendea gutxitzen; pasealekua noizbait jendez bakandu denean hasi naiz herriko arrantzale zahar ezagunak eguneroko lekuetan kokatzen.

Igandeko meza ondoan usadioak bultzata besterik ezin egin balute bezala.

Astegunetan baino dotoreago, hori bai.

Baina gizontzarra, herrena, falta!

Behera egin dut berriz, eta askotan ohi dudana bezala, itsasotik erretiratuta dauden gizon agurgarri horiei hurbildu natzaie eguneroko gauza berak entzutera. Gertakariak ez baitira egunero jazotzen. Periko "Kupela" hizketan ari dela sartu naiz karelean eserita dagoen Patxi Albistur "Begiurdiñ"-en bazterretik, nere agurra egin eta zer entzun... Ohitura zantar hau ezin laga!! Baina, tira, ez da politika, apaiz jaunaren sermoia baizik, korapilo batzuk gora behera... Eta horra!, hemen dator, trinkala-trunkala!!!..., eskutzarrak praketako sakeletatik gainezka, kabitu ezin...; bazirudien geratu gabe aurrera jarraituko zuela askotan legez, baina batelaren lemak ohi duen antzera zango motzarekin kurpil bat egin du eta xuxenean hor dator, hurbildu zaigu istriborretik, eta nere ondoan eseri da karelean; ezer esan gabe, ez baitugu elkar ezagutzen!; txistuka ari ezin eta hala ere hartan saiatzeko ahotik aire beroa egotziz ari da, ez dakit zer izu estaltzeko. Zutik eta esku garbiak atzean dituela dagoen batek, Etxenikek: "¿Qué hay?", esan dio, eta herrenak besoa altxa dio: "Kaixo!". "Kaixo!", esan dio!!

"Kaixo!", esan dio!!

"Zer moduz?", nik, aldamenetik. "Hementxe, beti bezala"... eta zutitu da, itsasoari zerbait esan dio, edo abestu dio ahapeka, ezpainak hortan ikusi baitizkiot azpitik, eserita nagoenetik.

Taldetik higitu gabe mugi-ihes egiteko bidea izan da; eskuak sakelean ditu berriz.

Konturatu naiz, ez diola Etxaniz "Begiurdiñ"-ez bestez kasurik egin.

Meza ondoko gai berean ari da zortzikotez, gabezia behera eta apaiza gora, honek aldeko baititu gehienak. Ni, bitartean, zutitu egin naiz, herrenaren aldamenean jarri naiz itsasadarrari begira, eta esan diot:

"Eguraldi ederra gaur"... "Ederra, bai, ederra", erantzun dit, baina egonezina sortu banio bezala.

Dotore jantzita dago; egia esan, beti ikusi dut txukun atondurik, eta janzki berriekin, maiz; hotz egiten duenean, zamarra lodi-ederra; euria denean zira horiaz estalita; gaur arte (eta halako intzentsu lurrin gozoa usaindu diot gizontzarrari...), ez nintzen ohartu, eta norbaiten arduraz, noski, jantziak kolore dotorez konbinatuta jazten dela beti, gaur ere bai; ez du tripaundi eta bizkar oker honetan inolako apainduraren ondoriorik sortzen, baina janzki garestiak dira, finak; arrantzalearen aurpegia du,

haizeuriak ondo igurtzi duen larru gorria, gorri-ubela; ile zut zuriak; lepamotza, oso... Ni baino bi arrabete altuagoa da, ia bi metro bai...

"Beno, ariyo..., bai, agur"..., eta nik ezer erantzuteko denborarik gabe, herrenak agurrak eta diosalak denak berak esan, besoa jaso, eta han doa berriz, trinkilu-trankulu, hondartza bidean.

Honelako aukera, eta ez dit hitzegiteko biderik eman.

Une honetantxe buruan dudana zera da: intzentsu lurrin hori bera nire katuari, eta anima aparte, usantzen ari natzaiola... Baina hori alde batera utzi eta karelean nire ondoan eserita dagoen Patxikuri galdetu diot:

"Gizon hori, nor da?"... "Joan den hori?... Hemen da beti; bertan jaio da, baina haurra zela apaiztegira eraman zuten, gero irten eta hor barruko baserri batetan ezkondu zen, lehortar bilakatu da... Hi, Joxe, herrena nor den galdetzen dik hemen lagunak". "Hori ez da hemen bizi, baina egunero da hemen" "Nor?... herrena?... / *Taldeko gaia aldatu da.* / .. . "Hori?, espigoia katuz betetzen ari den gizontzar baldarra!" "Bai, goizean eguzkia baino lehen hemen duk, bestela ez litzateke egunik zabalduko!" "Lehenengo autobusean etortzen duk, estankora heldu baino lehen dagoen bihurgunea dela eta txoferrak mantsotzen duenean, horrek, herren eta baldar eta guzti, tapa!, egiten dik salto; ikusi diat behin baino gehiagotan marka bera egiten!" "Hori?, jubilatzen bat"... "jubilatua?, nahi likek, ni baino hamar urte baldarragoa baduk hori gutxienez!"... "Beno -dio Patxik- hasi duen kurpilari amaiera emateko bezala, eta iritzia neuri eskainia orain: "Jaioterriko itsasoa ikusi nahian egunero etortzen den lehortarra duzu hori"...

Eta arazoak ez baitu taldearentzat garrantziarik, sermoian murgildu dira berriz.

Bazkalondoko biagoa egiteko patsada ere kendu dit gizontzarrak.

Ez dakit zergatik; zerbait egin izan balu, hutsa... intzentsu usaina ari da ni aztoratzen...

Aspaldi da zigarroa utzi nuela, eta gaur kaja bat hustu!... Izenik ere ez dakidan gizontzarra sartu zait barruan... Ofizioa zer den! Trokelak bezala moldeatu nau. Hemen inoiz eta inori sekula santan aitortuko ez badiot ere! Euskaldun bat polizian! Ez da eguneroko albistea; sua gaztainadi eiharrean baino azkarrago zabalduko litzateke herrian. Eta ez nuke inola ere nahi. Herri hauxe maite dut, nere aitaren eta nere jaioterria hau delako, eta nere deskantsurako hementxe ehortzia izan nahi dut; erretiratu aurretik hartu nuen erabakia...

"Nere aita arrantzalea zen; ama nuen goierritarra, zeraindarra, eta galdu egin nuen goiz, goizegi, zazpi hilabete nituen, eta, pentsa"...

"Hizketan bakarrik jarri haiz, Tomas!"

Bai, Tomas izan da nere izena harrez gero, aitarena bera; hemen bizi izan banintz. Tomax, gutienez, edo "Kanddelero", nere aita arrantzalearen aitari jarri zioten izengoitia. Herri txikietako memoria zoragarria da: ni Kanddelero-ren iloba naizela inoiz ahotik ihes egingo balit, adio don Tomas, herritik irten beharko huke! Herri txikietako oroimen hau izugarria ere bihur bailiteke! Berehala lirateke hemen, heraldikarik ikasi ez badute ere, Kanddeleroen semea nola ezkondu, emaztea galdu eta elkarrekin izan zuten seme bakarra, Tomax, Zeraingo defuntaren ahizpa batengana bidalia izan zen. Nola Tomax Kanddelero herriko neska eder batekin esposatu zen bigarren aldiz, amaordeko

izatera heldu zen izeba hori, Maria, biajante batekin ezkondu zenean, Tomax mutikoa Madrileraren berekin eraman eta han hazia eta hezia izan zen.

Hor galdu ziren arrastoak. Gaur arte.

Geroztik ez nuen ikusi neurekin hain ondo portatu zen Kanddeleroren bigarren emaztea, emakume handi eta ederra. Erretratu bat bezala gorde dut neure aintzinako oroimen zahar-horietuen artean. Izebaren bidez jakin nuen hila zela, ordurako polizian sartua ni. Nolanahi, Kanddelero nire aita hil zenean, nire ugazanaiaarenak jaso zuten titulua. Ezagutzen ditut. Pasatzen naiz horien ondotik, eta hitz ere egin diot behin hementxe, pasealekuan bertan, horietako gizaseme handi-zabal bati: Kandido du, izena...

Baina ez dakite ni nor naizen.

Irunen jaio eta txikitan Madrileraren eramandako Tomas naiz ni, eskribiente bat, aspaldi jubilatua, eta haurrik gabe alargundu nintzenez (hau da hemen esan duten egia bakarra) osasunak egintzen zidanera itzulia. Hori da herrian dakitena, eta nere izpirituzko osasunari komeni zaidan misterio sehaskatua.

Testamendua eginik dut, eta diru pixka bat uzten dut elizarako.

Handik bedeinkatuko al naute behintzat!

Gerra sortu zenean baziren hamasei urte poliziakoa nintzela. Soldaduska Afrikan egin nuen; nire Tetuango andregaiak Madrilen zuen anaia polizian lanean, eta errazen, eta alferren, esan dezadan dena!, aurkitu nuen ofizioa hauxe izan nuen: lapurrak atrapatu truke, soldata; lana garbia, ohoragarria, iruditu zitzaidan gainera orduan.

Urteak joan, asko, eta duela hiru urte emaztea, Emilia, biriketarik jota hil zitzaidan, gajoa.

Eta Madrilen beti arrotz senti izan nintzen lekuan, zer egiten nuen nik neuk bakarrik?... Eta misterioarenganako dudak bizio honek bultzata, hona hemen bueltan!

Baina neure polizi izate hori ez da onerako!...

Leihoan nago berriz, eta zerbaitek dei egin didalako: pasealekuko hotsa jaso da apur bat. Erne dago beti nere sena, nahi ez badut ere... Hor doaz bi emakume presaka hondartzatik autobuserantz, haurrak eskutik dituztela biak, eta biak oihuka, haize bolada batek bultzata balitu bezala...

Zapatak jantzi eta jaitsi naiz; haurren bat galdu dela, eta ito ote den; baina ez naiz horretan geratu. Atzetik hau bat besoan duela datorren andre bat geratu dut, erdalduna da: "Aizu, baina zer gertatzen da ba?", galdetu diot. "Lau urteko neskato bat galdu da, jauna, eta azkenean espigoieko harri handi horien tartean aurkitu, odolotan, odolustutzen, zegoen... Jesus!, pentsa, jauna: katu amorratuz beterik dagoela hondartzondoko espigoi hori!"...

Eta ihes egin dit.

Betikoa: kasu horietan beldurra bera da beldurgarria... Hara!, eta gaur hirugarren aldiz, gizontzarra, herrena, hor dator zentzu beran, trinkili-trankala, lasterka, bielari eskuaz lagunduz... katu amorratuei jaten ematen diena... Eta ez dator bakarrik, atso lodibat datorkio atzetik, eta besoak jaso eta herrena madarikatzen ari balitz bezala...

Ez nuen besterik behar, ni neu atzetik martxan jartzeko; ez hurbilegi, ez baitut ni ikusterik nahi, betiko sena!; autobusera doa hemendik, baina ez du atzera begiratzen; ez du behar, atzetik doan atsoaren oihuak nahikoa ditu arriskuan doala konturatzeko!...

Iritsi da autobusaren geltoki nagusira, eta oraindik igandetarako goiz denez, bi daude hutsik eta irten zai: lehenengoan sartzen da herrena, trin-trauk!, ordaintzen du sarreran, eta haren hurren atso oihularia; ni gero, berehala, eta ahal izan dudan azkarren autobusaren azken eserlekura ailegatu naiz, eta plast!, eseri. Nekatu ez, lehertu egin naiz! Ez nago ni honelako trostaketarako... Bizkor nago oraindik, eta arina naiz oso, baina larogei urte ez dira hirurogei...

Hor da herrena, hirugarren lerroko eserleku batetan; atsoa bi lerro atzerago..., baina, harritzekoa, ez diote elkarri begiratzen; atsoa, neskamutilak aldamenen eta eskuz lotuta dituela, isildu egin da; zorrotz begiratzen dio, bai, aurrean duen kokote lodigorriari, ez zaio hitzik jaulkitzen; baina gogorak ditu esateko, seguraski!... Irten da autobusa; hemen doa abiadan; motorraren eta balaztaren hotsak ez du hitzik entzuteko tarterik uzten; hamar minutu barru hirian da, eta ni konturatu ordurako jaitsi da herrena, sisa!, bi denborako salto batetan; atsoa haurrarekin gero, eta ni, berandu bada ere autobusaren haserako abiadan bertan salto egin eta, ez dakit nola!, lurrera jautsi naiz; min dut buruan, gerrian, eta begiak ireki ditudanean, betaurrekoak galdu ditut, eta hala ere herrenaren aurpegi handi eta gorria ikusi dut distortsioak handituta, agerkunde bat bezala: "min hartu duzu?", galdetu dit; "bai", esan diot, egia baita. Honek jarri dizkit betaurrekoak, milagroa ez direla apurto, eta ustekabeen besoetan hartu nau eta, jendez inguratuta gaudela, espaloi koxkan eseri.

Eskertzekoa da!

"Ez duzu ezer hautsirik", eta ukitzen dizkit hezurak, horretan trebea dirudi; esaten dit: "Ez, ez duzu ezer, zatoz, kafe bat hartuko dugu hemengo tabernan; eta haren laguntzarekin, eta orain oinez, eseri gara mahai txiki batetan. Ezagutzen dute hemen, eta laster dira kafeak gure aurrean. Nik, neuk, ez nekien zer esan; hark ere ez. "Inguru honetan bizi al zara?", galdetu diot, azkenean. "Ez, beheraxio"... eta igarri nion lotsakizun hura egiaztu du orain. "Non?", galdetu diot, eta neroni lotsatu naiz!, nire ofizio ohia irten baitzait esanean eta doinuan... "barkatu", esan diot berehala... "Ez, ongi da; eta ez misterioa: ni hor, beheko plazako Miserikordian bizi naiz"... gizona lasaitu egin da, ez nuen honelakorik espero: nere harridura honetan kolpetik kafea irentsi du, eta kalera begira geratu zait gizontzarra... gizona, eskuineko begian malkoa duen gizona; eta hau mingainez zurrupatu ezinik ari dela jarraitzen du; "bi alaba nituen, genituen, bizi dira oraindik, baina ama galdu eta ezkondu zirenez gero baserritar honek lotsatzen ditu...; ez ninduten etxean nahi, eta apopiletxe batetan jarri ninduten hemen, hirian, ezagutzen ez gaituzten lekuan". "Eta, baserria?", nik mingainari kosk egin diot berriz! "Saldu egin zuten, saldu... ez alabek berek, horien senarrek baizik!; nik, neuk, paperak firmatu egin nituen, besterik ez...; hala, ni apopilo nengoela izan nuen ezbeharra: kamioi batek pasa ninduen gainetik, hementxe, aurreraxio, eta hautsi zidan aldaka, eta ospitalean, Miserikordian, egon nintzen sendatu arte...; ni ez naiz inoiz han gustora eta bakean aurkitu, eta, hala, bertan geratzeko eskubidea nuenez, han dut ohea eta han ematen dizkidate otorduak; ez dut gehiago behar...; eguna, handik kanpora pasatzen dut, zuk ezagutu nauzun lekuan; hori da nire askatasuna!... Itsasoa!...; errukietxea, egun osoa hor pasatzeko tristegia baita...; hargatik ditut katuak maite...; zuk, katurik ba al duzu?", galdetu dit irripar apal batez; haur bat dirudi. "Ba, bai –esan diot– harekin bizi naiz". "Lagun hoberik ez duzu!...; konturatzen al zara zenbat katu ikusten den zaharren

etxean?!" "Eta, alabak?"..., ez dut barkaziorik!... "Alabarik?... ez ditut ikusten; janzkiak ekartzera etortzen dira noizbehinka, zer derizkiezu?!; moja baten lagun egin dira, eta honek esaten dit zer jantzi; beti txukun ikusiko nauzu, hori bai!; alabek aita apain jaztea nahi dute!...; zer diozu zuk, nik adina urte badituzu eta!... "Nik ez dut ezer esateko, adiskide... Nola deritzazu?" "Nik?, Balendin, zuri zerbitzeko"... "Ba ez dut ezer esateko hortaz, Balendin –eta lotsatu naiz orain–; nik, neuk, ez dut inor; mantenusari bat ematen didate; hau da geratzen zaidana, ah!, eta angorako katu zahar eder bat, baditu hamar urte!... Egia esan, pentsio hori jasotzeko egindakoak ez dira harrotzeko; ez zait katu hori eta bakardadea besterik geratzen... eta mania batzuk!...; eta beste gauza bat, Balendin, zurekin bat nauzu; nik neuk ere katuakmaiteago ditut"...

Lagundu dit autobusera, eta etxeratu egin naiz, behar nuen eta.

Hurrengo egunean, atzo, hezurretan nuen min, eta eskuineko aldakan; Balendin gogoratu zait. Egon nintzen leihotik begira, ea ikusten ote nuen; bakarti, beste inor ikusteko gogorik gabe, pasa nuen eguna. Ez nintzen eguneroko tertuliara ere joan. Katua bera, "Celeste" (nire andre defuntak jarritako izena, urdinska baita) ez zitzaidan goizean, ohi duen bezala, ohera etorri. Ez dabil ondo; gaur goizean berdin gertatu baita. Orain ogia erosterakoan, gehien maite duen jan moeta erosiko diot; garestia da, baina ea gaur jaten duen. Eguraldi eder honetaz baliatu behar dut hezurak apur bat berotzeko; ez naiz atzo bezala etxe zuloan, bakardadean, geratuko.

Laster lizuntzen baitzait neri arima.

Eta, hala, Balendin ikustea ere baliteke.

Gosaldu dut; "Celeste"-ri utzi diot jana betiko lekuan, ea gaur bixkortzen den!, eta jaitsi naiz kaira. Goiz oraindik, eta eseri naiz eguzkitan dagoen aulkian. Gozoa da zaharrentzat goiz-goizeko eta arrats apaleko eguzkia...

"Adio", esan dit pasa den norbaitek, eta esnatu egin naiz...; "adio", erantzun diot, berandutxo bada ere... Zutitu naiz; zangoek ez didate bestetan bezala erantzuten, baina banoa, han daude betiko arrantzale erretiratuak... "Don Tomas", dei egin dit Patxi Albisturrek ni heldu baino lehen: "Ba al dakizu gizontzar hura, zuk herenegun hemen ikusi zenuena?"...

"Bai"...

"Ito egin da atzo!".

"Ezin daiteke" ... –diot neuk– eta Patxikuren ondoan eseri naiz, ezin dut sinetsi eta... "Eta nola?!"...

"Katuei jana ematen ari zitzaiela jausi eta buruaz harri ertza jo zuen nonbait... Atzo goizean gertatua... Hori, zera, zuk ez duzu ezagutzen, baina Kanddelero deitzen dutenaren anaia zen; nik neuk ere ez nuen atzo arte horrelakorik jakin...! gaztetandik hemendik joana, eta gero baserrira ezkondu zen nonbait, hor barruan...; isila zen gizona!; apenas anai artekorik gorde zuten... Eta hura hango baserritik honaino etortzen zen ba, egunero, e!"...

"Neure anaia!!... irten zait.

"Nola?"...

"Ez, autobusean etortzen zela –erantsi diot nere xuxurlan ihes egindako aitortzari, orain goraki– igandean hemen aitatu bezala.

"Halaxe!"...

"Nolabait hil behar dugu eta" –esan dut pena ezin gordez.

"Periodikuetan ere jarri omen dute eta"...

Laster etxeratu naiz. Ez dut geratzeko triparik izan... Etxera sartu eta berehala nabari dut hemen sartu zaidan Balendinen intzentsu usain gozo hura... "Celeste"rena bera; baina katua ikustera joan naiz; hau ere hilko ote zaidan beldur naiz orain... Balendin datorkit burura beti; apain-apain egin eta kai inguruko uretan puztuta, hila; Itsasoko zeru-pakean piztuko dena, hala bada; eta ez bada, axola gutxi Balendini!

Oheratu egingo naiz.

Katua hartu dut neurekin, bihar goizean etortzeko gauza ez izatea baliteke eta; ohera elkarrekin sartzan ari garela esan diot angorako katu isil-maite-zaharrari: "Espigoiko katuak gehiago arduratuko dira heriotza horretaz, "Celeste", nire anaiaren bi alabak baino".

Sugegorriak ilunpean zain

– Gizona –dio emazteak kezkatu, boz apalez– haurra esnatuko duzu...

Anttonek bazekien andreak hori esango ziola; baina nola solairuaren gainean, eta ilunbetan, ehun kiloko gizonak zaratarik atera gabe galtzak erantzi... "Gelatxo honen solairua beti nere kexa dela dirudi"...

Haurraren arnasa lasaia bete-betea entzuten da gelan.

– Antton.

– Zer?

– Jaxintarekin topo egin dut gaur.

– Bai...

Gizona geldik, zango bat galtzetan, zai-zai, adi.

– Ikusi ez banindu bezala...

Antton, isilik, beste zangoa oraindik galtza barruan duela; gelan ez da haurraren arnasa besterik entzuten; galtzak, irristara lakar hau berriz, eta orduan solairuak "krik", eta galtzak aulkiaren gainean "blast"; sare eta sokalatzten igurzpenak eta kresalaren gatzatuak handitu, puztu, dituen atzamarrak dorpeki alkandoraren botoiak askatzerakoan hasi dira tanta batzu urgeldian erortzen, eta alkandora aulkira bota aurretik Anttonen ahotsa:

– Eta?...

– Hori ba... –alkandorak hegan atera duen haize-hots laburra– Hau da hirugarren aldiz ezikusia egiten didala...

Bi krakada solairuak; ohean nigar bat, eta Anttonek:

– Ez zintuen ikusiko eta...

– Ni ikusi ez Jaxintak?! Horrek duen bixtarekin; sareak konpontzen betaurrekorik gabe aritzen denak, egun argiz, espaloi beretik oinez: hura "Lehendabiziko etxe"tik muttuen etxerantz, eta ni muttuenetik "Lehendabiziko"ra, Pakaren denda aurre-aurrean topo; garbitzen aritu zen arraina zein izan den ere usain hartu diot begietara so egin diodanean!, eta hark ni ikusi ez!!...

– Tira, haurra esnatuko da, zerorrek esnatuko duzu eta...

– Ez al nizun lehengoan, eta bitan!, gauza bera esan?

– Bai –aitortzen dio Anttonek, maindirepean zangoak luzatzen ari dela.

– Eta ez dizu horrek ezer esaten?

– Zer esatea nahi duzu horrek neuri; nik Paxkual gaur bertan ikusi dut, eta "ariyo", nik, eta "agur", hark; beti bezala.

– Ez duzue hitzegin.

– Ez.

– Zergatik?

– Neuk hari fitxik esateko ez nuelako; zer nahi duzu, atso-kontuak besterik ez diren horiek Paxkuali, eta bere emaztearenak!, aurpegira botatzen hastea?

– Zuk hari esateko ezer ez bazuen ere, hark zuri botatzeko, bai, bazuen; hori badakit nik; eta badaki herri osoak... –Antton isilik; haurraren arnasa da ilunaren

nagusi- zuk ere badakizu hori, -lehertzen zaio orain arte gordea egon den nigar-zotina, eta Antton oraindik isilik, arnasarik ere ez- badakizu, hau neronek zuri esana da eta...

- Zer -dio Anttonek ahapeka- Xalbador dela eta ahogaiztoz zabaltzen ari diren ipuinak?

- Hala izango dira; nik hori uste, eta nahi; baina gauzak ez dira askotan diren bezala izaten, jendeak uste duen bezala baizik, eta hala ez badira, orduan, argitu egin behar... Ala ez, Antton -emaztearen eskua senarrarena bila dabil, eta zabal-zabalik, pala bero bat bezala, aurkitu du, eta bertan kokatu du berea, haurraren pixoihal-usain gozoa duen eskua, eta Anttonen esku handi-lakarrak estutzen du emaztearena, askotan maite duela esateko ohi dion bezala...- Xalbador zure laguna zen, ez al da hala?

- Eta nere laguna da oraindik.

Ez du Anttonen emazteak hala uste; ez baitio erantzun; ebakita, hilda!, geratu baita aho-belarri zebilen hitzen haria; baina isilune honek baino zirrara handiagoa egin dio Anttoni bere emaztearen eskunaba berean hoztu eta zimurtu zaionean; usoa doakio ihesi!; eta Anttonen atzamarrak orduan estutu egin ditu, usoak gizonaren hatzeman sentitu arte (indarra zer den!) baina hilik sumatu du orain usoa. Eta beldurtu da! Izu handiak dardaratu du gizontzarra... Atzamarrak berez laxatu zaizkio... Eskua eskuaren gainean, baina biak hilik daude. Belarria erne, haurraren arnasa osoa eta lasaia entzun du gizonak, baina orain beregandik urrundu balitzaio bezala. Bakar-bakarrik sentitu da ilunaren mutualdiaz inguratuta dagoen ohe epelean.

Eskuaren bideak honela agor-eihartu direnean, garraxia bezala irten zaio hitza:

- Xalbador nere laguna da!...

- Zuk hala uste duzu -eta emaztearen ahotsa ertz-min-labaindua sartu zaio saihetsetik-baina adiskidetasuna osatzeko bi lagun behar dira; zer dio Xalbadorrek?

- Ez dut ikusi -erantzun du biziki.

- Hara, ba!... zergatik ez?

- Ihes egin duelako; zeuk ere badakizu hori.

- Zergatik eman zaio?, esan.

- Gizon armatu batzuk Iparraldera pasa dituelako, diotena egia bada behintzat... baina ikusiko dut laster...

- Ez zara ausartuko; nolatan egin du horrelakorik? Zergatik?!...

Bakoitza bere ohe ertzetik ari da; bata-bestearengandik zuen aterpea galdu du; senar-emazte izatetik, gizon bakar eta emakume bakar bilakatu dira. Isilune luze honek haurraren arnasa bera ere estali dio gizonari.

- Nik ez dut horretan zerikusirik izan -irten zaio.

- Ez?!... Zure bila etorri ziren etxe honetara, eta gauez; ia tenore honetan bertan, hara!... haurra oraintxe bezala zegoen lo; eta esnatu eta marruka zegoela, gaixoa!, eraman zintuzten; hemen geratu nintzen haurrarekin batera negarrez...; hurrengo eguerdian hemen zinen berriz; nere poza!... ez al da hala?... eta hartan geundela, arratsalde hartan bertan, eta haurra eta ni bakarrik orain, hor dator bizilaguna, gure pozak zaintzen dagoela dirudien ipurtaundi saskil eta lohi hori; zu etxetik irten zai egona, seguraski!...; alegia: Xalbadorren bila joan berria zela polizia; zu eta Xalbadorren bila etorri, ia gauza bera izan zela!; hau Jaxintak, Xalbadorren amak berak, botea; eta zuri ez zizutela ubeldurik ere atera, eta hitzak, bai!; eta, aitzitik, zurekin goizalde berean

eramanak izan zirenei ez dietela gorputzean ubeldurik gabeko tarterik utzi... Hau sendagile batek esana..., omen. Horienak ez dakit nik, neuk, baina zure ubeldu-ezaz bai, ordea!... Isilik zaude, Antton... Ba, hauxe da guztia... Dena ez, oraindik esan behar dizut, zuk dagoeneko ezagutzen baduzu ere, nere barrua osorik hustu dadin: lerre ferde eta kiratsu hori herri osoan zabaldua dagoela...

Iturria agortu dela dirudi.

Antton, ilunbe honetan dago ahoz gora ohean, iltzez josi balute bezala: hitzik esan gabe.

Emazteak gainean hustu dion lingirdaz zikindua eta oheari erantsia sentitzen du gorputza, korapilaturik eta zulaturik arima; ahoa zabalik du, baina ez zaio hitzik irteten; eskuaz esan ohi dizkionak esateko ere ausardiarik, kemenik, ez zaio gelditzen... Bere saihtesean hasia den negarrak ekarri du bere baitara, eta negar estu horren inguruan bertan etorri zaio berriarekin batera lotuta baletor bezala, haurraren arnasa garbiak berak egiten dio orain min.

Gauak batzutan luze-iraunkor-lehor eta ihes ezina izaten badaki.

Antton, goizaren zainaldi...

Eta, hala, idi pausoan, neketsu, astiro, iragaten ari dela, konturatu da batbatean saihteseke min horren negarra amaitu dela, emaztea lo dagoela; haurra eta ama, biak, hemengo gaiztakeriaz at joanik direla... Eta egia da, hantxe dago orain etxebizitzaren goi-mailatik begira: han ikusten du amak berea eta Anttonen semea; hazi da!; aldameneko neska du lagun, ipurtaundi hori bera dirudi dagoeneko!, baina algaraz dabilta biak, haurrak baino handiago den upela tantaiaari zelai ederrean eskuaz bultzaka, orain batera, gero bestera, jostatzen, eta neska-mutilen pozak bultzata binbili-bonbolo dabilen upela orain borobildu eta gomazko baloi handi bilakatu da, eta une berean han dator, han dator!, ikusten diot jasa, eta presa, apretak txinalka, Jaxintak askotan ohi duen bezala, haurren atzetik... orduan, orain!, ikusten diot Jaxintari eskuetan sareak konpontzeko erabiltzen duen jostorratz, ezten!, handi hori eskuetan, haurrek ikusi duten arte, ikaratu diren arte!, eta Jaxintak, Xalbadorren amak, Paxkualen emazteak, zast!, zulatzen die hurrei jostailua... haize-txistu hots handiak harrapatu ditu orain bi haurrak eta airean gora, gora!, daramatza, eta bitartean Jaxinta algara bizian, eta zain, ia haurrak noiz lurrera, orain gure kalextuko harri lauxetan, jausi eta lehertzen diren...

Horretxen zain!

Baina hara nondik haize bolarak neure magalera jaixten dizkidan haurrak.

Nik neurea besoetan dut orain.

Jaxinta haserre dago, ukabilarekin amenazoka eta gora begira, berriz neure etxeko leihoan nagoenez, honera zuzentzen dizkit hitzak garrasika, denbora berean zeruan idatzita bezala entzunikusten bait ditut: "Adi eza, non den hire senar salatari hori, non dun gizona!"...; gure kaleko etxeak jendez bete-beterik dira; denen bixtan daude hitzak zeruan idatzita, eta leihoetan begi guztiak neri, bioi, begira; itxiko nuke leihoa, baina ezin dut, ez dut kemenik, eta han jarraitzen du Jaxintak: "Hire Antton, salatari; hire haurra, salatariaren semea, eta hi, adi ezan!, salatariaren andrea!!... Hirurok saldu didazue poliziari neure mutila"...

Ito beharrean nengoen, eta ezin bestez, esan nion neure buruari: "zer egin nezake; esna!; eta, halaxe egin naiz..."

Izerditan nago; haurraren arnasa hemen dut, ondoan, neurekin, Jainkoari eskerrak, eta Antton!...; ez dago ohean; falta da; teilatuko zirrikituetatik eta lehiatilaren ertzetik sartzen den argi pixka hori ilargiarena da, goiz da oraindik... hor da sukaldean Antton!, mugitzen den bezala ari da solairua negarrez; ez diot itsasorako janaririk gertatu, eta goizegi da horretarako ere; gajoa; nola ote dago maldizio horren zama bizkarrean duela!...

Atea ireki du, badoa!...

Zer egin?!

Baina joan da, "krik-krik", eskaileratik beherantz...

...Hemen doa, krik-krik, Antton, neu, emaztea eta haurra lo utzita, lo izpirik egin gabe; zangoak nagi, barruan min; ez dut motorra piztuko; hemen noa zaratarik gabe; udazkeneko hegoaren giro epelean... Ibai eta itsasoa gora eta behera nola dabiltzan ikusteko lekurik egokienean geratu naiz, pasealekuan; zisku apal bat nabari da tun-bien atzean; argitan lehertzeko ordu terdi falta da oraindik... eta hemen dator ni zai nagoena, tipi-tapa, pauso hotsa, eta Paxkualen ahotsa hurren:

- Egun on.

- Bai zuri ere; goazen?

- Bai...

Paxkual zai geratu da, Anttonek motorra piztu zain; eta trant!, eta Xalbadorren aita igo zaio atzeko exerlekuan; hemen doaz biak, motorraren argia piztu gabe, eta zarata gehiegi atera nahi ez balute bezala, mantxo-mantxo, pasealekutik errepidean sartu arte, elkarri ezer esan gabe, eta hemen portu aldera abiatu direnean esaten dio Paxkualek Anttoni ia belarrira:

- Non duzue gure mutila?

- Esan nizun bart, portu ondoan, eta seguru; lasaitu zaitez...

Andrea erotu zaidak... -diotsa berriz belarrira.

- Badakit...

- Jendea hizketan jarri dik herrian.

- Bai... -eta Anttonek gera erazi du motorra.

Herritik portu berrirako bidean geratu da, arrantzaleentzako egin berriak diren etxeetatik aurreraxeago, ezkerretan dauden zuhaitz batzuen azpian. Ilun da zuhaizpe honetan. Antton aurrera begira dago, porturantz eta zertan dagoen badaki; Xalbadorren aita, atzera, etxe aldera begira, oraindik zertarako ez badaki ere.

Horiek dira Anttonen aginduak.

Arrantzaleen etxe berrien aurretik pasatzerakoan ikusi du Paxkualek izkutuan zegoen norbaiti Anttonek keinu egin diola; eta galdetzen dio honi orain:

- Zer duk hemen...

- Hemen dago Xalbador.

- Non? -eta Paxkual arbolaperara begira.

- Ez -dio Anttonek, eta oinez portu aldera abiatu dira biak, Paxkual Anttonen atzetik; errepidearen ertzean dagoen arrain kaja pilo handiaren aurrean geratu dira:

- Hemen? -galdetu du Paxkualek.

- Bai; zu, ea inor somatzen duzun; guardiazibilak egon ohi dira portuan goiznabarrean; argirik ikusten baduzu, lasai. Bitartean, ez dago segurantzirik. Lagun batek pasa du hor gaua eta haren seinale ikusten baduzu, ez da etsairik hor. Ni harantz noan bitartean piztu behar du; orduan lasaitu zaitez, laster nauzu bueltan. Bestaldetik, hara, hor dator lehen bidean agurtu dudana laguna, hortik ere ez da ezer...

Abiatzen da Antton errepidearen erdi-erditik, eta berehala argi keinu bat, eta bi; itzultzen da Antton, eta kaxa multzoaren aurrean besoa sartu eta dio: "Xalbador"; "bai", eta elkarri josita dauden kaxa horien gainean agertu du burua; "irten hadi", Anttonek; Paxkualen semeak kaxa gainetik salto egin eta besarkatzen du aita. "Azkar orain -dio Anttonek- 'Xeme', eraman ezak Xalbador hirekin.

Joan dira bi gazteak pretilaren gainetik eta beherantz horman sartuta dauden burdinezko maila bidez itsasora.

- Hor dago txalupan Fermina motzaren semea zain; "Gure itxaropena"-ra eramango du; laster irtengo da Donibanerantz, ordubete barru han da gasoila hartzen, eta libro duzu Xalbador, hemendik behintzat. Konforme?

- Bai -dio Paxkualak- eta gaizki esanak barkatuko al dizkiguk...

Hor sentitzen da, oso adi dagoenarentzat, uretako palastada apa aldentzen. "Goazen -dio Anttonek motorra Paxkualen ondora dakarren momentu berean- laster argituko du eta; hartutako toki berean utziko zaitut; eta gero egingo dut ohi duten etorria, laster itsasora irten behar dugu eta..." Anttonek ez dio Paxkuali ezer gehiago esan; behar ere ez; baina zera pentsatzen du, ia ezer pasa ez balitz bezala betiko janaria eskatuko ote dion andreari, ala aurretik gertatutakoaren berri emango ote dion, lasaitu dadin... beldur da emakumeen hizjarioak honetan dabiltzan gizonak eta ontziak poliziaren miran jarriko ote dituen...

Horiek bait dira ilunbean zain dauden sugedorriak.

Sugedorri horiek ez dute adinik, ez dute sexu berezirik; eraginak, berriz, dirua edo alderdikeria, sektakeria, izan ohi dira sarrien; gorrotoak ernegarazten dituenak ere ez gutxitan. Adinak eta gure herriko gerratearen tradizioak erakutsi diote Paxkuali guztiau; etxeko ezkaratzean oinak jarri orduko sortu zaio kezka; zergatia, kasu honetan iluna, baina eskaileratik gora pozak zango zahar horietan duen eragina dela ari zaio bere buruari esaten zuhurtzia apur batekin behar lukeela jokatu estualdi honetan; Iparraldetik deia jaso arte ez da Xalbador libro; eta bidean ezbeharririk gertatuko balitz?... Espainiako patrulera bat-edo... Burutu duen itzulia hobeto pentsatzen ari dela, eskailera mailan geratu eta arnas estua lasaitzen ari zaio; bai, emazteari arrantzara doala esan badio, eskailerapeko gordelektatik trasteak hartu eta egitan motorrarekin bokalera irten behar luke, eta gero, semearen seinale garbia jasotakoan eta emaztea apur bat lasaitzen zaionean, gertatutako guztia kontatu.

Zer poza hartuko duen Jaxintak!

Baditu zakarraldiak, berez du aita zenaren jeinu bizi hori; baina bigun-goza ere izaten badaki.

Eta beteko du zorra: zor dio Anttoni eta honen emazteari Jaxintak hitza, eta jendaurreko hitza! Poxaren-poxez joango zaizkio hain ongi egiten dakien gozoki batzuk eramatera. Baina hau, semea libro dela jakindakoan. Eta pentsa bezala jaitsi ditu berriz eskailerak, hartu arrantzarako trasteak, eta motorrera doa, kalean behera.

Ordubata arte hor aritu da bi besoekin tira!, tira!, korrontearen aurka, motorra tar-tar-tar, martxa gutxienekoan jarrita daukala; motorraren jira-birak. Burua semeagan gorde baitu osorik. Hala, ordubata nahi baino nekezago hurbildu bazaio ere, hemen da... Motorretik batelera aldatzen da, eta arraun nekatuekin lehorrera datorrela, begira dago, inor zain ote dagoen. Semea heldu dela esango dion norbaiten bila... Hantxe ikusten du, arrantzale zahar eta Paxkualen lagun diren erretiratu horiengandik apartexeago, Pello, Antto-en anaia... Eta heldu da lehorrera, tira du sokatik bateltxoa arrastaka, gero eskaileran gora, eta hor heltzen zaio goitik behera harrizko eskailera beretik Pello:

– Antton eraman digute! –diotsa belarrira, laguntzen ari zaion bitartean. Segi, segi zu gora; esango dizut bidean; begi asko da hemen ikusmiran!...

Hitzak entzun eta gero ez du Paxkualek indar asko egitekokenik.

Goian arrimatu dute "Tirri-tarra" bateltxoa karelara; ahozpe, hobeto lehor dadin: eta trasteak bien artean jaso eta badoaz etxerantz, kolpetik hamar urte zahartu den Paxkualenera, noski...

– Zer da! –galdetzen dio honek; ez behin, hamar aldiz!...

– Zera... –dio azkenean Pellok– salaketa izan dela-ta...

– Semea!!...

– Ez, Xalbador Donibanen da... Antton nere anaiatz ari naiz: goizean itsasora zihola guardiazipilek hartu eta eraman dutela...

– Antton?!... nora?... –arnasa hartzeko denbora egiten, Paxkual.

– Donostiara.

– Inork ikusi al gaitu goizean?...

– Horretaz ez dakit ezer; zu ez zara hemen ezertarako.

– Orduan, zer gertatu da ba?

– Salatu egin dutela, orain dela hilabete-edo murmurikatu zen zerbait dela-ta... arma konturen bat, diotenez, eta behar ez zen belarrietara joan da norbait errepikatzen...

– Eta nor da orain alu hori?

– Jaxinta...

– Zein Jaxinta?

– Zure emaztea...

– Nere andrea horretan?!... guardiazipiletan?!...

– Ez, zurea ez da horretara iritsi, baina Antton-ek badu bizilagun bezala andrazko ipurtandi bat; senarra, betiko txibatoa, "Markes" esaten diotena, horren bidez egin da lana: zure semea dela-ta, bero-bero joan eta atso horrek entzuteko moduan jendaurrean, dendan, esan...

– Esan, noiz?

– Atzo arratsean...

Anttonen anaia ari zaio xehetasun batzuk ematen; Paxkual, trasteak lurrean utzi eta kaleko espaloi-koxkan eseri egin da. Bi eskuekin estali du aurpegia, txapela erori zaio, eta kaskutsik, ileak zuri eta gutxi, larrugorrian bezala geratu zaio burua.

Mantal urdina

Sukaldeko ate atzean zegoen zintzilik.

Mantal arrunta zen; urdinarra, urdin izana; Bergarako hari urdinez ehotua, edo zurik eta tindatua, ezin esan, baina gero erabiliaren poderioz eta busti-lehorraz marguldua.

Garbia, hori bai.

Ez zuen amonak bistaz, eta bista txarrez!, besterik ukitzen; senarra hil berria baitzen, eta ez gaisotasunez, zaharminez baizik. Ez zion ba mantal handi eta urdin horri eskrupuluz begiratzeko, kutsatzeko beldurrez, alegia; senarra kendu zion gaitzaren kutsu hori, zahartasunaren eritasuna, aspaldidanik sentitzen baitzuen amonak ere berekin. Ez zen hori; zera zen: ba ote daki adinak hainbeste makurtu duen pertsonak zaharduratik zaharkeriara dagoen aldea bereizten? Noiz den zaharkizunaren aberastasuna, ardoak hartzen duen gisakoa, eta ardoa, edo pertsona hori, noiz den zaharmintzerako bidean abiatu?

Kanpotik erosoago ikusten dira zaharkeriak!

Amonak horrelakorik bazekien, ez zekien esaten.

Senarra baldartu zitzaiola, ez baitzegoen hori bizilagunenbegiei ezkutatzerik; garbilekuan ikusten ez zutena, baratzean edo leihoak zabaltzen zituenean, kontatzen baitzizkieten defuntuaren alkondarak eta prakak. Ez zuen, ba, honen baldarkeriarik gordetzen, baina aitortzeko unea heltzen zen bakoitzean lotsatu egiten zen.

Buruestima handia zuen Engraxik.

Eta, zera, adurzapia etorri zitzaion burura norbaiti!

Kosta zitzaion errainaren asmoa irensten. Lehen kontatzen zizkietenak, orain faltako zitzaizkien auzokoei, eta senarra adurzapiarekin mahaietan eseritzen zuela aitortu baino, nahiago zuen lehengoan jarrai.

Eta, zera gainera...

Baina ez dira gizonezkoak bakarrik baldartzen.

Emakumezkoak ere bai, noski; batez ere auzoko andreak zorionak emateko aitzakiaz larogetik gora kontatzen hasten zaizkienean.

Eta amonari erreuma txar batek besaburuak jo zizkion.

Defuntuak ezin zuen hori konprenitu; ez buruz aspaldidanik arindua zebilelako bakarrik; emazteak ezer izan zezakeenik ere ezin baitzuen pentsatu! Umetzen ari zen gizona, eta inoiz ez bezalako egonezina sortzen hasi zitzaion amonaren ezinarekin; gaiztotu ere egiten zen batzutan, eta honetan izan zen mahaitik altxa bezain laster otordua eskatzeko seta hartzen hasi zen garaia.

Ahaztu egiten zitzaion gizarajoari janberria zela.

Noski, senar-emazte arteko pakea gozagaizten hasi zen.

Semea eta erraina Eguberri bazkari batetan konturatzeraino. Semeak ez zion aldaketari garrantziarik eman, gizona izaki!, baina errainak bai. Eta erraina, erraina izaki!, honek berehala, aisegi!, erabaki zuen, eta zergatik ez!, amonaren lanak arintzeko aitagarrebari mahairatzen zenerako mantal handi bat egin behar ziola...

"Handia, zergatik hain handia?!", eraso zion amonak.

"Gorgoiletik behera alkondara, prakak eta oinak ere estaltzeko adinekoa; ez al dut ba ikusi goitik behera oinetaraino zopaz eta bestez dena garrastatzen dela baldar hori!...; zeure buruari egin behar diozu kontu, ez duzu horrenbeste garbiketa egiteko osasunik, ala bai?!...

Hau zen bilobarik eman ez zion errainak erabiltzen zekien arma lehor eta iraingarria: erantzunik ez zuen galdera.

Engraxi isildu zen, beste askotan bezala, eta atxakia batekin gelara joan zen bularrean sortu zitzaion larrialdiaren leherdura ezkutatzera.

Ez zen arratsalde guztian mantal horretaz besterik esan.

Emakumeek elkar ezagutzen zuten ondo.

Astero egin ohi zion larunbateko bisita arte, kezkatu, urduri, geratu zen Engraxi; begiratzen zion hain langile bizi-fina izan zen gizonari mahai tresnekin nahastuta, hain dorpe, hain babesgabe, hain ahul eta zaurgarri; hain zuen begirada inoxentea, ze egiten zituen behatz korapilotsu eta dardartsu haiekin halako dorpeziak jaterakoan, negar-malkoak irten zitzaizkion.

Astea aurrera zihoala amonaren urduritasuna handitzen, gaixotzen; beldurrak jota zegoen ostiralean, ez zuen begirik itxi gau guztian, eta larunbat goizean argia leihatiletatik sartu zitzaion jaikitze ordua heldu zenean ez zen ohetik jaikitze gogauza izan. Min zuen besaburuetan, azkenaldi honetan bezala, baina orain zangoak ziren mugi ezin zituenak, egurrezkoak bilakatu bailitzaizkion. Xele, gizona, ere hor geratu zitzaion ondoan, hurbilago ezin, eta hitzik esan gabe. Haur baten modura. Berez prakarik edo apretarik zuzen jazteko gai ez zenez, emaztearen laguntzarekin jaiki eta jazten zen egunero. Beldur zen amona senarraren haserreaz, petraltzen baitzen sarritan, otorduak zirela batez ere... Baina, ez; gizarajoa isil-isilik geratu zitzaion ondoan gosaririk eskatu gabe; begiratzen zion noiz-behinka begiek ikusten ez zuten itsaso zabala dastatzen ari balitz bezala, urrunean galduta; ez zen mugitzen; eguerdi aldean loak hartu zuen arte. Amona izututa, zer egin ez zekiela... Senarraz baliatzea ezinezkoa zen, ez zion kasurik egingo.

Bazuen esperientzia bat:

Gauetz eman zion tronbosis hark lurrera bota eta gelan ahozpe utzi zuenean, ez zen laguntza ximpleena ere emateko gauza izan; emazteari harrিতuta begira, begira eta beroni inguruka pasa zituen orduak, azkenean nekeak oherazi zuen arte; eta eskerrak atea giltzaz itxi gabe geratu zela, bestela aldameneko Auxtiñak, goizean etorri zenean, ez zuen sartzerik izango, izan zuen bezala, eta amona Engraxi auzoko bi gizonak oheratu eta sendagileari dei egin zioten arte. Amilibia, sendagilea, heldu zenean, Xele oraindik erantzi gabe oheratu zen bezala zegoen lo...

Auxtiña hila da harrez gero, joan den Astelehen Santuan urtebete.

Bestela, aspaldi hemen zen! Ahizpa bat bezala zen amonarentzat.

Halakorik ez da gertatzen, auzoko emakumeak gazteegiak dira, edo amona bera da zaharregia haientzat. Ez dute harreman handirik... Engraxik, senarra alboan lo duela, entzun du beheko bizitzan ordulariak jo duen tanta lehor-bakarra. Ahotsak entzuten ari da, badaki norenak; Karmelo bizarginak ekarri duen kotxearen zarata ere bai, eta seme-

alabekin jango dituzten babarrunen usainak, haragiak prejitzean egiten dituen txinpart hotsak, haurren negarrak...

Atea jo dutenean, esnatu egin da.

Lokarturik zen!

Gaumahaiko erlojuak esaten dio lauak eta hamar direla. Semea izango da... Erraina!! Isilik geratu da, ez daki atea giltzatuta dagoen ala ez... Belarria, belarri ona!, jarri da adi, zer entzun... eta sentitu du krisketa, "kris-ket", eta atea ez da zabaldu; giltzatua dago... "Xe!e", dio senarrari. Xe!e esnairik dago; ez adi, ez baitu ongi entzuten, eta ezta horretarako behar den ardurarik jartzen ere; baina emazteak ahotsa jaso eta atea irekitzeko esan eta eskuz gauza bera keinu bidez adierazi dionean, jaiki zaio gizona, isilik, galtzontzilo luzeen pausoa nahiko baldarra da, baina "kris-krast" ireki du giltzaz atea, eman dio krisketari eta aterik zabaldu gabe hemen dator ahal duen azkarren, haur bat legez ohera, eta Engraxiri ohean sartu aurretik semea ikusi du ate-bornuan; argi gutxi dago, leihatilaren txirrikitutik sartzen den apurra, eta ohean dagoenak gehiago ikusten du atean dagoenak baino, argitatik baitator...

"Ama", esan du Prontxiok.

"Ohean gaude, seme, sar zaitez"...

Semea sartu da emaztea atzetik duela; honekin ireki ditu leihatilak; Prontxiok amari musu eman diola ikusi du errainak. Leihoan amak ikusten duen ziluetak, eta errainua amonaren begientzat argitu denean ikusi dio errainari bere bi besoak eskuetan lotuta egiten duten altzoan, ez Engraxiri hainbeste falta zaion biliba, tolestuta dakarren mantal handi urdina baizik!...

"Zer gertatzen da?", galdetu die semeak aitamari harriduraz begira, "laurak joak dira"...

Amaren begiak mantal urdinari begira...

"Karmenxuk egin dizu aitarentzat behar zenuen mantala"...

"Bai, hor dakusat... Ez nago ondo seme, ezin ditut zangoak mugitu; sendagileari dei egin behar diozu... Aitak ez du gosaldu, kafesnea berotuko bazenio"...

Xe!e, bisita arrotzari harriduraz begira.

Semeak atximurtzen dizkionean sentitzen ditu Engraxik zangoak, baina ezin higi ditu.

Irten da semea sendagile bila; erraina Xelerentzat esnea berotzen jarri da; Engraxik bultza dio honi maitasunarekin, jantzi dadin, eta aitona apalki hasi da jazten, bakarrik!, eta esne usainak eraginda eseri da mahaian; eta honetan, mahaitik sutan dagoen esneontziari begira dagoela, zapla!!, bota diote atzetik eta burutik behera mantala!

"Xe!e!!", garraxi egin dio emazteak ohetik; Xe!e zutitu da, kili-kolo, eraso dio buru-besoz mantalaren eta errainaren bi besoenaurka... Errainak ere indarrez, indar handiz!, erantzun dio besaburuetatik helduta aitagarreba eseri duen arte, aitonaren besoak mantal handiaren azpian lokarriz lotu dizkion arte, eta orduan aitonak eskumutur batetan errainari haginkada bat eman dion arte... "Ai!", honek, eta "Xe!e!", amonak ohetik... eta hemendik jaiki eta berez errainari atzetik heldu dion arte...

"Nola jaiki zara?!" galdetu dio honek.

"Ez dakit", dio amonak; eta egia da: senarra errainaren eskuetan eta mantal urdin hartaz bortxaz estalita ikusi duenean, askatu zaizkio korrente beroaz zangoak, eta

ezerpentsa baino lehen hemen da azpiko gona zuriz jantzita Engraxi errainarekin borrokan.

Bitartean, ezarri dioten adurzapi luze-zabala lepotik behera, oinetaraino heldu denari kasu egin gabe, Xelek mahai gainean ikusi duen katilukada esnea bereganatu, ogi zati bat busti eta goseak bultzata gosaltzen hasi da.

Errainak amaginarreba oheratu egin du, bortxaz; bitartean, eta goraki erritan ari zaio: "Begira, ohitu da dagoeneko!, ez du aitak zentzurik, andrea, ez sendimendurik, zituenak ihesi joanik ditu aspaldi, urteen beldur, eta zu sentimentalkeria hori alde batera utzi eta pentsa, honela ez duzula eskuz hainbeste arropa garbitu beharrik; ezin duzula, gainera!, eta ezin duzunean, zure komenientziari begira behar diozula!...

Amona gaxoa ez dago honelakorik entzuteko.

Zera du buruan orain, zortziren bat urte zituela aitarekin autobusean egin zuen bidaia:

Aitaren anaia bat, Engraxiren osaba, beraz, ikustera joanziren; ez zen herritik hurbil, ez, urrun zen; handik urte batzutara jakin zuen Arrasaten izan zela, baina orduan, eta haurrarentzat, bidaiaren joana luze-polita izan zen. Autobusetik kalean jaitsi eta oinez igo ziren aita eta biak zuhaitz handi batzuz inguraturik zegoen etxe handi batetara. Han jendea zegoen zain, asko, eta sartu zain zeudela iragan ziren aurretik mantal txuriz jantzitako gizon bi erdian bizardun bat zeramatela, eta gogoratzen da honetaz, bortxaz, gizonak sartu nahi ez eta ostikoka baitzioan; eta gertakari honetaz beste gauza bat geratu zitzaion Engraxiri: erdian zeramaten gizonak besorik ez zuela!...

Hau gertatu zitzaion amonari, eta beste zerbait:

Aita zenaren izen osoa: "Gabriel Urondo", dei egin zutenean, aitak eskutik har eta barrura sartu zuela, kristalezko bi horma handik egiten zuten pasabide zabaletik, eta halako batean hor ikusi zuela aita zenak bere anaia hori, Krispulo; Engraxik ez zuen osaba ezagutzen, eta aitarekin hizketan ari zela ikusi zion begirada luze-galduak eta kolpetik eman zion musu batek izutu egin zuen, bizar beltz gogor haiek ezpainetan min egin baitzioten, osaba algaraz hasi zenean batez ere. Hala, bi anaiak zurezko aulki luzean eseri eta hizketan hasi zirenean, Engraxi zen haurra ikusi-makusi pasabidean aurreraxeago joan eta zabalik ikusi zuen atetik sartu zuen burua eta mahai asko erreskadan zeuden gela handi-handia ikusi zuen: hango hutsunea!; baina harridura handi hartan murgilduta zegoela gizon bat sartu zen ate beretik eskuan ontzi bat zeramala; zopa usaina hartu zion haurrak, eta ez zaio geroztik sudurzi-loetatik joan!, eta zopa honi lurrina ere ikusi zion mahaiartean zihoan bitartean; zamarra zuriz jantzita sartu zen gizona geratu zenean konturatu zen gizon zuri-urdina zegoela azkeneko mahai sailean bakarrik eserita. Honen aurrean jarri zion zopa mahaian, eta gero poltxikutik ogi zatia atera eta plater ondoan jarri zion; berdin egin zuen gero beste patrikan zeukan goilararekin.

Eta zerbait esan zion; gela handi huts hartan ahotsa ibili zen batetik bestera, baina haurraren belarriari ez zion ezer esan.

Eta gizona jaten hasi zen.

Zopa eraman zuena, bestaldean egongo zen ate batetatik edo, ezkutatu zen kolpetik, eta hots handiz zopa zurruputzen hasi zena bakarrik geratu zen; eta haurra, Engraxi; honek ikusi nahi izan zuen hura nor ote zen, meza emateko prest zegoen apaiza edo, eta

aurreratu zen, joan zitzaion oinkada bakoitza zurrupadaren hotsekin pare emanaz hurbiltzen, eta zera zen, alkondara zurizko gizon zahar handi bat, lepotik adurzapi luze eta urdinak aurre guztia eta galtzak, oinetaraino, dena, estaliz. Laster ikusi zuen janzki baldar haren arrazoa: jaten ari zela, sudurretik behera eta bizarretatik isurka zihoan zopa lurreraino!, ez baitzuen ahoko zulobiderik asmatzen!; eta seinale harrigarria izan zen baldarkeria hau adineko gizon batengan neskatoarentzat, eta kolpetik ihes egiterakoan atera zuen zaratak egin arazi zion zaharrari haurrarenganako begirada luze-argitsu hura, eta Engraxik hauxe ikusi!, eroaren begirada zaharkari hauxe!...

Aitarengana arnasarik gabe heldu zenean, osabari begi berriekin begiratu zion.

Eta ikaratu egin zen.

Aita zenaren ondoan eseri eta besotik tira eta belarrira esan zion etxera joan nahi zuela. Aitak izutasun hura haurrari antzeman, edo anaiarekin izan zuen harremana amaitu zuelako, hor atera ziren biak zoroetxetik gain behera autobuserantz.

Ez zion halere, aitari ezer galdetu.

Damu izan du geroztik, aita laster hil baitzen.

Eta ez zion beste inori etxean horrelakorik aitatu, beldur baitzen egin zuen bidaia harrigarri hau ametsa besterik ezer izan ez ote zen.

Beste gauza batzuk nahastuta dituen bezala...

Auxtiñari galdetu zion behin, ezinbestez; eta honek, gaixoa, arindu zuen esanez hori egia besterik ezin zela izan; eta osaba horren berri gehiago ba al zuen, eta Engraxik baietz esan zionean, aita hil eta gero etxera bisita egitera etorri zela...

"Hori egi-egia dun, orduan!"

Honelakoxea zen Auxtina, "Naparranekoa" Hernanin, aita nafarra baitzuen.

Nolanahi, harrez gero ezin du mantal urdinik ikusi izu bera sentitu gabe...

"Entzuten al didazu, ama"...

Engraxi berean dago, senarrari begira; orain leihoa zabaldu eta hemendik joana da, auskalo nora!... Baina horiek horrela, semea heltzen zaio sendagilearekin. Begiratu dio Engraxiri zangoetara, eta ez du ezer aurkitu.

Sendagileak ez baitu mantal urdinaren berririk.

Harrez gero, erraina egunero etortzen hasi da bazkal ordurako.

Aitona Xele ohitu egin zen mantal urdinera; ohitu ez zena, Engraxi bera izan zen; baina honek zituen kemen-indarren beherakada hartan ezin zezakeen isiltasunaz besterik erantzun. Bazekien, eta hau ere irudipen hutsa zen!, Xeleren hezkuntza gogor horrek ez zuela asko irauango, menekotasun horrek heriotzera zeramala.

Eta ez zen harritu goiz batean, bere saihets bilakatu zen gorputza nerbiotsu eta bero hura hilotz aurkitu zuenean.

Kexa bat gabe.

Zain geratu zen Engraxi geroztik, semearen emazteak mantal urdin handi hartaz zer egingo zuen. Etxera eramane zuen, garbigailuan berria bezala geratuko zela eta. Hala ere, lisatzea gehiegi irudituko zitzaion errainari, eta ximurtuta ekarri zuen; betiko lekuan zintzilik jarri zuen gero; hor dago harrez gero...

Badaki bai, jakin, mantal urdin hori bere zain dagoela.

Egunero begiratzen dio distantzia beretik.

Semeak asteroko leloa; "Ama, bakarrik ez zaude ongi, zatoz gurekin bizitzera, Karmentuk ondo zainduko zaitu eta. "Baina, ez nahiago du Xele hil zen ohe berean, eta agian hura bezala, doi-doi, inor nekarazi gane, hilik geratu.

Eta bitartean, hor du hainbeste gorrotatzen duen mantal urdina bere mende.

Eta ez aitzitik.

Gau batez, eta amets txar batek eraginda, jaiki zen; hirurak ziren oraindik; mantal urdina hartu, gero guraizeak gaumahaitik atera, ohean sartu, burkoa bizkarraren euskarri duela eseri, eta aurrena luzeran erdi-erditik ebaki zuen, bide luze honetan geldialdi batzuk eginez; neke handiko lana izan zen Engraxirentzat. Zatietatik bata apartatu zuen, eta bestearekin lehen egindako lan bera egin zuen, arnasestuak laga zion arte. Behatzetan nekea eta mina sentitu zuen. Berriz ezkerreko eskuan geratu zitzaion zati luzea alde batera utzi, eta besteari beste horrenbeste egin zion guraizeaz, gero eta neketsuago eta baldarrago. Amona izertzen ari zen; halere ez zion lan neketsu hari utzi nahi mantal urdin madarikatua txikitu arte, honi zion gorrotoak eraginda nekearen nekez lokartu arte.

Leihatiletako zirrikitoetatik egun berriaren argiak lo aurkitu zuen amona Engraxi, zatikatu zuen mantalaren zatitxoak inguraturik, ohearen azal zuria izar urdinez betetzen ahalegindu balitz bezala.

Ortzeak gainazpi egi eta inozentziaren zeru zurian izar urdinak piztu balira legez.

Elektrargia piztuta zegoen anartean.

Engraxik ez zuen itzaltzeko astirik izan; ezta betaurrekoak kentzeko ere; mantal urdin zantar hura txikitzeko lain besterik ez zuen izan; gero loak hartu zuen beretzat, betiko.

Mugarri galduen itsumundua

Euxebi, etxebizitza horretan bertan bizi da ezaguera duenez gero.

Sagrarioa izan du beti eskuinean, kanpaia jotzeko sakaburua dindilizka ezkerrean; gaztain zahar-lerdenaren gaztainkara iluna zero-sabai behean. Badirudi, sabai beraz kanpo, elizatxo deskribatzen ari garela. Eta ez, ez zen Euxebi propioki eliza barruan kulunkatua izan; gehiegi izango litzateke hau esatea; baina hurbilago ezin; ama Auxtinak haurra utzi zuen gela honetatik, elizatik aldarerainoko guztia begi-sista batez begiratzen da: nor etorri den mezatarra, nor ez!; nork hartzen duen Jauna, nola. Jainkoaren begibakar ahaltsua! Herritarrak ikusteko, konfesalekua salbu, puntu hoberik ez. Honetarakoxe ireki zuen norbaitek hormanausi honetan leihoko betzuloa, Jaunaren begia norberak jarri zezan. Aspaldiko malizia da hau, hirurehun urte ba omen dira ireki zela eta, ea!: nahiz eta gero, teatro-palku antzeko hau nabarmenegia zelako metalezko sareta batez eliztarren begientzat estaba geratu.

Eta ez zen, bestalde, Euxebi Elizatik kanpo jaio, bestela ez baitzuen osaba Andresek, bikari jaunak, alargunaren alaba bataiatuko.

Horiek ondo ikasiak ditu Euxebik.

Hemen inork ez dakiena zera da, eliza etxebizitzarekin batera eraikia izan zen ala ez; ezin zitekeena zen etxebizitza eliza baino lehen egin izatea, etxea baitago elizaren egiturari besarkatuta, haren formatara etxetxoaren gorputz guztia egokitua, eta ez alderantziz.

Bertakoek ez dakite jakin, zergatik ematen zion huskeria honi garrantzia, baina ematen zaio.

Euxebi jaiotzerako gauza horiek honelaxe lotu-kokaturik zeuden jadanik, noski. Orain, eta jaiotza notatu zuten liburutzarrean hil dela notatzeko garaia hurbiltzen ari denean, hiru apaizekin txandaka serorarenak eta beste egiten bizitza pasa eta katuarekin bakarrik geratu denean, Euxebi jaiotetxetik bota egin nahi dute, eta bereziki apaizak!, bikari berriak.

Zaharregia delako, agian.

Baina, ez nagia; zangoak kurbatu bazaizkio ere, arin-arina du pausoa; hain da xehea, eskuak kandelartean ibiltzeko aproposak dirudite oraindik, ez zaizkio erortzen, ezta bat ere itzaltzen; apaiz berriari jantzi zuriak ondo garbitu eta lisatzen dizkio, bere almidoi punta eta guzti..., hala ere, hemendik alde egin eta aurreko tabernan jarri zaio apopilo!

Hau ez da, Euxebik badaki, apaizaren ideia; tabernariaren emaztea, Xelestina, da hor sukaldari...

"Atzo esan nion bati, ez dut esango hori... hogeita hamar etxe ez dituen paradisu honetan bihar pentsatzeko duzun asmo ixilekoa ere sumatzen dizutela bezperan!; hargatik, ez dut esango nori, baina esan bai egin nion bati (ez diot inori aitortuko "Pitxitxi"riegin niola aitorpena) tabernako alaba ni baino gazte-moñoñagoa dela!... Honekin ez dut ezer esaten, Jainkoak libral, baina mataza bereko haria duzu hau, Euxebi... Nik neuk ez dut hemendik aurrerakoan inor gehiago behar etxean, nahikoa gara biok... Leihoak, bostak, maratilaz itxi ditut, eta ni naiz Jainko; barka, Jauna!, baina

egia da neu naizela mundu txiker honen jabe, eta neuk dena dakusat zursaretatik: baratza aldeko, bat; etxeko sarrera nagusiari begira dagoena, bestea; kalerako bi, bat aldats gora, bestea beheara. Kale bakar honetan bi alderdiak meneratzen ditudala; eta geratzen zaidana da izkutukoena, nik neuk dakidala aspaldidanik irekia izan ez den beste leiho bat, eta behin don Andresek, bikario defuntuak, esan zuenez karlistadan Santakruz apaizak ihes egiteko erabili zuena; harez gero, etxean dugun mezatarako jantziak gordetzeko armairu handiak estalita daukana... Ez da hortik inor sartuko, apaizak berak kanpotik estaltzeko betelana egin baitzion; gero, gainean barazkiak aldatu, eta aza-porrupuan doi-doi ahozpezt gizona pasatzeko lain den pasabide batetara irekitzen da..., Jesus!, sarrerako ateari atalaga bota behar diot!...

Eta supazterrean eserita zegoen mailatik katuarekin batera altxa (eta ez erraz, dorpeki baizik) eta Euxebik bi kolpetan bota dio langa: "langa-lang".

Generalak ingurapenari ihardesteko azken hornidura hartu izan balu legez.

Eta ez da soilki gonbaraketa bat.

Osteguna zen.

Garizumako Bosgarrena, Pasio asteari zegokiona, San Eujenio, Paulo eta Klaudiaren eguna. Paulo sainduari ama Auxtinak zion debozioak eraginda, sukaldeko apal batean zeuzkan estanpa eta oroigarritz osatutako aldaretxoan kriseilua piztu zion. Gero, geratzen zitzaion arrain prejitua azken ogi lehor zatiaren gainean jarri ("ogi gogorrari hagin zorrotza") eta gogo handirik gabe jaten hasi zen; katuari ere eman zion txitxarro zati bat. Amaitu zutenean, Euxebik sutondoan zuen aulki lasaian eseri zen, zer suma; laster igo zitzaion dorpeki katu zaharra altzora.

Aski ziren biak zernahi pentsatzen jartzeko!

Pitxitxi aurpegia garbitzen hasi zeneko esan zuen Euxebik beretzat euria alboratzen ari zela; ez zuen, ez, baratzean arroparik zabaldu, eta hala balitz eta arropa apaizarena izan, ez zuen hark horregatik aterik irekiko! "Apaiz gaztea... gazteak zer daki jakin, apaiz bada ere!? ea nork egiten dizkion hemendik aurrera oteunak, barkiluak; eska ditzala tabernan! Baita konsakratzeko ardoa ere..., ardo gorri naparrarekin, zer Odol bihurtuko zaio ba hortik!..., barka, Jauna!!... Kandelak, Kantoi Berriak erosi ditzala garestiak, nik neuk hementxe argizari isurietatik berrartu eta ia hutsean metxa erosten dakien honek txukun asko, eta merke!, egiten ditu berriak. Urteak dira nagusi... baina esperientzia eta eskarmentu bidez iragan direnak; besteek, zorakiloan joandakoak, ez baitute deus balio... Hor ariko da gure apaiz gaztea orain, bazkalondoan, nere aurka marmarka: zaharrik nagoela, buruz arindurik, babarrunak gazitu beharrean azukrez gozatzen ditudala (behin bakarrik gertatua"); Xelestinak baietz esango dio parrez: ez naizela goizean jaikitzen, gorrik nagoela, katuarekin oheratzen naizela... Hori, entzuten ari banintz bezala dakit neuk!"

Edozer du kinka honetan dagoela entzuten Euxebik, hurbilekoa bezain ongi urrunekoa: "neuri belarria txistuka hasten zaidanean, argi-argi datoz tabernako algarak, ontzizaratak, mozkorren boz gorak, sukaldean duten mahai handia darabiltzan berriketak..."

Euxebi sorginkeria honetan ari zela, biak loak hartu zituen.

Eta gau hartan euria egin zuen gogotik.

Hurrengo eguna, ostirala; Jesukristoren Gizakunde eguna, hain xuxen; bijilia zen, mehe eguna; Euxebiren tentabideak eihartu ziren aspaldi eta noizbehinka ukitzen zuen okela bera ere falta zen, norbaitek hustu baitzuen sukaldea!... Esne pitin bat ez zitzaion Pitxitxiri geratu; ogi gogorra ere joan zen atzo; pobrezia handiagorik ezin. Izpirituaren alderditik ezin zen ba kexa, gabezia guztietatik aberats baitzen; hala ere, izpiritua sentitzeko gorputz apur baten beharra dagoenez gero, kafetxo bat hartuko zuen Dimas, Pelajio eta Luzia sainduen eguna ospatzeko; eta, hala, bostak jo berriak ziren egunabar mergatz honetan, kafetxo bat egiteko sua piztu zuenean, sukalde osoa piztu balitz bezala argitu zen!

Nolabait, aulkitik jaiki gabe egin zuen milagro hau dena.

Euria ari zuen oraindik.

Baratzeko apo eta igelen kontzertu harrigarria besterik ez zen entzuten, eta kazola berde-zaharrea jarri zuen kafe-uraren irakin pizgarria.

Eta azken aldi honetan belarriak hain ohituak dauzkan Pitxitxiren arnasketa estua.

Eguna ez zen seirak arte zabalduko: etxean argirik piztu nahi ez zuenez, eta ez zaio gogoratzen zergatik!, itsuka aurkitzen zituen behar zituenak; egia esan, hain ohitua zegoen ilunbe honetara, ez zuen begien beharrik ere sentitzen. Bada egun batzuk oin-zangoetatik gora igotzen hasia zitzaiola pasmoa; ezerezetik, behatzazal azpian sortu zitzaion odolbildu ttiki batetik. Hori zela bazekien, inori ezer esan ez bazion ere. Ez da Pitxitxi bera ere honetaz ohartu; zazpigarren izpirituan dagoelako edo, beroni ere hatsa gaiztotzen hasi baitzaio: erdi intzentsu erdi ozpin den usainak salatzen du; zerbait erantsi ote dion uste du, Euxebiri lepoa handitzen hasi zaiola gaur bertan, esnatu denean, konturatu baita.

Ez al zaio oraindik hilko, etxeko katua hilez gero zoritxarra sartzan baita tximinitik.

Eserita geratu zenetik, dena eskuetara zuen Euxebik, eta berde-zuria zen berun-zinkezko katilu akastu hartan jarri zuen betiko kafeak baino txikori gehiago zuen edabea, eta ohi bezala txirrio bat pattar erantsi zion, hozten ari zitzaion barru triste hura bero ziezaion.

Behar zuen pizgarri hau.

Pitxitxi lo zegoen magalean oraindik, eta ez zuen iratzarri nahi, gaixoa; begiak itxi zituen Euxebik eta sarrerako atearen ondoan dagoen leihoko zursaretik jarri zen Ekialdera begira, batez ere apaiz jaunari itzartzeko ordua dela esateko urduri, Euxebi oraindik hemen dagoela dandaka astintzeko egarri biziz!...

Egunabarrak sukaldeko leihoa argitu bezain laster lehiatu zen, eta jeinu indar bereziz jo zuen artizkila...

Aulkian izerditan jarri zen arte: hainbestekoa izan zen Euxebiren asmoa.

Garizumako laugarren astea zen, Rebenka deitua, apaizak ez bazekien ere! Datorrenean, Pasio-koan, sartzean ikusiko zuen apaiz gaxte hark Euxebiren beharrik bazuen ala ez!

Metalezko sareta tarteko, zazpietako meza entzun nahi zuen. Ilunbe honetatik ikusiko zuen don Inazio meza ematen; ez zion inor aldarea gertatu; apaizak egin behar izan zuen dena; aldaretik sakristira eta sakristiatik aldarera zebilela (eta ez zuen honetarako aulkitik altxa behar, beti gauza berdinak egiten baititu apaizak honelakoetan), behin, behin bakarrik!, begiratu zuen gora, Euxebi egongo zela pentsatu

zuen tokira, eta Euxebi asmoz hor, gorputza bertan bailegoen ezin ikusi baitzuen izkutukoa inolatan ere... Eta honek sumatu zituen betiko zaharrak meza entzutera heltzen, hamabi denera, eta bat ez beste (Joxe Arretxe) guztiak emakumezkoak...

Ohizkoak igartzea erraz baita.

Dena egiten zuen gero eta errazago; zangoetako elbarritasun hura oztopo ez balitz bezala, dena sukaldeko aukititik mugitu gabe egiteko ahalmen berri bat sortzen ari balitzaio bezala.

Burua ari zitzaion argitzen, berpizten!

Buruko argitasun berri honekin jarri zen Euxebi kandelagintzan; goiz guztian aritu zen geratzen zitzaizkion kandelakondoak urtu eta moldez berritzen, behin eta berriz gauza bera, apaizetxea ganbarako leporaino kandelaz bete zuen arte. Izan zuen, gainera, pentsa ahala, ea!, tarteka lau leihoetatik zelataka egoteko denbora. Harritzekoa zen inor ez agertzea... Ez zuten Euxebi zaharraren beharrik elizan!... Hori dena Xelextinak apaizarekin tabernan egin zituen azpilanak ziren. Auskalo zenbat gezur! Honez gero badaki apaizak ama Auxtina hil zenean ahapeka herrian korritu zen guztia: "Ni, neu, ez nintzela ama alargundu berriaren alaba, hospiziarra baizik, Fraisorotik jaio berri-berritan ekarria; gezurra!" Auxtiña amak hainbeste aldiz hil aurretik eta muxinka Euxebiri esana, gaixoa; honek zera gogorazi zion, behin don Andresek mahaian Euxebiri hamabosten bat urteko neskatoari esana: "Esandako ezeri ez jaramonik egin, ni neu naiz testigu ama Auxtinak ekarri zintuela"... Garai hartan eta gero argi zegoen hau, orain bapatean!, don Andresek gezurrik gabe esandakoak antsiatu, estu eta larri, jarri duen arte...

Gaizetza ari zaion argi txoragarri hau ari zaio bazterretako errainuak erratz bigunez bezala ekortzen, ertz-xokoak argitzen, eta etorkizuna bera hementxe dakusa argi beltz batez argizatua, iduriztatua! 83 urtez bakarrik, eta Errukietxerako keinuak somatzen hasi denean, apaizetxetik bota nahi duten egun desanparatu horietan, katuaren konpainia bakarra geratzen zaio.

Ez du Pitxitxi bera ere lehengoan sentitzen.

"Hamabi urte bete ditu joan den San Martin egunean; nire buruari ez zaio gaur ezertxo ere pasatzen: dena dago argi"...

Baina zerbait ahaztu zitzaion: esnerik ez, eta hala ere, eman zion katuari, bere magalean, behar zuena.

Gauera arte.

Loak ere hor hartu zituen biak.

Ohean bezain ondo sentitzen hasiak antxume-larraz egindako aulki lasaian. Hain ongi aurkitzen zen Euxebi, ez zuen esnatu beharrik izan apaiza kale estutik gora bazetorrela jakiteko; ateraino heldu zain egon zen, bi mailuhots entzun zituen arte. Orduan, eta sutondoko bere aldare hartatik, aurpegia zimurtu gabe esan zion: "Nor da?"... "Ni nauzu, Euxebi", erantzun zion don Inazio apaiz gaztearen ahotsak..., baina ez atearen beste aldetik, sukaldean zegoen aulki batetik baizik. "Zer nahi duzu tenore honetan?", galdetu zion Euxebik gotzain jantzita, mitra eta guzti!, argi zuri batez aureolatua agertu zitzaion apaiz gazteari! "Zu ez zara elizara jaitsi, ni igo naiz apaizetxera; zergatik itxi didazu atea?" "Zu, zerorri, joan zara tabernan bizitzera".. "Bai", erantzun zion gotzainak "han dut nik andregai; ez dut neuk erdia sorgina den atso

zahar batekin inolako zerikusirik nahi". "Honek, zu gotzain izateak, ez dizu", erantzun zion Euxebik, "nire kaltetan aritzeko eskubiderik ematen". "Egiak", esan zion orain boz goraz eskuinean zuen Artzain makulua jasoaz, "ez dio inoiz eta inori kalterik egin, bekatuak berak baizik". "Zer bekatu egin dut neuk?" "Bekatuak ez dira bakarrik bakoitzak egiten dituenak, baita sortzetik dakartzagunak ere". "Zertaz ari zara?!", esan zion Euxebik hiraz dardarka. "Epailea ez naiz neu", erantzun zion, "Jainkoa baizik; zurea da zalantza, ez nirea; igarri behar zenioke bekatuari sorginkeria"...

Eta aureolarekin batera banitu zen gotzaina.

Isilpean aurkitu zen Euxebi aulkian eserita, katua, katuhotza!, laztantzen ari zela.

Ondoez zorro larriak bete zuen.

Larunbat osoa joan zitzaion kezka bizi honetan.

Pitxitxi eskuetan puztutzen hasi zitzaion; zaharrez hildako katuen usain bereziaz saturatzen hasi zen sukaldeko airea; aire hau loditzen, kearen hori-marroi-urdinak koloreztatzen; Euxebiri begiak lausotzeraino, eta auzkeririk gabe, baina ikusmenaren auleziaz beraz buruan zituen argi printz sarkor, barrenkor, haiek ahultzeraino; indargetzen joan zitzaizkion kemenak apurka-apurka, algodoizko korapiloak uretan berez askatzen joaten diren antzera, bizia, azken hatsetan babesten den bazter misterioetsuenetan ere banitzen...

Katua lehertzeko zorian jarri zenean, Euxebiren eskuak ere handiagoak ziruditen.

Eta unetxo labur bezain argiluze honetan izan zuen Euxebik apaiz, gotzain!, gaztearen eskuetatik azken gantzadura bake osoan hartzeko zoria, bai baitzakien olio sainduaren igurtziak azken bekatuak garbitzen zituela. Eta, hala, ostiral gaueko hamarrak elizako erlojuan jo baino bi minutu lehenago jazo zen Euxebiren heriotza bakarti eta desanparatua.

Esnekaria, Axun, izan zen apaiz etxera lehenik hurbildu zena.

Astelehena zen, Garizumako bosgarren astearen sarrera, *Pasiokoa*, hain xuxen; atera heldu zenean ohi zuen krisketaz irekitzeko keinua egin zuen, baina atea giltzaz itxia zegoen; Axun harritu zen, Euxebik ez baitzuen hau inoiz egiten... A! Honek esan nahi zuen oraindik lehengusinarenean etxean zegoela...

Eta esne-marmitarekin itzuli zen.

Malda behera zihoala bere buruari esaten ari zitzaion Axun bazirela hemen harritzekoak ziren bi gauza: bat, Astelehen Saindurako itzuli eza, aspaldi seroraren lanek Euxebiren eskuetatik, eta zaharrez, ihes egin bazizkioten ere; eta bestea, baratzen zintzilik ikusi zituen arropa batzuk, kontu handiz jasotzen baitzuen lehortzen zegoen dena egun batzuetarako alde egiten zuenean.

Zuzenean elizara jo zuen.

Zazpiretako mezadanik irekia zegoen; marmita sarreran utzi eta aldarearen alboko atetik sakristira sartu eta apaiza jantzi batzuk tolestean ari zen kaxoi handi hartaraino heldu zen. Don Inaziok ez zekien ezer, ezta Euxebi irten zenik ere; eta kezkatu egin zen: "Gaixoa, ez dakit nolatan irauten duen hor bakarrik". "Zerori ere botea izan zinen"... esan zion Axunek. "Ongi dakit hori. Nire arrebak zainduko zuen, utzi izan baligu". "Zu zara oraindik ere Euxebiz arduratzen zarena". Nire eginbeharra da... Euxebiren

lehengusina horrek telefonorik ba ote du?" "Ez, baserri hartan ez dute; gaiso egon zen batean egin nahi izan nuen deia; kotxean joan behar izan nuen Xelestina zenaren semeak, Anttonek, eramanda Urnietako 'Xoxoka gain hartara".

Don Inaziok hartu zuen kotxea eta egin zuen bidaia.

Alferrik, noski!

Hemendik aurrerakoek hartu zuten abiada:

Lehengusuarekin ez zegoenez, honekin itzuli zen apaiza herrira; elkarrekin ibili ziren etxe inguruan, leihoren bat irekirik ote zegoen, baina alferrekoak izan ziren ahaleginak; azkenean, errementariko Gasparren bila bidali zuen apaizak inork nola bildu zen ez zekien jendetza hartako mutiko bat; hor etorri zen Gaspar handia erremintak eskuetan zituela oso serio, eta jendartean irekitzen joan zitzaion bidetik heldu zen apaiza zai-zain zeukan sarrerako ateraino. Ordurako joak zituen apaizak mailukadak, eginak zituen leihoetatik deiak. Eta Gaspar heltzerako hurrez zeuden leiho-zulo horiek. Ez zegoen Euxebe begira! Dagoeneko herri guztia hemen zegoen bilduta, eta haserako marmar sotil-adeitsu hura jaso zegoen; ez zen harritzekoa izan Gaspar suarotzari bi "gora!" eta txalo haiek jotzea. Gasparren lehen mailukadak isildu zuen iskanbila, aho guztiak belarri bilakatu balira bezala; bapatean, arotzaren ostikada burrundatsu batek sarraila eta langa lehertu zituen, eta eztanda honek sortutako haize boladak jaurtiki zuen Pitxitxi euliz inguratutako baloia bezala Gasparren oinetara, eta honek ostikoz atetik jendartera botu; garrasiak entzun ziren; hala ere ez ziren denak urrundu, eta gertutik entzun zituzten banan bana Gaspar irekitzen joan zen lau leihoen plastadak.

Antxume-larruz egindako aulki lasaian zegoen Euxebe, lo balego legez, katuak hutsik utzi zituen bi eskuak zabalik.

Gasparrek eta don Inaziok aisa eraman zuten bien artean serora zenaren gorpua oheraino, eta urriki eta begirune handiz utzi gainean, aldare batean bezala. Hortxe jo zuen norbaitek hilezkila; banan banako luze-behekoak, eta hogeitamahiru, Kristoren urteak hainbat.

Hemendik aurrerako eginbeharrak emakumeen eskuetan geratu ziren, lehengusina (inork ez daki nondik norakoa) buru zutela. Katua ezagutu eta maitatzen zuten bizilagunen artean izan ziren bi mutiko Pitxitxi baratzean ehortzi zutenak, bi makilatxo eta sokaz egindako gurutze bat lur gainean zuela. Euxebik berak egin izango zukeen bezala, hilik ez balego. Hileta egin aurretik jo zuen don Inaziok liburutzarrera, Euxebe noiz hil zen azken datoa eransteke: Euxebik Auxtina eta don Andresen alaba zenaren itxaropena gorde-izkutatu bazuen ere, serora ez zen hori; ezta hospiziar galdua ere; herriko neska batek izan zuen fruitu zapuztua baizik (hau ere nahiko mingotsa bazen ere), eta Auxtinak, don Andres apaizaren laguntza maitakorrarekin apaiz etxean jaso, hazi eta hezia izan zena.

Gero, zahartzaroan bakarrik geratzea eta burua nahastea ez zen Euxebiren errua izan.

Hurrengo egunean, Astesantuko asteartez, arratseko zazpiretan, izan zen elizatxoan hilotz-aurreko hileta.

Herrizkako munduak bete zuen eliza.

Harridura handiz!

Oheratu zirenean, oskarbi zegoen arren, goizean elur xuriz estalita aurkitu zuten herria; gehiago: hiritik Patxi okina kotxez igo zenean esan zuen mendatera heldu zen arte ez zuela elurrik ikusi, gain hartan gurutzatu zuela herrixkaldeko muga xuri garbia; ez zuela inoiz honelakorik ikusi; sermoian don Inaziok zer esango zain zegoen jendetza, eta apaizak aitortu zuen gauza bitxia zela gertatua; hala ere, hau seinale bat balitz bezala ikusi nahi izatea arriskutsua zela, Euxebik Jainkoa eta herriaganako maitasuna argi erakutsi bazuen ere, Jainkoak mirari bidez oso gutxitan adierazten zituela egindako aukerak. Oso ukitua zegoela bixtan zegoen moduan aritu zen don Inazio herriaren joera errazegiak kontu handiarekin baretu nahian; baina zerraldoagandik hurbilen zeudenek ikusi egin zuten laster oihal xume batez forraturiko pinuzko hilkutxaren gainean, itzulika, tximeleta xuri txiki bat; halaxe zabaldu zen behintzat ahoz aho elizan. Elizkizuna amaitu eta hilerriko bide xuritik honela sentiberatua zegoen herria abiatu zenean elur bustiak eurira jo zuen; adintsuenek laster esan zioten elkarri: "gorputz ona, euritsu", eta Paxientxineko Juxta errosarioa errezatzen hasi zenean, denek jarraitu zioten; Euxebiren gorpua hilobiko zuloraino heldu zenean, don Inaziok isilik eta zain-zain geratu zen azkeneko misterioa eta kirielesonak amaitu ziren arte.

Gero esan zuen erresponsoa.

Gertatutakoak: ustekabeko elur berri hura, tximeleta xuri xehe hark, lau kandelarteko argiaren deia sentitzea, gure herrian hain erraz erortzen den euria, hiru gertaera arrunt hauek herriaren buruan misterioa sortzeko gauza izan baziren, ez zuen Euxebik gutxiago esperoko maliziak, gaizki esanak eta dorpeziak lekurik ez duten garaun itzaliaren zerutik.

Bihotza golkoan

Martin Ugalde

*Nire euskara literarioaren
aingeru goardakoa
izan den
Xalbador Garmendiari
bihotz betez.*

Untxiak ehizatzea ez da bekatu, debekaldian ez bada

Porfirio deitzen zioten etxean, San Porfirio egunean jaio zelako.

Baina herrian ez du inork izen horrekin ezagutzen; deitura osoarekin Porfirio Urzainkiz galdetzen baduzu ere, herriko bostehun bizilagunek ez dizute gizon honen berririk emango "Sakristaua" rengatik galdetzen ez baduzu.

Elizgiroko goitizen hau ez da sakristaua delako; egitazkoa dena haserretzen da norbaitek nahasten baditu. Ez dute traturik; ikusten dute elkar, ezinbestean, baina ez diote sekula bata besteari begiraten komunikatzeko, elkarrekin topo ez egiteko ahaleginetan baizik. Sakristauak ez dio "Sakristaua"ri inoiz kalterik egin; alderantziz bai, nonbait, esaten denez. Nolanahi dela, norberak badaki bestea nor den, haurtzaroan lagunak izan dira eta, baina ikustezina elkarrekikoa eta zaharra da.

Hor juezaren atea noiz irekiko zain dagoena da 'Sakristauaz ezaguna dena.

Ikusi du don Kasto lehen goardiazibilek koartela zuten aldetik datorrela, eta honek, plazaren beste muturretik datorrela, Porfirio nola eserita dagoen begira, eta pentsatzen, agian: hor dagoela, harrizko karelean jarrita, hilketaren pekataria, izengoitiz "Sakristaua"..., eta egitan hemen dago Porfirio bera juezak zer koño esango zain... Datorrela, datorrela, pausos pauso... "Hemen zaude", esaten dio heldu denak, eta bestea zutitzen da, errespeto txikiarekin, hala ere, agur honi erantzun gabe, eta gero: "ja..." Jueza aurrera, kontsejupetik barrena ateari bultza eta Porfirioentzat ireki balu bezala, sartzeko eskatzen, eta biak doaz eskailetatik gora, eskaileta zabal eroso eta bientzat tokia sobran duena baita, baina jueza doa aurretik, pauso baten bentaja, justu, eta "Sakristaua" atzetik eta egitan balitz bezala, apaiz jaunaren atzetik joaten ohitua balego legez; hala iristen da jueza lehenik, giltza eskuan, eta Porfirio beti atzetik; oraindik, "ja!"z aparte, mutu sartzen dira biak gela ilunera; gelan agintea duenak irekitzen du leihoa eta honen kontraleihoak: "Plist-plast", eta esaten dio sarreran geldi-zutik geratu denari: "sar zaitetz, mesedez"; Porfirio, txapela eskuan, gerritik nahiko makurtua, eta eseritzen da don Kastok eskeintzen dion aulkian, eta jueza bera jartzen da hurbilen dagoen beste batean, zeremoniarik gabe.

"Beno", dio juezak "etorri zara hala ere!..."

"Eta zergatik ez, jakin ahal bada, zergatik ez nintzen bada etorriko?..."

"Ez, udaltzainak esan didanez, ez zinela agertuko eta..."

"Esaten dira makina bat gauza!"

"Halaxe da; beno, egin dezagun egitekoa lagunkiro, ez du besterik merezi eta; baina neuk adina badakizu legeak betetzeko eginak direla, eta nolanahi hemengo harreman hau izatea beharrezkoa dela; jendea zain dago, ezagutzen duzu herria, eta besteei egin erazi diedana zeuri ere, itxuraz behintzat, bete arazi behar; eta itxuraz aparte, nik, neuk, epaileak, zuri, herriko seme horri, esan behar dizut untxiak tirokatzea debekatua dagoela debekaldietan... –Porfirio isilik; bere ezkerreko paretan zintzilikatua dagoen laukiko militar prestua Porfiriori zorrotasun haundiz begira-begira...–. Hortik kanpo, ehiztariak tiroa libre du, noski, eta zeuk badakizu hori sobera; zer esango dizut gehiago; hauxe da nirea, ohar modura zeuri lagunkiro esan beharra... Konforme?..."

"Ez nago konforme", eta Porfirio orain eskuinean geratzen zaion leihotik kanpora begira, "untxi xume bat tiroz jo dudalako hainbeste zeremonia!..."

"Tiroz jo eta hil".

"Noski!", eta don Kastori begirada zorrotz eusten dio, desafioka.

"Beno, nik ez dut besterik esateko, baina esandakoa behar nuen esan, eta kito".

"Eta kito..., -altxatzen da, txapela eskuan, gerritik erdibitua, malizia zorrotza betzulo txiki haietatik dariola...- hau al zen dena?"

Juezak, baietz, oraindik eserita, eta Porfirio hor ziak, "ja!..."

Don Kastok ikusi du joaten, "agur", dio, eta zutitzen den horretan ate nagusiak "zapla!", eztanda handia; ikaratzerrainokoa. Tiroa izan zitekeen... Eta hor doa Porfirio eskaileratik behera, eta plazara eta eskuinetik... kanposantu aldera; ez (bere barruan barrez pentsatzen doan bezala) untxiaren hilobia bisitatzera, baizik eta bide horretatik aurreraxeago dagoen etxetxo batean bizi delako... Eta aurrean daukan lur zuri lauari begira geratuegin da, txapela buru gainean ur-boltsa bailitzan utzi eta inguruko mahastia eta urrunago ikusten den ibaiertzean dagoen lizar ilada luze eta gaur bezala hegoak jotzen duenean usaintsu gertatzen denari so dago. Hori, edo antzeko zerbait pentsatzen ari dela esango litzateke... Honek izango luke logika, baina ez... hor jiratzen du baldarki bere gorputza!, "media vuelta!" entzun balu legez, eta abiatzen da plazarantz berriz, kargaren batez arindua dirudi, gerriz zuzenago, besoak konpasatuki, militarki... irekitzen du ostikada batez kontsejupeko atea eta bi jauzitan Auzitegiko atea kris-kras ireki du, gelako beste muturrean eserita lanean ari den juezari begira geratu da justu honek bere begirada, izua!, jaso duenean, eta esaten dio Porfiriok, eskua oraindik atearen eskutokian duela:

"Jueza zaren horri, -esaten dio Porfirio "Sakristaua" honek-, eta zure buru gainean hiltzez josia dagoen horren aurrean, arestian nirekin egin duzun pailazokeria horrek ez duela niretzat ezer balio, eta ausartzen bazara, benga juizio!, benga!!... eta erakutsi niri eta herri osoari zure barrabilak nolakoak eta non dituzun... ja!!..."

Eta atek, "panba!!!"

Hor doa berriz gizona eskaileretatik, binaka.

Eta ez da lasaialdi honekin konformatu, baizik eta eskuinera jo beharrean ezkerretara hartu eta herriko tabernan esan behar zituenak eta bost aldarrikatu ondoren erretiratzen da, di-da!, bere neguko koarteletara... etxeko upategian bere mahastegiko ardo beltzez mozkorraldi ederra harrapatzera.

Bakarrik bizi da, eta gaitzerdi.

Pasatzen dira egunak, eta asteak ere, bi segidan, eta Porfirio bere etxeko gotorlekuan zain; ostiral arratsaldean heltzen zaio udaltzaina sobre urdin batekin; baso bat ardo eskaini dio, eguraldiaz hitzegiten dute, azal urdinaren barruan datorrenak axola txikienik sor ez balio bezala, eta udaletxeko gizona joan denean bakarrik ireki du estalkia amorrubiziz, zeren bai baitaki udaltzainak eta idazkariak eta herriko gehienek honez gero ezagutzen dutela Porfirioren eskuetan dagoen papertxo honek dioena, eta gainetik jabetu da, datorren astelehenean, hilak hogeitasei, goizeko hamarretan, judizioa izango duela, eta abokatu baten laguntza nahi badu, baduela berea aukeratzeko eskubidea, edo, bestela, legez Auzitegiak berak izendatuko diola bat... eta betiko formulario parregarriarekin: "Agur, Jaun Agurgarri hori..." "Dena faltsua!!!"

Egon da herriko tabernara joan eta kristorena armatzeko.

Baina barrabilkeriak alde batera utzi eta buruarekin pentsatzen hasi da. Zertxobait jan ere egin du sukaldean zigarroak errez ilundu duen arte, eta gauzez irten da izarrei begira, ilargia urrikor, mahastian bueltatxo bat ematera. Eta gero, oheratzerakoan, etxeko sapaian gaztainezko zutabetik igo eta gapirioko izkutaleku batean daukan "Smith"a, errebolberra, bere tokian ote dagoen egiaztatu nahi izan du.

Ez da inora eskopeta handi-baldarrarekin joango!

Eta goiz oheratu da.

Larunbata arratsaldean, mezetara; azkena sartu eta lehendabizi irten, eta etxerantz, txintxo-txintxo. Igandean lehenengo autobusa hartu, Lizarran jaitsi eta bere iloba abokatuarekin hitzegitera joan da, arreba baten semea; lo dago mutila oraindik, eta iratzarri den arte kuinatuarekin beste gaiak berritsuketan ari eta gero egin dio lobari, bakarka eta sekretu haundiz, bere eskabidea.

"Untxi bat tiroz jo duzula eta judizioa?!", harritu da gaztea; "ikusi al zaitu norbaitek untxia hiltzen?, ez!?, orduan ez zaitetz kezka, probarik ez badago ezin dizute isunik ezarri; zerorrek eta untxia eskutan, aitortu zenuela tabernan?... hala ere ez, txantxetan esan zenuelako, ez da hala?...; ezetz?, ez zaio axolarik, zuk zeuk baietz esan eta kito... Hara, eta zergatik ez duzu hori esango!... Zure hitza... zer nahi duzu, isuna ordaindu?, orduan ez duzu nire beharrik!..."

Abokatu gazteak ez du osabaren burugogorkeria ulertzen!

"Nik, neuk", dio Porfiriok, behin eta berriz ondorio bera atereaz, "legez nahi dut auzia irabazi, ez gezurretan... Zer du untxi deabru honek orain arte egin izan dudana legez etengabe urtetan zehar ehizatu badut, gaur niri zigor bat ezartzeko gauza izateko?!"

"Orain arte gorde izan didaten errespetua norbaitek jan nahi didala?... Ikusiko dugu nor den gehiago!"

"Tira, osaba –esan dio bukatzeko gazteak– joango naiz astelehen goizean, hamarrak baino lehentxeago, neuk hitzegingo dut don Kasto juezarekin. Ezagutzen dut, eta zu joan zaitetz zure aldetik, egon lasai..."

Lasai abiatu da Porfirio astelehen goizeko hamarrak hamar gutxitan udaletxerantz, eta!... mundua ikusi du han, udaletxe aurrean, eta gertuagotik gero eskaileretako gorabidean, andre eta gizon! Azkenik lortu du nolabait Auzitegira sartzea, dena betea hau ere!!... Egia esan, ikaratu egin da... Hau betikoa du... Iloba irten zaio bidera, jendartetik, eta lekua eskaini dio... lehen iladako aulkian eseri duen arte, eta iloba ere bere ondoan... "Zer da hau?", galdetu dio honek, "hainbesteko istilua... Hitzegin dut don Kastorekin, eta esan dit zeure kasketaldiaz sortu duzula herrian eskandaloa, auzirik ere ez zegoen kasu honetan; juezak berak esan omen zizun ahozko lehen deialdian, hartaz barkatzen zizula..."/"Barka niri!"/"Tira, osaba, zer nahi duzu"/"Nik, neuk, nahi dudana da zu, nire iloba eta abokatu, nirekin egotea, eta legea non dagoen esatea..."/"Baina..."/"Bestela, utzi nazazu bakean, joan zaitetz eta kito..."/"Orain berandu da...", damutzen zaio ilobari.

Marmarra gero eta handiagoa, giroa berotzen hasia da; juezaren begiak bilatu ditu Porfiriok, eta hauek agurtu egin dute keinuz, nahiko larri... alu hori!

Lanak ditu udaltzainak jendetza isil arazteko, trumoialdi baten hasiera dirudi; sargoria eta guzti; jendetza izerditan hasia da.

Don Kastok txilina jo eta hasi da hizketan, esanez ez dakiela zergatik sortu duen herrian epaiketa xume honek hainbesteko ikusmira, debekaldi baten haustea behin baino gehiagotan gertatua...

"Niri ez!...", erantzun dio Porfirio, zutitu eta gero, duintasun haundiz.

Eta unetxo batez isildu zen jendeak marmar luzea sortu du berriz, baina ez barrerik; aitzitik, lehen baino isil-adiagogeratu da jendetza, ilobak bakarrik esan du zerbait osabaren belarrira: "Egon zaitetz isilik, mesedez!", eta berehala zuzendu dio hitza epaile jaunari: arren, bere defendatuak esandako hitzak ez kontutan hartzeko.

Oraingo honetan isil-geldi geratu da Porfirio, baina xuriagotu zaio aurpegiko larrua, hiraz.

"Hasiko gara, bada", dio juezak, "auzi honek duen garrantzi bakarra adieraziz: debekaldian untxi bat tirokatu eta hiltzea, eta, gero, hilketa hau herriko tabernan haizatzea, eta bide honetatik auzitegi honen aginpidea agerian jartzea; nik neuk ez nuen honaino iritsi nahi, baina Porfirio Urzainki jaunak ("Sakristaua!!", esan du norbaitek jendartetik) hala nahi izan duenez gero, joan bedi legea bere bidetik... Zuti dadila Porfirio Urzainki jauna... (zutitzen da) esan beza joan den hilaren bostean, debekaldia oraindik indarrean zegoenean, ibaiaren ezkerreko bazterrean dagoen belardian untxi bat tiroz hil zuen ala ez..."

"Bai jauna...", esaten du Porfirio txilipitu ahots batekin; akusatua bera izan da ahulezia honetaz gehien harritu dena...

"Hala izanik, zuk bazenekien debekaldia indarrean zegoela..."

"Esan ezetz", aholkatzen dio ilobak belarrira, denek entzun badute ere; irriparre bat lekuko.

"Bai jauna".

Marmarrak bete du orain gela guztia, dagoeneko ke usain txarreko lurrunez puztutzen hasia.

"Zeuk, zerorrek, aitortu duzunez", segitu du juezak, "neuk legez ezartzen dizut mila pezetako isuna..."

"Ez dut neuk zigorra onartzen...", egiten dio ihes Porfirio "Sakristaua"ri barru presioaren indarrez, altxatzeko denborarik ere gabe.

Beste marmar olatua hasi eta pasa da gelatik, oraingoan handiagoa, eta norbaitek eskatu du leihoa irekitzeko, itoko direla bestela, eta, gainera, sartzerik izan ez duten herritarrek ere badutela epaiketaren berri izateko eskubidea.

Ireki dute leihoa eta gela hotsez hustu bailitzan geratu da giroa zimelduta.

"Eta zergatik jartzen duzu auzitan nik legearen izenean ezartzen dizudan zigorra?", dio juezak.

"Ez delako legezkoa; eta esango dizut zergatik... Hemen dauden oilo eta oilaskoek..."; eta bueltatu da Porfirio inguru osoari begira, ea inork protestatzen duen, "onartuko dituzte zure zigorrak, baina neuk ez, eta... ez galdetu!, esango baitzut neronek zergatik!..."; Porfirio ahots igo-mehea irten zaio; norbaitek barre egin du ezkutuan; eztarriko oztopoa gainditu du nolabait, eta hasi da berriz hizketan, nahiz eta ez, balere, Porfirio nahiko zukeen kemenarekin: "Orain hogeitabi urte, hemen dauden askok gogora ezin dutena, eta nire iloba abokatuak ere ez, oraindik jaioberri ume kakatsuak zirelako, baina historia hutsa dena, historia sakratua, zera da, gure herrian gerra bat

sortu zen... ez al da hala, epaile jauna?... ", epaileak kokotsaz baietz dio, isiltasun hartan (arestian baino handiagoan, leihotik joaten bait da orain burrunba), baina "zertaz ari haiz" esanez bezala, "ba, gerra hura sakratua izan zen, Kristo defendatzeko, Jainkoa gogoratzeko, egin genuen gerra..." eta paretaren erdian zintzilik dagoen gurutzeari begirada luze eta isil bat bota eta gero segitzen du, indar berrituaz, fanatikoki oilartuaz, oilo eta oilaskoak izorra zitezen!..., "ba, orduan, gerrako adina zutenetik batzuk egin zuten agindutakoa, gerretan beti egin behar dena; beste batzuk, berriz, ihesari eman zitzaizkion edo ethezuloetan ezkutatu!..." Hasi da berriz hazten, harrotzen... ahotsak betetzen du orain gela eta leihoa, dena!: "eta, jaunok, lan hau egitera behartu gintuen gerra horrek!... Ea nor ausartzen den, hemen, orduko lanen beharra eta justizia ukatzera...", eta itzuli bat eginez paretan denei begira dagoen militarari zuzentzen dio agurra, eta gero Francoren begietan zorrotutako begirada berria pasa du jende tartean... "Orduan nik, neuk, Porfirio Urzainkik, gaur hemen zuen aurrean daukazuen akusatu berak, izan nituen barrabilak sei gizoneko partida baten buru jartzeko, eta etxez etxe garbiketak egitera joateko... "Nahi gabe ere eskuineko eskua galtzetako patrikara joan zaio..." Nik neuk ez nuke esango zenbat... zenbateko zerbitzuak egin nituen, baina esan nahi dut orduan herrian zen Teniente Iriartek, nire mutilen aurrean eta herriko batzu bertan zirela lekuko, eman zizkidala eskerrak egindako lanengatik. Geroztik urtero, gogarazi didatela, hogeita gehiago urtez, ekintza glorioso hura, eta izarrak ere jarri zizkidatela paparrean..." Eta Porfiriok ahotsa gora: "...Eta galdetu nahi nioke orain juezari... epaile jaunari! (gehiagizko erreberentzia eginez, inork barrerik egiten ez badu ere) ea, adinez gordina dagoenez oraindik, buruz beti argia izan denez gero, beti legearen alde irteteko kuraiaz ereduizko beti..., gaur arte behinik-behin... ea orduan neuk eta neure partidak herri honetan eta ingurukoetan, lan gordin hura egiteagatik lau erreal ematen zizkigutenez, pezeta bat!, ea orain, jolasetarako eskupeta hartu eta beti bezala untxi artean itota gabiltzala, untxi bat tiroz hil dudalako, arimarik ez duen animaliatxo belarriluze baldar bat tiroz bota dudalako, niri dirua eman beharrean, zergatik behartu nahi nauten mila pezetako! isuna ordaintzera, zergatik orain zigorra!!..."

Itsu-itsuan ari da orain hogeitabi urteko girora itzulirik!:

"Hori galdetzen dut neuk gaur hemen, Kristoren aurrean, Gizon paregabe horren aurrean (erretratuari erreberentzia), eta Lege Santuaren aurrean... (eskuineko esku zabalarekin Don Kasto seinalatuz), ea zergatik meritu haiek gaurko zigorrera ekarri gaituen, hona, ustalkeria honetara!..."

Porfirio jendetzaren begi bila, eta don Kastori apuntatzen oraindik.

Batzuk dagoeneko alde egin dute; beste batzu, lankide agian, hor diraute serio aski, eta gaztetxoena, ezer ulertu ezin eta datu gehiagoren zain daudenak, eta hauen artean iloba abokatua, aurpegia eskuetan darabilen papera bezain zuri.

Isiltasuna da nagusi orain.

Eta intzentsu eta polbora kirats gaiztoa hasi da gainditzen, lehenengoaz gain, isilpe alfer honetan.

"Eta zu", erasotzen dio juezan, "Don Kasto, ez zinen haur bat orduan, ia adin berekoak gara eta; zu gorria zinen, ezaguna, baina abokatu bizkorra dagoeneko, eta herriz herri ibiltzen zen kamioi baten gainera jauzi ederra egin zenuen garaiz, beste erreketek batzurekin, eta haietako bat zure anaia zelako, haranola diren gauzak!, eta hor

ibili zinen batetik bestera, gutxi ezagutzen zintuzten Erriberan, "boluntarioak", "boluntario gazteak", eskatzen, eta batzu beldurrez igo egiten ziren kamioira, eta salbo ziren frenterako; igotzen ez ziren beste inoxente batzu, igo ez zirelako indarrez hartu eta gaez kunetetan edo kanposantuetan akabatzen zenituzten... Gogoratzen zara horretaz, noski, Don Kasto, Epaile jauna..."

Jueza xuri-xuri eginda zegoen mahaian.

"Egia da, horregatio, debekaldirik ez zegoela orduan..."

Ahoa berotzen zitzaionean, Porfirio beldurgarria zen.

Ahaztu egiten zitzaion non zegoen ere; bazituen esperientziak, txarrak gainera, baina dena ahazten zitzaion... berean tematua zegoenez kanpo, beste guztia... Halere, bere zentzura etortzera suertatzen zitzaionean, izutu egiten zen; orain bezala, ahulezia hark goitik behera jo du bapatean, bere ondoan zegoen ilobak ondotik alde egin diola konturatu denean..., baina don Kasto zuen oraindik nagusiki bere miran, eta zoraturik, gainera, aurpegi zuritxo hura horitzen hasi zenean eta begiak norabiderik gabe begirakune hila ikusten hasi zitzaionean... Arestian hasi zen Porfirioaren etengabeko hari hura moztu nahian, berea sartzeko, eta jaso ere egin zuen besoa epailariak, eskuz, haztamuka, aurkitu zuen tanpoia atzaparretan mailu gisa hartuta beherakada kolpatzera zihoala... baina Porfiriok "epa!", esan zion nagusiki potestate handiz: "ez dut amaitu..." eta juezari beso hori emeki, korderik gabe, heldu zen mahai gainera, hila, bidean tximistak jo eta errea geratu bailitzan..., eta orduan, orduan!, bururatu zitzaion Porfiriori sala beteari bere garaipen nagusi hura erakusteko begiraldi bat botatzea... eta ez zegoen inor!!

Isildu egin zen, lehenengotik...

Kirats hura ez zen horregatik joan, horrelakoetan berezko izerdi purrina isurtzen bait zuen, erdi intzentsu eta polbora, erdi gorpu...

Urdaileko min zuri hura sentitu izan zuen lehen ere, eta orain jaisten hasi zaio berriz, zangoetara... Jueza ez da mugitu, tiro baten beldur-zain balego bezala geratu da Porfirioaren eskuineko eskuari begira... Biak elkarri begira geratu dira, eta epaitua eseri egin da, halabeharrez...

"Hitzegin duzu...", esaten dio ahots-hari xume hark belarrietara, horientzat bakarrik, diskretuki, ahozkatu balu bezala, nahiz eta leihotik behera jendetzarenak ere adi egon. "Egin duzu zeurea, bota diezu herriko txakur amorratu guztiei aspaldi zain zeuden janaria, Porfirio Urzainki, "Sakristaua"... Pozik zaude..."

Porfiriok, ezer ez, gorputzeko dardar hau, eta hotz sentitzen hasi da zangoetatik gorantz, arraultzetatik barrena, urdail-sabeleraino..., eta ez da leihotik datorren haize garbi-freskoa.

"Utz iezadazu orain niri zerbait esaten", erasotzen dio juezak: "Arrazoi duzu, nik kamioi hartan ibilia nauzu, halabeharrez, neure burua salbatzeko. Baina hil, zeuk bota zenituen gizonok zure "Sakristaua"ren partida beldurgarriarekin; sakristaua, Felix bera ere, zeuk... kasu honetan bakarrik zinen, eta sakristian bertan bota zenuen "Smith" famatu harekin, eta don Jenaro apaizak horren erantzukia egitera ausartu zitzaizulako, hau ere gorriaren mantxarekin zikindu zenuen, eta ez egun hartan, baina laster, desagertu egin zen, inork ez daki nondik nora; baina aurretik, sakristaua hil zenuen goiz hartan, herria elizan meza entzun zain zegoenez gero, zeuk izan zenuen zapokeria

handia don Jenaro apaiza aurretik hartu eta aldarera ateratzeko, zeu atzetik, eta meza zeuk, zerorrek, laguntzeko kuraia edo, dena dela ere, izan zenuen... Egia hutsa da gerran gizakiak hiltzeko debekaldirik ez dagoela batzutan, baina, halere, gerra zikinak ere badituela lege batzu, bakoitzak bere kontzientziaz beste, eta zeuk hau han galdu zenuenez gero, denak dira sobra zuretzat, untxiena gertatu den bezalaxe... "Don Kastok ikusi du bigarren aldiz epaituaren eskuineko esku zuria galtzetako patrika gainean jartzen... "Baina ni neu ez naiz kontzientziaren epaile", jarraitu du, instant bateko isilunearen hurren, "gizonaren legearena baizik... eta aski zaila egiten zait hau ezartzea; baina beteko dut gaurko neure eginbeharra, lehen tiroz botatzen ez banauzu behintzat... Sona handiko tiroa, Porfirio!... Baina ez nindukezu isilduko... Hala, herriak geroztik "Sakristaua" egin zintuen, eta zure mende daukazu, zure beldurrez bizi da... beharbada gaur arte".

"Ez zaizu hau entzutea gogoko, ezta!?!... Denak esan ditzagun bada..."

Don Kastoren ahotsa bere forma eta kolorea hartuz joan da.

"Harrez gero gauza asko pasa da. Sakristau zenaren anaia da gaur Gurpegiko parrokiaren sakristau, badakizu zeuk familiako arazoa izan dela beti hemengo sakristautza; zeuk eta neuk, hemen jaioak garenez, badakigu horrenbeste... Orain hemen gaude biok herri guztiaren ahotan.

"Zirkoa nahi zenuen... hara zirkoa martxan jarria!..."

"Ez, ez zaitetz orain damutu, alferrikako luxua izango litzateke eta zuretzat; neri beldurra ikusi didazu larruan, ba modu berean ari natzaizu zure kartoizko aurpegi hori ikusten. Odola joan zaizu... ixuri gabe ere joaten baita, ez dakit nora... Neuk esan nizan orain hamar egun, hementxe bertan, pakean joateko, eta kito, hemen ez zela ezerpasako... Pasiak pasa!... Orain jaso itzazu zeuk gaur herriaren aurrean botatako hitzak, egizu pardeltxo bat beraiekin eta harri handi batekin jauzi bat egizu treneko zubitik Leizaran ibaira..."

Don Kasto altxa da lehenik eta presarik gabe irten egin da.

Luze geratu da oraindik Porfirio, mugitzeko kemenik gabe. Irten nahi izan duenean, atea itxita aurkitu du. Ez du leihotik deika hasteko kuraiarik izan, eta maliziaz izkin batetik ikusmira barregarrian jarri denean, herri osoa kalean eserita, leihoetatik irten da, zuhaitzen kontra zutik etzanda... denak bere zain ikusi ditu.

Iluntzean heldu zen kotxe beltz bat poliziekin.

Ez zen hurrengo egunetan "Sakristau"ren berririk izan. Juezak zerbait esan zezakeen, beharbada; herria horren zain zegoen, baina bere biziera diskretua oraindik bakartiagoa egin zen, eta bere lanaz kanpo ez zuen inorekin hitzegiten. Epaitegira sartzeko eta bertatik irteteko orduak zeharo aldatu zituen; gauez askotan argia piztua uzten zuen, atzekaldetik irteten ikusi bazuten ere; egunak egiten zituen kanpoan. Ezagutzen zituen, nonbait, Porfirioaren mainak, malizia zaharrak.

Herri osoa, zer gerta zain.

Haur batek esan zuen goizaldean esnea kamionetara zekarrela, Porfirio bere etxera sartzen ikusi zuela; baina harritzekoa zen, etxean ez ke eta ez argi, eta mahastia hilik bezala zegoen. Bere buruaz beste egin ote zuen ere zabaldu zen herrian. Zaharrenak ziren horrelakorik sinisten ez zutenak, eta hauen artean don Kasto bera, ezagutzen baitzuen "Sakristaua"ren besteenganako zuen grina, horiek hiltzea ez zitzaion ezer

kostako, don Kasto bera akabatzea gutxiago!, baina bere buruaz beste egiteko behar zen kemen apur bat eta adore hau falta zitzaion, ezagutzen zuen...

Beraz, kontuz!!

Bitartean, asteak eta asteak tiro baten zain zegoela heldu zitzaion juezari alkatea irriparrez:

"Don Kasto..."Sakristaua" ikusi dut Marbellan eguzkia hartzen".

Lapurreta

Bakarrik dago, askotan gertatzen zaion legez; orain, argi berotan gozo-gozo; bi edifizioen tartetik udazkeneko arratsaldetan eguzkiak aurkitzen du aulki honetarainoko bidea, eta Benitatxo bere amaren sabelean bezain gozatsu sentitzen da, loak hartu ez hartu, kuluskan. Baina mundu honetako pakea derrigorrez laburra izaki, eta nabaritzen du dagoeneko konpainia txarraren alarma; honek ernegatzen du, eta "a!...", esaten du, beso eta espantu. Ez dio inork erantzun, baina somatzen du makur bezain emeki hurbiltzen ari zaiona; etorberriak ipurdizko arraunean segitzen du geldi-geldi, eta hor iratxekitzen zaio azkenean nahi duen txis-muki kiratsa.

"A!...", purruts egin dio sorbalda grisaren astinaldi batez.

Sorkina, kikilduta, mutu, bere ondoan; hertsiago ezin!

Hor daude biak umetxo beldurtien gisa, argitako isilpe gozoak paketatu balitu bezala, sinpatiaz, noski, eta aulkian lehen eseri denak belarri barrenean hartu du, hats eta guzti, haurren artekoa den sarbidetako bat:

"Gaileta bat nahi al duzu?" Jertse grisak, keinuaz, ezetz!

"Sagarra?...", berriz, loredun soinekoaz jantzita etorri denak.

"Nondik lapurtu duzu sagarra?", galdetu dio begiratu gabe, begiak lo, eta suspertu da bapatean: "E!... ea sagarra!".

Biak geldi, eta lozorroan berriz, antza, epel-isilak inguraturik, eta orain sagarraren tentazioak sortu duen zurrunbiloan.

"Eman ba, sagarra...", luzatu du mekanikoki beso grisa.

"Ez dut; sagarriz ez, gaileta bai, tori...", eta bizkarrean daraman jertse gorriko sakeletik atera eta zain dagoen esku-goporraren hutsunean uzten du, eta laster, kris-kras, jaten ari dira biak; entzuten da kriskrasa, eta aurrenik heldu denak betaurrekoaren kristal lodietatik begira esan dio belarrira:

"Lapurreta egin dute bart, badakizu?..."

"Ez", dagoeneko gailetarik gabe, eta logale.

"Ba, lapurretan aritu dira..."

"Eta niri zer?", dio gazteenak, jertse gorria bizkarretik eskuz hartu duen bitartean, bero egiten baitu.

"Ba, horixe..."

"Beno".

Egonean, eta elkarri lotuta, bi emakumeak izerditzen dira; helere ez dira mugitzen; isiltasuna besterik ez da entzuten; orain euli baten hega xumea, zizare luze haritxo-ikustezina bilakatu balitz legez; auzoan maitasunez kaiolatua duten kanarioaren kantua hasten den arte, eta, orduan, aspaldi zain dagoenak koloregabeko ahotsarekin galdeketari ekiten dioalargunaren kontra, haurrak izan ohi ez duen maliziaren azpitik egiten du itauna:

"Non ari dira, ba, lapurretan?..."

"Zer?"

"Lapurreta, non?"

"A!, hor..., ez al dituzu tiroak entzun?"

"Tiroak?..."

"Bai, tiroak!... lo zaude, neska", esaten dio amona alargunak purrestadan.

"Neuk ez dizut entzun, behintzat..."

"Ba, gorra zaude".

"Lo egon naizelako".

"Ez dakit, baina mundu guztiak ihesari ematen dio espantuz!, eta neu hona bildu naiz... Behiak, txekor eta guzti; ardiak, denak, eraman dituzte zaldien aurrean, tiroka! Jesus!!..."

"Gezurra!", bigarren etorri dena zeharo ernatu da, eta betaurreko kristal lodietatik zehar begira daukan alargunari desafioka begira gelditu zaio.

"A!, ba, gezurra bada, hobe zuretzat, zure baserrikoak ziren denak eta..."

Emakume gaztea zutitu egin da, jertse gorria eskuan; oraindik eserita dagoena baino askoz gazteagoa eta handi-zabalagoa da; lorezko soinekoa eskuz astintzen jarri da, zimurrak kentzeko: "Gezurra da!", dio berriz, baina beste zerbaitez pentsatzen ari den entonazio inozoarekin, eta hala ere begiz ingurua paseiatzen du, laguntza hila, urduri orain; bapatean, "gezurra da!, gezurra!..., Ximun", deitzen dio zuhaizpean joan etorrian dabilen gizonari, "lapurretan ari direla dio Benitak, gezurra da, ezta?"

Ximun hurbiltzen zaie herrenka, bere makilarekin, eta ez du lapurretaren berririk, baina galdetzen badaki: ea nongoa den lapurreta eta noizkoa; ez da Benitaz gehiegi fidatzen; urteak ditu hemen, eta ezagutzen du. Orain alargunak ez du hitzegin nahi, zergatik ez du erantzuten?; erantzun beharrean, bere soineko txuribeltzari ikusten ez diren hariak edo ileak kentzen ari da ardura handiz, ez dio esaten zaionari jaramonik egiten...; "Esan zan, ba, neska, zein lapurretaz ari haiz? Hi ere joana hago!...", gero garrasika deitu dion neska berriari hitzegin nahi izan dio, baina joana da... han doa herrenaren begietan bere soineko loreduna zirkinka, gerria estu, ipurtmamiak mugikor-ederrak...; burua du arin horrek ere... eta badoa Ximun dagoeneko ezinezkoak dituen gizon-lanetaz pentsakor... "Hori gazteago direnentzat uztea hobe..." Baina lapurreta hori... Benitaren asmaketa bat, gaisoa... zaharra!; puzkerrak ere horiak botatzen ditu, eta pentsa... Egoitzan zer ostuko dute ba! Mojaren bat ez bada; xuri-xuriak, hori bai..., eta kapitaltxoan urrezko kopoa!... Urrezkoa den gauza bakarra... Baina, eta Ximun berari osaba indianoak utzi zion erlojua...

Erlojua!... "Mekaben, urre kolorea duen edozer nork lapur dezakeen bazekiak ba nik..." eta sartzen da Etxe Handian, igotzen ditu banaka eskailerak eta korridore luze-zabaletik doala, geratu eta irekitzen du ate bat, sartzen da eta zuzenki armairu txikian miaka hasten da... Ez dago!, falta zaio!, egia da, ostu diote erlojua..., eta hor dator berriz goitik behera, eskailerak banaka eta lasterka. heltzen da eguzkiak hartua dagoen aulkira eta galdetzen dio alargun ile zuriari; gainontzekoa besapean gorderik baitauka, bi oinak aulkira igo eta bi besoekin zangoak besarkatzen, haur batek babes bita egiten duen modura, animalietan ostruken gisa pertsonak ere batzutan egiten duguna, eta galdetzen dio, ea nork egin dion lapurreta; amona ez da mugitzen, eta Ximun, "mekaben", txapela burutik bere esku handiaz hartu eta botatzen du lurrera, belar gozora, eta jasotzen du

berriz eta jazten berarekin kaskazuria, eguzkirik ez baitu ikusi ere egin nahi!... Badoa etxerantz berriz, lehen baino mantsoago, baina arduratsu eta pentsakor, burua arin, pizkor: "Bazekiat nor haizen, alu hori..., lehen ere egina haiz horrelakorik, han-hemen; txikitatik hasi hintzen Patasen trenbideko muxikak ostutzen, Amadeo txurreroari futbolisten karameluei irudiak mainatsu ostu eta albuntxoak betetzeko!... noski!, lapur alena...", eta areto nagusiko sarreran eskuinera dagoen besaulkian eseri, txapela kopetaurrean jeitsi, kanalean, bi eskuak makilaren buruan, kokotsa orain gainetik eta zain-zain..., ezkerreko begi lainotua lurrera begira, lo balego bezala; nahikoa baita Anttonen botatzarrak ikustea; eta goardiatzen dagoen bitartean pasatzen du filme zahar hura, biak gaztexeagoak zirenekoa, Antton eta Ximun bizilagunak Axentxioneko sapaian; aurrez-aurre; Ximun lanean eta Antton etxeak zuritzen eta abar... hor ere eginak baititu horrek... halaxe erosi huen hik txirrinda famatu hura; nondik?, to!... ni lanera oinez eta "Orbea" bizikleta berde hartan, ris-ras, patxadan, niri begiratu ere egin gabe, lapur alena!, eta orain zer egingo niri eta, erlojua ostu!... Nire osabak hil aurretik eman zidan erloju ederra! ...Noski, arratsaldeko pasioan nenbilen bitartean heuk maratilarekin ixten den atetxoa erraz ireki, eta hantxe bertan nire erloju ederra hire atzaparren zain, lapurtu! eta... agur! Non ote duk gordea!? Hara, neuk ez diat hire gelara sartzeko kuraiarik sekula izan; pobrea, baina ondo ikasia!; ez hi bezala... Gainera, beharbada dagoeneko saldu ere egingo huen alu horrek, edo ez diat oraindik denborarik eman, eta hor duk alu horrek, mukiz betetako sudurzapi urdin-zikinean, hi, sudurluze!... Hara!, botatzarrak hemen..., hori kaka koloreko tanketak, zanpa-zanpa, ikusi baino lehen entzutekoak!... eta ezer esan gabe pasa da bere jabea nire ondotik, ikusi ez banindu bezala... eta eseri da betiko mahaietan eta betiko tokian, leihotik sartzen den argia bizkargainetik datorkiola, bere keinuak kontrargian ezkutatzeko!, to!, eta ni neu orain!... ikusi nauk!, alu horrek, eta besoa jaso ez dit hada!, "hemen niok" esanez bezala. eta neuk ere zerbait egin behar, patxadan baizik, eta neuk ere egin diot eskuz keinua, engainatu nauela pentsa dezan. Ni neu zain geratzen naiz, beste lagunak etorri eta eseritzen diren arte; hasten dira noizpait kartak ematen, eta ni gehiago geldi ezin egon eta hor noa, "tak, tak", nire makila, kokatzen naiz, zutik, Antton eta Manueltxoren erdian, bi kontrarioen kartak ikusteko moduan... "kaixo" eta "kaixo..."; bai, egon hadi!...; eta ari dira jokoan eta Antton hasten da galtzen, nik, komaidios, xox baten kulparik gabe, hala behar, eta Antton amorratzen dudana arte...

"Hi, Ximun, zergatik ez haiz beste nonbait jartzen?"

"Hemen ondo nagoelako", eta kalma, baretu hadi, Ximun..., ni hementxe, batera eta bestera begira, irriparez; ezagutzen baititut nik gizontzat honen arkakusuak!... gorritxoak, hain xuxen!...

"Hi", dio Anttonen parejak orain, "hori keinuak egiten ari duk, e!..."

Antton, isilik, amorrus ileak ere tentetzen hasiak, baina geldi, kieto-parau; Ximun, isilik, zutik eta irriparez hilda geratu bailitzan legez. Anttonen pareja, Luisen muturrezur beltza, txinpartetan, eta beste biak, artale lehorrak irabazten ari direnez gero, isilik eta serio... Ximun ematen ari den meza entzuten baleude bezain adeitsu. Ximunek badaki Anttonen eltzea, gilborra gora eta behera, lehertzeko prest dagoela, eta... purrust!!..., kartak aidean, aulki bat ere bai, Anttonena bera, eta honek beso-behatz lodi-luze-zakar harekin atea seinatzen: "alde hemendik!!", esan dionean, Ximunek

Antton makilaz buru handi hura jo... Berebizikoa armatu da, mojak bitarteko eta guzti!!...

Okerrena zera izan da, Ximunek Anttoni denen aurrean "lapurra" deitu diola.

Baina oraindik okerragoa, Anttonek Ximuni bere behatz erakusle gorri-beltz harekin Paradisotik infernuko sutara botaz bezala esan diona: "Hik ez duk sekula santan poltsikoko erlojurik ikusi ere egin!, eta urrezkoa gutxiago!... Hire osaba xexteroak zer erloju izango zian ba hiri emateko, goseak hil huen eta!

Egoitzako giroa sutan jarri du burruka honek.

Afal orduan, Ximun falta da jangelan; aulkia, hutsa!; Anttonek berak ere zeharka begiratzen du noizbehinka; ikaratu egin zaizkio laurogei urteak, joan den San Markos egunean beteak... Eskua eta goilarea, biak dardarka, gero eta nabarmenago; hala, mahai guztietako begi izutuen aurrean uzten du mahaia eta bere hamasei lekoako botatzarrek "zanpa, zanpa" alde egin dute. Mojen burua, Sor Alberta, zain-zain zegoen, eta atzetik joan zaio; Antton kanpoko aulkian eseri eta nigarrari eman dionean, moja hurbildu zaio; ez da gaztea, ezta zaharra ere, baina lan asko egina eta zaharren artean asko ikusia. Berehala konturatu da Anttonek ez duela erlojurik ostu; ez Ximuni, ez inori. Lasaitzen du gizona, eta jangelara itzultzen da. Han dago Ximun beste moja baten babesean, mahai bakarti batetan, haurtxo baten gisa aginduz jaten, eta afaritxoa amaitzen uzten dio; bakarrik geratu den arte; hala, denak oheratzera joan direnean, Sor Albertak egindio beste mojari errebeloa, eta Ximunekin igotzen da, biak sartzen dira gelara, eta atea itxi ondoren esaten dio mojak:

"Ximun, eseri zaitez...", ohean eserarazten du, makila betiko txokoan utzi, hau dena maitasun handiz egina, noski; eta esaten dio gero: "Minduta zaude, eta baduzu zergatik hartu min, zure osaba ukitu dizute eta, ez da hala?"/"Bai", esan dio Ximunek apalki, "eta Antton ez da inor nire osaba iraintzeko, eta denen aurrean... Neuk esango nituzke gauzak Anttonen familiaz... gauza franko, e!...", eta mojak uzten dio barruan duena esaten; adinekoak aise hustutzen dira honelakoetan; entzutea da aski; mojak badaki hau ondo, eta baietz, ea zergatik uste duen Anttonek erlojua kendu diola.../Ba, lapur bat delako, beti izan den bezala.../ Baina ea nola jakin duen Ximunek kasu honetan hori./Ikusi egin duela.../Ikusi?, eta zergatik ez duen berehalaesan, lapurreta salatu!/Ez daki zergatik ez duen hori egin.../Ba, jakin behar luke; nolakoa da erlojua?/Ximun isilik geratu da.../Nolakoa den, dio mojak berriz pausatuki.../Eta Ximunek: "Txupinaren poltsikoan eramatekoa!"/"Egia al da urrezkoa dela?"/Zalantzan Ximun, eta moja, zain-zain.../"Ez", aitortzen du azkenik, "baina zilarrezkoa bai!, osabak emana, eta osaba Joxemanuelek ez zuen gezurrik esaten!", bizitu da zahartxo.../"Noski", lasaitu du mojak, "Zergatik ez zenidan gordetzeko niri eman orain ia lau urte etorri zinenean?"/Ez daki Ximunek zergatik, ez daki.../"Ez zaitut nik erlojuaz hornituta ikusi... hain apainak dira txupinean kate eta guzti eramateko erlojuak"/"Ez da hala?!..." galdetzen du orain, begiak argitan Ximunek/"Oso apainak, Ximun, eta nola ez dizut jai handietan jazten duzun traje marroian hori inoiz ikusi?..."/Ximunek ez daki, lotsatu da..., "Anttonek ikusi zuen bada!", erasotzen du/"Beno, baina esan non zenuen gordeta!"/Ximunek ez daki.../"Zeuk ez badakizu, nork jakingo du bada?..."

Ximun zutitzen da, eta irtengo litzateke gelatik pozik, baina mojak buruz-buru dauka erantzunaren zain. "Erakutsiko al didazu erlojuaren gordelekua?"

Kokotsarekin seinalatu du armairutxoa; mojak berak ireki dio, esanez: "Ea, non?..."/Ximunek ez daki zer egin, baina hurbiltzen da azkenean, ukitzen du eskuineko eskuaz dardartsu bere arropatxua, kajatxo batean sartzen du eskua, baina ez dago ziur...

"Ez ote duzu, gero, amets egin?", galdetzen dio goxo-goxo Sor Albertak, "gertatzen baita horrelakorik ere, badakizu..."

"Bai..." Eta Ximun kuzkurto egin da, txikitu egin da, laburtu, murriztu... aurpegian irteten hasia den izerdiaren bustiak gorputz osoa hartu balio legez; zutik eta begiak irekiak dituela hilda geratu balitz bezala; galtzak eta txamarra handi-zabalak geratu zaizkio bapatean, penagarria oso... Mojak besarkatzen du aitona, eror ez dadin, halako traturik bere buruari eman ez diezaion, eta ohean aurkitu dio euskarria, eta esan:

"Amets egin duzu, gajo horrek, ametsak oso dira engainagarriak".

"Baina niri Maritxuk esan dit..."

"Etorri berriak?..."

"Bai; haretzek esan dit"./"Zer esan dizu?..."/"Ba, lapurreta egin dutela egoitzan, eta den-dena eramanez dutela... nire erlojua ere bai!..., horixe izan da, hark ikusi du!"/"Nork?, Maritxuk?"/"Bai, bai, hark esan dit dena bazkalondoan!"

Eta hara Ximun osorik lasaitu; orain egin zaio argia buruan!... eta haurtxo baten aurpegian bezala lehertu zaio barretxo urduria... "horixe izan da!", eta txaloka ere hasi da, aurkitu du iturria!...

Gero, bapatean, lotsatu bada ere...

Mojak, oheratzeko prestatzen dagoela utzi du.

Gelatik irten eta bigarren solairuko gela batetan jotzen du atea, eta sartzen da, dena batera, emakumezkoen kasuan egin ohi duen moduan. Maritxu oraindik hortzak garbitzen ari da; neska zaharraren begi handi-ikaratiak beti harriturik baleude bezala begiratzen dute, eta adi dirudi...; Sor Alberta betiko irriparrekin hurbiltzen zaio: "Amari ezazu hortz garbiketa, eta zatoz", esan dio, eta bitartean moja ohe ondoan dagoen mahaitxoko aulkian eseri da. Laster du neska aurrean, irribarrez beti, linboan. "Zeuk zer esan diozu Ximuni gaur arratsaldean?". Ez daki, ez zaio gogoratzen. "Egoitzan egin duten lapurreta batez ez al duzu gaur ezer entzun?..."/"Bai, zerbait...", bila dabil buru barruan, bere begi handiak gorantz zeharo tokiz aldatuta, min batek jo balu bezala; beste norbait izutuko litzateke, baina moja ez, eta zain, neska zaharrak bere buruan zer aurkitzen duen zain...; eta... "ez dakit, ahaztu egin zait, baina lapurretaz hitzegin didana Benita izan da, egoitza dena hustu dutela, behiak, denak eramanez dituztela, eta nire baserriko gauza guztiak ere bai, bai!, hauxe izan da!..." "Eta zuk zer egin duzu?"/"Ni hona etorri naiz berehala, ea egia zen ikustera, eta ez dut tirorik entzun, ez behirik eta ezer ikusi, nire baserriko animaliak ostu dituztela, horrek eman dit pena..."/"Zu baserrikoa al zara, bada?"/"Nire amatxoren baserrira askotan joaten ginen aitona ikustera, eta bazituzten behiak eta ardiak ere... eta orain dena galdu dugu!... Benitak esan dit..."

Maritxu ohera erazi eta hor jaisten da lehen sorailura, eta hemengo gela batera sartzen; argia itzalita dago, bizten du, eta han dago oheratuta: betaurreko kristal lodirik gabe, begi urdin-xuriek itzaliak dirudite sapaira begira: "Oi, ikaratu nauzu, Sor", esan dio moja somatu duenean.

"Ikaratu, zergatik gero?"

"Ez dakit, etxe hau dena sorginduta dago, eta bart gaueko lapurretaz gero..." "Zer lapurretaz, gero?", eta esku biguna pasatzen dio kopetatik, "hemen ez dago lapurretarik".

"Ez?, a!, eta tiroak eta beste?!, Jesus!!..."

"Benita, polita, egizu lo lasai".

"Bai, erraza da hori esatea...", eta mojak badaki entzuteko ordua dela, "... telemisio horretako jendilajea auzora etorri zenez gero, ez dugu pakerik izan... Lehen laguntzen genien, neska koskorra nintzenean, sosarekin, eta txino, indio eta guztientzat; baina orain hemen dira noiznahi... eta beti gerra, elkarri tiroka; eta lapurretan!; ez dakit neuk geure soro eta ikuiluetara sartzen zergatik uzten diegun...; halaxe pasatzen dira gero gauzak; bart ere sartu ziren besteak, kontrarioak, tiroka, eta eraman zituzten genituen behiak, txekorrak, oiloak, denak!... Nik neuk esan nion aspaldi berorri Alkateari esan behar zaiola hemen gertatzen ari dena!..."

Ilunbe handiko lan beltzak

Ilunbe honen hasieran gehiegi fidatu zen asko hil zuten lotsagabe eguargiz, eta orduan jaiotako asko hil da geroztik zahartzaroan argirik ikusi gabe. Bitarte luze ilun hau itsuentzat egun luze ederra bilakatzearen engainu-maina egin zuen gizon armatuak mirari gisa, mirakulu hau ikustera olatuak bezala etorrarazi zituzten turistek eta beroriek izan ziren gure eguzki paregabeaz munduan zehar propagandarik handiena egin zutenak.

Trolazko lukainka honen zabalkundea eratu zuen frakadun kruzadoa ministro egin zuten.

Fantasiako gertakari honen prezio beltza, itsukeria izan zen.

Itsukeria honetan gure herriko gizonak desagertarazteko bide zahar asko erabili zuen mirarigileak: espetxetik "en libertad" txartelarekin libre irtendako batzu gorpu bilakatzen hasi ziren hazterretan. Beste honenbeste baino gehiago zuzenki afusilatu edo urte askotako gartzela zulotan zeharo hondatu zituzten. Dena diskretuki, alafede!, ilunbetan. Herri honen hitza ere modu berean ezabarazi zuten; orduan ez zen lehen bezala Elizako babeslekuetan aurkitzen, baina ezta inor agerian kexatzen ere; apaiz asko atzerriratu zuten, batzu oso urrutira, penitentzia gisa, indulgentziaz aberats zitezen: eta hildakoek ere euskaraz gehiago egiterik ez zutenez gero, erderarentzat dena ganantzia bihurtu zen... Hala, uholde honek ilunbe gorrian ito gintuen behin betiko, amen. Entzutea bagenuen aspaldiko berrogei egun eta berrogei gauez aritutako euriak erakarri zuen uholde unibertsalaz, baina honek Noe-k pilotatutako Arka bat bazuen, eta geuk ez genuen berrogei urteko gauez nor nor zen jakiteko brujulatxo bat ere, eta gu itotzen gintuen iluna argirzeko zela uste izan genuen Izipiritu Santua gezurrezko eguzkia hartzen geratu zenez gero, naturako eta naturaz gaindiko seinale guztiak nahas-okertu egin zitzaizkigun: zerurantz seinalaztatzeko fletxak zimeldu eta behera begira jarri ziren, infernukoak fresko asko ikusten genituen irudimenez zerura begira paliopean; egia, arriskutsu egin zen: esatea espresuki debekatua zegoenez gero, gezur bedekintua egin zen nagusi komunikabide fabriketan, eta, hala, gezurrak agintzen zuena egiten saribide gertatzen hasi zen derrepente.

Kontzientzia bera ere norabidean galduta.

Hau izan zen saioa, andoaindarra zen ibaialdeko Pellok norberaren kontzientziabarruan zegoena ikusteko aparatu txiki bat asmatzeari eman ziona, tisikoen birrikak ikusteko eginak diren erretratugailu beltz horietako baten antzeko zerbait. Zoritxarrez, noraezko azerikeria hark buru asko nahasi zuen betirako, eta berekin eraman zuen Pellok inbento ederraren egarria, eta ez gizonak bere iturburuko sustantzian bertan duen lur gozoaren deskantsura, baizik eta porlanezko armairu traste handi baten kaxoi eiharrera.

Gau handi haren azkena gertu zegoela esaten hasi zitzaizkigunerako etsipenak jota geunden; halaxe, oraindik barruan nuen negu ilun batek eraman ninduen zamarrote lodia-jantzita ibaiertzeko espigoira. Arrain bila edo kainaberaz jantzita etortzen den asko somatu nuen; suertatzen dena baita gure herriko ibai hau, ibai izatez gainera, muga

dela, ur tira hau adakadabra historiko baten eraginez mugarri busti eta mugikor bihurtu zitzaigula. Harri handiz eraikitako espigoian ibaia zaintzen zeudela iruditu zitzaizkidan kainaberak hizketan ari ziren, hitz-apal, hor aspaldidanik desagertuak diren izokiak ez izutzeko ahots-galga aproposa, eta neu ere zaratarik gabe eseri nintzen harri gainean; behin batean goardiazibilak ilunbe gorrian nindoala, linternargi baten fokoak aurpegiratzerakoan bertan: "¡a donde va!", esan zidan inguru berean, hain xuxen.

Hortik berritu zidaten fitxa zaharra.

Beteko dira bi urte Sanextebanetan.

Nik neuk ez nuen orain espigoira heldu besterik egin, eta kieto!, haientzat harri gerta nadin.

Hamarren bat minutu barru heldu zen argi ausart eta lotsagabeak gidatuta kotxe bat, eta ikusi ahal izan nituen neuk gizonak niri begira, neuk kotxearekin zerikusirik banu bezala, eta bitartean neuk ere zenbatu nituen kuriosoak, bi azken kainabera, eta bana beste lauetan!... Bazirudien argi honen zain zeudela bakoitzak bere txirrikaz amu gorria ("no pican, pero comen") jasotzeko; bitartean, ilunbe hotz eta hezean nabari genuen etorri berria zen kotxea zahartxoia zela, pistoiak kolpe baldar eta desegokiak entzun baikenituen, eta itzaltzerakoan, berriz, zaratatsu eta dorpe, dardarti, ito zen. Etorri berriak argiak itzali zituen berehala; kotxetik (ateak: "pan") jaitsi zen norbait; ehun bat metrotara ipurtargi bat biztu zen bezain laster somatu nituen egonezinak: arrantzaleen mugimendu isil batetik, gure atzean, hondartzertzean, kainaberaren zatiak elkartzeko "tak"ak, eta gero txirrikaren hotsa, isilune gaixoti hartan; diskretasunean; gero gizon bakarra nire eskuinetik hurbildu zitzaidanean ahalegindu zen tentuan, eta "ola" antzeko zerbait esan zuen, besteengan eraginik izan ez zuenez gero, neronek erantzun behar izan nion "kaixo" giro hartako ahots apalez.

Hara! arrainik harrapatzea lortzen ez duten sei kainabera eta nirekin zortzi gizon, lan isilean muga den ibaia zaintzen.

Gehitxo ere bazen.

Isilunea hazi, handitu, egin zen oraindik; Hendaiako hondartzara urezko gurrupilak zurrunbilatsu hautsiak iristerakoan kontatzen zuten marmar luzeen historia entzuten hasi nintzen. Noizbehinkako hotzak eragindako txalo eta lur zanpaketa... Tarteka, amu hutsa jasotzeko txirrikada luzea, gero kainabera astintzen deneko haize fina eta putzura bezala itsasoan amu eta zizare edo txirlek egiten duten "putz"a... Eta, honela bapateko "a", eta azkena heldu denak indarrez kainabera igo eta txirrikaren hots fina irten zaio... biztu dira bizpahiru eskuargi; bat azken puntakoa, kotxeetan eramaten diren handi horietakoa; eta hemen biltzen dira bost gizon nire aurrean, nirekin sei, eta ikusten diogu seiok bisera z jantzia deskubritzen ari garen portugaldarrari bere esku handi-ilunetan bi kilotik gorako urraburu eder bat... entzuten diogu denek inbiriaz arrain biziak gizonaren eskuetatik libratzeko egiten dituen ahaleginak... eta hemen "dorada" eder batek... ¡por lo menos tres kilos!..." batera, eta laster heldu den besteak: "ni dos tiene..." portugesearen artezia gutxietsi nahian; hau isilik, bibote azpian arrabete zabaleko ahoaz, eta han doa kotxerantz..., eta oraingo marmar eta txirrika hotsaren gainetik somatu dut neuk, gertuen nagoelako, iratzarri duela norbait, haurra dela lehendabizi, aitaren gorazarrea dirudien zerbait esaten dio bere amari, azkenean honek ere zoriontzen baitu arrantzale iaioa hitz lauz, noski, jende apalari dagokion moduan...

Eta noiz itzuliko den isilpe berrian zain gaudela, hara nola "foa!" baten sua biztu duten han atzean, gasolinaz nonbait, kotxearen ondoan; begiratzen dut atzerantz, eta irri eta barre maltzur batzu lehertzen dira... "¡va a volar su coche!..."

Euskaraz tutik ere ez.

Beste muturreko kainabera zaintzen dauden bi gizonen kanpo, hasi dira bertoraino barre-isekaz markatutako joan-etorriak egiten... Mezulari hauek diotenez, egurrez egindako sutan hiru burnitxorekin osatutako burruntzian jarri du postugesak arraina erretzen.

Laster zabaldu da usain gozoa.

Orain, su horren garrek zabaltzen duten argiarekin, ikusten ditut gizonen ziluetak, adi, bakoitza berean: txirriaren "xi..." hari azkarra eta amu jantzi eta beraunak itsasora erortzen direneko "plast"ak, eta gero bilketako txirri laburragoa; batzutan bi batera..., eta baita beren artean hizketan ere, batez ere portugaldarrek sortu duten arazoaz... "Debe ser un portugues que es tambien gitano!..." "Lo que a ese jodido le falta es acaso el permiso de pescar aquí, e?!..." "Y va a pegar fuego al coche con esa fogata tan cerca de la gasolina!..."

Azken bi ohar pozoindu hauek izan daitezke maltzurak...

Hala ere segitzen du bakoitzak bere kainaberaren atzean; arrainik harrapatzen ez denean, txistez kontentatu behar!...

Honez gero hamaikak izango dira, eta ateri, baina zerua beltz, behe-lainotsu; mundu itxi, heze, hotz itsas bazterrean, eta harri handien azpitik ura bizi-bizi, "plis-plast", haizerik ez badabil ere...

Beldur naiz gangailu alfer hauetako batek portugesari egin diezaiokeen kalteaz, eta nire tokia isilik utzi, harri gaintetik zuhaitzaren atzeko hondartzaldera beheakada labur bat egin eta han daude senar-emazteak, Peugeot zahartxo eta urdinaren babesean, seiren bat urteko mutiko batekin urraburu ederra eskuz jaten... Hitzegin ere gabe, bakoitza bere burusia bizkarrean eta suaren bero-gozoaren argitan; gizonak botila bete ardo ere badu eskuhar.

Ikaratu egin ditut!... Esan diet, ezetz, ni herritar bat naizela, oheratu aurretik denborapasa, hotza eta guzti, espigoitik itzuli bat egiteko ohitura dudala... baina esan nahi niela..., gazteleraz ari nintzaien, baina abiadan konturatu naiz ez didatela ulertzen; nik neuk portugesak ezagutzen ez dudanez, probatu dut frantsesa..., baietz, esan dit gizonak, gizontxo argal bizi bat..., eta hasi zait frantsesez hizketan, oso gaizki, neuk bezain baldar, eta berehala ekin dio, errelebuan, hobeki dakien bere emazteak, esanez, etxera zihoazela, Portalegre hiritik hurbil geratzen den herrixka batera. Espainaren muga-mugan... ba hara zihoazela familiarekin Gabonak igarotzera, urtero bezala, eta bidean deskantsu bat hartzeko Fernaok, senarrak, alegia, ohitura hau zuela, oso arrantzale iaio denez gero, bidaietan noizbehinka arrain freskoa jateko gutizia hauxe sortzen zitziola, eta emazteari, berari ere!, atsegin zitziola eta txikiari berebat, "e?...". galdetzen dio eskuz arraia jaten ari den haurtxoari, ea aitatzok harrapatutako arraina gozo dagoen; haurrak begiz eta buruz, baietz, noski!... Orduan galdetu diot gizonari, ea hemen arrantzan aritzeko baimenik baduen...; honek emazteari galdetzen dio begiez, ea ongi ulertu duen, zer baimen behar duen egin duena egiteko..., amu bat ibaira bota, arraintxo batek kosk egin zain egon eta gero harrapatzeko sorterik badago, erre eta jan...,

eta, eta!..., eta orain farrez eta hatzez botatzen du buruan eta begietako bihotzean ere ikusten diodan sententzia: litekeena dela jaten ari den arraintxo..., eta barkatzeko!, hara nondik bururatzen zaion oraintxe bertan... ez didala jaten ari diren arrainik eskeini ere egin!... nola zitekeen hau, barkatzeko, arren... eta irripartxo lotsati batez adierazten ari zait pentsatzen duena...; neuk, ezetz, eskertzen diodala bihotzez...; eta orduan, hara, hirurak jaten ari diren arraintxo bera portugaldarra izatea ere litekeena dela!...; erdi farrez segitu du oraindik hau esanez, baina agerian da sinesten duela zigorraren posibilitateaz, eta emazteari begiratzen dio niri esandakoa pasatzeko...; neuk esan diot, baietz, ulertu diodala, bai, noski!, eta arrazoi duela, baina hobe dutela, badaezpada ere, lehenbailehen!, hori jan eta sua ondo itzali, eta berriro etxeko bidea hartzea.

Eta orduan egiten dit, bere senarraren baimenarekin, bai?... baietz gizonak, eta, hara..., konfidentzia bat..., ni hain pertsona ona naizela agerian dagoenez gero..., alegia, puntu honetan geratzeko duen ohitura honek baduela arrazoi sentimental bat: orain hamar urte, Fernaok, oraindik ezkongai zela, hemendik gurutzatu zuela muga. Geroztik, legezatu duela dena Frantzian, baina eskerronez gogoratzen duela puntua, ihesaldi hark zorte ona eman ziolako!, eta hala hartu zuela harrez gero joan-etorrietan hona bisitaldi bat egiteko usadioa... Eta Jainkoaren izenean eskatzen didala!... hau inori ez esateko... Gero, senar-emazteak harrituta geratu dira izan duten ausardiaz, eta ikaratuta; ikusten ari natzaio izua begietan; berriz jarri dira, beharbada, neu polizia izatearen posibilitateaz kezkatzen..., a!, haurra loak hartu du burusia bizkarrean, masailtxoak su gozoak gorrituta, amatxoren magalean... Neuk esaten diet ezetz..., noski, baina neu honetan ari naizela agertu da... badator zuhaitzetik behera, gizon bat, hotzak jotako aurpegi berde bat, eta ez portugesari, neri, egin dizkit itaunak: zer egiten dudan gauzez Bidasoa ibaiertzean, ez al nekien hura frontera zela... Neuk, baitz, eta han bertan. herrian, bizi naizela... Gazte bizarduna hortzak hotzez dardarka, ez baitago negurako jantzita, baina lotsagabe: Erakusteko niri paperak./Erakusten diot nire NAN, nortasun agiria, eta alde batera eta bestera begira dagoen honetan etorri zait burura, beharbada hau polizia izan gabe hor arrantzan ari direnen arteko adarjoleren bat ez ote den, ni izuarazteko, edo portugaldarrak berak, eta nork daki aipatutako kotxearen sute anker hori bizteko broma ez ote den, eta nire agiria itzuli didanean neronek egiten diot galdera, aski serio (ausartu egin naiz) alegia, nik, neuk, jakin nahi dudala bera egitan polizia den, eta hark nirea arakatu duen legez, erakusteko, mesedez, bere ezaugarria... eta bota didan begiratuaz konturatu naiz egiazkoa dela!, eta, hala ere, ateratzen ari da galtzen atzeko patrikatik bere agiria eta botatzen dit aldean!... eta neuk aidean hartzeko zortea izan dut, bestela sutara zihoakeen!..., eta begiratu ondoren: "Melquiades Ruiz Gallardo" zela jakin dut, eta polizia, noski... beno, orain eskuz esku itzuli diot neuk kontuz bere agiria, konforme zela, eta ni neu portugaldarrekin hitzegitera hurbildu naizela, nola arrantza bikaina egiten ikusi dudan.../Poliziak niri galdetzen dit, ea pertsona hauek lehendik ezagutzen nituen.../Neuk, ezetz, eta nahi bazuen, galdetzeko beraiei.../Neu eserita nagoen tokian geratzeko!, eta ez hitzegiteko!: geratzeko lauok gauden bezala, laster itzuliko dela, Komandantziara eraman behar gaituela!

Ni, neu, ahurrari begira jarri naiz, gajoa...

Hemen geratu gara lauok, eta eserita nagoen tokitik ikusi dut moteltzen hasia den gure suaren argiz, polizia zuhaitz atzean geratzen, eta handik arrantzan ari direnei so

balego bezala, eta urrutixeago dagoen beste norbaiti keinu bar egiten, geldi geratzeko esanez bezala; ahalegindu naiz beste polizia dagoen puntua aurkitzen, eta etzanda ikusi dut noizbait harkaitzaren atzean, arrantzaleei so hura ere, nonbait. Eta neure buruari esan diot, nire beste hiru lagunak, haurra esnatu baita amatxoren eraginez, nire susmo txarrez begira dauden bitartean...

"Ta!!", entzun da tiroa.

Haurra da gutxien ikaratu dena, telebistako tiroak zarata haundiagoa ateratzen baitu!... Neu, bi poliziei begira jarri naiz, etzanda, eta biak igo dira espigoira, arretaz, lurrari gorputza josita, eta beste bi: "ta!, ta!!", bi toki ezberdinetik irten izan balira bezala. Polizia gehiago igo da hondartzatik!... Amak haurra harearen kontra josi du, eta bere gorputzaz babestu; haurra, isilik; gizona etzan eta biserazpitik begira dago. Ez da oraindik ahotsik entzun. Pausoak orain!, zapataz espigoian egindako azkarrak eta "jalto!", eta "plasta!..." norbait uretara, eta laster beste bat... "¡¡agarralo!!", garrasia, eta "¡raaast!..." "pla-pla-pla!...", seguraski arraunez hurbildu den eta neuk ezagutzen dudala uste dudana motor hotsa martxan, eta orduan bai, beste tiro batzu, bost, sei..., eta "¡dale al cabron!...", eta motorra abiadan..., gero eta urrunago; bota dituzte oraindik tiro batzu gehiago, baina airean bezala, bakanak; hemendik aurrerakoa espigoiko bost-sei pertsonen ahotsak eta haserreak izan dira, eta oraintxe hitzegiten duen ahots lodi bat beherantz dator gugana...

Portugaldarrak ikara bizian, niri begira!

"Bueno monten en su coche, todos... Usted tambien", niri aldarrikatua oraingo hau; pistola oraindik eskuetan darama... Goitik, espigoitik, behera hemen dator orain, ia itzalita dagoen sutzarrera, muturbeltz handi biboteduna... "¿Que vas a hacer con estos?", galdetu dio dagoeneko geuri Peugeot urdinera bueltatzen hasia den polizia gazteari."/Se vienen con nosotros a declarar..."/"Son portugueses..."/"¿Y que coño hacen aqui a estas horas? que se expliquen..."/"Bueno", esan dio handi-beltzak, "¿y este?..." "Este" hau ni naiz..., "tambien tiene que explicarse..." Sartu gaituzte, neu eta emakumea Peugeot-ean haurrarekin, atzean. hankatarrean fardeltxoak eta traste piloak, eta aurrean, txofer portugesearekin batera polizia bizarduna igo denean, itzuli zaio abiatu zen bibotedun beltza eta esaten dio:

"Tu vete con el coche patrulla, que yo me ocupo de esto..."

Eta agindua izan da, bestea kotxetik irten eta espigoirako bidea hartu baitu, isilik...

"Andando...", esan du bibotedunak txofer portugesearen ondoan eseriz, eta hemen goaz hondartza ertzetik Marinara, herrira... Atzera kristaletik begiratu dudanean ikusi dut nola bi pertsona espigoitik jeitsi eta portugesak utzitako su hondarrak itzaltzen ari diren... Gu, martxan eta hiribarruan bide bat egin eta portugesak geratzen du kotxea, polizitzarraren aginduz, jaisten da hau eta nire atzeko atea irekiz esan dit:

"Sal, entonces, nos vemos mañana, a las diez, como siempre..."

Eta gero, kanpoan, belarrira ("Se nos han ido dos, los cebos, pero al 'gordo' ya lo tenemos..."). Eta berriz ozenki: ¿Conforme?... "niri, eta berriz Peugeot xahar urdinean igo eta han doa portuges gaixoekin Irungo Komisaldegirako bidean.

Etxe inguruan utzi naute.

Ez nire etxeko ezkaratzaren aurrean, noski!

Orain badakite portugesek ni salatari bat naizela!...

Urdailetako minbizi honetan sentitzen dut... lotsa. Lotsatu egin behar ninduke egiten ari naizenak. Ni neu naiz askotan begiak itxi gabe goizean ohetik jeikitzean nire Judas aurpegia beste norbait banintz bezala ikusten dudana! Orain urte bi nire fitxa zaharra, hilik zegoela uste nuena!, gure seme zaharrenaren ihesaldiarekin nahasi zidaten; geroztik, gaztetxo, haur bat oraindik!, gartzelaratu digute... Ez dut hau nigatik egin, ez nire semetxoagatik ere: Joxepa, emaztea, lehengoarekin Arrasatetik pasa behar izan genuenez gero... oraingo honetan nahi izan dut salbatu.

Ni neu bakarrik geratu naiz oheratu aurretik ispiluaren aurrean, orain lotan, edo etxean behintzat, dauden ama-semeak bihar goizean nire begietan ohar diezadaketen argia nola ezkutatu asma ezinik...

Giltza

Goizeko Talgoa zen.

Euskaldun saldu batek asmatutako tren a Paristik, eta, beraz, Hendaia eta Irundik zehar, heldu eta hiru minutu egin zituen Donostian, geltoki nagusietan egin ohi duen modura, eta bertan bidaiari asko igo zen: batzu lehen klasean eta besteak bigarrean, tren aberats honetan hirugarren klaseko pobrentzat inbentoreak aukerarik utzi nahi izan ez balu bezala, gaizki pentsatzen segitzea bada ere.

Trenak, onenak ere, ez dira Suizako erlojuak, bereziki gure herrian sartzen direnean, baina kasu honetan justu heldu eta justu irten zen, eta fedegabeko bidaiari batzu larri ibili ziren aringa bizian igotzeko. Denetarik da munduan, zer nahi duzu!, eta tren heldu bezain laster eroso eroso hartutakoak ere badira orain martxan doan honetan; gehienak leihoan, batzuk egunkaria irakurtzen, eta hauetako bat, bigarren klaseko bagoian leihotik sartzen ari den eguzkiaren argiaz gain-gainetik orrialdeak presaka pasaz tituluak ikusi besterik egiten ez duena, eta gero paisaiari so jarrita plegatzen du rutinaz, begiratu ere egin gabe, baina xuxen asko, egunkaria, eta belaunen gainean ondo tolestatuta daraman jakaren goian uzten.

Alboan eseri zaion gazteak eskatu egin dio, ea bere egunkariari begirada bat ematen utziko dion, formalitate handirik gabe; tren aringa eta agian bileterik gabe hartzen duen horietako bat... eta gizonak bere eskuz hartu eta eskeini egin dio, gainera, eta nola!, gusto handiz ematen diola adieraziz.

Aski faltsuki, pentsatu du beste hirugarren batek; andreak harrapatu baitio tonuak izan duen halako ironia punta sarkor bat.

Bi gizonen aurrez-aurre doan bidaiari bakarra da emakumea; igo bezain laster mataza urdineko jertse baten zatia dirudiena ehotzen jarri da, hariak galtzorratzean ematen dituen itzuliak kontatzeko berez ardura nahikoa balu bezala, baina ahotsei tonuak bereizteko belarri ona duena.

"Jainkoaren grazia".

Giza-emakumearen hitz eskasa hor geratu da, gizonaren irrimirri punta hark dena zintzilik utzi duen tokian.

Trena: "danga, danga, danga..."

Tren honen inbentoreak gerrako trintxera-planoekin linea gurutzatzeko egin zuen ihes hark orain burdinezko oinen pauso borobil eta misteriosuz adierazi nahi balu bezala. Egia da saldukeria hori aspaldikoa dela, gerra formalaren garaikoa, pentsa! Tren apain honetan doazen bidaiariek, zaharrenak ezik, ez dulela ihesaren historia beltza ezagutzen. Hala, emakume lodikote freskoak ez daki, ez baita hain zaharra, berez ikusbera bada ere, oso, eta begiratu gabe ikusteko duen ahalmenarekin orratzek liluratuta bailegoen, bitartean konturatu da aurrez-aurre duen gizona txukuna dela; ez bakarrik alkondara eta galtza garbilisatua eta zetazko galtzerdi beltzekin ongi doazen oinetako beltz ongi lustratuz jantzia dagoelako; kamarero batbezalatsu; baina: baina!, bere buru tenteak goimailako beste... zerbait adierazten du, kategoria duen zerbait... eta baita belaunen gainean ondo tolestatuta daraman jaka urdina galtza grisekin ongi

egokitzen denez gainera zimurtu gabe daramalako ere. Udako beroa ez baita aitzakia jaka kendu eta nolana goiko maletegira botatzeko!... "Gizon prestua", dio beretzat, batzutan emakumeak erraz txorabiatzen badira ere, "kontu handiarekin kizkurrak orrazteko ardura hartzen dutena".

Gizon prestuaren begi orlegi ederrak paisaia mugikorraz beteak beti, baina betseinetako argi maliziatua beste zerbaitetan pentsatzen jarria!... "Aldamenean doakion gazte jakagabea, nahiko zarpail eta zikintxo jantzia, zuriak izan ziren plaiarak galtzerdi gabeko oinetan, interes handiarekin segitzen du bestearen egunkaria irakurtzen... kirolak, seguraski..."

"Ni banoa...", esaten du beretzat, baina ahozkatuaz, nahi gabe bada ere, lehen jaisten den emakumeak: "Agur!" esanez, eta bi "adio"k erantzun...

Oraindik bidaia luzea denez gero, eta emakumearen begiak bere aurretik joanak, gizon prestuaren bi zangoak luzatu eta kuluxka baterako prestatzen ari dela dirudi, jaka bi eskuekin segurtatuta!, baina pentsatzen... "emakume guztiak psikologi-erretariak direla, begiak beti so, eta begiratzen dutena baino aurreraxeago ikusteko irrikiaz; baditu probak; emakumeekin..., gazte, gaztetxo eta helduekin, denetarik eskarmentua badu; denbora ez galtzeko aitzakiarekin ehotzen jartzen diren horietakoak dira okerrenak, ez baitute inoiz ongi pentsatzen, gaizki eta oso oker baizik... eta askotan sorginkeria hutsezamatzen..."

"A!..., ez horregatik..."

Hartu dio bidai lagunari itzulian datorkion egunkaria, eman egin badio ere; nahiko narratzat tolestatuta datorkio!, eta pentsatzen du orain, eskuak egunkariaren eta jakaren gainean ongi finkatu dituenean, ez dela hau gazte baten seinalerik onena... Bestalde, atzeman du bere galtzetako patrikari zeharka begira... Begiak ixten ditu, gorputz guztiaz erne badago ere; ikusten du begi bakarrez gaztea eserlekutik altxa eta joaten, komunera agian; aidean zegoen kiratsa mugitu da laino garden baten antzera eta joan da gaztearekin zati bat, hori da tipo hauen haloa, zikin ingurua: sailduen buru-inguruko argiaz bereizten diren legez, gaurko ileluzeek, kristoren antza hartu nahiz kiratsaz inguraturik mugitzen dira nonahi... "Tak-tak"eko kuluxka erne horietakoa bota du... eta falta da gaztea oraindik; egin ditu trenak laino artean bezala sentitu dituen geldialdiak, eta joan denekoan jaitsi ote den pentsatzen jarri denean, hemen dator trena abiatu bezain laster, agian interbentoreari iheska dabil, hemen jaitsi, han igo, eta itzuli zaio berriz kiratsez inguraturik... "Ni, neu, lo! Eta eseri da, baina orain nire aurrean... Badut begiak ireki gabe ikusteko ahalmentxorik ueuk ere... Leioa gustatzen zaio... Neuk uzkuritu ditut neurez bezala zangoak, eta jarraituko dut begi itxiekin, paisaia ikusteko gustoa ere kendu baitit ile zikin eta begirada mutiri eta lotsagabe honek..."

Bi gizon aurrez aurre disimuloan, hori kanpotik ere sumatzen da, eta bapatean altxatzen da "señoritua", eta egunkaria bere eserlekuan utzita badoa agurrik egin gabe; "honek esan nahi du", pentsatzen du gazteak, "Komunera doala; laister baitugu Gasteiz, ikusi besterik ez dago lur laua, garia ebaki berria, oraindik dena hori, baina dena huts... urrea eraman eta hondar lehor-zutimotza ustelarentzat utzi balute bezala, eta biok batera jaitsiko gara, beraz, espero dut behintzat; baina estuegi du galtza hori; mehexeago balego, edo jaisterakoan pixka bat hurbiltzeko modurik aurkituko banu..."

"Eta gizona ez da honez gero etorriko, trenaren abiadura bera ere gutxitzen hasia da; begiratzen du gora, maletegira, joandakoak zer ahaztu..., nahi gabe ere honelakoetan joaten baitzaizkio begiak, eta altxatu denean ikusten du gizona, gizon prestua, señoiritua, aulki-laguna, lehen baino dotoreago!, jaka, gorbata eta guzti jantzita, beste aldera doala, lehenengo klaseko bagoira!; harritzen da, baina hala da, gizon bera baita!, eta betiko ohiturari jarraituz, maletegira eta gero eserlekuetara begiratzen duenean hartzen du egunkaria, askotan behar baita!, señoirituak erregaloz utzia!... eta ikusten du, agur ere egin gabe alde egin duen gizonak utzi duen lekuan, giltza bat... Ez du bi aldiz pentsatu beharrik, eginak ditu bere buruan erreflejo honen gurpilak, hartzen du eta botatzen poltsikora eta badoa gizonaren atzetik; gehiegi hurbildu gabe, ordea..., beste bat dirudi orain!... jaisten ari da lehen klaseko bagoi dotoretik apain asko, eta hor ditu neska gazte bat eta gizon bat bere zain, eta harrera errespeto handiz egiten diote... "don Anastasio", esan dio lehen eskua eman dion andereñoak, exekutiboak dirudite beste exekutibo bati ongi etorria ematen!... Hara gizon inportantea... Baina zergatik bigarren klasetik lehenengora egin duen maniobra!?"

Gaztea atzean geratzen da, baina segitzen die, hirurei, elkarrekin baitoaz; geltokitik irten eta aurreko leku eskasean daudenetako kotxe beltzera doaz, "Renault 9" besterik ez bada ere, hor igotzen dira, "don Anastasio neskarekin atzean, eta abiatzen da..."

Galdu du gizona!

Gazteak poltsikoan daraman giltza eskuaz hartzen du sakela barrutik, izkutuko gauza bailitzan, eta bide batez giltza ukitze honek pentsatzen lagunduko balio bezala eseritzen da geltoki barruko aulkian, pentsakor... "Giltza, kotxe batena da, azkar konturatu da honetaz treneko eserlekuan begiztatu duen istantean; don Anastasiok sudurzapia ateratzerakoan eroria, noski; ez da orijinala, kopia bat baizik, eta hatz lodi eta erakuslearen artean duela ukimenez badaki berria dela, kopiatu berria, alegia, bizartxoetan, gero erabilian erortzen diren ertz-laztasunetan, erakusten duelako. Dena den, gizona ez da arratsaldera arte itzuliko, itzultzekotan etorri bada..., baina pentsatu nahi du hiri honetara ekarri duen egin beharra egun batekoa dela, ez baitu maletarik ekarri; ez da goiz berean itzuliko!, horrelako gizonari bazkaria eskainiko ahal diote, eta arratsaldean itzulibidaia egitekotan, bi aukera ditu: bostetako trena hartu, goizetxo bada ere, edo, bestela, zortzi t'erdietakoa, oraindik udako egun argiz... Bigarren aukera egingo luke gazteak, baina ezin du beste posibilitatea, bostetakoa, gutxietsi".

Beraz, hona gazteak ekarri duen arazoa... bertan behera utzieta bostetako hemen egongo da berriro.

Batzutan honelako ustegabeak sortzen baitira.

Orain badu goizean bideratzerakoan ez zuen pentsabiderik...

"Giltza honek, orain, ez dio sos bat balio; ez daki non eta zer ireki dezakeen. Zerbaitetarako balioko badu, giltzak bi lagun behar ditu: pertsona bat, honen burua hain zuzen, eta bi, atea, edo kasu honetan bezala, giltzari dagokion kotxea; nolana, sarraila, zeren eta sarraila behar du derrigorrez giltzak, ezkonduko bada!...; ezkontza guztietan bezala, alajaina!...; maliziaz kanpo, ordea, giltza honek norakoa ezagutzen duen ezkongairen burua, kasu honetan bere alboan trenean etorri den gizona, eta hau ezagutzen du. Beraz, lehen egin behar duena da, "don Anastasio" aurkitu; hau bistaz besterik ez du ezagutzen, baina ez da gutxi!..."

Ez dago beste biderik!

"Giltzen arazoan..." eta altxa da, beste lagunak zain egongo dira eta..., kontuan eduki behar dena, zera da; pertsona-giltza-atea konbinaketa nolabait hausten bada, giltzaren balioa betirako galtzen dela. Nire ahalegin honetan zer gertatuko?... Bi gauza gerta daitezke: delako Anastasio horrek beste giltza berdina, beharbada originala, jakako patrikan duen giltzatakoan berdina izatea, eta orduan alperrik izango da nire ahalegin guztia, eta bi, Anastasiok duen giltza bakarra eserlekuan erori zaiona izatea... Eta orduan neu naiz nagusi berria!"

"Arrantzaleek itsasoan aurkitzen duten untzi abandonatuaren jabe izateko eskubide osoa duen bezalaxe"

"Giltzatxo hau baino desanparatuagorik!..."

Gazteak, tren geltokitik igarotzen den autobusa hartu du, bere lagunekin hitzegin behar du... Ez du gaurkoan beste ezertan sartu nahi; nahikoa du eskuineko poltsikoan daraman giltzaren etorkizunaz arduratzea.

Lauetarako, Renfe-ren geltokian dago berriz.

Gaur berau egitea erabaki du; jan, bazkaldu du, baina ez dio inori ezer kenduko; badaki askotan lapurrari ostutzen diola, ez da zaila!, eta honelakoetan, esaldi jakintsuak aipatzen dituen ehun urteko indulgentziak eskaintzen dizkio bere buruari; beste batzutan errukia ere sentitzen du lapurra izan gabe bere eskuz lapurtua sentitzen denez... Ez du oraindik bileterik hartuko, "don Anastasio"k zein tren hartuko duen jakin gabe... Bostetako trena heltzen denean, orain Madriletik datorrena, erne egongo da leihatila goardiatzen, baina denbora berean trenera nortzu igotzen diren zaintzen, joan-etorriko biletea izan dezakeelako, edo bileterik gabe igotzekoak ere egin ditzakeelako, bigarren klaseko bagoian bidaia egin eta lehen klasekotik apainago irteten dakienak... eta irten da trena, eta ez, ez da bostetakoan joan..., ez dirudi behintzat!...: lapurrik trebeenekere egin baitezakete hutsik... eta kezkatzen hasia da: gizon hori beste nolabait... kotxez norbaitek eramana ere izan bait daiteke!

Baina, bestalde, lapurrak badu halako zentzu berezi bat..., eta honek dio, goizaz gero ari zaio burua lanean, azken trenean joango dela, zortzi t'erditakoan.

"Apostu!..."

Lapurrek ere, kalkulazaile horiek!, egiten dute batzutan posibilitatez apostu, eta irabazten duen ala ez jakiteko aulki berean geratu da: erlojua, leihatila eta trena geratuko den andena, hirurak!, goardiatzen...

"Sinezkeriaz ere ez gabiltza urri, oraintxe ikusten ari naizen emakume izorrandi hark zortea emango dit... aulkitik mutikoa zutitu eta eserlekua eskeintzen badio..., eta bai!, egina da, utzi dio eseritzen; orain badakit gauzak ongi irtengo direla!"

Orduak egon da zai, egunkariaren atzean, orain xulo eta guzti, geltoki barruan, baina azkenean hor dator gizona!, don Anastasio!!... "Maitasuna ere sentitzen dut orain gizon honetaz; goizean eramane duen txoferrarekin sartu da, lagunkiro biak; zortziak eta laurden erlojuan, eta badoaz biletea erostera, hiru pertsona kolan; ni neu atzetik, eta belarria erne biletea norako eskatzen duen, nire aldizkaria aurpegian beti, begi xuloan!, ezpaitut inolatan ere hark ni ikusterik nahi!..., eta gero hartu dut neuk ere nirea Donostiaraino; ez don Anastasiok bezala, lehen klaserako, beharbada laguna duen

exekutiboa gertuegi duelako besterik egiteko, baina neuk bigarreneako erosi dut, beti bezala, hutsik egin gabe!, arrisku handiegia baita bilete gabe menturatzea!"

Biak andeneko tabernara joan dira.

"Neu, andeneko aulkian eserita Gasteizko trenbidean hain lasai ibiltzen diren usoei begira... Trena heldu denean, ikusi dut gizona lehen klasera igotzen, eta hurbilen dagoen bigarren klaseko bagoira igo naiz neu. Laister irten da trena, oso garaiz. Abiatu den bezain laster kontu handiz sartu dut sudurra lehen klasean, eta atzetik ikusi dut gizona non dagoen eserita, kizkurak goizean bezain ongi orreztatuta, ondulatutako buru moñoñoa, leiho aldean, eta orain trena doan zentzu berean begira, paisaia etortzen ikusteko. Honetan ez du, beraz, nik neuk dudan maniarik: niri beti paisaia beti ihesi doala ikustea gustatzen zait, beharbada lapurraren zentzu bereziak honetaraino okertu nauelako, ihesarako bentajan sentitzen naizelako; agian hauxe da, ez dakit... Eta noski, 'don Anastasio ez da lapurra!

"Eta neuk paisaiaren ihesa zaintzen ari naizela ikusi dut apurka-apurka dena iluntzen; honela, lokuluxka baten laguntzarekin, joan zait denbora, hiru ordu luze... Ez al zen gizona bidean jaitsiko!!..."

"Ez, hor dago beste bagoian neuk begiz jotako paisaia berari so..."

"Donostian, gau ilunbeltza."

"Lehenengo klaseko bagoitik jaitsi da, jaka, korbata eta guzti, zut!... Nire neurriak hartu ditut harekin topo ez egiteko..., eta badoa, neu atzetik; irteten da geltokitik eta zubira begira geratzen da, mesfidantzaz balitz bezala, edo norbaiten zai, edo giltza galdu duela konturatu da!... Eta abiatzen da, ez zubirantz, ezkerraldera baizik, ibai ertzetik doan autobideko espaloitik; nahiko ilun dago hemen, Urumea pasealekuan ez baitute bonbilet asko irauten, eta zubiko argiaz ikusten da zerbait..., hor doa, ni atzetik, beste hiru pertsona tarteko; bi elkarrekin eta bestea bakarrik, langile dirudite, eta neu azkena, mantso... eta gizona geratu egin da! Ni, hogeit bat metrotara nago, zuhaitz atzean... Hor izango du kotxea, hasten da patrika miatzen (ikusten ditut bultoaren higidurak ongi), jakakoetatik hasita..., honek ean nahi du poltsikoaz konturatu dela... kartera barruan ere; egon da minutu pare bat kotxean arrimatuta, pentsatzen seguraski, zer egingo...; kotxeko kristalak arakatu ditu gero, xirrikiturik geratu ote den, ongi itxi gaberik... Eta abiatu da, hemen dator itzulian, nire ondotik pasa da, neu zuhaitz atzean pix egiten..., eta gero begiz segitu diot kontrargian, zer erabakitzen duen ikusi arte; ez dadila itzul eta ni bere kotxea martxan jartzeko lanetan harrapa!

"Ikusi dut zubia gurutzatzen, hiribidean, eta orain bai, orain azkar ibiltzeko garaia da!

"Lapurrak, garaiz eta bere tokian dagoenean, beti du presa!"

"Hemendik aurrerakoa egitan kotxearen jabearen gisa egin behar ditut mugidak; naturaltasunarekin, inora begira jarri gabe, presarik batere gabe...; Renault-9 berria eta gorria!..., ederra!... Lehendabizi giltza bertokoa den ikusi behar..., eta sartu aurretik, alarmaren beldur naiz..., Anastasiok entzungo luke bere kotxearena!..., eta ez!..., sartu da gozo-gozo, tokia egina dagoenarekin izorraketan gertatzen den bezala... eta honelako batetik pasa ez dena ez daki zein berdintsu diren sentitzen direnak..., sartu da, ongi, atea ireki eta eseri naiz eserleku ederrean eskuetako izerdia kentzera, eskuek salatzen bainaute larrialdietan!, kopetan; eskuineko atetik sartu naizenean, bolanteraino

irritarazten dut ipurdia, eta hemen beste proba: askotan ateko giltzak ez baitira motorrarenak berak izaten, eta hemen kolpetik bultza diot, gerta dadila nahi duena!, eta bai!!, sartu eta isuri!, hustu!, biak bat... Eta motorrak... 'banba' Piztu egin da, bibolina baino gozoago da motore honen hotsa!; izerdi bitsetan nago berriz... Ezin izan dut atzera begiratu gabe geratu, eta ez da inor ageri... minutu bat eskeini diot motorrari beroketarako. lasaiago irtetearren... eta badoa... astiro... Hau lapurreta gozoa!... Egia auzora burdinezko zubitik, eta gelditzeko leku lasai baten bila, Intxaurrendoko bide berrian geratu naiz, paperik badagoen begiratu nahi baitut!..."

Ez da paperik ageri.

Gazteak hurren egiten duena, zera da, kabina batera joan eta garajeko lagunari deitu; ez dio bihar goizerarte kotxea hartuko; bitartean, etxe inguruko ilunpe batean utzi du, eta badoa oinez, atzera begiratu gabe...

Ama zain dauka afariarekin.

Beti okerrenaren esperoan aurkitzen da berandutzen bada; anaiak oheratuta daude; ama begira duela afaldu du: "Ez al duzu ezer aurkitu, Josetxo?"/"Ez, ama, oso zaila dagoela badakizu..."/"Begieta argi bat ikusi dut eta pentsatu dut; 'Joxek lortu dit zerbait', baina badakit, seme, aldamenekoak ere..."

Joxek telebista piztu du, eta amarekin begira jarri da. Honela, ez dio gezurrik esan behar, beti gezurretan!, eta baita ama gozatzearen ere; semeari begira-begira geratzen baita mahaian honelakoetan, zer entzungo semeari... Joxek sos batzu ematen dizkio, hemen eta han lantxo bat egin duela eta..., baina egiazko lanposturik aurkitzen ez duenez gero... Txakurra ateratzeko aitzakiarekin irten egin da, eta kotxea bere lekuan aurkitu du!

Hala ere, zazpietarako kalean da, eta kotxera berriz; utzitako toki berean dago. Gorri-gorri, nahi gabe ere ikusten da! Eta egunez beti dago arrisku gehiago; ertzainak ez zuen denborarik izango bart egindako lan baten atzetik jartzeko; pizten du irratia... "hau da luxua!..." berriak eta musika apur bat, eta konturatu da ez duela kafetxo bat ere hartu, bizigarria falta zaiola, eta jaisten da, atea itxi eta inguruko tabernatxoan hartzen du; itzultzen da oinez eta astiro, denbora pasa, eta zortziak hamar gutxitan hartzen du Renault gorria eta lagunaren garajerantz zuzenki, lehenbailehen, kilometro bat, astiro... eta atzetik entzun duen motoa noiz pasako, ezkerretara hartzeko argia piztu du eta begiratu du... eta ertzaina da!..., esanez, mesedez, gelditzeko aurreraxeago... Ea zergatik den, astiro zetorrela... Bai, baina, gidabaimena ikusi nahi duela, eta lasaitu da apur bat, eta erakusten dio agiria..., bai, baina bere kotxearen agiriak ikusi nahi dituela, erakusteko, mesedez. Ez duela kotxearen paperik bertan, etxean geratu zaizkiola..., baina amaz pentsatu du berehala!, ez dio horrelakorik etxera eramango..., zer lotsa!..., eta berehala aitortzen dio ertzainari...

Izerditan eta hitz gabe geratu da bost minutu luzetan.

Trafikoko bulegoetan hasi da erantzuten, eta berehala sortu den auzia zera izan da, lapurretaren eguna: nola daiteke gazteak kotxea atzo ostutzea, kotxearen nagusiak ofizialki salaketa orain hamar egun eginik bazegoen, Eta hemen ibili da gaztea, Joxe, argi, dena nola gertatu den adieraziz... eta bere ustez, treneko gizona izan daitekeela lapurreta egin duena.

Oraindik ez du gizon honen izenik aipatu nahi izan...

Konturatzen da salaketa bat dela; baina zertan sartu du honetan giltzaren amuarekin Anastasio alu hark! Eta izenik esan gabe, baina tren horren pista erabil zezaketela adierazi die galdeketa ari direnei; bitartean, fitxatuen argazkiak ikusten jarri dute. Beldur berri bat sortu zaio... bere argazkirik aurkituko ote duen!!... Ez da inoiz Ertzantzatik pasa, baina nork daki!... eta ez, eta Anastasiorena ere ez du ikusi; ez da fitxatuta egongo...

Joxeren eskariak errukiturik, gaez etxeraten utzi diote, egunero goizeko trenera laguntzekotan.

Amak kezkatzen du asko; bestalde, kotxearen lapurreta ez da lapurreta osoa, giltzari segitzeko abentura txiki bat baizik.

Defendatzen da ondo Joxe!!

Trenak goardiatzeak ez du lehen egunetan ezer eman; ertzainak hasi dira ipuin horretaz pixka bat aspertzen!, baina joan den asteko egun berean, asteartean, han agertu da Anastasio goizeko zazpiak eta hamarreko trenera; hatzez seinlatu besterik ez du egin Joxek. Ertzainek utzi diote Anastasiori tren hartako bigarren klaseko bagoian eseritzen, eta segitu diote Gasteizen.

Joxe, Ertzaintzako bulego batean, deskantsuan, egunez.

Anastasiori 'Don erori zaio, droga mugako hiritik, Irundik, Gasteizeraino eramaten zuela aitortuz: jakako patriketan ongi egindako paketetxo batean, ez handia, noski, baina bai droga garestiz ongi betea; bien bitartean, jatetxe batean lan egiten zuen Donostian mahai zerbitzari gisa, eta egun hori, asteartea, zuen libre. "Neu morroi bat besterik ez naiz, laugarren aldiz bidaia bera egin dut, eskatu bezala..." "Bigarren klasean joan eta lehenengotik irten, batetik, ez da bekatu, eta, bestetik, sos batzu aurreratzearen egiten nuen, ez besterik".

Droga garraioan zebilela, zergatik kotxeak lapurtzeko traba merke eta arriskugarrietan sart?!

Hau ezin zuen itaunketan ari zenak ulertu.

Aurrena, Anastasio isilik geratu zen, norbait salatzeko beldur, baina azkenean hitzegin zuen: "Egun hartan trena hartzeko presa handiz nembilelako, eta etxean, Altzan, gurekin bizi den koinatuak utzi zidan kotxearen giltza egun hartarako!... Ez nekien kotxea lapurtua izan zenik..."

Hauek esan zituen Anastasiok, eta giltzapean dago horrez gero.

Lotsa gehiago pasa du Joxek lapur bat izatetik ertzainari bi pista seguru emanaz salatari izatera eraman duelako: trafikoko handia duen banda bat atzeman baitute, eta kotxeak lapurtzen dituen sare bat desegin, biak ertzaintzarentzat ezezagunak zirenak.

Libre utzi dute gero; lan honetarako fitxatu nahi izan dutenean, soldata eta guzti (hara bada hor lan segurua!), ezetz esan die: "Txibato profesionala izatea baino nahiago dut berriz giltza galdu baten zain geratu, in sécula seculórum!!"

Amak berak hauxe bera aholkatuko zion, galdetu izan balio.

Harrez gero, Joxe loak bakean hartzen du behintzat!

Arkume laurden baten prezioa

Heldu zen harategira, ustez goiz, jendeagandik ihes, baina betea zegoen dagoeneko. Hilaren azkena larunbatez suertatzen denean hala izaten da. Egun estali iluna dago, baina euririk ez, eta haurkotxea kanpoan, espaloian, utzi du, begiz zaintzeko moduan, eta bere txandako zenbakia eskatu du. Pazientzia behar da herriko esamesak entzuteko, eta emakume gaztetxo honi falta zaio: begirada larriak jauzika darabilzkio, geratzen zaizkion atzazal puntak hortzez marruskatzen ari da, eta berriketak aurrera doaz, batzu itsusiak eta larriak; gazteari irripar tristea irten zaio orain, harakina okela pisatzen ari den bitartean, nork daki zergatik, baina beste batzutan izutu ere egiten da pertsonen izen-abizenak eta xehetasun denak lasaiki jendeak airean botatzen dituenean... Hor dago halere zain, begi bat kotxean, lo dago haurra; eta bestea, beste begi urdina, harakinaren esku xuri-arrosak, emakumearenak dirudite!, baina aldiz handi-potolo-borobilak eta kementsuak trebe asko ari dira labain handiaz xerra finak ebakitzen... eta une berean, ezin bestean!, sudurretan daukan txima gorrien tintagaiaren ozpin usain nazkagarriari ihes egiteagatik ateratzen da pausu bat... Gizonarekin topo egiten du, barkazioa eskatzen dio, zer gutxiago!, ez du ezagutzen eta.

Tximagorriari txanda heldu zaio, eta ikusten du bere xerrekintreten hatsaren arrastoa ia begiz ikusteko moduan uzten baitu bidean... aurreratu ditu oraingoan bi lerro, eta bere alabatxoaren kotxetxoa bistaz galdu badu ere, ikusten du oraindik goraxeago ilegorria alabatxoari begirada boteaz kalea beherantz hartzen... eta puntuan itzultzen!, instante bat!, eta begi handiz ikusten du nola atetik esaten ari den:

"Norbaitek utzi du arkume laurdena kotxetxoan ahaztuta..."

Eta abiatu da berriz ilegorria bere bidetik... Bromak egiten ere badaki tximak eskuz belarrondoan lotu nahian doanak... bere alabatxoa ez baita arkume laurden bat! Eta, ikus, hemen ez dio inork jaramonik egin!, jarraitu dute bere esamesetan geratzen diren emakumeek, oraindik hamarren bat, eta hau nahikoa du arkumearen istorioa harategiko broma bat gehiago dela ziurtatzeko, gizon bakartia ere ez da mugitu, eta isilik dago, gizonak ez dira honelako txantxatan sartzen, eta hara!, harakinak, Joxe, begira dauka, eta orain, azkenean, esaten:

"Zure txanda dela uste dut..."

Graziana itzuli da bere burutazioetatik; esaten du: "Hogeitaseia dut...", eta eskatzen du berea: "betikoa", ez du heltzerako okela eta hezurra dela esan...

Ez daki zergatik!

Esku zuri-lodikoteak bere enkargua prestatzen ari diren bitartean ausartu da Graziana alabatxoarengana hurbiltzera, eta jauzi handi batez bota du garrasia!, arkume laurdena eskuetan, barrukoei beiraren bestaldetik erakutsiz, eta sartzen da esanez: "hau ez da nirea...", baina orain ahapeka... gehiagorako kemenik ez duelako, eta okela bi besoen artean bere alabatxoaren haragiberoa bailitzan bularren kontra dakar lotua... Estuasunak sumatzen ohitua dagoen amonaxo bat izan da kotxetxora joan dena eta itzultzen da:

"Haurra ez dago hor...", eta negarrari ematen dio.

Neskak berak begiratzten dio errukiz, begizabal.

Joxe harakinak dagoeneko salmahaiaren gainetik jauzi bat egin eta kotxetxoa miatu du, haurra arkakusoa bailitzan, eta kalean gora eta behera bota ditu begirada luzeak... gehiegi presatu gabe eta dagoeneko ondoan duen Grazianari hartu dio besoetan dakarrena, uzten du salmahaiaren gainean, pasatzen dio emaztekiari besoa maitekorki bizkarretik, eror ez dadin!, eta esaten dio belarrira:

"Lasai, neska..., lasai..."

Marmarrean dauden emakumeak kanporatzen ditu: "alde orain!, banator...", eta ixten du atea.

Bitartean, begiak lausotu zaizkion neska gaztea emakumez inguraturik, dardarka dago. Joxek hartzen du eskutik eta irteterakoan atxekitzen du beste eskuz kotxetxo urdina eta berria, eta maldan gora abiatzen dira hirurak, emakumeen marmar alarmatua atzetik dutela, eta gizona beti hor, bertan geratu da, isilik, txukun jantzita, hirurogeiren bat urte, ez du gertakariak hunkitu; bestalde, leiho batzu ireki dira kale nagusian zaratarik gabe, ikusmiran; hirukotea eliza baino lehentxeago dagoen atarira sartzen da, uzten du harakinak kotxea atarian eta eskailerak igotzen laguntzen dio neskari, irekitzen du lehen solairuko atea eta gero sukalde ilunean argia piztu eta eser erazten du gaztetxoa mahai ondoan.

Dena itxi gabe.

Hartzen du gizonak beste aulki bat eta aurrez-aurre plantatzen zaio, bi esku xuri-argalak bere esku lodikoteetan hartuz..., honetan buruak buelta eman dio!; gertatzen zaio Joxeri buru handia bere kabuz horrelako keinuak egitea!, ez dio antzematen zergatik, baina oraingoan ere hor da norbait, orain andre xahar baten "turroa", halaxe deitzen dio Lokarik buru gainean daraman bufanda beltza tolestatuari, "ganbarako" hotza kentzeko erabili ohi duenari, eta Joxek Grazianari begiratu dio eta honek esan.. "Goizetan haurrarekin laguntzera etortzen zait..."

Eta biek sentitu dute kanpoko alea berez bezala ixten: "Krisketa".

Zahartxoak andre multzoarekin egin du topo etxaurrean; gerarazi nahi dute, jakinguraz, baina Lokari bera da galdezka hasten zaiena, ea zer gertatzen den: ez batek, hiruk esaten diote batera gertatua, eta eskuineko eskua turroan duela alde egin die kalean gorantz, eta hurrengo atarira sartu da: eskaileretan lehen deskantsura heldu denerako ohartu da bere espartinen arrastako pausoen oihartzunen gainetik, tisikoen belarri ona!, arinago datozen beste batzuen kontrapasaz, eta: "Ama...", bere erraina da...; Lokari gelditzen zaio mailaratetik behera begira, zain, eta bestea galdezka hasten zaion berean abiatzen da berriz gorantz isilik bigarren bizitzaraino, eta giltzatu gabeko ateari bultza egin eta sukaldean aurkitzen dira ilunbean, galderantzunen zain, biak. "Zer?", galdetzen dio amonak eskua turroan./"Nola dago?"/"Berari galdetu behar"./"Ez al diozu zuk galdetu?"/"Ez!"/"Eta zergatik ez?"/"Ba..., dagoeneko ahaztu zaiolako!... Joxe harakinarekin lotua ikusi diñat eta!...", alde egin dio errainari, bere gelarantz.

Erraina irten egin da sukaldetik eta etxetik...

"Nora hoa!", galdetu dio orain emaginarrebak goitik.

"Enkargutara, banator..."

Han doa zurezko eskailera estuetatik behera...; manifestaldian dabilela dirudien taldea zain dauka kaleko harlauza gainean; gizona han behean dago, harategiaren

aurrean, bakarrik, nabarmen, ikusbera dirudi orain; errainak ikusi du, eta ez da geratzen andreak egiten dioten korroan, jarraitzen du gorantz, haserre; bere dendaurrean dagoen Anixetari pausoa galdu gabe botatzen dio: "Lotsa gutxiko neska, Joxe harakinarekin lotuta aurkitu du amak!..." / "Gaur" / "Oraintxe!...", eta bere hitzek hots errekatxo bat uzten dute gorantz jarraian harlauzaz eginiko espaloitik elizako bidean.

Joxe harakina jeitsi denean hartu ditu andreak beherantz, harategira, guztiak oro isilik orain, eta sartzen dira bezeroak bere atzetik, gizona hor!, eta galdetzen du dendariak, aurpegia zurbil, ea noren txanda den... Grazianaren hurren zegoenak erakusten du hogeita-zazpia, eta hau bere xerrekin irtetera doala esaten du denentzat bezala:

"Norena zen haurra, hori da jakin behar genukeena, errugabea ahotan inork har ez dezan!..."

Ez dio inork erantzun, baina Joxe lotsatu da salmahaian okela esku borobil zuriekin daraman labantzarrarekin lanari utzi gabe, emakumeak banan-banan begiekin hizketan bere okelarekin irtendiren arte.

Eta gizona bakarrik, zutik, zain...

Harakinak ez dio ezer galdetu, irten egin da, kaleari, gorantz, beherantz, neurria hartzeko... jendea gaiztoa baita!

Eta beste espaloitik behera datorren Baldomero borobila, bodegan ardoa eta ura edan aurretik nahastea pekatu dela aspaldi esandako marka utzi duena, Konsagraziarako ere salatzen baitu!, bere parean geratzen zaio eta botatzen dio papar harroarekin, estua den kalearen bestaldetik, ahotsa gehiegi jaso gabe:

"Azkenean nahasiko haute sorginkeria honetan!..." / "Niri axola gutxi herriko esamesak!" / "Bai, bai..."

Baldomero jarraitu du, malizia gorde ezinik... eta hor egiten du topo gora datorren don Remigio apaizarekin, eta honen esperientziak hartzen dio aurrea:

"Zer duk berri..." / "Zuk zeuk izango dituzu berriak, Jainkoarekin zabilta beti eta..." / "Heuk jakingo duk zergatik ez habilen konpainia onean..." / "Jakin al duzu Grazianarena?" / "Zahartxo duk hori..." / "Ez, gaur goizekoa..." / "Gaurkorik ez zekiat, heuk bai?" / "Beti hain diskretu eta faltso hi", esaten dio belarrira... / "Halere kexu dituk batzu..." / "Bai, horrexegatik ez da orain konfesatzera inor joaten..." / "Bakoitza libre duk horretarako ere". Eta hor doa Baldomero borobila harrizko ate nagusitik behera, erraz, eta pentsatzen: alabatxo horri munduan bakarrik geratzeak egin dio kalte, eta bereziki maitasun apur bat eskeini ondoren larrua jo eta gero zoratuta bere kasa utzi duenak...

"Nora hoa hain bakarrik eta hizketan!"

Ez dio lagunari kasurik egin, ez du gogorik gai horretaz gehiago inorekin hitzegiteko.

Pena ematen dio neskak...

Joxek ikusi du goitik Baldomeroen ibilbidea, eta gero eskuinera tabernarakoa hartzen; harategira sartu denean, gizona zutik eta erne harakinaren mugimenduei jarraian, eta ireki du ahoa:

"Nork ostu dio panpina?"

"Arkume laurdena ekarri dionak, seguru".

"Lazaro okinak?..."

"Berak ez!, ikusiko genuen!... Ez da oharkabe pasatzen den zanpantzata!, ezagutzen ez duzun seinale"./"Neuk ez"./"Norbaitek egin dio mandatua, apika Irene ilegorriak..., hemendik irteterakoan dagoeneko kapazuan zekarren arkumea eta mamuxela hartzea erraz egin zezakeen, bozgoraz salaketa egiten zuen bitartean..."

"Andre hori nor da?"

"Lazarorekin lehen, ezkon aurretik, lan egina..."

"Horrek ez zian burua galdu!..."

"Ez, ez horrenbestez!..."

Bezero batek eten du elkarrizketa.

Eta Joxe agurtuz, gizona irten egin da.

Harakina joan zaio atzetik, eta zerbait esan dio.

"Bai, eta eskerrik asko", eskertu du gizonak.

Honek beherantz hartu eta Donostiara doan autobusean sartu da plazan. Pasaiaraino eskatu du biletea eta txoferraren atzean eseri da. Jaitsi eta San Juaneko bidea hartu du. Elizatik laster dagoen kale estu batetik igotzen ditu harrizko eskailerak eta kaletik ikusten ez den ate estu batetik sartzen da. Norbaitek deitzen dio etxe barrutik: "Xanti...", eta gelan oheratuta dagoenarengana hurbildu da gizona.

"Egon al zara alabarekin?"

"Bai..."

"Ezagutu zaitu?..."

"Ez..." Eta kontaktzen dio gertatua. Emaztea negarrez dagoela erantzten du bere jaka, ohean eseritzen zaio bere ondoan eta beretzat bailitzan hasten da ahopez hizketan: "Ni oraindik ez ezagutzea..., hori oharterazi zigun psikiatrak; Erramuna, honek denbora hartuko du..."/"Bai, baina etxera etorri nahi ez izatea, ama bera ere ukatzea", eta negarrari ematen dio berriz,/"Ama, alabatxoak ez du inor ukatzen, ez du ezagutzen eta!... Oraingoan han hobeto dago, lehengo giro bera gordetzea gomendatu digu sendagileak; hor, ez dakit zergatik, harakina da aisen onartzen duena"./"Eta zergatik... -dio zotinka-zergatik kendu diote orain bere panpina?, nire alabatxoa!, eta egin dioten iseka hori... arkume laurden bat jarri bere ordeztu!, zer esan nahi du honek!!, gehiago nahastu nahi dute!!, jendaurrean lotsatu!!!"/"Ez dakit, egia esan, hau zer den... Ez dakit... Iseka, zergatik?!..."/"Gaiztakeria hau ez al da gehiegi...", dio Grazianaren amak.

Aitak ez daki zer erantzun.

Norbait sartu da etxean. bizilaguna da, esanez Xantiri telefonoz deitzen diotela... "Zein ote?..." eta badoa, Joxe harakina da: "Xanti: nik agindu bezala, joan naizilegorriarengana, eta neuk, gezurretan!, esan diot haurkotxean aldaketa egiten ikusi dudala, nire begiz ikusi!..., neronek aldaketa egiten ikusi dudala esan diodanean, aitortu egin dit... bere nagusia izanaren esanetara jarri dela hori egiteko, alegia, asto zezen padrote hark esan omen ziola, panpin irrigarri hori kendu eta arkume laurden bat jartzeko kotxetxoan, haurraz ahaztu eta Graziana bera indartu eta edertu dadin!..."

"Oraindik polita dagoela eta..."

"Zer iruditzen zaizu?!... E, Xanti, zer iruditzen zaizu astakeria hau..."/"Nik zer esango dizut, ezin dudala sinetsi!"/"Ah!, gizon harroputz kankailu hori ezagutuko bazenu, ulertuko zenuke!..."/"Eskerrik asko, Joxe, joango natzaizu bisita bat egitera laster berriz..."

Eta emazteari lagun bat zela esan, eta etxetik irten da, kaira doala haize apur bat hartzera.

Buruan zerbait lehertu zaio.

Tumore gaizto bat.

Hamabiak puntuan dira; igotzen da berriz etxera, bazkari legea egiten du; sukaldean, bakarrik, emaztea ongi sentitzen ez delako!, noski!, eta etzan eta laster berriz jaiki, zorroan dagoen eskupeta hartu eta kaleratzen da, emaztea agurtu gabe, lo edo dago eta... Kaian sarta da motorrean; eskupeta-zorroa soka eta aparailu batzuren artean gorde du popan, eta martxan jarri du motorra, eta irten da; Pasaiatik itsasora, bare orain, eta plo-plo-plo ordu erdi batez; eskuinean geratzen zaio kaioak babes ziuerra duten harkaitzari, plomoan ebakia dirudien horma erraldoi harrigarriari, terruilari, begira doa; gero, kostaratu eta uztendu motorra harkaitz zulo batean, lanpernetara etortzen den bere ezkutuko puntuan, eta hor doa eskupeta bizkarrean orain, mendiz, ehizera... Ez du herrira sartu beharrik, badaki bidea. Inori esan ez badio ere, izan da bi aldiz okinaren txaleta ikusten; galdezka, noranahi joaten zara, bereziki inork ezagutzen ez zaituenean, eta pentsatzen du eguerdian hor izango dela bazkaritan, eta heltzen da etxe politera, zakur eta guzti, eta jotzen du txirrina eta neskameari, bere alaba ordezkatu duenari, gaixoa!, esaten dio enkargu bat duela nagusiarentzat, hitzegin nahi diola, badakiela berak zertarako den... eta igotzen ditu azken harxabalekin egindako eskailerak eta goian dagoela gizontzar harroa makutsik agertzen zaionean, eskupetarekin postako bi tiro jotzen dizkio bularrean eta buruan, hainbesteko zerrikeria betiko ezabatua gera dadin.

Garrasiak sentitu ditu atzean; berak hartzen duen bidea ez da errezena, baina bai gertuena, eta haitzuloan motorra hartu eta itzulian doa, adio kaioak bere habietan, hormatzar zutiari, labarrari, adio. Orain lasai, ezin zuen eta besterik egin bere alabari egin dioten kaltea, arkume laurden horren prezioa, merezi bezala kobratzeko.

Izua

Bere ikaskide Nathalie-ren klase-mota batzu behar dituela eta Brusselasetik kanpora dagoen auzo batera joango al naizen galdetu dit alabak.

Ez duela benazko zuzenbiderik ezagutzen, baina... behin joan zen alaba bera ikaskidearen etxera, eta badaki nolajoan, baina ezin dit idatzitako zuzenbiderik eman; "Hara..." -hasi zait esaten- eta berehala etorri zait gogora orain gutxi gertatu zitzaidana...

Galdu egin nintzen!

Ez baitut hiria ezagutzen.

Alabak metroaren geltokiak ongi notatuak eman bazizkidan ere, ustekabeak lehen aldaketa egin behar nuen geltokia pasa egin zitzaidan... Ez nire zabarkeriaz, halere. Ni jendartean lotuta, itota!, wagoitik garaiz ezin irtenez geratu nintzen, eta gero ere kosta zitzaidan hurrengo geltokian jaitea. Itzuli behar izan nuen, berriro abiatzeko... Ordu bete gero aldaketa handi batekin aurkitu nintzen: arestian hain estu eta hertsiki egindako bidaia deseroso eta kezagarria, eskuak, batzu beltzak eta horiak!, somatzen baintuen gorputzean!, goitik behera, nire ikara aurpegian igerri zidatelako seguraski!, baina gero, lanera sartzeko ordua iragana zelako, eldi hutsik zihoan metroan eser ninteeen eserlekuan bakarrik, eroso asko, eta hemen metroko tram-bagoiak irten egiten dira lurpetik gainaldera, eta nirea argitara irten zenean, gure herrian aspaldiko tranbien modura, kaleak eta inguruetako auzoak ezagutzeko aukera eman zidan bidaia hark; pozik nindoan, egun eguzkitsu hartan... metro-tram-bagoia leku ageri eta huts hartan, geratu zen arte...

Geratu, osorik!, hura baitzen azken geltokia!

Hor jaitzi ziren geratzen ziren bidaiari urriak, eta nik neerlanderaz ezin ulertu nionez gero, tram-eroaleak frantses txar batean adierazi zidan han amaitzen zirela trenbideko arrailak!, han ematen zuela tram-ak itzulia!!

Eta, idatzia neukan nire zuzenbideaz galdetu nion.

"Heyzel?", bai hemen gaude, esan zidan, eta zuzenbide hori hemendik laster duzu: har ezazu eskuineko bide hori seinalatu zidan hatzez- eta zuhaitz horien atzean, ezkerretara, hemendik ikusten ez dugun etxebizitza bloke bat aurkituko duzu... hor dago bila zabiltzan helbidea..."

Eskertu nion gizonari eta jaitzi nintzen.

Nahiko galdua nengoen paraje hartan, egia esan. Alabak jarri zidan geltokiaren izena han zegoen, "Heyzel", baina ez zidan esan izen hark basamortu hura ere barruan zuenik. Nik uste izan nuen hiriko beste edozein kale bezalakoa zela, eta kale horretan zenbakia eta solairua jakinik, igo besterik ez nuela egin behar, eta atea jo eta han irtengo zela nire alabaren ikaskidea, eta honek ematen zizkidan liburuak hartu eta itzulian bide beretik etxeratuko nintzela, unibertsitat ikasketak egiten ari zen alabaren bizilekura.

Gaixotu egin baitzitzaidan horretan ari zela, eta ni, ama izan, eta harako bidaia luzea egin eta han jarri nintzaion, alaba oheratuta zegoen bitartean, kontu eginaz kanpo bere klasetako nota eta liburuekin joan-etorriak egiten.

Ikasturtea gal ez zezan.

Eta hau dena hiria ezagutzen ez nuela, noski...

Baina ez naiz oraindik alaba eskatzen ari zaidan bidaiaz ari, buruan dudan lehen esperientzia eta eskarmentu hartaz baizik...: hartu nuen, bada, metroko gidariak esandako bidea, oraindik egiten ari zirena, harrietatik!, eta noizpait heldu nintzen zuhaitz haien atzean zegoen etxe-bloke handi bat ikustera; ez zegoen han bertan!, nik uste izan nuen bezala, baizik eta zuhaitzen "atzean", bai, baina goian eta bostehun bat metro urrunago... Bien arteko zelai abandonatu hartan gazte batzu zebiltzan futboleak jokatzen, eguzkitan, eta hain gaztetxoak ez ziren beste arlote zarpail batzu lurrian etzanda zuhaitz bakarraren gerizpean niri begira: ni gorantz nindoala haiek ni berengana nindoala ikusten zuten biderei so... Pentsatu nuen hantxe geratzea, itzuli eta arineketan ihesari ematea ere! Izutu egin nintzen... Ez nuen diru asko poltsan, baina nuen hura eta paperak!, atzerrian nik behar-beharrezko nituen nire nortasun agiriak... Baina asmo hori oinez aurrerantz jarraian nindoala izan nuen, eta martxa onean, ez zezatela beldur nintzela sumatu... Eta hurbildu nintzenean, ni neure bidetik, haiek bidetik at baina gertu eta hirurak neri begira, lotsagabe, eta nik ikuspuntua urrun, han goiko etxebizitzaren blokearen laugarren leiho lerroan dagoeneko hantxe eta ate joka banengo bezala... eta gizon izatera iristen ez ziren gazteen parera heldu nintzenean, zutitu egin zen bat, zerbait esan ere egin zidan bere hizkuntzan, auskalo zer!, baina ez zen nigana aurreratu, halere!!!, eta beste biek, barre egin zuten... Ni, gora, gora, ez azkarrago, ez nien beldurrik hain nabarmen erakutsi nahi, ez bainuen inguruan beste inor ikusten...

Etxe blokera iritsi nintzenean, porlanezko etxesail tantaiaren atzean ezkutatu nintzen!

Eta hormaren kontra zutik etzan!

Orduan konturatu nintzen eskuetako hatzak nire poltsikoaren inguruan korapilatuta nituela, eta bi eskuak eta poltsa urdailaren kontra neuzkala, bihotzak han ematen zizkidan taupadei eutsi ezinik...

Ulertu nuen nolako itxuratan ikusi ninduten gazte haiek igotzen!

Ez nuen etxe blokearen kantoitik atzera begiratzeko burua agertu nahi izan... Beharbada hortxe zetozen!...

Berehala eta presaka jarri nintzen bloke tantaiaren atarrietako zenbakien artean nerearen bila... aurkitu nuen eta sartu nintzen igogailuan, laugarren bizitzako korridore iluneko 4-B inperzonaleko atea jo nuen... eta neska gaztea irten zen!... Lasaitu nintzen! Ez bainekien oraindik nor irtengo zen ate hartatik!... Nor nintzen esan nion bezain laster (ez lehenago, alafede!) irriño batek argitu zion aurpegia eta nire alabarenabera iruditut zitzaidan!

Hark ere aise igerri zidan larrialdia.

Barrura pasa arazi eta eseri nintzenean, zigarrotxo bat erreaz lasaitu nintzen. Gero, neuk eskatu nion, mesedez, geltokiraino lagunduko al zidan, eta ikusi nuen pozik egin

zidala mesedea; bi lagun bezala jaitsi ginen, eta bidean eskatu nion gertatutakorik nire alabari ez esateko, hau kezka ez zedin...

Beherakoan, gazte traste haiek ez ziguten begiratu ere egin.

Hau pasa zitzaidala, bada, orduan.

Nire lehen eskarmentu hartan.

Orain, nire alaba beste ikaskide baten, Nathaliren, helbidea ematen ari zaidanean konturatu naiz beste ikaskideak ez ziola ezer esan, bestela ez zidan enkargu berri hau hain arduragabe, hain laxo, emango:

"Amatxo, erraza da... -ari zait esaten-. Metroan "Montgomery" geltokiraino joaten zara, hemen "Midi" aldera doana hartu behar duzu, gero "Arts-loi"n aldatu eta "Maeelbeck"en geratzen denean, irten, eskuinera har eta jarrai oinez kapera txiki bat aurkituko duzun arte, baina zuk segi zuzen... malda txiki bat egiten duen kalerarte, eta hemen segi bidegurutze bat aurkitzen duzun arte eta hementxe zeuk erdiko bidea hartu eta jaisten zara etxalde batzu, kotxeei sarrera debekatzeko kate batez lotutako bi taket aurkitzen dituzun arte... eta bertan: horixe da kalea, ezin zara galdu!... konforme?"

Baietz esan diot, argi dagoela... Zer esango diot halako estuasunean ikasketetako lanak, eri eta guzti, egiten ari den alabatxoari...

"Ba kale horretan... ez dakit zer zenbaki duen etxeak, eta telefonorik ez du, baina neuk erabili nuen seinale bera hartzazu kontuan: buzoiak dauden bi solairuko etxe horietan, denetan, baina buzoiazen ondoan txirrina dagoen etxetxo bakarra da Nathalie-rena, hor duzu!"

Hartu dut kontu handiz puntu guzti hauen banakako nota idatzia, eta irten naiz.

Metroari dagokion guztia ongi irten zait.

Oinezkoa egiten hasi naizenean, joan naiz puntuz puntu esandakoak betetzen; ondo, baina katez lotuta dauden bi taketak ez ditut aurkitu... Hain urduri jarri naiz aginduak ongi bete nahian... nahastu egin naiz, nonbait! Nahiko iluna dago eguna; aterkiarekin etorri naiz, euririk egin ez badu ere; eguerdia da, baina etorbide nagusitik kanpo, kaletxo hauetatik ez dabil ez kotxe ez inor. Bestalde, ez dut gehiegi mugitu nahi, inguru honetatik kanpora irten eta erreferentzia guztiak galtzeko beldur bainaiz!... Zalantzan nago berriz Metrorako bidera itzulian egin eta berriro hasiko ote naizen... Kotxe bat dator!, eta espantu handiz gerarazi dut, baina nola eskatuko diot orain neronek ezagutzen ez dudana helbidea aurkitzeko modua?!... Halere nire errosarioa entzuten ari dela katea aipatu diodanean... irrifartxo batekin esan dit, ah!, ezetz: "Connais-pas" (ez dut ezagutzen)... Eta alde egin dit! Gehiago mugitu beharrean, bertan zain geratu naiz, ea bakardade isil hartan beste inor pasatzen den... beharbada bazkaltzen ari dira denak! Alditxo batera han dator adineko gizon bat bere txakurrarekin paseatzen. Galdetu diot ea ingurua ezagutzen duen. Bai, noski, aspaldi bertan bizi dela. Etataketak eta katea aipatu dizkiodanean: "Ah!, bai", esaten dit, "baina bada bi hilabete kendu dituztela... "Nire poza!... Non zeuden, galdetu diot, eta gizonak begikotasun hunkigarritz lagundu dit, hurbil... hementxe daude oraindik agerian markak!... bi solairuko etxetxo berdinez osatutako kalea da, bakoitzak bere lorategi txikia aurrean duela. Hemendik aurrera... egina dago! Gizona eta txakura eskertu ditut bihotzez, honi burutik eskua pasiaz, eta utzi naute, joan dira... Hasi naiz orain kale mutur batetik buzoiak banan-banan, kontu handiz, begiratzen, txirrinaren bila orain;

badaezpada ere gertutik behatu behar dut... Laugarren etxetxoan ez dut begiratu beharrik izan, tiranteak eta kapela daramatzen gizon bat belarra ebakitzen ari delako, eta Nathalie-ren etxean ikasleak bakarrik bizi baitira!... Hala, etxe aurretik pasa eta aurrera noala, gizona bera izan da ausarki neri begira geratu dena, eta gero bere lana utzi, motorra geratu, eta galdetu didana:

"Ca va, madame?..." (Ongi sentitzen zara, andrea?)

Hirurogei bat urteko gizon mehe-txiki bat da.

"Bai –erantzun diot–, eskerrik asko".

Eta tirante, kapela eta betaurrekodunak jarri du motortxoan martxan berriz.

Neure bideari segitu diot, geratu gabe, badaezpada ere!...

Honelaxe pasa dut kale guztia, etxez etxe, atariz atari, buzoiairen ondoan dagoen txirrinaren bila, eta kontu handiz arakatu dut hau, zeren eta oso txikiak, diskretuak!, diren txirrinak ere egiten baitira gaur egun... Eta itzulian kaleko beste aldetik hasi naiz gero gauza bera egiten... Somatu dut berelorategiko belarra mozten ari den gizonak ez nauela bistaz galtzen... Eta honetan pipa piztu du, makina geratu gabe, deskantsurako bezala, baina ez da hori... atzeman diot... niri begira jarri baita orain lotsagabe!...

"Tak-tak-tak...", alferrik gasolina gastatzen...

Eta oraindik txirrinik aurkitzen ez dudanez, hasi naiz larritzen, itotzen... Halakoxea bainaiz ni. Eta itzulian bide erdian nagoenean berriz, berriz bere parean, pentsatzen ari naiz: "falta diren horietako batean aurkituko al dut txirrin hori..." Eta honetan, gizonak, orain aurrez-aurre, beste espaloitik, bere motorra geratu eta mundua hustu balitzan bezalako oihartzunaren erditik botatzen dit berriz:

"Ça va, madame?!!"

Nik baietz, berriz, eta berriz "Merçi..." Eta pentsatzen, alabak behar dituela Nathalie-ren apunte hauek... bestela honez gero aspaldi alde egin nuen zulo honetatik!... xagutxo bat tranpa barruan bezala sentitzen bainaiz... eta gizona orain nire atzetik abiatu da... gehiegi hurbildu gabe, baina nere pauso eta geldialdi berak errepikatzen... Ni ez naiz aurrez-aurre begiratzera ausartzen, zeharka begira ikusten dut hura, baina pozik galdetuko nioke nire aldetik zahartxo horri ea "ongi aurkitzen den... "Ez naiz ausartzen ordea!... Bi etxe gehiago ditut aurrean kalea amaitzeko; nire estuasuna!..., ez da beste inor ageri kale honetan eta... azkenean!, txirrina buzoiairen ondoan hor dago geldigeldirik nire zain bezala!... arin joan naiz eta zapaldu dut!... Begiratu diot orain gizonari aurrez-aurre... hor dago irrifartsu, isil-isilik, neri begira!...

Eta Nathalie irten da zarata batekin bigarren bizitzako leihotik; ezagutzen dut, bera nire alaba ikustera etorri zen batetik, eta esan dit goitik: "Ah!...", jaitsiko dela...

Orduan gizontxoan argi eta garbi hurbiltzen zait, orain lotsatuta, esateko: "Hara!, banindoa telefonoz deitzera zure bila etor zitezene... Hemen inguruan dugu deskantsurako edo... psikiatrikoa... eta batzutan ihes egin eta zeuk bezalako gauza arraroak egiten harrapatzen baitituzte..."

Gerrateko lehen kontaktua

Noiztik hasten dira haurren oroipenak?

Haurren memoria-erregistroak ez dira adin berean ernatzen; eta gero haurtzaroan jasotako iragan hori ez dute seguraski pertsona guztiek zahartzaro arte gordetzen.

Oroimenaren mundua misteriotsua da.

Neuk badut, bada, hiru urte inguru nitueneko lekukotasun bat...

Gu etxez aldatu ginenean, nik adin hau omen nuen, eta gogoratzen naiz nola trasteak kalera gurdiz jaitsi zituzten, eta baserritik at zein lekuz kanpo, estrainoak, iruditu zitzaizkidan! Gaur kanguroak hondartzan ikusiko nituzkeen antzeko zerbait... Plazako komerietan legez igo zuten aitona Gregoriok semeari ezkontzerako egin zion armairu handia: soka lodi batetik esekita balkoitik dindilizka, eskailetatik kabitzen ez zelako. Nik aspil bat laguntzarik gabe lehen solairuraino igo nuen ba!; amatxo ondoan nuela egindako balentria izan zen, eta musu handi bat eman zidan; oraindik apa bero haren gozoa masailean nabari dut honen beharra sentitzen dudan bakoitzean.

Etxebizitza honetan jarri ninduten lehen aldiz gelan bakarrik lo egiten; arreba txikia, gurasoenean.

Laster nire barren-esparru bilakatu bazen ere, hasieran beldurra pasa nuen hemen; gauzak igo zituen gizon handi hark bereabarka handiaz korridorean pipiak jotako ohol bat lehertu zuen eta barrez esan zidan hortik irtengo zitzaizkidala gauez sagutxoak!

Ez zait sekula ahaztu.

Bazen lehenengo gauean sentitzen hasi nintzenetik ezin tokitu nuen zerbait: ez nekien zer zen; gero konturatu nintzen usaina zela, "Lasterregiberri" etxearen hatsa zirudien lurrina, eta nahiko berandu ohartu nintzen ez zela etxearen arnasa propioa; gureztat berria zen etxea blaitzen zuen kirats hura aitaren familia guztiari zerion kotoi lurrina bera zen; otoitzak ikastera elizabideko maldan zegoen karteroaneko Kontxa Arretxeren eskolaurrera bidali nindutenean ohartu nintzen hedatua zegoela; "algodonera" fabrika noizpait lan egin edo oraindik ari zirenen seme-alabatxo denak kutsatuta zeuden!... Lana amaitzean turuta potoloa eta sarrerako kanpai arin eta ernegarri hura jotzen zuen fabrika zen hau. Herri erdia handik bizi zen, eta nire izebak ere bai oraindik. Neu hats horretan albardatua izan nintzen, beraz. Fabrikatik pasatzekoan ibaiari jarri zioten presatik igarotzen zen ura ere kutsatuta irteten zenez gero, normala zen bertan arrantzatzen ziren barbo eta aingira jaleen ahoetara kutsu bera pasatzea.

Ibai handia zen berez, eta, asko hazten, puztutzen zen, gora ta gora!, gainezka uholdeetan.

Abesti bat bezala.

Apirileko euri jasa burrunbatsuak eta zorrotan organo metal hotsaren durundiak batera jartzen zirenean, loa galtzen genuen Etxeberrietatik hasi eta Zumea, Bastero, Bazkardo eta Arrantzu bitartean bizi ginenok!; ura zirrikitu guztietatik abidan igotzen zen, kafesnea ogian bezalatsu, eta gauez aita kantzontzilo luze haiekin oso maiz jaisten zen ea noraino goa zen ikustera. Hautsitako marken urteak herriaren memorian

geratu ziren, eta azken uholde honetan aitatzok egindako okela moztutzeko ohol eta erraminta-kirten eta arropa esekitzeko kakoak uholdearen zurrumbilo artean aroztegiko atetik ihesi zihoazela ikusi genuen leihotik etxekoek, ezinbestean. Lantegia hustu eta gero ur uher hartan kola bezalako lokatzari erantsita geratzen zena, hondamena zen!, eta kirats hura beti!..-.

Ordurarte, nire jostailu bakarra gomazko pilota gorri bat zen; haizeak ihes egin eta malgotua; nire eskutxo batekin hartzen nuen aise, pentsa!, eta paretaren kontra botatzen nuenean, etxe-inguruko guztiak bezala bote bizia egin beharrean, nireak "plast" egiten zuen. Hau dut oso gogoan. Eta nire gelako apaingarri gisa nire aitona Gregorioren purgatorioko sua erakusten zuen kuadro gorri bat josi zuela aitatzok iltzez nire oheburuan, eta ez zidala onik egin, izu handia sartu baizik. Bestalde, gelako paretetako itxura harrigarritz eta alda-korrez inguratua sentitzen nintzen... azal kaskarilatu hartan buru handi begibakarrak, beluntziak, leihoak eta labanadun gizon itsusi handi bat ere bai, Baltasar dendaria...

Nire beste izua!

Eta laster herrian gerra sortu zen!

Honek gainditu zituen gainerantzeko zirrara guztiak.

Halere, garai hartako dena magiaz argitutako zerbait bezala geratu zait... Beste askori osorik ezabatu zaizkien adin honetako gauza harrigarriak, zergatik geratu zaizkit niri memorian, eta batzu gaurkoak balira bezain fresko!!

Batez ere orain suspertu zaizkit erreskadan, betirako etzanda geratu naizenean!...

Bada... gerra, hara: nire gela honen atek korridorera ematen zuen, justu sukaldeko atera. Aurrez-aurre zeuden. Gaez, oheratzen nindutenean, horko argia zen nire eguzkia, eta ni oraindik esna nengoela itzaltzea suertatzen zenean gau beltzaren beldurrak inguratzen ninduen.

Batez ere esandako pertsonaia eta animalien barruti beltzak.

Batzutan loak hartzea asko kostatzen zitzaidan, eta orduan nahi gabe ere entzuten nituen gurasoek beren artean eta hauek bizilagunekin zituzten ihardunak. Baziren ulertu ezinaz moteltzen nindutenak, bere horretan loak hartzen ninduen arte, eta baziren beste batzu... Behin batean, ama bakarrik ari zen ahapeka abesten (hau zen orduko irrati bakarra), hain iaioa zen galtzerdiak eta jertseak egiten ari zen bitartean, eta aita sartu zen pauso azkarrez (atariaz gero sentitu nituen abiadan eman zituen oin puntako jausiak) eta sukaldara heldu bezain laster esan zion amari:

"Goizaldean irten behar dut".

"Nora?"

"Mendira...", eta aitak nire gelako atea hertsu zuen. Honek ernetu eta ikaratu ninduen!: "Aita!... "; aitak, etorri da, ohean eserita ikusi nindutenean musu eman zidan, eta neuk eskatu nion: "atea, ez!..." Orduan atea erdi irekita utzi zuen; zirrikitu honetatik nire oheraino sartzen zen argiak Baltasarren ganibetadazirudien, eta nire belarriek jasotako hitzak ere bai... zera entzun bainuen, aita gaez irtengo zela mendira, han ere gerra zegoelako!...

Nik gerra kontu berri hau oso urduri neraman.

Gauza asko ari nintzen entzuten azken egunetan, eta burni-txapaz eginak ziren kamioiak ere ikusten genituen gure etxaurreak kalerantz zuen balkoitik, eta korneta-turutak ere entzun nituen gerrara joan behar zuten herriko gazteak biltzeko...

Baina gazteak, soldaduak, ez nere aita!

Eta zirudienez, orain herriko gerra mendira irten zen, gure baserrira...

Honetan argia itzali zuten eta kalera ematen zuen etxeko beste puntan zegoen bere gelara erretiratu ziren. Gau ilun hartan ezin ninduen loak hartu, luzaz egon nintzen urduritasun honetan, kuluxka tarteko seguraski, baina aitatzok ateko "kris-keta" kontu handiz ireki bazuen ere, somatu nuen alarma nire buruko nonbait, eskailerako zuraren negarrak, atariko ateari kontu handiz bultza egin zion arren, mailukoak: "nak...", jo zuenean, ni aitarekin nengoen dagoeneko, ez dakit nola... baina han nintzen, komaidios...

Hau gero ikasitako hitza bada ere.

Iragana eta gaur arteko geroa, dena dago nahasian txertatua nire gaurko gomutardatz lodi honetan...

Aita, beti bezala makutsik, txapela buruan eta mendirako makilarekin zihoan, eta orain... Afrikako gerran ibilia zela banekien!..., errebolber bat zeraman gerriko alkondarapean. Kaleko argiak itzalita zeuden, baina ikusi genituen udakoilargiaren argitan etxaurreko tranbiaren zentrolean bi gazte eskupetekin, eta dozena erdi bat gizon Estanixen bizartegiko eskaileretan eserita, batzu eskupetaz armatuak, eta hara bildu ginen aita eta biok.

Hitzegin zuten.

Eta irten ginen; trenbidea pasa eta mendi gora abiatu ginen "Nafarroako mugaren" hila, han esan zuten (orain, berrogei urte geroago ere, gogoan dut) han zeudela kontrarioak.

Non?

Hau zen aitatzok aurkitu behar zuena.

Ni oso kezkatu nindoan, zeren eta aitona Joxemari nafarra baitzen; bigarren karlistadan etorri, nire amona hernaniarrarekin bertara ezkondu eta gero biak Hernanin ehortziak izan ziren. Aitona Joxemari, hil berria; neu bere bizar zuriarekin askotan jostatzen nintzen, eta beti begirada gogoz hartu eta musu ederrak ematen zizkidan San Jose bezain zurgin zen nafar honek!... Nola joango zen orain nire aita, amatxoren familiaren kontra, eta halako gorrotoarekin! Hau zer da!... Baina eskaileran eserita zeuden gizonak horretara bidali zuten; gainera "kontuz!" Joxemari Orradre nafarrarekin!, esan nahi izan zioten nonbait, gutxienez, peligrrosoa zela, zeren eta aitari armatuta zegoen gizon baten laguntza eskeini ere egin baitzioten; makutsik zihoan aitak ezetz esan zien, halere, zeren eta honek ondo ezagutzen baitzuen, Nafarroako mendiak bezala, bere aitagarreba eta honen familia ere, eta ezetz erantzun zien, bakarrik errezagotako eta seguruago ibiliko zela.

Nik berehala pentsatu nuen ez zuela aitonaren hiltzailerikondoan nahi...

Justu esana, inor mindu gabe!

Agian bazekien dagoeneko ni berarekin nindoala ere... Nolanahi, aitak, zango laburrak arin, di-da!, lehen izerdia bota zuen, ohi zuen bezala, eta deskantsuan ilargiaren argitan begira geratu zen bere jaioterrira, orain gerraren mamuak mehatxatuta... Berriz:

di-da!, auzo bateko ermitaurretik "Aitaren" egin eta baserriko zakurren zaunkak Jagun jarraitu egin zuen, genuen. Halere, elizako muga honek zerbait esan nahiko zuen, zeren eta hemendik aurrerakoa bidetik irten eta goitik edo behetik ingura-mingurak egiten hasi ginen, zangoak ihintzetan blai!, hau ere gogoan dut. Orduerdi batean asko ibili zen, eta nekatu zenean, eseri eta galtza bustiak bildu zituen belaunetaraino, telaren igurtziaz egiten zuen "dza-dza" zarata hura ilunpe isilean asko entzuten zelako.

Mendian nonahi, zuhaitz baten atzean, sasitarlean gordeta, egon zitekeen apuntatzen arerioa...

Deskantsuan hartu genuen arnasa sakona; herriko hatsa uzten duenak gozoki betetzen ditu birrikak mendi gainean belar onduaz lurrindutako aire gozoarekin, eta aitari hauspoa lasaitu zitzaionean, zer entzun geratu zen, begiak itxita, adi! Gauez, zaratak eta soinuak entzuteko diren belarriek argiago ikusten baitute ilunbetan ezertarako balio ez duten begiek baino.

Isilunea ez zen osoa. Mendiak bazuen bere gurgurua, entzuten nituen belazeetan bizi ziren kilker kantik eta hontzen uluak eta zomorro eta piztien solasak; esna zeudenak, txoririk ez oraindik!...

Abiatu zen berriz aita; eta ni.

Gehiegi igo gabe mendilepoa inguratzen ari ginen, orain mantso... Instante hartan geu begira ez geunden norabidean argi bat piztu zuten!; hark dei bat egin nahi izan baligu bezala joan zitzaizkigun begiak gain hartara; argitxoari begira ilunpean gaueko marmar gozo hartaz inguratuta geundela, negartia zen zaratotsa entzun genuen; aitak makilarekin sasi-tartean lekutxo bat egin eta gurdibidea goitik behera ikusi ahal zuen tokian sartu zen, geldirik han; ni berarekin; zain orain aita eta besoan irten zitzaion odol tanta xurgatzen, eta ni arantzak ukitu ere egin gabe! Zarata negarti hura hurbiltzen ari zitzaigun, gugana zetorren, baina nekez, bihurguneak hartzekoan, zarata joan eta etorri egiten zen gurdibidetik, astiro.

Guk bertan itxaron genion; ni beldurti... eta hor dator aurrera, gorantz, belarra gainezka duen gurdiaren aurrean, itzaina... Ilargiaren argitan, aitak ez zuen ezagutu oso gertutik ikusi ahal izan zuen arte... "Ximon...", esan zuen beretzat; baina zuzenean agurtu beharrean utzi egin genion pasatzen; jaitsi ginen belazeetatik, itzulerako bidea hartu, eta gain-gainetik hartzen dugu berriz gurdibidea, gero jaisten ditu aitak galtzetako azpantarrak eta hor doa, goaz!, beherantz, eta, noski, topo!, nik ezagutzen nuen baserriko bizilaguna:

"Ximon, goiz egin dituk baserriko lanak..."

"Eta hik zer egiten duk hemen, bizi dugun liskarrune honetan eta bakarrik?... (ni ez ninduen ikusi!) goazemak gain hartaraino, idiak maldan alferrik neka ez daitezen... eta aurreratzen zaio pauso handiz gurdiari eta hapez esaten dio aitaxori, "gain horretan txapel gorriak eta guardiazibil bat heldu hituen atzo..."

"Non?", galdetzen dio...

"Atzera begira ezak, argia piztu berria duten baserrian, badakik orain non, eta eguna argitzen den bezain laster tirokatuko haute hemen untxi galdu bat bezala, alde egin ezak etorri haizen bidetik... Eta "aida!", jasotzen du ahotsa eta diak bizkortzen ditu eztenaz, gurpilak kurrinkan... "Ez ezak ahotsik jaso, eta itzul hadi!"

"Gure baserrira heldu al dira?"

"Oraindik ez, behean dagoelako; horiek goiak ari dituk harzen, eta egunez bide hauetatik mugitzen den guztia botako diate laster..." Hau esanik heldu gara gaineko deskantsura, baina Ximonek aurrera jarraitzen du, "aida!...", eta idiak ere aurrera... Ximoni ez zitzaion gustatu, baina aitak bere lana egin behar zuen eta galdetu egin zion oraindik:

"Nola jakin duk gain hartako berri?"

"Nire alabak biltzen dik goizean hango esnea, badakik, eta atzo ikusi zitian bertan. Nagusia, Aldaba, izututa aurkitu zuela, baina, noski, ongiatorrian gosaria ematen aurkitu zian Joxepa, emaztea..."

"Zenbat hituen?"

"Esan bezala, guardiazibil bat, Mauserrarekin, eta honekinhiru gazte, mosketoi labur horietakoekin, nik ulertu nionez; ez hituen ezagunak, nafar euskaldunak, hori bai..."

"Ez al zioten hire alabari galderarik egin?"

"Ez, hamabi urte zetik, ezagutzen duk Inaxi, eta bertako bezala ibiltzen duk han... Ez, ezer ez; armak ikusita izu batean etxeratu baizitzaigun ere..."

"Eta jaitsi al zen esnearekin Billabonara?"

"Bai, beti bezala... oraindik; baina ez zekiat zer egin: esnetara bidaltzen badut baserrira, eta gero esne horrekin Billabonara... noizbait gertatuko duk gertatu behar duena... Nire alabak Billabonan ikusi baititu gorriak kamioietan mehatxuak botatzen ere!... zer deritzak hil!?"

"Ni aurrera niak".

"Mesedez, alde egin ezak hemendik, hire lana bukatu duk; badakik non dauden, eta hau gehituz joango duk... Bidea ezagutzen diate, etorriko dituk besteak..."

"Beste non sumatu dituk inguru honetan?"

"Esan bezala, goiak hartzen ari dituk oraingo, Billabona edo Andoain aldera dauden baserrietara ez diate, nik dakidala, txapelgorririk edo guardiazibilik bidali... Hortik gora, berriz, ezagutzen duk heuk sobran giroa, kontuz!"

"Hik atzokoa esan didak, eta gaur?"

"Gaur?, nire alabak jakingo dik goi hartan zertan dauden; eguerdian ikusi diat etxean".

"Beno, bania..."

"Kontuz ibil hadi!, eta, egia esan, ez niake hiri gure inguruan ezer gertatzerik nahi... eta ezta niretzat konpromezurik ere, eh!..."

"Hi egon hadi lasai...", eta aitatzok bidea utzi eta itzulerakoa hartzeko keinua egiten badu ere, laster hartzen du lehengo bidea, baina orain, eskuinetik beherantz, errekaraino, eta oinak uretan, ur gutxi uztailean, eta ur hotza!, halere, edaten dugu gogoz, eta ezkerre hartu eta igotzen gara errekararen lagun bezala beherantz datorren gurdibidera, eta han, bidearen ezkerretik, sasiak hor baitaude, gorde da, gara!, goitik beherako bidea ikusten dugu puntu ezkutu batean.

Neuk Ximonen alaba ezagutzen dut, Inaxi, maite dut...

Goseak jota gu, eta aspertu ere bai, baina azkenean han dator, goitik behera, astoarekin, bera izango da, aitak ere ongi ezagutzen du, noski, eta astoa, kla, kla, oinazkalekin harrietan estropozoka, eta marmitak klin-klan, hurbiltzen denean, aita,

betiko moduan, inor ikaratu gabe, behetik gurdibidera sartu eta gorantz bidetik goazela topo egiten dugu naturalki:

"Goiz zabilta esnearekin Inaxi... Billabonaraino?..."

"Bai", lehor samar erantzin digu.

"Jakin nahi nuke ea atzo goizeko hiru txapelgorri eta goardiazibila oraindik han, "Arbizan", dauden, gaur goizean han ikusi dituzun..."

"Atzo ez nuen nik 'Arbizan' inor ikusi..."

"Ah!, eta gaur..."

"Gaur ere ez, etxeakoak daude beti bezala, beste inor ez".

Azkar ulertu du aitak: Ximon ari da gezurretan!

Neska agurtu, bere bidean utzi eta etorri garen norabidetik itzultzen gara, baina orain, goiko baserrirako bidea begiz galdugabe; begi iratzarri haiengandik ihesi, ezkutuan!

Niri kezka bat sortu zait: "Arbiza" dagoeneko Nafarroa ote den...

Bidean goazela, ilbetea zeruan ezabatzen hasi dela konturatu gara; txoriak esnatzen, ekialdetik su gorri bat ageri da Adarra mendiko bestaldetik, aitari irakurri dizkiot begietan gauza horiek denak; gu gehiago igo gabe inguratzen ari garela, orain mantxo eta baserrien bistatik itzuli eginez gabiltza, eta behetik gora ikusten jarri da aita, ni berarekin.

Belarrez kargatutako gurdia han doa aurrean, ipurdiz ikusiko dugu. Haizeak harantz jotzen duenez, ez dugu entzun. Ez dugu oraingo honetan Ximongana aurrez-aurre hurbildu nahi, ikusi nahi dugu belar hura nora eta zertarako doan harantz. Etxera eramane beharrean, etxetik kanpora darama belarra! Eta gerrate honetan. Ia goiburura heldu da, eta heldu denean... Ezkerrera karobia dago, eta han geratzen da Ximonen gurdia. Aitaxok ez du inguruan dauden baserrietara agertu nahi, eta beheragoxetik joanez karobiaren beste aldetik ikusmiran geratu da, gara, zain. Zeren zain?, diot nik, baina aitaxo susmo txarrak hartu duenean... Ximon idien ondoan zutik dago, zerbaiten zain bezala, batera eta bestera begira, urduri. Egon da alditxo batean Ximon ilargiari begira ere, goiko argia seinale bat bailitzan... Eta haizeak hitz bat ekarri dit niri, aita ere ohartu da... Laster beste norbaitek ere egin du hitz, eta aita ingurura begira dagoela hor irekitzen da gurdiko sabel berdea, eta erditzen du gazte bat kartutxera eta guzti... Entzun diogu Ximoni esaten: "Orain, azkar!...", eta zulo beretik irteten dira beste hiru; azkena, guardiazibila!!; fusilik gabe... baina laster ateratzen dituzte belarretatik armak, eta bakoitzak berea hartu eta abiatzen dira ermitarantz eta han ateari bultza egite hutsarekin ireki zaie... Hor badute gipuzkoarra den gaizkile bat!, eta barrutik bultza egin diote ateari.

Ez dute giltzaz itxi...

Ximon hor geratu da idiekin eta gurdi belarrarekin, orain nire pelota gorria bezain malgotua, pelota erdia...

Eta idiekin itzulia egin eta etxerantz abiatu da.

Aita amorru bizian!, baita ni ere...

Zer egin behar dugu? Batetik, herrian esan behar genuke abidan, lehenbailehen, lau gizon armatu sartu berri direla Goiburun, herriaren gain-gainean, eta hori lauzpabost ordutan konpainia bat izatera hel daitekeela beste hainbeste fusilekin herrira

jaisteko! Ez baitakigu Ximonek zenbat bidaia egiteko asmoa duen, edo zenbat gurdi abiatu diren dagoeneko Nafarroako baserrietatik beherantz... Eta, bestetik, ezin gara Ximon faltsuari zerbait egin gabe herrira itzuli!

Egunero esaten zen: gerran, gerran bezala jokatu behar da, eta guk botatzen ez genuen arerioak botako gintuela. Ni harriturik nago aitaxoren logika honekin! Eta aitona Joxemariren herrikoak zer!, zergatik bota behar dira, eta nora!, honek ematen dit min!

Bestalde, egia da hori, neuk ere egun haietan entzuten nuen gauza bera...

Honetan bagoaz atzetik, errebolberra eskuan orain; beherantz joaten utzi nahi diogu itzainari oraindik, garraxi edo tiro batek berehala sala zezakeen guztia, eta lau gizon armatuen aurrean!, akabo!... Ez, segi atzetik, atzetik, eta honela, eguna argitzen ere hasi den honetan gurdia bere baserrira iristen ari da... kezka larri bat sortu zaigu: nola hilko dugu Ximon etxean bertan, familiaren aurrean!..., gurdiaren atzetik irten eta jauzi batean jarri gara itzainaren aurrean.

"Gera hadi, altxa besoak eta hator gurekin gorantz..."

Ximon asaldatuta geratu da; gurdia ere berez gelditu da.

Hau matematikoki gertatzen dela ikusi dut.

"Hator gorantz, gora!, engainatu nauk, eta bizitza asko zioke jokoan, batez ere gureak, horiek baitira armatuak daudenak eta gure aurka datozenak!... Ez zak ezer esan, segi zak gorantz!..."

Ehun bat metro egin ditugu isiltasun larri honetan.

Ximon lurrera begira.

"Eseri hadi hemen", esaten diogu, "esan ieza dak zergatik egin diguan zerrikeri hau!..."

"Ez al haiz konturatzen", dio Ximonek apalki aitari, (hark ez baininduen ni ikusten!) hirekin hizketan nengoela nik aipatutako gizonak armatuta zeudela, ni behartuta nentorrela!"

Zuri-zuri dago aitari begi larriz begira geratu zaionean.

Ulertu dugu Ximonek dioena, hau egia baita, honi esker baikaude bizirik.

"Orduan, alabak esan zidak gezurra!"

"Eta zer esatea nahi duk ba hamabi urteko neskatxak, bi suren arteko estuasun larri honetan dabilen haurra, bere aitaren bizia jokoan?"

Aitaxo isilik geratu da lehen aldiz; ni, bere barruaribegira, eta gero esaten dio, oraindik bihozgabe: "Baina hi ezin haiz gerra honetan bi alderdietakoekin trapukeriatan ari, aukera bat egin behar duk. Pentsatzen nian abertzaleekin hengoela, ni itsu-itsu nentorreen hainbeste urtetan baserriko laguna izan denarekin hitzegitera, laguntza eskatzera, baina orain ez zekiat pasa haizen edo pasarazi hauten; nola nahi, erabakia hemen hartu behar duk. Gu hiltzera datozen horiekin bahago, guk, neuk hil behar haut orain. Gurekin horien aurka jokatzeko erabakia hartzen baduk, berriz, elkarrekin joango gaituk oraintxe ermitara, eta hor akabatuko zetiagu.

"Nik ez diat ez fusilik eta ez pistolarik, heuk badakik hori!", esan du Ximonek azkar, azkarregi...

"Eskupeta baduk!", ekin dio gogor aitak.

"Bai".

"Etxera jaitsiko gaituk, hartuko duk hirea, nire aurrean eramango haut, hik ikusi: hemen hilko haut, edo lagundu iezaguk laukote hori harrapatzen, hor gehitu ez daitezen!... ba al duk hauen atzetik besterik!

"Nik dakidanez ez... neri ez zidatek azalpenik egin".

"Asmoa hori izango duk!; ustegabea hartzen baditugu, edo hiltzen, beste erremediorik ez badago... Badakik, gainera, hemen tiro bat bota eta inguruko baserrietakoak gutarrak direla, jakingo diate nondik nora habilen... Zer esaten duk?"

"Goazen eskupeta bila..."

"Hi aurretik... Nor zegok etxean?...", aitatzok arrazoi zuen mesfidantza hau erakusteko... eta bere etxea guardiazibilez betata badago! Aitari ikusten nion sospetxa eta Ximoniabilezia... "Andrea, badakik", esan zuen honek, "alaba zaharrena Billabonara jaitsiko huen esnearekin, eta ezagutzen dituan bi mutikoak, haurrak... etxeok, beste inor ez..."

"Goazen", esan zuen aitatzok, baina susmo txarrez...

Hala, kontuz, baina bagoaz, hemen daramagu hurbil geratzen den baserriraino; esne egosi berriaren usaina dago; emaztea izutu da sukaldean, haurrak oraindik lo, dioenez...; ezagutzen bagara ere, errebolber hark aldatu du giro guztia: "Ez duzue beste inor etxean?", galdetzen dio aitak emakumeari... "Ez, ez...", eta Ximon gurekin doa gora, gelara sartu eta dozena bat kartutxo eta eskupeta hartu ditu, aitatzok inguruak miatzen ari den bitartean, eta elkarrekin jaitsi eta emaztea agurtu dugu, senarra laister itzuliko dela eta...; emaztea izututa dago eta Ximoni eskua hartu dio; gizonak eman dio musu bat bekokian... "banator", esanez.

Ni neu azkenalditxo honetan ez nago osorik aitarekin.

Gogorregi ari dela deritzot!

Igo gara, Ximon zuzen portatzen ari da, baina gu, susmo txarrak hartuta susmari...

Hau bidali du aitak aurretik ermitako atea bultzatzeraz, eta han ikusi ditugu lauak eskuargiz plano bat aztertzen, hizketan... Geuk tira dugu lehen tiroa, azkarren mugitu denaren gorputzera..., goardiak pistola bait zuen fusilaz gain, eta hau bere magaletik hartu eta tiro egiteko keinuaz ohartu garen bezain laster... geuk zapaldu dugu gatua hatzez, gogor, instantean!!... Orain ikusi dut: aurrean mehatxatzen zaituenak edo zeuk hil behar baduzu, zeuk tiratzen duzula lehen... ahal baduzu!!!... Izugarria da haurtxo batentzat instanteko erabaki hau hartu beharra!!... Baina neuk ere, besteek bezala, izututa tira egin dut... Beste hirurek, nafarrak!!!, hau banekien, eta ez dit era berean odolak eragingo!... Eta horiek oraindik aldarearen ondoan dauden beste lau arma luzeetara botatzeko begietan grina ikusi diedanean, hartzeko keinua egin dutenerako tiroa gora bota dugu, nire garraxi batekin!, eta hirurak besoak jaso dituzte...

Ximon, eskupetarekin... apuntatzen bakarrik!, eta laster bildu da auzoko baserrietatik jende mordoa, alarman...

Geuk haietako bati deitu: "Pedro, har itzak lau armak; gurekin jaitsiko haiz herrira..." Halaxe egin du Pedrok, aitatzok argia isladatzen zuen txapel arraro bat ondoan zeukan belar koloreko bulto handiari begira zegoen bitartean.

"Nork du ermitako giltza?", galdetu du orduan aitak.

Giltza sarrerako zulo batean zegoen, ekarri diote aitari.

"Nork utzi du ate hau irekia?", galdetu du aitak.

Han bildu direnetatik inork ez du ezer esan. Orduan Ximonek hitzegin du: "Nik neuk utzi behar izan nian bart, herritik gora nentorrela, nire familia osoa mehatxupear zegoelako..."

Mundu guztiak ulertu du.

Aitak galdetu eta gainera berak ikusi du ea ermitan ihes egiteko moduko lehiorik badagoen, eta ez dagoela egiaztatu ondoren, aitatzok berak arakatu ditu hiru mutilak, eta zeramatzen paperak eta besteak kendu.

Guk esan diogu mugitzen ez den guardiazipilari:

"Ya vendrá un médico...", ez baikenekien non jo genuen ere, baina korderik gabe zegoen; beste hiru gazteak, izututa oraindik eskuak buru gainean, niri ematen zidaten pena nafar haiek!, eta aitaren ahotik irten zitzaidan: "Zuek eseri, eta lasaitu, ez zaizue ezer gertatuko; ez dadila inor mugitu... euskaldunak zarete..."/"Bai", esan du nagusienak, hogei bat urte. "Etorriko duk norbait deklarazioa hartzera eta eramatera".

Gero, itxi dituzte ermitan lau gizonak.

Giltzarekin kanpotik itxi eta atean jarri ditugu auzoko bi gazte beren eskupetekin guardia egiten.

Auzotar guztiak inguruan!

Orduan geuk Ximoni eskerrak eman dizkiogu denen aurrean, gauzak garbi gera daitezten, eta herrira jaitsi gara jende armatuaren bila.

Hala hil genuen, neuk ere bai, inoren gerrak sortutako lehen eta azken gizona.

Nire aita hil zen aspaldi, on asko eta kalte gutxi eginda; ez baitzuen inoiz heriotza honen berri izan. Baina neri ez zait ahaztu orain berrogei urte, hiru soilik nituela, nola aita, beste norbaitek piztu zuen gerrate hartan, mendira igo zen egunean neuk, ametsetan bada ere, errebolberraren gatiluari tiro egin eta gizon berde hura nuen...

Hori dena amets bat dela, nork sinetsi gaur ordea!

Neronek ere ezin dut eta...

Gertaera honekin, Klementina jostuna, gure bizilaguna, hilzen hartan ikusi nuenarekin gertatzen zaidan kezka bera sortzen zait orain..., orduan ere argi asko ikusi nuen jostuna zen anderearen arima goruan haria biltzeko erabiltzen den ardatza hariz betea, ontasunez betea!, xuxen-xuxen, etxeko zorrotaren xuxentasun beraz eta ondotik zerura igotzen.

Neuk balkoitik ikusia, komaidios.

Ba, orain, joan den larunbatean zortzi, goizean goiz, nik oraindik gaua zela uste nuela, baina auzoko ihardun zaratatsua entzuten jarri nintzen, ametsetan bezala, esnatu gabe oraindik, eta mundu xuri hartan bozgorailuak, ahotsa metalikoa baitzen eta gure hizkuntza ez zen beste batean esana... eta emazteak, Felixak, esan zidan nire ondotik, ohean: "Joxe, horiek guri ari zaizkigu mehatxuka!..."/"Guri?, zergatik?...", eta jaiki nintzen oraindik iratzarri gabea... lauak ziren, goizaldekoak, hori ikusi nuen erlojuan, eta bapatean nire izena entzun nuenean!... leihoa ireki nuen, ez zitzaidan inongo maliziarik burura etorri, eta adierazi nahi izan nien eskandaloan zetozenei, nornahi zela,

ea zer gertatzen zen... nire begiak faroaren eguzkitan itsutu!! eta..., tiro!, tiro-tiro-tiro... erreskadan, eta... grua erraldoi baten burdinezko esku-palarekin belarrondoko bat eman bailiran sentitu nintzen akabo!!

Esan didate... Felixari irten zitzaion garraxia herri guztiak entzun zuela... Baina neuk belarrondoko harrez gero ez dakit ezer. Ikus zein laburra den orain lehen hain luzea izan den nire memoria... Zulo handi eta xuri bat dator gero, xagu beltzak irteten dira ehundaka solairuko zulo hartatik... Baltasar dendariaren laban handi hura ere berragertu zait... eta hemennago etzanda, hau da dakidan bakarra..., lotua, nonbait, ezin dut hatz bat mugitu, kaskoan porraz norbaitek hiltze handi bat sartzen ari zaidan bitarte honetantxe: "danba!, danba!"

"Nonbait ari duk... eta beste bat ezin daitekeelako berbera izan... esaten ari zait: 'Egon lasai, ondo zaude!...' Ondo, ez dakit zer den hori, bestetan ere esan izan didate gauza bera eta... ez baitut gorputza sentitzen... 'Felix, Felix!... Zu ez; zu ez zara nire andrea...'. Isiluneak esaten dit ez dela bera nire ondoan dagoena".

"Ez, ez dago hemen; Erramuna, koinata, nauzu, egon zaitetz lasai, semeak ondo daude..."

"Non?"; diot nik, baina ez dit entzuten nonbait...

"Señora, salga de aquí..."

"Ni konturatu naiz Erramuna nire ondotik atera eta bota duen ahots arantzatsu hori ez dela laguna; aitzitik, tiroak bota dizkidan ispilu beltzekoarena bera dirudi... Non ote da Felix?... Zergatik tira didate?... Aita difuntuak arrazoi zuen, bai, elkarrekin gerrako mendira joan ginen hartan: Lehen botatzen duena geratzen dela bizirik... geuk egin genuen tiro hura... ametsetan, nonbait!... Semeak ondo daudela, eta Felix hil dela... neuk baino zorte hobea izan du kopeterdian asmatu badiote!..."

"Nola egingo dut bada negar, begiak non ditudan ez dakit eta..."

"Hau dena ametsa balitz!"

"Gizagaixoa gure herria, gezurrezko ametsetan bizi nahiago duena zoritzarrezko egia maltzur honetan bizi baino!... ldatzial duzu esan dizudan guztia...?"

"Ez, grabatu egin dizut..."

"Ah, beno... ez dut besterik nahi; bizirik irteten banaiz, neronek argitaratuko dut zinta hori; bestela, Tomax, egin iezadazu zin zeu arduratuko zarela eginkizun horretaz. Gure herritarrek, eta arrotzek, denek, jakin dezaten nola izan diren gerra honen hasieratik gaur arteko martirioak..., neuk ez dut besterik nahi. Egiaren atetik pasa behar dudana une honetantxe, neure eta neure aitaren eta neure herriaren lekukotasun hau eman nahi dut".

"Izango dira besteak ere, noski, baina hau ez dadila falta..."

Eta agindu bezala hona hemen hilberria denaren manua bete.

Tomax

Hilaren berri freskoak

Uda bete-betea zegoen.

Amabirjinaren eguna zen, gogoan dut.

Donostiak baditu itsasoaren erasoetatik babesten duten bi mendiska eta Santa Klara irla. Mendisketatik ezagunena, Orio eta Zarautz aldera begira dagoen Igeldo da: hor dago kokatua mila urte dituen izen bereko herri polita, itsas-zabaletik askotan bila ibiltzen diren 50 kilometrotara ikusten den argia proiektatzen duen faroa, meteorologi-behatokiarekin, eta baita geroxeago haurrentzat eraikiak izan diren jolas parke ezaguna eta hotela ere. Bestea, Ulia mendia da: Donostiako Gros auzoan dagoen hondartzatik hasi eta Pasaiako kaiaraino luzatzen dena; mendinaban, harriak: udan itsas uretan freskatzen egoten direnak, eta negu beltzetako itsaso haserrearen eraso gogorrek jasan behar izaten dituztenak.

Ongi ezagutzen zituen Ulia menditik eguzkitan beherantz zihoan urpekari gazteak itsas-bazter honen Mendiolako hondartza, gero Monpaseko muturra eta bien arten dauden ageriko harkaitzak eta harriak, eta batez ere itsasbarru horretan ageri ez diren, baina mundua mundu denetik hor dauden itsas behera osatzen duten itsasondarreko harrizabal erraldoiak.

Itsasoak hemen duen ohe laua.

Horko ur gardenetan sentitzen da gaztea pake ederrean.

Pake hau ez da, askok uste izan dezakeen isiltasunaren eremu busti antzua; ez da ezereza; hau, hutsa, lurpeko zizare eta harren mundu hilaren hustasuna edo infernu galdua da agian, baina itsasoaren erraiek bizirik diraute gizakiaren eskusartzerik gabe ere, agian honetxegatik; itsas ura berez da bizia, itsas-joaira bizian iharduten du isurki gazi-betea duen gorputza, eta badu bere musika, adar musikari misteriotsu baten dei zoragarria entzuten ahal dio adi jartzen denak; aspaldidanik entzun izan dioten itsas neskaren fantasia zaharrak izan du egiazko sirenotsa barruan!; antzinako gorputzik ez duen doinu zoragarri honetatik asmatuko zuten seguraski bere begien itsualdirako lilura zoragarri hura!

Baina hau arrainen mundua da.

Ah!, itsaspekari gaztea arrain balitz!...

Hau dena ez da Ulia mendiko hegaletik edo itsas bazterretik ikusten, ezta amesten ere!

Igeldo menditik ere ez.

Kontxako uhintxu epel-hezietan geratu diren bainisten begi itsuetatik gutxiago.*

Itsasbazterretik ikusten dena, gaur bezala, itsaso harroa da; uhinek bere pauso borobilarekin gainazalean sortzen duten hori ez da aparra, ezta bitsa ere, biak gizakiaren apar hilak baitira, lerdea agian!, baizik eta itsas joairak jolasean dabilenean sortzen duen eta osasun eta kemenaren seinale den itsas apar zuri garbia da; edo, bestela, haserrearen zinezko oharra. Itsasabaleko arrantzale denak badaki biderik gabeko itsasbarrurantz ausartu aurretik itsasbehe horien harrizabal tanatien gainetik uhinek adierazten duten seinalea ikusten, eta uhinak hirutik, Trinitatetik, gora kokatzen badizkio, oso haserre

dagoen seinale dela. Hori hala da. Baina hori Trinitatea oso axaletik hartzea da; bai baitaki itsas gizonak arriskua duela lagun beti arrainak hutsean alitzen dizkion itsasoan, eta horrelakoetan, gaur bezala, behin urpean bere borondate eta gustoz sartzen zaiona, horretan trebatua bada, itsasoa maite badu!, ez arrainengatik bakarrik, eta itsasoak gizona bera onartzen noski!, hori hala bada, itsaspekariak badaki urpean bareago dagoela sarritan haizeak harrotzen duen itsasgainean baino.

Arretaz egin behar duena da, beraz, gain-gaineko itsasotik barrutikoaren bereizketa.

Gomazko jantzi beltzez eta oxigeno bonbona bizkarrean duela urperatu aurretik orain urgainean igeri doanak, uhinaren gurpilera kontu handiz sartzen joan behar du gorputzez eta besoz, badaki uhinaren gurpilari arreta handiz jarraituz bakarrik sartu ahal izango dela itsasoaren bihotzean, bere nahikaria batere kontrariatu gabe; bestalde, orain gazteak urezko gurpil borobil kementsu horri barrutik, bere gorputza ere urezko bihurtu balitz bezala borobildu eta gurpil kementsuari jarraituz, barruan sartu eta uhin tantaiarekin bat egin behar du..., une honetan barruko sentitzen ez dena kanpoan geratzen baita, bainaiz, eta akabo!... Beraz uhinaren zatitxo bat sentitzen naizenean, azaleko uhin handi horiek itsas hondarreko harrizabaletan hausten direnean, ur asko da hor dagoeneko, eta urjauzia bezala mugitzen daborobilean eta gero txaflanean bezala, harrizabalean irrist egiteko, kemen handiz... eta hara!, arnasa hartu nahi dut eta ezin dut, uhinak nik baino arnas luzeagoa duenez gero, honekin batera egiteko zain egon behar dut... eta bitartean gorputza alderdi guztietatik zapaltzen didate urmendiek... ezin dut gehiago... uhinaren konpasa galdu dut!... Goragoko beste norbaitek ahoa betiko itxi nahi balit bezala!...

Konturatzen naiz konortea galtzen ari naizela.

Hau "bañera" egin didatenean ere gertatu izan zait, izan "didate!", baina komisaldegian banekien ni bizirik nahi nindutela salaketarako... Hemen berriz...

Hemen ur bihurtzen ari naiz, agian.

Konorte gabe geratu naiz, osorik, eta halere, bañeran ez bezala, hemen badakit galdu dudala, honek ezina badirudi ere!, eta oxigenoa nire sudurtzuloetan sartu beharrean, ura, ur gazia, garratza, mingarra, itsasoa!, hasi zait barruko bide bila... erreboltatzen naiz nonbaitetik, urrundik, borrokaria naizenez, baina ohartu naiz itsasoarekin bat egiteko ordua iritsi zaidala, eta uzten diot gizakiaren defentsari erortzen, bustitzen, Trinitatearen Lehen Pertsonak bere Bigarrenarekin egindako legezkoa den arabera; Bere borondatea, egin dadin...

Eta hemen bertan joan zait herstura!

Ongitasun berezi bat sentitzen hasi naiz. Berrira da hau. Oso goxoa den zerbait... Gorputza itotzen hasi zaidan une berean hasi zait dartada hau goxoki nere ariman ernetzen... ezagupidea izan dudanetik egin dudan ona eta txarra, hasieratik orain arte, pasa zait instante batean, burutik, garbi dago hori, txikikeriarik gabe gauza bi hodeien moduan agertzen zait ona eta okerra, onez betea dagoen hodei handi bat hor, eta gaiztakeriaz betetako beste hodei txiki bat... Judizioa da. Epaia da, sinpleki, hor inor ageri ez bada ere. Ez da ortze garbian ikusten ditudan bi hodeietatik aparte inor ageri. Baina argi dago ona handiagoa dela okerra baino... Epaiketaren ondoren, arima nire gorputzetik irteten ari zait, estuasunik gabe, burutik gorantz bezala, eta nere arima bera harritzen da, harritzen naiz!, goitik behera bere gorpua, nerean!, itsasoan ikusiaz... gora

eta gora noan une berean ikusten dut hau, ni ez bainaiz dagoeneko globoa bezala gora eta gora doan izpiritu hau besterik; eta paseo bat da!: Ulia mendia ikusten dut, eta gero, Kontxako badia, Santa Klara irla, Ondarretako hondartza... eta Igeldon dagoen dorreko parera heltzen naizenean..., hemen, oso goian dagoeneko!, amaitzen da zerbait!... Orain artekoa amaitu da: ezabatu da dena, inoiz ezer izan ez balitz bezala, hustu zait zeharo mundua! Orain arteko guztia, materiala zena, joan da, dena lurrean utzi izan banu bezalaxe... Izpiritu bihurtu da ingurune guztia: ez dago urik, eta, beraz, ez ibairik, ez itsasorik, dena Igeldoko dorretik mundua zurrupatu eta hustu bailitzan, eta orain ez dut gurasorik, ez seme-alabarik, ez emazterik... ezerrez... nire ametsetako aiton-amonak, denak desagertu dira, gauza bera etxeak, kaleak, hiriak, baserriak, basoak, mendiak... dena joan da, joan!... Eta nire arima pakean eta zoriontsu!, eta goian, zeruan edo, inoiz ikusi ez dudan argia, kolore harrigarri osatua, adierazi ezin dudan zerbait!!, eta dena instante bakar huts batean, denbora bera ere ezabatua geratu da, baina ez ordena, zeren eta gauzaguzti horiek bata bestearen atzetik joan zaizkit agertzen, edo desagertzen... zoriontsu ni... eta argi zoragarri horretan sartzen hasi naizenean, paradisuari sartzeko unea heldu denean...

Kolpetik gomazko axal beltz honetan gorputza sartzeko egiten ari zaizkidan presioa sentitzen dut...

Inguruan arrantzan ari ziren bi gazteek atera naute itsasotik...

"Ederra egin didate!!!"

Etxera neurez etorri naiz; ezkondua naiz eta bi haur eder ditugu; nire hogeitabederatzi urterekin familia polita eta maitagarria. Kontatu diot emazteari, baina hainbestekorik izan denik esan gabe; gertatutakoa eskapada serio bat bezalakoa, kotxe istripuak eta ustekabeko jauziak, denak grabiak, baina ongi irtenez gero, garrantzirik eman gabe gauzak kontatzen ditugun bezalako zerbait.

Horixe gertatu zitzaidan niri buzeatzen nabilela, eta kito.

Hamairu urte geroago, nere 45garren urtean nintzela zerbait irakurtzera oheratu eta emaztea oraindik sukaldean zegoela, lo geratzen hasi nintzen, konturatu nintzen loak hartzen ari nintzela... agertu zitzaidan garbi-garbi, inoiz ez bezala, pausoz-pauso, aspaldi jasan nuen gertakari harrigarri hura..., ernatu nintzen, eta, ui! esan nuen nire baitan, hau abixu bat duk! Honek esan nahi dik niri bisio baten moduan hitzegin nahi izan didala Jainkoak... Zeren eta... ni ez naiz beatu, ez sailduta horietako bat, ez! Nik beharra sentitzen dudanean, laguntza behar dudanean, hori bai, ba nik Jainkoagan dut fedea, eta harekin hitzegiten dut... Jainkoaz, zurekin ari naizen bezala hitzegiten dut... Eta hau batez ere nire mendiko ibilaldietan; hartzen ditut bi txakurrak eta irteten naiz; bakardadearen beharra sentitzen dut, eta paseo hauetan hitzegiten diot, baina orain zurekin bezala!... Eta itsasoan lehengo toki berean urpekariarenak jantzi eta itsas hondarretan parkean nabilenean...

Hau baita niretzat biderik zuzenena...

Itsas handi bada, hobe, itsas orroak entzuten ari naizela, orduan eta gustorago!...

Beti zerbaiten zain.

Maite dut bizia, familia, dena; harrez gero pozik bizi naiz, ez naiz urduri jartzen edo haserretzen, ez baitu merezi mundu honetako txikikerien mende jartzea! Dena da ederra eta!... Tximistak hasten direnean, sartzen naiz neronek etxaurreko baratzen egindako piszina txikian... emaztea haserretzen zait, baina ni neu, tximist kementsu horietako bat nire putzuxora eori zain..., "leku hartara" joateko desiratzen.

Batek galdetu zidan, ea azken gomutatze hau nola gertatu zitzaidan, amets bat izango zela, ea... ea!...

Eta ez!! Ez da inola ere... Ez da lagun horrek izatea nahi duena... Nik nire albunetik argazki bat atera banu bezalatsu izan zen. Neuk dagoeneko ongi erregistratua neukan nere albunetik, eta beharbada errebelatu gabe, negatiboan, neukana errebelatu banu bezala... Baina nire argazkia bera!, hori argi dago.

Hara, esan behar dizudana esan; nire misioa harrez gero hau baita.

Hauxe da pasa nahi izan dizudan mezua.

Honez gero, esan nahi dizut, nire lagun bat hiltzen denean ez dudala negar egiten, ezta normala den nire barrutiko atsekabe hori ere sentitzen. Poza sentitzen dut, zer nahi duzu! Ezin diot alargunari, ez umezurtzari, honi gutxiago!, une hartantxe nere poza agertu; ez, noski. Baina denboraldi bat pasa eta gero honetarako egokiera on bat suertatzen zaidanean kontatzen diot apalki niri gertatutakoa, ez baitut zergatik gorde niretzat bakarrik neuk ezagutzen dudan esperientzia eta ziurtasun zoragarri hau!

Batzuk ez didate sinistuko, badakit; zorotzat hartua ere izan nahiz, jaso izan dut isiltasunaren pisu astuna irazkin edo erantzun gisa; ni ez nintzen orduan haserretu, hau esan nion bakarrik: "Hi ni baino lehen joaten bahaiz, egin ieza dan seinale bat, edozer; nolabait jasoko diat; eta neu banaiz aurretik joateko zoriona duena, egingo diat keinu bat... heuk aise jasoko ez baduk ere, ez baituk sinesten.

"Halere, hire eguna iristen zaianean, esango duk hiretzat: 'Hara, zoro hark arrazoi zian'".

"Eta ez duk hemen, han, inon, ezer gertatuko, baina hi han izango haiz".

"Zorionak".

Bihotza golkoan

Nire alboan eseri zitzaidan emakumea.

Laster zen beste alderditik trebukan, gizon handi eta kaskazuri bat bere emaztea zirudiena atzetik zuela: "sientate aquí", agindu zion. Frontoia betetzen hasi zen gizakizko uholde hartaz; gu hirugarren bizitzako balkoian, sabaian, geundenez, mundua ikusten genuen han behean, pilotalekuan. Hemendik igotzen zitzaigun marmar lodia, zurrubilo eta guzti, eta beroa, odol beroko gizakiak sortzen ari ziren sargoia; kanpoan hotz, barruan labe. Gertuago ikusten genuen bigarren bizitzako balkoia ere leporaino betea zegoen; joaira gisa zetorren gora jendetza, eta gu geunden azken txokoa ere hartzen ari zen marea, denok garrasika, elkarri ulertu ezinik, berokiak kentzeko lanetan elkarri traba egiten. Ikurrin txiki bat irten zen nire ondoan, mutiko baten eskuetan flotatzen balego lez, eta ia begitik sartu zion makiltxo nire ezkerreko alboan eseri zenari, amonatxo beltzaren bat; esan nio haurrari, bost bat urteko mutikoa, kontuz egiteko gero!..., eta berehala esan zidan aho goxo batez anderean, ez arduratzeko, eskerrik asko... Begi beltz eta apalekesan zidaten, hitzak erdaraz irten zitzaizkion honetan, haurra berea zela, eta galdetu egin nion neuk erdaraz, eta: "Bai, biloba", esan zidan estreinatu berria zirudien euskararen orain, eta neuk ezer esateko astirik gabe, hark mutikoari zerbait esan zion belarrira, eta ikurrintxoia zeraman eskutxoaren gainean bere esku zimurra eta gorriluna maitekor ipini eta eskusa barruan zuen irripartxo bat bidali zidan niri, eta orduan esan: "Bihurri"... Une honetantxe hasi ziren bertsolariak taulatura igotzen, eta hara begira geratu zen ikuslegoa, denok gorputz bakar, trinko eta isil bat osatu begenu bezala, lau gizonak ezker paretari erantsita nola geratu ziren begira, horman kolatua zirudien ikurriña handiaren azpian.

Neuri ez zitzaidan amona hark esandako hitzaren doinua belarritik joaten.

Lehenengo bertsolaria lanean hasi zen bezain laster entzun nion beste alboko gizonak bere emazteari esaten: "Esos hombres son de la raza de bersolaris, hombres fuertes que no tienen miedo a nada, ¡te fijas que tranquilos y salàus!" Amaitu zuenean, denok bezala sutsu txalotzen ari zela bota zion goitik behera bertsolariari: "¡olé!", eta niri begiratu zidan buru zuri handiak, eta neuk sinpatiazko keinuz baietz esan nion... eta nire baitan pentsatzen... hau fenomeno berria zela; gizon honek ez zuen ezer ulertzen, ez zen, noski, bertan jaioa ere, baina onartzen zuen geure muinetan itsasita genuen euskaraganako maitasuna, eta hori esan nahi zuen seguraski, kanpotarrak izanik ere, denen herri bilakatu denaren eskubidea onartzen zuela. Hau berria zen. itxaropentsua!... Zerbait galdetu nahi nion, bainaez nuen mindu nahi, noski; eta hizpidearen bila nenbilela, gizontzarra bera aurreratu zitzaidan: "Hemos venido de Baracaldo en autobús... Hay mucha gente, ¿no es verdad?" Neuk, baietz, eta pozten nintzela hemen ikusteaz, Tolosaraino etortzeko egin zuten sakrifizioa... "Hitzaldi askotara joaten gara", esan zidan andaluziako erderaren grazia gozoaz, "joan den egunean Baionarainoko bidaia egin genuen... hura ez da Frantzia, e!... han ere euskaraz egiten baita..."

Bertsolarien saioak amaitu zirenean eman zitzaien hasiera hitzaldiei, eta bata bestearen atzetik esaten zirenak txalotzen zituen gizonak, baita bere eskuinean zeukan bere emazteak ere.

Miresgarria zen niretzat neure inguruan ikusten, eta sentitzen, ari nintzena.

Nire ezkerretan neukan amonari begiratu nion, aspaldi ahaztuxea bait neukan. Haurraren faltaz ohartu nintzen lehendabizi, ez bainuen ikurrintxoia ikusten; baina gure aurreko lerroa salto egin eta ausarki balkoitik irten eta ikurriña ezker-eskuin mugitzen ari ez zen bada!!...; ez zen amonaxoa konturatu!!... eta begiratu nionean arnasestu batean zegoen!!... Galdetu nion erdaraz ea zer zuen. Ez zen erantzuteko gauza!... bere begi beltz larriekin esan nahi zidan itotzen zegoela!... Beroa zen, seguraski... bere ondoan bestaldetik zeukan bikotea ere orduan konturatu zen larrialdiaz eta gazteak lagundu zidan anderea hartu eta jendarte hertsia hartatik goiko lerroan irekia zegoen sabaileiho hartara eramaten. Laster hasi zitzaion arnasa lasaitzen; begi bizi haietan ikusi genuen hobeto zegoela. Atzetik norbaitek esan zigun, lipotimia bat zela, ez arduratzeko, pilotalekuan, han behean, gertatu berria zela kasu bera, eta andrea ez zutitzeko, horizontalean edukitzen ahalegintzeko... Eta, bai, emakumearen aurpegia zuri-grisetik bere beltzaranera itzultzen hasi zen... Ez zuen anderetxoak ezer pixatzen, txikia zen, eta argala oso. Haurraz: ";Jon!", galdetu zuen berehala, jauzi batez...

Mutikoa berean zegoen oraindik, ezertaz ohartu gabe, baina amonaren deiarra entzun bezain laster hurbildu zen jendartetik: "Amona!..."

Neuk esan nion amonaxoari hobe izango zela jendalde hartatik irtetea, ea nondik etorri zen, nongoa zen. Neuk pentsatu nuen autobusez kanpotik etorritakoren bat zela, gizontzarra bezala, baina: "Gorosabel kalean", esan zidanean jakin nuen Tolosan bertan bizi zela; halere, galdetu egin nion hau ziurtatzeko, ea herrian bertan zen, eta baietz.

Kosta zitzaigun frontoitik irtetea; eskailerak ere jendeak hartuta baitzeuden. Amona bere bilobatxoarekin eskutik eta ni, hirurok, pausoz-pauso jaisten hasiak ginen bitartean ari nintzen pentsatzen nolatan, gero, horrelako bilkurak eratzen dituztenek hain irtenbide estuko barrutiak aldarazten ez dituzten, oso arrisku larriak sor baitaitezke.

Honelakoetan, aurkako jarrera batek, tiro batek, edozer motako mehatxuak, eragin dezakeen izuak ondorio ikaragarriak sor baititzake!

Azkenean irten ginen.

Hotz egiten zuen! Jantzi erazi nizkien besoetan zeramatzaten berokiak, eta horretan, laguntzen ari nintzela esan zidan amonak, Eujenia anderea, orain badakit izena, eskertzen ninduela bihotzez, bihotz handiz, baina berez joango zirela etxeraino... Eskutik zeraman bere biloba, ikurriña gora eta behera, "Eusko gudariak gara" abesten zihoan, hitz eta guzti gero!... Etxea urrun al zegoen galdetu nion, eta ezetz, oso hurbil... Baina ez nekien egia esaten ari zen ala ni neu ez arduratzeagatik, edo etxera bakarrik agertu nahi zuelako ote zen, ez bait nuen neuk amonaxoa osorik suspertu zenik ikusten; zangoak makal eta baldar botatzen zituen oraindik... eta besotik hartu eta etxeraino lagundu nahi niela esan nion, laguntzen uzten bazidan, noski... Baiezkoa erraz eman zidan, eta berak gidatu beharrean, mutikoa izan zen euskaraz zuzendu ninduen; eta, egitan, bizilekua oso gertu zegoen. Agurtu ere egin nituen etxeko atarian, eta Eujenia andereak eskerrak emanez eskailerak gorantz hartzen hasi zenean, ia erori zen, haurrari esker ez zen jauzi, hau ikaratu zen!, eta mutikoak berak, Jonek, eskatu zidan amonari

laguntzeko, mesedez. Bigarren solairura iritsi ginenean, atea jo beharrean ateaurreko lanpas marroiaren azpitik hartu zuen haurrak giltza, amonak ireki zuen atea, eta niri eskatu zidan, mesedez, han nengoenez gero, sartzeko, sartzeko zertxobait hartzera, hain lagunkiro portatu nintzela eta... Hala sartu ginen hirurok etxebizitzara, sabai behe eta leiho txikiak... oraindik arratsaldea argi bazegoen ere behar zuen Eujenia andereak korridoreko argia piztu, eta sukalderraino zihoala ikusten zen barne-bidetik aurrera jarraitu beharrean, ezkerretara zegoen sala txiki eta txukun batera sartu zen aurretik, eta niri eskatu, mesedez, sartzeko. Salatxoan zegoen besaulki gorri batean eser erazi ninduen, zegoen bakarra, eta amona bera mahaitxo baten inguruan zeuden lau aulkietatik bat hartu eta eseri zitzaidan aurrez-aurre.

Haurra irten zen norabait, eta biok geratu ginen.

Neu, leihoaren ondoan nengoenez, ikusi nituen argazki batzu armairu behe baten gainean, baina amonaz arduratu nintzen, aurpegi hobea ikusi nion, farretxo batekin erantzun zion nire ardurari, eta zerbait esatearren horixe esaten diot orain.

"Bai, pasa zait. Hala ere ez nabil ondo, tentsioa dut oso goia", esan dit erdaraz.

"Zaintzen al zara?"

"Zaindu... bai, baina urteek ez dute barkatzen... lan asko egina naiz neu, eta eskerrak herritik irten eta honeratu ginela... Zeuk ez dakizu, gazteagoa zara eta, baina gerrondoko garai hura oso tristea izan zen guretzat. Gaztelako herrixka batekoa naiz ni... Toledo inguruan dagoen La Puebla herriaz izango duzu aditza, noski..."

Neuk esetz...

"Honek ematen dit amorrua, nire herriaz inori hitzegin behar diodan bakoitzean, gauza bera gertatzen zait, ezin dut nongoa naizen adierazi... garai barean norbaitek txiripaz, eta zorionez, aurkitu bazuen ere... Baina noan nirera: Las Aparecidas herrixka, La Puebla inguruan dago, hamabi etxeko auzoa dela esatea zuzenago..."

"Nola esan duzu norbaitek aurkitu zuela?..."

"Bai, eta bada honetaz berrogei urte, zein zaharra naizen!, badira hainbeste, bai, agerkunde hura jazo zenean neuk hogeitazortzi bete berriak nituen eta..., ba... goiz batez, ostirala zen, autobus bat agertu zen, ez zen inoiz kotxerik iritsi haraino, erreka bat pasatzeko zubitxo falta zen eta, baina autobus zahar eta zatatsua hura, bai!, denok ikusi genuen bertora heldu aurretik... mendixkaren magal hartatik ibairainoko guztia ikusten baitzen, eta gainera, lehen seinalea motortzarraren zarata hegoak ekarri zigunez, ikusi ahal izan genuen hautsez osatutako behe laino hura gorantz zetorrela; oraindik herrian geratzen ginenok, denok, hogeitabostak, han ginen elizatxoaren aurrean, plazan, autobus orlegia heldu zenean, zain. Han hasi ziren gure aldaketak!...", eta anderetxoaren begi beltzak nire ondoan dagoen leihotik kanpora begira daude...

Kaleko kotxeek egiten duten zarata entzuten bailegoen.

Eta nire harridura aurpegian ikusteak pizkortu balu bezala jarraitu zuen... Autobus hartan hiru pertsona heldu zitzaizkigun: txoferra, Antolin zuen izena, gero ezagutu nuen hemen, hila da aspaldi; Kasimiro, enkargatu gisa egiten zuen gizon handi bat praka laburtxoekin, eta nagusia zirudien, eta zen!, beste bat, dotore jantzia hau, gorbata eta guzti, don Arturo. Izen hauek gero ezagutu genituen, noski, baina ordukoa da zuri kontatu nahi dizudana; hirurak jaitsi zirenean, enkargatua zirudien hark galdetu zuen ea apaiz jauna non zen. Lehen esan dizut herriko guztiak han ginela, baina egitan apaiza,

don Jenaro, falta zen; bailarako hiru elizen ardura zuen, eta egun hartan hileta batera deitua izan zen, Loa Altos-era hain xuxen. Nekatuak zeuden hiru gizonok, eta zakar samar galdetu ziguten ea noiz itzuliko zen, harentzat eskutitz bat zekartela eta. Honelako irteeretan bazkaltzera etxera etortzen zen beste elizetatik, hemen bizi baitzen, eta hau esan genienean, piska bat lasaitu ziren, eta non jan zezaketen galdetu zuten. Erramonaneko tabernan ez zen garbiketa handirik izango, alarguna eta zahartxoaren, baina janaria ongi prestatzeko gai zenez eta herrixkan besterik ez, neronek lagundu nien bertara...

"Eta, hala... baso bat ardo hartuko zenuke, edo kafetxo bat, bederen", esaten dit andereak, lehenago eskaini ezak bapatean arduratu balu bezala...

Neuk ezetz esan diot, eskertzen diodala eskaintza, eskerrik asko, eta jarraitzeko, mesedez.

"Ba halaxe gertatu zen; haiek bazkaltzera eta geu geurean geratu ginen, zertara etorri ote ziren elkarri galdezka, oso urduri, ez zuen inork otorduaz pentsatu ere... Gure gizonetako batek galdetu omen zion, ausartu zen, halere, enkargatua izango zenari, eta honek hala esan omen zion: egoteko etxean, ez inora joateko, gero zerbait esan behar omen zigutela eta... Ez genion sinetsi, Luis oso bromosoa zelako, eta alferra, eta, gainera, nork beharko zuen lanerako gu bezalako ezjakinik!... Geuk lana-lana, bai, gure lur gogorreko mokorrak apurtzen eta lehorte eta ur falta hartan eta guzti han bizi ginen putzu baten inguruan; baina ura, egia esan, ez zen bizitzea, bizirik irautea baizik.

"Besterik ez genuen ezagutzen eta".

"Apaiza hiletatik itzuli zenean, norbait, Ximun, ezizenez 'Errena', etxeko teilatuan igota zai zegoen, eta adierazi zigun keinuz bazetorrela! Eliz aurrean aurkitu gintuen don Jenarok. Harritu zen! Esan genion arineketan zer gertatzen zen. Jaitsi zen mandotik, eman zion brida 'Errena'ri eta besterik gabe joan zen Erramonarena. Geu, larrainean eseri ginen, aieruak ausnartzen. Ordu bete gero irten ziren denak eta elizara sartzea gonbidatu gintuzten, hogeitabost ginen, esan bezala, ez bait dira horrelako numeroak berehala ahaztutzen.... Eseri ginen aurreko, lehen jaunartzea bailitzan!, isilik oso; don Jenaro ez zen igo, bestetan itzaldia edo oharren bat egin behar zigunean bezala, pulpitora; oso formala baitzen!, eta ez zen, bestetan beti bezala, "Ave Maria Purísima" esanez hasi, baizik eta labur-labur, herrira etorri ziren jaun horiek... atzeko aulkian eseri ziren hirurak, ikusten genituen atzera begiratzen genuen bakoitzean!... -parra irten zitzaion orain amonatxoari, ez dakit zergatik- langile bila zetozela Baskongadetatik, neuk ez nekien non zeuden ere, eta berari, don Jenarori, ekarri ziotela eskutitz bat hango beste apaiz ikaskide batek bidalia. Honek esaten zionez, han..., hemen, alegia!, Euskal Herrian!, bazegoela lanik, ongi ordaindua eta etxe bizitza ere bai, ur, komun eta guzti!, gizonen bere familia guztia berekin eramanez zezaketen, aukeran. Baina, hori bai, baina gaur bertan edo bihar beranduen irten behar genuen, goiz hartan heldu zen autobusean.

"Bere lana hor amaitzen zela. Hortik aurrera, familia bakoitzak bere gain hartu behar zuela erabakia eta erantzunkizuna, gizon ahuekin zuzenean hitzeginez. Bidaia hura egitea erabakitzen zutenek ez zutela herrian uzten zituzten ondasunak, moble, tresna, animalia eta abar, galtzen; animalia hauen ardura zen handiena, baina norbait geratuko al zen hauek zaintzeko, gozamen truke... Hau bakoitzaren arazoa zen. Eta herrira itzultzen zirenean, itzultzeko erabakia hartzen zuenak, betiko edo

oporraldian... han oporrak ematen zituztela eta, urtean behin ematen zirenak, luzeak, eta jai handietan bizpahiru egunekoak ere bai".

"Orain zeuek erabaki, eta zoriona opa dizuet...". Honela amaitu zuen.

"Eta zer erabaki zenuten?"

"Gorabehera handiak izan genituen hurrengo egun arte gauzak erabakitzeko; zaila zen bapateko hura! Lorik ez genuen egin azken gau hartan; oso baitzen ordu txarreko, itsumustuko, aukera! Azkenean bi familia irten ginen: geu, astoak aurrera!, senar-emazteok, bederatzi urteko alaba eta bi semetxo, hiru eta lau urtekoak... Horiengatik hartu genuen batez ere gure erabakia, Haurren etorkizuna han hobe, hemen! esan nahi dut, izango zelakoan; eta gurekin batera, Seroraneko familia, bere senarra, Manuel, lanean hasteko moduan zeuden bi semeekin; denera, bederatzi.

"Autobus hutsa!, esan nion.

"Las Aparecidas-etik irten zenean bai, baina gauza bera egin zuten bideko beste lau herrietan, eta azkenerako ondo kargatu zuten, denera berrogeitamar pasaiak heldu baikin Tolosara; neka-neka eginda, zortzi egun autobus gogaikarri hartan!...; beno, aurrena Legazpira eraman gintuzten, han geratu ziren erdiak baino gehiago, eta gero hona, hemen jaitsi ginen gu, eta hemen gaude harrez gero... Zer iruditzen zaizu?", galdetu dit nire harridurari so.

Gaztetu egin da amona zaharkin haiek berritzean.

Ni neu bertokoa izan eta ez nekien honelako espediziorik eginzenik; ia ia Ifar Ameriketako mendebalean gertatua zirudien, euskal western bat!

"Adizu, eta zure familia, non duzu?"

"Nire senarrak hemen hogeitamar urtez igeltsari bezala lan egin eta gero hil zitzaidan, gizarajoa, ondoen geundenean, jubilazioaren zain eta..."

"Ez al zarete herrira itzuli?"

"Bai, noski!; maiz joaten gara. Honeratu ginenean uste izan genuen munduz aldatu ginela, baina geroko joan-etorrien poderioz distantzia laburtzen joan zitzaigun, eta orain asteburuko jai batzu pasatzera ere joaten gara. Han jaio ginen! Hemen pozik bizi bagara ere, hura da gure herria, Las Aparecidas, nire ama eta nire senarra zenaren gurasoak hango kanposantuan daude ehortzita... Egia da, bestalde, nire alaba, lehen Josefa eta orain Josebe, hemengo egin zela, hau da gehien hemengotu dena; euskaldun batekin ezkondu zen, bizkaitarra da, eta seme-alabak ikastolan dabilta, familia euskalduna eraiki dute. Gure seme zaharrena, Koldo, gartzelatik pasea da, ulertzen didazu... asko sufri erazi digu, baina gizondu da eta ongi ari da gaur lanean Pasaian, mekanikoa da..."

"Euskararik ikasi al du?"

"Bai, neu ez beste guztiak, eta difuntua salbu, beste guztiak euskaldunak dira gaur..."

Eta nigarrez hasten zait.

"Zer duzu, gero!", esan diot; urduri jarri naiz, nire jakinminak eragindako oroitzapen hauek kalte egin ote dioten.

"Falta zaidana ere euskalduna zen, fina, Jon, mutikoaren aita, izen berekoa, tiroz hil zidaten mugan orain bi urte..."

Eta Jonen emaztea, alarguna, da etxean geratu zaizuna?"

"Hau gartzelan dago oraindik..."

Neuk ez dut gehiago galdetu nahi, eta isilik geratu naiz amona lasaitzen den bitartean. Leihotik begira jarri naiz, neroni ere hunkitua bainago.

Amona baretu denean, utzi egin diot lehenengo hitza berak esan dezan.

"Orain eroso bizi naiz nire senarraren erretiroarekin; semea falta zait!; alaba eta beste bilobak maiz ikusten ditut; semea eta bere familia ere bai, Pasaiatik hona kotxez orduerdia besterik ez baita... Hitzaldietara ahal dudan guztietan joaten naiz, Jonen izenean egon nahi dut herri honen hizkuntza eta askatasunaren alde; ez zait politikaririk axola; ez dut horretaz ezer ulertzen, bestalde, baina joaten naiz nire bilobarekin ahal dudan bilera guztietara, batez ere Tolosakoetara, noski, Jonen alarguna ikustera joaten ez garenean".

"Barkatuko al didazu eman dizudan molestiatatik, baina hunkipenak eraginda gaisotu naiz arestian, frontoian; nire bilobatxoak ikurriñarekin balkoitik irtenda arrisku hartan ikusi dudanean... Egia da bero ere egiten zuela, baina bestetan ere gertatu zait gauza bera horrelako esturak eraginda. Tentsioa dut igoa oso; hartzen ditut pastilak, baina nire golkoan daramadan bihotza dut gaiso aspaldi, Jon etxe honetatik eraman zidaten gau beltz harrez gero".

Amonatxoak ekstasian dirudi, nire buruaren gainetik eta leihotik zehar urrun ikusten den mendi punta bati lotuta... Bainaegin du buelta, itzuli da, ez dakit nondik!, eta irripartxo batez zerbait esan nahi didala... beste zerbait entzun du; neuk ez, baina hark bai; jaiki da eta leihora hurbildu da esanez: "Ilobatxoak kalera alde egin dit!...", eta halaxe da, neuk ikusi dut, amonatxoaren ondotik, "Jontxu!"... deitu dionean nola mutikoak begiratu duen gora eta esan dion: "Honek ikurriña kendu nahi dit, amona!", beste mutiko batekin ari baitzen, borrokatxoan edo, eta orduan Eugenia amona irten egin da gelatik, esanez, "Barkatu, banator...", eta neu leihoan geratu naiz, amona behean ikusi zain... baina ez da kalera irten, eta dagoeneko mutikoak utzi dio ikurriña heltzeari, eta neronek esan diot leihotik bilobari: "Zatoz, igo etxera, amona bidean duzu!", eta ikusi dut mutikoa etxera sartzen sototik, eta zain geratu naiz noiz igoko, eta hor datoz pausoak gorabidean, eta ni neu hurbildu naiz korridoretik ateraino, bilobatxoari zerbait esateko, ez dela horrelakorik egin behar, kalera bakarrik irten, hainbeste auto dabilen tokira, eta mutikoa igotzeko pausuak isildu direnez gero, eskailerak jaisten hasi naizenean, hor dator mutikoa bere ikurriñarekin, eta esaten dit mailartean: "Jo, eserita geratu da amona, ez du igo nahi...", eta bapatean neuk egin dut jauzi bat eta eskaileraren lehen tarteunean hemen dago Eugenia, amonatxo, ez eserita, ahozpez erorita baino... Hila dagoela iruditu zait, eta hartu dut besotan eta igo dut, gorpu den hau!, izuturik nago!!, eta gela bateko ohean etzan dudanean, ez da mugitu; hots bat, zerbaiten esperoan nago!!.... baina utzi dudan bezala geratu da, geratu zait!... betiko isilik, begiak irekita, espantu bati begira bezala...

Orain konturatu naiz egitan mutikoari amona hil zaiola.

Martin Ugaldereen datak eta datuak

- 1921.** Gipuzkoako Andoainen jaiotza.
- 1934.** Aita zinegotzia EAJ alderditik.
- 1936.** Francoren Altxamendua. Familiarekin Bilbora ihesi.
- 1937.** Anaia txikia Errusiara.
Aita Asturiasera, gudariekin atzeraka. Muselgo portutik arrantzuntziz Frantziara ihesi. Merkantzia bagoitan itxita Catalunyaraino.
Martin Frantziara amarekin, Château Chinon-era.
- 1938.** Donibane Garazin urtebete, handik Lohitzunera.
Ikasketak jarraitu Zumalabe, Barandiaran eta hainbat irakasle errefuxiaturekin.
- 1939.** Aita Bordelen untziratzen da Venezuelarantz.
- 1940.** Alemanek Frantzia hartzen dute.
Martin Hegoaldera dator bakarrik dagoen amarengana. Astero azaldu behar du Guardia Civilean. Lanik eza.
- 1942.** Marrucosera daramate soldadu.
- 1945.** Soldadutza amaitzen du. Ezin du amarekin Venezuelara abiatu.
- 1947.** Estatu Espainoetik irtetzeko baimena lortzen du.
Anaia gaztea ekarrerazi du aitak Errusiatik.
Familia osoa biltzen da Caracasen.
Burdinkiak eta elektrikagailuak saltzen ditu herriz herri.
- 1948.** *Elite* izeneko astekarian erredakzioburu.
Caracasako Eusko Gaztediren sortzaile eta lehendakari.
Centro Vasco lehendakari.
EAJ kanpoko batzordeko lehendakari.
Eusko Gaztedi eta Euzkadi aldiakarietan zuzendari.
- 1952.** Ingelesa ikasten du Michigan-eko Unibertsitatean
New York-era aldatzen da. Mario Salegi eta Jesús Galíndez ezagutzen ditu.
Erreportaiak idazten ditu *Eliterako*.
- 1954.** Caracatera osteratua, Creole Petroleum Corporation-en *Nosotros* aldizkariko zuzendari.
1955. *El Nacional* egunkariak antolatutako Narrazio Laburren Lehen Saria: *Un real de sueño sobre un andamio*.
Anamari Martínez Urreiztieta santurtziarrarekin ezkontzen da.
- 1957.** *Un real de sueño sobre un andamio*, ipuin bilduma.
- 1958.** *La semilla vieja*, ipuinak.
- 1960.** Bi urte Northwestern University-n. Master of Science.
- 1961.** *Iltzalleak*, ipuinak.
- 1963.** *Cuando los peces mueren de sed*, erreportaiak.
- 1964.** *Las manos grandes de la niebla*, ipuinak. Izen bereko ipuinarekin Madrideko Premio Sésamo irabazia du.
Ama gaxo dago, antzerkia.
- 1966.** *Unamuno y el vascoence*, saiakera.
Sorgiñaren Urrea, haurrentzako ipuinak argitaratzen ditu Zarauzko Itxaropenan.
Zeruko Argian hasten da kolaboratzen.
- 1967.** Irakasle Universidad Católica de Caracas-en.
- 1969.** Euskal Herrira dator, Hondarribira.
EAJren *Alderdi* izeneko aldizkari ofiziala eta klandestinoaren zuzendari.
Euskara estandar baten behararen inguruko eztabaida gogorak *Zeruko Argian*.
Ugaldek euskara batua onartzen du.

1971. Ajuriagerrak, EAJ ko buru, erbesteko Eusko Jaurlaritzako konseilarirako hautatzen du Joseba Rezola hil berriaren ordeiz.
1973. Espainiako poliziak deportatu egiten du. Donibane Lohitzunen hartzen du egoitza. *Itsasoa ur bazter luzea da*, bere lau ipuin euskaratuak.
Euskaltzain izendatzen dute.
1974. *Hablando con los vascos*. Barandiaran, Michelena, Ibarrola, P. Arrupe, Isidoro de Fagoaga eta Ramon de la Sotari eginiko elkarrizketak.
Síntesis de la Historia del País Vasco.
Tres relatos vascos. Bertako *El mar es una orilla muy larga* Madrideko Café Gijón sarian finalista izan da.
1975. *Las brujas de Sorjín*, nobela, Euskal Herriaren borrokaz.
1976. Franco hil eta urtebetera etortzen ahal da Hegoaldera berriz.
1977. Euskaltzaindiaren *El libro blanco del euskera* zuzentzen du.
1978. *Deia* egunkariko euskarazko taldearen erredaktoreburu.
1979. Nafarroak eta Baskongadak estatutu bana.
1983. Kultura Sailako Euskarazko Arazoetarako Zuzendaria Eusko Jaurlaritzan.
1985. Utzi egiten du Jaurlaritza.
1985. EAJ banandu egiten da. Garaikoetxeak EA sortzen du. Martinek utzi egiten du 38 urtetako militantzia alderdi berrian sartzeko.
1984. *Mantal Urdina*, ipuinak.
1985. *Iltzalleak* bildumaren bigarren argitalpena (Hiltzaileak).
1989. *Lezo Urreiztieta*, biografia.
1990. *Euskaldunon Egunkariaren* administrazio kontseiluko lehendakari.
Bihotza golkoan, ipuinak.
Batasun eta zatiketen artean, artikulu bilduma.
1991. *Egunkaria*, euskarazko lehen egunkaria kaleratzen da. Arduraduna izateaz gain, bertan idazten du.
1992. *Itzulera baten historia*, nobela.